Beasain

errepublika-garaian
durante la Segunda República

II. Liburukia
Volumen II

Jon Kortazar
Deustuko Unibertsitatean Historian lizentziaduna, 2007. urtetik historia eta arkeologiarekin zerikusia duten ikerketa-lanak burutzen dihardu Aranzadi Zientzia Elkarteko kide bezala. Honez gain, UNED-eko Ikerketa Historikorako Metodo eta Teknika Aurreratuak masterra ere eskuratu du.

Licenciado en Historia por la Universidad de Deusto, desarrolla trabajos de investigación histórica y arqueológica como miembro de la Sociedad de Ciencias Aranzadi desde el año 2007. Paralelamente ha completado su formación mediante la realización de un máster universitario en Métodos y Técnicas Avanzadas de Investigación Histórica (U.N.E.D.).

Babeslea
Patrocinador

Beasaingo Udala

BEASAIN: OROIMEN HISTORIKOA

BEASAIN errepublika-garaian

Durante la Segunda República

Jon Kortazar Billelabeitia

Beasain 2018

aranzadi

zientzia elkartea

PROIEKTUAREN KOORDINAZIOA / COORDINADOR DEL PROYECTO
Mikel Edeso, Juantxo Agirre-Mauleon

IKERLARI KOLABORATZAILEAK / INVESTIGADORAS COLABORADORAS
Rebeca Martínez (Aranzadiko historialaria / Historiadora de Aranzadi - Archivo Militar de El Ferrol),
Cristina Martín, Marijose Hernández (Antropologia Fisikoko Saila / Departamento de Antropología Física - Aranzadi),
Anais Rodriguez (Artxiboa / Archivo - Aranzadi).

ESKERRAK / AGRADECIMIENTOS
Ikerketa lan honetan parte hartu duten herritar guztiei, bereziki Beasaingo oroimen historikoaren taldeari.

AZALEKO ARGAZKIA / IMAGEN DE PORTADA
Publicada en: LABORDE, Fernando eta GARCIA, Martin: Beasain 1900-2000: Cien años de Historia en Imágenes. (Beasaingo paperak bilduma, 9. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 2001.

EUSKARAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN EUSKERA
Andoni Sarriegi

GAZTELANIAZKO EDIZIOAREN ARDURADUNA / RESPONSABLE DE LA EDICIÓN EN CASTELLANO
Karlos Almorza

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. Zorroagagaina 11. Donostia-San Sebastián 20014. Tfnoa.: 943466142. www. aranzadi.eus

Egilea/Autor
Jon Kortazar Billelabeitia

Itzulpena/Traducción
Saretik Hizkuntza Zerbitzuak, UZEI, Logika Itzulpenak.

Maketazioa/Maquetación
TamTam S.L.

Imprimatzen du/Imprime
Leitzaran Grafikak S.L.

ISBN 978-84-947343-3-5 (O.C.)
ISBN 978-84-947343-5-9 (2. libk - Vol. II)
L.G. / D.L. SS 1120-2018

Aurkibidea

AURKEZPENA.....07

1. BEASAIN ERREPUBLIKA GARAIAN.....11

1.1. 1931ko apiril-maiatzetako hauteskundeak Beasainen.....12
1.1.a) Hauteskunde-aurreko giroa eta hauteskunde-prozesua.....12
1.1.b) Hauteskundeak Gipuzkoan eta Beasainen.....15

1.2. Udala eta udal-politika Beasainen.....22
1.2.a) Alderdi politiko ezberdinak Beasainen.....27

1.3. Krisi ekonomiko-industriala Beasainen.....47
1.3.a) Demografia-arloak.....47
1.3.b) Beasaingo Udalaren eta eragile ezberdinen erantzunak krisiari.....51
1.3.d) Langileen mobilizazioa eta agitazioa.....57

1.4. Euskal Herriaren bilakaera politikoa II. Errepublikaren lehen urteetan: Autonomiaren inguruko eztabaida.....64
1.4.a) Alderdi ezberdinen ikuskera autonomiaren aurrean.....64
1.4.b) Estatutu proiektu ezberdinak.....69
1.4.d) 1931ko ekaineko hauteskundeak.....74
1.4.e) Lizarrako Estatututik hiru lurraldeetako Estatutura.....78
1.4.f) Azken txanpa.....88

1.5. 1934ko gertakariak Beasainen.....96
1.5.a) 1933ko hauteskundeak. Eskuineko Gobernu berria.....96
1.5.b) 1934ko udalen mugimendua.....104
1.5.d) Beasaingo Udal gobernu eskuindarraren Gobernu ekintza.....109
1.5.e) 1934ko Iraultza Beasainen.....111

1.6. Beasaingo elkarteak eta zerbitzuak.....129

1.7. Euskararen egoera.....149

1.8. 1936ko hauteskundeak eta horiek Beasainen izan zuten eragina.....149

1.9. Gerraren hasiera.....164

2. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA.....321

Beasaingo Loinazko San Martinen plaza 1924an berritu eta 1980ko hamarkadara arte horrela iraun zuena. Udaletxea, Eskola publikoa eta maisu maistren etxea, azpian Musika bandaren aretoarekin.
(Argazkia: FL/MG, 77. or.).

Aurkezpena

Gipuzkoako oroimen historikoa berreskuratzeko ahalegin horretan, Gipuzkoako Foru Aldundia hiru irizpide ari da aplikatzen: egia, justizia eta erreparazioa. Egiari dagokionez, zalantzarik gabe, gure lurralde historikoa erreferente ari da bihurtzen bertako taldeen eta udalen laguntzarekin egiten ari garen tokiko ikerketa ugariak direla eta.

Ikerketa horiek ez dira historiako liburu soilak; eskubideen urraketa jasan zuten pertsonengana, bertako herritarrengana, iristen saiatzen ari gara. Horregatik, Gerra Zibilaren eta lehen frankismoaren baitan 1936 eta 1945 artean gertatutakoaren inguruko ikuspegi orokorra dugun arren, beharrezkoa da tokiko esperientziak sakontzea. Gertakari horiek ezagutzeko lanean aurrera eginda, egiara gerturatuko gara eta, hain zuzen ere, horixe da gaur egungo gizarteari eskain diezaiokegun erreparazio-elementu nagusia.

Amaitzeko, egindako ahalegin handia dela eta eskerrak eman nahi nizkioke Beasaingo Udalari, baina baita hemen argitaratutako ikerketan era batera edo bestera parte hartu duten pertsona guztiei ere.

Maribel Vaquero Montero
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia



BEASAIN
Errepublika-garaian

1.

Garai hartako Zubimuzu plaza, herritarrek *Plaza txikia* edo *Arrain-plaza* deitua.
(Argazkia: FL/MG, 92, or.).

BEASAIN
Errepublika garaian

1.1 1931ko apiril-maiatzetako hauteskundeak Beasainen

1.1.a) Hauteskunde-aurreko giroa eta hauteskunde prozesua

1931ko udal-hauteskundeek monarkiaren erorketa ekarri zuten, zalantzarik gabe. Hala ere, hauteskunde haiek, Primo de Riveraren Diktadura erori ostean gertatutako prozesu baten barnean ulertu behar ditugu. Izan ere, apirilaren 12rako deituak izan ziren hauteskundeak ez ziren erreferendum moduan deitu, udal-hauteskunde gisa baizik, nahiz eta geroago erreferendum baten itxura hartu eta erreferendum baten eskaera izan; Alfontso XIII.a erregeak alde egitea eta Errepublika jartzea ekarri baitzuten.

Erregimen monarkikoa, Primo de Riveraren Diktadura erori ondoren, oso ahul zegoen, ia erortzeko moduan. Gobernuburu berriak, Damaso Berenguer jeneralak, monarkia parlamentariora itzultzeko proiektua zuen, baina oposizio indartsu eta antolatu batekin topo egin zuen. Oposizioa, errepublikanoz, sozialistez eta katalan nazionalistez osatua zen; indar horiek, 1930eko maiatzaren 14an Donostian, Garibai kalean bildu ziren, eta adostasun bat lortu zuten “Errepublika jartzeko helburu bakarrarekin ahaleginak elkartzea”. Horretarako Batzorde Iraultzaile (Comité Revolucionario) bat sortu zuten, eta bere helburu bakarra “Errepublika jartzea” izan zen. Bilkurako buru Fernando Sasiain Donostiako errepublikano federal historikoa izan zen, geroago Donostiako alkate izan zena. Bilkura hori oso adierazkorra izan zen, izan ere, bertan bildutako politikari batzuk, monarkikoak eta gainera goi-mailako politikariak izan baitziren. Hala ere, bilkura hartan hutsune handi bat izan zen: euskal abertzaleena. Birbateratutako EAJ ez zen bilkurara azaldu, arrazoi asko aipatu izan dituzte historialariek hutsune hori azaltzeko, batez ere EAJ berrantolaketa-prozesuan egon izana, eta beraz, prozesu horren eztabaidan ez nahasteko aliantzarik egin nahi ez izana, indar errepublikanoen laikotasuna, zeinak EAJren orduko konfesionaltasunarekin talka egiten zuen, eta azkenik, EAJk Espainiako politikarekiko zuen urruntasuna, bertan ez sartzea nahiago baitzuen, helburu abertzaleengandik desbideratzea ekar zezakeela-eta. Modu batean ala bestean, akats estrategikoa izan zen hori eta Autonomia Estatutuaren onarpena atzeratu egin zuen. Katalan Estatutua 1932rako onartua izan zen, Euskal Estatutua onartzeko 1936 arte (gerra hasi arte) itxaron behar izan zen. Atzerapen hori azaltzeko hainbat faktore daude, beste batzuen artean euskal alderdien adostasun-falta; baina euskal abertzaleak Errepublika jarri zutenen aliantzan presente ez egotea galga nabarmena izan zen: “Euskal Autonomia” eta “Errepublika” kontzeptuak bereizita agertu baitziren Errepublika sortzean. Kataluniako Estatutua, aldiz, Errepublikaren parte osagarri bezala hartua izan zen, berehala onartu beharreko gisa, eta indar errepublikanoek hala ulertu zuten; Euskal Estatutua “eztabaidarako gai” bezala hartua izan zen.

Donostian bildutako Batzorde Iraultzaileak Errepublikaren alde prestatu zuen lehenengo ekintza, 1930eko abenduan sindikatuekin batera greba handi bat egitea izan zen. Greba abenduaren 15erako prestatua bazegoen ere, abenduaren 12an Aragoiko Jaka herrian, militar ezkertiar talde bat, Fermin Galán eta Anjel García Hernández (azken hau euskal herritarra, Gasteizkoa) kapitainak buru zirela, Errepublikaren alde altxatu zen. Altxamendu hori oso gaizki prestatua zegoen, Donostiako Batzordearen taktikekiko pazientzia faltak eramanda altxatu ziren militarrak. Bi egun pasatuta atxilotuak izan ziren eta martxoan Galán eta García Hernández fusilatuak izan ziren. Hala ere, matxinada horrek, abenduaren 15erako grebarako morala piztu

egin zuen eta grebak arrakasta handia izan zuen, bai Gipuzkoan zein Beasainen, bi egun iraun zuen grebak. Horrez gain, Berenguerren gobernuak, Donostiako Batzordeko politikari denak atxilotu izanak, monarkiari itxura are txarragoa eman zion, berriz ere diktadura-itxura hartzen ari bailitzan, eta sistema demokratizatzeko asmoak faltsutzat jo ziren[1].

Damaso Berenguerren asmoa "konstituzio-normaltasun monarkikoa" berrezartzea izan bazen ere, oposizioa kartzelan sartzea ez zen izan biderik egokiena bere planak betetzeko. Berenguerrek, parlamenturako hauteskunde berriak antolatu zituen 1931ko martxoaren 1erako, baina Donostiako Ituneko indarrek parterik ez hartzea erabaki zuten, gutxieneko baldintza demokratikoak ez zeudelako eta hauteskunde horiek erregimena zilegiztatzeko iruzurra besterik ez zirela esan zuten. Egia esan, indar errepublikanoek monarkia uzkailtzeko helburu politikoa beren gain hartua zuten jada, eta demokrazia Errepublikarekin lotzen zutenez, agian aukera izanda ere ez ziren aurkeztuko. Baina hain justu kartzelan zeudela hauteskunde-deia eginda, Berenguerrek herriaren begietan arrazoi eman zien Errepublika jarri nahi zutenei, monarkiak hauteskunde demokratikoak antolatzeko asmorik ez izatearen itxura osoa eman baitzuen. Hauteskunde garbi eta aske batzuetan Gobernuak irabazteko aukera gutxi zituen jada, baina horren ostean, aukera apur horiek ere galdu egin zituen.

Gobernuburu berria Joan Bautista Aznar almirantea izan zen (beste hainbatek postu horri uko egin ostean). Hala ere Aznarrek arazo berdina zuen, zilegitasunarena: hauteskunde batzuk behar zituen Gobernua onartua izan zedin eta gainera hauteskunde horietan ezkerrak parte hartzea beharrezkoa zuen. Horretara, bi erabaki hartu zituen: abendutik kartzelan zeuden lider errepublikano eta sozialistak (Donostian eratutako Batzordekoak), 1931ko martxoko epaiketa batean kondenatuak izan ziren arren, baldintzapean aske uztea batetik, eta bestetik, hauteskunde-egutegia aldatzea: lehenik, apirilaren 12an udal-hauteskundeak egitea, bigarren, maiatzaren 9an, probintzia-hauteskundeak egitea, eta ekainean, Parlamenturako hauteskundeak egitea. Hala, monarkiaren Gobernuak errepublikano eta sozialisten parte-hartzeko konpromisoa lortu zuen, baina argi zegoen hauteskunde horiek, praktikan, monarkiaz egindako herri-galdeketa izango zirela.

Hauteskunde horiek, monarkia-erregimenaren desegitea ekarri zuten hainbat gertakariren azkeneko txanpa izan ziren. Lehengo paragrafoan aipatu izan dugu monarkia ala errepublikaren inguruko "erreferendum moduan planteatu zirela" (batez ere ezkerreko alderdiek hala planteatu zituztelako), ez Gobernuaren nahiagatik (zeinentzat hauteskunde horiek Primo de Riveraren Diktadura ostean "parlamentu-normaltasuna" berreskuratzeko lehen urratsa baino ez ziren), baizik eta gizartean monarkiarekiko zegoen desatxikimenduarengatik. Hori dela-eta, ezkerreko alderdiek gaia erreferendum baten moduan aurkezteko aukera izan zuten.

Hauteskunde horiek 1877ko urriaren 2ko eta 1907ko abuztuaren 8ko legeeen arabera arautu ziren. Lehen legeak, hauteskunde-sistema "zerrenda irekietakoa" zela arautzen zuen, hots, zerrenda oso bati botoa eman beharrean, pertsona batek hainbat izeni botoa emateko aukera zuen. Modu berean, udalerri bakoitza "barruti" ezberdinetan zatitzea ere aurreikusten zuen, barruti bakoitzak bere hautagai propioak izanez. Bigarren legeak, botoa emateko eta hautagai izateko moduak definitzen zituen: botoa emateko eskubidea 25 urtetik gorako gizonezkoek soilik zuten[2] eta botoa emateko derrigortasuna aintzatesten zen[3].

Baina lege horrek bazituen artikulu eztabaidagarriak ere. Bata, eta agian ezagunena, *29. artikulua* zen. Artikulu horren arabera, "barruti batean, aukeratu beharreko hautagai-kopurua hautetsien edo karguen kopurua baino handiagoa ez izanez gero, aurkeztutako hautagaiak automatikoki aukeratuak izango ziren". Horrek esan nahi zuen, hautagaitza bakarra aurkezten zen tokietan, hautagaitza hori automatikoki aukeratua gertatzen zela. Astebete lehenago (apirilaren 5ean) ixten zen hautagaiak aurkezteko epea, beraz, egun horretan, oposiziorik gabeko alkate eta zinegotziak aukeratzen ziren. Gipuzkoan eragin handia izan zuen lege horrek hauteskunde haietan eta 89 udalerritatik 42tan artikulu hori aplikatu zen. Eta ez da harritzekoa, artikulu hori ez baitzen salbuespenekoa, legea ez zegoen-eta artikulu hori gutxitan aplikatzeko moduan egina. Legearen beste artikulu batek, *24. artikuluak*, hautagaiak aurkeztea asko zailtzen zuen. Hautagaiak, probintzia horretako diputatuek edo diputatu-ohiek edo herri horretako zinegotziek edo zinegotzi-ohiek soilik aurkez zitzaketen; azken bide bat, hauteskunde-erroldaren %5aren sinadura (kontuan izanik 25 urtetik gorako gizonezkoak soilik zirela hauteskunde-erroldako partaide) lortzea zen, baina hori oso

---

[1] Une hartan sortu zen "dictablanda" espainierazko hitz-jokoa.

[2] Emakumezkoen boto-eskubidea 1931ko urrian onartu zuen Gobernu errepublikanoak. Espainiako Estatuan emakumeek lehen aldiz 1933ko apirilaren 23ko udal-hauteskundeetan izan zen, baina hauteskunde horiek, 1931n 29. artikulua aplikatu zen herrietan soilik burutu ziren, ez herri guztietan (Katalunian ez zen data horretan udal-hauteskunderik egin, Autonomia Estatutua indarrean zuelako eta udal-hauteskundeak Generalitaten eskumena zirelako). Orokortasunez, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, 1933ko azaroaren 5eko Estatutuaren inguruko herri-galdeketan izan zuten estreinakoz aukerahori; Nafarroan eta Estatu Espainiarreko gainontzeko probintzietan, aldiz, azaroaren 19ko hauteskundeetan eman zuten botoa emakumeek lehenengoz. 1931ko apirileko hauteskunde horietan hautagaiak ere gizonezkoak soilik izan ahal ziren, hala ere, 1931ko ekaineko Errepublikaren parlamenturako lehen hauteskundeetan, emakumeak ere aukeratuak izateko aukera ezarri zen. Ohar hau bukatzeko, esan beharra dago Gipuzkoan eta Bizkaian, foruak indarrean zeuden garaian, emakumeek, zerga berezi baten truke botoa eman zezaketela; baina garai haietan boto-eskubidea (bi sexuentzat) ondasun-jabetza zutenentzat mugatua zen.

[3] Botorik ez emanez gero, abstenitu zirenen gaineko zergen igoera aurreikusten zuen legeak. Hala ere, praktikan zigor horiek ez ziren aplikatzen eta abstentzioa ere egon bazegoen.

or.

bide zaila gertatzen zen. Beraz, boterean zeuden alderdi edo taldeek askoz ere errazagoa zuten euren hautagaiak aurkezteko aukera, eta horrek noski, indar monarkikoei (Monarkiaren berrezarkuntzaren aldekoei) on egiten zien.

Bi lege horiek iruzurra egiteko bidea zabaltzen zuten. Adibidez, lehen legeari (1877koari) dagokionez, barrutien banaketa indarrean zeuden udalen esku uzteak (gogoratu, asko Diktadura garaiko udalak zirela), barrutiak emaitzak bideratzeko moduan banatu ahal izatea zekarren; adibidez Donostian (zortzi barruti zituen eta 39 zinegotzi aukeratzen zituen), udalak, goi-klaseko auzoek zinegotzi gehiago aukeratzeko moduko banaketa onartu zuen, erabat bidegabea zena, hala, barruti horretako populazioa eskuindarren aldekoa izanik, hautagaitza horri mesede egiteko asmoz[4]. Bigarren legeak, 1907koak, *29. artikulua eta 24. artikulua* bilbatuz, udalerri asko, praktikan, oposiziorik gabe boterearen hautagaien esku uzten zituen udalerri eta botere-postu asko (1910eko parlamenturako hauteskundeetan, parlamentarien herena *29. artikuluaren* bidez aurkeztu zen). Gainera, kontuan hartu behar da tokiko jauntxoak kontrako hautagaiak presionatzeko moduak zituztela, adibidez, ikusiko dugun moduan, Beasainen gertatu zen bezala, CAFen bidez, edota lurjabe handiek baserrien maizterrak "bideratzeko" moduak erabilita. Izan ere, lege hori egin zenean, helburua ez zen demokratizatzen aurrera egitea, baizik-eta sistemari egonkortasuna ematea, sistemaren barruko indarren arteko adostasuna bilatzea eta elkarren arteko talkak ekiditea.

Lege hori dela-eta, eskuineko indar monarkikoek zinegotzietan gain-ordezkapena izan zuten eta Espainian, zegokiena baino zinegotzi-kopuru handiagoa lortu zuten (nahiz eta ezaguna denez, Espainiako probintzietako hiriburu guztietan ezkerreko indarrek irabazi ondoren, Alfontso XIII.a erregeak alde egin behar izan zuenez, gehiengo hori praktikan erabiltzerik ez izan). Eskuineko egunkari batzuek apirilaren 13an eta 14an "garaipena" iragarri zuten; eta oraindik eskuineko kazetari edo historiagile batzuek, datu hori, zinegotzi-kopuruarena, "Errepublika modu antidemokratikoan etorri zen, herriaren gehiengoak monarkia bozkatu baitzuen" argudiatzeko erabiltzen dute. Hala ere, argudio horrek ez ditu hauteskunde haien baldintzak kontuan hartzen, ez baitzegoen sufragio guztiz askerako baldintzarik. Baldintza aske eta garbiagoak zeuden tokietan, hirietan, ezkerreko hautagaitzen garaipena argia izan zen.

Eskuinaren porrota ikusita, erregeak abdikatu eta Espainiatik alde egin zuen. Errepublika, jakina denez, Eibarren aldarrikatu zen lehenengo, jai-giroan aldarrikatu ere, Untzaga plazan, udaletxeko balkoian Errepublikako bandera ezarri zuten eta udal-

Zaharrei omenaldia 1930 edo 1931n. Goian erdian, Joxe Bixente Iraola alkatea, bere ezkerraldean Alejo Beñaran Guardia Zibilen kapitaina eta eskuinaldean Emilio Zaballos Mikeleteen sarjentua. (Argazkia: JZG, 121. or.).

[4] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 263-264. or.

-bandak kaleetan Marsellaise[5] eta Gernikako Arbola jo zituen. Segituan zabaldu zen Errepublikaren aldeko aldarria Espainiako Estatu osoan. Gipuzkoan bertan ere, poza orokorra izan zen eta adibidez, Diego Martinez Barrio politikari ezaguna (Errepublikan ministro izan zen, eta Fronte Popularraren garaian, hilabete batzuez Gobernuburu ere bai) Ipar Euskal Herritik Irunera sartu zenean, harrera ospetsua egin zioten herritarrek. Donostian, Clara Campoamor feministak udaleko zinegotzi errepublikano eta sozialista hautatu berriekin bat Ondarretako kartzelara manifestazio bat antolatu zuen. Arrasaten, Bergaran, Pasaian…, pozezko eszenak gertatu ziren. Istilu batzuk ere izan ziren, adibidez Orion, Orioko alkate monarkikoak ez baitzuen bandera errepublikanoa jarri nahi izan[6].

1.1.b) Hauteskundeak Gipuzkoan eta Beasainen

Hauteskunde horietan, Gipuzkoan, batez ere lau indarrek egin zuten borroka elkarren kontra: nazionalista jeltzaleek, sozialisten eta errepublikanoen arteko ezkerreko koalizioak, karlistek eta azkenik, indar bateratu gisa aurkeztu ez zen eta herriz herri izen ezberdinak erabili zituen talde zabal batek (gehienetan "monarkiko" edo "katoliko" gisa aurkeztuko zenak). Azken hori, Berrezarkuntza-sistemaren aldeko pertsona eta politikariek osatua zen, monarkia alfontsotarraren eta Gobernuaren politiken aldekoa, liberalismoa kontserbadore moderatu batekin eta batez ere (ziurrenik ideologiaren gainetik) "ordenaren" sentimenduarekin identifikatua zuena. Esan beharra dago, Gipuzkoako zenbait tokitan, batez ere hiri handietan (Donostian, adibidez) monarkiko horiek eta karlistak, biak eskuin espainiarrekoak, batera joan zirela hauteskundeetara. Lau horiek izan ziren indar nagusiak, nahiz eta herri batzuetan tokiko hautagai edo hautagaitza "independenteak", "apolitikoak" edo "ez-alderdikoiak" ere aurkeztu ziren. Beste alde batetik, Alderdi Komunistak Donostiako barruti batzuetan soilik aurkeztu zituen zerrendak eta oso emaitza apalak lortu zituen.

Lehen esan dugun bezala, Gipuzkoan, 89 herrietatik 42tan 29. artikulua aplikatu zen eta guztira aukeratu beharreko 859 zinegotzietatik 329 metodo horren bitartez aukeratu ziren[7]; gipuzkoar hautesleen %47k ez zuen botoa ematera joateko aukerarik izan[8]. Datu horiek argi erakusten dute garai hartan jauntxoek zuten tokiko kontrola, batez ere herri txiki eta ertainetan. Jose Antonio Rodríguez Ranzen sailkapenaren arabera, orduan Gipuzkoan zeuden 27 herri txikietatik 15etan ez zen hauteskunderik egin (bertan aukeratu behar ziren 192 zinegotzietatik, 102 metodo horren bidez izendatuak izan baitziren). Herri ertainetan, Rodríguez Ranzen sailkapenaren arabera, halako izendapena zuten 43 herrietatik 22tan ere hala aukeratu ziren (halako herrietan aukeratu behar ziren 371 zinegotzitatik 169 zinegotzi metodo horren arabera aukeratu ziren). Herri handietan ordea, 18 herrietatik 5etan soilik aukeratu ziren zinegotziak metodo hori erabiliz (Hernanin eta Pasaian, ezkerrari egin zion on lege horrek) eta soilik 258 zinegotzietatik 58 aukeratu ziren hala[9]. Donostian, jakina ez zen artikulu hori aplikatu. Hauteskunde-legeak, jakina denez, botere-sareak eraikitzeko gaitasun handiena zuten alderdiei egiten zien on, kasu horretan monarkiko alfontsotarrei ("ofizialistei"); metodo horren bitartez apirilaren 5erako izendatuak izan ziren 329 zinegotzietatik 133 (%40tik gora), sektore horretan sartzen baitziren eta metodo horren bidez 19 alkatetza lortu zituzten (tartean, Azpeitia). Hurrengo indarrak, karlistenak 79 zinegotzi lortu zituen, denetatik %24; eta 8 alkatetza, tartean Azkoitia eta Oiartzun. Jeltzaleek 65 zinegotzi, denetatik %19,75 eta 5 alkatetza, tartean Lazkao). "Independenteek" 46 zinegotzi, denetatik %14, eta ezkerreko koalizioak 6 zinegotzi lortu zituen[10]. Ikusten den moduan, boterearen alderdia alde batera utzita, beste bi alderdi kontserbadore izan ziren onura handiena atera zutenak. Hori azaltzeko, bi arrazoi posible ditugu. Alde batetik, bi alderdi kontserbadore horiek, karlistak eta jeltzaleak ziren eta nahiz eta sistematik kanpo egon (jeltzaleak karlistak baino gehiago), tokiko sistemak "gaitz-erdi" gisa ikusten zituen, berarentzat askoz ere arriskutsuagoak ziren errepublikano eta sozialisten aurrean. Gainera, bi mugimendu horien oinarria klaseartekoa izaki (klase apaletan zein bizimodu erosokoetan kideak izan arren), halako botere-sareekin harremanetan izatea errazagoa zitzaien. Beste arrazoi bat, halako indarrak herri txikiagoetan, non *29 artikulua* gehiago aplikatu izan zen, indarra izateak, onurak talde horiei eman izana izan zen.

---

5 Frantziako ereserki nazionala giro Errrepublika-zaleetan, Errepublikaren edo demokraziaren ideiaren nazioarteko ereserki gisa ere jotzen zen, Frantziako iraultza eredu zelako monarkiaren aurkako ideiak edo ideia aurrerakoiak zituzten askorentzat. Beste eredu bat jartzearren, Errusiar Iraultzan ere presentzia izan zuen ereserki horrek.

6 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-04-15ekoa.

7 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 270. or.

8 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 274. or.

9 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 272-273. or.

10 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 273-274. or.

or.

29. artikulu hori aplikatu ez izanak, ez zuen automatikoki esan nahi lehia garbia eta alderdi-anitza izan zenik. Herri batzuetan, alderdien arteko "adostasunak" izan ziren, hautagai zehatz batzuk bultzatzeko eta hala lehiarik ez zen izan (Idiazabalen eta Zaldibian, adibidez). Beste herri batzuetan, Gaintzan adibidez, nahiz eta hautagaien arteko lehia izan, praktikoki denak, ildo berekoak ziren. Beasainen eta Ordizian, ikusiko dugun bezala, azken egunean ezkerreko hautagaiak erretiratu egin behar izan zituzten[11].

Apirilaren 12ko hauteskundeetan, botoa eman behar zen 47 herrietan, 530 zinegotzietatik 185 (denetatik %34,9) monarkiko alfontsotarren aldekoak aukeratu ziren. Gainera beste 19 alkatetza lortu zituzten, tartean Beasain eta Ordizia izanik[12]. Euzko Alderdi Jeltzaleak, "jokoan" zeuden 530 zinegotzi postuetatik 110 lortu zituen (%20,7) eta bederatzi alkatetza, tartean Oñati, Bergara, Andoain eta Zumarraga. Ezkerreko hautagaitzak 100 zinegotzi (denetatik %18,8) lortu zituen, eta soilik bost alkatetza, denak herri handietan, Eibarren, Errenterian, Irunen eta Arrasaten, eta nola ez, hiriburuan, Donostian[13]. Donostian, ezkerrak lortu zuen garaipena oso handia izan zen, %85,5eko parte-hartzearekin, botoen %59,4 lortu baitzuen. Donostiako Udalean ziren 39 zinegotzietatik 25 ezkerrekoak izan ziren eta Fernando Sasian errepublikano federalista alkate aukeratu zuten[14]. Bost hiri horiez gain, herri handietan emaitza onak izan zituzten, adibidez, Tolosan edo Zumarragan bigarren indarra izan ziren[15]. Karlistek, 70 kargudun bakarrik lortu zituzten (%13,2) eta zortzi alkatetza, tartean Tolosakoa eta Zarauzkoa[16]. Parte-hartzea, Gipuzkoan, Donostian baino txikiagoa izan zen, baina altua hala ere, %79,16koa[17].

Beraz, bi moduetan aukeratutako zinegotzi-kopuruak batzen baditugu, eskuineko hautagaitzak, 839 zinegotzietatik 318 zinegotzi (%37,9) izan zituela ikusiko dugu, jeltzaleek 175 zinegotzi (%20,85), karlistek 149 zinegotzi (%17,79), eta ezkerrak 106 zinegotzi (%12,63). Alkatetzei dagokienez, Gipuzkoako 89 alkatetzetatik 38, eskuin alfontsotarraren esku gelditu ziren, karlistek 16 alkatetza berenganatu zituzten, jeltzaleek 14 alkatetza eta ezkerrekoek 6 alkatetza (beste postu denak, tokiko hautagaitza "independenteen" edo sailkatu gabekoen esku gelditu ziren). Monarkiko ofizialisten eta karlisten emaitzak batzen baditugu, bien artean 467 zinegotzi (%55,7) eta 54 alkatetza izan zituztela ikusiko dugu. Beraz, nahiz eta Errepublikak iruzurra gertatu zen herri batzuetan (tartean, Beasainen eta Ordizian, ikusiko dugun bezala) hauteskundeak maiatzaren 31n errepikatzea agindu eta errepikatze horretan emaitza horiek pixka bat apaldu[18] (Beasainen esaterako, ezkerrak irabazi zuen, eta Ordizian abertzaleek), emaitza horiek nahiko borobilak izan ziren 1931ko apirileko hauteskunde haietan eskuinarentzat eta, Gipuzkoan, Espainiako Estatuan ez bezala, hauteskundeak eskuinak irabazi zituela esan liteke. Argi dago, Gipuzkoan tokiko faktoreek pisu handia izan zutela 1931n, baina esan beharra dago baita ere, ezkerrak, orduan oposizio-indar bezala hartua izan zenak, bere emaitzarik onenak herri handietan lortu izanak, aukera horri, hazkunderako aukerak eman zizkiola.

1931ko apirileko hauteskundeek utzi zuten ondoriorik nabarmenena, Gipuzkoan, Espainian borrokan ziren bi indarrez at, beste bat zegoela da, Euzko Alderdi Jeltzalea hain zuzen. Gipuzkoan artean alderdirik handiena ez bazen ere, laster, 1932 eta 1933 bitartean handien bilakatu zen. Beraz, hauteskunde horietan, hautesleria gipuzkoarraren zati handi batentzat, "Monarkia ala Errepublika" galderaz harago, bazegoen beste lehentasun bat, euskal berezitasunekin eta autonomiarekin lotutako gaia hain zuzen ere. Ikusiko dugun moduan, 1931ko hauteskundeetan jeltzaleek lortutako emaitza bikainek, autonomia-prozesuaren eztabaida azkartu egin zuten. Eta praktikoki, Gipuzkoako hauteskunde-soziologia hiru indarren artekoa izan zela baieztatu zuten: ezkerraren eta eskuinaren artean, jeltzaleak sartu baitziren[19]. Bigarren ondorio bat, hirietako edo herri handietako biztanleria

---

[11] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 132. or.

[12] Hala ere, bi herri horietan hauteskundeak errepikatu egin ziren.

[13] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 274-275. or.

[14] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 278-282. or.

[15] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 282. or. Bost alkatetza horiei Hernaniko kasua gehitu behar zaie, non 29. artikulua aplikatuz irabazi zuten ezkerreko indarrek.

[16] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 275. or.

[17] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 315. or.

[18] Errepublikaren Gobernu aukeratu berriak, apirilaren 16an onartu zuen "hauteskundeetan iruzurra edo faltsutzea dela-eta protestak izandako herrietan hauteskundeak errepikatzeko" agindua, eta protestak egiteko epea, apirilaren 25ean bukatu zen. Maiatzaren 31n Gipuzkoan hamaika herritan egin zen hauteskunde-errepikapena, Beasain eta Ordiziaz gain, Bergaran eta Tolosan ere hauteskundeak errepikatu egin behar izan ziren. Herri batzuetan aldaketak izan baziren ere (Berastegin ezkerrak irabazi zuen, Bergaran, Deban eta Soraluzen abertzaleek; eta Goierriko bietan, ere ikusiko dugun bezala aldaketak izan ziren), beste batzuetan (Tolosan edo Ibarran, esaterako), eskuindarrek apirilean irabazitakoari eutsi egin zioten.

[19] Hauteskundeetako soziologia halakoa izan bazen ere, horrek ez zuen esan nahi hauteskundeetan, beti hiru multzo agertu zirenik: 1931ko ekaineko parlamenturako hauteskundeetan eskuina eta jeltzaleak batera agertu ziren, eta 1933ko azaroko hauteskunde parlamentarioetan ezkerra hainbat aukera ezberdinetan zatituta joan zen.

ezkerreko hautagaitzei hurbilekoagoa zitzaiola, herri handietan lortu baitzituzten emaitzarik onenak[20]. Bestalde, harrigarria izan zen eskuin alfontsotarra, 1931ko apirilean garaile ateratakoa, zeinen azkar urtu zen Gipuzkoako lurraldean. Hori, hurrengo kapituluetan ikusiko dugun bezala, hainbat arrazoirengatik gertatu zela azal daiteke. Lehenik, politika monarkikoari lotutako jauntxokeria-sarearen erorketa izan daiteke. Egia esan, arrazoi hori garrantzitsua da, baina ez du dena azaltzen, lehia alderdi-anitza izan zen Gipuzkoako herri askotan ere (beraz, jauntxokeriak pisu gutxiago zuen tokietan), hautagaitza horren aldekoak garaile atera baitziren. Hortik ondorioztatzen dugu sektore horren indar guztia ez zela jauntxokeriaren ondorio. 1931n Gobernuaren alde pertsona askok bozkatu zuten, gero, hurrengo urteetan, Gobernu hura uzkaildu ondoren, ez zuten jarraitu botoa aukera ideologiko horri ematen eta beste esparru batzuetara joan zen. Izan ere, 1933ko zein 1936ko hauteskundeetan (eta baita 1933ko apirileko hauteskunde partzialetan ere), beste bi alderdik, jeltzaleek eta karlistek, sektore horretako boto-emaileak berenganatu egin zituzten. Beraz, azalpen koherentea da, 1931n, gipuzkoarren parte handi batek, joera kontserbadoreak zituenak, erlijio-sinesmen handia zuenak, eta batez ere aldaketaren beldur zenak, baina politikatik at zegoenak, "joeraz" edo "berariaz", eta ez "ideologiaz", botoa sektore horretako hautagaitzei eman ziela; boto "aktiboa" baino gehiago boto "pasiboa" izanik ziur aski: erlijioa zela-eta gehiago, Monarkia zela-eta baino[21]. Baina 1932 eta 1933 artean, Errepublikak ekarri zuen politizazioa kontuan izanda (Euskal Herrian autonomiaren inguruko kanpainak horren adibide ditugu), eta Gipuzkoako lurretan alderdi politikoen antolakuntzaren hedapena izanda, populazioaren zati hori beste alderdi batzuengana, batez ere beste bi alderdi katolikoengana (EAJ edota karlistengana) hurbildu zen. Horrek, gipuzkoarrak politizatzeaz gain, alderdi politiko ideologizatuak ezagutarazi zizkion hautesleari, sektore kontserbadore "ofizialistari" tokia janez. Gainera, sektore horrek hurrengo urteetan ez zuen 1931n zuen bazarik izan: Gobernuaren (hots, "egonkortasunaren") alderdia izatearena. Monarkia alfontsotarraren aukerak erakargarri izateari utzi zion, baliagarri izateari utzi ziolako. Datu hori frogatzeko aukera izango da 1933ko apirileko udal-hauteskunde partzialetan, 29. artikulua aplikatu zen herrietan egin ziren hauteskundeetan eta aukera horrek, 1931ko apirilean lortu zituen posizio asko nola galdu zituen ikusiko da. Lan honetan, ez gara gehiegi luzatuko 1933ko hauteskunde partzialen eraginean, Beasainen hauteskunde horiek ez baitziren burutu, eta beraz, ez baitute gai honetarako interes handirik. Halere, aipatu behar dugu 1931n nagusi zen sektore

Barrakak Loinatz jaietan Gipuzkoa plazan. (Argazkia: Aranzadiren argazki-bildumakoa).

[20] Hala ere, ezkerreko indarrak ez zeuden oso pozik Gipuzkoan lortutakoarekin. 1931ko apirilaren 14an *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak "uste genuena baino hautagai garaile gutxiago izan dugu" esan zuen.

[21] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 322. or.

or.

horretako boto-emaileak hurrengo urteetan EAJra hurbildu zirela eta ez hainbeste ideologikoki hurbilago zeuden karlistengana. Hori, hurrengo urteetan EAJk izandako arrakasta politikoa azaltzen duen gakoetako bat da[22].

Beasainen egoera pixka bat konplexuagoa izan zen, hain zuzen ere, egun hartan, apirilaren 12an, gertatu zen iruzurra zela-eta. Hori dela-eta, ikusiko dugun moduan, apirilaren 12ko hauteskundeak baliorik gabe gelditu ziren, eta maiatzaren 31n errepikatu egin ziren (Ordizian gauza berdina gertatu zen).

Apirilaren 12ko hauteskundeetan, Beasainen hauteskunde horietara bi zerrenda aurkeztu ziren, bata ezkerrekoa sozialistek eta errepublikanoek osatua, eta bestea eskuindar ezberdinek (jeltzaleak barne) osatua. Miren Barandiaranen arabera, eskuinarekin joateko erabakiak eztabaida sorrarazi zuen EAJren barruan. Barandiaranen arabera, Beasaingo EAJko kiderik beteranoenak aliantza hori egitearen aldekoak izan ziren, kiderik gazteenak aldiz, bakarrik edota ezkerrarekin joatearen aldekoak ziren[23]. Alfontso Ibaibarriaga Beasaingo jeltzale historikoak ere, elkarrizketa zahar batean, antzeko bertsio bat eman zuen, bere ustez Bernabe Aierdi Beobide izan zen eskuinarekin zerrenda bateratua egitearen aldeko kide nagusia, "erlijio kontuengatik". Ibaibarriaga oso kritiko agertu zen Aierdiren jarrerarekin, Alderdi barruan "saltsa sortu zuela" eta. Ibaibarriagaren arabera, ezkerrarekin joateko aukera ere izan zuten jeltzaleek[24].

Hauteskunde horietan, Beasaini 13 zinegotzi zegozkion, bi barrutitan aukeratuak. Lehenengo barrutia, "udaletxekoa" zen, handiena, bertan zortzi zinegotzi aukeratu behar ziren, batez ere herriguneko biztanleek eman zuten botoa barruti horretan. Bigarren barrutian "eskoletako barrutian" (auzoetako eta baserrietako boto-emaileak biltzen ziren) bost zinegotzi aukeratu behar ziren. Barrutiok, hurrenez hurren 784 eta 433 boto-emaile zituzten (esan bezala, boto-emaile denak 25 urtetik gorako gizonezkoak ziren)[25].

Hasiera batean, hauteskunde horietara 20 hautagai aurkeztu ziren, 12 lehenengo barrutian eta 8 bigarrenean (bitxikeria bezala aipatu behar dugu Tokiko Hauteskunde Batzarreko buru, gero erregimen frankistako lehenengo alkate izango zen Jose Luis Guridi Aranburu aritu zela)[26]. Lehenengo barrutiko hamabi hautagaien artean, zortzi eskuindarren eta jeltzaleen arteko koaliziokoak izan ziren: Konstantino Maiz Maiz, Jose Maria Larru Sierra, Eusebio Aranburu Otamendi eta Maximino Aranburu Otamendi jelkideak, eta eskuin espainiarraren aldetik Jose Maria Katarain Iturriotz, Bizente Telleria Aiestaran, Migel Cerrajeria Tiffe eta Manuel Perez Vazquez. Ezkerrak Leontzio Ibarbia Urkia, Seberiano Azpeitia Artzelus, Gregorio Lasa Altuna eta Viktor Bernedo Zubiaurre aurkeztu zituen; lehen hirurak errepublikanoak, eta azkena sozialista. Bigarren barrutian, ordea, eskuineko bost hautagai aurkeztu ziren: Liborio Goitia Garmendia (gero nekazarien sindikatu bateko buru izango zena), Joan Kruz Olano Sarasola, Joakin Gaitan de Aiala Belarroa eta Demetrio Kortadi Garmendia eskuin espainolistakoak eta Bernabe Aierdi Beobide jelkidea. Ezkerretik hiru, hirurak errepublikanoak: Jazinto Urteaga Iurrita, Serafin Arana Gaiztarro eta Pedro Azarola Gorrotxategi[27].

Hala ere, CAFen presioak zirela-eta, ezkerrak bere hautagaitzak erretiratu egin behar izan zituen (bi ez ziren erretiratu: Seberiano Azpeitia lehen barrutian eta Jazinto Urteaga, bigarren barrutian; kontuan hartu behar da, Urteaga alkate izana zela, beraz, prestigioa izan zezakeela. Aukeratuak izan ziren biak, baina oso boto gutxirekin. Beraz, pentsatzekoa da beste zerrendako pertsonekin halako adostasun tazitu bat egon zitekeela, kontuan izanik, herrian eta baita herriko pertsona entzutetsuen artean ere, ondo ikusitako pertsonak zirela eta administrazioko esperientzia ere bazutela). Ezkerreko hautagaiak erretiratzea, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoaren arabera, hauteskundeak baino egun bat lehenago gertatu zen, "langile-demokraziaren elementuek fabrika horren tailerretan lan egiten dutenez, eta mendeku-beldurrez (…) eta gainera momentuz Beasainen langabeak laguntzeko erresistentzia-kutxarik edo baliabide ekonomikorik ez dagoenez, langile-klaseari min gehiago ez emate aldera, hautagaitza erretiratzea erabaki dute[28]". Beraz, eskuinarentzat izan zen garaipena, dena alde baitzuen. Lehenengo barrutian Jose Maria Larru, Bizente Telleria, Jose Maria Katarain, Eusebio Aranburu, Maximino Aranburu, Migel Aiestaran (seiak, bakoitza 130na botorekin) eta Seberiano Azpeitia (5 botorekin) izan ziren aukeratuak[29]. Bigarren barrutian ordea, Joan Kruz

---

22 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las eleccones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 322-327. or.

23 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 73-74 or.

24 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

25 Beasaingo Udal Artxiboa. 0545. karpeta, 35. dokumentua. 1931ko martxoaren 15eko dokumentua.

26 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1211 dokumentu-sorta.

27 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1211 dokumentu-sorta.

28 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-04-15ekoa.

29 Dugun iturriak, Gipuzkoako Artxibo Orokorreko JDIT 1212 dokumentuak, lehen barrutian, bost botorekin Bizente Iraola Lasa (jarduneko alkatea) aukeratua izan zela esaten du, baina JDIT 1211 dokumentuan, hautagaien aurkezpena dakarren dokumentuan, ez da agertzen Iraola Lasa aurkeztu zenik (bai ordea Migel Cerrajeria Tiffe eta Manuel Perez Vazquez). Beraz, ez dakigu azken bi hauetako zein izan zen aukeratua.

Olano Sarasola (171 boto), Bernabe Aierdi Beobide (170 boto), Joakin Gaitan de Aiala (164 boto), Liborio Goitia (162 boto) eta Jazinto Urteaga (16 boto) izan ziren aukeratuak[30]. Beraz, eskuineko 11 zinegotzi (horietatik 4 jeltzaleak) eta ezkerreko 2 (biak errepublikanoak) izan ziren aukeratuak.

Goierrin ere, oro har, eskuineko indarrak, batez ere, indar "ofizialistak" (esan bezala, orduko Gobernuaren eta Alfontso XIII. aren aldekoak) izan ziren nagusi (Gipuzkoan izan ziren bezala).

HERRIA	IRABAZLEA	BESTEAK	NOLA
Altzaga	Zehaztugabea (Monarkikoek//EAJk 3na)	Besterik ez zen izan	29. artikulua*
Arama	Karlistek: 6	Besterik ez zen izan	29. artikulua
Ataun	Monarkikoek: 7	Karlistek: 3	29. artikulua*
BEASAIN	Monarkikoek: 11	Ezkerrak: 2	CAF
Ezkio	Zehaztugabea (karlistek//EAJk: 3na)	Monarkikoek: 1	29. artikulua*
Gabiria	Independenteek: 8	Besterik ez zen izan	29. artikulua
Gaintza	Monarkikoek: 6	Besterik ez zen izan	Hauteskunde aurreko adostasuna
Idiazabal	Karlistek 6 + monarkikoek 3	Besterik ez zen izan	Hauteskunde aurreko adostasuna
Itsaso	Monarkikoek: 3	Karlistek: 2 EAJk: 1	29. artikulua*
Itsasondo	EAJk: 5	Monarkikoek: 2	"Hauteskunde garbiak"
Lazkao	EAJk: 5	Karlistek: 3 Monarkikoek: 1	29. artikulua*
Legorreta	Monarkikoek: 6	Karlistek: 1	"Hauteskunde garbiak"
Mutiloa	Karlistek: 6	Besterik ez zen izan	29. artikulua
Olaberria	Independenteek: 6	EAJk: 1	29. artikulua*
Ordizia	Monarkikoek: 12	Besterik ez zen izan	CAF
Ormaiztegi	Monarkikoek: 5	EAJ: 2	29. artikulua*
Segura	Karlistek: 6	Monarkikoek: 2, EAJk: 1	29. artikulua*
Zaldibia	EAJk5 +Karlistek 3+ monarkikoek 1	Besterik ez zen izan	Hauteskunde aurreko adostasuna
Zegama	Independenteek: 4	EAJk: 3, Karlistek:2	29 artikulua*[31]

Hala ere, esan bezala, hauteskundeak errepikatzera behartua izan zen Beasain, indarrean jarritako gobernu ezkertiarrak eta kolore politiko berdina zuen Gipuzkoako Aldundiaren Batzorde Gestoreak hauteskundeak errepikatzea agindu zuten, aurreko hauteskundeak, CAFen presioa zela-eta, iruzurtiak izan zirela argudiatuz (Ordizian ere gauza bera gertatu zen). Aipatutako hautagaiek ez zuten ezta kargua hartzerik ere izan, beraz, Jose Bizente Iraola Lasak jarraitu egin zuen karguan, harik eta, maiatzaren 5ean Gipuzkoako Gobernadore Zibil errepublikanoak kargutik kendu zuen arte[32]. Hauteskunde berriak maiatzaren 31n egin ziren, eta bertara bi indar soilik aurkeztu ziren, ezkerreko koalizioa (errepublikanoak eta sozialistak) eta eskuin espainiarreko kideak. Hauteskunde-errepikapen horretan, eskuinak ez zuen jeltzaleen babesik izan, antza denez, eskuina ez zen hauteskundeetara aurkeztu[33]. Hala ere, hauteskundeak iritsi baino lehen, eskuina lehen barrutian erretiratu egin zen, kontuan izanik Espainian jaso zuen porrota handia izan zela (Errepublika jada ezarria zegoen) eta gainera Goierriko bi herri handietan "iruzurraren onuradun" gisa agertu zirela; ulertzekoa da beraz, eskuindarren atsekabea. Hala ere, Jose Antonio Rodriguez Ranzek *Euzkadi* egunkari jeltzalea aipatuz, beste bertsio bat ematen du: hauteskundeen aurretik sektore denek "udal alderdi-anitz

[30] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

[31] Gaintzan hautagaitza ezberdinen arteko adostasuna izan zen, baina denak antzeko ideologiakoak ziren; Idiazabalen eta Zaldibian ez bezala. Izartxoa duten herrietan 29. artikulua aplikatu zen, baina zinegotzi denak ez ziren alderdi berdinekoak. Beraz, lehia egon zitekeen gehienetan (13tik 10etan), berez alderdi bakarra aurkeztu ez zelako, hau da, praktikoki hauteskunde aurretik egindako adostasuna izan zen, barrutiak euren artean banatuz. Beasainen eta Ordizian CAFek eragin zuen ezkerreko hautagaitzaren erretiratzea, bietan maiatzaren 31n hauteskundeak errepikatu egin ziren.

[32] ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in *Beasain Jaietan* urtekaria, 2001 (17-21. or.).

[33] Tolosan dagoen Gipuzkoako Artxibo Orokorraren JDIT 1211 eta JDIT 1212 dokumentu-sortetan ez dugu Beasaingo 1931ko apirileko eta maiatzeko hauteskundeetan hautagai jeltzaleen parte-hartzerik ikusten. Hala ere, Miren Barandiaranek, bere EAJri buruzko liburuan eta 1931ko ekainaren 14an agertutako *Euzkadi* egunkarian agertutako komentario bat froga moduan jarrita, EAJ hauteskunde horietara bakarrik aurkeztu zela dio (BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 75 or.). Edonola ere, argi dago, bigarren hauteskunde horietan eskuinak ez zuela jeltzaleen laguntzarik izan.

or.

bat osatzeko ituna egin zutela (…) baina bezperan, Donostiatik errepublikanoei hauteskunde-borrokara joateko agindua eman zieten (…) beraz beste taldeak erretiratu egin ziren"[34]. *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak ere hala dio "aurreko egunean, eskuineko hautagaitzak erretiratzea erabaki zuen (…) beraz ez zen borrokarik antza" baina "azken momentuan (…) Sarriegi eta Urteaga eskuindar "independenteek" aurkeztea erabaki zuten". Bi hautagai horiek azken momentuan aurkezteak, hautagaitza errepublikanoaren barruan susmoak sortu zituen "gutako hautagairen bat, arlo batzuetan antzeko iritzia dela bide, senitartekotasuna dela bide, eurekin adostasun batera iritsi ez ote den"[35]. Beraz, badirudi, Jose Martin Sarriegi eta Restituto Urteaga, eskuindarrak izanik ere, beren kabuz aurkeztu zirela, ez alderdi baten hautagaitza moduan.

1931ko ekainaren 6ko dokumentu batean agertzen denaren arabera, hauek izan ziren zinegotzi bakoitzak lortutako boto-kopuruak[36]:

Lehen barrutian (denak ezkerreko koaliziokoak):

- Gregorio Lasa Altunak 208 boto, errepublikanoa.
- Leontzio Ibarbia Urkiak 206 boto, errepublikanoa.
- Viktor Bernedo Zubiaurrek 204 boto, sozialista.
- Pedro Lasa Segurolak 201 boto, sozialista.
- Seberiano Azpeitia Artzelusek 201 boto, errepublikanoa.
- Emiliano Arbaizar Trepianok 201 boto, errepublikanoa.
- Doroteo Aguado Larrichek 193 boto, sozialista.
- Dionisio Carrascal Aguadok 53 boto, sozialista.

Bigarren barrutian (lehen hirurak ezkerreko koaliziokoak, eta azken biak eskuineko koaliziokoak):

- Jazinto Urteaga Iurritak 72 boto, errepublikanoa.
- Serafin Arana Gaiztarrok 72 boto, errepublikanoa.
- Pedro Azarola Gorrotxategik 72 boto, errepublikanoa.
- Jose Martin Sarriegi Sasiainek 50 boto, eskuineko independentea.
- Restituto Urteaga Otegik 50 boto, eskuineko independentea.

Aipatu beharra dago baita ere, bigarren barrutian, garaituak izan ziren beste bi hautagai aurkeztu zirela: Fidel Fernandez Fernandez eta Anjel Balaguer Alfaro. Bakoitzak 28na boto izan zituzten[37]. Hautagai horien ideologia sozialista zen, biak CAFeko langileak ziren[38].

Beraz, 11 zinegotzi ezkertiar eta bi eskuindar. Alkate, Jazinto Urteaga jarri zuten (aurretik ere alkate izana zen, 1920 eta 1922 artean, liberalen aldetik), eta alkateorde, ohiz kanpoko sozialista bat, Viktor Bernedo, Elgoibarren jaiotako enpresaria, "Bernedo" metalurgia fabrikako nagusia. Soziologikoki ere aldaketa txiki bat ekarri zuen, izan ere, langileen presentzia nabarmena izan zen Beasaingo Udalean (aukeratutako hiru zinegotzi behintzat, Aguado, Carrascal eta Lasa Segurola, langileak ziren). Hala ere, udalaren buruzagitzan, bai Urteaga alkate errepublikanoa, zein Bernedo alkateorde sozialista, biak, Usurbe elkarteko kideak ziren. Elkarte horren pisua nabarmena izan zen udal berrian; ezkerreko zein eskuineko zerrendetako kideak baitzeuden (aipatutako kideak eta gainera Serafin Arana, Pedro Azarola, Seberiano Azpeitia edo Restituto Urteaga adibidez)[39]. Beraz, nahiz eta ideologikoki aldaketa gertatu, soziologikoki aldaketa txikia izan zen, klase herrikoietako zinegotziak izan baziren arren,

---

[34] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 331. or.

[35] *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa. Egunkari horrek, "eskuinak aurkeztuz gero, jarlekuak lortuko zituen (…) gutxi hala ere, herri horretan gure ideiak nagusi baitira" esan zuen.

[36] Beasaingo Udal Artxiboa. 061 dokumentua, 09 karpeta; Beasaingo Udal Artxiboa. 065 karpeta, 79. dokumentua eta Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

[37] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1212 dokumentu-sorta.

[38] *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa. Egunkari horren arabera, hasiera batean ezkerreko zerrendak hamar hautagai soilik aurkeztu zituenez, beste hiru hutsuneak betetzeko Carrascal, Balaguer eta Fernandez aurkeztea erabaki zuten; baina Sarriegi eta Urteaga ere azken momentuan aurkeztu ziren eta aukeratuak izateko adina boto lortu zituztenez, Balaguer eta Fernandez kanpoan gelditu ziren.

[39] UGARTE, Zesareo: "Usurbe Elkartea" in ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak.* (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.) (13-19 or.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 15. or.



Jazinto Urteaga alkatearen jabetzakoa zen Urteaga hotela. Barrendain baserriaren ondoan zegoen, tren-geltokiaren aurrean. (Argazkia: JZG, 21. or).

oraindik ere gehiengoa goi-klaseetatik edo klase ertainetatik eratorritako pertsonez osatua zelako. Deigarria den beste errealitate bat, ezkerreko koalizioan errepublikanoek sozialistak baino zinegotzi gehiago izatea da, kontuan izanik, sozialistek Beasainen, errepublikanoek baino pisu handiagoa zutela (aparte aurkeztu ziren hauteskunde bakarrek, 1933koek, hori erakutsi zuten). Hau azal dezakeen hipotesi bat, hauteskundeetara aurkezteko zeuden baldintza zorrotzak izan daiteke: esan dugun bezala, aurretik ordezkaritza-postuetan egoteak asko errazten zuen hautaketa, eta ezin dugu ahaztu errepublikano batzuk aurretik zinegotzi izanak zirela (Jazinto Urteaga alkatea, 1920-22 artean ere alkate izan baitzen). Beste hipotesi bat, errepublikanoak herrian pertsona ezagunagoak, esperientzia handiagokoak izatea izan daiteke. Ez dugu ahaztu behar hauteskunde horiek, berez, monarkiaren erregimenaren pean deitutako udal-hauteskundeak zirela, eta beraz, lehen kapituluan azaldutako Berrezarkuntzaren garaian indarrean zeuden politika-eskemek, "pertsona eragindunen" inguruko eskemek artean pisu handia zutela. Esan behar dugu, prentsak informazio gutxi samar eman zuela hauteskunde horien inguruan. Egunkari batzuek, zinegotzi-kopurua soilik aipatu zuten[40]. Beste batzuek, informazio zabalagoa eman zuten Tolosako hauteskundeez, baina gutxiago beste herriez[41]. Informazio gehien, *El Día* eta *La Voz de Guipúzcoa* egunkariek eman zuten, horiek Beasaingo zinegotzien izenak ere eman baitzituzten (*El Díak* bakoitzak lortu zituen boto kopururik gabe). *El Díak*, gainera, zinegotzi bakoitzaren ideologia zehaztu zuen, hala ere, Seberiano Azpeitia eta Emiliano Arbaizar, okerbidez "sozialista" bezala identifikatzen ditu[42]. *La Voz de Guipúzcoak*, ordea, zinegotzi gehienen filiazioa ez badakar ere, hauteskunde-egunaren deskribapen nahiko zehatza egiten du: egunkari hori baita Sarriegi eta Urteaga eskuindarrak azken unean nola aurkeztu ziren deskribatu zuena[43]. Bai *El Pueblo Vasco*k zein *El Díak*, hauteskunde partzial haietako "eskuinaren garaipen handia" nabarmendu zuten[44]. Ezkerreko prentsak, Espainiako Estatuan, or har, errepublikak irabazi zuela nabarmendu zuen[45]. *La Voz de Guipúzcoak*, Bizkaian eta Nafarroan ezkerreko hautagaitzen "garaipena" aipatu zuen, eta Gipuzkoari dagokionez "aurrerapena".

---

40 *La Constancia,* 1931-06-02koa; eta *El Liberal,* 1931-06-02koa. Azken egunkari horren kasuan, errepublikanoa eta Bizkaian editatua izaki, lurralde hartan gertatutako hauteskundeez arduratu zen gehiago; han errepublikanoen eta sozialisten koalizioak irabazi baitzuen, baina Gipuzkoan, Beasain kenduta, eskuindarrak eta jeltzaleak nagusitu ziren.

41 *El Pueblo Vasco,* 1931-06-02koa; eta *El Día,* 1931-06-02koa.

42 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa; eta *El Día,* 1931-06-02koa. Akats hori, Miren Barandiaranek bere liburuan errepikatu egin du, agian iturri hori erabili duelako. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 75. or.

43 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa.

44 *El Pueblo Vasco,* 1931-06-02koa; eta *El Día,* 1931-06-02koa.

45 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa.

or.

Goierriko hauteskundeak errepikatu zituen beste herri handian, Ordizian, bai EAJk zein Eusko Abertzale Ekintzak osatutako koalizio abertzale batek irabazi zituen hauteskundeak. Koalizio abertzale horrek zortzi zinegotzi atera zituen (sei jeltzale eta bi ekintzaile), eta Alderdi Karlistak lau besterik ez. Alkate, Patxi Iturriotz Iztueta "Patxi Zabale" jarri zuten[46]. Goierriko emaitzak osorik begiratu ostean ikusten dugunez, Gipuzkoan bezala, eskuineko indarrek garaipen handia lortu zuten eta 20 herritatik 11tan, zalantzarik gabe, eskuindar zirenak gailendu ziren: seitan monarkiko alfontsotarrak (Gobernuaren zaleak) eta bostetan karlistak. Kontuan izan behar dugu halaber, hiru Udaletan (Gabirian, Olaberrian eta Zegaman), "talde apolitikoak" nagusitu zirela. Beraz, joera kontserbadorea nagusi zela ikusten dugu. Eta oposizioko alderdiek sei alkatetza soilik lortu zituzten, bost EAJk, eta bakarra ezkerreko koalizioak.

1.2 Udala eta udal-politika errepublikanoa Beasainen

Beasaingo Udal errepublikanoak, hasiera batean, Errepublikaren politika laikoa jarraitu zuen. Adibidez, 1931ko uztailaren 2an, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistak, Loinazko San Martin plaza (*Plaza de San Martín de Loinaz*) Errepublikaren plaza (*Plaza de la República*) izenaz aldatzea proposatu zuen. Hala ere, ikusi zenez, proposamen hori herritarrek oso gaizki hartu zuten eta Arbaizar zinegotziaren dimisioa ekarri zuen (dokumentu batzuen arabera, uztailaren 7ko udalaren osoko bilkuran, Pedro Lasa zinegotzi sozialistak aurkeztu zuen proposamen hori, baina ez du zentzurik uztailaren 2an erabakia hartua baitzegoen. Zinegotzi gehienek, Jose Martin Sarriegi eskuindarrak barne, mozio horren alde egin zuten eta Urteaga alkatea San Martinen izena mantentzearen alde egin zuen bakarra izan zen)[47]. Uztailaren 20an, Arbaizarrek berak azaldu zuenez, "proposamen horrekin Beasaingo seme-alaben sentimenduak iraindu zituen" eta uztailaren 9an proposamena erretiratzeko asmoa izan zuen; hala ere, proposamena okerra zela jabetzeaz gain, dimititzeko asmoa zuela adierazi zuen "berriz ere, ni udalean egonda, halako akatsak errepika ez daitezen". Udalak, uztailaren 24an dimisio hori onartu egin zuen[48]. Serafin Arana Gaiztarrok, uztailaren 7an, erdibideko proposamen bat egin zuen: gaur egungo Bideluze plazari "Errepublikaren plaza" izena jartzea[49]. Arana Gaiztarroren proposamena uztailaren 9ko bilkuran aho batez onartua izan zen. Uztailaren 9ko bilkuraren aktan agertzen da, beasaindarrek prentsara jo zutela[50]. (Bi egun soilik igaro ziren bi bilkuren artean. Egia da izen-aldaketaren kontua ez zela tratatutako afera bakarra izan, baina beste aferak nahiko "ohikoak" izateak eta hain denbora-tarte txikian gertatzeak ongi erakusten dute beasaindarren erreakzioa sutsu samarra izan zela).

Baina hori ez zen izan Beasainen 1931ko uztailaren 7 horretan egin zen aldaketa bakarra. Kale Berriari, Pablo Iglesias kalea izena jarri zitzaion (Bernedo alkateordearen proposamena), Geltoki kaleari (gaur egungo Nafarroa etorbidea), parte batean (Urbi etxetik geltokiraino) Fermin Galan kalea izena jarri zitzaion (Seberiano Azpeitia zinegotziaren proposamena), eta beste partean (geltokitik Igartzara) Garcia Hernandez kalea (Leontzio Ibarbia zinegotziaren proposamena)[51]. Uztailaren 9an, Jose Migel Iturriotzen izena eman zitzaion Andra Mari kaleari (Restituto Urteagaren proposamena)[52]. 1935ean, "Elizarako galtzada" deitutakoari Martina Maiz izena jarri zitzaion, Arangoitiko Ospitalea egiteko dirua eman zuen emakumearen omenez[53]. 1935eko urrian, udala eskuinaren eskuetan zegoenean, beste kale-izenen aldaketa bat egin zen, baina kasu horretan, ez zuen hainbesteko kutsu politiko-errepublikanorik izan: Calleja zeritzonari (gerora Goierri kalea), Leon Arregi kalea izena jarri zitzaion, CAFeko eskolako irakasle izan zenaren omenez. Uztailean, CAFen eskolako ikasle-ohiek (tartean Serafin Arana Gaiztarro zinegotzia zela) eskatu zioten udalari Leon Arregiren izena kale bati jartzea, eta udalak eskaera hori aintzat hartuz Callejari izena aldatzea erabaki zuen[54].

Hezkuntzara ere iritsi ziren haize berriak. 1931ko azaroaren 5eko udal-bilkuran, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistak, eskola erlijiosoei subentzioa kentzeko proposamena aurkeztu zuen "Parlamentuan halako erabaki bat hartu da-eta". Hala

---

46 ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 25 or.

47 Beasaingo Udal Artxiboa. A010. karpeta, 03. dokumentua.

48 Beasaingo Udal Artxiboa. 0137. karpeta, 34. dokumentua.

49 Beasaingo Udal Artxiboa. 0151. karpeta, 35. dokumentua.

50 Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01 dokumentua. Akta horretan agertzen denez, aurreko erabakiarekin sututa agertzen ziren herritar batzuek, erabaki hori "kanpotarrei" egotzi zieten.

51 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua. Fermin Galan eta Garcia Hernandez, 1930ean, jada komentatu dugun Jakako altxamendua gidatu zuten bi militar errepublikano ziren. Martxoan, Gobernu monarkikoak exekutatu ostean, Errepublikaren martiri bihurtu ziren.

52 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua. Proposamen horrek bitxikeria bat zekarren, izan ere, proposamenaren aurkezlea Restituto Urteaga zinegotzi eskuindarra izan zen, hauteskundeetara "katoliko" gisa aurkeztu zena.

53 ZUFIAURRE GOYA, Jose: *Beasaingo kale-izenen historia*. (*Beasaingo paperak* 4. zk.). Beasaingo kultura-batzordea. Beasaingo Udala. Beasain, 1995, 103-106. or. 1933ko azaroan jada Serafin Aranak herriko kaleren bati Martina Maizen izena ematea proposatu zuen. (Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.).

54 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

Corpus Christi edo Gorpuzti eguneko prozesioa 1929-05-30ean Beasaingo plazan jarritako aldaretik abiatzen. Palioaren eramaileak baserri jakinetako semeak izan ohi ziren. (Argazkia: JZG, 56. or).

ere, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoak esan zion, erabaki hori artean ez zela indarrean sartu, beraz, neurri hori ez zen hartua izan[55]. Azaroaren 7an, Pedro Lasak berriz heldu zion gaiari, baina beste zinegotziek (eta batez ere Serafin Aranak) erantzun zioten, udalak ez zuela eskola hartako 185 ikasleak hartzeko tokirik ez irakasle berriak kontratatzeko modurik. Bernedo alkateorde sozialistak esan zuen, "bera ez zela eskola erlijiosoak subentzionatzearen aldekoa"; baina "tokiko arazoa ikusirik", subentzioa kolpean ezin zitzaiola kendu eskola erlijioso horri (La Salleri). Beraz, azkenean, kendu ordez 1.000 pezetan murriztea erabaki zuten: 2.400 pezetatik 1.400 pezetara (Serafin Aranaren proposamena). Erabakia hartzean, Lasaren alde, Carrascal eta Aguado sozialistek egin zuten –baina hiru horiek ez zuten bozketan parte hartu, lehenago aretotik irten zirelako– eta baita Azpeitia errepublikanoak ere baina beste inork ez)[56]. Hala ere, 1932ko maiatzean berriz egin zen eskaera hori, kasu horretan Elkarte Sozialistaren eskutik. Sozialista beasaindarren aburuz, eskola katolikoari diru-laguntzak kendu egin behar zitzaizkien, eskola horretako irakasleen jarrera Errepublikaren aurkakoa zelako, umeen paparretatik ikur errepublikanoak indarrez kentzen zituztela-eta. udal-bilkurak kasu horretan ezezkoa erabaki zuen; subentzioa kentzeko "asmoa" bazuela esan zuen, baina "eskola berriak" (eskola bateratuak, proiektuz publikoa izan behar zuenak baina gerora karmeldarrek hartu zutenak) eraikitakoan, bestela herrian ez zegoela-eta eskaerari aurre egiteko adina eskola publiko. Ikur errepublikanoak kentzearen inguruan, "hori egia izanez gero gurasoek agintarien aurrean behar diren xehetasunak emanez salatu egin beharko lituzkete" gaineratu zuen udalak[57]. Kontuan izan behar dugu, udal-eskoletan 1936ko maiatza arte, haur-eskolak kleroaren esku zeudela, Viktor Bernedo alkate zen garaian hori debekatu zen arte[58].

Jaietan ere laikotasuna presente egon zen. 1931ko urrirako, Loinazko San Martinen irudia elizan kokatzeko ospakizunerako, Florentzio Aspe erretoreak prozesioa egiteko baimena eskatu behar izan zuen. Udalak prozesioa egiteko baimena eman zuen, baina hala ere, udala ez zen agertu elizkizunera[59]. 1933an, ordea, udalak bestelako erabaki bat ere hartu zuen, Errepublikaren bigarren urteurrena Kristoren Nekaldiaren egunarekin (Ostiral Santuarekin) bat zetorrela-eta, ospakizunak egun batez atzeratzea erabaki zuen, "kristauen sentimenduak ez mintze aldera". Udal guztia bat etorri zen jaiegun hori atzeratzearekin, ez soilik katolikoen

[55] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua.
[56] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[57] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[58] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua.
[59] Beasaingo Udal Artxiboa. 137. karpeta, 07. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 02. dokumentua.

or.

sentimenduak ez mintzeko, baizik-eta baita udal-bilkurak "eskuin muturrari argudiorik ez emateko" ere, "iaz (1932an) (…) ezker muturrekoek probokatutako istiluak aurten errepika ez daitezen". Udal-bilkuraren arabera, "bi muturrek Errepublikarenganako gorrotoa komuna" zutela esanez bukatu zuen beren adierazpena[60]. Argi zegoen, bada, udalean nagusi ziren indarrak, bai errepublikanoak zein sozialistak, Errepublikaren bide erreformistatik zihoazela, artean gizartea hurrengo urtean, 1934an, heldu zen polarizazio-mailara iritsi gabe zegoen-eta.

Eta politika laikoaren beste oinarrietako bat osasunaren sekularizazioa izan zen. Izan ere, Arangoiti ospitalea, zerbitzu publikoa izan arren, haren kudeatzaileak lekaimeak ziren, eta, antza denez, batzuetan, bertan egoiliar moduan hartutakoak, sinesmenaren arabera diskriminatzen edota presionatzen zituzten. 1932ko otsailean, udalak, Viktor Bernedo alkateordearen ekimenez, "ospitalean egoiliar moduan dauden guztiak berdin tratatzea, euren sinesmenak direnak direlakoak izanda ere" eskatu zien[61]. Laikotasun horrek sortu zuen halako ezinegon bat Beasaingo herritarrik erlijiosoenen artean, Maria Karmen Ibarbia Sarriegik kontatzen duen moduan, "Errepublika indarrean jarri zenean, batzuk beldur pixka bat izan zuten alde horretatik, fraideak botako zituztela eta gurutzeak kenduko zituztela-eta"[62]. Hala ere, ikusiko dugunez, oro har, Beasaingo herriak, ondo hartu zuen Errepublikaren etorrera, "izebek kontatu zidatenaren arabera, jai-giroan ospatu zuten"; Maria Rosario Ugarte Sukiak esanaren arabera[63].

Giro errepublikanoa asko nabaritu bide zen Beasainen, baita igandetako dantzaldietan ere eta istiluren bat sortzeraino nabaritu ere. 1931ko ekainean, plazan, udal-bandako zuzendari Pedro Jose Iguain Telleriaren eta Jose Maria Otaño deitutako gizon oñatiar batek zuzendutako herritar talde baten arteko eztabaida sutsua gertatu zen[64]. Izan ere, bigarrenak bultzatutako taldeak, doinu batzuk (Marseillaise edo Frantziako ereserkia, garai hartan errepublikazaleen nazioarteko ereserki gisa ere hartzen zena, eta Gernikako Arbola, euskal ereserki foruzalea) jotzeko eskatu zion Bandako zuzendariari, eta honen erantzuna, legeak, *"ereserki nazionala"* (garai hartan Riegoren Martxa edo Martxa Errepublikanoa) soilik jotzeko esaten zuela eta aldatzeko agintea inork bazuen hura alkatea zela eta ez beste inor erantzun zion. Iguainek Marsellaise eta Gernikako Arbola jotzeari uko egin ziolarik, herritar talde horrek iraindu eta txistukatu egin zuen. Iguainek eta Bandako beste 37 kidek alkateak eta alkateordeak beren jarrera desenkusatzeko eskatu zioten udalari eta udalak, uztailaren 2ko Udal-bilkuran Iguainen aldeko mozioa bozkatu zuten[65] eta uztailaren 3an publikoki desenkusa aurkeztu zuten[66]. Bestalde, udalak, abenduaren 11n, Alcala-Zamora Errepublikako lehendakari izendatu behar zuten egunerako, Musika Bandarekin eta abarrekin jaialdi bat antolatu zuen Beasainen, kalejira eta dantzaldiak tarteko[67]. Udalak eskoletan ere jaiegun izendatu zuen egun hori[68].

Ikur errepublikanoen presentzia ez zen soilik musikan eta jaialdietan nabaritu, baita eguneroko bizitzan ere, eraikin publikoetan ikusgarri eginez. 1931ko maiatzean (artean Beasainen udal-talderik ez zegoela, izan ere, maiatzaren 5ean Gobernadoreak Iraola Lasa kargugabetu egin baitzuen), Beasaingo eskola publikoetan, Alfontso XIII.a erregearen argazkia kentzeko eta bandera monarkikoa bandera errepublikanoaz ordezteko agindua eman zuen[69]. 1932ko otsailean, udaletxetik ikur erlijiosoak kentzeko eta Batzar Aretoan Errepublikaren ezkutua eta Alcala-Zamora Errepublikako lehendakariaren argazkia jartzeko erabakia hartu zen[70]. 1933an udalaren balkoian kolore errepublikanoak jartzeko akordioa hartu zen eta oihalak Ignazio Cortes Ceballos Beasaingo errepublikano famatuari (gero, guda zibilean, Beasaingo Defentsa Batzordeko Buru izango zenari) enkargatu zitzaizkion[71].

Errepublikako lehendakari Nizeto Alcala-Zamorak berak Beasaina bi bisita egin zituen. Lehenengo bisita 1932ko irailean izan zen, lehendakariak Gipuzkoara egin behar zuen bisita baten barruan, eta irudi bat ere badugu. Argazkian jendetza ikusten da tren-geltokian[72].

Ez dirudi Alcala-Zamorak denbora handirik egin zuenik Beasainen, baina hori ez zen beasaindarrek euren grina errepublikanoa adierazteko inolako oztopo izan. Harrera horrek, atxikimendu ideologikoa erakusteaz gain, bazuen zeharkako

[60] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[61] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.
[62] Felipe Ibarbia Alustiza eta Maria Karmen Ibarbia Sarriegiri egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-19an.
[63] Arantza Ugarte Azkarate eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.
[64] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua: uztailaren 2ko udalaren osoko bilkuraren aktan, Jose Maria Otaño hori "kanpotarra" zela esaten da.
[65] Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01. dokumentua.
[66] Beasaingo Udal Artxiboa. 138. karpeta, 40. dokumentua.
[67] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[68] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua.
[69] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua. Banderaz gain ezkutua aldatzeko ordena ere iritsi zen.
[70] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[71] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[72] Beasaingo Elkarte Sozialistak bere ordezkari Alfredo Goñiren bidez utzitako argazkia.

Udal-agintariak Nizeto Alcala-Zamora Errepublikako lehendakariaren zain, tren-geltokian. (Argazkia: JZG, 85. or.).



CENTRO REPUBLICANO
CALLE DE PABLO IGLESIAS
BEASAIN
(GUIPÚZCOA)

Beasain, 11 de Agosto de 1932.

11.- 1932/Agosto/11. Manifestación convocada por republicanos y socialistas para protestar frente al intento de golpe de Estado del general Sanjurjo. El recurso del pueblo a la movilización popular frente a los movimientos de "restauración borbónica" fuertemente teñidos ya de fascismo.

Sr. Alcalde Presidente del Ilustre Ayuntamiento de
BEASAIN.- (Presente)

Muy Señor nuestro:

Por acuerdo de las Juntas Directivas de los centros Republicano y Socialista de esta localidad en Junta celebrada hoy jueves, 11 de los corrientes, en el local del primero de los Centros citados, se ha acordado por unanimidad, la celebración de una manifestación a las 6 1/2 de esta tarde, que saliendo de la Plaza de la Republica con sus respectivas banderas recorrerá las calles de la localidad, dando fin en la Plaza de San Martin de Loinaz, cuya manifestación tiene por finalidad la adhesión inquebrantable al régimen, solidarizarse con todo lo legislado y protestar con toda energia del movimiento de restauración borbonica por elementos facciosos y solicitar las maximas sanciones para los sediciosos.

De la manifestación se destacará una comisión a ese Ilustre Ayuntamiento que hará entrega de las conclusiones acordadas.

Rogamos a Vd. nos conceda la oportuna autorización para la celebración de este acto así como tambien que entre las doce y una de hoy se publique un bando dando a conocer al vecindario la celebración de esta manifestación a la hora indicada.

Suyo affmo. s.s.s.

LAS DIRECTIVAS.

Beasainen Errepublikarekiko atxikimendua handia izan zen. Irudian, Errepublikaren aldeko manifestazio baterako baimen-eskaera. (Dokumentua: Beasaingo PSOEk utzia).

or.

beste helburu bat: Beasaingo Udalak, garai hartan herria bizitzen ari zen egoera ekonomiko zailaz jabetuta, harrera, egoera hori jakinarazteko eta eskaerak luzatzeko (eta Errepublikako lehendakariak, hunkipen bidez-edo, kontuan izateko) baliatu zuen. Alcala-Zamorari emandako testuan, Beasaingo egoera zaila berarengana jotzeko arrazoi gisa aipatu ostean, Beasainen "tradizio liberala" eta "lehen momentutik Errepublikari erakutsitako atxikimendua" zehazten dira, Beasainen izaera langilea ("langile saiatuz osatutako herria", "langileek aberastutako hiria") eta "herri honetako langileak erregimen errepublikanoari zailtasunik ez diotela jarri" azpimarratuz. Hori dela eta CAF fabrikaren zailtasunak deskribatu ostean ("2.000 langileetatik erdiak baino gutxiago geratzen dira", "langileek lanegun murriztua dute"), "Beasaingo Bagoien Fabrikarentzat lana ekar dezazun" eskatzen diote lehendakariari. Testua, jarduneko alkate Leontzio Ibarbiak eta Zentro Errepublikanoko lehendakari Serapio Urkiak sinatu zuten. Harrera, udalak Zentro Errepublikanoaren laguntzaz antolatu zuen eta udal-banda eta guzti egin zitzaion. Udal-taldeak trena hartu zuen Donostiarako bidean, Donostiako harrera-ekitaldian ere parte hartzeko[73].

Bigarren bisita 1933ko irailaren 20an egin zuen Alcala-Zamorak, lehengoa bezala, trenez eta Donostiarako bidean zetorrela. Beasaingo Udalaren dokumentu baten arabera, irailaren 20an, goizeko 10:30ean zen trena Beasaina iristekoa. Udalak beste harrera-ekitaldi bat antolatu zuen, herritarrak, herriko zirkulu politikoak, joko-kasino bietako ordezkariak eta merkatarien elkarteak bertaratzeko gonbidatuz eta, horrez gain, etxeko balkoietan Errepublikaren banderak edo ikurrak jartzeko deia ere eginez. Musika Banda ere bertan egon zen. Harreraren buru Urteaga alkatea eta Serafin Arana zinegotzia izan ziren. Horrez gain, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Beasaingo Udala Donostiako harrerara gonbidatu zuen. Hurrengo egunean, ordea, berriz pasatu zen Alcala-Zamora Beasaindik, Oñatirako bidean. Kasu horretan autoz izan zen, udalaren harrera (musika-bandarekin hura ere) Merkatu-plazan (Loinazko San Martin plazaren azpian) egin zitzaion. Hala, beraz, bigarren bisita hori, beasaindarrei dagokienez, lehen bisitaren antzekoa izan zen[74].

Esan beharra dago ez zirela izan Alcala-Zamora Beasainen izandako lehen aldiak: 1918an, Monarkia garaian, Manuel Garcia Prieto buru zuen Gobernuaren Lan Publikoetarako ministro zenean, FVBren instalazioetan ere izana baitzen[75]. Bestalde, udalak, abenduaren 11n, Alcala-Zamora Errepublikako lehendakari izendatu behar zuten egunerako, Musika Bandarekin eta abarrekin jaialdi bat antolatu zuen Beasainen, kalejira eta dantzaldiak tarteko[76]. Hala ere, aurreko bisita hura, eta hartatik Beasaingo herriaren eta Alcala-Zamoraren artean izan zitezkeen loturak gutunean ez ziren aipatu. Beasainen errepublikazaletasuna ez zen Alcala-Zamora lehendakariarekin lotua soilik, 1936ko maiatzean, Errepublikaren lehendakari berria, Manuel Azaña, izendatu zutenean (1931-1933 artean Gobernuko Buru izana zen), udalak zoriontze-telegrama bat bidali zion[77].

Baina badago beste datu bat, 1931koa. Irailean, Armadak (zeina garai hartan "Errepublikaren defendatzaile" eta erakunde errepublikano gisa ikusten zen, 1931n baikaude, 1936ko guda baino bost urte lehenago) Beasainen ariketa militar batzuk egin zituen, eta, antza denez, herritarrek ondo hartu zuten, Jose Fernando Villa-Abrille jeneralak Beasaingo Udalari bidalitako gutun batean erakusten den moduan. Villa-Abrilleren arabera, beasaindarrek "abertzaletasuna (patriotismoaz, *espainiar abertzaletasunaz ari da*), armadarenganako maitasuna eta Errepublikarekiko atxikimendu beroa" erakutsi zuten eta horiez "beasaindarrek harro egon beharko lukete"[78].

Gauzak horrela, ez zen batere arraroa izan 1932ko irailean Beasaingo Udalak, Sevillan Sanjurjo jeneralak egindako Estatu-kolpe eskuindar baten saiakera gaitzestea. Abuztuan Urteaga alkateak Donostiako gobernadore zibilari kolpea gaitzesteko telegrama bat bidali zion. Telegrama horretan "udal honen (hots, Beasaingo Udalaren) Errepublikarekiko atxikimendu banandu-ezina" berresten zen. Telegrama bidaltze hori aho batez onartu zuen udal-taldeak[79].

Bizitza politikoaren susperraldi bat ere gertatu zen. Beasainen lehengo mitin-kopurua handitu egin zen (kontuan izan beharra dago CAFen egoera kaxkarrak asaldura sindikalak handitzea ekarri zuela). Badakigu jakin, azaroaren 20an, Merkatu-plazan (gaur egungo Loinazko San Martinen plazaren azpiko plazan) CNTk mitin bat egin zuela, hizlariak, Donostiako Sindikatu Bakarreko Manuel Perez, Tolosako Sindikatu Bakarreko Galo Diez eta CNTko Emilio Mira izanik. Mitin horretan "ilunpeko zortzi urteen bukaera" eta horrek ekarri zituen jardueren debekuak eta zentroen itxierak amaitzea ospatzeaz gain, gaur egungo arazoak eta "ekonomia burgesaren porrota" eta "egungo sindikalismoaren arazoak" eztabaidatu zituzten. Mitinean, proletalgoaren ekintzabide

[73] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[74] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[75] ABC egunkariaren hemeroteka sarean. Lotura: http://abcfoto.abc.es/fotografias/personajes/ministro-fomento-fabrica-beasain-saliendo-24499.html
[76] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[77] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[78] Beasaingo Udal Artxiboa. 3267. karpeta, 50. dokumentua.
[79] Beasaingo Udal Artxiboa. 65. karpeta, 80. dokumentua.

gisa "zuzeneko ekintza" defendatu zuten[80]. Antza denez, Goierrin, anarkisten ordezkaritza Ordizian zegoen, irailean mitina egiteko baimen-eskaera Ordiziatik egin baitzen[81]. ELAk ere bere mitina egin zuen 1931ko urriaren 20an. Garai hartan ELAren Beasaingo ordezkaria Higinio Urbina zen[82]. Beste alde batetik, Maiatzaren 1a publikoki ospatzen hasi zen, udal-bandaren musika jota egindako dantzaldi eta guzti, ez zen jada "alderdiko " edo "ideologiako" jai bat, baizik eta "Beasaingo jaia", izaera publikoa izan zuena[83].

1.2.a) Alderdi politiko ezberdinak Beasainen

Errepublikak gizartearen politizazioa ekarri zuen, bai Euskal Herrian zein Espainiako Estatuan, eta guri dagokigunez, nola Gipuzkoan hala Beasainen ere. Lehen kapituluan esan dugun bezala, errepublikanoak aspalditik zeuden antolatuta Beasainen, baina orain herriaren korronte nagusietako bat ziren. Aurreko kapituluan esan genuen "joera liberaleko" pertsonak, batez ere, elkarte gastronomiko edo aisialdi-elkarteetan biltzen zirela, edo bestela CAFen inguruan (Goitia, Orueta eta abar). Aipatu dugu herriko pentsamolde aurrerakoidun merkatari eta burgesen artean indar handia izan zutela (euren indargunea CAFen zegoen). Alkate beasaindarra bera, Jazinto Urteaga, tradizio horren froga dugu, 1920-1922 artean, monarkia-garaian, koalizio liberal baten barnean alkate izan baitzen. Errepublikanoek, II. Errepublikaren garaian, ezkerrera biratu zuten (sozialistekin lerratzen ziren batez ere), izan ere behin euren helburu politikoa lortuta (Errepublika), euren helburu sozialetara hurbilduko ziren lagunik onenak haiek zirela uste zutelako (gogoratu egin behar da 1934 arte sozialistak erreformista samarrak izan zirela).

Jarraitu aurretik argibide bat eman beharrean gaude; II. Errepublika-garaian eta ondorengo gerra-garaian, "errepublikano" izen edo kontzeptua aldakorra izan zen; 1931-1936ko bake-garaian zuen esanahia eta atxiki zitzaion giza-taldea ez zen izan 1936-1939ko Guda-garaian izan zen bera, ez eta esanahi berekoa ere, eta atxiki zitzaion giza-taldea ere ez zen berdina izan. Bigarren aro horretan, Gudan zehar, "errepublikanoak" Francoren kontra aritu zirenen aldeari, hots, II. Errepublika-garaian hautestontzietatik atera zen zilegitasunezko agintaritza defendatzearen aldeko denei (errepublikano, sozialista, komunista eta anarkistei) deitu zitzaien. Baina 1931-1936 arteko aldian, "errepublikanoak" korronte politiko jakin bat ziren. Korronte horrek, Estatuaren forma politiko gisa Errepublika erako demokrazia parlamentarioa defendatzen zuen, alderdianitza, Estatuaren eta Elizaren arteko bereizketa zuena, eta klase ezberdinen arteko bizikidetza (ez klase-borroka) helburu zuena. Beraz, liberalismo aurrerakoiarekin lotu dezakegun korronte edo sektorea zen.

Kontuan izan behar da II. Errepublika iristeak, errepublikanoen barruko barne-zatiketa handitu egin zuela. Errepublikanoen artean II. Errepublika aldarrikatu baino lehenago zeuden sektore eta ñabardura ezberdinak (askotan, politikari edo lider errepublikano baten inguruko banaketak izaten ziren, Manuel Azaña, Nizeto Alcala-Zamora, Alejandro Lerroux edo bestelakoen jarraitzaile gisa identifikatzen zen alderdi bakoitza): zentro-ezkerreko eta zentro-eskuineko alderdi ezberdinak baitzeuden. Hala ere, helburu identifikagarri bat zuten heinean, alderdi haien arteko hurbiltasuna ñabarduren gainetik ibili zen; behin "helburua" lortuta, ordea, "garaipena kudeatu behar izanak", euren arteko desberdintasunak nabarmendu zituen. Hori ulertzeko bi faktore izan behar ditugu kontuan: alde batetik korronte errepublikanoari atxikitzen zitzaion alderdien lurrunkortasuna, banaketa eta batuketen bazka izan baitziren. Bigarrenik, beste indar batzuekiko, ezkerrera sozialistekiko eta eskuinera errepublikaren aurkako indarrekiko izan zezaketen kolaborazioa edo konfrontazioa. Sozialistak 1931n Espainiako Estatuko alderdirik indartsuena ziren, eta II. Errepublika jartzeko erabakigarriak izan baziren, eta harekin elkarlanerako prest bazeuden ere, hura ez zen euren azken helburua, klaserik gabeko gizarte sozialista lortzea baizik. Errepublikanoen artean, sozialisten politikarekiko ikuspuntuak ez zetozen bat, adibidez zentro-ezkerreko *Acción Republicana* (Ekintza Errepublikanoa) eta gero *Izquierda Republicana* (Ezker Errepublikanoa) alderdiko buru Manuel Azaña, haiekin elkarlana egitearen aldekoa izan zen, baina zentro-eskuineko Alejandro Lerroux, *Partido Republicano Radical* (Alderdi Errepublikano Erradikala) delakoaren burua, aldiz, oso aurkakoa. Azañak sozialistekin osatu zuen gobernua 1931-1933 urteen artean eta Lerroux oposizioan egon zen, eta are gehiago, 1936an, Azañaren jarraitzaileek sozialistekin eta komunistekin koalizioa egin eta *Frente Popularra* (Herri-frontea) osatu zuten. Lerrouxek 1933an hauteskundeak irabazi zituen Azaña eta bere aliatuak oposiziora bidaliz eta Errepublikaren eta errepublikanoen balioen kontrako indar batekin, CEDA alderdi eskuindarrarekin aliantza eginez. 1936an Herri-frontean sartzeari uko egin zion, eta 1936ko uztaileko altxamendu frankista pasibotasun onberaz ikusi zuen. 1931n euren

[80] Beasaingo Udal Artxiboa. 525. karpeta, 12. dokumentua.

[81] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 30. dokumentua.

[82] Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

[83] Adibidez, 1934ko maiatzaren 1ean udal Bandak bai egunez zein gauez eman zuen kontzertua Errepublikaren plazan (egungo Bideluze plazan). Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua. 1936an ere, udal-bandak jo zuen, Sindikatu Metalurgikoak hala eskatuta. Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua.

or.

Leon Aranbururen espartin-lantegia 1932an. Bertan ageri dira Leon Aranburu jabea, Ramon Uranga makinako langilea eta bezero bat. (Argazkia: JZG, 91. or.).

ikuspuntuak oso hurbilekoak zituzten Azañak eta Lerrouxek (eta ziurrenik, ideologia abstraktuari eta ikusmolde filosofiko-ideologikoari dagokionez, 1936an ere elkarrengandik urruti ez ziren ibiliko), baina 1936an politikan erabat aldenduta jokatu zuten.

Errepublikanismoaren profila hirietakoa edo herri handietakoa eta gutxi gora-behera klase ertainetakoa izan zen: negozio txikiak (dendariak, artisauak) zituztenak edo "profesional liberalak" zirenak (abokatuak, medikuak, irakasleak) nabarmentzen ziren. Langileak edo herri txikietako biztanleak mugimendu horretatik at gelditu ziren[84]. 1931n II. Errepublika etortzeak, errepublikanoen finkamendua handitu egin zuen Gipuzkoan, aurretik zeuden 8 zentro errepublikanoei beste 33 gehitu baitzitzaien, tartean Beasaingoa eta Goierriko beste bost: Ordiziakoa, Lazkaokoa, Idiazabalgoa, Zaldibiakoa eta Ormaiztegikoa[85].

Gipuzkoan errepublikanoen lurrunkortasun horrek ere izan zuen zerikusia aukera hegemoniko ez bihurtzeko (jeltzale, sozialista edota karlisten pare behintzat). Hala ere, bertan, Jose Antonio Rodriguez Ranzek azaltzen duen moduan, bazegoen dinamika propio bat, alderdi eta sektoreen arteko ezberdintasunak aparte uztearen aldekoa, eta batasun errepublikanoaren aldekoa. Halako joerak, gehiago gertatu ziren herrietan, non alderdi errepublikano "berezituak" Donostian eta bere eskualdean baino beranduago agertu ziren. Hori azaltzeko faktore bat azpimarra dezakegu: Donostia hiri handia eta tradizio liberal indartsukoa zenez gero, bertan alderi errepublikanoak sortzea "luxua" izan zitekeen. Herri txikiagoetan ordea, tokiko "Zentro Errepublikanoa" zen errepublikanoen erreferentzia nagusia, herri bakoitzeko errepublikano guztiak (alderdi ezberdinei afiliatuak zein afiliatu gabeak) biltzeko eta kohesionatzeko tresna baitzen. Gipuzkoako errepublikanoen batasunerako joera hori, batez ere 1932 eta 1933 artean egin zen nabarmen, 1933ko azaroan, alderdi errepublikano guztiek hautagaitza bakarra ateratzea lortu baitzuten, sozialistengandik, eskuinarengandik eta jeltzaleengandik bereizia. Hala ere, Rodriguez Ranzen arabera, Espainiako dinamika errepublikanoak, non alderdi ezberdinen arteko konfrontazioak nagusitu ziren, bateratzearen aldeko dinamika puskatu egin zuen, batez ere eta 1933tik aurrera atomizazio hori handituz joan zen, hain zuzen ere Espainiako alderdi errepublikano

[84] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 132. or.

[85] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 129-130. or. 33 zentro berri horietatik bost, Ordiziakoa tartean, 1931ko apirileko hauteskundeen aurretik sortu ziren.

ezberdinak "ezkerrean" edo "eskuinean" kokatu zirenean[86]. Ez da kasualitatea, Beasainen alderdi errepublikano berezi propioak 1934an agertu izana, Izquierda Republicana (Ezker Errepublikanoa) alderdia[87], ordezkari gisa Manuel Gorrochategui zuena[88], eta, maiatzaren 17an, Unión Republicana (Batasun Errepublikanoa) hain zuzen[89]. Baina Beasainen errepublikanoen zatiketa horrek izan zuen ondoriorik larriena, udalean, 1934ko udako udalen mugimendu autonomistaren harira, Gobernadoreak Jazinto Urteaga alkatea kargugabetu eta elkartasunez zinegotzi guztiek, errepublikanoek barne, dimititu ondoren, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoaren desleialtasuna izan zen, izan ere, hark udalean jarraitu eta Gobernadore Zibilak izendatutako udal berriaren parte izan baitzen[90]. Dirudienez, errepublikanoen zatiketa hori Beasainen handi samarra izan zen 1935ean eta 1936an "Zentro Errepublikanoaren" izenean bidalitako idazkiak edo antolatutako ekitaldien kopurua izugarri jaitsi zen eta Ezker Errepublikanoa izeneko alderdiak hartu zuen lekukoa, errepublikanoen ekintzak bere izenean agertzen hasiz; besteen artean 1936ko apirilaren 14an ospatu zen Errepublikaren Eguna[91]. Hortik bi irakurketa egin daitezke: alde batetik 1934an bertan Jazinto Urteaga alkate errepublikanoaren kargugabetzeak (gobernuan eskuineko errepublikanoak, Lerrouxen jarraitzaileak zeudela) Beasaingo errepublikanoen artean sortu zuen mina, bertako batasuna puskatzeraino, eta bestetik, Beasaingo errepublikano gehienak ezkerreko jarreretan zeudela (hori erakusten du Urteaga kargugabetzean, beste sei zinegotzi errepublikanoetatik bostek berarekin elkartasunez dimititu izanak, Gobernuaren tesiekin soilik bakarra lerratuta).

Beasaingo *Zentro Errepublikanoa (Centro Republicano)*, 1931ko abuztuan sortu zen[92]. Serapio Urkiaren gidaritzapean, 1932ko irailean, Alcala-Zamorari eginiko harrera-ekitaldia antolatzearen arduradunetakoa izan zen, udalarekin batera[93]. Zentro horren eta udalaren arteko harremanak bistan da oso onak zirela, 1932ko urrian Zentro horrek Errepublikaren omenezko koadro bat udalari, Batzar Aretoan jartzeko eskaini baitzion[94]. Harreman horien barruan, 1934ko otsailean, Beasaingo Udalari, herri-lanak esleitzean, tokiko enpresariei ematea eskatu zuen Zentro Errepublikanoak (hau baliteke Beasaingo errepublikanoen eta batez ere buruen oinarri soziala enpresariak izatean, euren interesak defendatzeko eskatu izatea)[95]. Zentro Errepublikano horrek, Errepublikaren urteurrenetan bandarekin eta abarrekin jaia antolatu ohi zuen; jai hori 1935ean ere, udala eskuindarren esku zegoenean ere, egin zen (nahiz eta kasu horretan jaiak udalaren subentzio txikiagoa izan; udalak orduko egoera ekonomiko txarra jarri zuen horren arrazoitzat)[96]. Zentro Errepublikanoak, horrez gain, hitzaldiak ere antolatzen zituen, badugu 1932ko otsailaren 12an Irungo Joan Adarraga ekarri zutenaren lekukotza[97]. Beasainen Zentro Errepublikanoari lotuta, 1933an Gazteria Errepublikanoa ere sortu zen[98]. Zentro Errepublikanoak 1934ko errepresioa jasan zuen eta jakin badakigu, adibidez, Ezker Errepublikanoa deitu alderdiak 1934-1936 arteko epean, eskuineko udala boterean zegoela, bere batzarrak egiteko baimena zuela baina plazan egiteko ez, Zentroan bertan egiteko baizik[99]. 1936an, Herri-frontearen garaipenaren ostean ezkerreko erakundeen kontrako errepresioa desagertu zenean, berriz ere indartsu agertu ziren errepublikanoak: 1936ko apirilean Elkarte Sozialistarekin batera hezkuntzarako laikotasunaren aldeko mozio bat aurkeztu zioten udalari, eskola erlijiosoei subentzioa kentzeko eskatuz[100]. 1936ko Errepublikaren eguna ere Ezker Errepublikanoa alderdiak antolatu zuen, udal-bandaren laguntzarekin[101]. Beasaingo Ezker Errepublikanoaren lehendakaria, 1936ko apirilean, behintzat, Ignazio Cortes Ceballos merkataria zen, 1936ko Guda hasterakoan Beasaingo Defentsa Batzordeko buru izan zena, idazkaria Alfredo Najera zela[102].

---

86 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 127-129. or.

87 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 120. or.; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 20. dokumentua. *Izquierda Republicana* alderdia Manuel Azañaren jarraitzaileen alderdia zen, 1933an Azañaren aurreko alderdi *Acción Republicana* zentro-ezkerreko beste alderdi errepublikano txikiago batzuekin bat egin ondoren sortutakoa. 1936an ezkerreko Herri Frontearen parte izan zen.

88 Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

89 Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 62. dokumentua. *Unión Republicana* alderdia, Lerrouxen Alderdi Errepublikano Erradikaletik ateratako zenbait pertsonek osatu zuten, Lerrouxek eskuinera emandako biraketarekin ados ez zeudenek. 1936an ezkerreko Herri-frontearen parte izan ziren.

90 Gogoratu beharra dago orduko Gobernuburu Alejandro Lerroux, zentro-eskuin errepublikanoko Alderdi Erradikalekoa zela; ezkerreko errepublikanoak Gobernuarekiko oposizioan zeuden bitartean.

91 Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 10. dokumentua.

92 Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

93 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

94 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

95 Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

96 Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 60. dokumentua.

97 Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

98 Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 29. dokumentua.

99 Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 11. dokumentua.

100 Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

101 Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 10. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua

102 Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.

or.

Aipatu beharra dago baita ere, Beasaingo Zentro Errepublikanoak eta udalak ondoko herrietako antzeko ideologiadun Zentroekin harreman estua zutela: 1931ko abuztuan, Brinkolako Zentro Errepublikanoa elkartea sortu zenean, Beasaingo alkateari udal-bandako musikari batzuk uztea eskatu zioten, Beasaingo Udala errepublikanoa zela-eta eskaera horri erantzun baikorra erraz emango zitzaiolakoan[103]. Antzeko eskaera bat egin zuen azaroaren 8rako Idiazabalgo Zentro Errepublikanoak[104].

EAJ ere herrian suspertzen hasi zen. Diktaduraren ostean, EAJk oso susperraldi handia izan zuen Euskal Herrian, eta, guri lan honetan interesatzen zaigunez, Gipuzkoan. 1931ko ekainerako Gipuzkoako 48 herritan finkatua zegoen (Beasainen, Ordizian, Lazkaon, Ataunen, Itsasondon, Legorretan, Ormaiztegin… eta Goierriko beste hainbat herritan), eta urte bukaerarako beste 15etara zabaldu zen. 1935erako, Gipuzkoako 66 herritan zegoen EAJ zabaldua[105]. EAJren arrakasta hori azaltzeko, Primo de Riveraren Diktadura osteko bat-bateko susperraldiaz gain, beste bi faktore azaldu behar ditugu. Alde batetik, 1930eko azaroaren 16an, Bergaran, EAJren bi alde historikoak, Comunión moderatuagoa eta Aberri erradikalagoa, batu egin ziren, alderdia berriro bateratuz. Diktadura erortzeak eta alderdia batzeak, garrantzi handia izan zuten abertzaleen moralarentzat. Beste alde batetik, EAJren mezua, alde batetik ordena kontserbadore bati lotua eta handik abiatua, baina bestetik eskuin tradizionalak baino mezu moderno eta sozialagoa emateko gai zena izan zen, batez ere 1932 eta 1933 urteetan. 1931ko apirileko hauteskundeetan eskuineko hautagaitzei botoa eman zien "katoliko ez-militanteak" erakartzeko gai izan zen EAJ, hau da, politizatu gabeko gipuzkoar populazio nekazaria, joera kontserbadoreak zituena eta Monarkia erori ondoren noraezean bezala zegoena, bere ildora ekartzeko gai izan zen, asmo horretan monarkikoen gerturagokoak ziren karlistei aurrea hartuz[106]. Batez ere Euskal Estatutuaren inguruko propaganda oso tresna egokia izan zen EAJrentzat, hauteslego "pasibo" edo "apolitikoa" bereganatu ahal izateko. EAJren arrakasta bere osaketan ikusten da Gipuzkoan, bai langileen, zein nekazarien, zein erdi-mailako pertsonen artean, herri handi zein txikietan babesa izan zuelako (bere hurbileko bi sindikatuek, langileen ELAk eta nekazarien ENBk, klase herrikoien artean oinarri sozial zabala bermatu zioten Alderdi Jeltzaleari).

Goierri kalea, espainieraz *Calleja* esaten zioten. Egungo Joan Iturralde parkean zegoen eta bertan egon zen kokatuta baserritarren sindikatua. (Argazkia: FL/MG, 109. or.).

Beasainen EAJ Primo de Riveraren osteko diktaduran berrantolatzeko lehen bilera, Alfontso Ibaibarriagaren kontakizuna jarraituz, 1930eko azaroaren 30ean egin zen, *Café Norte* izeneko tabernan, eta bertan, 17-18 kide bildu ziren[107]. Hala ere, lehenengo Beasaingo Uri Buru Batzarra eratzeko 1932 urtera arte itxaron behar izan zen (ikusiko dugun bezala, batzokia EAJren alderdi-egitura baino lehenago eratu zen). Ibaibarriagaren arabera, Bernabe Aierdi izan zen lehenengo burua, 1933 eta 1934 urteetan Antonio Sarasola, eta 1935ean eta 1936an bera, Alfontso Ibaibarriaga. Guda aurreko azken UBBren zuzendaritza, Ibaibarriagaz aparte, Zesareo Ugarte idazkariak eta Konstantino Maiz eta Pedro Aiesta bokalek osatzen zuten[108].

1931ko apirilaren 26an batzokia berriro ireki zen Beasainen, kasu horretan Kale Berriaren 3. zenbakian kokatuta[109], Ibaibarriagaren familiakoak ziren Usabiagatarren

[103] Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 07. dokumentua.

[104] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[105] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 81-82. or.

[106] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 81 eta 97. or.

[107] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[108] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[109] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 56. or.

etxean, "Goierriko Alkartasuna" egin arte[110]. Hala ere, dirudienez, Beasaingo EAJk eta batzokiaren elkarteak berak, Errepublika sortu aurretik jada halako jarduera bat bazuten, 1931ko urtarrilaren 10ean, batzar publiko baimendu bat egin baitzuten, eta batzokiaren araudia otsailean bidali zioten udalari (dokumentuen arabera, batzokiko lehendakaria Konstantino Maiz zen[111], baina lehen esan bezala, batzokia eta tokiko EAJ juridikoki bi errealitate ezberdin ziren; EAJren tokiko lehendakaria (Beasain Buru Batzarreko Burua) Alfontso Ibaibarriaga baitzen[112]). Alfontso Ibaibarriagaren familiaren etxean 1931ko apirilean batzokia zabaldu aurretik, badirudi jeltzaleek Eusebio Aranburu Otamendiren zapatagintza-tailerraren atzeko partea erabiltzen zutela gauzak gordetzeko edo elkartzeko[113]. Ekainaren 21ean, mitin abertzale bat izan zen Beasainen, eta abenduan, hitzaldiak eman ziren batzokian. 1932an Arriaranen mitin-jaialdi bat egin zuten[114], eta hitzaldiak ere antolatu ziren[115]. Ibaibarriagaren arabera, 1931n batzokiko lehendakaria Bernabe Aierdi izan zen, 1932an Konstantino Maizek ordeztu zuen, 1933an Nikolas Sarriegi jarri zen, denbora laburrerako ordea, handik gutxira hil baitzen, eta beraz, Ibaibarriagak hartu zuen kargua 1933 eta 1934rako, 1935ean Domingo Etxeberria jarri zuten karguan, eta 1936an Zezilio Sarriegi[116]. Hala ere, dokumentuekin ez dator bat Ibaibarriagaren kontakizuna, lerro batzuk gorago aipatutako dokumentuan 1931n batzokiko lehendakaria Konstantino Maiz zela aipatzen baitzuten[117].

Sindikalismo jeltzalea dela-eta, ELAren pisua nabaria bilakatu zen Beasainen[118]. Aurretik esan bezala, EAJk lotura estua zuen ELA sindikatuarekin. ELA, ikusiko dugun bezala, Gipuzkoako sindikaturik garrantzitsuena bihurtu zen, batez ere, 1933tik aurrera. EAJren eta ELAren lotura hori garbi ikusten da 1934ko urtarrileko dokumentu batean ELAko ordezkaria EAJko militante ezaguna zen Konstantino Maiz zela aipatzen denean[119]. Hala ere, ELAren bulegoa ez zegoen batzokian, 1935eko urriko dokumenturen batek Pablo Iglesias kaleko 3. zenbakian aipatzen baitu ELAren egoitza. Data horretan Beasaingo ELAren lehendakari Jose Lozares Escolar zen, lehendakariorde Zezilio Sarriegi Aldanondo, idazkari Jesus Ibarbia Unzueta, diruzain Jose Soroa San Joan, eta zuzendaritza-batzako kide soil Joan Bautista Aldaregia Zubeldia, Frantzisko Zabaleta Gerriko, Antonio Zubillaga Azpiazu, Joan Jose Aiesta Muxika eta Jose Maiza Munduate ziren[120]. ELAk, II. Errepublikaren garaian, Beasainen hazkunde handia izan zuen, 1931ko 200 bazkiderekin hasi zen, eta 1932rako jada 800 bazkide bazituen Dario Anselen arabera, hala ere, 1934an 150 kidera jaitsi zen afiliazioa (CAFen krisiarengatik), eta 1935-1936 biurtekoan, 250 kidetara igo zen[121].

Alderdi honek izan zuen susperraldiaren barruan kokatu behar ditugu alderdiaren inguruko beste hainbat elkarte. Horietako bat, Emakume Abertzale Batza izan zen. Beasaingo EABk 1931ko azaroan entregatu zituen Gipuzkoako Gobernu Zibilean bere dokumentuak elkarte gisa sortzeko[122], hala ere, Miren Barandiaranen arabera, 1931ko urriaren 25ean sortu zen praktikoki[123]. Barandiaranen arabera, EABren lehen zuzendaritza-batzordeko kideak Sabina Aranburu (lehendakaria), Jaiotza Sarasola (lehendakariordea), Felisa Urteaga (diruzaina), Martina Sarriegi, Pilar Gorrotxategi (bokalak) eta Paula Lasa (Lazkaoko ordezkaria) ziren[124]. Beasaingo EABk, 1932ko maiatzean bere lokal propioa hartu zuen (gaurko J. M. Iturriotz kalean, orduko Pablo Iglesias kalean), ordura arte batzokian biltzen baitziren[125]. Barandiaranen arabera, 1935ean Gipuzkoako EAB antolatu zen Zumarragan eta Beasaingo ordezkaritza ere han izan zen[126].

Beasaingo EAJren sarea osatu zuen beste talde bat, Mendigoizale-taldea izan zen eta horiek ere, Beasainen talde gisa Errepublika garaian sortu ziren, nahiz eta aurretik Beasainen mendigoizale abertzaleak bazeuden (Gipuzkoan, mendigoizale-batza

---

110 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-09-15ean.

111 Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

112 Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 06. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 07. dokumentua.

113 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostia, 2015-09-15.

114 Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

115 Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

116 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

117 Dokumentu horrek halaber aipatzen du 1931n Alfontso Ibaibarriaga zela Beasaingo Buru Batzarreko lehendakaria. Hala ere, Ibaibarriagaren arabera, Beasaingo Buru Batzarra ez zen 1932. urtera arte sortu eta orduan Bernabe Aierdi jarri zuten lehendakari (Ibaibarriagari jarraiki, bera ez zen Beasaingo EAJko lehendakari izan 1935. urtera arte).

118 1933an *Agrupación de trabajadores Vascos de Oficios Varios* (Hainbat Lanbidetako Euskal Langileen Elkartea).

119 Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

120 Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua. Hala ere, Maria Pilar Lozares Sarasqueta, Jose Maria Lozaresen alabak beste bertsio bat ematen digu, bere aita ELAko lehendakari 1936an, guda hasi baino pixka bat lehentxeago aukeratua izan zela esan digu. (Maria Pilar Lozares Sarasquetari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an). Agian bigarren data hori Lozares karguan berretsi zuteneko data izan daiteke.

121 ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 2001, 97. or.

122 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 30. dokumentua.

123 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 57. or.

124 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 57. or.

125 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropen argitaletxea. Zarautz, 1995, 58. or.

126 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 58. or.

or.

1921ean sortu, debekatuta egon eta ostera 1931n birsortu zen). Mendigoizaleek, mendirako irteerak propaganda politikoa egiteko (mitinak, erromeriak, ikurrinak jartzea eta abar) aprobetxatzen zituzten. Horrez gain, mendigoizaleen irteerek, abertzaleen arteko harremanak estutzeko balio izaten zuten. Aipatu beharra dago halaber, Mendigoizaleen erakundeetan, Beasainen behintzat, gazteak zirela nagusi (horrek azal dezake, Beasainen Errepublika garaian EGI taldea antolatu ez izana)[127]. Mendigoizaleen lehendakari Alfontso Ibaibarriaga zen[128].

1933ko maiatzaren 24an, Euzko Nekazarien Bazkunaren (ENB) Beasaingo adarra sortu zen[129] eta elkarte horrek nekazari abertzaleen interesak defendatzen zituen. Talde horrek Gipuzkoan indar handia hartu zuen eta Goierrin ere bai eta ezin dugu ahantzi bere sortzaileetakoa, Joxe Murua, gabiriarra izan zela. Baserritarrei (garai hartan joera kontserbadoreak zituen sektorea zenik ezin dugu ahantzi) aukera abertzale bat eman zieten, sektore hori ohiko kontserbadoreen esku gera ez zedin. ENBren borroketako bat, baserritar maizterrak (gogora ezazue lehen kapituluan esandakoa, baserritar asko ez ziren euren baserriaren jabe, baizik eta baserriak lurjabe handienak ziren askotan) etxegabetze-prozesuetatik defendatzea izan zen (Beasainen halako arazoa ez zen hainbeste nabaritu, baina bai Goierrin, Lazkaon adibidez). 1933ko azaroan, Beasaingo etxean egindako sagardoaren gaineko zerga-salbuespen osoa eskatu zuten, "Aldundiak egin bezala", baina Beasaingo Udalak ez zuen hori onartu honako hau adierazita: "Aldundiak ez bezala, guk ez dugu beste diru-iturririk"[130].

Abertzaleen artean, aisialdi-taldeak ere antolatu ziren. Hala sortu ziren dantzari-taldeak[131], musika- edo abesbatza-taldeak[132], pilota-taldeak[133] edo antzerki-taldeak[134] antolatu izan ziren[135]. Batzokian euskara-klaseak ere eman ziren garai hartan[136]. Beraz, garaiko jarduerez jeltzaleei errepaso bat egin ostean, atera dezakegun ondorioa da, jeltzaleak ez zirela (edo euren asmoetan ez zegoela) alderdi soil bat, "komunitate soziopolitiko" gisa antolatu izan zirela, non politika eta ideologia hedatzeko modu gisa aisialdia ere erabiltzen zuten eta, modu horretan, pertsona batek bere zaletasunak edo ohiko jarduerak alderdiaren inguruan buru zitzakeen. Horrek guztiak egin zuen, Beasaingo jeltzaletasunaren ikerlari Miren Barandiaran Contrerasen arabera, "Errepublikaren aroa, politikoki abertzaletasunarentzat arorik aberatsenetako bat" izatea[137].

Militantziaren igoerari aurre egiteko EAJ areto berri baten bila hasi zen. Egia esan, eta hauteskunde-emaitzek hala islatzen dute, Gipuzkoan abertzaletasunaren goraldia 1932 eta 1933 urteen artean gertatu zen, Autonomia Estatutuaren kanpainak bizitza politikoaren zentraltasuna hartu zuenean (EAJk trebeki lortu zuen Euskal Herriko gizartearen zati handi baten aldarrikapena zen autonomia, Alderdiarekin identifikatzea, bere burua "Estatutuaren Alderdi" gisa identifikatzea alegia). Aipatu izan dugu, 1931n, batzokia Kale Berriko 3. zenbakian zegoela. Hala ere, EAJren asmo zaharra eraikin oso bat berarentzat egitea zen. Miren Barandiaranen arabera, asmo horiek 1934ko batzar batean onartu ziren, Bernabe Aierdi batzokiko lehendakari zela (eta batzokiko zuzendaritzako beste kide bat, besteak beste, Viktoriano Oñatibia zen, 1936ko Gudan fusilatua izan zena. Hala ere, Alfontso Ibaibarriagak 1934an batzokiko lehendakaria bera, Ibaibarriaga, zela esaten du, eta Bernabe Aierdi berriz "obraren promotorea" izan zela)[138]. Kale Nagusiaren 19 eta 21 zenbakien artean zegoen orubea izan zen eraikina egiteko aukeratutako tokia, eta eraikina, 1934an hasi ziren egiten, hain zuzen ere, ekainaren 6ko udal-bilkuran eman zen lanak hasteko baimena.

---

[127] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 59. or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[128] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[129] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 37. dokumentua.

[130] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 19. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 064. karpeta, 21. dokumentua.

[131] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 66. or.

[132] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 67. or. Barandiaranen arabera, Beasaingo abeslari jeltzaleek Ordiziakoekin harreman ona izan zuten eta noizbehinka batera abestu ere egin zuten.

[133] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 63. or. Pilota-talde jeltzaleen bultzatzaileetako bat Zesareo Ugarte medikua izan zen, Gillermo Ugarte zinegotzi karlista ohiaren eta 1936 frankistek fusilatutakoaren semea.

[134] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 61-62. or. Interpretatutako antzerki-lanek, noski gai erlijioso edota abertzaleak izaten zituzten.

[135] 1933ko otsailaren 2an "Sendagintza" deitutako elkarte baten jaiotzaren berria azaltzen zaigu. Ez dakigu zehatz-mehatz alderdi hau EAJri lotuta zegoenik, baina hori ematen du, 1934an, bere ordezkaria Bernabe Aierdi jeltzalea baitzen. Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 19. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 26. dokumentua.

[136] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 68-69. or.

[137] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 60. or.

[138] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 89-90. or.; eta Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

Beasaingo batzokiko antzerki taldea, 1930.eko hamarkada. (Argazkia: JZG, 120. or.).

Baimen hori, hurrengo egunean, ekainaren 7an lortu zuten[139], eta lehen harria ekainaren 11n jarri zuten[140]. Elkarte kooperatibo bat (herri-akzioen bidez egin zena) ere sortu zuten, Goierriko Alkartasuna izenarekin, eraikuntza-lan hori eta batzokia bera finantzatzeko eta kudeatzeko. Goierriko Alkartasunak abuztuaren 14an aurkeztu zituen lanen planoak udaletxean, baina data horretan udala behin-behineko egoeran zegoen alkatea atxilotua izan baitzen, beraz baimena ematea atzeratu egin zen. Lanak hasteko baimena, azkenean, irailaren 29an jarduneko alkate Serafin Aranak eman zuen (ikusiko dugunez data horretarako Jazinto Urteaga alkatea kargugabetuta zegoen)[141]. Goierriko Alkartasunak udal-subentzio bat eskatu zuen, baina tirabira batzuk izan ziren, "elkarte politikoa" zela-eta. Azkenean 244 pezetako subentzioa jaso zuen udalaren partetik[142]. Horrez gain, 1935ean zergetatik salbuestea eskatu zuen Goierriko Alkartasunak, udal-arauen arabera, onura hori zegokiola argudiatuz. Udalak, onura hori jasotzeko baldintza gisa, lanean ari ziren langile denak Gipuzkoakoak zirela frogatzeko eskatu zion, eta irailean, hala zela frogatuta, zergen salbuespena eman zion udalak Goierriko Alkartasunari[143]. Goierriko Alkartasunaren eta udalaren artean, bereziki Manuel Perezen garaian (1934ko urritik 1936ko otsailera), udalean eskuindarrak nagusi izan zirenean, ez zen gora-beherarik falta izan; adibidez, 1935ko ekainaren 2an, batzokiko frontoian, pilotarien arteko partida bat antolatzeko subentzioa ukatu zion udalak Goierriko Alkartasunari esanez, partidak ikusteko sarrera ordaindu behar bazen, eta beraz enpresak dirua ateratzen bazuen, udalak ezin ziola subentziorik eman. Azkenean, 1935eko maiatzaren 22ko osoko bilkuran udalak akordio bat eskaini zion Goierriko Alkartasunari: udalak berak ekainaren 3rako antolatu zuen partida, eguraldi txarra zela-eta udal pilotalekuan jokatzerik ez bazen, partida hori Goierriko Alkartasunaren pilotalekuan joka zedin, udalak horretarako 150 pezetako subentzioa emanez. Akordioak Goierriko Alkartasuna elkartearentzat ona zela dirudi, izan ere, maiatzaren 29an udalak egindako bilkuran, batzokiak ekainaren 2ko partidara alkatea eta idazkaria gonbidatu zituela jakinarazi baitzuen[144]. 1936ko martxoan Goierriko

[139] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[140] Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[141] Beasaingo Udal Artxiboa. 137. karpeta, 50. dokumentua.

[142] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 90. or.

[143] Beasaingo Udal Artxiboa. 137. karpeta, 50. dokumentua.

[144] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 09. dokumentua.

or.



Beasaingo Batzoki berria 1936an. Inauguratu zen egunean (1936-07-18an) altxatu ziren militarrak. (Argazkia: FL/MG, 120. or.).

Alkartasunak beste pilota-partida bat antolatu zuen eta kasu horretan udalaren subentzioa ere jaso zuen (ordurako jada alkatea aldatua zen eta Viktor Bernedo zen)[145], eta beste bat maiatzaren 24an[146]. Goierriko Alkartasunaren batzokian dendak irekitzeko ere gai izan ziren. 1935eko uztailean Rosa Ortega Carrillok fruta-denda bat zabaldu zuen eraikinaren beheko oinean[147], Pedro Garin Muxikak jostun-denda bat jarri zuen urte horretako maiatzean[148] eta Viktoria Etxebarriak beste fruta-denda bat 1936ko martxoan[149].

Eraikin berriaren proiektua Gregorio Azpiazu udal-arkitektoak egin zuen[150]. Eraikinak, hainbat oin zituen eta atzerantz frontoia ere bazuen, beraz, hainbat talderi aterpea emateko egokia izan zen. 1935eko maiatzerako eraikina prest zegoen (esan bezala 1935eko ekainean pilota-partidak jokatu ziren), baina kontuan hartu behar dugu 1934ko udako eta udazkeneko gertaerek eta ondoren etorri zen errepresioak, abertzaleen (eta ezkertiarren) jarduera politikoa asko mugatu zituela (agintariek euren zentroak itxi egin baitzituzten). 1935erako, Gobernuaren errepresioa leunduz joan zen eta halako zentroak berriro irekitzen hasi ziren, baina egia da, "zuhurtzia" artean nagusi zela. Beraz, 1935eko maiatzaren 19an, irekiera ospatzeko jai bat egin zen, inaugurazio ofiziala izan gabe. Inaugurazio ofiziala 1936ko uztailaren 18 eta 19ko astebururako utzi zen, baina altxamendua zela-eta, oso giro arraroan (espero baino jende gutxiagorekin) egin behar izan zen. Egun hartarako herri-bazkari bat eta gero lehendakari izan zen Jose Antonio Agirre, Manuel Iruxo eta Telesforo Monzon diputatuen hitzaldiak aurreikusi ziren, eta baita ere udal-banda ekartzea. Jaiak uztailaren 15ean, Gobernadore Zibilaren

Beasaingo Batzoki berriaren inaugurazio-bazkaria 1936-07-19an Batzokiko frontoian. (Argazkia: JZG, 124. or.)

[145] Beasaingo Udal Artxiboa. F011 karpeta, 26. dokumentua.
[146] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[147] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 58. dokumentua.
[148] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 59. dokumentua.
[149] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[150] Miren Barandiaranek 1935ko abuztuaren 22ko eta 1936ko urtarrilaren 1eko *El Día* egunkariaren aleak jartzen ditu baieztapen honen froga gisa.

aldetik babesa jaso zuen, baina alferrik izan zen[151]. Aipatu beharra dago, Florentzio Aspe erretoreak, gero guda-garaian eta guda ostean frankisten aldeko jarrera sutsua erakutsi zuenak, batzokia inauguratzean bedeinkatu eta goraipatu egin zuela[152].

Errepublika-garaian susperraldi handia izan bazuen ere, kontuan izan behar da Beasainen bertan ez zela alderdi nagusi bihurtu, normalean Beasainen hauteskundeak irabazten ez zituen alderdia zen. 1931ko udal-hauteskundeetan ez zuen zinegotzirik lortu. Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiaga, Alfontso Ibaibarriaga jeltzale historikoaren semeak kontatu digun moduan, "Beasainen errepublikanoak eta sozialistak ziren nagusi. Jeltzaleei indarra hartzea kosta egin zitzaien"[153]. Hala ere, pixkanaka indarra hartuz joan ziren, batez ere eskuinaren bizkar, Alfontso Ibaibarriagak esan zuen "karlisten ume denak gurekin ibiltzen hasi ziren". Ikusiko dugun fenomeno hori, Gipuzkoan nahiko arrunt bilakatu zen[154].

Alderdi hau klasearteko samarra zen eta, ikusi dugun bezala, langileak (ELA sindikatuan biltzen zirenak) zein goi-mailako jendea zegoen bilduta bertan. Adibidez, Alfontso Ibaibarriaga Beasaingo EAJko zuzendari ezaguna, langilea izan zen, Bernedo fabrikakoa. Bere seme-alabek esan zigutenez "beste sindikalistekin harreman ona zuen, sozialistekin, anarkistekin…, batez ere anarkistekin, oso jende irakurria zen eta, eurekin asko ikasi zuela zioen"[155]. Beste bat, gudari ibilitako Jose Luis Telleria izan zen, CAFen 13 urterekin lanean sartu zena[156]. Edota baita Joan Jose Aiesta Muxika ere, CAFeko langilea zena[157]. Beste batzuk ordea, "enplegatuak" ziren, adibidez, Banco Guipuzcoanoko kobratzaile zen Maximino Aranburu Otamendi[158]. Baina jende "prestigioduna" ere izan zen EAJn, adibidez medikuak: Zesareo Ugarte bera, "gure etxean jeltzaleak ziren" Zesareo Ugarteren alaba Arantza Ugarte Azkaratek kontatu zigun moduan[159]. Baita ere enpresari txikiak, adibidez, gerora fusilatua izan zen Viktoriano Oñatibia, tailer txiki baten jabe zena[160], edo Eusebio Aranburu Otamendi, zapatagintzako tailerra eta denda zituena[161]. Enpresari eta langileak talde berean biltzeak ekarri zituen halako arazo batzuk EAJ barruan eta aurreko kapituluan azaldu dugu zertxobait horri buruz. Oraingoan, arazo horiek Goierrin nolako eragina izan zuten ikusteko adibide bat jarriko dugu: Beasaingo batzokiaren inaugurazioa 1936an egin zenean, Beasaingoek Zumarragako Karlos Linazasoro "Altzeta" jeltzale ospetsua gonbidatu nahi izan zuten (hark zenbait hitzaldi eman zituen bai Beasainen eta bai Goierriko beste herri batzuetan). Hala ere, ordurako Linazasoro, enpresaria zena, langileekin lan-gatazkan aurkitzen zen, langileei soldata ez ziela igo nahi-eta, eta hori zela-eta, Urretxuko mendigoizale jeltzaleek Ibaibarriagari esan zioten Linazasoro gonbidatuz gero, eurak ez zirela etorriko inauguraziora[162].

Errepublika-garaian bazegoen beste alderdi abertzale bat: Eusko Abertzale Ekintza edo *Acción Nacionalista Vasca*. Bere ideologia ezker laikoan kokatu zen. Alderdi horrek, abertzaletasunaren barruan, Sabino Aranaren ideologiarekin haustura eragin zuen. EAE-ANVk EAJren katolikotasunarekin eta esentzialismoarekin eten egin zuen, eta sozialki programa aurrerakoiagoa zuen, nahiz eta postulatu marxistak edo klase-borrokakoak ez zituen onartzen. Beraz, Espainiako zentro-ezkerreko alderdi errepublikanoen parekidea zen abertzaletasunaren barruan, gizarte-aurrerapena defendatzen zuen alderdia zen, baina betiere posizio moderatuetatik (izan da EAE Ezker Abertzalearen aurrekari historiko gisa definitu duenik ere; ez da hau hori eztabaidatzeko tokia, baina nire aburuz, bi erakundeen artean badaude ezberdintasun nabariak, adibidez tradizio marxistaren inguruan; hori Ezker Abertzaleak historikoki aldarrikatu egin izan du, eta guda aurreko EAEk ez). EAEk, EAJk ez bezala, ez zion hauteskundeetara alderdi espainiarrekin (hots, ezkerreko alderdiekin) batera joateari muzin egiten "betiere, alderdi horiek gure herri-izaera ezberdinaren, bere autogobernuaren eta askatasun demokratikoen alde egonez gero". Hala, bai 1931n, zein 1936an ezkerrarekin koalizio ezberdinak osatu zituen alderdi horrek. Gipuzkoan Donostialdeaz gain, industriadun herrietan izan zuen presentzia alderdi horrek, baina ez Beasainen (bai ordea, Ordizian, 1931n EAJrekin koalizioan bi zinegotzi lortu baitzituen). Gure herrian EAEren presentzia ez zen ezertan antzeman[163].

---

151 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

152 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 91-93. or.

153 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-09-15ean.

154 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

155 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-09-15ean.

156 Patxi Lasa Imazi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

157 Eleuterio Aiestari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

158 Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. 2014-08-05ean.

159 Arantza Ugarte Azkarateri eta Maria Rosario Ugarte Sukiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-08-05ean.

160 Milagros Aranburu Muxikari egindako elkarrizketa. 2014-08-05ean.

161 Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-09-15ean. Garai batean, Eusebio Aranbururen zapatagintzako tailerra gauzak gordetzeko ere erabili zuten.

162 Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

163 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 101-102. or.

or.

Gipuzkoan pisu handia izan zuen beste alderdi bat, Monarkiaren garaian alderdi txiki samarra izan arren, Alderdi Sozialista izan zen. Aurreko kapituluan azaldu dugu Alderdi Sozialistaren ideologia, beraz hemen ez dugu errepikatuko; laburbilduz langile--interesak ikuspuntu marxistatik defendatzen zituen alderdia zela esan genezake; horrek, alderdi barruan alde erreformista edo moderatuaren (alderdi errepublikanoekin aliatzearen aldekoen eta II. Errepublika aukera gisa ikusten zutenen) eta alde erradikalagoaren (Alderdi Komunistarekin aliatzearen aldekoan eta II. Errepublika burgesa ahalik eta azkarren gainditzearen aldekoen) artean tentsioak eragin zituen, alderdiaren ideologia marxistaren interpretazio taktikoaren bi ikuspegi hauen arteko tentsioak kronikoak izan ziren II. Errepublikaren aldian. Euskal Herrian, gehienbat, alde moderatuaren aldeko jarrera ikusiko dugu; hori hainbat faktorerengatik izan zen: bai euskal buruzagi sozialistak ildo horretakoak zirelako (ildo horren burua, Indalezio Prieto, bilbotarra zen, baina Endrike De Frantzisko tolosarra ere aipatu beharra dago, azken horren eragina erabakigarria izan baitzen lehen kapituluan aipatu dugun sozialisten eta komunisten arteko banaketan, Gipuzkoako kide gehienak sozialistekin gelditzeko), Euskal Herrian (batez ere Bizkaian) Alderdi Komunistak indar handia zuelako eta horrek PSOE haiengandik banatzera bultzatzen zuelako, eta azkenik, alde "erradikalaren" buru zen Largo Caballerorekiko nolabaiteko mesfidantza zegoelako. Largo Caballero, Errepublikaren azken urteetan "sozialismo iraultzailearen" ordezkari gisa nabarmendu bazen ere, Primo de Riveraren garaian Diktadurarekin kolaboratu zuen (Laneko ministro-orde izatera iritsi zen) eta trukean PSOErentzat eta UGTrentzat abantaila politikoak lortu zituen. 1928ko ekainean PSOEk egindako Biltzar Nagusian, PSOEren "*Federación Vasco-Navarra*" (Hego Euskal Herriko Federazioa) izan zen Alderdiaren kudeaketa (hau da, Largo Caballerorena) kritikatu zuen federazio bakarra[164].

Alderdi Sozialista, garai horretan, Gipuzkoako hiru alderdi handienetako bat (jeltzaleekin eta karlistekin batera) izateraino hazi zen, baina hala ere, bere hazkundea, herri industrialetara mugatuta, pixka bat moteldu egin zen. Goierrin adibidez, Beasainen eta Ordizian soilik izan zuen presentzia[165], baina beste alde batetik Gipuzkoako herri handietan (Errenteria, Eibar, Arrasate, Irun, Hernani, Pasaia) puntako alderdia izan zen, adibidez, gure herrian, Beasainen, alderdi nagusia izan zen. Oro har, Gipuzkoako sozialistak, alderdi handia baina ez hegemonikoa izanagatik errepublikanoekin bat egiteko joera izan zuten, ezkerreko bi indarren artean jeltzaleei edota eskuinari nagusigoa lehiatzeko asmoz. PSOEren arrakastan, garbi dago UGTren presentziak paper garrantzitsua jokatu zuela, UGT Gipuzkoako langile-sindikaturik indartsuena baitzen 1931. urtean. Esan beharra dago UGTk PSOEk baino afiliatu gehiago zituela, baina hori ez da harritzekoa, UGT sindikatua izaki eta langileen tokiko eta berehalako onurengatik borrokatzean, helburu "abstraktuagoak" zituen alderdi politikoak baino erakargarritasun handiagoa zuelako. Bestalde II. Errepublika jartzea bezalako garaipen politiko batek (gogoratu errepublikanoek eta sozialistek koalizioan irabazitako hauteskunde batzuen emaitza izan zela) izen handia eman zien sozialistei eta baita ideia sozialistak gauzatzeko aukera posible zenaren itxaropena ere langile askori. Horren adibide dugu Espainian PSOEk izan zuen afiliazio-hazkundea, 1930ean 18.207 afiliatu soilik zituen eta 1933an 81.777 afiliatu[166]. Euskal Herriko eta Gipuzkoako sozialismoak goranzko olatu horren onurak ere jaso zituzten: Gipuzkoan 1930ean 200 bat afiliatu izatetik 1931 bukaeran 550 baino gehiago izatera pasatu zen, eta Jose Antonio Rodriguez Ranz historiagilearen aburuz, 1934an eta 1936an ere, gorako joera izan zuen[167]. Euskal Herrian, II. Errepublikaren hasieran 2.000 kide eta 24 elkarte zituen Alderdi Sozialistak, hala ere, Egigurenen arabera, "nahiz eta II. Errepublikan euskal sozialismoak PSOEren hazkundean parte hartu zuen", sozialisten kopurua Euskal Herrian beste tokietan baino gutxiago hazi zenez "PSOEren barruan euskal sozialismoaren pisua txikitu egin zen"[168]. Bestalde esan beharra dago PSOEren gizarte-oinarria, ia osorik, industriako langilez osatuta zegoela, baita Beasainen bertan ere, nahiz eta gure herrian, kurioski, bere irudirik handiena, Viktor Bernedo, enpresaria izan.

Beasainen bazen Elkarte Sozialista ere, aurreko kapituluan azaldu denaren arabera. Pablo Iglesias kaleko (gaur egungo Jose Migel Iturriotz) 12. zenbakian, Norte taberna zegoen eraikinean (gaur egun "Amore" pizza eta kebaben negozioa dagoen eraikinean) zegoen Elkarte Sozialistaren egoitza[169]. 1932ko uztailaren 27ko dokumentu baten arabera, Beasaingo Elkarte Sozialistaren zuzendaritzaren kide Julian Blanco lehendakaria, Anjel Gomez de las Heras lehendakariordea, Anastasio Menaza

---

[164] EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009).* Hiria. Donostia, 2009, 224-225., 227-228. eta 232. or.

[165] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 134. or.

[166] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 134. or.

[167] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 144-145. or.

[168] EGUIGUREN IMAZ, Jesus: *Historia del socialismo vasco (1886-2009).* Hiria. Donostia, 2009, 224-245. or.

[169] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua. Anjel Lamata Villahozek esan digunez "egoitza Politena taberna egon zenaren gainean zegoen". Hala ere, Politena taberna ez zegoen Norte taberna zegoen tokian, haren parean baizik, gaur egun Basakana taberna dagoen tokian. Litekeena da Anjel Lamataren oroitzapenak bata bestearekin trukatu izana. Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.



Agrupación Socialista
de
Beasain

Tengo el honor de comunicar a U. que el Exmo. Sr.Gobernador Civil de la Provincia ha aprobado con fecha I9 del presente mes los reglamentos y la constitución de la Agrupación Socialista de Beasain,cuyo domicilio se fija en la calle de Pablo Iglesias,número siete ,planta baja.

Lo que comunico a U. a los efectos oportunos.

Salud y República.

Beasain a 23 de marzo de I932

Por el Comité de la Agrupación.

El Secretario

Sr. Alcalde del Ayuntamiento de Beasain

8.- 1932/Marzo/23. (Documento) Relanzamiento de la agrupación socialista en la nueva Casa del Pueblo sita en la Calle de Pablo Iglesias, 7 Bajo (Bar Norte)

Beasaingo Elkarte Sozialistaren Estatutu berriak ofizialki 1932ko martxoan onartu ziren eta Herriko Etxea ere ireki zuten, Pablo Iglesias kalean (egungo Jose Migel Iturriotz kalean).
(Dokumentua: Beasaingo PSOEk utzia)

idazkaria, Liborio Macero diruzaina eta Migel Garbayo, Bizente Sanchez, Alfontso Olabe eta Maximo Garcia batzarkideak izan ziren[170]. 1934ko uztailaren 8an, zuzendaritza berria aukeratu zuen Elkarte Sozialistak, lehendakari Antonio Menaza Bermudez jarriz (beraz bera izan zen sozialisten ordezkaria 1934ko gertakariak gertatu zirenean)[171], lehendakariorde Agapito Noriega, idazkari Balentin Gonzalez, idazkariorde Joan Lopez, kontuen ikuskatzaile Laureano Rodriguez eta Endrike Sanchez eta batzordekide Aurelio Garcia eta Manuel Sanzo[172]. Hala ere, badago 1936ko apiril-maiatzetako dokumentu bat, Beasaingo Elkarte Sozialistako lehendakari gisa Julian Blancok sinatuta azaltzen dena[173]. Beste kide batzuk ere agertu zaizkigu, adibidez, Anjel Lamata Villahozen arabera, "nire aita, Frantzisko Lamata, sozialista zen, Beasainen mugimendu sozialista zuzentzen zutenetariko bat[174]". Edo baita ere Rafael eta Valerio Polo Carrascal, gero gudari ibili ziren anaiak (Valerio Kantabrian fusilatua izan zen): "gure familian sozialistak, UGTkoak ziren" dioskue Rafael Poloren alaba Alicia Polok eta honen seme Mikel Apaolazak[175]. Baita ere CAFen lan egiten zuen Anjel Ruiz de Apodaka, gudaria halaber[176]. Errepublika-garaian Elkarte Sozialistak bere kabuz (hau da, UGTren lan sindikala alde batera utzita) egindako jardueraren lehenengo aztarnak 1932. urtean ditugu. Jakin badakigu urte hartan, Beasainen batzar batzuk egin

[170] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.
[171] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.
[172] Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.
[173] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.
[174] Amaia Alonso Garateri, Jose Maria Alonso Lamatari, Sara Alonso Lamatari eta Anjel Lamata Villahozi eginiko elkarrizketa. Donostian, 2014-07-17an.
[175] Alicia Polori eta Mikel Apaolazari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean. Bi anaiek otarregile gisa egiten zuten lan, Ezkiaga auzoan.
[176] Pako Ruiz de Apodakari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.

or.

Beasaindar talde bat, tartean Errepublika garaian Beasaingo Elkarte Sozialistako lehendakari zen Antonio Menaza Bermudez azaltzen da. (Argazkia: Beasaingo PSOEk utzia)

zituztela, uztailaren 27an eta abenduaren 10ean. Bi batzar horiek Gobernadore Zibilaren baimena izan zuten. Horrez gain, euren lokaletan hitzaldiak eta abar egiten zituzten[177]. Lehen kapituluan esan bezala, sozialismoa langile-mugimenduari lotutako alderdi bat izan zen, batez ere UGT sindikatuari lotutakoa. Sindikatu hori Beasainen 1917tik antolatua bazegoen, ere, Errepublika -garaian hazi zen, sekzio berriak sortuz, adibidez, 1934an, Altzari Langileen Sindikatua sortu zen Beasainen[178] (gogoratu behar dugu Beasainen altzari-fabrikak bazeudela, Eskisabelena esaterako). UGTn garrantzitsuena zen sektorearen, Sindikatu Metalurgikoaren, tokiko adarraren ordezkariak, Beasainen Gumersindo Capa Mendizabal lehendakaria (ordiziarra berau) eta Antonio San Martin San Bizente idazkaria izan ziren[179]. Hala ere, 1935eko urriaren 23ko beste dokumentu baten arabera, berriro aldatu zen zuzendaritza. Dokumentu horren arabera, Metalurgiako Sindikatuak 350 bazkide zituen. Bertako lehendakari Julian Blanco zen, idazkari Antonio San Martin, idazkariorde Tiburtzio Lopez, diruzain Jose Miralles, kontu-arduradun Benigno Gomez, eta zuzendaritza-batzordeko kide soil Ambrosio San Bizente eta Nicolas Palacios[180]. Ikusten dugunez, UGT sindikatuko lehendakari izan aurretik, Julian Blanco bera Elkarte Sozialistako lehendakari izan zen, beraz, argi eta garbi dago Alderdi Sozialistaren eta UGTren arteko lotura[181]. 1936an, ordea, Tiburtzio Lopez Rodriguez agertzen zaigu Sindikatuko lehendakari gisa[182].

Elkarte Sozialista, alderdi barruko edota ideologiaren arloko ekintzak egiteaz gain, herriko aferez ere kezkatzen zen eta udalean zinegotzi sozialistak oso aktiboak izan ziren, euren jardun-mailagatik nabarmenduz. Arreta-guneetako bat, hezkuntza eta zehazki eskola publikoen funtzionamendua zen. Eskola publikoek ikastoki duinak izateaz ere kezkatzen zen, 1932ko ekainaren 27ko idatziak frogatzen duen legez. Idatzi horretan eskola publikoetan ematen zen pilaketa salatu zuten[183]. Hezkuntza publikotik at, hezkuntza pribatuan zegoen egoeraz ere iritzia plazaratzen zuten beasaindar sozialistek: 1932ko martxoan eskola kristauei subentzioa kentzea eskatu zuten, “han, irakasleek umeen paparretatik Errepublikaren ikurrak bortizki erausten dituzte-eta”[184]. Afera honi buruz esan, 1936ko apirilean, itzuli zirela Sozialistak udalera Ezker Errepublikanoarekin batera eta beste mozio bat aurkeztu zuten, eskola erlijiosoei subentzioak kentzea eskatuz. Sozialistek eta errepublikanoek salatzen zutenez, Beasaingo Udalaren 1936ko aurrekontuetan (1935. urtearen bukaeran egin ziren, artean alkate Manuel Perez eskuindarra zela), “bestelakoak” atalean, eskola erlijiosoak subentzionatzeko dirua jarrita zegoen; lekaimeen haur-eskolan

[177] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.
[178] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[179] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua.
[180] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.
[181] Blanco 1936ko Gudan hil zen, Rusia batailoiarekin borrokan ari zela.
[182] Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua.
[183] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.
[184] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

erlijioso bat egotea (udalarena ere egonda) eta udal-lokaletan egonik "erlijio-ekitaldiak" egitea salatu zuten (udalarena zen eraikinean zegoen lekaimeen haur-eskolan lekaimeek ematen zizkieten eskolak umeei). Aldi berean, Garinen auzo-eskola berria hainbat arinen egitea eskatu zuten "Garingo umeak ezin baitira eskolara joan"[185]. Ekainean antzeko kexu bat azaldu zuen Elkarte Sozialistak, gainera kasu honetan "eskola berriak" (Martina Maiz kalekoak) oso irismen txarra zuela salatuz eta arazo hori konpontzea eskatuz[186]. Udalak, 1936ko maiatzaren 2an, Viktor Bernedo sozialista alkate zela, halako eskakizunei baiezkoa eman zien, udal-eskoletan erlijiosoek haur-eskolako umeei klaseak ematea debekatuz, Garinen eskola bat egiteko konpromisoa hartuz eta hurrengo urterako aurrekontuetan (udal horrek ez zuen aurrekontu horiek egiterik izan, Guda sortu zutelako) eskola erlijiosoentzako zeharkako kontusailik ez jartzeko konpromisoa ere hartuz[187]. Mozio hori gehiengo zabalez onartua izan zen (Restituto Urteagak soilik bozkatu zuen aurka). Hala ere, kontuan izan behar dugu, udal-talde ezkertiar horrek 1932an, eskola erlijiosoei subentzioa kentzeko proposamenari uko egin ziola eta subentzioa "murriztu" soilik egin zietela. Joera-aldaketa hori bi arrazoirengatik uler daiteke: 1933an Kongregazio Katolikoei hezkuntzan aritzea debekatzen zien legea atera izana (Beasaingo eskola erlijiosoak "eskola pribatu" arrunt bihurtu ziren ofizialki eta irakasleek, eskolak emateko, fraide-jantzia edo lekaime-jantzia kendu egin behar izan zuten), eta bestetik, 1936ko giro politikoaren polarizazioa.

Los que suscriven Presidentes y Secretarios que integran la Casa del Pueblo, a Vds. con el debido respeto tienen el honor de exponer lo que a continuacion se expresa:

Cercana la fiesta del 1º de Mayo en la cual se celebra la Fiesta del Obrero es por lo que nos dirigimos a Vds. en demanda de que veriamos con agrado que dicho dia tarde y noche tocase la Banda de musica unos bailables en la Calle J.M. Arana frente al domicilio Social para esparcimiento del Pueblo Trabajador para asi celebrar su fiesta.

V9ra Ud. muchos años para bien de la Republica.

Por las Juntas Directivas que componen la Casa del Pueblo

El Presidente — El Secretario
El Presidente — El Secretario
El Presidente — El Secretario
El Presidente — El Secretario
El Presidente — El Secretario
El Presidente — El Secretario

U. G. T. Federación Provincial Obreros de la Tierra VILLAFRANCA (Guipúzcoa)

Sindicato Provincial de Obreros de la Madera de GUIPUZCOA

SINDICATO PROVINCIAL Carro Metálico Guipúzcoa U. G. T. Villafranca Beasain

Sr. Alcalde Presidente de la N. y L. Villa de Beasain

Beasain 9 Abril 1934.

12.- 1934/Abril/9. (Documento) Componentes de la Casa del Pueblo de Beasain. La Agrupación Socialista, comparte sus locales con cinco federaciones sindicales de la UGT en la localidad: Federaciones del mueble, de carroceros, sindicato metalúrgico, ferroviario y de trabajadores de la tierra. El pequeño local de la calle Pablo Iglesias, era un hervidero donde los trabajadores se organizaban para mejorar sus condiciones de vida y de trabajo.

Beasaingo Alderdi Sozialistaren eta UGTko adar ezberdinen lehendakari eta idazkariak 1934an.
(Argazkia: Beasaingo PSOEk utzia)

[185] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 14. dokumentua.
[186] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 08. dokumentua.
[187] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua.

or.

Elkarte Sozialistaren beste kezka bat langabeen egoera izan zen eta hainbat proposamen aurkeztu zituzten langabetuen egoera hobetzeko. Norabide horretan, 1932an, Loinatz jaietarako jarri beharreko udal-aurrekontua ezabatzea eskatu zuten, diru hori langabetuak laguntzeko erabil zedila eskatuz. Kasu horretan, udalak jaietarako aurrekontua erdira jaistea onartu zuen, baina ez erabat kentzea "jaiek Beasaina kanpotar asko ekartzen dituztelako eta horrek herriko merkataritzari on egiten diolako"[188]. 1933ko martxoaren 9an alkateari bidalitako eskaera batean, langabeek medikua eta botikak dohainik izatea eskatzen zuten eta mozio hori Pedro Lasa zinegotzi sozialistak defendatu zuen udalean[189]. Baina eskaera horrek ez zuen erantzun baikorrik izan eta 1933ko martxoaren 20ko udal-bilkuran, udalak, gastu horiek udalaren esku izatea garestiegia zela erabaki zuen, udalak jada "hamar familia pobre" eta "eskaleak" ere artatzen zituela gaineratuz[190]. 1936ko urtarrilean Metalurgiako Langileen Sindikatuak eskaera egin zion Beasaingo Udalari, langabeen poltsatik hartuta lan egiten zuten langileek egunean zazpi pezetako jornala kobratu ordez, zortzi pezetakoa kobra zezaten, langileek hori kobratzen baitzuten[191]. 1936ko apirilean beste eskaera bat egin zuten langabeek, Langabeen Poltsan zeudenak udalak herri-lanetarako kontratatzerakoan, astean 44 ordu baino gehiago ez zezatela lan egin, horrela lana langabe gehiagoren artean bana zedin[192].

Anarkistek (Metalgintzako Sindikatu Bakarra deitutakoa, CNTri lotua) ere presentzia izan zuten Beasainen, hasierako mitinaz harago. Antza denez, haien egoitza Ordizian zegoen (1933ko eragileen arteko bilera bateko aktak "Ordiziako Metalgintza Sindikatua" aipatzen du[193]) baina 1935eko urrian Beasainen aretoa irekitzea lortu zuten. Litekeena da, ordura arte zabaldu ez izana 1934ko iraultzaren osteko errepresioaren ondorio izatea[194]. 1932ko apirilean Merkatu-plazan batzar ireki bat egiteko eskaera egin zuten, baina baimen hori ukatu egin zitzaien udaletik eta, horren ordez, batzarra anarkisten aretoan egiteko esan zitzaien. Esan beharra dago, anarkistak (eta komunistak) 1932an Gobernu ezkertiarraren ildo erreformistaren aurka zeudela, eta Gipuzkoako langile-gatazka ia guztiak, eurek sustatuak izan zirela[195].


Servicio Telefónico Provincial

DIPUTACION DE GUIPUZCOA

Indicaciones eventuales: Oficial

Indicaciones de servicio: Núm. de orden ..... Recibido a las ..... La telefonista,

Lugar para el sello de fechas

La Excma. Diputación no acepta responsabilidad alguna respecto al servicio telefónico. En casos de reclamación o rectificación debe presentarse el telegrama o telefonema original.

San Sebastian de para Beasain n.º 778 palabras 50 depositado el día 26 a las

Gobernador Civil ai
Queda autorizado Acto Propaganda
Electoral dia 26 actual oradores Jesus
Rafirain, Juan Alonso y Antonio Vega
de Tracine Previene esa Alcaldia
Delegado que asista y cumpla instrucciones
materia dandome cuenta por telegra
ma terminado acto con numero
asistentes breve extracto temas
tratados local e incidentes dignos
mención

7.- 1931/Diciembre. (Documento) Un mitin en la plaza de Beasain reúne a mas de un millar de personas.

1931ko abenduan Beasainen mitin bat emateko baimena azaltzen duen dokumentua. (Dokumentua: Beasaingo PSOEk utzia)

[188] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[189] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.
[190] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.
[191] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[192] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[193] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.
[194] Beasaingo Udal Artxiboa. 138. karpeta, 32. dokumentua.
[195] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 36. dokumentua.

Komunistez berriz, aipatu beharra dago 1935ean sortutako *Euzkadiko Partidu Komunistaren* idazkari nagusia Jesus Larrañaga "*Goierri*" Beasainen bizi zena zela (berez Urretxun jaioa), eta pertsona horrek Beasainen ospe handia izan arren, komunisten presentzia txiki samarra izan zen gure herrian. Beasainen, presentzia komunista antolatuaren inguruko lehen zantzuak 1936ko uztailaren 10ean agertzen dira, Guda hasi baino astebete lehenago *Lateŕiarteko Sorospen Goŕija*[196] (*Socorro Rojo Internacional*) sortu zenean. Erakunde hori presoak babesteko erakundea zen; garai hartan Beasaingo eta Goierriko preso guztiak aske ziren, baina 1934-1936 artean izandako kartzelatzeek asko astindu zuten Beasaingo herria[197].

Komunistek, Gipuzkoan, lehen kapituluan esan bezala, herri industrialetan izan zuten presentzia, Donostialdean, Irunen, Tolosan eta Eibar inguruko gunean[198]. Beraz, Beasain salbuespena izan zen, hemen alderdi horrek ia presentziarik izan ez zuelako, nahiz eta Jesus Larrañaga gipuzkoar eta euskal komunisten liderra Beasainen bizi zena izan. Alderdi Komunistak kide gutxi samar zituen Gipuzkoan (1933ko hauteskundeetan 2.330 boto soilik izan zituen) eta ekintzaile oso gogorrak izan arren, sindikalgintzan batez ere, Pasaiako arrantzaleen sindikatua eta Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazioa kontrolatzera iritsi zen (Alderdi Komunistaren barneko gaitz bat izena bera zen eta Errepublika-garaiko azken egunak iritsi arte, liderren ospea ez zen gai izan militante-kopurua handitzea lortzeko[199]). Jesus Larrañagaren familiak, zehazki bere iloba Miren Atxagak kontatzen digun bezala: "Gipuzkoan Alderdi Komunista ez zen oso handia, batez ere donostialdean zuen indar handia. Pasaian adibidez oso indartsua zen, hango arrantzaleek Jesus Larrañaga oso maitatua zuten"[200]. Langile Elkarteen Tokiko Federazioak Donostiako Portu kalean zuen egoitza, Joanito Kojua jatetxearen aurrean[201]. Erakunde horren barruko borroka handia izan zen komunisten eta sozialisten artean, ospe handiko erakundea baitzen Federazio hori. 1924an komunisten presentzia oso nabarmena zen, jada eta komunisten eragina handi samarra izan zen, Federazioa sozialistek kontrolatutako UGT sindikatutik irten egin baitzen. Hala ere, garai horretako Diktadurak, oso toki gutxi uzten zuen lan politikoa egiteko, eta Donostiako Langile Elkarteen Tokiko Federazioak 1931ra arte itxaron behar izan zuen garatu ahal izateko. 1931n egin zuen bileran gehiengo komunista bat aukeratu zuen Federazio horrek (Asensio Arriolabengoa lehendakari zela)[202], sindikalismo komunista gipuzkoarraren eustoin nagusi bihurtuz. Oso nabarmena izan zen komunisten militantzia sindikalaren indarra, Alderdi erlatiboki txikia izanda, gipuzkoar sindikalgintzan eragin handia izan zuten. Guztira 12 tokiko elkarte zituzten, 1.237 langile ordezkatuz (Sebastian Zapirainek emandako zenbakiak dira, PCErentzat ofizialak, Sebastian Zapirain PCEko politika sindikalaren arduradunetako bat izan zen-eta)[203]. Arlo horretan, komunistek Donostian oso lan sindikal indartsua egin zuten, ospe handia irabaziz; horrela langabeak birkokatzea, eurentzako udal-jangela sozialak sortzea eta beste lorpen batzuk burutu zituzten[204]. Hala ere, sozialistekiko eta anarkistekiko lehen urteetako etsaigo politikoa arlo sindikalean ere antzeman zen, komunisten arabera, haiek "langileen batasuna oztopatu" egiten baitzuten[205].

Komunistek sozialistekiko zuten beste ezberdintasun handi bat propagandan erabiltzen zen hizkuntza izan zen. Komunisten artean, euskararen erabilpena askoz ere handiagoa zen; bai mitinetan, zein idatzizko komunikazioan, zein prentsan (1933an hasi ziren Euskadi Roja larunbatero ateratzen). Garai hartan asko erabilitako propaganda-modu bat, Jose Antonio Egidoren arabera, komunistek askotan sagardotegietan eta tabernetan, euskal abestiak abestea izan zen, bertan bilduekin kidetu eta hala propaganda banatzeko[206]. Jesus Larrañaga Beasaingo buruzagiaren euskaltzaletasuna oso nabarmena izan zen, 2015ean bere alaba Rosa Larrañagak eta bere iloba Miren Atxagak kontatu zigutenaren arabera "euskara berarentzat (Jesus Larrañagarentzat) oso garrantzitsua zen. Hizkuntza barrenean zeraman, biziki maite zuen. Mitinetan batez ere euskaraz hitz egiten zuen, erdaraz ere bai, baina euskaraz gehiago"[207].

---

[196] Hori zen garai hartako ortografiaren arabera, euskaraz erabiltzen zuten izena.

[197] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 16. dokumentua.

[198] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 147. or.

[199] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 75. or.

[200] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-06-26an.

[201] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 34-35. or.

[202] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 286-290. or.

[203] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 286-292. or.

[204] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 53-54. eta 60. or.

[205] Zapirain anaien arabera, ildo hori Bilbotik ezarria izan zen, Gipuzkoako komunisten artean sozialistekiko eta anarkistekiko elkarlanerako joera handiagoa izan zen. EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 53-54. eta 60. or.

[206] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 31-32. or.

[207] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

or.

Alderdi honek Errepublikaren garaian, bi epe oso ezberdin izan zituen: motzean esanda, bata 1931-1933 epean koka dezakegu (hots, "biurteko eraldatzailean", Gobernuan ezkerreko indarrak egon ziren erarekin bat etorri zen) eta bestea, 1934-1936 epea (hots, "biurteko beltzean"; Gobernuan eskuineko indarrak egon ziren epean, eta horren osteko Herri-frontearen epearekin bat etorri zena). Lehenengo epean, Alderdi Komunistaren ildoa Errepublikaren aurkakoa izan zen, Errepublika burges gisa ikusten zuelako, eta beste ezkerreko indarrekin ez zuen batere elkarlanik egin nahi izan. Hori azaleratzen du Gipuzkoan lehenengo biurteko horretan gertatu ziren greba gehienen atzean komunistak (eta anarkistak) egon izanak, beste ezkertiar alderdiak Gobernuan zeudela eta beraz ordenarekin nolabaiteko konpromisoa zutela, komunisten ildoa Errepublika beste Estatu kapitalista bat bezala tratatzea izan zen[208]. II. Errepublikaren etorrera zela-eta antolatu zituzten mitinetan, beste alderdi ezkertiarrek Errepublikaren etorrera ospatu zuten bitartean, Alderdi Komunistak "Errepublika Sobietarra" eskatzen zuen, baita Euskal Herrian ere. Apirilaren 14an bertan, Donostian, komunistek manifestazio bat egin zuten bandera gorriz josia, Beasaingo Jesus Larrañaga buru zela, "Errepublika burgesaren aurrean, langile eta nekazarien Errepublika" defendatzen zuen. Bilbon kartzela asaltatu zuten, preso batzuek aske utziz[209]. Madrilen, eraikinak asaltatuz "Errepublika sobietarra" ezarri nahi zuen manifestazio txiki bat antolatu zuten, herritar gehienek II. Errepublikaren etorrera ospatzen zuten bitartean[210]. Ildo hori, parte batean, norbere indarrak gainestimatuta azal zitekeen, baina bestetik, baita errepublika-zaletasunak Alderdiko kideak eta aldekoak ez tronpatzeko modu gisa ere, Alderdiaren izaera ideologikoa eta helburuak ondo markatzeko modu gisa. Orduko Alderdiaren idazkari Jose Bullejosek (1932an kargugabetua izan zen) esan zuen bezala, "harro sentitzen ginen korrontearen aurka igerian ari ginelako"[211]. Ildo horren erakusgarri izan zen komunistek zuzendu zuten 1931ko maiatzeko Pasaiako arrantzaleen greba eta ondorengo istiluak, polizia-indarrek sei langile hil zituztenekoa. Euskadi Roja egunkariak 1933ko apirilaren 15ean argitaratu zuen Alderdi Komunistaren ildoa eta ildo horren arabera, Errepublika uzkaildu, Errepublika kudeatzen zuten alderdiekin harremanak eten, amnistia, autodeterminazioa, lurren banaketa, armada eta guardia zibila desarmatzea eta abar eskatzen zuten, hau da, garaiko Errepublikarekiko haustura[212]. Noski, horrek oso errepresio gogorra ekarri zuen komunisten gainera. Hala kontatzen digu Larrañagaren iloba Miren Atxagak: "Jesus ia beti kartzelan zegoen". Baina karisma handiko gizona zela ere esan behar dugu, Atxagaren arabera "hango poliziek ere errespetu handia baitzioten"[213].

1934an, eskuina Gobernura iristean eta langile-klasearen egoera okertzerakoan, komunistek sozialistekin edota anarkistekin elkarlana egitearen aldeko jarrera zabalagoa erakutsi zuten eta hori erakusten dute 1934an sozialistek eragindako langileen altxamenduan edo 1936ko Herri-frontean parte hartzea[214]. Beste alde batetik berebiziko garrantzia izan zuen 1935eko Internazional Komunistaren Kongresuak, zeinak faxisten aurkako beste indarrekin elkarlana egiteko deia egin zuen[215]. Auzi nazionalaren inguruan ere bi epe horien ezberdintasuna asko nabaritu zen: lehen epe horretan, Estatutua idatzi eta bozkatu zenekoan, Alderdi Komunista Euskal Estatutuaren aurkakoa izan zen, "Euskal Herriaren askapen nazionala ekartzeko balio ez zuelako" eta "espainiar inperialismoa betikotzen zuelako". Hala, 1933ko azaroko erreferendumean komunistek ezezko botoa eman zuten. Hala ere, gerora, 1933an bozkatutako Estatutua eskuineko Gobernuak blokeatu zuenean, bere politika moderatzearen ondorio gisa, Alderdi Komunistak Estatutu horrekiko bere posizioa aldatu eta berau indarrean jartzearen alde egin zuen.

1935eko ekainean *Euzkadiko Partidu Komunista* ofizialki sortu zen. Ordura arte, Gipuzkoako komunistak PCEren Gipuzkoako Federazioaren barruan zeuden antolatuta. Bertako buruak, Larrañagaz gain, "(Rikardo) Urondo, (Joan) Astigarribia, Cuenca eta (Agustin, Luis eta Sebastian) Zapirain anaiak izan ziren" Rosa Larrañaga eta Miren Atxagaren hitzetan[216]. Alderdi Komunista, Sozialista bezala, batez ere langile-giroetan zen indartsua. Gipuzkoar komunisten zalantzagabeko burua Beasainen bizi zen Jesus Larrañaga Txurruka urretxuarra izan zen, Lapurdiko Bokaletik itzuli ondoren. Hala ere, Larrañaga ez zen Beasainen bizi izan orduan, Donostian baizik[217]. Ordurako, Donostian, Alderdi Komunistak 90 kide zituen, Jose Antonio Egidoren arabera[218].

---

[208] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 51-55. or.

[209] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 51. or.

[210] Manifestazio hori, Alderdi Komunistaren jarraitzaile-kopuru txikia zela-eta, sinbolikoa besterik ez zen izan. MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 51. or.

[211] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 40-41. or.

[212] *Euskadi Roja*, 1933-04-15koa.

[213] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Garateri egindako eklarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[214] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 79-80. eta 89-93. or.

[215] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 90-91. or.

[216] Rosa Larañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[217] Bere alaba Rosa Larrañaga Agarristak ere kontatzen du: "Gu ez gara sekula Beasainen bizi izan": Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[218] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 40. or.

Zenbaki horiek Jose Antonio Rodriguez Ranzek ematen dituenak baino handiagoak dira, zeinaren arabera, 1934an Gipuzkoa osoan 70 kide besterik ez zituzten[219]. Euzkadiko Partidu Komunista propioa sortzeko mugimenduak urte batzuk lehenagotik datoz (1933an Euskadi Roja egunkaria argitaratzen hasi ziren euskal komunistak[220]); nahiz eta Joan Astigarribia pasaitarraren arabera, hura sortzerakoan, paradoxikoki, Espainiako Alderdi Komunistak, PCEk, bere eragina handitu egin zuen euskal komunisten barruan (aurretik herrialde bakoitzak bere federazioa zuen). Gainera, Jesus Larrañaga "*Goierri*", nahiz eta idazkari nagusi gisa jarri, PCEko Komite Zentralean sartzean, Euskal Herritik eta bertako komunistengandik praktikoki aldendu egin zuten, EPKren autonomia txikituz. Egidoren arabera, horrek "traba" egin zien euskal komunistei[221]. Alderdi Komunista Euskal Herriaren arloan antolatzeak ez zuen berez euskal autodeterminazioaren inguruko diskurtso-aldaketarik ekarri, jada aurretik komunistek hura defendatzen baitzuten. 1931n, adibidez, Internazional Komunistako[222] lehendakari zen Dimitri Manuilskik azaldu zuen "Euskal Herriko, Kataluniako zein Galiziako langileek bat egin behar dute Espainiako langileekin batera autodeterminazio- eta independentzia-eskubidea lortzeko eta espainiar inperialismoaren hondarretan, iberiar errepubliken federazioa lortzeko": Larrañagak berak, 1931n "euskal abertzaletasuna iraultzaren palanka bihurtzea lortu behar dugu" esan zuen[223], eta 1935ean, Calvo Sotelo eskuindarraren adierazpen batzuei erantzunez, "Espainia gorria Espainia puskatua izango da; ezen espainiar inperialismoak zanpatutako nazioei independentzia emango die"[224]. Dolores Valverde irakasleak, EPKren ildoa, Larrañagaren pean, "ezkerreko abertzale" bezala deskribatu izan du[225]. Alderdi Komunistak, euskal autodeterminazioaren alde egiterakoan, sozialisten eta errepublikanoen "espainiartasuna" behin eta berriz kritikatu zuen, euskal eskubideen aldeko borroka eta EAJren politika bereiziz. Espainiako ezkerrak bi faktore horiek parekatzea espainiar chauvinismotzat jotzen zuten komunistek[226]. Euskal eta gipuzkoar komunistentzat, nazio-askapena, iraultza sozialistaren beharrezko osagarria zen[227]; beraz, Alderdi Komunistaren ustez, "errepublikanoak, sozialistak eta anarkistak ari diren moduan aritzea, Euskadiren askatasun nazionalen aurka aritzea eta kontrairaultzaile izatea da"[228]. Komunisten arabera, Euskadiren nazio-askapena ez zen EAJren aldetik inoiz etorriko, horrek "euskal burgesiaren ordezkari" gisa, ez baitzuen inoiz espainiar kapitalismoaren kontra borrokatuko[229].

Bestalde, gipuzkoar komunistak presente egon ziren PCEko goi-karguetan, Jesus Larrañagaz gain, Sebastian Zapirain donostiarrak eta Joan Astigarribia pasaitarrak ere karguak izan zituzten PCEren barruan. Bai Larrañaga eta bai Zapirain Sobietar Batasunera, Moskura joan ziren militante komunista gisa trebatzera[230]. Beasaindarra bidaia hartatik "oso pozik, maiteminduta" itzuli omen zen, bere alaba Rosa Larrañagak eta iloba Miren Atxagak kontatu zutenaren arabera[231].

Aipatu behar dugu baita ere, 1934ko ekainean, Beasaingo eta Ordiziako Udal Langileen Elkartea (*Asociación de Dependientes Municipales de Beasain y Villafranca*) izeneko sindikatua sortu zela, zein ideologiakoa zen ez badakigu ere[232].

Eskuinari dagokionez, Beasainen eta Gipuzkoan alderdirik indartsuena karlistena izan zen Errepublika-garaian (monarkiko alfontsotarrak Gipuzkoa osoan galdu zuten euren indarra). Karlisten alderdia, 1931n, barne-zatiketek ahuldurik hilzorian zegoen, bai Gipuzkoan eta baita Espainiako Estatuan ere "joana zen eta itzuliko ez zen gizarte mota baten ordezkari" gisa ikusia baitzegoen, ideologiaren transmisio-kate ia bakarra familia zuela. Gainera karlismoak, ikurtzat zuen dinastia-borroka aparte utzita, defendatzen zituen aldarrikapen "sozial" gehienak (foruak, euskaltzaletasuna, baserritarren defentsa oligarkiaren

---

[219] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 146. or.

[220] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 52. or.

[221] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 73-74. or.

[222] Lehen kapituluan azaldua dugu Internazional Komunista zer zen, munduko Alderdi Komunista ezberdinak biltzen zituen koordinazio-organoa.

[223] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren Kultura Batzordea. Beasain, 1993, 50. or.

[224] Calvo Sotelo buruzagi eskuindarrak, "Espainia puskatua baino lehen nahiago dut Espainia gorria" esan zuen.

[225] VALVERDE, Dolores: *Historia de Guipúzcoa*. Txertoa. Donostia, 1984, 181. or.; eta EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 66. or.

[226] *Euskadi Roja*, 1933-05-13koa.

[227] *Euskadi Roja*, 1933-06-17koa.

[228] *Euskadi Roja*, 1933-07-01ekoa; eta 1933-07-22koa. Azken horretan, anarkistei erantzunez, euskal komunistek "euskaldunak, katalanak eta galiziarrak ez dira espainiarrak; euskaldunak, katalanak eta euskaldunak baizik" esan zuten. 1933-08-19ko *Euskadi Rojan*, aldiz, "inperialismoa" eta "herri zapalduen askatasunen aurka" egotea sozialistei egozten diete.

[229] Argudio hau komunisten prentsan behin eta berriz errepikatua izan bazen ere, deigarria egiten zaigu 1934ko maiatzaren 5ean egin zuten adierazpena; haren arabera, Sabin Aranaren abertzaletasuna "sentimentala" eta "bat-batekoa" zen, baina askapenerako antzua, "euskal burgesiari ezinezkoa zena, eskatzen baitzion, hots, "espainiar burgesiaren kontra borrokatzea". (*Euskadi Roja*, 1934-05-05).

[230] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 50. eta 73-74. or.

[231] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[232] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 58. dokumentua.

or.

aurrean) eskuinean jaio zen beste indar herrikoi batek, EAJk hain zuzen ere, defendatzen zituen eta modu askoz ere errealistagoan gainera (aldarrikapen horiek euskal nazioarekin edo euskaltzaletasunarekin lotzeak "benetako dinastiarekin" lotzeak baino itxura errealistagoa ematen zien). Baina Errepublika-garaian susperraldi bat izan zuen karlismoak ere, ezarri berri zen erregimen errepublikanoaren aurkako mezua gogorren zabaltzen zuen alderdia izaki. Karlismoaren barruan 1920ko hamarkadan agertutako hiru joerak, Errepublikaren etorrerarekin batera berriz bildu ziren alderdi bakarrean. 1931rako zentro karlista guztiak berriro biziberritu ziren (Goierrin zeudenak, Beasaingoa, Ordiziakoa, Lazkaokoa eta Itsasondokoa barne)[233]. 1932 eta 1934 artean Olaberria, Zaldibia, Segura eta Zegamako zirkuluak ere eratu ziren. Karlismoaren biziberritze hori, 1934an Espainiako karlisten idazkari nagusi, Fal Conde jartzean baieztatu zen, horrek askoz ere aurpegi "ekintzaileagoa" eman baitzion karlismoari (Erreketeen prestakuntza eta entrenamendu militarrak ordutik hasi ziren orokortzen)[234].

Karlismoaren antolaketa, Gipuzkoa osora zabaldu zen, bai hiri eta herri industrial handietara eta baita herri txikietara ere, parte batean EAJren antolaketa moduarekin identifikatuta. Karlistek ere, mugimendu sozio-komunitario gisa egituratu zuten euren mugimendua, gazteentzako, emakumeentzako eta langileentzako mugimenduak ere eratuta. Aldi berean, Zirkulu Tradizionalistetan, ekintza politiko hutsetatik harago, aisialdi-, kultura- edo kirol-ekintzak ere egin zituzten[235]. Hala karlismoaren ezarpena, Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, klaseartekoa izan zen (goiko klaseetatik zein klase apaletatik zetozen kide karlistak) eta afiliatu berri gazteak lortzeko gai izan zen; baina horrek ez zuen esan nahi klaseartekotasun hori zuzendaritzara ere iristen zenik, karlismo gipuzkoarraren zuzendaritzaren parterik handiena aristokratek eta burgesek osatzen baitzuten[236].

Beasainen, lehen kapituluan kontatu dugun bezala, 1907tik aurrera izan zen Elkarte Tradizionalista, gaurko Andre Mari kalean (garai hartan, Iturriotz kalea). Lehen aipatutako susperraldiaren froga bat, 1932an Beasainen "margariten" taldea, hau da, emakume tradizionalisten taldea sortzea izan zen eta bere ordezkaria Telesfora Imaz izan zen[237]. Karlistek, beste alderdiek bezala, hitzaldiak antolatzen zituzten Beasainen, adibidez, 1932ko ekainean, Tolosako Alejandro Barrenechea ekarri zuten. Bestalde, 1932an, karlistek eskuorri-banaketa bat egin izanaren lekukotza ere badugu[238]. Alderdi karlista oso interklasista zen (eskuineko beste alderdiak ez bezala), bai Usurbe elkarteko kide zirenak (Restituto Ugarte, Joxe Aranburu) zein langileak biltzen zituen; adibidez, gudaren ostean zinegotzi izan zen Rufo Artolain. Bere biloba Joan Unanuak esana digun bezala "Nire aitona 13 urterekin hasi zen lanean, CAFen", beraz klase apaleko jendea erakartzeko gaitasuna zuen alderdia ere bazen[239]. Horrek karlistei indar handia eman zien, Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsororen arabera, "nik uste guda aurretik Aldedi Karlista zela alderdirik indartsuena"[240].

Eskuinean, karlistez gain, beste erakunde bat ere bazegoen, *Sindicato de Labradores* edo Nekazarien Sindikatua. Talde horrek, nekazariak jabetzaren eta erlijioaren aintzatespeneko ikuspuntutik defendatzen zituen. Hala, bere aldarrikapenak, izaera profesionalekoak edo kudeaketakoak izaten ziren, klase-borrokakoak baino gehiago. 1931ko otsailaren 4an zuzendaritza berria aukeratu zuen Nekazarien Sindikatuak eta karguak honela banatu ziren: Liborio Goitia lehendakari, Martin Jose Peña lehendakariorde, Ignazio Begiristain diruzain, Joakin Lizarralde idazkari eta Esteban Goitia, Santos Lasa, Pedro Urretabizkaia eta Joan Antonio Zeberio zuzendaritza-batzako kide[241]. 1933ko otsailean zuzendaritza hori aldatu egin zen, eta gero zinegotzi frankista izango zen Jose Luis Garin jarri zuten lehendakari-postuan. Zuzendaritza berri horretan, lehendakariorde postuan Jose Maria Arantzegi egon zen, diruzain-postuan Jose Manuel Etxeberria, idazkari Gabriel Muxika eta kide gisa Julian Sarasola, Jose Manuel Mendizabal, Silbestre Lasa eta Joan Barandiaran[242]. Astigarreta eta Garingo ordezkari gisa, berriz, Mateo Lasa Arregi agertzen zen[243]. 1935eko otsailean hirugarren aldaketa gertatu zen sindikatuaren zuzendaritzan; lehendakari postuan

[233] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 55-57. or.

[234] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 58. or.

[235] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 60-65. or.

[236] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 60-69. or.

[237] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 41. dokumentua.

[238] Beasaingo Udal Artxiboa. 518. karpeta, 21. dokumentua.

[239] Joan Unanuari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-05ean.

[240] Joxe Manuel Azurmendi Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-09-10ean.

[241] Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 06. dokumentua. Hala ere, 1932ko urtarrilean zuzendaritza-batzako kide batzuk aldatu egin ziren: lehendakariordetzan Jose Maria Aranzadik Martin Jose Peña ordeztu zuen; eta Silbestre Lasak, Jose Manuel Etxeberriak eta Julian Sarasolak, Santos Lasa, Pedro Urretabizkaia eta Joan Antonio Zeberio. (Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 28. dokumentua).

[242] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 29. dokumentua.

[243] Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.

Antonio Sarasola, lehendakariorde Joan Barandiaran, Idazkari Migel Jose Leunda, diruzain Sebastian Odriozola, erosketen arduradun Jose Urdangarin eta zuzendaritza-batzako kide Gregorio Eguren, Jose Muxika eta Martin Jauregi jarri zituzten[244].

Sindikatu horrek, 1931ko irailean, Jose Martin Sarriegi zinegotziaren bitartez, uzta-garaian, nekazarien jabetza babesteko basozain armatuen zerbitzua ezartzea eskatu zuen[245]. 1935ean, Sindikatu horrek berriz eskatu zuen basozainak (zinpeko zaindarien formula pean) ezartzea, "bat udalerriaren Iparraldeko gunean eta bestea Hegoaldeko gunean". Bigarren saiakera horretan, udalak (garai hartan eskuinaren eskuetan zegoen), onartu egin zuen eta 1935eko urrian bi basozainentzako postuak sortu ziren. Postuok Jesus Ibarbia Untzuetak eta Bonifazio Apalategi Zurutuzak bete zituzten[246].

Zergen inguruko eskaerak ere egin zituen sindikatuak. 1932ko urtarrilean, udalari protesta bat luzatu zioten, udalak sagardoaren gaineko 4 pezetako zerga bat ezarri zuelako eta horrek ekoizle txikiak kalte zitzakeelako, beraz, etxeko sagardoaren gaineko zerga kentzea eskatu zuen eta udalak hori onartu egin zuen[247]. Hala ere, ez zen izan lortu zuten zerga-salbuespen bakarra, urte hartako urrian "pitarraren" (sagardo-muztio berriaren) gaineko zerga erretiratzea ere lortu baitzuten[248]. Abere-hiltegiaren hobekuntzaren inguruan ere mintzatu izan ziren, balantzen beharra ikusten zuten "pisatzeak fidagarriagoak izateko"[249]. Agian egindako eskaerarik berritzaileena, udalak Astigarretan eta Garinen argindar-zerbitzua jartzearen ingurukoa izan zen: 1933ko otsailean adierazi zutenez, argindarra jartzeko zerbitzua eurak jarri zuten, nahiz-eta "Guridiren eta Iraolaren garaian" udal-zerbitzuak mantentzea, argindarra barne, udalaren kontura izango zela adostu, beraz, udalak ordainketa horri aurre egitea eskatu zuen[250]. 1936an, Beasaingo kaleetan, esne-saltzaile homologatugabeak esnea saltzen ibiltzea debekatzeko eskatu zioten udalari[251].

Eskuinarekin jarraituz, 1934ko urtarrilaren 30ean CAFen krisiari irtenbide bat topatzeko egindako bilera batean, bildutako hainbat eragileren artean, *Sindicato Católico Profesional* (Sindikatu Katoliko Profesionala) deitutako talde bat ere aipatzen da[252]. Dokumentu horren arabera, bere ordezkaria, geroago zinegotzi frankista izan zen Eusebio Asla Lapart izan zen. Litekeena da sindikatu hori eta 1934an, Beasainen sortutako *Sindicato Profesional de Oficios Varios* (Lanbide Anitzetako Sindikatu Profesionala) sindikatu bera izatea[253]. Azken horrek, Lanbide Anitzetako Sindikatu Profesionalak, 1935eko urriko dokumentu baten arabera, 54 bazkide zituen. Bere zuzendaritza-batza ondorengoek osatua izan zen: lehendakari Migel Garin Muxika, lehendakariorde Eusebio Asla Lapart, idazkari Abundio Montejo Zarate, idazkariorde Frantzisko Lekuona Odriozola, diruzain Jose Katarain Urrestarazu, diruzaindegi-arduradun Jose Arruabarrena Camino eta zuzendaritzako kide soil gisa Gillermo Kortaberria Biain, Migel Quintas Fernandez eta Zipriano Lahidalga Hinoja[254]. Zuzendaritza-batza horretan, Eusebio Asla Lapart, erregimen frankista garaian zinegotzi izan zenaz gain, 1931n hautagai izan zen Jose Katarain eta 1936an karlistekin zuen harremana zela-eta errepublikanoek atxilotua izan zen Migel Quintas aurkitzen ditugu; beraz sindikatu horren profil politikoa erabat eskuindarra zela ondorioztatu behar dugu.

Azkenik, lur-jabeak ordezteko beste elkarte bat ere izan zen, *Asociación Libre de Propietarios de Fincas Urbanas* (Hirilur Jabeen Elkarte Askea), Jose Luis Guridi Aranburu kontratista (eta gero, erregimen frankistaren garaiko lehenengo alkate izan zena) buru zela. Elkarte horrek lurjabeen interesak defendatzen zituen, adibidez, 1933an udalak hiri-lurren gaineko zerga igotzeko zuen asmoaren kontra protesta egin zuen[255].

Eskuin alfontsotarrari dagokionez, Errepublika garaian, Gipuzkoan ia desagertuta egon zen sozialki (nahiz eta hauteskundeetan, "eskuineko batasuneko" hautagaitzetan joera horretako hautagairen bat sartu, gehiengo karlistaren ondoan). 1931ko apirileko hauteskundeek hautagaitza "monarkiko-katolikoei" Gipuzkoako hautetsi gehienak lortzeko parada eman arren (%37,02), sektore horrek ez zuen jarraipenik izan. Izan ere, hautetsietan izandako emaitza hain handia bi arrazoirengatik

[244] Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 10. dokumentua.
[245] Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 06. dokumentua.
[246] Beasaingo Udal Artxiboa. 141. karpeta, 06. dokumentua eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[247] Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 15. dokumentua. Hala ere, 1932. urteko zerga kobratzea erabaki zuten. (Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua).
[248] Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 14. dokumentua.
[249] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 29. dokumentua.
[250] Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.
[251] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[252] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.
[253] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 22. dokumentua.
[254] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.
[255] Beasaingo Udal Artxiboa. A010. Karpeta, 05. dokumentua.

or.

gertatu zen: esan bezala, aurkezteko zailtasunak zirela-eta herri askotan hautagaitza hori bakarrik aurkeztu izana (ez dezagun ahaztu orduan boterearen gertukoak ziren pertsonek osatutako hautagaitzak zirela), beraz, aipatutako 29. artikuluaren arabera hautetsiak aukeratu izana, eta beste alde batetik, populazioaren despolitizazio handiak, toki askotan jendea "boterearen alderdiari" botoa ematera eraman zuela. Nekazaritza-guneetan batez ere, batzokiak eta zirkulu tradizionalistak eratzen hasi orduko, sektore sozial hori, 1931ko apirilean eskuineko hautagaitza horien alde egin zuen sektore hori berenganatzen saiatu iziren, talde monarkiko alfontsotarren oinarri soziala hustuz. Beraz, Beasainen ez zen egon berez antolatutako indar alfontsotarrik.

Monarkiko alfontsotarrak, karlistak ez bezala, oso elitistak izan ziren, praktikoki Donostiatik at ez zuten batere hedapenik izan. 1933ko maiatzean *Unión Regionalista Guipuzcoana* (Gipuzkoako Batasun Eskualdezalea) sortu zen, *Renovación Española* alderdi alfontsotar erradikalari lotutakoa[256], eta 1934an *Derecha Vasca Autónoma* (Euskal Eskuin Autonomoa), CEDAri lotutakoa. Bi alderdiok, karlismoarekin zituzten ezberdintasunak, ideologiaz aparte (batzuk liberalismoa, merkatu-ekonomia eta gizartearen modernizazioa aintzatesten zuten, besteek, ordea, "Erregimen Zaharrera" itzuli nahi zuten), Donostialdera mugatutako alderdiak izan ziren eta eurek osatu zituztenak askoz ere elitistagoak[257].

Azkenik, CAFeko Enplegatuen Ongintza Elkartea dugu, lehendik ere sortua zena, baina garai haietako krisia zela-eta (langabeziak gogor jo zituen bai CAF eta baita Beasain ere), garrantzi handia hartuko zuena. Elkarte horren helburua, CAFeko premiadun langileen beharrak arintzen laguntzea zen, betiere, ikuspegi ez-sindikal batetik (lehen kapituluan aipatu izan da enpresak berak babestutako elkartea zela)[258]. Antza denez, Ongintza Elkartea, CAFeko Laguntza Kutxarekin harremanduta zegoen. Kutxa horren kudeaketarako, kide hauek egon ziren zuzendaritzan: Emilio Senosiain (lehendakaria), Gregorio Orue (lehendakariordea), Joan Beitia (diruzaina), Anjel Garate (idazkaria), Rufo Zaldua, Bizente Sarasola, Jose Zubiarrain, Jose Albisu, Joan Baztarrika, Manuel Verdugo, Domingo Mingo, Alejandro Txintxurreta, Andres Zabaleta, Pedro Barandiaran, Eujenio Zaldua, Ramon Lasa, Ignazio Intxausti eta Amalio Lamata izan ziren[259].

Ikusten dugun moduan, nonahi, bai Beasainen zein Gipuzkoan, alderdi, sindikatu eta elkarte politiko edo sozial ezberdinen kopurua izugarri hazi zen, korronte ezberdin bakoitzeko taldeak antolatuz. Fenomeno hori, Errepublikaren garaian gertatutako fenomeno arrunta izan zen, aurreko garaiko "pertsona eragindunen politikatik" "alderdi-politikara" pasatzeko urratsak eman baitziren.

Beasaingo giro politikoa hainbeste hazi zen, ezen, zinegotzi batek, Seberiano Azpeitiak (1936ko martxotik aurrera alkateorde izango zenak), 1932ko maiatzean udal-karguan dimisioa aurkeztu zuen, udaleko zereginek denbora asko kentzen ziotela-eta "bere negozioari" (Construcciones Azpeitia enpresako jabea zen) behar bezala erantzuteko; beraz, bere lan profesionalak udalari berak nahi izango zukeen arreta eskaintzea galarazi egiten zion. Hala ere, ekainaren 3an Jazinto Urteaga alkateak komunikatu zion bere dimisioa ez zuela onartu[260]. Aurreko egunean udal-bilkurak Azpeitiaren dimisioa ukatu egin zuen, "justifikatu gabea zelako" eta "zinegotzi hori lan ona egiten ari zelako"[261]. Azpeitia ez zen dimisioa aurkeztu zuen bakarra izan, 1932ko ekainaren 9an Dionisio Carrascal Aguado sozialistak ere dimisioa aurkeztu zuen, kasu horretan "osasun-arrazoiak" tarteko. Udalaren erantzuna halakoxea izan zen, dimisioa ez onartzea justifikazioa nahikoa ez zelako eta bere lana "bikaina" izaten ari zelako[262]. Hala ere, ofizialki udalaren parte izaten jarraitzen bazuen ere, udalean gehiago parterik ez hartzea erabaki zuen Carrascalek, 1936ko otsailaren 27an, 1931n aukeratutako eta 1934an kargugabetutako udala berriz indarrean jarri osteko lehen bilkuran, "sinbolikoki" parte hartzen zuela iragarri zuen, baina ez zela gehiago agertuko "berak bere buruari ezarritako arauari" jarraituz[263].

---

[256] *Renovación Españolak*, Berrezarkuntzaren balioak aldarrikatu arren (liberalismo kontserbadorea, monarkia parlamentarioa), laster autoritarismorantz edo totalitarismorantz biratu zuen eta faxismotik oso hurbil egon zen alderdi bihurtu zen.

[257] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 70-78. or.

[258] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 30. dokumentua.

[259] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 23. dokumentua. Hala ere, enpresak babestutako elkarte bat izateak ezin digu pentsarazi kide guztiak ez-sindikalak edo "horiak" zirela. Goian aipatutako zuzendaritza-batzan, adibidez, Alejandro Txintxurreta ordiziarra ageri da, 1934ko istiluetan inplikatuta egoteagatik epaitua eta kondenatua izan zena eta geroago frankistek fusilatua, edo Amalio Lamata gero gudari ibilitakoa; horiek bezalako langile borrokalariak ere aurki ditzakegu zerrendan.

[260] Beasaingo Udal Artxiboa. 64. karpeta, 12. dokumentua.

[261] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

[262] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

[263] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

1.3 Krisi ekonomiko-industriala Beasainen

1.3.a) Demografia-arloak

Erregimen monarkikoaren erorketak, bai Beasainen, zein Euskal Herrian eta hainbat tokitan ilusio handiak piztu bazituen ere, lasta handi bat izan zuen: krisi ekonomikoa. Krisi hori, lehen bi urteetan indarrean egon zen alderdi ezkertiarrek osatutako Gobernuaren asmo eraldatzaileentzako balazta handia izan zen. Ikusiko dugun bezala, tentsio asko hortik eratorriak izan ziren.

Aurreko hamarkadetan, esan bezala, Beasaina jende aunitz etorri zen beste herri batzuetatik. Beasaina etorritako immigrazio horrek bai ondoko herrietan zein Gipuzkoan edota Euskal Herrian nahiz Euskal Herritik kanpo izan zituen sustraiak, baina gehienak Beasaingo industria handira edota trenbidera lan egitera etorritakoak izan ziren, adibidez, badugu trenbidean lan egin zuten zegamarren kasua[264]. Ondoko herrietatik ere CAFera lanera etorri ziren, adibidez Irizar Zurutuza familia, Antonio Irizar Zurutuza gudariaren gurasoak[265]. Joxe Apalategi Etxeberria bera, Olaberrian jaioa, 1931n, umea zela, etorri zen bere familiarekin Olaberritik Beasaina[266]. Alfontso Ibaibarriaga, Ondarroan jaiotakoa, Zumaiatik eta Pasaiatik pasatu zen, Beasainen, Bernedo-enean kokatu aurretik[267]. Euskal Herriko beste lurraldeetatik etorritakoen artean aurkitzen ditugu, adibidez, Begue familia, Zentronikotik etorria[268]; eta baita Ruiz de Apodaka familia ere, hauek ere CAFera lan egitera, Gasteiztik etorriak[269]. Beste batzuk ordea urrutiagotik etorri ziren, gehienak CAFen edo trenbidean lan egitera. Hori izan zen, adibidez, Jesus Lopez Gallegoren familiaren kasua, zeina Gaztelan jaioa izanik, Frantzian lan egiten saiatu ostean, Beasaingo CAFen finkatu zen[270]. Ramon Perez Onesimok ere kontatzen digu bere familiakoak (amaren partetik, Onesimotarrak sozialistak zirela eta, haietako bat, Ignazio Onesimo Beasainen militarrek hil zuten), Valladolidetik eta Errioxako Cañas herritik etorriak izan zirela[271]. CAFera ez etorri arren, Beasaina etorritako beste batzuk, adibidez Polo Carrascal familiakoak izan ziren (bi anaia gudari ibili ziren eta haietako bat fusilatua izan zen). Horiek otarregile gisa aritu ziren lanean Ezkiaga auzoan[272]. Baina halako kasuetan ohikoa izan ohi da, industria indartsu batek sortzen duen populazio-igoerak industria deribatuen hazkundea eragitea, eta gero horrek ere etorkin berriak erakartzea. Kanpotik etorritakoen artean ere izan ziren abertzaleekin militatzea erabaki zutenak, adibidez, Beasaingo ELAko lehendakari izan zen Jose Maria Lozares Escolar Burgosko Villasur de Gredosen jaio zen eta hamaika urte zituela etorri zen Beasaina[273].

Nazioarteko finantza-krisiak, industria gogor jo zuen eta Euskal Herriak eta batez ere Beasainek, herri oso industriala izaki, larrutik ordaindu zuten. Ez da arraroa hamarkada hura, 1930 eta 1940 artekoa izana XX. mendean Beasainen populazioa jaitsi zeneko hamarkada bakarra. CAFen langileak murriztearekin batera etorri zen biztanle-galera. Izan ere, 1930erako 5.260 pertsonako biztanleria bazuen herriak, 1940an 4.986 zituen, 5.000ko langaren azpitik. Eta 1936ko Gudak horretan nolabaiteko eragina izan zuen arren, Beasaindik pertsona askok ihes egitea ekarri baitzuen, egia da halaber, populazioaren beherakada 1936a baino lehenagokoa izan zela. Izan ere, 1936an, Beasaingo populazioa, Jose Gabriel Zurbano Meleroren arabera, 5.172 biztanlekoa zen[274], beraz, 1931ko neurritik behera zegoen (1910 eta 1936 artean, oro har, hazkundea %94koa izan zela kontuan izanik, 1930 eta 1936 artean halako beherakada gertatu izana oso azpimarragarria da). Kontuan hartu behar da 1900 eta 1930 arteko Beasainen hazkundea, proportzioan, Gipuzkoako bigarrena izan zela Pasaiaren atzetik eta Errenteria, Arrasate eta Eibarren aurretik. Horrek, Beasain, Gipuzkoako 16 udalerri handienen artean (5.000 biztanletik gorakoen artean) jarri zuen; Gipuzkoako 89 udalerrietatik 73k, 5.000 biztanle baino gutxiago zituzten (eta 38k 1.000 baino gutxiago). 1933ko udalaren biztanleriaren datuen arabera, Beasaingo populazioa, 5.618 biztanlekoa zen legez eta 5.583 biztanlekoa berez[275]. Zurbano Melero beraren arabera, 1934an, Beasaingo populazioa 5.714 biztanlekoa zen, baina urte hartako erroldaren zuzenketak Beasaingo populazioa legez 4.934 biztanlekoa zela dio eta berez 5.048 biztanlekoa[276]. Beraz, datu horiek ontzat hartuz gero 1934rako gertatua zen beheraldia.

---

[264] Lourdes Martinez Otaegiri eta Pello Martinez Otaegiri egindako elkarrizketa. Ordizian, 2014-12-17an.

[265] Maria Ixabel Irizar Aranbururi eta Teresa Irizar Aranbururi egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[266] Joxe Apalategi Etxeberriari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[267] Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-09-15ean.

[268] Roberto Begue Sarasolari eta Yolanda Begue Redondori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-27an.

[269] Pako Ruiz de Apodakari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an.

[270] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[271] Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[272] Alicia Polori eta Mikel Apaolazari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean.

[273] Maria Pilar Lozares Sarasquetari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-03an.

[274] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 48. or.

[275] Beasaingo Udal Artxiboa. A023 karpeta, 19. dokumentua.

[276] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 06. dokumentua.

or.

Populazioaren krisi hori Gipuzkoa osoan gertatu zen 1930eko hamarkadan. 1920ko hamarkada osoan, Gipuzkoako berezko hazkundea handia izan zen, Espainiako batez bestekoa baino handiagoa. 1930-1936 epean, Gipuzkoako berezko hazkunde Espainiaren batez bestekoaren azpitik ibili zen (baita Arabakoa eta Bizkaikoa ere), Espainiako batez bestekoa ere jaitsi egin zen arren. Aurreko hamarkadan, zenbaki absolutuetan 43.772koa izan zen Gipuzkoako berezko hazkundea, 1930-40 hamarkadan aldiz, 29.248koa[277]. 1930ean, Gipuzkoak 302.329 biztanle zituen (154.676 emakumezko eta 147.653 gizonezko), kilometro karratuko 160,39 biztanle, Espainiako Estatuko laugarren dentsitate-tasarik handiena izanez (Bartzelona, Bizkaia eta Madrilen atzetik)[278]. Modu berean, Gipuzkoako herrialdetik kanpo jaiotako gehien hartzen zituen Estatuko laugarren probintzia zen 1930ean: garai hartan gipuzkoarren %78,58 Gipuzkoan jaioak ziren, eta beste %8,95 Hego Euskal Herrian (gehienak Nafarroan). Gipuzkoaren izaera oso industriala markatzen du horrek, eta are gehiago populazioa hiri handietan kontzentratzen zela ikusten badugu; lehen Gipuzkoako 89 herrietatik 5.000 biztanleko langa 16k soilik gainditzen zutela aipatu izan badugu, orain, 16 udalerri horiek gipuzkoarren %67,96 jasotzen zutela esan beharrean gaude (10.000 biztanletik gorako lau udalerriek, Donostiak, Irunek, Eibarrek eta Tolosak, lauren artean Gipuzkoako biztanleen %40,17 biltzen zuten)[279].

Kontuan hartu behar dugu, krisiaren ondorioak behintzat 1931tik nabaritzen hasi zirela Beasainen (Errepublikak lan publikoetarako aurrekontuak bertan behera utzi zituen, eta CAFen ekoizpena 1931n hasi zen behera egiten). CAFeko langileen murrizketa 1931-1932 sasoian hasi zen eta sasoi horretan hain zuzen ere, langilegoa 2.120 langiletatik 1.720ra jaitsi zen[280]. Urte horretarako, Udalak Gipuzkoako Probintziako Batzordeari bidalitako dokumentu baten arabera, lan-astea jada murrizten hasia zen: langileek hileko bi astetan lau egunez soilik lan egiten zuten. Dokumentu horrek zera dio: "eskaerak %50 jaitsi dira" eta "herrian ezinegona dago, lan-faltak merkataritzaren beherakada eta bildutako zergen beherakada dakartzalako"[281]. Eta 1932an zehar, beste 984 langile kaleratu zituzten, Zurbano Meleroren arabera, horietako 242 beasaindarrak eta beste gehienak goierritarrak izan zirelarik[282] (Legorburu Fausen arabera, 1932ko apirilean 456 langile bota zituzten)[283]. 1932ko irailean Nizeto Alcala-Zamora Errepublikako lehendakariak Gipuzkoara eginiko bisitaldian, udalak laguntza eskatzeko luzatu zion testuan, CAFen "diren 2.000 langileetatik erdiak baino gutxiago ari dira lanean (…) eta lanean ari direnek ere lanegun murriztuak dituzte" esaten zen[284]. 1933ko urtarrileko CAFen datuek, "botatako 1.500 langile" eta "hiru eguneko lan-astea" aipatzen dituzte[285], eta 1933ko abuztuan Goierriko hainbat eragilek egindako bilera batean "1931 bukaeratik hona, langile kopurua 2.100 langiletatik 500 geratu arte jaitsi da" aipatzen dute[286]. 1934ko abendurako, CAFen 754 langile soilik zeuden eta hain zuzen ere data horretan lortu zuen fabrikak 400 bagoi egiteko kontratu bat[287] (Egidok, UGTko zifrak hartuz, 700 langile zirela dio[288]). 1936an CAFek bere jarduera eten zuenean, 1.154 langile zituen[289]. Beraz, argi gelditzen da, CAFeko langile-kopurua murriztearen eta Beasaingo populazio-galeraren arteko harremana. Sara Bujanda Olaranek, –beraren familia Lazkaon eta Olaberrian bizi izan zen guda aurretik eta aitak CAFen lan egiten zuen–, hauxe diosku: "garai hartan jende asko bota zuten kalera. Gure aita CAFetik bota zutenean Nafarroako Bianara joan behar izan genuen bizitzera. Berriz hartu zutenean, Olaberrira itzuli ginen"[290].

Langabeziaren igoera, Gipuzkoa osoan gertatu zen atzerakada izan zen, baina Beasaingo ekonomiaren ezaugarriak zirela bide (enpresa handi baten kontzentrazioa, hain juxtu gogorren jotakoa zen azpisektorekoa, metalurgiakoa, eta Estatu-kontratuen oso mendekoa), langabeziarako joera are larriagoa izan zen, arazo sozial bihurtzeko punturaino izan ere. 1931n 922 langabe

---

[277] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 28. or. Barrusok EUSTATen zifrak erabiltzen ditu.

[278] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 11. or.

[279] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 11-13. or.

[280] "Orduan 2.000k edo 3.000k egiten zuten lan CAFen", diosku fabrikako langile baten seme zen Jesus Lopez Gallegok. Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[281] Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua.

[282] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 38. or.

[283] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 119. or.

[284] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

[285] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[286] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

[287] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 38. or.

[288] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 68. or.

[289] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 125. or.

[290] Sara Bujanda Olarani eta Jose Maria Bujanda Olarani egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-09-18an.

zeuden Beasainen eta populazioa 5.260koa zen. Hurrengo urteetan langabeziaren hazkundea handiagoa izan zen (1933an 2.000 langile pasatxotik 1.500 kaleratu zituztela aipatu dugu), beraz, pentsatzekoa da zein izan zitekeen Beasaingo herriaren egoera une hartan. Garai hartarako, 1930erako jada, industriak Gipuzkoako populazio aktiboaren %43,9a biltzen zuen, hirugarren sektorean %29,2 (hau batez ere Donostian zentratuta, non %51,15 hirugarren sektorean ari zen) eta lehen sektoreak %26,7 biltzen zuen. Emakumezkoak, langileen %22,5 ziren, gehienbat, hirugarren sektorean kontzentratuak, non sektore horretako langileen %34, eta emakume langileen %55 osatzen zuten. Gipuzkoan, 1932ko langabezia %14,77koa zen, 1934koa %17,44koa eta 1936koa %20koa[291]. Beraz, lurralde industrial bat izaki, gogotik sufrituko zuen krisia (Bizkaiarekin konparatuz egoera leunagoa izan bazen ere) Gipuzkoak, eta Gipuzkoaren barruan Beasainek. Izan ere, Beasainen zegoen orduko Gipuzkoako fabrikarik handiena, CAF (Arrasateko *Unión Cerrajera*rekin batera, 1930ean 1.000 langile baino gehiago zituen enpresa gipuzkoar bakarra zen). Kontuan izan Gipuzkoan orduan 47.800 langile industrial eta 2.149 lantegi zeudela, beraz, lehen kapituluan esanda bezala, Gipuzkoako industria nahiko txikia zen (soilik 48 enpresek zituzten 100 langile baino gehiago, hots Gipuzkoako enpresen %1,78k). Beste alde batetik, nahiko dibertsifikatua ere bazen, metalurgian, azpisektorerik garrantzitsuenean, 47.800 langile horietako 11.337k soilik egiten baitzuten lan, guztira %23,7ak[292]. Geografikoki ere aniztasuna zen nagusi, Gipuzkoako 89 herrietatik 80k bazuten industria-lantegiren bat, eta 21 herrik bazuten halaber 100 langiletik gorako lantegi bat. Beraz, Gipuzkoan bazegoen halako industriaren "geografia-oreka" bat, zentro industrial garrantzitsuak, izan bazirenak, gipuzkoar geografia osoan zehar barreiatuta baitzeuden. Hori dela-eta, industria bere geografian zehar barreiatuta edukitzeagatik eta hazkunde harmoniatsuagoa izateagatik, Dario Anselen aburuz, "Gipuzkoako ekonomia-sistemak (…) Bizkaikoak baino hobeto egin zien aurre krisi ekonomikoaren eraginei"[293]. Hala ere, errepikatu egin behar dugu, Beasaingo tokiko baldintzek (metal-enpresa handia, Gipuzkoako 1.000 langiletik gorako bakanetakoa edukitzeak), krisia Beasainen ere gogorra izaten lagundu zuten[294], baina Gipuzkoa barruan nolabaiteko salbuespena izan zen.

CAFeko langileak, eurek egindako tren-makina baten aurrean. (Argazkia: Beasaingo Batzokiko argazki-bildumakoa)

[291] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 30. or.

[292] Gipuzkoako industrian, emakume langileen kopurua 1930ean, 7.237 langilekoa zen, %15ekoa beraz. Gehienek josten, industria kimikoan edo oihalgintzan egiten zuten lan.

[293] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 23-25. or.

[294] Hori Dario Ansel berak ere onartu behar du, Eibarko eta inguruko armagintzarekin batera, Gipuzkoan salbuespena izan baitzen. ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 26. or.

or.

Egia esan, krisi hori, CAFentzat gauzak ezin hobeto zihoazela zirudienean etorri zen, 1920ko hamarkada-bukaeran goia jo baitzuen enpresak. 1929an, krisiaren urtean, 1.670 bagoi egin ziren eta 1930ean 30.000. zenbakidun bagoia egin zen[295]. Baina 1931 eta 1936 arteko aroa oso zaila izan zen, bosturteko horretan 675 bagoi soilik egin baitziren (okerrena 1932. urtea izan zen, bagoi bakarra egin zen-eta)[296]. 1931 eta 1939 arteko tartean, ez zen balantze positibo batekin itxitako urterik izan "fabrika haundian"[297].

Hain zuzen ere, krisi hori, CAFek bere fabrikan berrikuntza handi bat hasi zuenean suertatu zen. Izan ere, 1928 eta 1932 urteen artean, CAFek, bere instalazioetan bandajeen eraikuntza berritzeko, gorputz bakarreko "monobloc" gurpilak egiteko berrikuntza bat sartu zuen. Halako piezak egiten zituen beste lantegirik ez zegoen Espainiako Estatutan[298]. CAFen 1928ko modernizazio-planak, horrez gain, Heroult markako labe berri bat erostea ere ekarri zuen, lehen atalean azaldu izan dugun bezala. Lehenago aipatu dugu, CAF Gipuzkoako enpresarik handiena zela II. Errepublikaren garai horretan.

1933rako "fabrika haundiak" halako instalazioak zituen: Gurpildegi-saila (gurpilak forjatu eta ijezteko tailerra, bandajeak forjatu eta ijezteko tailerra eta mekanizatzeko tailerra barne zituela), moldeatze-saila (moldeatzeko tailer bat eta eranskinak, brontzea eta burdina eta altzairua moldeatzeko tailerrak eta moldeatutako piezak bukatzeko tailerra barne zituela), altzairuen saila 16 tonako Siemens Martin labearekin eta 35 tonako Siemens-Maerz labearekin, muntaketa-saila (muntaketa tailerra, aroztegi mekanizatua, profilak lantzeko tailerra eta margotze-tailerra barne zituela), argindar zerbitzu ezberdinak (Zaldibiako zentraltxoa, argindarra eraldatzeko sareak eta lantegi barruan argindar hori banatzeko sareak), hiru laborategi (kimikoa, metalografikoa eta saiakuntza mekanikoak egiteko laborategia), biltegiak, suteen aurkako zerbitzuak, edateko ura banatzeko tutueria eta trenbideak (bai fabrikaren barruko sarea eta baita trenbide orokorrarekiko lotura ere)[299].

Hala ere, Beasainen, Gipuzkoako enpresarik handiena zegoen arren, krisiak gogorren jo zuen sektoreko, metalurgiako, enpresa zen enpresa hori. Krisia berez, 1929ko New Yorkeko burtsak hondoa jo zuenean hasi zen, baina Espainiako Estatuaren kasuan, eta euskal industriaren kasuan, batez ere ekonomia-egitura babeslea izan zelako etorri zen (CAF horren adibide dugu eta lehen kapituluan esan genuen batez ere Estatuaren kontratuetatik ateratzen zituela eskaintzak), gastu publikoaren murrizketak ekarria izan zen eta CAFekiko eta metalurgia-enpresa askoren eskaerak jaistearen ondorioz, haien krisiak eta lanpostu-galerak, gainontzeko enpresei eragin egin zien, askok enpresa handi horientzat hornikuntza-lanak egiten baitzituzten.

Zergatik hasi zen Beasaingo populazioaren beherakada 1934an, krisia 1931n hasita eta 1934. urtearen bukaeran susperraldi txiki bat izanda? Egia esan, ez dugu arrazoi zehatzik galdera horri erantzuteko eta gainera ikerketa honen asmoak gainditu egiten ditu, baina erantzun posible batzuk aurreratuko ditugu. Erantzun horietako bat, aurreko zifrak ontzat hartuz gero, hau izan daiteke: Beasaingo langile-familiek, Beasaindik joateko bazutela halako "mesfidantza" moduko bat eta erroak hemen botata egonik hemendik beste norabait joateko itxaropenik ez zutela, beraz, askok joateari uko egin ziotela lehen urteetan, baina 1934. urtearen erdialdera beheraldiaren unerik gogorrena izan zenean egoera gogortu egin zela. Kontuan hartu behar dugu garai hartan ez zegoela lantegitik kalera botatakoak laguntzeko plan berezirik; 1901ean gaixotasunen aurkako plan bat bazen arren, horrek ez zituen kalera botatakoak babesten[300]. Gehienez ere Enpresak ordaindutako 15 eguneko soldata izan zen kalte-ordain gisa ordaindu zena[301]. Beraz, beste norabait joaten ahalegindu zirela. Beste hipotesi bat hau izan daiteke 1934ko beherakada azaltzeko: langileek hemen etorkizunerako itxaropena galdua izatea. Lau urte zeramatzan CAFek egoerari bueltarik eman gabe eta gero eta jende gehiago gelditzen zela langabezian. Orduan "exodoa" hasi zela kanporantz eta langile asko euren familiekin joan bide zirela; hurrengo urteetan, ordea, 1935-1936 biurtekoan, susperraldiarekin, CAFeko langile zirenak soilik itzuli zirela baina familiarik gabe. Beste hipotesi bat, berezko hazkundearen geldialdia zein kanpotik etorritako etorkinen etenaldia izan daiteke.

---

295 ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 36-37. or.

296 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 118. or.

297 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 119. or.

298 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 109. or.

299 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 109-111. or.

300 Langile gaixoak babesteko plan hori *Compañía de Seguros Vasco-Navarra* enpresaren bitartez kudeatzen zen. ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 106-107. or.

301 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 120. or.

1.3.b) Beasaingo Udalaren eta eragile ezberdinen erantzuna krisiari

Jakin badakigu Beasaingo Udala (errepublikanoen eta sozialisten eskuetan) lanik gabe geratu ziren pertsonak laguntzen saiatu zela. Adibidez, udalak, lanik gabe zegoen jendeari laguntzeko arropa-bilketak sustatu zituen[302] eta langabetuen seme-alabentzako doako jangelak jarri zituen udal-eskoletan[303], edo 1933ko Loinatz jaietan[304] zein 1933ko Gabonetan[305] premia handieneko langabeei laguntzeko dirua bildu zuen. Halako ekimenekin, herriko talde ezberdinek laguntza eman zuten, Zurbano Meleroren arabera, "sindikatuek eta elizak" udal arropa-biltegi horrentzako arropa bildu zuten eta Miren Barandiaranek, ELAren ekarpena nabarmentzen du[306]. Langabeziaren aurka hartzea pentsatu zen beste neurri bat, langabeziaren aurkako zerga bereziak (kontsumoaren zein esportazioaren gainekoak, eta ekoizpenaren gaineko %4ko zerga; diferentzia langabetuentzat izateko) jartzea izan zen (1931ko azaroan Eibarko Udalak proposatu zituen neurriok). Hilabete horretako azaroaren 6ko bilkuran, Beasaingo Udalak, herriko enpresarien artean galdeketa bat egiten hastea proposatu zuen. Hala ere, Beasaingo fabrika handiak (tartean Seberiano Azpeitia zinegotzi ezkertiarrarena zen Construcciones Azpeitia fabrikak) zerga hori jartzea arriskutsua zela esan ostean, azkenean ez zen halako neurririk hartu[307].

Alabaina, herrian bertan ahal zen lanik gehien topatzen ere saiatu ziren, langabetuentzako lan-poltsak sortuta. Jose Gabriel Zurbanoren arabera, 1935 eta 1936 artean 150 bat langile zeuden lan-poltsetan izena emanda, horietako %90 baino gehiago CAFekoak ziren[308]. Lan-poltsa horietan sartzeko baldintzak 1934ko urtarrilaren 4ko udal-bilkuran onartu ziren; beste batzuen artean, langabe guztiek lan-poltsan izena emateko eskubidea zutela esan zen, baina horrekin batera langabetuaren liburuxka bat eraman behar zuten, lana topatzerakoan, gehienez ere zortzi egun igarota udaletxean utzi behar zutena. Udalaren arabera, langabeen bi zerrenda egon behar zuten: adinekoena eta adin txikikoena hain zuzen ere, eta hilero joan behar zuten zerrendan euren izena baieztatzera; bi aldiz segidan huts eginez gero langabeen poltsatik kanpo gelditzen ziren. Bestalde, momentuan eskainitako lanetarako (momentu horretan Arriaran eta Garin arteko errepidea egiten ari ziren) gai ez ziren langileek, ezgaitasun hori justifikatu egin behar zuten. Lan-txandak hamabost egunekoak ziren, langabe denek lan egiteko modua izan zezaten[309]. 1935eko abuztuan, Udalak jakinarazi zuen, guztira 321.342,32 pezeta kosta zela errepide hura egitea (hasierako aurrekontua 235.640 pezetakoa zen), eta gainera, artean eskatutako kredituaren 16.450 pezeta zor zirela[310].

Jose Antonio Egidoren arabera, langabetuek, beste lan batzuen artean, auzo-errepide batzuk egin zituzten, adibidez, herritik Erauskin auzorako errepidea, edota Arriaran eta Garin auzoen arteko errepidea[311]. Errepide horren lanen inguruan, Zabaleta kontratistak, langabetuen lan-poltsan zeuden %40 kontratatzeko konpromisoa hartu zuen, lan-taldetxoak egin eta taldetxo bakoitza bi astez aritzeko[312]. Zaldibiatik Gaintzarako errepidea egin zuten langileen artean, %25 langabetuak izan ziren, hasieran, %60 hala izango zirela uste izan zen arren (Egidok enpresa kontratatzaileak kontratuaren baldintzak apurtu zituelako

---

[302] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 119. or.

[303] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 108. or.; eta LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 121. or.

[304] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua. Hala ere, horrek eztabaida txiki bat piztu zuen, izan ere, udalak ez zuen onartu langabeen bilketa-modua.

[305] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua. Proposamen hori 1933ko abenduaren 16an onartu zen. Diru-bilketa horretan udalak zenbat jarri behar zuen aferak eztabaida piztu zuen (400 pezeta jarri zituen udalak, Pedro Lasak 500 pezeta proposatu bazituen ere). Beste eztabaida bat, diru--bilketa hori Arriaran-Garin errepidea egiten lanean ari ziren langabeentzat (Langabeen Batzordeak eskatzen zuen bezala) edo lan-poltsan izena emandako denentzat izatearen inguruan izan zen, azkenean bigarrena hobetsiz. Hala ere, zazpi egun beranduago, abenduaren 23an, langabeen batzordeak berriz ere protesta egin zuen gai horregatik udalaren aurrean.

[306] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 108. or.; eta BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 105. or.

[307] Beasaingo Udal Artxiboa. F014 karpeta, 41. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 02. dokumentua

[308] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 123. or.

[309] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua. Mozioa Beasaingo Langabeen Batzordeak prestatu zuen eta Doroteo Aguadok eta Pedro Lasak aurkeztu zuten.

[310] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[311] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.); eta Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 22. or; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua. Hala ere, errepide hori egiterako langileak hartzeko modua zela-eta, langile batzuk 1933ko apirilean kexua agertu zuten. 1933ko martxoaren 27ko udal-bilkuran garindar biztanle batzuk, kontratatzeko orduan, garindar langabetuak lehenesteko eskatu zuten. Uztailaren 13an, ordea, Pedro Lasa Segurola zinegotzi sozialistak langabetuen kexuak udal-bilkuran agertu zituen, kontratistak txanda bakoitzean adostutakoa baino langabe gutxiago kontratatzen zituela-eta.

[312] Beasaingo Udal Artxiboa A010 karpeta, 05. dokumentua.

or.

aurreikusitakoa baino langabetu gutxiago kontratatu zirela dio)[313]. Hausturaren arrazoia, dirudienez, Aldundiarekin egindako hiru aldeetako kontratua guztiz argia ez izatea izan zen[314]). Gaintzarako bidea egiterakoan kontratistak erabili zituen kontratazio--moduak langabe-poltsan zeuden langileek oso kritikatuak izan ziren; langile batzuk "finko" bezala eraman zituela-eta. Hori dela-eta, kexu bat aurkeztu zuten Beasaingo Udalean, honek 1934ko maiatzaren 5ean egin zuen bilkuran[315].

Herri-lan gehiago ere proposatu zituzten Beasaingo Udalean: 1934ko urtarrilaren 8an, Aguado Larriche eta Lasa Segurola zinegotzi sozialistek Beasaingo langabeek ur-andela handitzeko lanetan, Lazkaorako bidean zubia egiteko lanetan, pilotaleku berria egiteko lanetan eta Antzizarko pasabidea kentzeko lanetan aritzeko kontratatzea proposatu zuten. Hala ere, urtarrilaren 11ko bilkuran, pilotaleku berria egiteko proposamena bertan behera gelditu zen, alkatearen ustez "une hartan" lan hori egingarria ez zelako (hala ere, ekainaren 2ko bilkuran Leontzio Ibarbia zinegotziaren ekimenez, frontoia konpontzeko proposamena onartua izan zen[316]. Udal-aldaketa zela-eta, 1936ko maiatzean egikaritu zen frontoia konpontzeko proiektuaren hasiera[317]). Beste hiru lanak egiteko asmoak "aztertzea" erabaki zen, lehenengoari buruz "aurrekariak aztertzea" eskatu eta onartua izan zen, eta zubiaz eta pasabideaz, berriz, Aldundiari lanak egiteko laguntza eskatzea[318]. Antzizarko pasabidea egiteko lanak azkar hasi ziren, 1934ko urriaren 31n, zazpi langabetu kontratatuz. Baina beste biak, Zazpiturrietako ur-andelaren handitze-lanak eta Lazkaorako bidean zubia egitea, Gobernadoreak udal berria inposatzearekin batera, moteldu egin ziren. Manuel Perezen garaian, hori bai, udalak 300.000 pezetako subentzio bat jaso zuen langabeak birkokatzen saiatzeko[319], baina udal horrek proiektu berriak onartu zituen, Lazkaoko pasabidea alde batera utziz (ur-andelari dagokionez, Zazpiturrietakoa ez, Arkasingoa handitzea erabaki zuen udal berriak). 1935. urtea amaitzean, Eskisabel y Compañía altzari-enpresak beste pabilioi berri bat egitea eskatu zuenean, lan horietan erabiliko zituen langileen %80 lan-poltsatik hartuko zituela esan zuen[320]. Beste alde batetik, langabeak hilerriaren berrikuntza egiteko ere erabili ziren eta lan hori Jose Luis Guridi kontratistari esleitu zitzaion; guztira, 4.362,30 pezetako subentzioa izan zuten lanek Langabeziaren Aurkako Batzordearen aldetik eta 1936ko maiatzean bukatu ziren[321].

Bestalde, Endrike De Frantzisko Madrilen PSOEren aldetik diputatu zen tolosarrak, Beasaingo langabetuei eskola berriak (Martina Maiz kalekoak, Estatuak 1931n onartu zituen haiexek) egiteko enkargua emateko bitartekaritza-lana egin zuela ezaguna dugu[322]. Baina ezin dugu pentsatu langabeen eskaera guztiak onartuak izan zirenik: Pedro Lasa zinegotzi sozialistak langabetuen mediku-kontsultak eta botiken gastuak udalak ordaintzeko Elkarte Sozialistaren proposamena aurkeztu zuen, baina hura ez zen onartua izan[323].

Horrez gain, Beasaingo Udalak, bertan lana topatu ezinik zebilen, eta beraz, herrian gelditu ezin zen jendeari bere herrira itzultzeko tren-txartela ordaindu zion (Ordiziako Udalak ere erabaki hori hartu zuen)[324]. Halako erabakia gauzatzeko, 1932an 2.500 pezeta gastatu zituen Beasaingo Udalak[325]. 1932ko azaroan, 140 txartel ordaindu zituen Beasaingo Udalak, eta beste bat abenduan. Helmugen artean, bost Arabara joan ziren, beste zortzi Nafarroara, eta gainontzekoak Euskal Herritik kanpo[326].

Jose Antonio Egidori garaiko lekuko batek (Joxe Manuel Ibarbiak) kontatu zionaren arabera, jendetza bildu omen zen tren-geltokian joatera zihoazenei agur egitera, eta haiek trenetik "bagoaz baina laster itzuliko gara!" erantzuten omen zuten[327]. Halako testigantzek erakusten dute kanpotik etorritako langileen eta bertan jaiotakoen artean, jada garai hartarako bazegoela

---

313 EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.); eta Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 22. or. Bestalde, 1934-05-5ean eginiko Beasaingo Udalaren bilkuran, langabeak (Beasaingoak, Ordiziakoak, Lazkaokoak zein Ataungoak), langile-kopuru osoaren %70 izan behar zutela esaten zuten. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

314 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

315 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

316 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

317 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

318 Beasaingo Udal Artxiboa. 2138. karpeta, 33. dokumentua.

319 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

320 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

321 Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

322 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43. or.

323 Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

324 LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 122. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 108. or.

325 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3278-1 dokumentu-sorta.

326 Probintziaka jarriko ditugu hemen datuak, Beasaina lanera etorritako langileen jatorriaz datuak ematen baitira: Valladolidera 60; Burgosera 23; Errioxara 14; Palentziara 13; Madrilera 8; Kantabriara 5; Lugora 2; Asturiasera 1 eta Bartzelonara 1. Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua.

327 EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 22. or.

elkarrekikotasuna eta konplizitatea. Antzeko zerbait gertatu zen Ordizian, non etorriekiko abegikortasuna ere bultzatu zen eta horren lekuko 1934an Ordiziako alkate Patxi Iturriotzek, "Patxi Zabale" ezizena zuenak, esan zituen hitzak: "Goierriko hiriburuko seme-alaba izateaz harro gaudenok beti eman diogu kanpotik hona zetorrenari oso harrera abegikorra"[328]. Ordizian ere langabetuen lan-poltsa bat sortu zen, ordiziar langabetuek Gaintzako errepidea eta Legorretako trenbideko pasabidea egin zituzten[329]; herri horretako lan poltsa erregulatzeko batzordean UGTren eta ELAren ordezkaritza ere onartu zuten; eta Beasainen bezala, langabeei euren herrira itzultzeko aukera eman zien udalak treneko txartelak ordainduz[330]. Baina halako laguntza eman izanak ez du esan nahi tentsiorik izan ez zenik. Izan ere, 1935-1936 aldera "fabrika haundiko" langile batzuk, susperraldi--itxaropena zela-eta, itzultzen hasi ziren, eta berriz ere lanak gora egin zuenean (gogoratu 1934an 754 langile gelditzen zirela CAFen eta 1936ko uztailaren 18rako 1.154 langile zirela, beraz, 400 lanpostu gehiago), berreskuratutako lanpostuetan langileak "berriz hartzeko" bi irizpide ezberdin agertu ziren: batzuek (ziurrenik, joandako askok), eskarmentua, antzinatasuna eta gisako ohiko irizpideak kontuan hartzea eskatu zuten, eta hala izan zen; baina horrek beste langile batzuk, Beasainen gelditutako asko, atsekabetu egin zituen, horiek herrian gelditzea erabaki zutenei lehentasuna ematea eskatzen baitzuten[331]. Halako gatazka bat udal-bilkurara ere iritsi zen, eta 1934ko apirilaren 26ko udal-bilkuran, udalak, Serafin Arana zinegotzi errepublikanoak proposatuta, CAFek langabeak hartzekotan, "herrian edo oraindik industria-ingurune honetan daudenak" lehenestea onartu baitzuen. Kontrako ikuspuntua Pedro Lasa Segurola sozialistak defendatu zuen, esanez, proposamen horrek legea urratzen zuela eta CAFetik, krisia zela eta botatako denak, CAFeko langileak zirenez gero, berronartuak izateko eskubidea zutela denek, langabezian egon ziren bitartean Beasainen geldituak edota beste toki batera joanak izan. Aranaren mozioa zinegotzi errepublikano eta eskuindarren botoaz onartua izan zen; sozialistek aurka bozkatu zuten[332]. Baina hori ez zen izan 1934ko urritik aurrera Manuel Perez alkatearen eta Gobernadoreak izendatu zuen udal eskuindarraren iritzia. Udal horrek, 1935ean Madrilen egindako kudeaketa batzuen inguruko gutun baten arabera, bertan gelditu ziren langileak lehenetsi behar zirela zioen[333]. 1936an zehar Langabetuen Batzordeak eta udalak (Viktor Bernedo alkate zela) egindako bilera batzuetan ere, langabeek (Beasaingo Udalaren lan-poltsan izena emanda zeudenek) Laneko Oinarrien 29. artikulua, kalera botatako langileak berronartzerakoan antzinatasuna lehenesten zuena, kentzea eskatu zuten berriz ere[334]. Langabeak 1936ko ekainaren 6ko bilkura oztopatzera iritsi ziren "Lana nahi dugu!" oihukatuz. Langabeek esan zuten euren atsekabea ez zihoala udalari bideratua, horrek "ahal duena egin baitu", baizik eta Gipuzkoako eta Estatuko agintarien aurka zihoala, haiek ez omen zutela egiten-eta euren eskuetan zegoena[335]. Hala ere, hori izan zen, 1934ko iraultza kenduta (eta iraultza horrek ez zuen berez langabezia-egoera konpontzea xede, langabetuek iraultza hori bultzatu zuten arren), Beasaingo langileek adostasun-gabezia azaltzeko egin zuten ekintza apurretako bat, ordura arte, erakundeekin elkarlana egiea ikusi baitzuten CAFeko langabeziaren auzia konpontzeko bide moduan. Hala ere, interesgarria da ez zutela zuzenean Beasaingo Udala eraso, baizik-eta "goragoko erakundeak". Hau da, langileak jabetuak ziren egoera hori egiturakoa zela, ez inguruabarrekoa, beraz Estatuko agintarien aurka egin zuten protesta. Horrek erakusten du, halako krisien aurrean, tokian tokiko protesten muga herritik gutxi aldentzen dela eta Beasaingo langabeen protestak, Gipuzkoako edo eremu zabalago bateko langabeekin koordinatu ezean, tokiko izaera izan zuela derrigorrez, eta hain zuzen ere, langabeen aldeko zerbitzuak kudeatzen zituen udalaren aurrean egina izan zela.

Krisiaren aurrean, CAFek bultzatutako politika, ekoizpena dibertsifikatzen saiatzea (gogoratu behar dugu CAFek beti ez zuela trenbide materiala esklusibotasunez egin eta XX. mendera arte batez ere bestelako industria-ekipamendua ere egiten zuela) eta Estatuaren aldetik kontratuak lortzea izan zen. Adibidez, 1933an nekazaritzako makineria egiten hasi zen, bestelako lanen faltan[336]. Nekazaritzarako makineria egiteak 150 lanpostu sortzea ekarri zion eta lan-astea bost egunekoa izatera pasatzea[337].

---

[328] GARMENDIA, Larraitz eta ETXABE, Karmele: *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera.* Ordiziako Udala eta Hitzaro Euskara Elkartea. Oñati, 2004, 93. or.

[329] Lan horiek 1933. urtearen bukaeran hasi ziren, eta bertan enplegatu beharrekoen %40 langabetu ordiziarrak eta %20 langabetu legorretarrak izan ziren. Hala ere, 1933ko irailaren 9ko udal-bilkuran Beasaingo Udalak, Ordizian langabeziak behera egin zuela-eta, langabetu beasaindarrak hartzeko eskaera egitea erabaki zuen.

[330] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 23. or.

[331] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 122. or.

[332] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 06. dokumentua.

[333] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[334] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[335] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[336] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 118. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 38. or.

[337] Beasaingo Udal Artxiboa. 251 karpeta, 04 dokumentua.

or.

Beste alde batetik, Estatuaren aldetik, kontratuak lortzeko bidea itxi samarra zegoen, izan ere, Errepublikako Gobernuak, nazioarteko krisia zela-eta, aurrekontu bereziak, trenbideetakoak barne, geratzeko agindua eman zuen[338] (gastu publikoa eta zor publikoa jaulkitzen murrizketak egitea, Errepublikako gobernu ezberdinen politika ekonomikoaren ezaugarri izan zen, Gobernu ezkertiarren agintaldietan ere eta 1933ko CAFeko dokumentu batek dioenez "ez zegoen krediturik bagoi berriak ordaintzeko"[339]). Kontuan izanik Espainiako kapitalismoaren izaera oso babeslea zela (kasu honetan euskal enpresak ere etiketa horren barruan sartuko ditugu, Euskal Herriko industriaren garapena Espainiakoaren pare joan izan baita, kasu askotan aitzindari izan den arren), izaera oso babeslea zela, eta Estatuaren aldetik esleitutako herri-lanen edo enkarguen mendekotasuna handia izan zuela, halako berri bat oso kolpe latza izan zen halako enpresa batentzat. Hala ere, CAFek kontratu batzuk lortu ahal izan zituen, txikiak izan arren[340]. CAFeko enpresariak, normalean, Gipuzkoako ordezkari politikoekin (Aldundiarekin, alkate ezberdinekin, Madrilgo parlamentuko gipuzkoar diputatuekin) bildu ohi ziren, enpresa aurrera ateratzeko. Era berean, ordezkari sindikalek ere, Gobernuari (kasu honetan ahaidetasun ideologikoa ere bazegoen, ezkerreko Gobernuan sozialistak ere bazeuden-eta), lana bermatzeko neurriak eskatzen zizkioten. Ez ziren gutxi izan Madrilera, arazoari konponbide bat topatzera, joandako "gipuzkoar ordezkaritzak" (aipatzekoa da, praktikan, halakoak lurraldeko indar guztiek ahots batez hitz egiten zuten kasu bakanetakoak zirela)[341]. Horietako baten berri badugu eta 1933ko abuztuan, Indalezio Prieto ministroak esan zien, "berak ezin zuela ezer egin, krisia nazioartekoa zela-eta" eta "trenbide-konpainiek ezin zutela diru gehiago gastatu"[342].

Beasainen bertan ere halako Batzar handi batzuk antolatu ziren: lehena, dirudienez Ordiziako Udalaren ekimenez, Ordiziako, Beasaingo eta Lazkaoko Udalak, eta bi sindikatu nagusien ordezkariak (UGT eta ELA) bildu zirenekoa. 1932an, Madrilera langabetuen ordezkaritza bat bidaltzea adostu zuten eta ordezkaritza hori Joan Usabiaga diputatu errepublikanoak, iraganean Ordiziako zinegotzi izandakoak lagundu zuen (batzar horretan 55 bagoi egiteko kontratu bat lortu zuten –hala ere 600 egiteko eskaera egin zuten-, eta beste kontratu batzuk ere eskatu zituzten, bai Mendebaldeko Trenbideetan eta baita Madril-Zaragoza-Alacant trenbidean ere)[343]. Bigarren batzar bat 1933ko abuztuan bildu zen, Beasainen halaber. Gainera batzar horren akta ere badugu: bildutakoak bost alkate (Beasaingoaz gain, Ordiziakoa, Lazkaokoa, Ataungoa eta Olaberrikoa), Beasaingo lau elkarte politiko (Elkarte Sozialista, Zentro Errepublikanoa, Zirkulu Tradizionalista eta "Euzko Etxea", hau ziurrenik batzokia izango zen), Beasaingo eta Lazkako ELA, Ordiziako Metalurgiako Sindikatua, Beasaingo Merkatarien Elkartea, Beasaingo Jabeen Elkartea eta Beasaingo beste bi Elkarteak, Joko Kasinoa eta Burdinbideetako Joko Elkartea bildu ziren. Batzarrean, aurreko kontratuko 55 bagoiak bukatzear zeudela eta nekazaritzarako makineriaren lanak ia beteak zeudela-eta, berriz ere egoera okertzeko arriskua zegoela jakinarazi zuten. Batzar horretan Ministerioari enkargu berrien enkanteak egiteko eskatzea adostu zuten, eta egoera leuntzeko udalen lana eta Aldundiaren zein gobernadorearen laguntza aintzatetsi ziren[344].

Azkenik, Beasainen bertan 1934ko urtarrilaren 26an beste batzar bat egin zen. Batzar horretatik dakiguna, Lan Publikoen Ministerioari bidalitako gutun batek dioena da (orduan Gobernua jada eskuinaren eskuetan zegoen). Gutun hori, Beasaingo Ordiziako eta Lazkaoko Udalek, eta PSOEk, ELAk, eta *Sindicato Católico Profesional* (Sindikatu Katoliko Profesionala) izenekoak eta CAFeko ordezkaritzak sinatu zuten[345]; eta horiez gain Goierriko herri ezberdinetako erakunde sindikalak eta Zaldibiako, Ataungo, Olaberriko, Idiazabalgo, Segurako eta Zegamako Udalak ere ordezkatuta egon ziren[346]. Gutun horretan, aurretik Gipuzkoako gobernadore zibilak eginiko bitartekaritza-saiakerak aipatzen dira, CAFi bagoi berriak egiteko enkargu berririk ez baitzitzaion eman. Gutun horretan, CAFen egoera gaitza deskribatzeaz gain, haren eskaerei entzungor egin izana gogorarazten da (azkena, 5.000 bagoi konpontzeko/ordezteko eskaera, azkenean 600 bagoitara murriztu zena). Idatzi horretan, 600 bagoi horien eraldaketa egin artean, lan-astea eta lanegunak beren onera itzul daitezkeela esaten du, baina bukatzean, lan-aste

[338] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 114-115. or.

[339] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua. Dokumentu horretan, bagoien prezioak "finkatuta" zeudela dio eta merkatzea ezinezkoa zela ere esaten du.

[340] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[341] Eta esan beharra dago baita ere, garai hartako Espainiako Estatuko politikan, Errepublika nondik zetorren jakinda, hots, Berrezarkuntza Monarkikoaren erregimenetik, erregimen haren ohitura guztiak ez zirela izan osoro ezabatuak. Ohitura horietako bat hau zen, hots, "eragina zuten pertsonen" inguruko politika egitea. Kontuan izan behar da halaber, 1931n Gipuzkoan aukeratutako diputatu errepublikano bat, Joan Usabiaga, Ordiziako zinegotzia izana zela (sortzez donostiarra zen arren), beraz eskualdearen interesak defendatzen gogor saiatu zen.

[342] *Euskadi Roja*, 1933-08-26koa. Prietoren erantzun hori gogor kritikatu zuten komunistek euren prentsan.

[343] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 23. or.

[344] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

[345] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua. Hurrenez hurren, Jazinto Urteaga, Frantzisko Iturriotz, Frantzisko Albisu, Antonio Menaza, Konstantino Maiz, Eusebio Asla eta Antonio Sierra.

[346] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

CENTRO REPUBLICANO
CALLE DE PABLO IGLESIAS
BEASAIN
(GUIPÚZCOA)

explicaciones antedichas, obren con la urgencia que el caso lo requiere.

Suyos afmos. SS.

El Secretario

El Presidente

CENTRO REPUBLICANO
CALLE DE PABLO IGLESIAS
BEASAIN
(GUIPÚZCOA)

á 19 de Abril de 1932

Sr. Alcalde Presidente del Ilustre Ayuntamiento de Beasain.

Muy señor nuestro: En junta directiva extraordinaria celebrada por este centro y haciendose partícipe de la grave situación que se origina en esta villa, con el despido de obreros que la Compañía Auxiliar de F.C.C. inicia el día de mañana miercoles día 20 de los corrientes, nos permitimos dirigirnos á esa Ilustre Corporación por Vd. dignamente presidida, para que teniendo en cuenta lo grave de la situación que dichos despidos han de originar, vea si considera oportuno la supresión de las distintas subvenciones que tengan acordadas para las próximas patronales fiestas.

Tambien veriamos con agrado que si así lo acordaran, fuesen convocadas á una reunión á las distintas fuerzas vivas de esta localidad para un cambio de impresiones y ver de llegar á un acuerdo, aparte de los que esa Corporación haya podido tomar, para recabar medios que sirvan de alivio á la penuria reinante.

Confiando en que de las las

16. 1932, 19 de abril. El 20 de abril de 1932, apenas un año después de proclamarse la República la CAF despide a 986 trabajadores que se suman a los 400 que se habían despedido un año antes. La crisis industrial era un hecho que las fuerzas democráticas y progresistas de la localidad trataban de afrontar. El ejemplo de los republicanos.

Krisi ekonomikoaren aurrean, Beasaingo errepublikanoek egin zituzten proposamenak.
(Dokumentuak: Beasaingo PSOEk utziak)

or.

murriztura itzuliko direla eta bitartean hartutako langileak berriz kalera bota beharko dituztela dio. Bildutakoek, Lan Publikoetako Ministerioari, aldi baterako laneko ziklo horretatik ateratzeko, CAFi Madril-Zaragoza-Alacant trenbiderako lau automotore egiteko enkargua emateko proposamena luzatu zioten; CAFek egoera horretatik ateratzeko lana behar zuela eta "enkante gehiago" deitzeko aldarria egin zuten[347]. Ikusten den bezala, Estatuaren aldetik kontratuak murrizteak ekarri zuen CAFen hondamendia, eta kontratu horiek berreskuratzea ezinbestekoa ikusten zuen enpresak lanean jarraitu ahal izateko.

Eskualdetik kanpo ere bildu ziren halako eragile batzuen batzarrak, adibidez, Donostiako Aldundiaren egoitzan, 1934ko otsailaren 4an, Gipuzkoako Ahaldun Nagusia bera eta Madrilen EAJren aldetik diputatu ziren Rafael Pikabea eta Joan Antonio Irazusta ere bildu ziren. Bilera horretan, hurrengo kontratuak lortzeko bitartekaritza diputatuen esku uztea erabaki zen. Beste alde batetik, 600 bagoi eraldatzeko (piezak ordezteko) akordioa lortu zen arren, 5.000 bagoirentzako eskaerak lortzeko itxaropena ere bazen, hori baitzen berritu beharrean zeuden bagoien kopurua[348]. Bestalde, Beasaingo alkateak ere karta bat bidali zion Indalezio Prieto Lan Publikoetako ministroari, 1933ko urtarrilaren 17an, CAF-entzat lan gehiago eskatuz[349].

Hala ere, emaitzak hala moduzkoak izan ziren, kontratu txiki batzuk lortu ziren, baina ez eskatutakoak beste. Ikusi dugun bezala; 1932an Estatuaren aldetik, 55 bagoi egiteko eskaria lortu zuen (600 egiteko eskaria jasotzeko itxaropena izanda), eta urte batzuk geroago[350], 1934aren bukaeran, CAFek Madrilgo diputatu gipuzkoarren laguntzaz (batez ere, udalak 1934ko azaroan aldarrikatuaren ildotik, Joan Usabiaga errepublikanoaren eta Ramiro Maeztu monarkikoaren bitartekaritza-lanari esker; azken hori arabarra zen baina Gipuzkoa ordezkatzen zuen), Madril-Zaragoza-Alacant trenbide-sarerako 400 bagoiko kontratua lortu zuen CAFek[351]. Horiek ziurrenik 1934ko otsailean Gipuzkoako Aldundian egindako bileran aipatutako 475 bagoien sailekoak izango ziren. Eraikuntzak, ez ezik, berrikuntzak ere egin zituen CAFek; aipatu izan dugu 1933an Lan Publikoen Ministerioak, bagoien parke publikoko 600 bagoi berriztatzeko enkargua eman ziola CAFi, nahiz-eta enpresa horrek 5.000 bagoi berriztatzeko eskaera egin, baina ez dugu eskaera gehiagoren berririk[352]. 1932. urtearen bukaeran ere izan zen bi elementuak (materiala dibertsifikatzea eta kontratu publikoak lortzen saiatzea) uztartu zituen proposamen bitxi bat: udal-bilkura batean, udalak eta Beasaingo elkarte politikoek eta aisialdikoek (bi Joko Elkarteek) CAFek Estatuko Armadarentzat materiala egin zezan proposatu zuten. Ez dugu proposamen horren inguruko beste arrastorik, beraz ez zela onartu ematen du[353]. CAFek urte batzuen buruan egin zuen noski ekoizpen militarra, 1936an, guda-garaian militarizatua izan zenean hain zuzen ere, baina ideologiaz erabat kontrakoa zen armada batentzat: armada frankistarentzat, 1936ko Gudaren testuinguruan. Beste alde batetik, CAFek bere produkzioa "nazioartekotzea" lortu zuen 1934an, Argentinara eta Txilera ere makineria saltzea lortu zuenean[354].

1934aren bukaeran eta 1935ean, Manuel Perezen agintepean, udalak ere kudeaketak egin zituen. 1934ko azaroan, 400 bagoi eta 5 furgoi egiteko kontratua lortu zuen Beasaingo Udalak, Joan Usabiaga diputatuaren bitartekaritzari esker (nahiz eta Ramiro Maeztuk ere parte hartu zuen negoziazio horietan, Usabiagarena izan zen bitartekaritza-lanaren zama nagusia). Bagoiok *Ferrocarriles del Oeste* konpainiarentzako egitekoak ziren[355]. Viktor Bernedoren agintaldian ere, krisi hori konpontzeko saiakerak egin ziren: 1936ko maiatzean Migel Lizeaga izeneko gizon bati eskatu zion bitartekaritza-lana egitea[356].

Beste enpresa batzuek ere krisia sufritu zuten. Adibidez, Serafin eta Pedro Arana Gaiztarroren "Euzkalduna" tinta-fabrika 1931ko azaroaren hasieran itxi egin zen eta 16 langilek lana galdu zuten[357]. Hala ere, beste fabrika batzuek aurrera egin zuten. Lehen esan dugu, Beasainen bazeudela fabrika gehiago, adibidez, Bernedo alkatearena (metalgintzako sektorean), Arana anaia

---

[347] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua.

[348] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138. karpeta, 33. dokumentua eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 39. or.

[349] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[350] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua. Bagoi horiek egiteko eskaera *Compañia del Oeste* delakoaren bitartez lortu zen, eta enkantea Bartzelonako konpainia batekin erdibana irabazi zuen. CAF-en, dokumentu horren arabera, horrek "hilabete baterako lana" soilik eman zezakeen.

[351] Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 38. or.

[352] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 119. or.; Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 251. karpeta, 04. dokumentua. Eskaera hori azkenean 600 bagoitara murriztua gelditu zen.

[353] Beasaingo Udal Artxiboa. A010. Karpeta, 04. dokumentua

[354] LEGORBURU FAUS, Elena: *"Fabrika haundie". Beasaingo Construcciones y Auxiliar de Ferrocarrilesen historia.* (Beasaingo paperak bildumaren 5. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1996, 118. or.

[355] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[356] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua.

[357] Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 40. dokumentua; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 42-43. or.

beraien *"Fabrica de mimbres, junco y médula"* (egurraren sektorean), edota Eskisabel anaien, Irastortzaren eta Oiarbideren *"Eskisabel y Compañía"* altzari-fabrika (egurraren sektorekoa hura ere). Arana anaiek, euren negozioa hobetzeko planak izan zituzten eta 1931ko maiatzean, Oria ibaian, euren fabrikako ekoizpena lagunduko zuen plataforma bat jartzeko baimena eskatu zuten[358]. 1932an, Bernedoren fabrikak antzeko eskaera bat egin zuen, Oria ibaian fabrikaren ezkerreko aldean halako beste plataforma bat eraikitzeko eskatu baitzuen[359]. Bi eskaerak onartuak izan ziren. 1935eko maiatzean *Eskisabel y Compañía* enpresak, Gipuzkoa plazan (abere-hiltegiaren ondoan), lehengoaren ondoan beste pabilioi bat egiteko baimena eskatu zuen eta onartu egin zioten eskaera[360]. Bestalde *Azkar* enpresak, Beasainen zituen lurrak enpresari txiki gelditu zitzaizkiola eta Beasainen lur berriak lortzea zaila izango zuelako, Beasaindik Lazkaora edo Ordiziara joateko proposamenak izan zituela badakigu jakin, izan ere 1935eko uztailean jakinarazi baitzion hori udalari[361]. Eta 1935eko urte-bukaerako memoria batean azaltzen da bi aldeek ez zutela akordiorik lortu, nahiz-eta horretan zerabiltzaten negoziazioak ez ziren eten[362].

Krisia ondoen pasatu zuen enpresen artean Hunolt tinta-fabrika izan zen, zeinak, 1932an udalari bere enpresa handitzea ahalbideratzeko lursail bat, Etxeluze lursaila, saltzeko eskatu zion. Horrez gain, 1932ko ekain eta uztail artean, Beasaingo Udalak, beste fabrika bat jartzeko modua izateko, Estatuari, trenbidearen eta ibaiaren arteko lursailak erosi zizkion (lursail horiek RENFErenak ziren). Proiektu hori oso anbizio handikoa zen, bertan Michelin pneumatikoen fabrika jarri nahi izan baitzuten. Hala ere, lur horiek ezin izan zituzten erosi, Infantadoko Dukeak lur horiekiko beto-eskubidea zuelako eta eragiketa horren aurka azaldu zelako. Beasaingo Udala saiatu zen Michelin fabrikako jabe eta ordezkariekin hitz egiten, bertan jar zezaten lortzeko, baina alferrik izan zen eta 1932ko abuzturako frantziar etxeak fabrika Lasarten egitea pentsatu zuen. Hemen berriz ere nobleziaren klase zaharrak industrializazioari zion beldurraren adierazgarri bat aurkitzen dugu, kasu honetan Beasaingo herriari aukera on bat galaraziz[363].

1934ko apirilaren 23ko estatistika baten arabera, Beasainen, CAFez gain, beste bi industria metalurgiko zeuden; Bernedoren fabrika, erremintak eta estanpazio-lanak egiten zituena eta *Construcciones Azpeitia* izenekoa, makineria egiten zuena. Horiez gain, Emilio Hunolten tinta-fabrika eta lau altzari-fabrika zeuden: Joakin Aranarena, Eskisabelena, Esnaola eta Apalategirena eta Aseginolatzarena[364].

1.3.d) Langileen mobilizazioa eta agitazioa

CAFen krisiaren aurrean, sindikatuek nagusiki kontziliazioaren bidetik jo zuten. Jose Antonio Egidok aipatzen duenaren arabera, greba-mugimendu apalak egon ziren Goierrin. Egidoren arabera, eta Ordiziako memoria historikoaren taldeak baieztatzen duenez, 1931n Ordizian greba-mugimendu bat ernaltzen hasi zen, baina halere, UGT ez zegoen oso ados, adostasun-bidearen aldekoa baitzen[365]. Izan ere, garai hartan sozialistak gobernuan zeudela, sindikatu sozialistek, moderazioaren aldeko jarrera izan zuten. Beasaingo eta Ordiziako langileen ordezkaritza bat Madrilera joan zen Lan Publikoetako Ministro zen Indalezio Prietorekin elkarrizketatzera, baina hark erantzun zien "lehentasuna Errepublika sendotzen" zegoela, eta horretarako denbora beharko zela[366]. Beasainen bertan ere langabetuak antolatu egin ziren eta 1932ko abuztuaren 10ean, Beasaingo udaletxeko batzar-aretoan bildu ziren, "gure klasearen interesen defentsan batera aritzeko". Langabetuen batzar horrek, dirudienez, udal ezkertiarrarekin hurbiltasun handia zuen, zinegotzi bat batzordeko kide izatea proposatu baitzuten[367]. Abuztuan, udalak bere batzorde horretarako ordezkaria izendatu zuen, Doroteo Aguado zinegotzi sozialista hain zuzen ere[368]. Azaroan beste eskaera bat luzatu zioten udalari; udaleko lanak langabe ezberdinei txandaka eman ziezazkieten. Udalaren erantzuna baiezkoa izan zen, baina aldi berean, udalak, txandakatzea ahalik eta gehien erabiliko zuela erantzun zuen[369].

---

358 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 1035-6 dokumentu-sorta.

359 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 1025-7 dokumentu-sorta.

360 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

361 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

362 Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

363 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

364 Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 63. dokumentua.

365 EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 62. or.; eta ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 23 or.

366 EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 62. or.

367 Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

368 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua

369 Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 18. dokumentua.

or.

Ikusten dugun bezala, Beasaingo langile-klasearen politika nahiko moderatua izan zen, langile-gatazkara joan ordez, beti enpresekin zein udalarekin elkarlanean aritzearen aldeko apustua egin zuten. Errepublikaren aldi osoan, 1934ko langile-iraultza (gero komentatuko duguna) kenduta, Beasainen ez zen grebarik egin (Ordizian bat). Parte batean, ahal zena lortzeko jarrera Beasaingo industriaren motor zen CAF enpresaren ezaugarriengatik izan zitekeen, enpresa horrek Estatuaren kontratuen mendekotasun handia zuenez gero, botere publikoen inplikazioa bilatzen zen enpresarentzako lan-eskaerak bilatzeko, izan ere, horiek topatuta, langabeak berriz berronartzeko esperantza baitzegoen (1936ko berreskurapen-prozesu txikian zehar, langile batzuk berronartuak izan ziren). Beraz, enpresaren lan-karga zen arazoa, ez hainbeste enpresa barruko lan-baldintzak edo langile-multzoa enpresaren ekimenez murriztu izana.

Baina badaude halaber jarrera hori azaltzeko bestelako arrazoi batzuk ere, adibidez, garai hartako Gipuzkoako langileagoaren portaera. CAFen sindikatze-tasa altu samarra zen, baina betiere langile moderatuei lotuta: 1932ko apirilean (jada langile-kopurua jaisten ari zela) CAFen UGTko 450 langile eta ELAko 300 langile zeuden[370]. Izan ere, gure herrialdean, garai horretan gatazka gutxi samar izan zen, 1931-1933 aldian batez ere. Halako jarrerak garai horretan langile mugimenduak zuen jarrerarekin bat zetozen, Errepublikaren lehen urteetan ezkerreko alderdienganako langile-mugimenduaren konfiantza hori oso arrunta baitzen. 1931-1932 urteetan Gipuzkoan langile-gatazken kopurua asko jaitsi zen, hein batean langile mugimenduko osagarri garrantzitsu baten eta Gobernuko alderdi baten artean identitate handia zegoelako, eta horrek elkarrizketa erraz zezakeelako, eta baita bide instituzionaletik lorpenak eskuratzeko itxaropena zegoelako ere. Aldiz, 1934. urtean, eskuina gobernura iritsi zenean, greben hazkundea nabarmena izan zeen, 1935ean ordea, errepresio-garaia izan zenez, grebak erabat murriztu ziren, eta 1936an berriz, beste hazkunde bat gertatu zen. Greben kopuruaren gora-beherak ulertzeko, Gobernuaren kolorea zein zen kontuan izateaz gain, Gipuzkoako sindikalisten afiliazioa ere kontuan hartu beharko genuke. Konparazio batera, Pedro Barrusok ematen dituen zenbakien arabera, Gipuzkoan 1931 eta 1933 artean, Bizkaian baino askoz ere greba gutxiago egin ziren: 1931n, 13 eta Bizkaian 35; 1932an, 16 eta Bizkaian 26; eta 1933an, 12 eta Bizkaian 17. 1934 izan zen Gipuzkoak Bizkaia gainditu zuen lehen urtea, bietan ere grebek goraldia izanik: 26 Gipuzkoan eta 20 Bizkaian. 1935eko (3 Gipuzkoan eta 5 Bizkaian) eta 1936ko zenbakiak (27 bakoitzean) nahiko parekatuak dira bi herrialdeen artean[371]. Ikusten dugun bezala, 1934az geroztik, Gipuzkoako eta Bizkaiko langile-gatazkak antzeko samarrak izan ziren, bai puntako uneetan zein une apalagoetan. 1931 eta 1933 artean ezberdindu egin zen patroi hori.

Patroi ezberdin horiei azalpen bat topatzekotan, hori langile-erakundeen tamainari so eginez atzeman dezakegu. Gipuzkoan, UGT eta ELA sindikatuak ziren nagusi eta komunistek eta anarkistek askoz ere pisu txikiagoa zuten (nahiz eta, komentatu dugun moduan, Donostian komunistak Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazio historikoan nagusi izatea lortu zuten). Eta hain zuzen ere, 1931 eta 1933 artean, bi sindikatu horiek oso estrategia moderatuekin zebiltzan buru-belarri: ELA bere izaeragatik, eta UGT, Alderdi Sozialista gobernuan zegoelako, "Errepublika sendotzeari" lehentasuna emanda. Egia esan, 1931 eta 1933 arteko "biurteko eraldatzailean"; komunistak eta anarkistak Errepublikaren oso aurkakoak izan ziren, Errepublika burgesa omen zela-eta. Bi mugimendu horiek Bizkaian pisu handiagoa izateak ekarri zuen bi herrialdeen arteko desberdintasuna.

1931n, Errepublika aldarrikatu orduko Gipuzkoako Sindikatu nagusia UGT bazen ere, hurrengo urteetan ELAk aurrea hartu zion. Pedro Barrusoren arabera UGTk 7.631 kide zituen Gipuzkoan (654.403 Espainiako Estatu osoan), eta Policarpo Larrañagaren arabera, 13.000[372]; Gipuzkoako indar handiena metalean eta papergintzan izan zuen sindikatu sozialistak. Sindikatu hori, batez ere industria-herri handietan zen indartsua, baina herri txikietan ahulagoa zen (%90etik gora herri handietan)[373]. 1932a nahiko urte ona izan zen UGTrentzat, izan ere, Alderdi Sozialista boterean egon izanak langile asko erakartzeko aukera eman zion. 1932rako 9.000 bat kide bazituen Gipuzkoan, eta 1933rako 10.500 bat kide, 1931-1933 aroan, urtero mila afiliatutan hazi zen[374]. Argi dago, Alderdi Sozialistarekin gertatu bezala, Errepublikaren etorrerak langile-klasearen baitan itxaropen bereziak sorrarazi zituela eta horrek bai PSOEren zein UGTren aldeko afiliazioa handitzea ekarri zuen (aipatu dugu PSOEren kidetza handitzearen kasua). Hala ere, Gobernua galtzearekin batera (1933ko irailean), kideak galdu zituen UGTk, adibidez, 1934an 8.000 kide zituen[375]. Garai

[370] *El Día* 1932-04-39 in ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 2001, 97. or.

[371] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 99. or.

[372] LARRAÑAGA, Policarpo: *Contribución a la historia obrera del País Vasco*. Aranzadi. Donostia, 1976-77, 114. or.

[373] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 157. or. UGTk bazuen baserri-langileentzako adar bat, Federación Nacional de Trabajadores de la Tierra, baina askoz ere txikiagoa zen.

[374] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 139-140. or.

[375] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 145. or.

hartan, UGTren hazkundeak jasandako beherakada, sozialismoaren botere-galerarekin lotu daiteke. Izan ere, sindikatuaren ideologia-helburuak gora-behera, kontuan hartu behar dugu, langile guztiak ez zirela sindikatzen ideia filosofiko batzuengatik, nahi eta ez, eta norberaren egoera pertsonala hobetzeko egindako afiliazioak ere kontuan hartu behar dira. UGTk, Alderdi Sozialista gobernuan egotearen txapela galdu zuenean, eta bestetik ELAren garapenak (1933rako EAJ Gipuzkoako alderdirik handiena zen) UGTtik ELArako lekualdaketa bat motiba zezakeen. Eta beste alde batetik, Errepublikarengan jarritako itxaropenak pixka bat apaltzea (erregimen berriak ezin izan baitzituen langabezia ez krisia konpondu, eta ezta ere langileen aldeko neurri erradikalik hartu). 1934ko iraultzaren ostean, UGTk, errepresioa pairatu zuenez, ez zuen kidetza berririk lortzerik izan. Alta, 1936an, Herri Fronteak hauteskundeak irabazi ostean (eta ikusiko dugun bezala, sindikatu komunista eta sozialista batzeko prozesuaren ondorioz, UGTren afiliazioa berriz ere hazi egin zen, 1932-1933 biurtekoko zenbakietara helduz[376]. Azken hazkunde horretan kontuan hartu behar dugu, sindikatu komunistak 1935ean UGTrekin bat egiteak ere nolabaiteko zerikusia izan zuela.

ELAk, nahiz eta 1931n, Errepublika aldarrikatzerakoan, UGTren atzetik Gipuzkoako bigarren sindikatua izan, Errepublikaren aldian bertan, sindikatu hori gainditu egin zuen. Sindikatu horrek, hasieran, "sozialismoaren kontrako erreakzioa" bere osagai garrantzitsuena bazuen ere (eta sozialismoaren aldetik halako pertzepzioa egon zen hurrengo urteetan ELArekiko), lehen kapituluan esan bezala, pixkanaka mobilizazio sozialetan maizago aritu zen eta garai hartako burgesiarekin harmonia soziala ezinezko bihurtu zuen. Hala ere, ELAren arabera, borroka sindikala ez zegoen klase sozialen arteko borrokarekin eta klaserik gabeko gizarte baten helburuarekin lotuta, baizik eta lehen komentatutako klaseen harmonia hori posible egitearekin. Hau da, sistema horren barruan langileak kapitalismoaren gehiegikerietatik defendatzea zuen helburu (adibidez, krisi ekonomiko horrek eragina zuen langabeziatik), eta sistemak sor zitzakeen injustiziak konpontzea, sistema puskatzea baino gehiago. Bere ideiak, Elizaren doktrina sozialetik eratorriak ziren eta ez marxismotik, beraz, populazioaren sektore kontserbadoreenen gizarte-oinarriei erantzuteko posizio hobean zegoen, herri txikietakoei batik bat. 1931ko emaitzak kontuan izanik, jada komentatutakoak eta aipatutakoak hain zuzen, gehiengoa eskuinari eman zioten, eta soziologia kontuan izanik, batez ere populazioaren politizazio eskuindarragatik baino areago erlijioari eta ohiturei lotutako soziologia batengatik; ELAk, jende hori langile-borrokara erakartzeko UGTk baino aukera gehiago izan zituen. ELAk, hala, klaseen arteko konfrontazio zuzeneko tresnak erabiltzeaz gain, beste tresna batzuk era erabili zituen, adibidez, langileen arteko mutualismoaren tresna[377]. Beste modu batean esanda, ELAren helburua, iraultzak ekarriko zuen klaserik gabeko "gizarte berri" bat (sozialismoa) baino, klase sozial ezberdinen artean harik eta "berdintasun" gehien ekarriko zuen sistema bat lortzea zen. Kapitalismoa sistema berriago batek ordeztea baino, antzinako euskal gizarte "berdinkiderantz" "itzultzea" zen gakoa, ikuspegi horrek garai haietako abertzale jeltzaleen ideologiarekin bat egiten zuen[378].

Beste alde batetik, aurreko lerrokadetan aipatu izan dugun bezala, PSOE gobernutik ateratzerakoan UGTk afiliatuak galdu zituen eta haietako batzuk ELAra pasatu ziren. ELAk 2.663 eta 4.673 kide artean (zenbakien arabera) zituen 1931n (1929an, diktadura bukatzear egin zuen Bergarako Biltzarrean 1.500 kide zituen)[379]. 1932rako, Pedro Barrusok Aitzolen dokumentuetan oinarrituta, 7.117 kide ematen zizkion ELAri[380], eta garai hartan, Euskal Herriko ELAren afiliazioa ere hazi egin zen: 20.000 kidetik 40.000 kide izatera pasa zen ELA[381]. ELAren hazkundea, EAJren indartzearekin lotu daiteke; EAJ indartsu sartu zen Gipuzkoan 1931ko hauteskundeetan (bai apirileko udal-hauteskundeetan eta baita ekaineko Espainiako parlamenturako hauteskundeetan ere); eta Estatutuaren kanpainak zentraltasun handia eman zion Alderdi Jeltzaleari. Beraz, Alderdi Jeltzalearengana langile gehiago hurbiltzea ekarri zuen horrek; horri lehen aipatutako arrazoi ideologikoa gehitu behar zaio: erlijio-sinesmenak edo ideologia ez-sozialista zuten gipuzkoarrengana (orduan gehiengoa zirela, gogoratu behar dugu) hobeki hurbil zitekeen. Hala EAJk eta ELAk, nahiz eta elkarrekiko independenteak izan (eta noizbehinka elkarren arteko talkak ere izan) praktikan elkarren hazkundea lagundu zuten. Horrez gain, ulertu behar da baita ere, ELAren ekintza-sistemak, langileen sektore handi batentzat (batez ere ideologikoki iraultzaileak ez zirenentzat), sindikaturik "eraginkorrena" izatea ekarri zuela: euren egunerokoan, adibidez, langabezian zeuden langileekin mutualismoa edo asistentzialismoa garatzea[382]. Zalantzarik gabe 1933a izan zen ELAren hazkunderako urterik onena, urte horretan herri industrialetatik at herri txikietan ere ezartzeko gaitasuna erakutsi

[376] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 148-149. or.

[377] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 40. or.

[378] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 60-61. or.

[379] Estimazio baxua Barrusorena da, eta altua Larrañagarena. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 148-149. or.; eta LARRAÑAGA, Policarpo: Contribución a la historia obrera del País Vasco. Aranzadi. Donostia, 1976-77, 114. or.

[380] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 196. or.

[381] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 83. or.

[382] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 85. or.

or.

baitzuen sindikatuak, hain zuzen ere, Dario Anselen arabera, "ELA erradikalizatze-fase batean sartu zen urtea" dugu hori[383]. Urte bukaerarako UGTren zifrak gainditu zituen, Gipuzkoan 11.000 eta 15.000 afiliatu artean izanez[384]. Jada urte horretarako ELAk Gipuzkoa osoan zuen presentzia. Jakina denez, 1934an greba-ziklo batean sartu zen Gipuzkoa, ELAren parte-hartzea ere izan zelarik. Prozesu hori 1934ko urriko iraultzan geratu zen, eta iraultza horretan ELAren parte-hartzea txikia izan zen arren, ELAk ere errepresioa jasan zuen eta bere egoitzak itxi egin zituzten. Hala, afiliazioaren hazkunde-erritmoa pixka bat geratu egin zen eta 1935ean landunen eta langabeen artean, 15.000 kide zituen[385], beraz, zalantzarik gabe jada Gipuzkoako sindikatu handienaren posizioa sendotu egin zuen. Gipuzkoan ELAren hazkundea, ELAren Elkarteen bidez ere neur daiteke: 1931n 44 elkarte zituen, 1936an ordea, 120. Dario Anselen arabera, hazkunde hori "harrigarria" izan zen, Errepublikaren aurretik ELAk mila kide bakarrik zituela kontuan hartuta[386]. ELA, II. Errepublikan zehar Euskal Herri osoan hazi zen arren, Gipuzkoa izan zen gehien hazi zen herrialdea, eta datu horiek ematerakoan, Anselen arabera, Gipuzkoako ekonomia mota (industria astunak ez zuen Bizkaian adinako indarrik eta ekonomia tradizionala hankaz gora ez zuen bota eta berarekin elkartu zen, lehen kapituluan adierazi dugun bezala), askoz ere hobeto zetorkion ELArena bezalako ideologia zuen sindikatu bati[387].

Beste sindikatuek, anarkistek eta komunistek askoz ere kidetza txikiagoak zituzten. CNT anarkistaren kasuan, Gipuzkoan, CNTk ez zuen (beste tokietan bezala) "Tokiko Federaziorik", baizik eta Gipuzkoako Federazioa soilik zegoen. Horrek, alde batetik, sindikatu anarkistaren ahulezia erlatiboa adierazten du (Gipuzkoan CNT beste sindikatuak baino beranduago sortu zen, 1919an), nahiz eta egia izan, bazeudela sektore batzuk (Pasaiako arrantzaleetan, adibidez) anarkisten presentzia oso handia izan zutenak. Bestalde, eraikuntzan ere presentzia izan zuen CNTk, baina betiere gutxiengo gisa[388]. 1931ko CNTren Madrilgo Biltzar Nagusian, Gipuzkoako lau erakunde soilik agertu ziren eta 965 afiliaturen ordezkaritza zuten[389]. Sindikatu horren inguruko informazioa txikiagoa da, baina badirudi 1931-1934 aldian, beste sindikatuak bezala (hala ere maila apalagoan) hazi egin zela, azken urte horretan bederatzi elkarte sindikal baitzeuden Gipuzkoan[390]. Guda hasterako, 1.400 afiliatu zituzten anarkistek, Gipuzkoa osoko eskualdeetan barreiatuta, hala ere, ez herri guztietan: Donostia, Errenteria, Pasaia, Tolosa, Beasain eta Deba arroa ziren anarkisten guneak[391].

Komunisten ibilbide sindikala zailagoa da jarraitzen, estrategiaz ere hainbat aldiz aldatu zutelako eta 1936an UGTn sartzeko emandako aginduarekin bukatu zen. Hori dela-eta, zailagoa da sindikatu komunisten bilakaeraren inguruko azterketa zehatza egitea. Alderdi Komunista, 1920ko hamarkada-hasieran sortu zen eta ez zuen erreferentzia sindikalik izan (garai batean CNT bera III. Internazionalean afiliatu zen, baina laster irten zen). Komunistak, Gipuzkoan, lehen komentatu bezala, alderdi ahul samarra ziren eta beste bi sindikatu horietan sartu behar izan zuten euren lana egiteko. Hain zuzen ere horretan jarri zuten euren indarra eta arrakasta handi samarrarekin gainera (lehen komentatu dugu Alderdi Komunistak nolako arrakasta izan zuen Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazioa bere eraginpean jartzen). Komunisten hasierako ildoa, UGTk eta CNTk, bi sindikatuek, bat egin zezaten izan zen, "batasun sindikala" sortzea alegia. Hori zela-eta, bi sindikatuetan zituzten ekintzaileak, sindikatu horien batasuna behartzen saiatzeko eta bi sindikatu horiek batasun sindikalaren etsai gisa salatzen jardun zuten. Horrek, Gipuzkoan bertan, arazo handiak ekarri zizkieten komunistei; Zapirain anaiek kontatzen dute behin edo behin borroka fisikoak izateko zorian ere izan zirela[392]. Luis Zapirainek kontatzen du Gipuzkoako komunistak ildo horrekin ez zeudela ados euren ahultasuna zelako eta gauzatzeko zaila ikusten zutelako, baina Bizkaiko komunistak (indar handiagoa zutenak) horretan tematu zirela[393].

---

383 ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 82. or.

384 Bi zenbakiak Aitzol tolosar sindikalista, apaiz eta idazleak eman zituen, lehena Euzkadi egunkariko 1933-02-22eko artikulu batean, eta bigarrena Bilbon emandako hitzaldi batean. BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 199. or.

385 *El Día,* 1935-05-16koa.

386 ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 84. or.

387 ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 2001, 95. or.

388 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 238. or.

389 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 239. or.

390 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 269. or. Barrusok hemen 1934rako Beasainen sindikatu anarkista bat bazegoenaren datua ematen du.

391 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 241-242. or.

392 EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43. or.

393 EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43. or.

1932. urtean, Alderdi Komunistak bere taktika sindikala aldatu egin zuen, eta bere sindikatu propioa sortu zuen, *Confederación General del Trabajo Unitario* (Lanaren Konfederazio Bateratu Orokorra). Komunisten ustez, erakunde horrek izan behar zuen langile-batasunaren erreferentzia. Erakunde horren buru Jesus Larrañaga eta Sebastian Zapirain izan ziren[394]. CGTUk Gipuzkoan bertan ez zuen lortu praktikoki UGTren saskiari kosk egitea, ez eta sindikalismo komunistaren oinarria handitzea ere, baizik eta lehendik UGTtik kanpo geratu ziren elkarte sindikalak (hain zuzen euren ildo komunistagatik) batu zituen, eta ez denak gainera (adibidez, Pasaiako arrantzaleen sindikatu komunistak, 1.000 kide zituena, ez zen CGTUren barnean sartu). Sindikatu horren bizkarrezurra, aipatutako Donostiako Tokiko Langile Elkarteen Federazioaz gain, Pasaiako arrantzaleen eta Hernaniko zein Errenteriako paperginen artean zegoen gehienbat. 1932ko zenbakien arabera, 2.138 kide zituen Gipuzkoan, horietako 901 Donostiakoak izanik[395].

1935ean, sindikatu komunistek UGTrekin bat egitea erabaki zuten. Bi arrazoi izan ziren horretarako, bata Espainiako Estatu barrukoa: 1934ko iraultzaren porrotak eta ondorengo errepresioak, langile-mugimenduaren barruan sektore ezberdinen arteko hurbilketa-prozesu bat hasi zuen. Beste bat, nazioartekoa: 1935ean, Internazional Komunistak sozialistekiko salaketa-ildoa alde batera utzi eta faxismoa garaitzeko Herri Fronteak sortzeko aholkua eman zuen. Espainiako Estatuan ere Herri Frontea osatu zen, geroago ikusiko dugun bezala eta 1936ko otsaileko hauteskundeak irabazi egin zituen. Beraz, nazioarteko ildo berri horri helduz, sindikatu-arloan bi sindikatuen batasuna egin izana ere nahiko ulergarria da.

Sindikatuen afiliazioa ikusita, eta sindikatu moderatuak erradikalak baino askoz ere indartsuagoak zirenaz jabetuta, Gipuzkoako gatazka-kopuru baxu erlatiboa, batez ere 1931-1933 garaian, zergatik gertatu zen ikus dezakegu. Izan ere, 1931-1933ko greba-tokien arabera begiratuz gero, horietako gehienak Donostialdea-Oarsoaldea-Bidasoa eskualdeetan izan zirela konturatuko gara, hain zuzen ere komunistek eta anarkistek pisurik handiena zuten tokietan. Pedro Barrusoren zenbakiak jarraituz, 1931ko Gipuzkoako 13 grebetatik 12 bertan egin ziren eta 1932ko 16tik 12 ere bai; 1933an patroia pixka bat aldatu egin zen eta 12 grebetatik 5 soilik izan ziren ingurune horretan eta 6 Deba arroan izan ziren[396]. Horri, populazioaren azalpena eman ahal zaio, hau da, Donostialdean, Oarsoaldean eta Bidasoan Gipuzkoako industria gehienak eta populazio gehiena zegoela bilduta, baina horrek azalpenaren parte bat eman arren, ez du guztia ematen. Izan ere, 1931n eta 1932an Arrasate edo Beasain bezalako herri ezkertiarretan ez zen greba bat bera ere egin, eta Eibarren bakarra. 1933an greba bakarra izan zen Arrasaten eta bi Eibarren, baina horiek ELAk gidatutako grebak izan ziren[397]. Horrek ez du esan nahi sozialistek garai horietan ez zutela grebarik egin, baina euren parte-hartzea oso txikia izan zen, eta oro har, 1931-1933 biurtekoan grebak egitea ekidin nahi izan zuen UGTk. Pedro Barrusok esana duen bezala "sindikatuak bere afiliatuei greba bat hasteko oso baldintza gogorrak jarri zizkien"[398].

Garai hartako greba gehienak, egia esan, lan-arrazoiengatik hasitako grebak izan ziren, ez hainbeste arrazoi politikoengatik (horiek ere izan baziren arren). Hala ere, lan-greba horiek deitzeko orduan, berez sistema politikoaren aurka zeuden indarrek deitu zituzten (horiek agian greba politiko bihurtzeko asmoz, edo agian ez, baina zalantzarik gabe, ezegonkortasunari beldur gutxiago ziotelako). Beste alde batetik, polizia errepublikanoa ere, gogor aritu zen grebalarien aurka, batez ere "muturreko" mugimenduek deia egiten zutenean. Horren adibide dugu, adibidez, 1931ko maiatzeko Pasaiako greba (hor, antza denez, Jesus Larrañaga beasaindarrak paper nabarmena jokatu zuen, Pasaiako ordezkari komunista Joan Astigarribiak berak baino askoz ere handiagoa)[399] eta lan-gatazka batetik abiatu zen arren, berez grebara joatean, greba planteatzeko moduan, eta batez ere, agintariek grebari erantzuteko izan zuten moduan, arrazoi politikoak argi eta garbi azaleratu ziren. Pasaiako arrantzaleen lan-baldintza eskasak zirela-eta, arrantzaleen sindikatuak (zeina ez zegoen ez UGTn, ez ELAn, ez CNTn) baldintza horiek hobetzea eskatu zuen: soldata igotzea, arrisku-gehigarriak ezartzea, atseden-tarteak handitzea, lurreko lanetarako pertsona

[394] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 225. or.

[395] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 226-227. or.

[396] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 81-90. or.

[397] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 90-91. or.; eta ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 2001, 211. or.

[398] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 83. or.

[399] Orduko Donostiako alkate Fernando Sasiain errepublikanoaren ustez, greba Larrañagaren ikuskeraren ondorio izan zen, Joan Astigarribiak halako aurrez aurreko zuzen batera joateaz askoz ere mesfidantza handiagoa baitzuen. Bestalde, gero, frankismoan polizia-inspektore ezaguna izan zen Eduardo Comin poliziak greba horren atzean PCEko idazkari nagusi Jose Bullejos egon zela esan zuen, baina ez dirudi hori egia izan zenik. EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 45-46. or.

or.

gehiago kontratatzea eta sindikatuari ikuskaritza-eskubideak ematea. Maiatzean, 3.000 bat arrantzale jarri ziren greban eta agintarien aldetik, Ramon Aldasoro gobernadoreak, negoziazioak martxan jartzeko greba bertan-behera uztea eskatu zuen. Bestalde, Pasaiako arrantzaleen sindikatuan, UGTko eta ELAko langileek bat egin zuten proposamen horrekin, greba bertan-behera utzi eta komunistak zokoratzeko asmoz. Beraz, sindikatuen barrura ikuspegi ezberdinen arteko talka sartu zen. Bi joeren artean sortutako hausturak komunisten posizioa erradikalizatzea ekarri zuen, eta haiek nagusituta, sozialistek ordezkatzen zuten elkarrizketaren eta moderazioaren aldeko posizioari erabateko itzulia eman ziotela ulertu beharko genuke.

Bestalde, Donostiako zein Pasaiako alkateek eta behin-behineko Gipuzkoako Aldundiko gestorak edo talde kudeatzaileak, enpresarien aldeko jarrera hartu zuten (gogoan izan behar da Donostiako alkatetza eta Gipuzkoako Aldundia ezkerreko indar errepublikanoen esku zeudela). Hala, beraz, ezkerreko indar erreformistak, errepublikanoak eta sozialistak (eta Pasaiako arrantzaleen artean, UGTren tesiekin bat egiten zutenak), enpresarien aldeko tesia babestu zuten. Zatiketa hori nabaria eta latza izan zen eta grebaren hondarrean Donostian komunisten eta sozialisten artean tiroak ere izan ziren[400]. Beste alde batetik komunisten eta sozialisten ezinikusi hori beste lan-sektoretara ere zabaldu zen eta tranbietako langileek (UGT sindikatu sozialistan afiliatuak), grebarekiko elkartasuna adierazi ez zutenez, grebalariek tranbiak iraultzeko mehatxua egin zuten[401].

Negoziazioak guztiz hautsi zituena, Pasaiako hiru arrantzale atxilotzea izan zen. Arrantzale horiek, Pasaiako portua itxita zegoela, beste ontzi bat, arrainez beteta etorri, Pasaiako portuan atrakatu eta bertan batzuk deskarga-saiakeratan ari zirela, eskirolen kontrako oldarraldian parte hartu eta atxilotu zituzten. Horren ondoren, Madrilgo Gobernuak, auziaz enteraturik, grebalariak (negoziazioak onez nahi ez zituztenak eta jarrera tinkoari eusten ziotenak) "legearen kontrako matxino" deklaratzeko erabakia hartu zuen[402]. Beraz, une horretatik aurrera, greba politiko bihurtu zen, izan ere, Pasaiako arrantzaleek euren baldintzen hobekuntza-eskaerei atxilotuen askapena gehitu baitzioten, eta Gobernuaren aldetik greba legez eta indarrez itzali nahi izanak, greba plano politikora eraman zuen. Horri, aurreko lerrokadetan aipatutako komunisten eta sozialisten erabateko haustura gehituta, grebak erabateko kutsu politikoa hartu zuen.

Maiatzaren 27an Pasai San Pedrotik eta Pasai Antxotik pasatuta, arrantzaleen manifestazio bat Donostiarantz abiatu zen *"Ogia nahi dugu!"* zioen pankartaren atzean, Jesus Larrañaga beasaindarra buru zela (aurreko egunean, Joan Astigarribiari Gipuzkoako Gobernu Zibilak arrantzaleen eskaerak ez zituela onartzen eta "erabateko indarrez" erantzungo zuela esan zion). Mirakruzen soldadu talde batekin topo egin zuten, baina haiek pasatzen utzi zieten. Guztiz bestelakoa izan zen, ordea, Ategorrietan zeuden Guardia Zibilen erantzuna. Horiek, bitan pentsatu gabe, armarik gabeko langileen manifestazioa tirokatu egin zuten, sei manifestari hil zituzten eta hogeita hamar bat zauritu. Larrañagak ozta-ozta ihes egin zion atxiloketari[403].

Pasaiako grebak, beasaindar ospetsu baten parte-hartzeaz harago, 1931-1933 biurtekoan komunisten eta sozialisten arteko ezinikusia zer nolakoa izan zen erakusten digu. Beste alde batetik, biurteko horretan bi estrategia sindikal ezberdinen arteko bateraezintasunaren eta elkarrekiko urruntasunaren muturreko adibide bat dugu. Alta, Gipuzkoako langile-klasearen ekintza-modua erabat aldatu zen hurrengo urteetan, sindikatuen arteko elkar-ulertzea hobetu zenean.

1934an dinamika guztiz aldatu zen. Esan bezala, Gipuzkoako greba-kopurua hazi egin zen (aipatu dugu Bizkaiko kopurua gainditu egin zuela). Grebak ere bortitzagoak izan ziren 1934an. Kasu horretan, testuinguru politikoaren aldaketak eragin zuen greba-kopuruaren igoera horretan, sindikatu guztiak, moderatuak zein erradikalak, greba-bideetara errazago jotzen hasi ziren. Alde batetik, eskuina boterera igotzeak, eta 1931-1933ko lanaren inguruko lege batzuk atzera botatzeak, langile-mugimendua erradikaldu egin zuen eta gatazkara erakarri zuen. Beste alde batetik, UGT barruan ere erradikaltze ideologikoa gertatu zen, Errepublikarekiko erabateko leialtasunetik sozialismoa lortzea helburu gisa jarri baitzuten. Prozesu horrek 1934ko urriko iraultzan jo zuen gailurra. 1934 osoan, urriko iraultza alde batera utzita, bederatzi tokiko greba orokor izan ziren Gipuzkoan eta udalerri bakarrekoak izan arren, halako greba oso bat egiteko, sindikatu ezberdinen arteko elkarlana behar izan zuten[404].

---

[400] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43-45. or.

[401] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 305-306. or. Gobernuak Armada eta Guardia Zibila ere ekarri zituen tranbiak zaintzeko.

[402] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 305. or.

[403] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 43-45. or.; eta BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 306-307. or.

[404] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 92-95. or.

1935ean langile-gatazken kopurua jaitsi egin zen, Gipuzkoan soilik hiru greba egin ziren. Jaitsiera hori, 1934ko urriko iraultzaren ondoko langile-erakundeen aurkako errepresioa zela-eta gertatu zela ulertu behar dugu, ez Gipuzkoako errealitate gisa. 1936an ordea, langile-gatazkak berriz ere hazi egin ziren, urtarriletik uztailera bitartean (Guda hasi arte) Gipuzkoan 27 greba egin ziren (maiatzean hamaika eta ekainean zortzi). Otsailetik aurrera berriz ere ezkerra boterean egoteak, oraingoan ez zuen 1931-1933 biurtekoan bezala langile-gatazken kopurua apaltzeko eraginik izan, aurkakoa baizik. Hala ere, egoera oso ezberdina izan zen 1936an eta 1931n. Ezker-eskuin haustura are handiagoa zen (1936ko otsaileko hauteskundeetan bi ikuskera bateraezinen arteko lehia irudikatu zen); eta gainera, 1935eko errepresioaren ostean, langileek, alde batetik eskuinaren eta berori ordezkatzen zuten patroiekiko arrangura-sentimendua izan zutela ulertu behar dugu eta errepresioak inposatutako isiltasun-aldia bukatzean, erreprimitutako sentimenduek gainezka egitea ere normaltzat jo daiteke. Beste alde batetik, Herri Fronteak, 1931-1933ko lan-legeria berreskuratu zuen (eskuina atzera eragiten saiatu zen arren), eta hor sindikatuek aukera bat ikusi zuten. Bestalde, Pedro Barrusok azaltzen duen moduan, 1934ko gertakariek eta 1935eko errepresioak (eta baita langile-erakundeetan gertatutako bilakaera politikoak), sindikatu ezberdinen arteko hurbilketa ekarri zuen, eta horrela, grebak batera eta indarrarekin antolatzea errazago izan zitzaien[405].

Ikusten dugun bezala, Gipuzkoako lan-arloko harremanak, testuinguruaren arabera aldakorrak izan ziren: 1931-1933 arteko moderazioaren eta 1934-1936 arteko erradikaltasunaren artean mugituz. Erradikaltze hori, barrutik baino, hein batean behintzat, kanpoko faktoreek eragina izan zen, Gipuzkoan erakunderik moderatuenak (UGT eta ELA) nagusi izan arren. Sindikatu horiek, esan bezala, 1931-1933 arteko moderazioaren berme izan zirenak, errepresioa pairatu zuten eta pixkanaka aurrez aurreko konfrontazioaren logikara joan ziren. Hala ere, ikusi dugun moduan, Gipuzkoako logika horrek ez zuen Beasainen eraginik izan, bertan, grebak (1934ko urrikoa kenduta) ez baitziren egin beste tokietan bezala. Beasainek bere ekonomia-modu propioagatik (CAFekiko oso menpekoa zen eta hura Estatuari oso lotuta zegoen) eta UGT eta ELA sindikatu moderatuagoen nagusitasuna tarteko, ez zuen grebarako joerarik izan. Horrek ez du esan nahi enpresarien aldetik jarrera ulerkorragoa izan zenik. Errepublika-garaiko krisia, berez nazioarteko krisi batetik etorria zena, Gipuzkoako enpresarien aburuz, Errepublikaren lan-araudi sozialarengatik eta *"Langile-erakundeek deklaratu dioten hil ala biziko gudarengatik"* gertatu zen (Errepublikako Gobernuari egindako kritika batzuk diotenez, adibidez, gastu publikoa handitzeak, ez zuen zentzu handirik izan, Errepublikaren gobernuek, ezkertiarrek barne, gastu publikoari eutsi egin baitzioten).

Langile-borrokaren bidez lortutako legeetako bat, 1932ko urriaren 8an onartu zen *Istripuen Kontrako* Legea izan zen. Beasaingo kasuari erreparatuz, hori zela-eta, CAFeko langile batzuek euren eskubideak bermatuak zirela ikusi zuten. Istripua izan zuten langileek udalaren eta alkatearen bitartekaritza eskatu ahal izan zuten, ez zeuden soilik enpresaren irizpideen mende[406]. Kasu batzuetan, adibidez, Viktor Esteban Arribas langilearen kasuan, bilerara Metaleko Sindikatuaren orduko burua, Gumersindo Capa Mendizabal joan zen langilea defendatzeko. Halako kasuren baten testigantza eman zigun Jesus Lopez Gallegok ere: "Nire aitak CAFen egiten zuen lan. Haren lagun bat, lanera zihoala hil zen. Sierraren (fabrikako zuzendariaren) bitartekaritzari esker, lan-istripu bezala hartua izatea lortu genuen". Sierraren borondatea gora-behera, orduko legeek asko lagundu zuten[407]. Orduan istripuak nahiko arruntak izaten ziren fabriketan, emaitza tragikoarekin askotan, adibidez Eleuterio Aiestak esan zigunez, "Nire osaba bat (Eleuterio Aiesta Muxika) CAFen istripu batean hil zen"[408].

Langileek, Errepublikako beste Gobernuen pean lortu zituzten aurrerapenetako batzuk, 1931ko azaroaren 27an onartu zen *Artekaritza Mistoaren Legea* bezalakoak izan ziren, Lanaren Ministro Frantzisko Largo Caballero sozialista eta UGTko sindikalista ezaguna izan zenean. Lege horrek, enpresa barruan, bai langile-sindikatuek, zein enpresarien ordezkariek, zein Estatuaren ordezkariek osatutako Bitartekaritza Mistoen Batzordeak sorrarazten zituen eta Batzorde horiek arautu behar zituzten enpresen barruko baldintzak: egutegia, soldatak eta abar. Gobernu sozialista bat boterean egonda, lege horrek, sindikatuei ahots handia eman zien enpresen barruko erabakimenean. Bitartekaritza Misto horiek, nahiz eta Primo de Riveraren diktaduran, 1925ean sortutako Batzorde Parekideetan oinarrituta egon, askoz ere botere handiagoa ematen zieten langileei eta haien erakundeei, lehengoak praktikan enpresarien kontrolpean zeuden-eta. Bitartekaritza Mistoak eta horiek sortu zituen legea, enpresari-klasearen mamu beltzak izan ziren eta langileei gehiegizko boterea ematen zietelakoan zeuden (eskuineko gobernuak, 1934an, ez zuen Lege hori baliogabetu, baina bai Bitartekaritza Mistoak edukiz husteko legea "berritu edo aldatu"); Errepublikako Gobernuen politika, berez nahiko moderatua izan zela hartu behar dugu kontuan (gastu publikoaren arloan, adibidez, gastu hori murriztu

[405] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 95-98. or.

[406] Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 01. dokumentua.

[407] Jesus Lopez Gallegori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-25ean.

[408] Eleuterio Aiestari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-11n.

or.

egin zuten). Beste aurrerapen bat 1936ko martxoan Herri Frontearen Gobernupean lortu zuten langileek, lan-astea 48 ordutik 44 ordura jaitsi zutenean.

Langileen soldataren inguruan, ez dugu garai hartako Beasaingo fabriken daturik, baina Pedro Barrusoren lanean agertzen zaigu Gipuzkoako soldatak gutxi gorabehera zenbatekoak ziren. Hala ere, soldatak oso handiak ez zirela ondoriozta dezakegu, testigantzek esaten dutenetik. Adibidez, Isabel Peñagarikano Dorrontsorok, trenbidean lan egiten zuen euren aitaz komentatu zuen "gutxi irabazten zuela (…) Lanetik kanpo, baratzean lan eginez bizitza ateratzeko modua zuen"[409]. Joan Ramon Ortegak ere esan digu "soldatak nahiko txarrak ziren garai hartan, eta etxebizitzak ere ez ziren oso onak"[410]. Barrusok, datu-faltan, dio 1931 eta 1936 artekoa, oro har, soldatak ez igotzearen (soldatak izoztearen) epea izan zela, eta litekeena da, 1936an soldatak igo izana, hala ere, ez dago datu handirik halakorik esateko. Barrusoren arabera, soldatak oso ezberdinak ziren azpisektorearen eta enpresaren arabera, asko aldatzen ziren. Adibidez, industria handietan, txikietan baino askoz gehiago irabazten zen, horretarako, Barrusoren eredua, Lezoko arrabotatzeko makinen fabrika bat eta *Cementos Rezola* fabrika konparatzea da: bigarren horren kasuan, lehen mailako langileek egunean 12,50 pezeta irabazten zuten; Lezoko arrabotatzeko makinen fabrikan ordea, lehen mailako langileek 8 pezeta soilik irabazten zuten. Gizonezko eta emakumezko langileen arteko aldea ere oso handia zen, adibidez, Arrasateko Elma industria-lantegian, emakume batek egunean 4,75 pezeta irabazten zituen, 16 urteko langile-ikasle batek adina. Barrusok, CAFeko datuak ez baina *Union Cerrajera* lantegikoak ematen ditu. Bertan, doitzaileek, trokelgileek eta moldeatzaileek; egunean 12,90 pezeta irabazten zituzten lehen mailakoak izanda, 11 bigarren mailakoak izanda, 9,50 pezeta hirugarren mailakoak izanda eta 8,25 laugarren mailakoak izanda. Lehen mailako arrabotariek eta tornulariek 11 pezeta irabazten zituzten egunean, bigarrenekoek 10, hirugarrenekoek 9, eta laugarrenekoek 8,25. Artezleek egunean 10,50 pezeta lehen mailakoek, 10 bigarren mailakoek eta 9,50 hirugarren mailakoek. Sarrailagintzan eta arotzen arloetan, lehen mailako langileek egunean 10 pezeta irabazten zituzten eta bigarren mailakoek 9. Peoiek 8 eta 8,50 pezeta inguru irabazten zituzten[411]. Arrasateko zifra horiek jarri ditugu, izan ere, Beasaingo CAF antzeko tamaina zuen lantegia izanik, irakurlearentzako erreferentziazkoak izan daitezke.

1.4 Euskal Herriaren bilakaera politikoa II. Errepublikaren lehen urteetan: Autonomiaren inguruko eztabaida

1.4.a) Alderdi ezberdinen ikuskera autonomiaren aurrean

Euskal Herriaren beste era bateko bilakaera politikoa ulertzeko, erdigunean jarri behar dugu garai hartan zentrala izan zen auzia, Euskal Estatutuaren auzia hain zuzen ere. Euskal Estatutuaren lorpena, garai hartan, ia alderdi guztiak ados egon arren, eta herri-babes handia izan, zailtasunez betetako prozesu luze baten emaitza izan zen.

Autonomia Estatutuaren lorpenerako prozesuan, tirabirak ez ziren nolanahikoak izan. Egia esan, "autonomia" euskal indar orok erabiltzen zuen hitza zen arren, autonomiari buruz zituzten ideiak guztiz kontrajarriak ziren. Lehenik lurraldetasunaren eztabaida zegoen, Autonomia hiru herrialdeetarako (Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako) ala Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako (Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroarako) izan behar zuen eztabaidatzen zen, baina ez zen hori bakarrik eztabaidan. Izan zen halaber Foru Aldundia oinarri hartuta, Gipuzkoarentzako probintzia-autonomia eskatu zuenik ere[412]. Beste eztabaida bat honako hau zen: Autonomia, kontzeptu moderno batetik abiatuta ezartzea ala antzinako foruak berrezartzearen ondorioz jartzea. Adibidez, Alderdi Jeltzalea bera, tradizio foruzalekoa zen, nahiz eta jada foruak baino areago euskal nazioaren eraikuntza izan ardatz. Hala ere, bazegoen beste alderdi foruzale indartsu bat, karlistena. Karlisten autogobernu-programa "Foruen Berrezarpen Osoa" izan zen, foruak XIX. mendeko formatuan itzultzea eskatzen zuten (kontuan izan behar da foruek herrialde bakoitzarentzako instituzio propioak zituztela). Foruen berrezarpen oso hori ere, modu batean edo bestean identifika zitekeen, Euskal Estatutu baten justifikagarri gisa, baina herrialde bakoitzaren nortasuna (batez ere estatu izana zen Nafarroarena) Euskal Estatutuaren aurrean, hesi gisa, "berezitasun propio" bezala, jarri zen (karlistek bereziki); hala ere, modu batean edo bestean, ideologia karlistan, "Lege tradizionala" berrezartzea euren doktrina ideologikoaren ardatzetakoa zen. Arazoa, iraganeko "lege tradizionala", "egungo" egoera zehatzean, hots, egoera ezberdin batean nola aplikatu edo irakurri behar zen zehaztean zetzan

[409] Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-09an.

[410] Joan Ramon Ortegari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2013-07-09an.

[411] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 57-59. or.

[412] Donostiako errepublikano batzuek, Lerrouxen Alderdi Erradikaleko kide izanik (zentro-eskuina) Gipuzkoako probintzia-autonomia eskatu zuten 1932ko irailaren 18an. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 216. or. Baita ere Donostiako Alderdi Federala zeritzon alderdi batek, 1931n: FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 68. or.

eta horrek, karlistei, euren unean uneko komenentzien eta interesen arabera, jarrera bat edo aurkakoa babesteko eta aldezteko balio izan zien.

Bestetik, euskal autonomia, alderdi politiko ezberdinen proiektu soziopolitikoak islatzeko borrokagune ere bihurtu zen. Horrek ekarri zuen zenbait alderdik edota politikarik, euskal autogobernuaren eskubideak euren ideologiari baldintzatzea: adibidez, karlismoak 1931 eta 1932 artean Euskal Autonomia gogor babestu zuen, orduan Errepublikarekiko kontrabotere politiko kontserbadore eta katolikoa sortu zezakeelako. Baina geroago Jeltzaleek ezkerreko indardun Errepublikaren Konstituzioan sar zitekeen proiektu errealistago baten alde egin zutenean, karlistek Autonomia Estatutuarekiko zuten interesa galdu egin zuten eta kasu askotan erabateko itzulingurua egin eta jarrera irauli egin zuten. Kontrako kasua izan zen hainbat ezkertiarrena, hain zuzen ere Errepublikaren aurkako mehatxu-gune bat sortzearen beldurrez, hasieran Estatutuarekiko izan zuten axolagabekeria edota aurkakotasuna alboratu eta Estatutua onartzea Hego Euskal Herria "errepublikanoa" izateko bermeari baldintzatu zioten. Donostiako Nicolas Nieto errepublikanoak labur azaldu zuen: "Euskal Herria, egin zaitez errepublikano eta orduan lortuko duzu dagokizun askatasun osoa"[413]. Aldiz, indar errepublikano eta sozialistentzat, auzi sozialean 1931-1933 biurtekoan izandako moderazioa Errepublika sendotze aldera justifikatu zuten bezala, gero Errepublikaren sendotasuna bermatzea Estatutua lortzearen gainetik zegoen. Hala azaldu zuen Gillermo Torrijos Donostiako zinegotzi sozialistak: "Lehenik, Estatu hau (Errepublika), denbora laburrean Espainiako hiritar denei eskubide guztiak eman dizkiena eta etxe askotara lasaitasuna eraman duena sendotu behar dugu; eta gero joango gara Euskal Errepublikarantz"[414]. Jeltzaleek bide errepublikano-konstituzionaletik joatea erabaki zuten eta hori izan zen ezkerraren zalantzak erabat uxatu zituena. Bestalde, Madrileko Gobernuaren unean uneko kolore politikoa ere faktore esanguratsua izan zen. Beraz, askotan, helburua baino, alderdien arteko lehiaren dinamikak gain hartzea (eta alderdien berekoikeria edota oportunismoa) izan zen Euskal Estatutua jada guda hasi arte (eta Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa praktikoki altxatuen esku zeudela) indarrean ez jartzeko arrazoia, eta baita alderdi ezberdinen barruko eztabaiden iturri ere: ezin dugu esan alderdi bakar batean ere Estatutuaren inguruan erabateko adostasuna zegoenik.

Izan ere, autonomiaren aldeko indar ezberdinek (abertzaleek, eskuindarrek eta ezkertiarrek), II. Errepublikan "autonomiaren" inguruan ikuskera-modu batzuk izan arren, bakoitzaren ikuskerak eta irakurketak arras ezberdinak izan ziren: adibidez, Foruak, abertzaleentzat 1839az aurreko "euskal independentziaren" edo burujabetzaren lekuko ziren, eskuinarentzat lege tradizionalaren hondarra, eta ezkerrarentzat, "demokrazia eredu bat". Baina hortik aurrera, behin Foruak (edo egokitze--terminologian, Autonomia) lortuta, zer egin behar zenaren inguruan oso ikuspegi ezberdina zuten: adibidez, abertzaleek "Euzkadiren eskubide nazionalak" gauzatzeko bidea ikusten zuten (independentziarantz egiteko), indar ez-abertzaleak ez zetozen bat horrekin (agian komunistak izan ezik), bai eskuindar karlistek zein ezkertiar errepublikano eta sozialistek euskaltasuna eta Foruak espainiartasunarekin bateragarri ikusten zituzten (Frantzisko Goitia enpresari beasaindarrak, errepublikanoa eta euskal autogobernuaren defendatzaile sutsua zenak, Foruak "Euskal Aberriak Espainiari eta Aberriari egin zion monumenturik handiena" zirela ere esan zuen). Hots, eskuindarrentzako zein ezkertiarrentzako, oro har, Foruak "Euskal Herria Espainiaren eredu" zela erakusten zuten, batzuentzat "tradizioaren eredu", besteentzat "demokraziaren eredu". Eskuinak Foruak "lege tradizionala" Euskal Herrian indartzeko (batez ere orduan, Espainiar gobernua ezkertiar laikoen eskuetan zegoenean) erabili nahi zituzten eta agian jeltzaleen babesa lor zezaketen, baina inondik inora ere ez ezkertiarrena. Eta azken hauek, ezkertiarrek, Foruak edo autonomia "demokrazian sakontzeko" nahi zituzten eta horretan jeltzaleen babesa ere izan zezaketen, baina inondik ere ez eskuindarrena. Ezkerrean erradikalenek, komunistek, Euskal Herriaren autodeterminazioa iraultza komunistaren barnean txertatzen zuten; hala, autogobernua eta gizarte sozialista lortzeko, baina proiektu horren aurka zeuden, jeltzaleak, eskuindarrak eta ezkertiar asko. Eta hori, proiektuen xehetasunetan (euskarak izan behar zuen papera, Euskal Herriaren barne-eraketa, hezkuntza eta abar) sartu gabe. Ikusten dugun moduan, "euskal askatasunaren" inguruan, 1931n behintzat alderdi gehienak eta jende asko egon bazegoen, baina denak ez zetozen bat askatasun horri eman beharreko edukien inguruan. Hiru joerek indar parekatu samarra zuten Euskal Herrian II. Errepublikaren garaian, beraz, adostasunak lortzea ez zen erraza izan. Hala ere, gauza bat eztabaidaezina da: proiektu horrek herri-babes handia izan zuela 1931n, abian jarri zenean.

Lehen aipatu izan dugu bai eskuindarren zein ezkertiarren artean Estatutuak zatiketa handiak eragin zituela. Bai batzuk zein besteak, EAJk prozesuan hartu zuen protagonismoarekiko mesfidati izan ziren; eta mesfidantza horiek areagotu egin ziren Estatutuaren prozesuan aurrera egin ahala. Izan ere, aurretik ikusi dugun bezalaxe, EAJren baitan, foruak euskal burujabetasunaren oinarri ziren arren, beste bi sektoreentzat, bai ezkerrarentzat zein eskuinarentzat, Euskal Herria "Espainiaren eredu" zenaren

[413] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 222. or.

[414] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 206. or.

or.

erakusgarri ziren (bakoitzarentzat "eredu izatea" zer zen oso ezberdina bazen ere). Karlisten eta oro har eskuindarren aldetik, 1917-1918ko Estatutu-kanpainan, Viktor Pradera karlista nafarrak Nafarroa Estatututik at geratzeko eman zituen argudioek askoz zerikusi handiagoa zuten "EAJren hegemoniarekin", gaur egun hainbeste aipatzen den "Nafarroa euskalduna ez delakoarekin" baino (argudio hori, Viktor Pradera bezalako estatutuaren aurkakoek sekula ez zuten erabili). Beste alde batean, aipatu dugun bezala, karlisten eta eskuinaren aldetik Estatutua Errepublikaren kontrako ariete bezala erabiltzea nahi izate horrek, eta 1932tik aurrera Estatutua Errepublikarekin bat etorri zela kontuan izanik, karlismoak handitu egin zuen bere Estatutuaren aurkako jarrera. Esan bezala, karlismoak 1931ko Estatutua babestu zuen arren, alkate karlista asko Estatutua martxan jartzeko mugimendutik irten egin ziren eta Alderdi Karlista Tradizionalistaren organoek ez zuten deitu mugimendu horretan parte hartzera[415]. Eta karlisten jarrera, hasiera batean behintzat, Estatutuaren aldekoa izan zen arren (batez ere 1931ko Estatutuak zekartzan erlijioaren inguruko baldintzak zirela-eta), 1932tik aurrera joera hori ez zen ahobatekoa izan. Rodriguez Ranzek eskuinaren artean bi jarrera berezi ditu 1931ko karlismoan: alde batean "berezko estatutu-zale ideologikoak" eta bestean "estatutu-zale pragmatikoak": bigarren horiek 1932tik aurrera, Estatutu "laikoaren" edo "konstituzionalaren" aurka agertu ziren, jada Estatutua Errepublikaren aurkako tresna ez zela izango argi gelditu zenean. Gipuzkoan alde hori nagusitu zen, nahiz eta Estatutuaren aldeko batzuk (Ignazio Perez Arregi edo Julian Elortza, adibidez) bere horretan mantendu, Gipuzkoako karlisten *La Constancia* egunkariak nabarmen egin zuen Estatutuaren kontrako jarreretara[416]. Hori ikusi zen, adibidez 1933ko Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako 1932ko Estatutu-proiektua ez bozkatzeko arrazoien artean, karlistek, Estatutu hori "zentralista" (euskal zentralista), eta berez "foru-aurkakoa" zela adieraziz, Euskal Legebiltzarkideak edo Diputatuak probintziaka aukeratu ordez zuzenean aukeratzeko emendakinak aurkeztu zituztelako, udal-autonomia errespetatzen ez zuelako, "burokratikoa" zelako, "laikoa" zelako eta abar[417]. Hala ere, Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, karlistek arbuiatutako 1932ko proiektua eta oniritzia emandako 1931ko proiektua oro har berdintsu samarrak ziren; benetako arrazoiak beste batzuk izan ziren: adibidez, lehen aipatutako EAJren hegemonia, edo Katalunian autonomiak (1932an onartua) hango ezkerraren posizioak indartu izana[418]. Zentzu horretan, 1932ko Iruñeko Euskal Herriko udalen batzarrean eta 1933ko abuztuaren 6an egin zen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalen Gasteizko Batzarrean, karlistek euren udalei, "bakoitzak bere kontzientziaren arabera" bozkatzeko deia egin zieten, eta Batzar horietan Estatutuaren alde agertu ez ziren udal gehienak karlistak izan ziren. Modu berean, 1933ko azaroko erreferendumean karlistek, euren aldekoak "baiezko botoa ematera ezin zituztela behartu" esan zuten[419]. Karlistak ez ziren izan eskuineko alderdien artean aurka egin zuten bakarrak eta, bai *Renovación Española* alderdiaren gipuzkoar adarra zen *Unión Regionalista Guipuzcoana* zein CEDAren gipuzkoar adarra zen *Derecha Vasca Autónoma* Estatutuaren aurka agertu ziren, bi alderdiek ere euren buruak "autonomistatzat" izan zituzten arren. Hala ere, azken bi alderdi horiek Gipuzkoan berandu sortzeak (URG 1933ko maiatzean, Estatutuaren zirriborroa egina zegoenean, eta DVA 1934an, Estatutua bozkatuta zegoenean), eta Gipuzkoako gizartean zuten pisu oso urriak (Beasainen bat ere ez), euren jarrerak garrantzi gutxikoak izatea eragin zuen[420].

Ezkerrari dagokionez esan behar da, egia dela ezkerrak halako bilakaera bat izan zuela gai horretan. Lehen kapituluan aipatu dugu Gipuzkoako errepublikanismoak izan zuen tradizio autonomista eta euskaltzalea, batez ere Frantzisko Goitia Ostolaza beasaindarraren eskutik. Alderdi Sozialistak, komentatu dugun moduan mende-hasieran euskal berezitasunen edo autogobernuaren aurkako oso jarrera gogorra izan zuenak, bilakaera bat izan zuen. Gipuzkoan adibidez, buruzagi berriak nabarmendu ziren, Donostiako Migel Amilibia (guda zibilean Gipuzkoako Defentsa Batzordeko lehendakari izan zena) eta Eustasio Amilibia (langileen abokatua), adibidez. Bestalde, PSOEk berak, bere ideologian aldaketa batzuk egin zituen, 1918an, sozialista kataluniarrek aurkeztutako mozio bat onartu zuen PSOEk "iberiar nazionalitateez osatutako konfederazio errepublikanoaz" eta bere egin zuen[421]. Ildo horretatik, Indalezio Prietok berak, maiatzean, Bilbon "Gobernuan gauden gizonok, Euskal Herriaren askatasunak, euskal autonomia, berrezartzeko konpromisoa hartzen dugu" esan zuen, eta Eibarren, Martzelino Domingo ministro

[415] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 160. or.

[416] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 161-162. eta 166. or.

[417] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 164-165. or.

[418] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 166-168. or.

[419] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 164. or.

[420] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 177-181. or.

[421] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 63. or.; eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 204. or.

errepublikanoak "Errepublikak Euskal Herriari autonomia emango dio" hitzeman zuen[422]. Alderdi Sozialistak berak, zalantzarik gabe, Errepublika federalaren aldeko adierazpenak atera zituen 1931ko uztailean; Uztailaren 11n Alderdi Sozialistak "eskakizun autonomistak babesteko konpromisoa" hartu zuen, eta hiru egun beranduago alderdi horren *El Socialista* egunkariak "sozialistak Errepublika federalaren alde" zeudela esan zuen[423]. Hala ere, ikusiko dugun bezala, sozialistek eta errepublikanoek bi beldur zituzten, biak lehen aipatutakoak: autonomiaren aldeko mugimenduak Errepublikaren inguruan ezegonkortasuna handitzea eta autonomia Errepublikaren kontra erabiltzea bata, eta bestea, autonomiaren aldeko mugimendua EAJren hegemonia indartzeko erabiltzea. Zentzu horretan aski ezaguna da Indalezio Prietok, Estatutuaren aurreproiektu bati, Lizarrako Estatutu-proiektuari iritzi zion "Gibraltar Vatikano-zale" adierazpen famatua, baina ez hori bakarrik, hor dago adibidez halaber Julian Zugazagoitiak esan zuen "sozialista guztiok bat gatoz Estatutua arma atzerakoia izango denaren ustean"[424]. Arraroa bada ere, 1932a izan zen Espainiako ezkerraren eta jeltzaleen arteko tirabirak eta ezberdintasunak handitu ziren urtea: Estatutuaren proiektu konstituzionala onartu zenean, eta beraz, indarrean jartzeko oztopo gutxien zegoela zirudienean[425]. Garai hartan, adibidez 1933ko apirilean Manuel Azaña gobernuburuak esan zuen: "Estatutuak Errepublikak emandako askatasunen errematea izan behar du, ez horien iluntzea"[426]. Edota baita, 1933an Bizkaiko gazte sozialistek EAJren kontra egindako adierazpenak: "EAJ Erregimenarekiko erabat kontra" zegoela deitoratu zuten[427]. Gipuzkoan ere, 1931ko apirilaren 18an Eibarko Udalak eginiko adierazpena oso esanguratsua izan zen: "Estatutua Erregimen berri hau ekarri dutenek ekarriko dute eta ez "honekiko zalantzan egon direnek"[428]. EAJk Estatutua hegemonizatzeko ezkerrak zuen beldurra hain zen handia, ezen 1933an Aldundiaren behin-behineko Gestorek alderdi ezberdinei Estatutuari emendakinak egiteko eskatu zietenean, PSOE horren aurka azaldu zela, "Alderdiek ez zutela Estatutuan parte hartzeko eskubiderik" argudiatuz (argudio horrek izan zuen zerbait utilitarismotik, izan ere, Aldundietako Gestorak, Gobernuak izendatu zituenez gero, alderdi errepublikano eta sozialistetako kideek osatzen zituzten eta horietan EAJk ez zuen ordezkaririk)[429]. Bestalde, Errepublikaren geroaz eta jeltzaleen hegemonia politikoaz landa, bazeuden Estatutuan ezkerreko indarrak kezkatzen zituen zenbait elementu: adibidez, 1931n Lizarran onartu zen estatutuaren proiektuan erlijioaren inguruko klausulak edo hezkuntza euskaraz eman behar zela zioena. Azken puntu honen aurka, Endrike De Frantzisko sozialista tolosarrak hitz egin zuen Espainiako Parlamentuan eta beraren arabera, hizkuntzaz arautzeko agintea zuten bakarrak "filologoak ziren" eta hezkuntza euskaraz edo espainieraz izan behar zuen udal bakoitzak erabaki behar zuen, ez Estatutuak; Estatutuak "hezkuntza-askatasuna" soilik bermatu behar omen zuen[430]. Bestalde, Jose Maria Jimeno Juriok, Nafarroako Estatutuaren prozesua ikertu duenak, Nafarroan, 1931n autonomia-proiektuak gorpuzten ari zirenean, sozialisten esku zeuden udal gehienek, egoera horren aurrean interes-falta erakutsi zutela dio, beste lehentasun batzuk zituztelako[431] (hori ez da Nafarroako sozialista guztientzat orokortu behar, bazeuden-eta, estatutuaren oso aldekoak, adibidez, Nafarroako Ahaldun Nagusi zen Konstantino Salinas. Baina egia da sozialistentzat edo oinarri sozial ezkertiarra zutenetako parte handi batentzat Estatutua ez zegoela beren lehentasunen artean). Ikusiko dugun bezala, ezkerrak autonomia nahi zuen, baina ez zuen horretarako estrategia batere koordinaturik edo koherenterik izan, Rodriguez Ranz irakasleak dioen moduan, bere saiakera propioak egiten baino gehiago ahalegindu zen autonomia EAJren aldetik monopoliza zezaketen saiakeren aurka eta praktikoki Eusko Ikaskuntzak bere egitasmoa publikatzeak ezkerrari halako erreferentzia bat eman zionez gero, haren ahaleginak koordinatzen lagundu zuen[432].

Ezkerreko alderdien artean, baditugu bi salbuespen, biak oso ezberdinak: Eusko Abertzale Ekintza eta Euzkadiko Partidu Komunista. EAE, ezkerreko alderdi abertzalea izaki, bi jarreren artean ibili zen, nahiz eta berez ezkerreko indarretatik gertuago aritu izan zen EAJrengandik baino. EAE, apirileko udal-hauteskundetan ezkerreko indarrekin batera hauteskundeetara joana

---

422 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 63. or.

423 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 203-204. or.

424 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 78. or.

425 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 94-99. or.

426 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 94. or.

427 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 99. or.

428 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 206-207. or.

429 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 96. or.

430 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 220. or.

431 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 55. or. Gipuzkoan, Pedro Sarasketa errepublikanoak ere, antzeko adierazpen batzuk egin zituen: "nahiz eta gu estatutuaren alde egon, gure oinarriek ez dute interes askorik, arazo hau ez dago euren lehentasunen artean. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 219. or.

432 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 208-10. or.

or.

zenez, Aldundietako behin-behineko Gestoretan, Estatutuaren prozesuan aktore nagusietako bat izan zirenetan, ordezkaritza izan zuten. Horrek, ezkerreko indarren aldera lerratzea eraman zuen alderdi ekintzailea. Alderdi horrek, nahiz eta 1931ko apirilaren 17an bere asmoa "Ipar eta Hego Euskadiko euskaldunak Gobernu batean batzea" zela esan, biderik pragmatikoena Estatutua zela esan zuen; "Espainiako Errepublika berriaren Gobernuaren programan, iberiar nazionalitateek konfederazioa osatuz bakoitzak bere autogobernua izatea" zegokiela-eta esan zuen alderdiak[433]. EAEren arabera, herrialdean zegoen, "iritzi bikoitza" (hots, alkateen mugimenduak taxututako proiektuaren eta Gestoren proiektuaren arteko bikoiztasuna), "zoritxarrekoa" zen[434]. Hala ere, esan bezala, Gestoretako parte izateak, EAE Errepublikaren bide legalistatik eta ez alkateen mugimenduaren bidetik eraman zuen. Frantzisko Ulazia EAEko zuzendariaren arabera[435], "Estatutuaren defentsa euskal diputatu errepublikano eta sozialistek egingo dute"[436]. Aurretik, Bilboko zinegotzi Joxe Domingo Aranak esan zuenez "nik konfiantza handia dut erregimen honek Euskal Herriaren izaera nazionala aldarrikatzeko eta autonomia ekartzeko"[437]. Hala ere, EAEn ere, ezkerreko zuzendari nagusien politikarekin ere atsekabea nagusitu zen. Eusko Abertzale Ekintzaren zuzendari bat, Luis Urrengoetxea, maiatzean Prietorekin bildu zen, eta hark hasiera baten "Euskal Estatutua azkartzeko Gobernu-dekretu bat" agindu bazuen ere, hurrengo egunean, Migel Maura ministroarekin bildu ondoren, Prietok atzera egin zuen. Urrengoetxeari eta EAEri nahiz bere zuzendariei oso inpresio ezkorra sorrarazi zien horrek. Egia izan arren, Estatutuaren aurreproiektua (Eusko Ikaskuntzak idatzitakoa) EAEren ideologiatik gertu zegoela[438], eta EAE Gestoretako parte izanagatik bide horri atxikiko zitzaiola, sozialistekiko eta errepublikanoekiko konfiantza galtze horrek ekaineko Errepublikaren parlamenturako hauteskundeetan Bizkaian EAE ezkerreko koaliziotik irtetea ekarri zuen (ez ordea Gipuzkoan). 1931ko irailean, Estatutuaren lehen egitasmoa Espainiako Parlamentuak ukatzea, EAErentzat desengainu berri bat izan zen. Jose Antonio Rodriguez Ranzek esan bezala, EAJren jarreraren eta ezkerreko indarren jarreraren artean hurbilketa bat erraztean zetzan EAEren estrategiak porrot egin zuen[439]. Hala ere, 1932tik aurrera, Estatuturako bidea Konstituzioaren barruan onartu behar zela argi geratu zenean, EAE berriz ere, ikusiko dugun moduan, ezkerreko indarrengana hurbildu zen, Estatutua adostasun handiz lortu nahian[440].

Komunisten jarrera bestelakoa izan zen. Gipuzkoar eta euskal komunisten zuzendari politiko eta ideologiko nagusia beasaindar bat, Jesus Larrañaga Txurruka "Goierri" izan zenez, merezi du haien ikuskera xeheki aztertzeak, izan ere, Larrañaga beasaindarrak eragin handia izan baitzuen euskal komunisten arazo nazionalarekiko ikuskeran. Hasiera batean Estatutuaren oso kontra zeuden, esan bezala espainiar inperialismoaren eta euskal burgesiaren arteko itun iruzurti gisa ikusten zutelako. Donostian Euskadi Roja egunkaria atera zenean, bere lehen zenbakian 1933ko martxoaren 25ean, "euskal langile eta baserritarren eskubide nazionalak espainiar inperialismoaren aurka defendatzeko konpromisoa hartzen zutela" adierazi zuten[441]. Kasu berean, Estatuari kritika egiteaz gain ("Euskadiren eskubide nazionalak zapaltzeagatik"), EAJri ere luzatzen zion kritika hori, eskubide nazionalen alde borroka ez egitearren. Alderdi Komunistaren arabera, EAJk, "burgesia handiari lotutako alderdia izaki (…) ez du deus ere egiten eskubide nazionalen alde, inperialismoaren kontrako borrokan (…) inperialismoarekin bat egitea nahiago baitu"[442]. Alderdi Komunistaren kritika, euskal (eta nazioarteko) burgesiari egin izan dion kritika klasikoa da; abertzaletasuna norbere probetxurako erabiltzea "aukeran, klase-interesak herri osoaren eskubideen gainetik ezarriz"[443]. Beraz, Euskal Herriak bere eskubide nazionalak lortu nahi bazituen, Alderdi Komunistaren arabera ezin zezakeen euskal burgesiarekin bat egin, baizik eta burgesia hori ere garaitu egin beharko zukeen. Baina kritika hori ez zen soilik EAJra mugatzen; ezkerreko indarren kontra ere jardun zuen "kapitalismoaren kudeatzaile" edo "traidore" (eta arazo nazionalari dagokionez "inperialismoaren jarraitzaile") gisa joz. 1933ko apirilaren 1ean, Jesus Larrañaga "Goierri" beasaindarrak Eusko Abertzale Ekintza kritikatu zuen, haiek ezkerreko

[433] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 197. or.

[434] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 79. or.

[435] Ulazia iraganean jeltzalea izan zen, eta 1911n, EAJren historiako lehen banaketan parte hartu zuen, aldi berean euskal nazionalismoan lehenengo ezkerreko erakunde politikoa sortuz: Euskal Alderdi Errepublikano Nazionalista.

[436] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 81. or.

[437] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 64. or.

[438] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 198. or.

[439] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 200. or.

[440] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 202-204. or.

[441] *Euskadi Roja*, 1933-03-25ekoa.

[442] *Euskadi Roja*, 1933-04-01ekoa. 1933ko irailaren 16an EAJren eta honen aldeko prentsaren erretolika iruzurtzat jo zuten "masen aurrean sentitzen ez zuten errebeldia anti-inperialista antzeztea". (*Euskadi Roja*, 1933-09-16koa). Komunistek, behin eta berriz salatu zuten komunisten eta langileen aurka egindako "jelkideen eta inperialisten lankidetza burgesa".

[443] *Euskadi Roja*, 1933-04-01ekoa.

Gobernu errepublikanoarekin elkarlanean ari zirelako. EAEk Alderdi Komunista "espainiartzat" jo izanari erantzunez, Larrañagak "Espainiako Gobernu inperialista batekin elkarlanean aritzea bezalako espainiarkeriarik ez zegoen"[444]. Estatutua, hitz horiekin, 1933ko apirilaren 15ean agertu zen lehen aldiz gipuzkoar komunisten prentsan, "errendizioaren Estatutu", eta "zapaltzaile inperialisten jukutria" hitzekin, "oinarrizko boterea inperialisten esku uzten zuelako"[445]. Estatutua egiteko modua ere kritikatzen zuten, "Gestorak antidemokratikoak zirelako" eta "Inperialismoaren tresna" zirelako; eta kritika hori Estatutu-prozesuan parte hartu zuten alderdi guztiei (errepublikanoei, sozialistei, EAJri eta EAEri) luzatu zien[446]. Alderdi Komunistak, nazionalitateen arazoa konpontzeko, SESBko eredua proposatzen zuen, non Estatua nazio bakarrarena izatetik hainbat nazio parekidek ideia komun batean (sozialismoa) eraikitako Estatu nazio-anitza zen[447]. Alderdi Komunistaren arabera, Estatutua ez zen halako nazioen arteko harreman baten eredu, Estatutuarekin ere, euskal nazioa espainiar nazioaren Estatuaren mendeko izango zen, ez harreman parekide baten parte. Komunistek 1933ko irailaren 23an egin zuten publiko Estatutuaren auziaren inguruko euren jarrera, "kapitulazioaren Estatutuari" ezezko botoa ematea eskatu zuten[448]. Urriaren 28an, jada Estatutua hiru lurraldeetarako izango zela argi zegoenean, eta erreferenduma baino astebete lehenago, Alderdi Komunistak are gehiago errepikatu zuen "klaudikazioaren Estatutuaren aurka, Euskadiren askatasun nazional eta sozialaren alde", botoa emateko deia egin zuen (kontuan hartu behar da, azaroan, erreferendumaren ostean, bestelako hauteskundeak ere bazirela). Alderdi Komunistak, Estatutua onartzeak Espainiako tropa polizial eta militarrak Euskal Herrian handitzea ekarriko zuela esan zuen (agian boto abertzaleak euren jarreretara erakarri nahian). Estatutuaren inguruko erreferenduma zenbat eta gehiago gerturatu, are gehiago handitu zen komunisten aurkakotasuna[449]. Beraz, Estatuaren aurkako jarrera horrekin, Alderdi Komunista beste ertzean kokatu zen, autodeterminazioaren aldetik Estatutuaren aurka egiten zutenen ertzean[450].

Bi jarrera axolagabeek, eskuinarenak zein ezkerrarenak, batez ere Nafarroan izan zuten garrantzi handia eta Nafarroa kanpoan gelditzeko pisu handia izan zuten. Nafarroan agertu ziren gehienik bi sektoreetako oinarriak Estatutuaren aurka, nola ezkerrekoak hala eskuinekoak. 1931n, alkateen mugimendua hasi zenean, mugimendu hartan hori antzeman zen.

1.4.b) Estatutu-proiektu ezberdinak

1931ko apirileko udal-hauteskundeetan EAJk garaipena (batez ere Bizkaian) lortu ondoren, autonomiaren afera, eztabaida politikoaren erdigunean jartzea lortu zuen Alderdi Jeltzaleak (eta horrek, bide batez, Alderdiari on egin zion). Alderdi Jeltzaleak, nahiz eta Errepublika onartu zuen (Errepublika ekarri zuen Donostiako Itunean ez zen egon, baina behin Errepublika ezarrita onartu egin zuen), autonomia ezartzeko bidelagun gisa Alderdi Karlista aukeratu zuen, eta modu gisa, Errepublikako hauteskunde konstituziogileak egin baino lehen eta Errepublikaren Konstituzioa ezarri baino lehen udal-batzarren bitartez Autonomia lortzea izan zen. Hau da, legezko egoera berria, "berez behartzea" bilatu zuen. Testuingurua zein zen kontuan harturik, Errepublika bera, aurreko lege-markoarekiko herri-borondatearen bidezko haustura baten ondoren etorri zenez (1931ko apirileko hauteskundeen ondorioz, nahiz eta indar politiko ezberdinek eta batez ere ezkerrekoek haiek erreferendum bezala planteatu, ez ziren erreferendum gisa deituak izan); modu batean logikoa izan zitekeen herri-borondateak berriz ere legezko marko berria hautsi ez, baina bai behartu zezakeela pentsatzea; hau da "hauteskunde haiek Espainian Errepublikari eman zioten gehiengoa, baina Euskal Herrian autonomiari eman ziotela" pentsatzea[451]. Baina beste alde batetik, bidelagun gisa karlistak hartzea (zeintzuen

---

[444] *Euskadi Roja,* 1933-04-01ekoa. EAE-ANVrekiko harremanak nahiko anbiguoak izan ziren. 1933ko irailaren 9an EAEko zuzendaritzari komunisten aurkako elkarlanerako betoa ezartzea aurpegiratzen zion, komunistak "Estatutu inperialistaren" kontra zuten jarrera egotziz. (*Euskadi Roja,* 1933-09-09).

[445] *Euskadi Roja,* 1933-04-15ekoa.

[446] *Euskadi Roja,* 1933-04-15ekoa; eta Euskadi Roja, 1933-08-26koa.

[447] *Euskadi Roja,* 1933-05-01ekoa.

[448] *Euskadi Roja,* 1933-09-23koa. Jarrera hau 1934ko urriaren 21ean berretsi egin zuten. (*Euskadi Roja,* 1933-10-21ekoa).

[449] *Euskadi Roja,* 1933-10-28koa eta 1933-11-04koa. Ale horietan azaltzen dute batez ere Estatutuaren aurkako posizioa.

[450] 1933ko azaroaren 5ean Estatutuaz egindako erreferendumaren ostean ere, Alderdi Komunistak ez zuen aldatu bere jarrera. 1933ko azaroaren 11n, Estatutuaren erreferendumaren inguruan egin zuten aipamenean Estatutuaren garaipena deitoratu zuten. (*Euskadi Roja,* 1933-11-11koa). 1934an zehar ere jarrera horrek jarraitu egin zuen, adibidez martxoaren 3an, Estatutuaren inguruko eztabaida parlamentarioa aipatuz, jada bozkatua zen Estatutua espainiar parlamentuan onartzeko zailtasunak ikusirik, alde batetik Estatutuak "euskal nazioaren nahien grinaren" nolabaiteko ordezkaria zela onartzen bazuten ere, Estatutua espainiar parlamentuak eztabaidatu behar soilak hark Euskal Herria "espainiar inperialismoari kateatzea" esan nahi zuela esan zuten, independentzia "iraultza bidez" lortuko zela adieraziz. (*Euskadi Roja,* 1934-03-03koa). Martxoaren 17an, nazio-askapena eta iraultza soziala batera zihoazela esan zuten eta horren eredu gisa 1917ko urriko Errusiako Iraultza Sozialista jarri zuten. (Euskadi Roja, 1934-03-17koa). Argudio hori, 1934ko martxoaren 24an eta 1934ko abuztuaren 18an errepikatu zuten (*Euskadi Roja,* 1934-03-24koa eta Euskadi Roja, 1934-08-18koa). Apirilaren 14an, Estatutuaren kontrako posizioa berretsi bazuten ere, eskuinak Araba Estatututik ateratzeko edo bertan berresteko erreferendum berri bat deitzeko asmoen aurka egin zuen Alderdi Komunistak, Araba Euskal Estatututik kanpo gelditzea (eskuindarren asmoa zen bezala) atzerakada zelakoan. (*Euskadi Roja,* 1934-04-14koa).

[451] Horren erakusgarri dugu, gero lehendakari izan zen Jose Antonio Agirre Lekubek, 1931ko apirilean Getxoko alkate aukeratua izan zenak, apirilaren 14an "Espainiar Errepublikaren barneko Euskal Errepublika" aldarrikatu izana.

or.

asmoetan, Errepublikaren legedia autonomiaren alderantz behartzea baino, legedia hori haustea zen), boterean zeuden indar errepublikanoekin zubiak haustea izan zen. 1932an zubiak berriz eraikitzea ez zen lan erraza izan. Hor zilegitasun-gatazka bat hasi zen udalen (berriki hautatuak izan zirenen) eta Errepublikak izendatutako Aldundietako Gestoren (Errepublikaren legediaren barruan hatzez izendatuta zeudenen) artean.

Beraz, maiatza, Autonomia Estatuturako hilabete giltzarria izan zen. Alde batetik udalen mugimendua azkartu egin zen, eta bestetik, Estatutuaren proiektua idatzi zen, Eusko Ikaskuntza elkarteak hain zuzen ere (maiatzaren 31n). Udal-mugimenduaren bitartez, EAJk, Estatutu bat "jazotako gertakizun" gisa aurkezteaz gain, ekimen politikoa eskuratu nahi zuen. Udalen mugimendua lau herrialdeetan zabaldu zen, Autonomia Estatutua berehala eskatuz. Gipuzkoan, ezkerreko udal batzuek, Errenteriakoak eta Hernanikoak adibidez, Donostiako Udalari Gipuzkoako udal guztiak Autonomiaren inguruan eztabaidatzeko bil zitzala eskatu zioten[452].

Beraz, hasiera batean behintzat, gako hauek (zilegitasunaren gaiak eta Estatutuak islatuko zuen gizarte-moduaren ingurukoak) kezka sortu zuten Alderdi ez-abertzaleen artean, zeintzuk, gogora dezagun, une hartan Hego Euskal Herrian botoen gehiengoa zuten eta bi joeren artean (Hego Euskal Herri osorako Estatutuaren aldeko eta aurkako joeren artean) zatituta agertu ziren. Eta abertzaleen artean, nahiz eta lau herrialdeentzako Estatutuaren inguruan erabateko adostasuna egon, lortzeko moduarekiko ezberdintasunak izan ziren, hasieran batik bat, eta, esan bezala, EAJk udalen mugimendua abian jarri zuenean, EAE-ANV ezkerreko indarrekin konprometituta zegoen (1931ko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetara eta 1931ko ekaineko Espainiako parlamenturako hauteskundetara haiekin batera joan baitzen Gipuzkoan) eta Errepublikaren erakundeetan askoz ere konfiantza handiagoa eskaintzen zuen. Beraz, Estatutuaren inguruko gutxieneko adostasuna lortzea, uste baino zailagoa izan zen.

Errepublikaren aurretik jada, autonomiaren aldeko mugimenduak nabaritu ziren erakundeetan eta baita Beasainen ere: 1931ko urtarrilean Beasaingo Udalak, Bilboko Udaleko zinegotzi Bizente Alaio Zuazoren partetik, Gernikan Foru Berrezarkuntza eskatzeko egin zen batzar batean parte hartzeko gonbita jaso zuen. Mozio horretan, Foruak demokraziarekin lotzen ziren, eta lau euskal lurraldeetako udalei egiten zitzaien deia. Otsailaren 7an, udalak batzar hartan parte hartzea eskatzen zuen mozioa onartu egin zuen[453].

EAJk, Euskal Herrian udal-hauteskundeetan alderdirik bozkatuena izan zela-eta, autonomia-prozesua abian jartzea erabaki zuen. Horretarako oinarri, Eusko Ikaskuntzak idatzitako Estatutua hartu zuen. Apirilaren 16an bertan, Bizkaiko lau alkate jeltzalek (Bermeokoak, Mundakakoak, Elorriokoak eta Getxoko Jose Antonio Agirrek) Bizkaiko "Batzar Nagusiak" (hots, Estatutuaren aldeko Bizkaiko udalen batzarra) deitu zituzten Estatutu-proiektua indarrean jartzeko asmoarekin eta hurrengo egunean Gernikan bildu behar zuten. Elkarretaratze hori debekatu egin zuen Gobernuak[454]. Gure herrialdean, Gipuzkoan, EAJko zinegotziek, "Euskal Herriaren autodeterminazioa eskatu zuten Euskal Errepublika osatu eta Iberiako beste Errepublikekin konfederatzeko" eta hori eskatzen zuten mozioak defendatu zituzten (kasu batzuetan karlistek ere mozio horiek babestu zituzten)[455]. EAJren estrategia horrek, praktikoki, alde batetik Estatutua ahalik eta lasterren onartzeko beharrezkoa zen akordioa zaildu zuen (beste alderdiek Estatutuaren gaia kapitalizatzea egotzi zioten), baina bestetik Estatutua eztabaida politikoen erdigunean jartzea lortu zuen. Izan ere, udal gehienek mugimendu hori babestu egin zuten, 527tik 428k eta hori praktikan EAJrentzako garaipen politikoa izan zen. Egia esan, alkateen mugimenduak, nahiz eta eskuineko indarrek kapitalizatu, bat-bateko izaera zuen mugimendua izan zen, alkateek behe-behetik hasitako mugimendua alegia. Adibidez, Nafarroan ikusi zen halako mugimendu bat eta udalek Estatutuaren aldeko mozioak onartu zituzten (Oliteko udalak soilik aurkeztu zuen aurkako mozio bat)[456]. Hala ere, hiriburuetako alkateak (ezkerraren esku zeudenak), ez zitzaizkion mugimendu horri batu. Beste alde batetik, ikusiko dugun bezala, Eusko Ikaskuntzari enkargatutako proiektuak "Estatutu hau onartzeko udalen esku-hartzea" aldarrikatzen zuen eta alkateen mugimenduak bultzada handia eman zion[457].

Hala ere, praktikan proiektuaren bizkarrezurra ez zen udalena, ez Aldundiena izan, Eusko Ikaskuntza elkartearena baizik. Horrek, 1931ko maiatzaren 8an, udalen mugimendutik jaso zuen euskal lurralde bakoitzarentzat Estatutu bana eta Hego Euskal Herriarentzat beste bat egiteko enkargua, baina denbora-faltagatik, azken hau soilik egin zuen, *"Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra"* deitua, azkenean maiatzaren 31n bukatu zuena, eta ekainaren 14an Iruñean egin beharreko Euskal Herriko udal

[452] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 209. or.

[453] Beasaingo Udal Artxiboa. A055 karpeta, 19. dokumentua.

[454] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: El problema vasco en la II República. Turner. Madril, 1979, 64-65. or.

[455] Gipuzkoan, Araman, Azpeitian, Bergaran, Legorretan edo Urnietan, esaterako. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 159. or.

[456] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco.* Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 46-48. or.; eta AIOZ, Floren: *El jarrón roto. Txalaparta. Tafalla, 2005, 36. or.*

[457] Ikus Estatutuaren testu osoa http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/est1931/0001015.pdf loturan.

guztien Batzar batean eztabaidatu beharrekoa. Bai udalen mugimenduak zein Gestoretan biltzen zen ezkerrak Estatutu-proiektu horren inguruan ibili ziren, Estatutu horri emendakinak egitera mugatuz (kontuan izan behar dugu Eusko Ikaskuntzaren proiektua Ramon Madariaga bizkaitar errepublikanoaren lan batean oinarritu zela[458]). Beraz, bien arteko lehia, hasiera batean behintzat, zilegitasun-lehia izatera mugatu zen. Horrek ez du esan nahi eztabaidari karga ideologikorik ez zitzaionik gaineratu, laster ikusiko dugun moduan. Egitasmo horrek, 80 kideko Kontseilu Nagusi bat (Legebiltzarra; herrialde bakoitzeko 20 kidek osatutakoa) eta Gobernu bezala arituko zen Batzorde Exekutibo edo Egikaritzaile bat (zortzi pertsona, herrialde bakoitzeko bi, gehi lehendakaria) aurreikusten zituen, eta barnera begira, herrialde bakoitzari autonomia handia ematen zion, herrialde bakoitzak bere Batzarrak edo Gorteak izan zitzakeelarik. Lehendakaria, bai Legebiltzarrekoa zein Gobernukoa izango zen aldi berean, eta bi urtetik behin aldatuko zen. Euskal hiriburua eta Gobernuaren egoitza Gasteiz izatekoa zen[459]. Euskal Herriaren izen ofiziala "Euskal Estatua" (*Estado Vasco*) izango zen[460]; bere eskuduntzen artean zergak biltzea (herrialde bakoitzari eskuordetua, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera)[461], Justizia (Euskal Herriko Epaitegi Gorena eta euskal epaile-kidegoa sortzea eta kargudun horiek euskaraz mintzatzen jakin beharra, aurreikusten zen), udal administrazioa, ordena publikoa, kartzelak, industria eta plangintza ekonomikoa, osasuna, hezkuntza, gizarte-araudia, barne-komunikazioak, azpiegiturak eta herri-lanen sailak egotea aipatzen zen[462]. Bitxikeria bezala, defentsa ere partzialki *Euskal Estatua*ren mende egongo zen: euskal autonomiak errekrutatutako euskal miliziak sortuko ziren, bake-garaietan Euskal Herrian polizia lanak egiteko, eta guda-garaian, Espainiako Errepublikaren Armadan zutabe berezi gisa aritzeko. Espainiako Estatuak, erlijio-askatasuna bermatzea, mugak eta muga-tasak, moneta, kanpo-politika, nazioarteko komunikazioak eta abar izango zituzkeen bere esku. Euskal Herriaren nazio-hizkuntza gisa euskara aldarrikatzen zen, bi hizkuntzak ofizialduz; baina euskarazko hezkuntza "lurralde euskaldunetara" soilik mugatzen zen (nahiz eta *Euskal Estatua*ren funtzionarioa izateko euskara jakitea beharrezkotzat jotzen zen). *Euskal Estatua*k gaur egun Hego Euskal Herriko lau herrialdeak izango bazituen ere, ondoko beste lurralde batzuk, bertako biztanleriak %80ko baiezkoa emanda batu zitzakeen ("euskal lurraldeak" baziren, adibidez, Villaverde edo Trebiñu, gehiengoa soilik %50ekoa eskatzen zen). Euskal Estatuko hiritar, Euskal Herrian jaiotakoak, gurasoetako bat Euskal Herrian jaiotakoa zena, edo baldintza horiek bete gabe, bi urte Euskal Herrian bizitzen zeramana izango zela definitu zuen[463]. Testu hori alderdi ezberdinek oso ondo hartu zuten: ekainaren 4an Gipuzkoako alderdi errepublikanoek onespena eman zioten, ekainaren 7an Alderdi Sozialistak, Alderdi Jeltzaleak eta Eusko Abertzale Ekintzak, eta ekainaren 10ean Alderdi Karlistak[464]. Baina laster batzuen eta besteen emendakinek testu horretatik bi testu ezberdin atera zituzten. Hala ere, emendakin horiek berez testua gehiegi aldatzen ez bazuten ere, borroka politikorako aitzakia bilakatu ziren.

Udal-mugimenduaren aurrean, ezkerra bere estrategia propioa aurrera eramaten saiatu zen. Ezkerrak ez zuen nahi jada EAJk hegemonia zuen mugimendu baten parte izan, horrek Errepublikaren kontrako izaera izan zuelako (gogoratu karlistak zirela EAJren aliatuak), eta, beste alde batetik, prozesuaren gidaritza lehian zegoen alderdi baten esku uztea zelako. Ezkerreko alkate asko, garrantzitsuenak bederen (Beasaingoa barne) ez ziren alkateen mugimendura batu, apirilaren 17an bertan Bilbo, Gasteiz eta Donostiako alkateek EAJk gidatutako alkateen mugimenduan parte hartzeari uko egin zioten, nahiz eta Jose Antonio Agirreren gonbidapena jaso. Uko hori ez da autonomiaren aurkako jarrerarekin parekatu behar; Donostiako (Fernando Sasiain) eta Bilboko (Ernesto Erkoreka) alkate errepublikano ezkertiarrak behintzat autonomistak ziren. Uko hori hegemonia politikoaren gakoetan irakurri behar da: apirilaren 18an Eibarko Udal sozialistak ere argudio horiek errepikatu zituen: egun horretako mozio batean "EAJk uzkaildutako monarkiaren aldeko elementuekin" zuen harremana gaitzetsi zuen[465]. Ezkerraren estrategia, Aldundien Gestorei (hitzak adierazten duen bezala, behin-behineko agintaritza-taldeak ziren) Estatutua idazteko enkargua eman zien. Baina Gestorak, behin-behinekoak izateagatik ere, Gobernuak izendatutako kidez osatuak ziren, beraz praktikan, hori Estatutuaren idazketa Gobernuaren esku uztea zen. Halako erabakia hartu zuten, Bizkaian (ekainaren 30ean), Gipuzkoan (maiatzaren 7an, proiektuak aurkezteko epea maiatzaren 25erako emanez), Nafarroan (maiatzaren 12an) eta Araban (maiatzaren 28an)[466]. Prietok, horixe bera baieztatu zien lau Aldundietako Gestorei maiatzaren 15ean. Hala ere, udal-mugimendua hartzen ari zen garrantzia kontuan izanda, Indalezio Prietok eta orduko Bizkaiko Ahaldun Nagusi zen Rufino Laisekak egin zuten bilera batean, "udalek Estatutua onartu beharko

[458] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 70. or.

[459] Ez ordea Legebiltzarrarena, urtero aldatu egin baitzen.

[460] Hala ere, "Estatu" hitzak ez zuen independentzia aurresuposatzen, lehen artikuluan adierazten baitzen "Espainiar Estatuaren barnean gauzatutako Estatu autonomoa" izango zela.

[461] Horrez gain, Aldundiei Legebiltzarrak aurkeztutako "aurrekontuen memoria" betatzeko aukera ematen zitzaien.

[462] Ikus testu osoa http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/est1931/0001015.pdf loturan.

[463] Ikus testu osoa http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mono/est1931/0001015.pdf loturan.

[464] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 160., 186-187., 199. eta 211. or.

[465] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 66. or.

[466] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 68. or.

or.

zuketela, baina haiek koordinatu eta eginkizun horretara deitzeko eskubidea, Gestorek zutela" adostu zuten[467], eta Hego Euskal Herriko lau Aldundiek hori berretsi zuten maiatzaren 29ko bilera batean[468]. Hots, praktikan, udalei eta alkateen mugimenduari "lan egiteko" edo "laguntzeko" ardura ematen zitzaien, baina erabakimena Gestoren esku uzten zen. Gestorek idatzitako proiektuak, Eusko Ikaskuntzaren aurre-proiektuaren oso antzekoak izan ziren, nahiz eta emendakin propioekin taxutu (ezin zitekeen bestela izan, Eusko ikaskuntzaren proiektuaren muina Bizkaiko Madariaga errepublikanoaren lan bat zen-eta). Nafarroakoaren kasuan, Nafarroako Aldundiak bere proiektu propioak egin zituen, bata Euskal Estatuturako, beste bat Nafar Estatuturako, eta hirugarren bat "Nafarroaren barne-konstituzio politikoarena" (hirurak Eusko Ikaskuntzaren proiektuan oinarrituta zeuden) eta ekainaren 15ean bukatu eta entregatu zituen[469]. Nafarroako Aldundiaren Gestora izan zen alkateen mugimenduaren hegemonia serioski desafiatu zuen bakarra, proiektu horiek eztabaidatzeko Batzar propioa deitu baitzuen uztailerako. Hala ere, alkate-mugimenduari botatako erronka hori ez da nahasi behar Estatutua ezbaian jartzeko asmoekin, izan ere, Nafarroako orduko Ahaldun Nagusia, Konstantino Salinas sozialista, autonomiazale sutsua baitzen. Beraz, zilegitasunen arteko talka erabatekoa izan zen; baina horrek ez zuen esan nahi ezkerraren taktika askoz ere eraginkorragoa izan zenik. Joan Pablo Fusik esaten duen bezala, ezkerrak, Gestoren proiektua aurrera ateratzeko, ez zuen behar adina koordinazio erakutsi (Nafarroan soilik burutu zuen Gestoren zuzendaritza peko Batzarra), beraz, ez zen udalen mugimenduarekiko aukera sendoa izan eta EAJren planekiko desadostasuna erakutsi baino ez zuen egin. Egia da, alde batetik, EAJren eta eskuinaren arteko aliantza horrekiko mesfidantza logikoa izan zela, baina praktikan Estatutuaren onarpena zaildu egin zuen (nahiz eta, erantzukizun guztia ezkerrarena ez izan, ikusi dugun eta ikusiko dugun moduan)[470].

Talka hori ekainean handitu egin zen alkateen mugimenduaren eta ezkerrak gidatutako Aldundien artean, izan ere, bi proiektuak burutu baitzituzten; ekaina izan zen bai batzuek zein besteek emendakinak egin zituzten hilabetea (beraz, zilegitasunen arteko talkak karga ideologikoa hartu zuen). Gipuzkoan izan zen bi joeren arteko lehiarik nagusiena. Alde batetik, esan bezala, abertzaleek eta eskuinak babestutako alkateen mugimenduak ekainaren 14rako bilkura bat egiteko deia egin zuen arren, Gipuzkoako udalak hiru egun lehenago bildu ziren, ekainaren 11n Azpeitian. Azpeitian, Gipuzkoako udalen batzarrak onartu zituen emendakinen artean, Euskal Estatuan jaio ez ziren pertsonek hiritartasuna hartzeko gutxieneko bizitza-epea bi urtetik hamar urtera igotzea proposatu zen, skal Estatuaren esku utzi zituen. Bi emendakinok ekainaren 14ko Hego Euskal Herriko Udalen Batzarrean, Lizarran[471], onartuak izan ziren, beraz, okerbidez hartu ziren, "Lizarrako Estatutuaren" muintzat, nahiz eta, ikusi dugun moduan, prozesua luzeagoa izan zen eta alkateen mugimenduak hainbat berezitasun izan zituen, ez soilik emendakin horiek. Hala ere, egia da Azpeitiko emendakinek eragin handia eta negatiboa izan zutela: alde batetik ezkerrarekin zubiak are gehiago hautsi zituelako, eta beste batetik, karlistei eta oro har eskuindarrei emakida handiegia egin zitzaielako, jakinda, Errepublikaren Gobernuak, laikoa zenak, ez zuela sekula halako Estatutu bat onartuko. 1932an EAJk Estatutu laiko bat onartzeko bidetik aurrera egitea erabaki zuenean, eskuinak aitzakia bat izan zuen Estatutuaren aurka jartzeko ("Konstituzioak inposatutako laikotasuna" onartu zela-eta), horrek ondorio larria izan zuen: Nafarroa kanpoan gelditzea. Lizarran egindako Batzarrean, Hego Euskal Herriko 527 udaletatik 485 egon ziren ordezkatuta[472], beraz, modu batean, bertan bildutakoek han onartutako egitasmoa (Azpeitiko emendakinak barne zituela, eta Lizarran gehitutako beste emendakin bat: hiriburua Gasteiztik Iruñera aldatzea[473]) "Hego Euskal Herriak onartutakoa" izan zela esan dezakegu. Hala ere, lau hiriburuetako alkateak han falta izanak, Lizarran onartutako Estatutuari indarra kendu zion (lau hiriburuek Hego Euskal Herriko populazioren %30 zuten[474]). Prentsa abertzaleak eta karlistak informazio zabala eman zuten ekitaldiaz[475].

Beste alde batetik, ezkerreko indarrek ekainaren 14an bertan egin zuten Gipuzkoako udal ezkertiarren bilkura, zenbaki absolutuetan Gipuzkoako udal gutxi, baina populazioari begira Gipuzkoako udal nagusienak (Beasain barne, eta baita Donostia,

---

[467] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 210. or.

[468] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 68-69. or.

[469] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 49-50. eta 66. or.

[470] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 68. or.

[471] Azken momentuan aldatu egin zen Batzarra egiteko tokia, Iruñean manifestaldi katoliko bat egitekoa zela-eta.

[472] *El Día*, 1931-06-16koa.

[473] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 62. or.

[474] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 75. or. *El Pueblo Vasco*ren arabera, soilik bost udal falta izan ziren: Donostia, Irun, Errenteria, Eibar eta Arrasate (*El Pueblo Vasco*, 1931-06-16koa). Hala ere, pentsatzekoa da gehiago ere falta izana, Beasain tartean, Miren Barandiaranen liburuan ageri denez, uztailaren 29an Beasaingo jeltzaleek hori kritikatuz idatzi bat egin zuten. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 78-79. or.

[475] *El Día*, 1931-06-16koa; *El Pueblo Vasco*, 1931-06-16koa; *La Constancia*, 11931-06-16koa; eta *Euzkadi*, 1931-06-16koa. Hala ere, esan beharra dago *La Constancia* egunkariak, ekitaldi horri, Iruñean egin zen ekitaldi katolikoari adinako garrantzia eman ziola (*La Constancia*, 1931-06-14koa). Beste alde batetik, ezkerreko prentsak ia ez zuen eman Batzar horren berri (ikus, adibidez, *El Liberal*, 1931-06-16koa): *La Voz de Guipúzcoa*k zortzigarren orrialdean eman zuen berria, "Hileko garrantzia ere ez zuela izan" nabarmenduz (*La Voz de Guipúzcoa*; 1931-06-16koa).

Irun, Pasaia, Errenteria, Eibar, Arrasate, Altza, Lezo, Hondarribia, Aia, Zegama, Berastegi, Berrobi eta Irura ere; gehi beste udal batzuetako ezkerreko gutxiengoak) han zirela[476]. *La Voz de Guipúzcoa*ren arabera "Gipuzkoako ordezkaritzaren parterik garrantzitsuena bildu zen" batzar hartan[477]. Batzarra, Jose Treku Ahaldun Nagusi (Gestoraren lehendakari) errepublikanoak gidatu zuen, zeinak "zilegitasuna izanda udalak deitu zituela" esanez hasi zuen bilkura. Bilkuran, bildutako udalek "Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuaren arabera Estatutu proiektua aurkezteko" nahia erakutsi zuten, hiru egun lehenago Azpeitian bildutako Batzarrean "Eusko Ikaskuntzaren aurkako izpirituan dagoen proiektu bat" onartu zela esanez; horrela "bi aldeak bereizita geratzen direla". Argi zegoen bada, zilegitasun- eta ideologia-talka gorenera iritsi zela[478]. Bilera horretan, Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuaren oinarrian, Estatutu-proiektua idatzi zuen Batzorde bat eratzea erabaki zen, bertako kide Jazinto Urteaga Beasaingo alkatea zela (Eibarko, Zumaiako, Donostiako eta Irungo alkateekin batera). Nahiz eta ezkerreko indar guztiak Estatutuaren alde izan, sozialistek emendakin batzuk aurkeztu zizkioten Eusko Ikaskuntzaren testuari: Legebiltzarrerako herrialde bakoitzak 20 kide hautatu beharrean (hasierako egitasmoak esaten zuen bezala), kide horiek biztanleen proportzioan aukeratzea, justiziako funtzionarioentzako euskara jakiteko derrigortasunik ez izatea eta Euskal Estatuan ezarri beharreko zergak" inolaz ere Espainiako Estatuan ezarritakoak baino txikiagoak ez izatea" izan ziren aldaketarik ezagunenak[479]. Prentsa abertzaleak ez zuen Batzar horren berri eman[480].

Beraz, egitasmo batetik (Eusko Ikaskuntzarena) orain bi egitasmo nahiko ezberdin sortu ziren: Lizarrako Estatutua eta "ezkerrekoen Estatutua", Gipuzkoako Aldundiaren Batzordeak, tartean Beasaingo alkatea zela, idatzia. Gainera, beste arazo bat zegoen: kronologiarena, ekainaren 14an bertan, alkateen mugimenduak bere prozesua "bukatu" egin zuen bere Euskal Estatutuaren prozesua eta, aldiz, egun horretan Gestorek "hasi" besterik ez zuten egin beren prozesua. Horrek, garai hartan izan ziren hurbiltze-saiakerak zapuztu egin zituen[481]. Gestorek beren bidetik jarraitu zuten, eta egun gutxi barru, Bizkaiko udalen Batzarra deitu zuten eta batzarrera ezkerreko udalak joan ziren. Bizkaian, Gipuzkoan gertatu zen bezala, kopuru absolutuetan udal gutxi bildu ziren (116tik 32 soilik), baina bildutakoak udal garrantzitsuak izan ziren Bizkaiko populazioaren %60a ordezkatzen baitzuten[482]. Nafarroan, Iruñeko eta Tuterako Udalek, adibidez, Aldundiaren lanei itxarotea erabaki zuten, euren ustez Aldundiek baitzuten hartarako zilegitasuna[483]; geroago, Aldundiak deitutako Batzarrean, Euskal Estatutua onartuko zelarik[484]. Beraz, Euskal Herriko udalik gehienak alkateen mugimenduak ernaldutako Lizarrako Estatutuaren alde agertu baziren ere, udalik garrantzitsuenek Gestoren bidetik egin zuten eta hauen proiektua ekainaren 21ean onartu zen[485]. Hori izan zen "ezkerraren Euskal Estatutua" zeritzona (Beasaingo alkateak ere idazketan parte hartu zuena[486]) eta lehian agertu zen bigarren proiektua. Hego Euskal Herrian zatiketa egina zen, Bizkaiko EAEk esan zuen bezala "zoritxarrez, gure herria zatituta dago"[487].

Beasainen, maiatzeko udal-hauteskundeek (gogoratu Beasainen hauteskundeak errepikatu egin behar izan zirela) Beasainen ezkerreko indarrei eman zien gehiengoa. Pentsa zitekeen, beraz, Beasaingo Udala eta herria, Autonomia Estatutuaren oso aldekoa izango zela. Hala ere, alderdien dinamikak ere, Beasaingo tokiko dinamika zipriztindu egin zuen. Miren Barandiaranen arabera, Beasaingo Udala ez zen batu momentu horretan babes handiena zuen abertzaleen eta karlisten proiektura (Beasaingo ordezkaritzarik ez zen agertu Azpeitian 1931ko ekainaren 11n egin zen bilkurara)[488]; eta ezkerreko alderdiek (Aldundietako Gestorak kide errepublikano eta sozialistez osatuak eta Gobernuak izendatuak izan baitziren) bultzatutako egitasmoari eman zion baietza, 1931ko uztailaren 16ko udal-bilkurako aktan agertzen denez[489]. Gainera, esan beharra dago, Jazinto Urteagak

---

476 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 75. or.; *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-16koa; eta *El Liberal,* 1931-06-16koa.

477 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-16koa.

478 Ziur aski, ohar hau "Azpeitiko emendakinak" direla-eta egin bide zuten.

479 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 71-72. or.

480 Ikus *El Pueblo Vasco,* 1931-06-14; *El Día,* 1931-06-14; eta *Euzkadi* 1931-06-14koa.

481 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 72. or.

482 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 75. or.

483 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 50. eta 61. or.

484 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 66-75. or.; AOIZ, Floren: El jarrón roto. Txalaparta. Tafalla, 2005, 39-43. or.; eta ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 65. or.

485 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 211. or.

486 *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-16koa.

487 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 68. or.

488 BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 78-79. or. Euskal Herriko 549 udaletatik 485ek egitasmo horri baiezkoa eman ziotenez, Beasaingo abertzaleak asko atsekabetu ziren udaleko gehiengo ezkertiarrarekin. *Euzkadi* egunkarian 1931-07-29an agertu zen artikulu batean, beasaindar jeltzaleek "penagarritzat" jo zuten alkateak egitasmo horri babesik ez ematea, "tokiko masen babesa izanagatik ere, kasu horretan masa horiek antieuskaldunak ziratekeelako".

489 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 103. dokumentua.

or.

ezkerreko Estatutu horren proiektuan parte hartu zuela, ekainaren 14an Gipuzkoako ezkerreko udalen bileran parte hartu baitzuen[490]. Gipuzkoako Aldundiak, ekainaren 18an onartu zuen Estatutu-egitasmo hori eta lau Aldundiek 21ean berretsi zuten, jada aipatu dugun moduan.

1.4.d) 1931ko ekaineko hauteskundeak

Hala iritsi zen Euskal Herria 1931ko ekainaren 28ko hauteskunde konstituziogileetara, eta egia esan, hauteskunde horiek zatiketa hura areagotu egin zuten. Hauteskunde haietan, aurreko apirilaren 12ko udal-hauteskundeetako lege bera zegoen indarrean, baina Errepublikak 1931ko maiatzaren 8ko Dekretuaren bitartez, aldaketa batzuk txertatu zituen. Aldaketa horietan, emakumezkoei boto-eskubidea eman ez bazitzaien ere, aukeratuak izateko eskubidea eman zitzaien (eta hiru emakume izan ziren aukeratuak hauteskunde haietan, bi alderdi errepublikanoen aldetik eta bat Alderdi Sozialistaren partetik). Beste alde batetik, gizonezkoen kasuan, botoa emateko gutxieneko adina 25 urtetik 23 urtera jaitsi zen. Bestalde, diputatuak probintzietako hauteskunde-barrutien arabera aukeratu ziren, 100.000 biztanletik gorako hirietan izan ezik, horiek barruti propioa eratu baitzuten (Monarkiaren garaian, probintzia bakoitzean hautagai bakarra aukeratzen zuten hainbat barruti zeuden). Hori dela-eta, Euskal Herrian bost hauteskunde-barruti izan ziren: Araba, Bilboko hiria, Bizkaiko herrialdea, Gipuzkoa eta Nafarroa. Herrialde bakoitzean, diputatuak zerrenda irekietatik aukeratzen ziren, betiere boto-emaile bakoitzak aukeratu beharreko diputatu-kopuru osoa baino kopuru txikiagoa aukeratuz. Adibidez, Gipuzkoan, sei diputatu aukeratzen ziren eta boto-emaile bakoitzak lau aukeratu behar zituen. Hori, praktikan, hautagaitza irabazleak diputatu denak ateratzea saihesteko zen, eta hautagaitza galtzaileari (edo galtzaileetan lehenari) gutxieneko bat bermatzeko pentsatua izan zen. Gipuzkoan adibidez, sei diputatu aukeratu behar zirelarik, sei izenik bozkatuenek lortuko zituzten karguak, baina boto-eskubidea zuen gipuzkoar bakoitzak lau izen soilik bozka zitzakeen[491]. Beraz, sistema hori, bere hutsekin ere, aurrekoa baino demokratikoagoa zen, tokiko jauntxokeria hein batean bederen saihesten zuelako, eta Gipuzkoa osoan alderdi ezberdinak bozkatu ahal izatea ahalbideratu zuen. Beste alde batetik gutxiengoaren ahotsa bermatzen zuen. Hala ere, bazuen bere ifrentzua: kontuan izan behar dugu Gipuzkoan (eta Hego Euskal Herri osoan) hiru bloke edo multzo handi zeuden: abertzaleak, eskuindarrak eta ezkertiarrak, beraz, sistema horrek, praktikoki, herrialde bakoitzean bloke bat kanpoan uzteko arrisku handia zuen.

1931ko hauteskunde haietan, Gipuzkoan praktikoki bi Estatutuak, alkateen mugimenduak ernaldutako Lizarrako Estatutua eta Gestoren bidetik egindako proiektua ordezkatzen zituzten bi hautagaitza izan ziren. Alde batetik *Candidatura Vasca en Defensa del Estatuto* (Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitza) izan genuen, jeltzaleek eta karlistek osatua. Bestetik, *Conjunción Republicano-Socialista-Acción Nacionalista Vasca* (Errepublikanoen, Sozialisten eta Eusko Abertzale Ekintzaren Elkarketa) zegoen eta horrek 1931ko apirilaren 12an Espainian udal-hauteskundeak irabazteko erabilitako formula berdina aurkeztu zuen. Gipuzkoan, alderdi errepublikanoez eta PSOEz gain, Eusko Abertzale Ekintza ere aurkeztu zen koalizio horretan (ez ordea Bizkaian). Hirugarren hautagaitza bat ere izan zen, Alderdi Komunistarena, zeinak beasaindar bat, Jesus Larrañaga zeraman zerrendan. Hala ere, hautagaitza horrek ez zuen pisurik izan, ez Beasainen eta ezta Gipuzkoan ere.

Espainian hauteskunde haiek Errepublikaren erregimen berria berresteko hauteskundeak izan baziren ere, Hego Euskal Herrian, Estatutuaren, edo hobeto esanda, Estatutuaren bi proiektu ezberdinen arteko talka-hauteskundeak ere izan ziren. Horregatik, eskuin espainiarzale ziren indarrak EAJrekin batera joan ziren Lizarrako Estatutua defendatzen zuten Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitzan. Nahiz eta hautagaitza horretan jeltzaleez gain karlistak eta eskuineko beste indarrak izan, praktikoki, Estatutuaren inguruan zentratzeak, EAJ indarra kapitalizatzera eraman zuen. Gogora dezagun, bi urte lehenago egindako udal-hauteskundeetan, apirilaren 12an, EAJ Gipuzkoan bigarren indarra izan zela, "monarkiko ofizialista alfontsotarren" atzetik eta karlisten aurretik. Beraz, alde batetik, hiru indar horien gizarte-oinarria ordezkatu ahal izan zuen hautagaitzak, Gipuzkoan irabazteko aukera gehienak zituen. Baina beste alde batetik, luzarorako beste ondorio bat ere ezin dugu ahaztu; eskuin guztia hautagaitza batean batuta, eta hautagaitza hori historikoki EAJk egindako lanari eta une hartan jeltzaleek protagonismo berezia zuten aldarrikapen bati lotuta zegoenez gero (hau da, Autonomi Estatutua, alkateen mugimenduaren bertsioan lortzeari); praktikoki eskuineko hautagaitza hori EAJrekin identifikatzea ere gerta zitekeen. 1931ko apirileko udal-hauteskundeak aipatzean esandako moduan, lehen garaile agertu ziren "monarkiko alfontsotarrak" sendotasun handirik gabeko indarra ziren, orduko gipuzkoar gehienen instintu kontserbadoreak, "ordenaren eta erlijioaren alde" bozkatu

[490] ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia: *La construcción de la nacionalidad vasca. El autonomismo de Eusko Ikaskuntza (1918-1931).* Eusko Ikaskuntza. Donostia, 1990, 382 eta 475-476 or.

[491] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 339-340. or.

nahiak, “Boterearen hautagaitza” izatean kapitalizatu baitzituen. Behin Errepublika indarrean jarrita, halako masak ordezkatu ahal izango zituzten alderdiak desagertu egin ziren eta hori dela-eta joera kontserbadore eta foralistetako gipuzkoarrek hautagaitza berri horretan tokia aurki zezaketen. Eta hautagaitza berri horren eta Estatutu “katolikoaren” abangoardian EAJ agertzen zen. Hurrengo urteetan alderdi horrek izan zuen hazkundearen gakoetako bat izan zen, “alderdirik gabe” gelditu zen masa hori, EAJrengana hurbiltzea. Eta hain zuzen ere, 1931ko ekaineko hautagaitza hori (Gipuzkoako eta Euskal Herriko eskuin osoa batera joan zen une bakarra) EAJri lotuta egotea, arrazoi garrantzitsua izan zen masa “alfontsotar-ohiek” EAJ karlisten aurretik lehenesteko.

Kontuan izan behar dugu hautagaitza hori, Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan aurkeztu zela eta alkateen mugimenduarekin elkarlanean osatutako hautagaitza izan zela, alkateek Lizarrako Estatutua defendatuko zuen euskal hautagaitza bateratu baterako deia egin baitzuten[492]. Azkenean, hautagaitza horretako partaide izan ziren, gero lehenengo Eusko Jaurlaritzako Sailburu eta gero erbestean lehendakari izan zen Jesus Maria Leizaola jeltzalea, Euskaltzaindian euskaltzain zen Julio Urkixo karlista[493] eta bi independente: Antonio Pildain lezoarra, katedraleko kalongea; eta Rafael Pikabea oiartzuarra, *El Pueblo Vasco* egunkariaren jabea, jeltzaleen aldetik Monarkiaren garaian diputatu izandakoa (nahiz eta ofizialki EAJren militante ez izan, eta independente bezala aukeratua izan). Beraz, hautagaitza horrek, bai euskararen inguruko munduan zein mundu katolikoan ospe handikoak ziren pertsonak bildu zituen. Beraz, nahiko argi dago hautagaitza horrek zer-nolako profila bilatzen zuen[494].

Ezkerrekoek ere hautagaitza plurala atera zuten Gipuzkoan. Hautagaitza horrek, bi errepublikano, Joan Usabiaga (Ordiziako zinegotzi izandakoa) eta Jose Maria Amilibia, sozialista bat, Endrike De Frantzisko tolosarra (legealdi horretan PSOEren parlamentuko bozeramaile izan zena) eta abertzale bat, Justo Garate aurkeztu zituen. Hautagaitza sortzeko tirabira handiak izan ziren, ez soilik alderdien arteko ezberdintasun ideologikoak zirela-eta, edo behin Errepublika jarrita, errepublikano batzuk EAE-ANV bezalako alderdi “independentista” batekin loturarik nahi ez zutelako, baizik eta Estatutuaren atzerakadarekin gaizki-ulertuak ere izan zirelako. Espainiako alderdi ezkertiarrek, noski, ez zuten Lizarrako Estatutua defendatzen, eta EAE-ANVrekiko susmoa zabaldu zuten batzuek, nahiz eta EAEkoek Estatutu hori ez defendatu eta aldiz bai Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektua. Bestalde, EAEk Eusko Ikaskuntzaren Estatutua defendatzen ez zuten alderdiekin hauteskundeetara ez joateko konpromisoa hartzeak, Bizkaian eta Bilbon EAEk ezkerrarekin ez joateko erabakia hartzea ekarri zuen[495].

Hirugarren hautagaitza, nahiz eta Gipuzkoan oso presentzia txikia izan, Alderdi Komunistarena izan zen. Bertan, Jesus Larrañaga beasaindarra, Luis Zapirain donostiarra, Joan Astigarribia pasaitarra (hiru hauek une hartan Ondarretan preso zeuden Pasaiako greban gertatutako istiluak zirela-eta), eta orduan Espainiako Alderdi Komunistaren idazkari zen Jose Bullejos hautagaiak aurkeztu ziren[496].

Hauteskundeen atarian tentsio handi samarra zegoen, Errepublikaren politika laikoa zela-eta (kontuan hartu behar da Mateo Muxika, Idiazabalen jaioa eta Beasainen hazia, Gasteizko gotzaina zela), gotzainek “katolikoen batasunerako” deia egin zuten Adierazpen Pastoral batean (Gipuzkoan, Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitzak, kalonge bat zeraman zerrendan, Pildain). Beste alde batetik, Gipuzkoako Gobernadore Zibil Ramon Aldasoro Bizkaian ezkerreko hautagaitzaren parte izateak[497], eskuinaren aldetik kexa batzuk eragin zituen. Bi zerrenda nagusien arteko lehia, batez ere Estatutu ezberdinen inguruan eta Errepublika berriaren izaeran zentratu zen. Alde batetik, Jose Antonio Rodriguez Ranzek esan bezala, eskuinak eta nazionalistek eginiko hautagaitzaren izena “Estatutuaren aldekoa” eta ez “Lizarrako Estatutuaren aldekoa” zela jartzeak, hautagaitza hori Estatutuaren aldeko hautagaitza bakar bezala aurkezteko nahia erakutsi zuen[498]. Beste ertzean, ezkerreko hautagaitzak, bere burua Errepublika salbatzeko hautagaitza bakar bezala aurkeztu zuen, Estatutuaren defentsa (egin izan zuena, halaber), bigarren maila baten utziz. Hala, eskuineko plataformak bere burua Estatutuaren (“Euskal Herriaren nahiaren”) ordezkari bakar gisa ezarri zuen eta bere kanpaina praktikoki horretan zentratu zen, hedapenez, gipuzkoar euskaldunen “betiko izaeraren” ordezkari azalduz (adibidez, erlijioaren defentsan); ezkerreko hautagaitza laikoa, izaera horren aurkakoa omen zen (Estatutuaren

[492] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 347. or.

[493] Eusko Ikaskuntzaren RIEV aldizkariaren sortzaile izan zen.

[494] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 346-350. or.

[495] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 350-359. or. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, Gipuzkoan EAEk artean indar txikia zuen.

[496] Bullejos euskalduna izan ez arren, gogoratu behar dugu urte batzuez Bilbon bizi izan zela lehen kapituluan esan bezala.

[497] Ramon Maria Aldasoro, geroago Eusko Jaurlaritzako sailburu izan zen.

[498] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 368. or.

or.

Hautagaitzaren aldeko prentsak behin eta berriz esan zuen, adibidez, ezkerreko hautagaitzaren autonomismoa "oportunista" zela, ez benetakoa). Bestalde, ezkerreko hautagaitzak, bere burua "Errepublikaren defendatzaile" bakar bezala jotzen zuen, beste hautagaitzaren garaipen batek Errepublika kolokan jar baleza bezala (eta egia zen eskuineko hautagaitzan Errepublika uzkaildu nahi zuten indarrak bazeudela, karlistak kasu, baina baita halako intentziorik erakutsi ez zutenak ere bazirela, EAJ kasu). Ezkerreko hautagaitzaren arabera, eskuinaren eta jeltzaleen autonomismoan Errepublikaren erreformen aurkako hesi bat jartzea zegoen helburutzat, ez benetako autonomismoa. Hautagaitza horrek "Errepublika federala" defendatzen zuen, eta bazituen bestelako aldarrikapenak ere, hezkuntza publiko eta laikoa, udal-autonomia, zerga-sistemaren hobekuntza, baserritar maizterren defentsa eta abar[499].

Praktikan, bi hautagaitzek euren buruak "benetako autonomiazale bakar" gisa jo zituzten, beste hautagaitzaren autonomismoa instrumentista izango bailitzan. Praktikoki, herriaren barne-adostasuna edo kontsentsua zailago bihurtu zuen eta bi sektoreak erabat urrundu ziren elkarrengandik. Hori, autonomiaren kausarentzat txarra izan zen. Eta Gipuzkoan, ekainaren 28an, hauteskundeen egunean bertan, parte-hartze handia izan zen arren, %85ekoa, Estatuko handienetakoa[500] (goizeko hamarretarako %50ak bozkatu zuen[501]), bortizkeria handiko eguna ere izan zen. Gipuzkoa osoan, mehatxuak, kolpeak, borrokak, botoak faltsutzearen salaketak, botoak erosteko saiakerak eta abar gertatu ziren eta baita tiroketak ere (Tolosan bi zauritu izan ziren eta Bergaran Migel Aranburu izeneko gizon bat hil zen, antza denez ezkerreko pertsonek egindako tiroen ondorioz (prentsaren bertsioak nahiko nahasgarriak dira[502]).

Emaitzei dagokienez, Gipuzkoan eskuineko hautagaitza autonomistak irabazi zuen; bozen %57,87 ateraz. Goierrin ere, eskuinaren garaipena erabatekoa izan zen, Beasainen izan ezik, hemen ezkerrak irabazi baitzuen. Horrek erakusten du, Beasainen, ezkerraren pisua eta tradizioa oso indartsuak zirela. Gainera, kontuan hartu behar dugu, Gipuzkoako 89 udalerrietatik, ezkerrak irabazi zuen seietako bat izan zela Beasain. Ezkerrak, oro har, herri handi eta industrialetan irabazi zuen, 1931ko apirileko udal-hauteskundeetan erakutsi zuen joera baieztatuz: gure herriaz gain, Donostian, Irunen, Pasaian, Hernanin eta Eibarrren (ordukoan Errenterian ez zuten irabazi, gertu izan baziren ere). Alderdi Komunistaren emaitzak, oso bazterrekoak



Loinatz jaietan boxeo-borrokaldia Loinazko San Martin plazan.. (Argazkia: Aranzadiren argazki-bildumakoa)

499 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 366-377. or.

500 DE LA GRANJA SAINZ, Jose Luis: *Nacionalismo y II República en el País Vasco*. CIS. Madril, 1986, 211. or. De la Granjaren arabera, "euskal gizartearen politizazio handiak" eragin zuen parte-hartzea horren altua izatea.

501 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 366-378. or.

502 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 378-379. or.

izan ziren, soilik 10 herritan lortu zuen botoen %1 baino gehiago ateratzea[503]. Emaitza horiek Gipuzkoan ezkerra jada erabat barneratuta zegoela erakusten dute, baina eskuineko indarren erabateko nagusitasuna ere erakusten dute, Rodriguez Ranzen arabera, "Gipuzkoako herri handietako 18tatik 13tan irabazi baitzuten" (eta batzuetan botoen %95etik gora aterata, Azkoitian eta Azpeitian, esaterako)[504]. Ezkerrak nahiko emaitza onak izan zituen Altzan, Errenterian, Tolosan, Elgoibarren edo Ordizian[505]. Beraz, emaitza horien arabera, lau diputatu izan ziren hautagaitza jeltzale-eskuindarretik aukeratuak (botoen ordenaren arabera: Antonio Pildain, Rafael Pikabea, Jesus Maria Leizaola eta Julio Urkixo) eta bi ezkerreko hautagaitzatik: Joan Usabiaga errepublikano donostiarra (ordiziar sustraiak zituena) eta Endrike De Frantzisko sozialista tolosarra.

HERRIA	JELTZALEEK + KARLISTEK		EZKERRAK	
	BOTOAK	EHUNEKOA	BOTOAK	EHUNEKOA
Altzaga	46	100,00	0	00,00
Arama	25	100,00	0	00,00
Ataun	614	100,00	0	00,00
BEASAIN	**509**	**45,44**	**610**	**54,46**
Ezkio	107	84,25	20	15,74
Gabiria	194	95,09	10	04,90
Gaintza	69	98,57	1	01,43
Idiazabal	208	79,08	55	20,91
Itsaso	79	75,96	25	24,03
Itsasondo	141	88,12	19	11,87
Lazkao	312	90,96	31	09,04
Legorreta	150	84,74	27	15,25
Mutiloa	94	81,03	22	18,96
Olaberria	112	86,82	17	13,17
Ordizia	496	56,23	386	43,76
Ormaiztegi	132	85,71	22	14,28
Segura	246	97,61	6	02,38
Zaldibia	338	97,97	7	02,03
Zegama	347	88,07	47	11,92
Zerain	115	100,00	0	00,00[506]

Euskal Herrian oro har, eskuineko hautagaitzak irabazi zuen. Bost barrutietatik hirutan irabazi zuen; Nafarroan eta Bizkaian ere irabazi baitzuen. Lehenean, zazpi diputatutatik bost eskuindar izan ziren aukeratuak, eta soilik bi ezkertiar. Bizkaiko probintzian ordea, hirurak eskuineko hautagaitzakoak izan ziren (tartean, Agirre lehendakaria[507] eta Martzelino Oreja arrasatear karlista, 1934ko Iraultzan hil zutena). Araban, hautagaitza bakoitzak diputatu bat lortu zuen, hala ere, Felix Susaeta errepublikanoak Jose Luis Oriol karlistak baino boto gehiago lortu zituen. Bilbon, ezkerrak lau diputatu lortu zituen (bi sozialista, tartean Indalezio Prieto, eta bi errepublikano), eta eskuinak beste bi, biak jeltzaleak. Beraz, Euskal Herrian, osotasun gisa hartuta, hogei eta lau

[503] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 385. or.

[504] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 390. or.

[505] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 393. or.

[506] Jose Antonio Rodriguez Ranzek egina du hautagaitza bakoitzeko hautagaien botoen batez bestekoa hautagairik bozkatuena zein izan zen kalkulatuz. Ezkerrak Beasainen soilik irabazi zuen, eta hortik at Ordizian soilik lortu zituen emaitza txukunak. Lau herritan ez zen izan ezkerraren aldeko botorik eta bederatzitan gelditu zen ezkerra %10etik behera. Ezkerrak lau herritan soilik lortu zuen %20a gainditzea: Beasainen, Idiazabalen, Itsason eta Ordizian.

[507] Nafarroatik aukeratua izan zen.

or.

diputatutatik, eskuinak hamabost lortu zituen, sei jeltzale, bost karlista, bi monarkiko eta bi independente[508]); ezkerrak bederatzi (sei errepublikano eta hiru sozialista) lortu zituen bitartean. Beraz, nahiz eta ia diputatu guztiak Estatutuaren aldekoak edo horrekin kolaboratzearen aldekoak izan[509], euren ikuskerak oso ezberdinak eta adostasunerako aukera gabekoak izan ziren. Gainera, Euskal Herrian galdu zuen hautagaitzak, ezkerrak, Espainia osoan irabazi zuen. Errepublikanoen eta sozialisten arteko elkarketak jarlekuen %90 lortu zituen (bai sozialistek, zentro-ezkerreko errepublikanoek zein zentro-eskuineko errepublikanoek, 115 bat diputatu lortu baitzituzten joera bakoitzekoek[510], katalan abertzaleek 31, eta galiziar abertzaleek 20). Gobernuaren eta Euskal Herrian garaile izan zen hautagaitzaren koloreak hain ezberdinak izateak, eta Euskal Herrian Estatutu-egitasmo bakar baten inguruko adostasunik ezak, praktikoki irabazleek euren aurreproiektuarekin Estatutu-nahiak ezarri nahi izatearekin batera, ikusiko dugun bezala, Estatutuaren tramitazioa zaildu egin zuten.

1.4.e) Lizarrako Estatututik hiru lurraldetako Estatutura.

Hauteskundeen ostean, Nafarroan, Aldundiak deitu zuen Udalen Batzarra egin zen. Bertan, nafar Aldundiaren Gestorak, prozesuaren buruzagitza lehiatu nahi zuen, eta beste alde batetik, Nafarroan bertan, Estatutuaren kontrakoei aurrea hartzeko modu bat izan zen (Nafarroak 1841ean Estatuarekin "Ituna" sinatu zuenez gero, beste herrialdeak baino erregimen bereziagoa zuenaren argudioa asko zabaldu zuten Euskal Estatutuaren aldekoek). Aurreko lehenengo etapan bi proiektuen arteko aurkakotasunik handiena Gipuzkoan izan zen (gogoratu Gipuzkoako Aldundiak deitutako Udalen Batzarrean, ezkerreko udalak soilik joan ziren hartan, onartu zirela "ezkerreko Estatutuaren" emendakinak).

Nafarroako Batzar hori, Aldundiak ekainaren 22an (hauteskundeak baino egun batzuk lehenago) deitu zuen uztailaren 13rako, baina eguna heldu zenean, ordezkari batzuek "arlo ekonomikoa ondo aztertzeko" atzerapena eskatu zuten eta, azkenik, abuztuaren 10era atzeratua izan zen. Jimeno Jurio historiagilearen arabera, atzerapen hori Estatutuaren kontrakoen "oztopatze-taktika" bat izan zen eta geroak hala erakutsi zuen[511]. Historiagile batzuen arabera, atzerapen hori, Batzarra une hartan eginez gero, Estatutuaren kontrakoek galduko zuketela jakin zutelako probokatu zuten, irabazteko aukera agertzearen zain gelditu[512]. Bitartean, nafar udalek "eskualdeetako bileretan" Euskal Estatutuaren aldeko iritziak eman zituzten, eta hori sinatu zen azkenean abuztuaren 10ean Iruñean egindako Batzarrean: han bildutako 200 udalek (314.370 biztanle ordezkatuz) Euskal Estatutuaren alde egin zuten, 15 udalek (30.290 biztanle ordezkatuz) Estatutu denen kontra, 3 udalek (2.802 biztanle ordezkatuz) nafar Estatutu isolatuaren alde, eta 2 udalek (2.562 biztanle ordezkatuz) "eskualde-autonomiaren alde". 17 udal ez ziren agertu[513]. Hala ere, egia da Batzarrean bertan nolabaiteko eztabaida bortitzak izan zirela[514]. Prentsa abertzaleak, garaipen hori ospatu egin zuen, eta Euskal Estatutuaren aldekoek suziriak botaz ospatu zuten garaipena[515].

Garaipen horrek alde batetik indarra eman zion Euskal Estatutuari, Gestorak ere proiektuari batzea ziurtatu zuelako; baina beste alde batetik bi proiektuen arteko lehia gogortu zuen. Nafar bilera hartan, Azpeitiko emendakinak (gogoratu: kanpokoei hiritartasuna emateko biziterri-epea bi urtetik hamar urtera igotzea eta Konkordatua sinatzeko eskubidea) askoz ere tarte txikiagoz onartu baitziren: aldeko 172.260 botorekin eta kontrako 147.937 botorekin[516] eta ezkerreko gehiengoa zuten udal batzuek euren zalantzak agertu zituzten[517]. Bestalde, Nafarroa izan zen, behin Lizarrako udalen Batzarra eginda, Estatutua berresteko Gestoren pean herrialdeko udalen Batzar oso bat deitu zuen bakarra (1931ko ekainean Gipuzkoako eta Bizkaiko Gestorek ere deitu zuten, baina ezkerreko udalak soilik bildu ziren eta ez zen herrialdeen zentzu osoaren ordezkaritzarik izan, Nafarroakoan izan zen bezala). Horrek erakusten du, Nafarroan, nahiz eta ordura arte gehiengo zabal bat Estatutuaren alde egon, bazegoela isilpean gorpuzten ari zen oposizio bat, adibidez, *Diario de Navarra* egunkari boteretsuko zuzendari zen Raimundo Garcia "Garcilaso"[518].

---

[508] Hain zuzen ere Antonio Pildain eta Rafael Pikabea gipuzkoarrak: Azken hau jeltzaleekiko oso hurbilekoa zen.

[509] Ikusiko dugun bezala salbuespenen bat izan zen, adibidez, Emilio Azarola, Nafarroako diputatu errepublikanoa.

[510] Hala ere, datu hauek oso erlatiboak dira.

[511] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 70. or.

[512] AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 41-42. or.

[513] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 74. or.; AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 78-79. or.

[514] *El Pueblo Vasco*, 1931-08-11koa.

[515] *El Pueblo Vasco*, 1931-08-11koa; *El Día*, 1931-08-11koa; *Euzkadi*, 1931-08-11koa. Karlisten eta hauen kontrako istiluak ere eman ziren.

[516] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 75. or.

[517] *El Pueblo Vasco*, 1931-08-11koa.

[518] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 86. or.; eta AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 40-41. eta 45. or.

Hauteskundeen ostean, bi Estatutu-proiektuak abiatu ziren Madrilera. Joan Pablo Fusi Aizpuruaren arabera, ordurako ezkerraren eta abertzaleen artean egoera guztiz okertua zegoen[519], eta hala zen, hauteskundeek erakutsi zuten tentsioaren ostean. Joan Pablo Fusik erakusten duen moduan, Gipuzkoatik Estatutuaren Aldeko Euskal Hautagaitzaren zerrendetan aukeratutako Antonio Pildain hautagaiak, uztailean, hautagaitza horrek garaipena ospatzeko antolatu zuen mitin batean, oso diskurtso gogorra egin zuen eta horrek ezkerrarekiko zubiak puskatu egin zituen. Irailean, Bilbon abertzaleen eta errepublikanoen arteko tiroak ere izan ziren eta azken horietako bat hil egin zen. Gobernuaren erantzuna, bilgune abertzaleak ixtea eta mitin batzuk debekatzea izan zen[520]. Giro guztiz pozoitu horretan aurkeztu ziren bi Estatutu-proiektuak. Lehenik, ezkertiarrek entregatu zuten euren "ezkerraren Euskal Estatutua", uztailaren 30ean. Proiektu hori helarazteko arduraduna, Fernando Sasiain Donostiako alkate errepublikano eta euskaltzale sutsua izan zen[521]. Abertzaleek eta eskuindarrek, ordea, irailean entregatu zuten euren proiektua, Lizarrako Estatutua, Jose Antonio Agirre lehendakari izango zenaren eta Nafarroako diputatu karlista Joakin Beunzaren bitartez[522], baina 427 alkatek sinatuta[523]. Bi Estatutuak izan ziren Konstituzioaren aurkakotzat emanak, irailaren 25ean Alcala-Zamora Errepublikako behin-behineko Gobernuko lehendakariak emaniko dekretu baten arabera. Alcala-Zamoraren dekretuak, Vatikanoarekin harremanak izateko eskuduntza osoa Estatuarengan zegoela ezartzen zuen, beraz Lizarrako Estatutua praktikan jokoz kanpo uzten zuen. Horrez gain, bazegoen beste arazo bat: Alcala-Zamorak berak esana zuen euskal indarrek ez zutela Donostiako Itunean (indar errepublikanoak bildu zituen 1930eko Itunean) parterik hartu, katalanek ez bezala, beraz, Itun horretatik jaiotako Errepublikak ez zuela Euskal Estatutuarekiko berehalako konpromisorik. Euskal alderdiek, Errepublikak bere Konstituzioa onartu arte itxaron behar izan zuten[524]. Eta Errepublikako Konstituzioak, gainera Espainia "Estatu integral" gisa definitu zuen, ez Estatu federal gisa[525]. Horrekin, 1931ko bi egitasmoak, Lizarrakoa eta ezkerrarena jokoz kanpo gelditu ziren.

Arrazoiak aunitz izan ziren, baina Historiagile ezberdinak ados daude Errepublikaren Gobernuak erlijio-eskuduntzen auzia erabili egin zuela, hori benetako arrazoia ez izan arren. Floren Aoizen arabera, "Euskal Estatuaz" hitz egitea eta Estatutu--proiektu horiek Euskal Herriari ematen zioten eskuduntza-maila handia izan ziren arazoak[526]. Joan Pablo Fusiren arabera, ordea, Euskal Herrian akordio politikorik ez egona, eta Errepublikak Estatutua bere kontra erabilia izateari zion beldurra izan ziren faktore garrantzizkoenak (une hartan Euskal Herrian, esan dugun bezala, tentsio handia zegoen)[527]. Batean edo bestean, estatutu-prozesuak berriz hasi behar izan zuen, kasu horretan Errepublikaren Konstituzioaren mugen barruan. Pentsatzekoa zen, hala ere, Estatutuaren aldeko kontsentsu batek, autonomiaren lorpena erraztuko zuela.

Estatutu berria Konstituzioaren mugetan egin beharko zela nahiko argi zegoen eta Indalezio Prieto ministroak, 1931ko abenduaren 8an, dekretu bat idatzi zuen eta bertan autonomia lortzeko jarraitu beharreko urratsak deskribatu zituen. Alde batetik, dekretu horrek jarraibideak ezartzen zituen, adostasuna erraztu eta bidea argitzeko (bitasunak bukatuz). Bide hori, lehenik, Aldundien Gestorek testua idaztea zen, gero herrialde bakoitzeko udal-batzarrak egitea (Estatutu bakarrarekin lau herrialdeok ados zeuden edo ez erabaki behar zuten), gero Euskal Herri osoko Udalen Batzarra, ondoren herri-galdeketa edo erreferenduma eta azkenik Errepublikaren Parlamentuaren onarpena, ordena hori jarraituta[528]. Horrek, ordea, hein batean bederen, autonomi testuaren idazketa Gestoren esku utzi zuen eta, horrekin, Gestoretan ordezkatuak ez zeuden alderdiak alde batera utzi zituen. Hala ere alkateen mugimenduak, abenduaren 8an bertan onartu zuen dekretu hori, eta EAJk 9an. Trukean, Gestorek, Estatutua idazteko batzordean hiru ordezkari onartu zizkioten alkateen mugimenduari (sozialistek protestatu egin zuten tokirik ez zutelako. Hori dela-eta, Alderdi Sozialistako hiru kide gonbidatu zituzten). Beraz, Jaun Pablo Fusik esan bezala "testua idazteko batzordean, Aldundietako Gestoren lau ordezkari, alkate-mugimenduko hiru ordezkari eta Alderdi Sozialistaren hiru ordezkari" egon ziren, "lau errepublikano, hiru sozialista, abertzale bat, karlista bat eta katoliko independente bat; hiru nafar, hiru bizkaitar, hiru gipuzkoar eta arabar bat"[529].

Bai alkate-mugimenduak eta bai EAJk, Prietoren dekretua eta testua idazteko batzordea onartu izanak, alde batetik adostasun pixka bat ekar zezakeen. Lehen une hartan, ezkerraren eta EAJren arteko harremanen "desizozte" bat gertatu zen,

---

519 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 80-81. or.

520 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 79-80. or.

521 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 211. or.

522 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 46. or.

523 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 76. or.

524 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 77. or.

525 Konstituzioa abenduaren 9an onartu zen, baina Estatuaren izaera markatzen zuen Atal-Burua irailean onartu zen.

526 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 46. or.

527 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 76-77. or.

528 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 82. or.

529 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 82-83. or.

or.

1932. urtearen lehen erdian zehar iraun zuena. Horren adibide dugu Errepublikaren lehendakari posturako EAJk Gobernuak babestutako Alcala-Zamora hautagaiaren aldeko botoa eman izana[530]. Baina beste alde batetik, eskuinaren desertzioa ere ekarri zuen, hau da, bi sentiberatasun autonomisten nolabaiteko batasuna lortzeak, hirugarrena gurditik jaistea esan nahi izan zuen. Estatutua Errepublikaren bidetik joanez gero, eskuinarentzat bere interesa galduko zuen; bai Estatutua "laikoa" izango zelako, eta bai Errepublika ahuldu baino indartu egingo zuelako (eskuinarentzat eta hain foruzaleak ziren karlistentzat ere, lehen helburua hori zen, Errepublika uzkailtzea). Hala, eskuinak, batez ere karlistek, euren ideologia foralistaren erabateko berrinterpretazioa egin zuten, lehen (hau da, Estatutuaren lehen fasean, 1931. urtean zehar) Estatutua foruekin bat ulertu zuten arren, hortik aurrera, foruen eta "historiaz kanpoko" Estatutuaren arteko bateraezintasuna defendatu zuten, horrek, lurralde foralen gainetik zegokeen Euskal Estatu bat sortzen omen zuelako[531]. Hala ere, ikusiko dugun bezala, eskuindarren artean ere autonomiaren aldeko salbuespenak izan ziren 1932tik aurrera ere[532] (1931n salbuespen autonomiaren aurkakoak izan ziren moduan).

1932an zehar egin zen autonomia-testu horrek, halaber Eusko Ikaskuntzaren lanean oinarrituta ere bazegoenak, batez ere 1931n ezkerreko Gestorek onartutako emendakinen ekarpenen bidez, "ezkerraren Estatutuaren" izpiritua jaso zuen. Legebiltzarrerako ordezkaritza-sistema bikoitza ezartzen zuen: erdiak lurralde bakoitzetik aukeratuak izango ziren, eta besteak, barruti bakarrean, modu proportzionalean (15. artikulua; beraz herrialdeetako Aldundiei boterea kentzen zien)[533]; nahiz eta lurralde bakoitzarentzat bere Estatutu propioa egiteko aukera eman (2. eta 3. artikuluak)[534]. Gobernua edo *Eskuduntza-Batzarra* bederatzi kidez osatuko zen, lehendakariaz eta beste zortziz (lurralde bakoitzetik bina; 19. artikulua) eta lehendakaria legebiltzarreko kideen artean aukeratuko zen[535]. Beraz, sistema parlamentarioa aurreikusten zen, ez presidentzialista. Hiriburua Gasteizen ezartzea zen asmoa (21. artikulua)[536].

Aldi berean, "Errepublikaren Konstituzioaren" aipamenak behin baino gehiagotan agertzen ziren (beraz, Estatutua Errepublikaren kontra erabiltzeko mehatxuak uxatzen zituen), eta lurren banaketari buruzko artikulu batzuk ere ezartzen zituen. Estatutu horrek, Euskal Herriaren izen ofiziala ere aldatu egin zuen, *Euskal Estatua* ordez, euskaraz *Euzkadi* edo *Euskalerria*[537] eta erdaraz *Pais Vasco-Navarro* izena onartzen zituen[538]. Estatutu berri hau askoz ere zehatzagoa zen, aurrekoak baino artikulu askoz ere gehiago zituelako. Berrikuntza nagusietako batzuk, udal-autonomia (4. artikulua), Konstituzio errepublikanoarekiko leialtasuna (5. artikulua), erreferendumerako aurreikuspena (5. artikulua), giza eskubideak blindatzea (12. artikulua)[539], euskal arazo guztien gaineko justizia-eskuduntza (22. artikulua)[540], presondegiak (26-I artikulua), Euskal Herri barruko legeak egitea (26.2 artikulua), toki-administrazioa (26.4 artikulua), funtzionarioen gaineko eskuduntza (26-5 artikulua), espetxeak (26.6 artikulua), poliziaren kontrola (26-8 artikulua), notaritza-eskubidea eta jabetza-erregistroen eskubidea (26-B artikulua), abeltzaintza, nekazaritza eta herri-lurren gaineko ardura (26-C eta 41. artikuluak), osasuna (26-D artikulua), eta baita "Errepublikaren Konstituzioak aurreikusitako prozeduren barne" lurrak sozializatzeko eskubidea ere (26-C-4 eta 38. artikuluak)[541]. Ekonomiari dagokionez, Euskal Herriak lan-arloaren gaineko eskuduntza zabalak izango zituen, bai lan-harremanei, zein sindikatuak, kooperatibak ugazaben elkarteak erregistratzeari buruz edota krediturari buruz. (26-F artikulua). Komunikazioak, telegrafoak eta trenbideak ere Euskal Herriko gobernuaren esku egon beharko zuten. (26-G artikulua), baita meatze, ur, arrantza-toki eta

---

530 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 83. or.

531 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa Donostia-Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 163-169. or. Hala ere, Rodriguez Ranzen arabera, izan ziren beste arrazoi batzuk, adibidez, Estatutuaren hurrengo urratsa independentzia izatearen beldurra, edo Katalunian Estatutuak ezkerraren hegemonia politikoa handitu izana.

532 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 169-170. or.

533 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 83. or. 1931ko Lizarrako Estatutuak 80 kideko Legebiltzar bat proposatzen zuen eta lurralde bakoitzeko 20 kide aukeratu behar ziren eta ez zuen Hego Euskal Herri osoak barruti bakar bezala aukeratu beharreko kopururik aurreikusten.

534 Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

535 Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

536 Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuan hau aurreikusi zen, nahiz eta Lizarrako Estatutua osatuko zuten emendakinek, hiriburua Iruñera aldatzea onartu. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

537 Goiburuan bi izenak agertzen baziren ere, *Euskalerria* izena gehiago agertzen zen testuan zehar *Euzkadi* baino. Hala ere, historiagile gehienek, oraindik "testuak *Euzkadi* izen nazionalista onartzen zuela" diote.

538 Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

539 Artikulu horretan, Euskal Herrian bizi ziren herritarren giza eskubideak, Errepublikaren Konstituzioan ezartzen zirenak baino txikiagoak ezin zitezkeela inolaz ere izan esaten zen. Ziurrenik hau ezkertiarrek sartutako emendakin bat zen, klerikalismoaren tentazioen aurka. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

540 Halere, eskuduntza hori "Espainiako Errepublikaren Konstituzioaren barruan" erabili beharko zela esaten zuen Estatutu berri honek. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

541 Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

ehiza-tokiak ere (53. artikulua); eta, nola ez, zergak (26-H eta 45.-52. artikuluak). Eskuduntza sozialen gainean hezkuntzan, "ume bakar bat ere eskolarik gabe ez gelditzeko ardura" hartu behar zuen Hego Euskal Herriak, eta hori bermatu beharra zuen (33. artikulua); eta gainera zerga progresiboak ezartzeko konpromisoa (35. artikulua); langileentzat gutxienez Espainiako Errepublikak ezartzen zuen adinako lan-babesa (37. artikulua); lur edo baso ekoizpen gabeak lurjabeengandik hartu eta birbanatu beharra (38. artikulua) eta etxegintza soziala egiteko betebeharra (39. artikulua). Ikusten den moduan, Estatutu horrek 1931koak baino programa zehatzagoa zuen, parte handi batean ezkerreko alderdien ekarpenengatik (halako ekarpen berriak ezkerraren izpiritukoak zirelako)[542].

Estatutu horrek, bitxikeria bezala, Euskal Herriarekiko mugakide ziren lurrak batzea ere aurreikusten zuen (8. artikulua)[543], eta baita banatzea ere (9. artikulua)[544]. Bertan jaioak ez zirenentzat, euskal herritartasuna hartzeko bi urtean bertan bizitzea eskatzen zuen Estatutuak (10. artikulua)[545]. Hala ere puntu batzuetan, aurreko Estatutuarekiko atzerapauso batzuk bazituen, bat adibidez, euskarari buruzkoa zen (13. artikulua). Bertan, Hego Euskal Herriko berezko hizkuntza euskara zela onartu arren, eta erakunde publikoetan euskaraz egiteko eskubidea onartu arren, erakunde publikoek erabakiak euskaraz argitaratzea eta hezkuntza euskaraz ematea "euskaraz egiten den lurraldeetarako" soilik aurreikusten zuen eta lurralde horiek zeintzuk ziren lurralde bakoitzeko Batzar Nagusiek erabaki behar zuten[546]. Beste alde batetik, 1931ko Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuan agertzen zen Errepublikaren armadan euskal batailoia sortzeko eskubidea ez zen agertzen, polizia sortzeko eskubidea onartzen zen arren eta soldaduska "bake garaietan", Euskal Herrian egiteko eskubidea onartzen zen arren (44. artikulua)[547].

1932ko urtarrilean, lau herrialdeetako udal-batzarrak bildu ziren. Lau Batzarrek, Estatutu bakarraren aldeko botoa eman zuten. Gipuzkoari dagokionez, Gipuzkoako Aldundiaren jauregian, gure lurraldeak orduan zituen 89 udaletatik 79ren ordezkariak

Kintoen zozketako talde bat 1935ean. Gero gerran parte hartu behar izan zuten. (Argazkia: FL/MG, 116. or.)

[542] Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

[543] Lurralde edo probintzia oso bat izanez gero, bertako udalen hiru laurdenek hartarako desioa agertzea eskatzen zuen. Udal bat bakarrik izanez gero, Udal horren nahiarekin nahikoa zen; beti ere lau herrialdeetako Batzar Orokorrek eta Eusko Legebiltzarrak hori onartuz gero. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

[544] Hemen, Errepublikaren Konstituzioaren 22. artikuluan aipatutako prozedura aipatzen da. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

[545] Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

[546] Gogoratu 1931ko Eusko Ikaskuntzaren aurreproiektuan Euskal Herrian arituko ziren funtzionario guztiek euskara jakiteko beharrezkotasuna ezartzen zela. Ikus testu osoa http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

[547] http://www.memoriadigitalvasca.es/handle/10357/903 loturan.

or.

bildu ziren eta denek Euskal Estatutuaren aldeko botoa eman zuten[548]. Falta izan zirenak, Albiztur, Amezketa, Azkoitia, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Leaburu, Leintz-Gatzaga, Mutiloa eta Orendain izan ziren[549]. Hamar udal horietatik bostetako alkateak karlistak ziren (kontuan hartu behar dugu orduan 12 udal karlista zeudela Gipuzkoan)[550], tartean zegoen garrantzia zuen Azkoitikoa[551]. Gipuzkoako Batzarra Jose Treku Irigoien Ahaldun Nagusi errepublikanoak gidatu zuen, Gestora osoak lagunduta. Gestorako kideak, Luis Castro, Joan Arratibel (errepublikanoak bi hauek), Frantzisko Fernandez, Castor Torre, Joan De los Toyos (sozialistak hiru hauek) eta Frantzisko Untzueta eta Ignazio Uria (EAE-ANVkoak bi hauek), izan ziren[552]. Batzarraren hasieran, Jose Trekuk, Euskal Estatutuaren alde, Gipuzkoako Estatutuaren alde edo Estatutu guztien kontra bozkatu behar zela esan zuen. Hala ere, Gillermo Torrijos Donostiako zinegotzi sozialistaren arabera, Euskal Estatutuaren aldeko jarrera nabarmena zenez, kontra zeuden udalek hitza hartzea zatekeen egokiena[553]. Bertaratutako 79 udalek (berandu iritsi ziren Tolosa, Deba eta Zumaiakoak barne) aho batez onartu zuten Euskal Estatutua eta aurkako botorik ez zen izan[554]. Bai prentsa abertzaleak[555] zein ezkertiarrak[556] Batzar hori pozarren hartu zuten eta informazio handia eman zuten lau herrialdeetan aldeko gehiengoak irabazi zuela nabarmenduz. Salbuespen bakarra *La Constancia* egunkari karlista izan zen eta hark Loiolako jesuiten aldeko ekitaldiari garrantzi handiagoa eman zion, eta informazioa doinu aseptikoz eman zuen arren, "herri batzuk abstenitu egin zirela" nabarmendu zuen[557].

Estatutuaren bigarren etapan, Estatutu "laikoaren" edo "konstituzionalaren" lorpenaren aldekoan, Beasaingo Udala, ezkertiarren gehiengoa zuenez, Estatutuaren alde agertu zen, inolako zalantzarik gabe. 1932ko urtarrilaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Gipuzkoako Aldundian urtarrilaren 31n egin beharreko udal gipuzkoarren batzarrerako, udal-taldeak "Euskal Probintzia denentzako Estatutu bakarraren, edo probintzia bakoitzarentzako Estatutu banaren arteko aukeran, udalak, bere ordezkari gisa Jazinto Urteaga alkatea izendatu eta Estatutu bakarraren aldeko botoa eman dezala" erabaki zuen[558]. Hurrengo hilabetean, 1932ko otsailean, Euskal Unibertsitatearen Aldeko Batzorde bat egiteko gonbitari ere baiezko erantzuna eman zion udalak, otsailaren 28an Batzorde horrek Bilbon egin behar zuen Batzarrera Seberiano Azpeitia zinegotzia ordezkari gisa bidaliz[559].

Antzeko gehiengoak izan ziren Araban eta Bizkaian. Araban udal guztiak agertu ziren Estatutuaren alde *Euzkadi* egunkariaren arabera[560], eta Prietoren *El Liberal* egunkari sozialistaren arabera, eta Donostiako *El Pueblo Vasco* abertzalearen arabera, 77 udaletatik 71 (Batzarrera agertu ziren denak), hots, Arabak zituen 104.000 biztanletatik 100.456 biztanle (%96,60) ordezkatzen zituzten udalek bozkatu zuten alde[561]. *El Día*ren arabera, 77 udaletatik 72, hots, 104.116 biztanletatik 101.456 biztanle ordezkatzen zituzten udalak agertu ziren[562]. Bizkaiko Batzarrean 116 udaletatik 113 egon ziren presente, eta falta izan ziren hirurek Estatutu bakarraren alde botoa emateko idatziak bidali zituzten[563]. Batzar hartan, Aldundiaren Gestoraren lehendakariak, Rufino Laiseka sozialistak, Getxoko alkate Jose Antonio Agirreren proposamen bati bide emanez, Euskal Estatutuaren aurka zeuden udalek hori adieraz zezaten eskatu zuten eta 2 udal soilik agertu ziren aurka: Galdamesko eta Urduñako Udalak, karlistak biak, eta haiek Bizkaiko Estatutuaren alde egin zuten. Beraz, 116 udaletatik, 114 alde agertu ziren, Bizkaiko 484.360 biztanleetatik 477.668 ordezten zituztenak (biztanleriaren %98,61)[564].

---

548 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 171. or.

549 Debako eta Zumaiako alkateak ere ezin izan ziren bertaratu istripu bat zela-eta. Bestetik, Tolosakoa berandu iritsi zen akats bat zela tarteko. Hala ere, hiru udal horien botoak kontuan hartuak izan ziren. *Euzkadi*, 1932-02-02koa. *El Liberalen* arabera, Tolosako ordezkaria ere falta izan zen, baina datu hori ez du beste inork berresten. *El Liberal*, 1932-02-02koa. *La Voz de Guipúzcoa* eta *El Día* egunkariek Debako eta Zumaiako alkateek jasandako istripuaren berri Arratibel Aldundiaren Gestorako kideak eman zuela dio. (*La Voz de Guipúzcoa*; 1932-02-02koa; eta *El Día*, 1932-02-02koa)

550 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 171. or.

551 Azkoitikoa ez agertzea "negargarritzat" jo zuen *La Voz de Guipúzcoa egunkari errepublikanoak* (*La Voz de Guipúzcoa*; 1932-02-02koa).

552 *La Voz de Guipúzcoa*; 1932-02-02koa. Beraz, Gestorako bi kide, Jose Sasiain errepublikanoa eta Gerardo Bienabe sozialista ez ziren agertu.

553 *El Día*, 1932-02-02koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-02-02koa.

554 Ohar bakarra, Ordiziako alkate jeltzale Patxi Iturriotzek egin zuen, Estatutuaren aldeko kanpaina egiteko askatasuna eskatuz. Donostiako zinegotzi sozialista Gillermo Torrijosek erantzun zion Autonomi Estatutu horrek legea erabat betetzen zuela, beraz, aldeko propaganda egiteko ardura Gobernuak berak hartuko zuela.

555 *El Día*, 1932-02-02koa; *El Pueblo Vasco*, 1932-02-02koa; eta *Euzkadi*, 1932-02-02koa.

556 *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-02-02koa; eta *El Liberal*, 1932-02-02koa.

557 *La Constancia*, 1932-02-02koa.

558 *La Constancia*, 1932-02-02koa.

559 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.

560 *Euzkadi*, 1932-02-02koa.

561 *El Liberal*, 1932-02-02koa; eta El Pueblo Vasco, 1932-02-02koa.

562 *El Día*, 1932-02-02koa.

563 *Euzkadi*, 1932-02-02koa. udalok Berriatua, Garai eta Mendata izan ziren.

564 *Euzkadi*, 1932-02-02.

Zalantzarik gabe Nafarroa izan zen zailtasun gehien planteatu ziren tokia. Nafarroan, gehiengoa ez zen erabatekoa izan. Nafarroan, 267 udaletatik, 229 udal agertu ziren[565]. 229 horietatik, 160 udal, Euskal Estatutuaren alde agertu ziren (209.479 biztanle guztira, agertutakoen %64,46)[566], nafar Estatutuaren alde 32 udalek bozkatu zuten (28.891 biztanle ordezkatuz, agertutakoen %8,89), Estatutu denen kontra 21 udalek (28.891 biztanle ordezkatuz, agertutakoen %20,48) eta 12 udal (20.044 biztanle ordezkatuz, agertutakoen %6,17 abstenitu egin ziren)[567]. Hala ere, Nafarroako Batzarrean, nahiz eta Euskal Estatutuaren aldeko botoa oso indartsua izan, lehenengo zalantzak agertzen hasi ziren. Alde batetik, ikusi dugun bezala Nafarroan aurkakotasuna beste hiru herrialdeetan baino askoz ere handiagoa izan zen. Askotan, eskuinak Nafarroan zuen pisua aipatzen da Nafarroan egon zen kontrako oposizio hori ulertzeko, baina ezin da horrekin bakarrik azaldu. Alde batetik, eskuina, Nafarroan hegemonikoa zen, Euskal Estatutuaren aldeko aukera garaile atera zen 1932ko urtarrileko Batzar hartan. Beste alde batetik, Gipuzkoan, aipatu dugun moduan, 12 udal karlistetatik soilik 5 agertu ziren Estatutuaren aurka. Karlistek, Batzar horren aurrean "boto-askatasuna" eman zieten euren alkateei[568], eta hala, egia esan, 1931koarekin konparatuz, Estatutuaren aurkako jarrera handitu egin zen. Baina artean aurkakotasuna ez zen aho batez, bloke oso baten gisa agertu, agian 1931ko autonomia-zaletasuna oso gertu zegoelako. Beraz, eskuineko karlisten arduraren azalpenak, parte bat azaltzen badu ere, dena ez du azaltzen, laster ikusiko dugun moduan. Eta okerrena izan zena, Batzar horrek jada joera bat ezarri zuela, 1932ko ekainaren 19an Euskal Herriko Udalen Batzarrean Nafarroa Euskal Estatututik kanpo utziko zuena alegia.

Nafarroako aurkakotasun horren gorakadan, karlistek izan zuten adinako garrantzia edo handiagoa izan zuen Emilio Azarola errepublikanoak, Madrilen diputatu eta Doneztebeko alkate zenak (29. artikuluaren arabera izendatua izan zen; kapitulu honen lehen orrietan azaldu dugu jada artikulu hori eta, beraren arabera, 1931ko apirileko udal-hauteskundeetan hautagaitza bakar bat aurkeztu zen herrietan alkatea eta zinegotziak automatikoki izendatzea ahalbidetu zuen artikulu horrek)[569]. Azarola Batzarrean hitza hartzen lehena izan zen, eta Nafar Estatutuaren alde egin zuen[570]. Nahiz eta lehen unean huts egin (udal gehienek, ikusi dugun bezala Euskal Estatutuaren alde bozkatu baitzuten, gutxiengo bat soilik izan zuen bere alde); mozio oso maltzurra aurkeztu zuen: Euskal Estatutua Nafarroan onartua izan zedin, hurrengo Euskal Herriko Udalen Batzarrean gutxienez ere nafar biztanleriaren bi herenak ordezkatzen zituzten udalek aldeko botoa eman beharko zutela, eta herri-galdeketan nafar biztanleriak bi hereneko gehiengoz baietza eman beharko ziola, zioen mozio horrek. Mozio hori onartua izan balitz, 1932ko urtarrilaren 31ko garaipena ez zatekeen nahikoa izango, Euskal Estatutuaren alde bozkatu zuten nafar udalek Nafarroako biztanleriaren %64,60 ordezkatzen baitzuten.

Estatutu berriaren testua martxoaren 21ean entregatu zuen idazketa-batzordeak[571], eta oro har, alkateen mugimenduak (1931ko prozesuan pisu handia izan zuen eta 1932an bigarren maila batean egon arren, biltzen zituen udalen kopurua kontuan izanik, garrantzi moral handia zuen) apirilaren 18an, eta lau Aldundiek apirilaren 24an babesa emateak, Estatutua onartu egingo zela ematen zuen[572]. Baina ekainaren 19ko Euskal Herriko Udalen Batzarrera bitarteko alderdien arteko giroak okerrera egin zuen, ikusiko dugunez. Lehendabizi, alderdi ezberdinen joera argitu egin zen, alde zeuden batzuk aurka jartzera pasatu baitziren, hainbat faktore tarteko zirela.

Faktoreetan garrantzitsuena alderdi batzuk Estatutuaren aurkako jarrera hartzea, edo lehendik zuten jarrera hori argiago azaltzea izan zen. Alderdi Karlistak, Estatutuaren aurkako jarrera erakutsi zuen apirilaren 23an eta maiatzaren 15ean, bere

---

565 Jose Maria Jimeno Jurioren arabera, agertu ez ziren zortzi udaletatik bi, Deierri eta Petilla Estatutuaren alde zeuden, baina "ezin izan ziren iritsi". Jimeno Juriok dio euren botoak zenbatuak izan zitezen eskatu zutela, baina eskaria ez zela onartua izan. JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 77. or. Hala ere, *Euzkadi* egunkariak 249 udal agertu zirela dio (*Euzkadi*, 1932-02-02koa) eta *El Liberal* egunkariak, "364 udaletatik 329" (akats bat izan daiteke eta 229 udal agertu zirela esan nahi izan, *El Liberal*, 1932-02-02koa).

566 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 77. or.; eta ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 65. or. *El Liberal* egunkariak 161 udalen datua ematen du. (*El Liberal*, 1932-02-02koa). Datu horri eusten dio *Euzkadi* egunkariak ere (Euzkadi, 1932-02-02koa).

567 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 77. or.; eta ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 65. or. Azken datu horietan, *El Liberal* eta *Euzkadi* egunkariak ados daude.

568 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 48-49. or. Aoizen esanetan, batzar hartan, karlisten zuzendarien aldetik bai aldeko zein aurkako iritziak entzun ziren. Adibidez, Joakin Beunza diputatuak: "Estatutuaren alde dagoen tradizionalista, kontra dagoena baino tradizionalista hobea da" esan zuen. Bestalde, nafar karlismoaren buru historiko Viktor Praderak "Estatutuan ez dago ez Jainkorik ez forurik. Jainkorik eta forurik gabe zer geratzen da? Euzkadi! Euskaldunak banatu eta nafar foruak hil nahi dituen munstro hori" esan zuen.

569 Bere familiaren sustraiak Ormaiztegin zeuden. Ingeniaria zen ofizioz.

570 *La Voz de Guipúzcoa* egunkariaren arabera, Azarolaren interbentzioak nahiko polemika piztu zuen, bertaratutako batzuek Azarolak (Madrilgo Parlamentuan diputatu zenak) "bere autoritate moralaz baliatuz", alkate asko bere jarreraren alde bozkatzera eraman baitzitzakeen. Batzar hura nahiko gogorra izan omen zen, "eztabaida bortitzak" aipatzen ditu *La Voz de Guipúzcoa*k. Azarolaren jarreraren aurka gehien nabarmendu omen zena, Konstantino Salinas Ahaldun Nagusi sozialista izan omen zen. (*La Voz de Guipúzcoa*, 1932-02-2koa). *El Día*k ere, Azarolaren interbentzioa kritikatu zuen, bere "nafartasuna ez zela guztiz garbia" kritikatuz (euskaldunekiko diferentzia markatzen zuelako). *El Día*k Azarolari erantzun zioten ordezkarien interbentzioak goratu zituen. (*El Día*, 1932-02-02koa)

571 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 84. or.

572 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 85. or.

or.

zinegotzi eta alkateei "boto-askatasuna" eman zien, baina ezezkoa gomendatu[573]. Ikusi dugun bezala, karlistak, 1931ko abenduan jeltzaleek "Estatutuaren bide konstituzionala" onartu zutenetik, Estatutu horren aurka aritu ziren. Hala ere, 1932ko maiatz-ekainetan jarrera hori handiagoa izan zen urtarrilean baino (orduan, udal karlista gehienek, Estatutuaren alde bozkatu baitzuten, lau lurraldeetako Batzarretan eta Euskal Estatutuak gehiengo handia izan zuen). Zergatik gertatu zen aldaketa hori? Alde batetik, nire ustez, arrazoirik garbiena, 1931ko abenduko karlisten, eta oro har eskuindarren jarrera-aldaketarengatik, 1932ko urtarrilerako beren oinarriek artean ez zuten-eta hori guztiz berenganatua (kontuan izan, 1931. urte osoan karlistak nahiko aktibo jokatu zutela Estatutuaren alde). Jose Maria Jimeno Jurio nafar historiagilearen arabera, karlistak eta eskuindarrak, denak, jada Errepublika uzkailtzeko konspirazioetan eta Estatu-kolpe asmoetan zebiltzan (1932an Jose Sanjurjo militar nafarra Sevillan altxatu zen, altxamendu horrek porrot egin arren), eta beraz, Errepublika sendotzeko balio zezakeen zutabe bat ezartzea, kosta ala kosta ekidin beharrekoa zuten[574]. Jimenoren arabera, 1932an zehar, Alderdi Karlistaren zuzendariek, Estatutuaren aurka zirenek, Estatutuaren alde zegoen alderdiaren oinarri sozialaren aurkako presioa handitu egin zuten[575]. Jose Antonio Rodriguez Ranzek aipatzen du 1932tik aurrera, gipuzkoar prentsa karlistak, *La Constancia* egunkariak, Estatutuaren aldeko artikuluak eta iritziak isilarazi egin zituela[576]. (Hala ere, aipatu beharra dago, Gipuzkoako karlisten artean, salbuespen autonomista batzuk izan zirela, Julian Elortza eta Ignazio Perez Arregi, adibidez[577]).

Beste alde batetik, indar ezkertiar edo Gobernuaren aldekoen artean, ere, mesfidantzak handituz joan ziren. Nafarroan bertan, aipatutako Emilio Azarolaren taldeak (*Partido Republicano Radical-Socialista*), maiatzean, aurkako jarrera publikoki agertu zuen eta alderdi horren barnean horrek zatiketa bat eragin zuen (beste hiru herrialdeetan talde horrek Estatutuaren alde egin zuen)[578]. Azarola, 1931n Nafarroan ezkerraren aldetik aukeratutako bi diputatuetako bat izan zen. Beste diputatu ezkertiar nafarra, Mariano Anso zen (Azañaren jarraitzailea, *Acción Republicana* taldekoa) eta Estatutuaren alde sutsu aritu zen. Aldiz, Lerrouxen jarraitzaileak (*Partido Republicano Radical*), errepublikanoetan eskuindarrenek, jada Gobernu ezkertiarrarengandik urruntzen hasiak zirenek[579]; Nafarroan eta Araban Estatutuaren aurkako jarrera hartu zuten. Sozialistei dagokienez, hiru herrialdeetan oro har aldeko joera erakutsi bazuten ere[580], eta Nafarroan batzuk, batez ere, Konstantino Salinas Ahaldun Nagusi sozialista alde nabarmendu arren, beste batzuek ez ziruditen hain konbentzituak. Egia da Nafarroako Aldundiak (beste hiru Aldundiekin batera alde agertu zenak) ekainaren 11n Estatutuaren aldeko propaganda egiteko bulego bat zabaldu zuela[581]; baina sozialista guztiak ez ziren propaganda hori egitearekin ados izan[582]. Bestetik, Nafarroako UGTren prentsan ere, Estatutuaren aldeko idatziak agertu ziren, "Estatutu euskal-burgesa" deituz[583]. Hiru herrialdeetako sozialistak Estatutuaren alde agertu baziren ere[584], eta Nafarroako sozialismoan halako erabateko batasun bat lortzeko asmoz eragin bazuten ere (maiatzaren 15ean Iruñeko sozialisten egoitzan Estatutuaren aldeko hitzaldi bat izan zen), ez zuten halakorik lortu[585]. Nafarroako eskuina erabat Estatutuaren aurka zegoen giro horretan, ezkerra inoiz baino zatituagoa zegoen. Horren adibide dugu ekainaren 19ko Euskal Herriko Udalen Batzarra baino hiru egun lehenago Iruñeko Udalean, Iruñeak zein jarrera hartu behar zuenaren inguruko udal-bilkuran; eskuinak blokean ezezko botoa eman zuen bitartean, sei zinegotzi ezkertiar ez ziren azaldu, beraz ezezko jarrera atera zen nagusi[586].

Fase horretan, Beasaingo Udal errepublikanoak, indar guztiz borrokatu zuen Estatutu "errepublikanoaren" alde. 1932ko maiatzaren 12ko bilkuran, Iruñeko Euskal Herri osoko Udalen Batzarrean parte hartzea eta Urteaga alkatea eta Bernedo eta

---

573 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 85. or.; eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 164. or.

574 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 110-115. or.

575 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 110. or.

576 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 166. or.

577 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 169-170. or.

578 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 110-115. or.; eta FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 85. or.

579 Ikusiko dugun bezala, alderdi honek eta Lerrouxek, 1933ko hauteskundeen ostean errepublikaren aurkako eskuindarrekin batera Gobernatu zuten.

580 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 116. or.; eta FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 85. or.

581 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 50. or.

582 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 125-126. or.

583 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 51. or.

584 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 212-213. or.

585 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 116. or.

586 AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 51. or.

Ibarbia alkateordeek osatutako ordezkaritza bidaltzea erabaki zen[587]. Baina, udalaz gain, kaleko eraginari dagokionez ere, Beasain ez zen Autonomi Estatutuaren aldeko propagandatik aparte gelditu. Adibidez, 1932ko ekainean, EAJko kideek Autonomi Estatutuaren aldeko kartelak jarri zituzten Beasainen zehar[588].

Urtarrileko Batzarrak, Nafarroan aurkakotasuna bazegoela eta gainera handitzen ari zela erakutsi zuen; eta horixe gertatu zen, inguruabar nahiko eztabaidagarrietan izan arren, Iruñeko 1932ko ekainaren 19ko batzarrean. Batzar hartan, udalek, urtarrileko lau herrialdeetako batzarrek onartu zuten Euskal Herri osorako Euskal Estatutuari "baiezkoa" ala "ezezkoa" eman behar zioten (kasu horretan "Lurraldekako Estatutuen" aukera baztertuta geratzen zen, urtarrileko batzarretan proposamen hori garaitua izan zenez). Ekainaren 19ko Batzarra iritsi zenean, Euskal Herriko udalak Iruñeko *Gayarre* antzokian erabakitzeko orduan nahasmena izan zen nagusi. Lehenbizi Emilio Azarola errepublikanoak estatutuaren aurka zeuden udal guztiak bildu aurretik udal nafarrak euren aldetik aparte bildu behar zutela esan zuen, eurek aldez aurretik bozkatzea adostua zegoela argudiatuz. Ikusiko dugun bezala oso maniobra maltzurra izan zen. Jose Maria Jimeno Jurioren arabera, "helburu hori lortu arte, Batzarra oztopatu eta trabatu zuen"[589]. Nafar ordezkariak, beraz, Foru Jauregira joan ziren, non Azarolak Estatutuaren alde ez bozkatzea proposatu zuen. Nahasmena handituz joan zen, eta istilu eta burrunben artean, Estatutua aldarrikapenez onartzeko zorian, zein ukatua izateko zorian egon zen[590].

Bozkatu zenean, lau herrialdeetatik hirutan gehiengo handi bat izan zuen estatutuak. Gipuzkoako 89 udaletatik 84k (281.827 pertsona ordezkatuz, %95,13) baiezkoa eman zuten, 2k (5.708 pertsona ordezkatuz, %1,73) ezezkoa eta 3 udal (8.734 pertsona ordezkatuz, %2,94) abstenitu egin ziren[591]. Aurka agertu ziren udalak, Ibarra eta Zarautz izan ziren, biak karlistak. Abstenitu zirenak, Azkoitia, karlista halaber, Anoeta eta Hernialde izan ziren[592]. Arabako udaletan, 77tik 51k (89.956 pertsona ordezkatuz, %88,97) baiezkoa eman zuten, 11k (3.496 pertsona ordezkatuz, %3,46) ezezkoa, eta 15 (7.647 pertsona ordezkatuz, %7,57) abstenitu egin ziren[593]. Bizkaitarrena ere gehiengo handia izan zen alde, 117 udaletatik 110ek (435.345 pertsona ordezkatuz, %94,19) baiezkoa eman zuten, 1ek (1.066 pertsona ordezkatuz, %0,23) ezezkoa, eta 6 (25.800 pertsona ordezkatuz, %5,58) abstenitu egin ziren[594]. Baina Nafarroan ezezkoa atera zen garaile, horren alde 123 udal atera baitziren (185.666 pertsona ordezkatuz, %53,04). Baiezkoaren alde 109 udal izan ziren (135.582 pertsona ordezkatuz, %38,72), eta beste 35 udal (28.856 pertsona ordezkatuz, %8,24) abstenitu egin ziren[595]. Beraz, Nafarroa Estatututik kanpo gelditu zen. Hiru aldiz (Lizarrako Batzarrean, 1931ko uztaileko Aldundiak deitutako Batzarrean, eta 1932ko urtarrileko Batzarrean) udal nafarrek baiezkoa eman zuten erabateko gehiengoz, baina laugarren aldian behin ezezkoa emanda, hori izan zen behin betiko emaitza. Ezezkoa bai eskuineko zein ezkerreko udalen artean nabarmendu zen[596]. Hala ere, horrek ez du esan nahi bi sektore horietako nafar denak bat-batean Estatutuaren aurka jarri zirela, ez eta Estatutuaren aurkako jarrera hartuko zutenik ere. Eskuinean Rafael Aizpun eta Migel Gortari monarkikoak eta Joakin Beunza karlistak Estatutuaren aldeko jarrera izaten jarraitu zuten. Lehen biak diputatu gisa dimititzeko karta bat idaztera ere iritsi ziren, nahiz eta azkenean gutun hura ez argitaratu, beraz dimisioa ez zen gauzatu[597]. Ezkerrekoan artean, esan bezala, nafar buruzagi asko (tartean Salinas Ahaldun Nagusia edo Anso diputatua) Estatutuaren aldekoak izan ziren. Ezkerrak, 1936an, berriz ere Nafarroa Euskal Estatutuan sartzeari bidea ireki zion.

Emaitzaren inguruan prentsa gipuzkoarrak izan zuen joera nahiko ezberdina izan zen. Alde batetik, prentsa abertzaleak modu baikorrean begiratu zituen Batzar horren emaitzak; adibidez *El Día*k "Euskal Estatutua onartua izan zela" baina "Nafarroa ez zegoela sartzera behartuta" esan zuen[598]. *El Pueblo Vasco* egunkariaren titularrean, titular errealistagoa agertu zen: "Hiru

---

[587] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

[588] Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

[589] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 82. or.

[590] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 82. or.; eta AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 52-53. or.

[591] JIMENO JURIO, Jose Maria: Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 83. or. Tartean, agertu ez ziren Azkoitia eta Hernialde zeuden. (*Euzkadi*, 1932-06-21koa)

[592] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 182. or.; eta *El Día*, 1932VI-21ekoa.

[593] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 83. or. *El Día* egunkariak esan zuenez, 52 udalek alde bozkatu zuten, 11k aurka eta 14 abstenitu egin ziren. (*El Día,* 193-06-21koa)

[594] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 83. or. *El Díaren arabera,* 109 izan ziren alde bozkatu zuten bizkaitar udalak. (*El Día,* 1932-02-21ekoa)

[595] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 83. or.

[596] AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 53-54. or.

[597] ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 66-67. or.

[598] *El Día*, 1932-06-21ekoa.

or.

euskal probintziek beren Estatutua egingo dute, Nafarroa kanpo utziz". *El Pueblo Vasco*k "Nafarroak bere Estatutua idatziko zuela" ere esan zuen (Batzarrean ez zen halako erabakirik hartu, soilik Euskal Estatutua onartu ala ez erabaki zen). Bere editorialean "porrotaren ostean, abertzaleak abailduta agertu dira" esan zuen egunkari horrek; baina halere "argi gelditu behar du, legearen arabera, udal gehienek aldeko botoa eman dutela"[599]. Hala ere, bi egunkari abertzaleek eta baita *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoak ere, Euskal Herriaren gehiengoak Euskal estatutuaren aldeko botoa eman zuela adierazi zuten eta hiru egunkarien arabera, Euskal Herriko 354 udal alde agertu ziren, 137 aurka eta 58 abstenitu egin ziren; beraz, 962.710 biztanle ordezkatzen zituzten udalak alde, 201.935 biztanle ordezkatzen zituzten udalak aurka eta 71.040 biztanle ordezkatzen zituzten udalak abstenitu egin ziren[600]. Ezkerreko *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak "Nafarroa, berak hala nahita, Euskal Estatututik kanpo gelditu da", baina "jardunaldia baikorra" izan zela ere esan zuen, behintzat hiru herrialdeetarako Estatutua egin zela-eta[601]. Beste ertzean, *La Constancia* egunkari karlistak pozarren hartu zuen Batzarrean Euskal Estatutuak jasotako porrota edo nafar disidentziak Batzarrean "euskal lurraldeen batasunaren mito nazionalista gezurra zela agertzea" eta "Nafarroak Estatutua ez, baizik eta eskubide foralak" nahi zituela esan zuen[602]. Bai batzuek zein besteek Estatutuaren porrotean Emilio Azarola Doneztebeko alkate eta diputatuak izan zuen papera nabarmendu zuten: prentsa abertzalearen ustez Batzarra "trikimailuz eta bortizkeriaz nahi zuen tokitik eraman zuen", karlisten arabera "udal nafarren eskubideak defendatu zituen"[603]. Hala ere, hiru egunkariak bat etorri ziren momentu batzuetan nahasmena eta iskanbila nagusitu zirela esatean eta arrazoiz eztabaidatzeko baldintzak betetzea ezinezkoa izan zela adieraztean[604]. Estatutuaren aldeko prentsaren arabera, Azarolaren interbentzioek, udal nafarren batzar berezia planteatuz, irregulartasuna ekarri zuten; aldez aurretik onartutako akordio bat berrikustea zekarrelako eta abusuzko hitzaren erabilera egin omen zuelako "bortizkeriara heltzeraino"[605]. Bilboko *El Liberal* egunkari ezkertiarra, udal nafarren batzarreko azken bozketak (Estatutuaren aurkakoak) "Nafarroaren benetako sentimendua ez zuela ordezkatzen" esatera iritsi zen[606].

Esan beharra dago 1932ko ekainaren 19ko Nafarroako Udalen Batzarreko emaitzak faltsutuak izan zirela. Jose Maria Jimeno Jurio historiagileak halako batzuk dokumentatu izan ditu. Kasu askotan, udal-ordezkariek, euren udalean nagusi ateratako iritziaren aurkako botoa eman zuten (askotan, alkate zein zinegotzi karlistek, euren irizpide propioa erabiliz eman zuten botoa, herriaren ordezkari zirela ahaztuta). Beste kasu batzuetan, ordezkarien aurkako presioa izan zen, Estatutuaren alde botoa eman ez zezaten. Izan zen halaber, Batzarreko istiluen artean, euren botoa entzun gabe geratu zen ordezkaririk ere[607]. (Hala ere hori ez zen soilik udal nafarren kasuan gertatu, *La Voz de Guipúzcoa*, *El Día* eta *El Pueblo Vasco* gipuzkoar egunkarien arabera, Zarauzko Udaleko Martzelino Manterola ordezkariak ere aurka bozkatu zuen, alde bozkatzeko konpromisoa hartuta egon arren[608]). Jimeno Juriok, garai hartan, faltsukeriak gertatu izan ez balira gertatuko zatekeenaren bi estatistika argitaratu aipatzen ditu. Bata, Nafarroako EAJren *La Voz de Navarra* egunkariak argitaratua, zeinaren arabera, 122 udalek baiezkoa eman zuten (akta ofizialaren arabera, 109k), 116k ezezkoa (akta ofizialaren arabera, 123k) eta 29 (akta ofizialaren arabera, 35) abstenitu egin ziren[609]. Bestea, orduan Nafarroatik diputatu jeltzale zen eta gerora lehendakari izango zen Jose Antonio Agirreren datuetan oinarritua, zeinaren arabera 127 udalek baiezkoa eman zuten, 115ek ezezkoa eta 25 abstenitu egin ziren[610]. Bi estatistika horien arabera, udalen gehiengoak estatutuaren alde egin zuen; hala ere, gogoratu egin behar dugu, 1932ko urtarrilean, udal nafarren bi herenen gehiengoa eskatzen zuen Azarolaren mozioa onartu egin zutela. Beraz, faltsukeriak izan ziren arren, azken sei hilabeteetan aurkako jarrera nola igo zen ikusita, ezin dugu esan ezezkoa ateratzeko arrazoi bakarra faltsutze horiek izan zirenik.

Nafarroan aurkako jarrera handitzeko arrazoiak, ezezkoa garaile atera arte, asko izan ziren. Aipatu dugu bat lehenago, eskuineko karlistek Estatutuaren aurka izan zuten jarrera handitu egin zela egoera politikoa zela-eta. Hala ere, hori ez zen arrazoi bakarra izan. Alde batetik, Nafarroako autonomismo propioa edo nabarrismoa dugu, zeinak, euskal lurraldeen batasuna

[599] *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa.
[600] *La Voz de Guipúzcoa,* 1932-06-21ekoa; *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa; eta *El Día,* 1932-06-21ekoa.
[601] *La Voz de Guipúzcoa,* 1932-06-21ekoa.
[602] *La Constancia,* 1932-06-21ekoa.
[603] *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa; *El Día,* 1932-06-21ekoa; eta *La Constancia,* 1932-06-21ekoa.
[604] *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa; *El Día,* 1932-06-21ekoa; eta *La Constancia,* 1932-06-21ekoa.
[605] *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa; *El Día,* 1932-06-21ekoa; eta *El Liberal,* 1932-06-21ekoa.
[606] *El Liberal,* 1932-06-21ekoa.
[607] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco.* Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 84-103. or.
[608] *La Voz de Guipúzcoa,* 1932-06-21; *El Día,* 1932-06-21; eta *El Pueblo Vasco,* 1932-06-21ekoa.
[609] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco.* Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 103. or.
[610] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco.* Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 104. or.

Nafarroaren kontrako mehatxu bezala ikusten zuen, beraz, "nafartasuna" eta "euskal herritartasuna" (euskal herritartasun politikoa bederen) bateraezintzat ikusten zituen. Hori, batez ere nafar burgesiaren edo oligarkiaren parte batek mamitutako ideologia izan zen, bere bozeramailerik handiena *Diario de Navarra* egunkaria eta Raimundo Garcia "*Garcilaso*" haren zuzendaria zirela. Garcilaso 1931n ere, eskuinak Estatutua babesten zuenean ere, Estatutuaren aurka jarri zen. Ideologia horren nolabaiteko jarraitzaile, Emilio Azarola Doneztebeko alkate eta diputatu errepublikanoa izan zen. Azarolaren iritzia zen Nafarroak "euskal herrialdeek duten egoerarekiko oso izaera ezberdina du; beraz bere aldetik eskualde autonomo bat sortu behar du"[611]. Azarolak pentsamendu erabat nabarrista zuen, beraren arabera, "Nafarroak, bera baino txikiagoak diren lurraldeekin *"arabar, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar"* (*vasco-navarro* espainieraz) Estatutua egiteko bat eginez gero, bere burua merkatuko luke"[612]. Azarolak 1932ko urtarrilean eta ekainean ere mantendu zuen "Nafarroak ez daki ezer Estatutuez (…) guk Espainiarekin itun foral bat izan dugu beti, eta guk geuk erabakiko ditugu komeni zaizkigun itunak, inork guri "emandako" autonomiaren beharrik gabe", hots, Euskal Estatutua "Berezko" nafar legearen aurkakoa bailitzan interpretatzen zuen[613]. Azarolaren pentsamenduan, 1841eko foruen murrizte-legea zegoen, Espainiaren eta Nafarroaren arteko "itun" bat izan zenaren interpretazioa alegia, gaur egun arte nabarrismoak erabili izan duen argudio nagusienetakoa hain zuzen ere.

Halako jarreraren antzekoa, 1918an, Estatutuaren aldeko lehen kanpainan Viktor Pradera karlistak izan zuen. Praderak, bere edo Nafarroaren "euskalduntasuna" ukatzen ez bazuen ere[614], bere arrazoiak nabarrismoaren antzekoak izan ziren. Praderaren arabera, "hegemonia"-arazo bat zen Nafarroak Euskal Estatutuari ezetz esateko arrazoi nagusia[615]. Praderak, bai 1918an zein 1931-1932etan Euskal Estatutu batek "Nafarroa Bizkaia nazionalistaren mende" ezarriko zukeela errepikatu zuen, eta bere ustez, "foruen berrezarkuntza" nafar bakartasuna eta ez euskal batasuna indartzeko eskatu behar zen. Xabier Zabaltzak ondo azaltzen duen bezala, Praderaren nabarrismoan (zeina ez zen berariaz euskal nortasuna ukatzean oinarritzen), bestelako arrazoi batzuk egon zitezkeen; adibidez, demografia eta ekonomia. Izan ere, XIX. mendera arte, Nafarroa zen euskal lurralderik populatuena, eta Iruñea euskal hiririk handiena: 1797-1799 urteetan, Euskal Herriko biztanleen %35 Nafarroan ziren; konparazioz, %17,54 bizkaitarrak eta %16,45 gipuzkoarrak zirelarik. 1857an Iruñeak 22.000 biztanletik gora zituen, 15.000 inguru zituen Bilboren, 14.000 inguru zituen Gasteizen, eta 10.000ra heltzen ez zen Donostiaren aldean. Beraz, garai hartan Iruñea eta Nafarroa ziren dudarik gabe Euskal Herriaren erdigune ekonomikoak. Baina XIX. mende-bukaeran eta XX. mendearen hasieran Gipuzkoa eta Bizkaia industrializatzen hasi zirenean, bai ekonomian zein populazio-kopuruan Euskal Herriaren buruan jarri ziren. 1900-1906 aldian Bizkaiak jada Nafarroa aurreratu egin zuen: euskal herritarren %28,67 bizkaitarrak ziren, nafarrak %28,33 zirenean eta gipuzkoarrak %18,03. Eta Errepublikaren garaian, gure lurraldea ere (Gipuzkoa) Nafarroaren parera iritsi zen praktikan: euskaldunen %24,22 ziren nafarrak eta %21,17 gipuzkoarrak (bizkaitarren ehunekoa %33,98ra igoa zen)[616]. Horrek nabarrista batzuen eta tartean beldur hori agerian utzi zuen Viktor Praderaren "hegemoniaren" arloko beldurrak ulertzen laguntzen ahal digu; are gehiago kontuan hartzen badugu Gipuzkoan eta Bizkaian joera nagusia euskal nazionalismoranzkoa zela, beraz beldur hori "politikoki" ere gorpuztu ahal zela (gogora dezagun 1932ko proiektua Lizarrako Estatutua baino askoz ere zentralistagoa zela Euskal Herriko barne-eraketari zegokionez).

Arrazoi bat hori izan zen, baina bestelako arrazoiak ere izan bide ziren. Alde batetik, alderdien arteko tentsio-igoera handi samarra izan zen. Esan dugun moduan, alderdi asko, euren artean karlistak eta Azarolaren talde errepublikanoa, Estatutu berriaren aurka paratu ziren argi eta garbi[617]. Eta Estatutuaren aldeko bi sektore nagusiek, jeltzaleek eta sozialistek, adostasun indartsua baino areago euren hegemonia propioa bilatu zuten prozesu osoan zehar. Egia esan, Alderdi Jeltzaleak ez zuen ulertu Alderdi Sozialista jada ez zela mende-hasieran euskaltasun ororen aurka agertzen zen alderdia, bere autonomismoa, beste kontzeptu batekoa izan arren, ez zen oportunismo hutsa izan. Eta Alderdi Sozialistak ez zuen ulertu Alderdi Jeltzalea jada ez zela mende-hasierako alderdi "maketo-aurkakoa" edo erabat atzerakoi eta elizkoia eta jarrera moderatuagoetara ere eboluzionatu zuela. Bi alderdien artean oinarrizko adostasun bat egon izan balitz (1931ko abenduaren 8ko dekretutik 1932ko erdi-aldera, prozesu horretan zehar, halako adostasun formal bat izan zen, baina ez benetako adostasun praktikorik; gainera, ikusiko dugun bezala, giroa laster okertu egin zen), Nafarroan kanpaina egiteko aukera gehiago izan zitezkeen, eta are gehiago

[611] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 119. or.

[612] AOIZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 50. or.

[613] *La Voz de Guipúzcoa*, 1932-02-02koa. Une hartan bertan, Kataluniako Estatutua "ilegaltzat" jo zuen. Ekainean, Euskal Estatutua "gorteek aldatu ahal zutelarik" Nafarroaren eskubide foralen kontra zihoala mantendu zuen. Ikus, bai *El Día*, 1932-02-21ekoa; zein *El Pueblo Vasco*, 1932-02-21ekoa; zein *El Liberal*, 1932-02-21ekoa.

[614] ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 60-62. or.

[615] ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 59. or.

[616] ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 60-61. or.

[617] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 123-125. or.

or.

1932ko ekaineko ezezkoaren ostean, Euskal Estatutua Nafarroarentzat erakargarri aurkez zitekeen (1936an ezkerrak jarrera hori erabat bereganatu zuen, baina jada beranduegi zen). Baina ez zen halakorik izan, eta lehen ikusi dugun bezala, Nafarroan sozialisten artean ere, egoera asko okertu zen.

Eta horri lotuta, bazegoen beste faktore bat ere, historiagile askok aipatzen dutena: Nafarroako toki askotan euskaltzaletasuna galdua zen. Euskarak atzera egin zuen deblauki XIX. mendean zehar. 1778an nafarren %53,1 euskaldunak ziren arren, 1863rako %30,1 soilik ziren; eta zenbakia txikituz joan zen: 1904rako nafarren %23,7 soilik ziren euskaldunak eta 1935ean are gutxiago: %17. XVIII. mendean Iruñeak hiri euskalduna izateari utzi zion[618]. Horrek toki batzuetan, Euskal Estatutu bategatik berezko aldekotasun handirik ez izatea ekarri zuen, Erriberan adibidez[619]. Erriberan, 1931ko kanpainan Euskal Estatutuarekiko axolagabekeria handia nabaritu zen, jada aipatu dugun moduan[620]. Axolagabekeria nahiz kontrakotasun hori garbi nabarmendu zen, 1932ko urtarrileko Batzarrean abstenitu ziren 12 udaletatik 9 Erriberakoak ziren.

Ondorio nagusien artean nagusiena, Estatutuaren alde zeuden alderdiek (abertzaleek, eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ezkertiarrek, horietan ezkertiarren artean ez baitzegoen Nafarroan zegoen zalantza eta zatiketarik) hiru herrialdeen Estatutuaren aldeko bidea hartzea izan zen. Alderdi Sozialistak, 1932ko ekainaren 19an bertan hartu zuen hiru herrialdeen Estatutuaren alde egiteko erabakia[621]. Prozesuak, beraz, hiruren artean eta Nafarroarik gabe jarraitu zuen (horrek ez du esan nahi ate guztiak itxi zirenik eta lehen aipatu dugu Nafarroan ere abertzaleak ez ziren asko Estatutuaren alde zeudela). Erabaki horrek abertzaleen artean ere zatiketa handia sortu zuen, batez ere Manuel Irujo buruzagi jeltzale nafarrak hiru herrialdeetako Estatutuak euskaldunen arteko zatiketa handitu egingo zuela esan baitzuen[622]. Jose Antonio Agirre berari ere txistu jo zioten Iruñeko Euskal Etxean[623]. Beste alde batetik aipatu behar da, prozesu horretan Nafarroako hainbat estatutu-aurkako Euskal Estatutuaren aurka ere altxatu zirela eta Nafar Estatutuaren aukera ere, alde batera gelditu zela praktikan, Nafarroa jada Euskal Estatututik kanpo jarrita, Nafarroarako Estatutu beharrik ez zutelako[624].

1.4.f) Azken txanpa

Nafarroa Euskal Estatututik aterata, eta egitasmoa hiru herrialdeetara mugatuta, aurreko hilabeteetan behintzat jeltzaleen eta ezkertiarren arteko elkarlanak hiru herrialdeetarako Estatutua segituan aldarrikatuko zela pentsarazten zuten. Bazirudien Estatutuaren testua Nafarroa aipatzen zuten atalak ezabatuta aldatzea, Nafarroaren sarrera-aukera aurreikusten zuen beste baldintza bat sartzea eta Estatutua onartzeko prozesua berehala abian jartzea besterik ez zela falta. 1932ko udan, artean ezkerreko buruzagi batzuk, Indalezio Prieto sozialista barne, oso baikorrak ziren Estatutua laster lortzearen inguruan[625]. Lehen keinuak horren aldekoak zirela ematen zuen, adibidez Kataluniako Estatutua Donostian sinatu zen (Errepublika ekarri zuen Donostiako Itunari egindako keinua, eta aldi berean, abertzaleei ere egina), Alcala-Zamora Errepublikako lehendakaria eta Indalezio Prieto ministro sozialista bilbotarra bertan zeudela. Horiek ekarri zituen trena Gipuzkoako hainbat herritan gelditzerakoan, bi buruzagi errepublikanoak "Gernikako Arbola" jotzen zuen musika-bandak hartzen zituen, eta Prietok ere (gogoratu Euskal Herrikoa zela) abesten zuen, herri-babes handia atzetik zuela[626]. Itxaropena handia bazen ere, ez zen hala gertatu. 1932ko udaren eta 1933ko udaberriaren artean, jeltzaleen eta ezkerraren arteko egoera okertu egin zen[627]. Egia esan, egoera okertze hori ez zen Estatutua tartean zelako soilik gertatu, Errepublikaren politika laikoa zelako (hainbat orrialde eskaini dizkiogu Beasainen politika laikoa nola eraman izan zen esateari) eta horri jeltzaleek eman zioten erantzunagatik baizik. Jeltzaleen katolikotasun politikoaren (nahiz eta eskuineko beste indarrena baino bareagoa eta zabalagoa izan, artean politikan alderdi katolikoa zen EAJ) eta ezkerreko indarren eta Errepublikaren Gobernuaren laikotasunaren arteko talka gogorraren ondorio izan zen Estatutuaren tramitazioa atzeratzea,

---

618 ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 49. eta 60. or. Historiagile honek aipatzen du (52. or.), 1858ean lehen aldiz dokumentatu zela "Nafarroa erdiko zonaldea", euskara berriki galdu zuten tokiak izendatzeko.

619 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 86-87. or.

620 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 50-55. eta 108-109. or.

621 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 212-213. or.

622 Ezaguna izan zen bere esaldia: "Hiru probintzietako Estatutuarekin aurrera egiten badugu (...) euskaldunak bi Estatutan baino hirutan banatuko ditugu (...) "baskongadoen" eta "nafarren" edo are okerrago, "euskaldunen" eta "nafarren" zatiketa arriskutsua zilegiztatuz".

623 AIOZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 55-56. or.

624 JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 50-55. eta 146. or.; eta AIOZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 55. or.

625 Prieto: "Kataluniako Estatutua onartuta, Euskal Estatutua onartzeko bidearen hiru laudenak eginda daude". FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 93. or.

626 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 91-92. or.

627 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 93. or.

eta litekeena da Nafarroa sartzeko ateak ez irekitzeko asmoa ere tatean izatea. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, 1932ko ekainaren ostean Estatutu berritua idazteko eta bozkatzeko beste 15 hilabete behar izanak, "argi utzi zuen ezkerreko indarren artean Estatutua ez zela lehentasunezko gaia haientzat"[628]. Laikotasunaren inguruko eztabaidak, errepublikanoak eta sozialistak Errepublika laikoaren proiektua bermatzeari lehentasuna ematera eraman zituen.

Izan ere, Errepublikak, Jesusen Konpainia desegitea erabaki zuenean, jeltzaleak aurka agertu ziren, eskuinarekin batera. Adibidez, 1932ko ekainean, ELAk Gipuzkoan 48 orduko greba orokorra deitu zuen "kristautasunaren aurkakoa, langileen aurkakoa eta euskaldunen aurkakoa zen diktadura sozialistaren aurka"[629]. Eta horrekin jarraituz, 1933an gehiengo ezkertiarra zuen Bilboko Udalak Jesusen Bihotz Sakratuaren monumentua kentzea erabaki zuenean, berriz ere eskuinaren eta haiekin batera, jeltzaleen aurkakotasuna agertu zen[630]. Ezkerraren inguruan, 1931ko beldurra agertu zen, berriro, hots, jeltzaleek eskuinarekin bat eginez, Euskal Herria erlijio katolikoaren eta "erreakzioaren" gotorleku egitearen beldurra. EAJren erantzuna, Jesusen Bihotz Sakratuaren alde balkoietan ikurrinak jartzeko agindua ematea izan zen eta ez zen zentzudunena izan, berriz ere abertzaletasuna (eta oro har, Euskal Herria), politikan joera erlijiosoarekin nahastera eraman zuelako.

Hiru Aldundietako Gestorek 1932ko irailean hasi zituzten Estatutua azken aldiz berridazteko lanak. Baina pixkanaka-pixkanaka giroa okertuz joan zen. 1932ko urrian, Bizkaiko gobernadore berriak, Jose Maria Amilibia errepublikanoak Bizkaiko udaletxe guztietan Espainiako Errepublikaren bandera derrigorrez jartzeko agindua eman zuen (Bizkaiko Gobernadoreak eta Gipuzkoako Jose Artola Gobernadoreak neurri hori berretsi egin zuten 1933an, eraikin ofizialetan Errepublikaren bandera soilik egon zedin aginduz)[631]. Kasu horietan ez zen hainbeste izan eskuin monarkikoari begira hartutako neurria, jeltzaleei begira hartutakoa baizik (hori zela-eta Bermeoko eta Mundakako Udalak kargugabetuak izan ziren). Horrek noski, erantzuna ekarri zuen jeltzaleen aldetik eta jeltzaleen eta indar publikoen arteko edota jeltzaleen eta ezkertiarren arteko kaleko istiluak handitu egin ziren[632]. Istilurik handienetakoa, agian, 1933ko maiatzaren 3an eta 4an Bilbora Errepublikaren lehendakari Nizeto Alcala-Zamorak eginiko bisitaren inguruan izan ziren eta poliziak emakume jeltzaleen manifestaldi baten kontrako oldarraldia burutu zuen. Hurrengo egunean EAJk greba orokorra deitu zuen eta hainbat atxilotu izan ziren[633]. Jeltzaleen eta ezkertiarren arteko klimaxak gora egin zuen eta ekainean tiroketak ere izan ziren, tartean bi ezkertiar hilda gertatuz[634].

Errepublikano eta sozialisten eta jeltzaleen arteko tentsio-egoera horrek Gipuzkoako errepublikanoengan ere, nolabaiteko eragin morala izan zuen. Garai horretan, Gipuzkoako Estatutuaren aldeko ahotsak nabarmendu ziren Gipuzkoako errepublikano batzuengan. Horrek, errepublikanoen eta jeltzaleen arteko tentsioari erantzuten zion arren, kontuan hartu behar da Nafarroa kanpoan gelditzeak ere, herrialdekeriari argudioak eman zizkiola. 1933ko maiatzean, Gipuzkoako errepublikanoak biltzen zituen federazioak, Estatutuaren erreferendumean "garaia iristen denean, ezezko botoa" ematea eskatu zuen[635]. Sozialisten artean ere, garai hartan Estatutu "nazionalistaren" aurkako ahots batzuk agertu ziren[636].

Horrez gain, hegemonismoaren mamua ere berragertu egin zen. Estatutua nork ekarriko (eta beraz, onura politikoa nork aterako) lehia handitu egin zen. Adibidez, Alderdi Sozialista, alderdiek Estatutuaren berridazketan parte-hartzeari ateak ixtearen alde agertu zen, hori Aldundietako Gestoren eskumen esklusiboa zela argudiatuta. Jarrera horren muinean arrazoi praktiko bezain argi bat zegoen: Aldundietako Gestorak ezkerreko alderdietako kidez osatuak zeudenez, EAJ zen Estatutuaren alde zeuden alderdien artean Gestoretan ordezkaririk ez zuen bakarra. Alderdiei Estatutua idazteko batzordeetan parte hartzea galarazteak, EAJ kanpoan uztea esan nahi zuen. Azkena, 1933ko otsailaren 19an Estatutua berridazteko batzordea aurkeztu zen, denak Gestoretako kideak zirela (hiru errepublikano, bi sozialista eta Eusko Abertzale Ekintzako kide bat)[637].

---

[628] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 225. or.

[629] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 190. or.

[630] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 97-98. or.

[631] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 97. or.

[632] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 95. or.

[633] JIMENO JURIO, Jose Maria: *Navarra jamás dijo no al Estatuto Vasco*. Punto y Hora. Burlata (Nafarroa), 144. or.; eta FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 98. or.

[634] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 98. or.

[635] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 216-217. or.

[636] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 220-221. or.

[637] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 96-97. or.

or.

1933ko tentsioaren igoera Beasainen ere nabaritu zen: bai errepide nagusian, Ordiziarako bidean, eta baita Senpere auzoan ere, Lazkaorako bidean, Aldundietako Gestoren aurkako pintaketak agertu omen ziren "Behera gestorak!" "Errepublika bai, baina euskalduna", "Gora Euzkadi Askatuta!" eta abar. Beasaingo Udalak pintaketak kentzeko agindua eman zuen[638].

1933ko apirilean egin ziren udal-hauteskunde partzialek ez zuten giroa baretzerik lortu. Hauteskunde haietan, 1931ko apirilean, 29. artikulua zela bide aukeratutako udalak (hau da, hautagaitza bakarrarekin eta lehiarik gabe) berritu behar ziren[639]. Gipuzkoan 42 udaletan izan ziren hauteskundeak, 329 zinegotziren postuak jokoan jarriz, tartean, Goierriko hamar herritan[640]. Herri horietako gehienak, salbuespen batzuekin, (Azkoitia, Azpeitia, Hernani, Oiartzun eta Pasaia kasu) herri txikiak izan ziren, gehienetan 1931n eskuin alfontsotarra (orduan "boterean zeudenen alderdia") udal-boterean jarri zutenak. Orain, alderdi edo sektore hori "desegitearekin batera"; haien botere-postu asko beste alderdi batzuen aldera joan zitezkeen.

Kapitulu honen lehen orrialdeetan aipatu dugu herri askotan sektore monarkiko alfontsotarra boterean jartzeko (boto bidez edo behintzat aurkako alderdirik ez aurkeztearen bidez) edo berari botoa emateko arrazoi nagusiak bi izan zirela: alde batetik populazio kontserbadore eta bereziki politizatu gabekoaren "inertzia" eta beste alde batetik jauntxoen eragina. Bi faktore horiek eta herri horietako askotan alderdien talde antolaturik ez egoteak handitu egin zituen alfontsotarren emaitzak. Hala ere, Errepublikak, jauntxoen boterea murriztea eta populazioaren politizazioa (Euskal Herrian horri Estatutuaren gaia gehitu zitzaion) ekarri zituen, alderdi ezberdinak, ikusi dugun bezala, Gipuzkoako ia txoko guztietara hedatuz[641]. Gauzak horrela, pentsatzekoa zen beste alderdien artean sektore horren botoak nork bereganatuko lehia handia izango zela, batez ere beste bi aukera kontserbadoreen artean: EAJren eta karlisten artean.

Apirilaren 23an egin ziren hauteskunde haietako parte-hartzea %70 ingurukoa izan zen[642]. Garaile nagusia EAJ izan zen, 42 herrietatik 30etan nagusitu baitzen, jokoan zeuden 329 zinegotzietatik 188 lortuz (%57,32), hauteskundeen aurretik, haiek egin zirenetako 5 udaletan soilik gehiengoa zuenean, eta haietan 65 zinegotzi (%19,76 zituenean). Beherakada nagusia, pentsatzekoa zen bezala, eskuin alfontsotarrak izan zuen, bi urte lehenago udal horietan 133 zinegotzi (%40,43) eta 19 alkatetza izatetik, bi urte beranduago aukeratutako 37 zinegotzi soilik (%11,28) izatera pasatu zen, sektore horren "ondorengo" gisa har zitezkeenak kontuan hartuta. Karlistek ere atzera egin zuten: 79 zinegotzi (%24,01) eta 8 alkatetza izatetik, 63 zinegotzi izatera (%19,21) pasatu baitziren. Ezkerrak bere posizioak oro har hobetu zituen arren (6 zinegotzi –%1,82– izatetik, 11 –%3,35– izatera), Hernaniko Udala, hautaketak ziren udaletan euren kontrolpean zegoen bakarra, galdu egin zuten eta jeltzaleen esku gelditu zen. Bukatzeko, aukeratu ziren 29 zinegotzi (%8,84) "filiaziorik gabeak" edo "independenteak" izan ziren (bi urte lehenago, udal horietan 46 –%13,98– izan ziren)[643]. Aipatzekoa da, oro har, Euskal Herrian, EAJren edota eskuineko alderdien garaipena gertatu zela, Espainia osoan ezkerreko alderdien garaipena gertatu zen bitartean.

---

638 Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 34. dokumentua.

639 Hala ere, ikusiko dugun moduan, ez ziren berriztu 29. artikuluaren antzeko prozedurak erabiliz; adibidez, alderdi ezberdinen arteko itunen bidez, iskin egin zioten herrietako udalak.

640 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 405-409. or. Goierrin; Altzaga, Arama, Ataun, Itsaso, Lazkao, Mutiloa, Olaberria, Ormaiztegi, Segura eta Zegama izan ziren hauteskundeak izan zituzten herriak.

641 1933ko apirilerako, jeltzaleak 42 udalerri horietatik 38tan zeuden presente jada, karlistak 21etan, eta ezkertiarrak 17tan. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 404. or.

642 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 407. or.

643 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 408-409. or.

HERRIA	IRABAZLEAK	BESTEEK	1931ko GARAILEAK
Altzaga	EAJk: 6	Besterik ez zen izan	Monarkikoak/EAJ
Arama	Karlistek: 6	Besterik ez zen izan	Karlistak
Ataun	EAJk: 6	Karlistek: 2 "Katoliko-monarkikoek": 2	Monarkikoak
BEASAIN	**Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza ezkerraren esku**		
Ezkio#	EAJk: 5	Karlistek: 2	Karlistak/EAJ
Gabiria#	EAJk: 6	"Katoliko monarkikoek": 2	"Independenteak"
Gaintza	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza "monarkikoen" esku		
Idiazabal	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza karlisten esku		
Itsaso	"Independenteek": 4	EAJk: 2	Monarkikoak
Itsasondo	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Lazkao	EAJk: 6	Karlistek: 2	EAJ
Legorreta	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza "monarkikoen" esku		
Mutiloa	EAJk: 4	Karlistek: 2	Karlistak
Olaberria*	EAJk: 4	Karlistek: 2, Ezkerrak: 1	"Independenteak"
Ordizia	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Ormaiztegi*	EAJk: 4	"Katoliko monarkikoek": 3	Monarkikoak
Segura	Karlistek: 6	EAJk: 3	Karlistak
Zaldibia	Ez zen hauteskunderik egin. Alkatetza EAJren esku		
Zegama	Karlistek: 9	Besterik ez zen izan	"Independenteak"
Zerain#	EAJk: 4	Karlistek: 2, Independenteek: 1	EAJ[644]

Hemen ikusten diren Goierriko emaitzek argi uzten dute nondik norako hori eta EAJren gorakada. 1933ko apiriletik aurrera, EAJk hamabi alkatetza (tartean, Ordizia, Ataun eta Lazkao) izan zituen Goierrin; karlistak soilik laurekin gelditu ziren bitartean. Monarkiko alfontsotarren beherakada ere garbi ikusten da, bi alkatetza soilik lortu zituzten (biak 1933an hauteskundeak errepikatu gabekoak). Ezkerra Beasainen gotortua gertatu zen, jakina den bezala. Itsasoko alkatetza, ordea, talde independente baten esku gelditu zen. EAJren nagusitasun hori 1933ko hauteskunde horietan oinarritu zen, hamabi alkatetzetatik bederatzi (Ordizia, Itsasondo eta Zaldibia ezik) 1933an lortu edo berretsi egin baitzituen. Kontuan izan behar dugu 1933ko apiril horretan EAJk irabazitako bederatzi herrietatik bitan soilik irabazi zuela 1931n (Lazkaon eta Zerainen), beste bitan berdinketa izanik. Beste bostetan, EAJk beste alderdiren bati aurrea hartu zion (bitan monarkikoei, bitan bertako talde independenteei eta beste batean karlistei). Beraz, alderdi jeltzalearen gorakada garbia ikusten da. Monarkikoei dagokienez, beherakada nabarmena da, 1931ko sei alkatetzetatik 2 soilik mantendu baitzituzten, eta esan bezala, bi herri horietan ez zen hauteskunderik egin (galdu zituzten lauetatik hiru jeltzaleen esku galdu zituzten, eta bat "independenteen alde"). Karlisten kasuan, alkatetza bat galdu zuten, Ezkio eta Mutiloa jeltzaleen aldera pasatu baitziren, baina bitartean Zegama (lehen "Independenteen" esku zegoena) "irabazi" zuten. Beste ondorio bat horixe izan zen, "lerrokatu gabeko hautagaitzak" desagertzea: 1933ko apiriletik aurrera Itsason soilik egon zen boterean halako talde bat, aldiz, 1931n Gabirian, Olaberrian eta Zegaman "ideologiarik gabeko taldeak" jarri ziren boterean. Gipuzkoaren politizazioa nabaria izan zen bi urte horietan.

Beraz, argi geratu zen Gipuzkoan, eta batez ere herri txiki nekazarietan EAJk zuela hegemonia, eta baita ere herritar "kontserbadore despolitizatuak" "politizatzeko" lanean karlistei aurrea hartu zietela. Emaitza horiek, errepublikanoentzat alde batetik berri onak ekarri zituzten, 1931ko eskuindarren botere-guneak moderazio prozesuan sartu eta Errepublika onartzen zuen alderdi batengana pasatuta, izan ere, gerta baitzitekeen beste aukera bat nagusitzea ere, hots, erabat errepublikaren aurkakoa zen alderdi baten eskuetara pasatzea, baina hori ez zen gertatu. Baina beste alde batetik, Euskal Herriko bi lurralde populatuenetan, Gipuzkoan eta Bizkaian EAJk irabazteak, Euskal Herriko herrialdeetan lehen alderdia eta tarte are handiagoarekin izatea ekarri

[644] Olaberrian EAJk eta ezkerrak (errepublikano federalek) koalizio bat egin zuten. Ormaiztegin EAJk eta katoliko monarkikoek ere bai. # ikurra duten herrietan, Rodriguez Ranzen arabera, adostasun praktiko bat egon zen, izan ere, aukeratuak izan ziren hautagai denek boto guztiak bildu zituzten. Altzagan, Araman eta Zegaman alderdi bakarrak lortu zituen ordezkariak, hala ere, Rodriguez Ranzek "borroka politikoa" izandako herri bezala aipatzen ditu (agian izan zen eta alderdi batek bestea erabat menderatu zuen; karlistek Altzagan "presentziarik ez zutela izan" aipatu zuten –ez dakigu aurkeztu ez zirelako ala propagandarik egin ez zutelako. (Euren *La Constancia* egunkarian, 1933-04-28an).

or.

zuen eta horrek Estatutuaren aldeko lanean bidaide izan ziren ezkerreko indarren mesfidantza sortu zuen. Ezkerreko horiek lehendik zuten beldurra, hots, Estatutuak "eskuinaren" (kasu honetan EAJren) hegemonia berrestekoa, handitu eta gauzatu egin zen.

Estatutu-prozesua ia-ia lur-jota zegoen, eta berori bide onera eramatea ia-ia ezinezkoa zela ematen zuen. Estatutua idazteko batzordeak azkar lan egin behar izan zuen eta horrek lortu zuen Estatutua aurrera ateratzea. 1933ko apirilean Nafarroari atea zabalik uzteko akordio bat lortu zen. 1933ko uztailean, Estatutuaren aurreproiektua idatzita, Gasteizen, Estatutua bozkatzeko Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Udalen Batzarra deitu zen, abuztuaren 6rako[645]. Batzar hartan, bildutako 282 udaletatik 234k alde bozkatu zuten[646]; batez ere Gipuzkoako eta Bizkaiko udalek gehiengoz ez ezik ia aho batez alde bozkatu zutelako. Gure herrialdeko 83 udalek alde bozkatu zuten, 4 abstenitu egin ziren (Altzo, Gaztelu, Larraul eta Orexa) eta bik aurka bozkatu zuten, biak goierritarrak (Arama eta Gaintza)[647]. Guztira, Gipuzkoako 296.269 biztanleetatik 295.030 biztanleen ordezkari ziren udalek alde bozkatu zuten, aurka bozkatu zutenek 479 biztanleren ordezkaritza zuten eta, abstenitu zirenek 760 biztanlerena[648]. Bizkaiko 109 udal alde agertu ziren, 4 abstenitu egin ziren (Gordexola, Gueñes, Muskiz eta Ziortza-Bolibar), eta 3k aurka bozkatu zuten (Arratzuk, Ereñok eta Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitzek)[649]. Beraz, Bizkaiko 434.199 biztanleetatik 423.163 biztanle ordezkatzen zituztenek alde bozkatu zuten, 2.891 biztanle ordezkatzen zituztenek aurka eta 8.145 biztanle ordezkatzen zituzten udalak abstenitu egin ziren[650]. Arabako emaitza apur bat zalantzagarriagoa izan zen; Arabako 77 udaletatik 10 agertu ez zirelako, eta agertu ziren 67 udaletatik, 26k aurka bozkatu zutelako. Beraz, 41 udal arabar alde agertu ziren[651]. Arabako 104.701 biztanleetatik, alde bozkatu zuten udalek 76.111 biztanleren ordezkaritza zuten, aurka bozkatu zutenek 23.664 biztanleren ordezkaritza eta agertu ez zirenek 4.926 biztanlerena[652]. (Esan beharra dago, Batzarraren aurretik Arabako udalek euren aldetik batzar propioa egin zutela, ziur aski karlisten ekimenez)[653]. Batzar hartan, karlistek, Tolosako alkate Caballero jauna bozeramaile zutela, Estatutuak foruak aintzatestea, eta foruen abolizioa ezabatuz erakunde foralak berrezartzea eskatzen zuen osotasunezko emendakin bat aurkeztu zuten[654]. Emendakin nahiko sinbolikoa, Estatutuaren testua jada idatzita egonda; karlisten parte hartzerik gabe ere, Batzarrak, foruei aipamena egiten zien esaldi bat Estatutuan sartzea erabaki zuen, Caballerok hasierako osotasuneko emendakina erretiratuz gero[655]. Caballeroren hitzaldian zehar, nolabaiteko istiluak sortu ziren, Gobernua erasotu zuelako, "hark Estatutua emango ez zuelako", eta Estatutua "ongi-erdia" zelako eta foruak "ogi osoa"; ideia hori kontrajartzen saiatu zen[656]. Batzarrak Estatutuaren testurako emendakin bat aurkeztu zuen, euskararen arlokoa: euskal herritarrei bost urtean euskara ikasteko gomendioa egiten zien emendakina hain zuzen ere[657]. Amorebietako ordezkariak, gainera, funtzionario guztiei bost urtean euskara ikastea exijitzen zien beste emendakin bat aurkeztu zuen eta onartua izan zen[658]. Bestetik, Euskal Herriko Epaitegi

---

645 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: El problema vasco en la II República. Turner. Madril, 1979, 101. or.

646 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: El problema vasco en la II República. Turner. Madril, 1979, 102. or.

647 *El Día,* 1933-08-08koa. *Euzkadi* egunkariak akats batzuk dakartza, abstenitu zirenen artean Orexa Hondarribiarekin nahastuz eta aurka bozkatu zutenen artean, Gaintza Gabiriarekin nahasiz. (*Euzkadi,* 1933-08-08koa). *El Liberal*en arabera hiru abstentzio izan ziren, ez lau. (*El Liberal,* 1933-08-08koa). *El Pueblo Vasco*ren arabera, abstenitu ziren lauetatik, Altzo eta Gaztelu ez ziren Batzarrera joan ere egin. (*El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa); eta *El Día*ren arabera, Altzo, Gaztelu eta Orexa falta izan ziren. *El Día*k dioenez, Hondarribiko ordezkaria Batzarra bukatu aurretik irten egin zen, beraz abstenitu egin zen. (*El Día,* 1933-08-08koa). *La Constancia*ren arabera, Leaburu ere abstenitu egin zen, baina ez dirudi hori egia denik. (*La Constancia,* 1933-08-08koa). Hor argi ikusten da eskuinaren eragina, sei udal horietatik hiru, Arama, Gaztelu eta Orexa karlisten esku zeuden (une hartan, karlistek 9 udal zituzten Gipuzkoan). RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 172-173. or. Gainera, badakigu Gaintzan monarkiko alfontsotarrak zeudela agintean. Hala ere karlisten edota eskuindarren portaera ez zen iritzi bakarrekoa izan; Idiazabal, Tolosa edo Zegama Udal karlistek eta Legorreta Udal monarkikoak (adibide batzuk jartzearren) Estatutua babestu egin baitzuten.

648 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

649 *Euzkadi,* 1933-08-08koa. Egunkari horren arabera, abstenitu ziren Bizkaiko lau udalak ez ziren Batzarrera agertu.

650 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

651 *El Día,* 1933-08-08koa.

652 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

653 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa; eta *La Constancia,* 1933-08-08koa.

654 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 167. or.; eta FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República.* Turner. Madril, 1979, 102. or. Emendakin hori, Tolosa, Azkoitia, Markina, Durango, Beranturi eta Gaubeako (Valdegobia) udal karlistek aurkeztu zuten. (*El Día,* 1933-08-08koa). Horrez gain, Tolosako alkate karlistak Gipuzkoako udal batzuetan, alkatea kargugabetua egotea eta Gobernuak ezarritako udal-gestorek ordezkatuak egotea kritikatu zuen. Udal horiek, Alegia, Altza, Segura eta Zarautz ziren; pentsatzekoa da, haietan karlistei botoa eman izatea (Seguran badakigu baietz) eta Gobernuak, istiluren bat tarteko agintari karlistak kargugabetu izana. Tolosako alkate karlistaren kexu berbera adierazi zuen Markinako alkate karlistak ere. (*El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa).

655 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa. Egunkari horren arabera, konpromisozko bide hau Bermeoko Basterretxea alkateak proposatu zuen. Batzarrak, Tolosako alkateak Prietoren aurka egindako adierazpenak gaitzetsi zituen. *El Liberal*ek zioenez, 40. artikuluan sartu zen esaldi horrek, "Estatutu honek, Arabaren, Bizkaiaren eta Gipuzkoaren eskubide foralen iraungitzea ez zekarrela" zioen. Bestalde Estatutu hau "ez da Hitzarmen Ekonomikoaren erregimenaren kaltean izango" adierazi zuen emendakinak. (*El Liberal,* 1933-08-08koa).

656 *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa; eta *El Día,* 1933-08-08koa.

657 *La Constancia,* 1933-08-08koa; eta *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

658 *El Liberal,* 1933-08-08koa.

Gorena sortzea eta funtzionario guztiak euskal erakundeek izendatzea onartzen zuten bi emendakin onartu ziren[659]. Beste emendakin bat, Euskal Herriko nekazaritzako jeneroen babes berezia onartzen zuena izan zen[660]. Hala ere ez zen onartu Espainiako Parlamentuak egin beharreko aldaketek Euskal Herriko udalen baimena izateko derrigortasuna ezartzen zuen emendakina[661].

Gasteizko Batzarrak erreferenduma (azaroaren 5erako deitu zena) prestatzeko hamazortzi kidez osatutako batzorde bat izendatu zuen, bederatzi alkatek (tartean hiru hiriburuetakoak) eta Gestora bakoitzeko hiru kidek osatutakoa. Gipuzkoaren aldetik, Donostia, Irun eta Oiartzungo alkateak eta Luis Castro ahaldun-kide errepublikanoa, eta Joan De los Toyos eta Soto sozialistak izan ziren[662]. Bestalde, Batzarrak, Nafarroari agur egin zion, hura ere Euskal Estatutuan laster sartuko zenaren esperantzaz[663]; kontuan hartu behar da Salinas nafar Ahaldun Nagusi sozialista ere gonbidatua izan zela[664]. Batzarrak Kataluniako alderdien agur-telegrama ere jaso zuen[665].

Prentsak, hiru lurraldeetako Estatutuari egin zion harrera, nahiko ezberdina izan zen. Bai prentsa abertzalea zein ezkertiarra poztu egin ziren, hala ere, egunkari abertzaleetan poza handiagoa izan zen. *El Día*k Araban izandako aurkako jarrera nabarmendu zuen, aurreko urteetako aldekotasun ia osoarekin alderatuz. Donostiako egunkari horrek, Arabako karlistei egotzi zien aurkako jarrera horren hazkundea. Hala ere, Batzarrera agertu zirenen, eta emendakin foralista aurkeztu zuten ordezkari karlisten egitekoa pozarren hartu zuen, "karlistek Estatutuaren aurka kanpaina gogorra egin eta hori zuritzeko emendakin bat sartzen saiatu ziren arren (…) herriaren autonomia-nahia hain da handia, ezen alde bozkatzea beste arrazoirik ez zutela izan". Egunkari horren arabera, Batzar hartan "gehiengo handia lortu zen"; "iaz Iruñean lortu zen bezala", eta "abertzaleen eta tradizionalisten arteko giro baketsua" goratu zuen; Nafarroa sartzeko itxaropena ere adierazi zuen[666]. *Euzkadi* egunkariak "241 udal alde, 19 aurka eta abstentzio 1" esan zuen. *El Liberal* egunkariak kronika nahiko doinu aseptikoan eman zuen[667]. Prentsa karlistak ordea, ordezkari karlistek egin zuten foruen defentsa nabarmendu zuen. *La Constancia*k, hizlariak bertako "onenak" izan zirela esan zuen[668]. Horrela, nazionalisten jarrera kritikatu zuen, Tolosako alkatearen emendakin foralistaren aurka bozkatu arren, gero pribatuan, haren aldekotasuna txalotu zutelako: *La Constancia*ren arabera, ordezkari nazionalistek "alderdi-kontsignen alde" bozkatu zuten eta karlistek "euren printzipioen alde". Batzarraren gainean herrietan zegoen "axolagabekeria hotza" nabarmendu zuen, 1931ko giroarekin alderatuz (Estatutu-proiektu hartan karlistek ere parte hartu zuten). Modu berean "zilegitasun gabeko Gestorek" egindako Estatutua zela esan zuen egunkari horrek (horri karga guztia emanez, "Euskal Herriaren sentimendu katolikoak iraintzen dituen Gobernu laiko batek izendatuak" zirela eta abar)[669].

Batzar hartara, Beasaingo alkate Jazinto Urteaga ere joan zen, 1933ko uztailaren 28ko udal-bilkurak aho batez hala erabakita[670]. *Euzkadi* egunkariak, okerbidez, Beasaingo alkatea ez zela joan baina "babesa bidali zuela" esan zuen; baina Beasaingo ordezkaria han izan zen[671]. 1933ko urrian, Beasaingo Udala berriro ere agertu zen Estatutuaren aldeko ekitaldi batean (Urteaga alkateak eta Beriztain idazkariak ordezkatuta), Arabako Mateo Moraza foralista historikoaren omenaldian hain zuzen ere[672].

1933ko azaroaren 5ean izan zen erreferenduma. Erreferendumaren aurrean, abertzaleek zein ezkerrak, oro har, aldeko jarrera hartu zuten. Hala ere, ezkertiarren artean izan ziren nolabaiteko desadostasunak. Bizkaian, alderdi errepublikano batzuetako lehendakariak eta Bizkaiko Alderdi Sozialistaren lehendakariak abstentzioa eskatzen zuen gutun ireki bat sinatu zuten azaroaren 2an[673]. Gipuzkoan, Fusiren arabera "komunisten salbuespenarekin, ezker osoak Estatutua babestu zuen"[674]; hala ere, egia izan arren Gipuzkoako Federazio Sozialistak eta Elkarte Errepublikano ezberdinek aldeko botoa eman zutela

---

[659] *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

[660] *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

[661] *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

[662] *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa; eta *El Día,* 1933-08-08koa.

[663] *El Día,* 1933-08-8; eta *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

[664] *El Pueblo Vasco,* 1933-08-08koa.

[665] *El Día,* 1933-08-08koa.

[666] *El Día,* 1933-08-08koa.

[667] *El Liberal,* 1933-08-08koa.

[668] Beste hizlarien diskurtsoak "astunak", "zehaztugabeak" eta abar zirela nabarmendu zuen egunkari karlistak. (*La Constancia,* 1933-08-08koa).

[669] *La Constancia,* 1933-08-08koa.

[670] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua

[671] *Euzkadi,* 1933-08-08koa.

[672] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.

[673] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 417. or. Hala ere Joan Pablo Fusi Aizpuruaren arabera, gutun horrek "Balio sinbolikoa besterik ez zuen izan" eta ez zuen Bizkaiko elkarte eta militante errepublikano eta sozialisten iritzi osoa ordezkatu. FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República.* Turner. Madril, 1979, 106. or.

[674] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República.* Turner. Madril, 1979, 106. or.

or.

(errepublikanoek maiatzean esan zutenaren aurka, orduan, giro politiko bortitzak eraginda aurka azaldu ziren-eta), salbuespenen bat agertu zen, adibidez Eibarko Elkarte Sozialista, "langile-elkarte eta sindikatuei erreferenduma kontrolatzen utzi ez zitzaienez", abstentzioa eskatu baitzuen[675]. Bestalde, jada komentatu dugu Alderdi Komunistaren Estatutuaren kontrako posizioa, Estatutu hau "amore ematearen Estatutu" edota "burgesia inperialistaren Estatutu" gisa ikusten zutelako. Eskuina, Estatutuaren aurka agertu zen, monarkiko alfontsotarrak aurkako botoa eskatu zuten, eta karlistek, 1933ko urriaren 25ean Bergaran bildurik, ez zuten Estatutuaren aldeko aukerarik jarri eta ez zuten bozka-irizpiderik eman[676]. Baina esan beharra dago erreferendumaren aurrean, gipuzkoar prentsa karlistaren doinua oro har Estatutuaren aurkakoa izan zela. Hala ere, karlista gipuzkoar batzuk, Julian Elortza eta Ignazio Perez Arregi kasu, Estatutuaren alde agertu ziren eta azken honek, 1933ko azaroaren 2an, Estatutuaren aldeko artikulu bat atera zuen, prentsa abertzalean, *El Día*n eta *El Pueblo Vasco*n argitaratu zena; esanguratsua izan zen *La Constancia* prentsa karlistak artikulua ez ateratzea[677].

Erreferendum horretan, 1931n onartu zen bezala, emakumeek ere bozkatzeko eskubidea izan zuten. Hala, 166.635 gipuzkoar izan ziren bozkatzera deituak eta horietatik 151.862k, hots, %91,13k botoa eman zuten (beraz abstentzioa %8,87koa izan zen, 14.773 pertsona abstenitu ziren)[678]. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, bai Donostian, zein herri ertainetan, zein herri txikietan, parte-hartzea %90tik gorakoa izan zen (Donostian, %98,11koa izan zen). Herri handietan (Donostia kenduta) ordea, ez zen %90era iritsi, %89,24koa izan baitzen[679]. Gipuzkoan, 149.221 pertsonek (boto-emaileen %98,26k, zentsuaren %89,55k) baiezkoa eman zuten, eta 2.390k (boto emaileen %1,57k, zentsuaren %1,43k) ezezkoa. 251 boto (boto-emaileen %0,17, zentsuaren %0,15) zuriak izan ziren[680].

Ikusten denez, Goierrin gehiengo handi batek Estatutuaren alde egin zuen. Hala ere, toki batzuetan, adibidez Beasainen (ezker errepublikanoak eta sozialistak nagusi zirela), parte-hartzea oso txikia izan zen, eta beste hiru herritan, Araman, Gaintzan eta Zegaman, eskuindarrak nagusi ziren herrietan, ez zen %50ra iritsi[681]. Horren azalpena nahiko argia da, alde batetik tradizionalistek emandako abstentzioaren aldeko kontsignak, euren oinarriaren parte batean eragina izan zuen. Ez eragin osoa, eskuindarrak nagusi izan ziren beste herri batzuetan, Idiazabalen, Legorretan eta Seguran kasu, parte-hartzea eta "baiezko" botoak gehiago izan baitziren. Errepublikanoek eta sozialistek, aldiz, estatutu-prozesuan izan zituzten zalantza-aldiek (une batzuetan prozesuarekiko iritzi negatiboa ere izan baitzuten), euren oinarri sozialaren parte batek, dena delako arrazoiengatik (nahasmena, iritzi negatiboek eragin ideologikoa izatea, nekea) abstentziora jo zuen eta Beasaingo kasua horixe izan zen.

Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, parte-hartze altuegi horiek direla-eta, litekeena da nonbaiten iruzurra eta "datu-puztea" gertatu izana. Adibidez, erreferendum horretan, Gipuzkoan, bi aste beranduago izan ziren hauteskundeetan baino parte-hartze askoz ere altuagoak izan ziren (orduan, gipuzkoarren %78,07k bozkatu zuen). Guztira, Gipuzkoako 10 herritan %100ek bozkatu zuten (baita, Donostiako 14 mahaitan ere) eta 89 herrietatik 59tan, boto-emaileen %95ek baino gehiagok bozkatu zuen, herri batzuetan oso ehuneko altuak ateraz: adibidez Irunen, mahai guztietan %97koa baino parte hartze altuagoa izan zen, Errenterian mahai guztietan %96koa baino parte-hartze altuagoa, eta Arrasaten, mahai guztietan %95ekoa baino parte-hartze handiagoa. Donostian ere, auzo guztietan %97k baino gehiagok bozkatu zuten. Herri horietan, gehiengo errepublikano-sozialistak izaki, hain parte-hartze altuak izatea, joera berdineko Beasainen parte-hartzea %55ekoa izan zenean, susmagarri samarra ere bada. Rodriguez Ranz ikerlariaren arabera, erreferendumaren inguruan izan ziren protesten kopuru txikia aintzat hartuta, ziur aski, hau gertatu bide zen, "ezezkoaren" aldeko botoak "baiezkoaren" alde bihurtzen saiatu gabe, toki batzuetan "baiezkoaren" aldekoen boto-kopurua "puztu" egin bide zuten, abstentzioa "irensteko" asmoz. Rodriguez Ranzen arabera, hala ere, Estatutuak herri-babes handia izan zuen eta ez zuen iruzurren beharrik izan, nahiz eta emaitzak "biribiltzeko"

675 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 214. or.

676 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 163. eta 174. or. Rodriguez Ranzen arabera, karlismoaren zuzendariek ez zuten aukera baten aldeko jarrerarik hartu (ez baiezkoaren, ez ezezkoaren, ez eta abstentzioaren alde).

677 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 170. or.

678 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 417. or.

679 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 418. or.

680 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 417. or.

681 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 419. or. Kontuan izan behar da Aramako eta Gaintzako Udalen ordezkariek Gasteizko 1933ko abuztuaren 6ko udalen Batzarrean Estatutuaren aurkako botoa eman zutela.

agian prozedura irregularrak erabili[682]. Hala ere, tokiko irregulartasun horiek ez ziren izan *La Constancia* egunkari karlistak salatutako "50 edo 60 aldiz bozkatu zutenak" eta "milaka eta milaka boto bikoitz sartu dira" eta gisako esaldietan adierazitakoak adinakoak[683].

HERRIA	PARTE-HARTZEA	ABSTENTZIOAK	BAIEZKOAK	EZEZKOAK	ZURIAK/BG
Altzaga	%95,45	%04,55	%100	-	-
Arama	%45,21	%54,79	%100	-	-
Ataun	%94,39	%05,61	%100	-	-
BEASAIN	**%55,23**	**%44,77**	**%85,97**	**%13,96**	**%00,07**
Ezkio	%100	-	%100	-	-
Gabiria	%89,46	%10,54	%100	-	-
Gaintza	%34,50	%65,50	%100	-	-
Idiazabal	%96,11	%03,89	%99,42	%00,58	-
Itsaso	%99,12	%00,88	%100	-	-
Itsasondo	%91,34	%08,66	%99,71	%00,29	-
Lazkao	%97,34	%02,66	%99,87	%00,13	-
Legorreta	%97,02	%02,98	%99,74	%00,26	-
Mutiloa	%92,64	%07,36	%100	-	-
Olaberria	%97,41	%02,59	%100	-	-
Ordizia	%98,30	%01,70	%98,80	%00,93	%00,27
Ormaiztegi	%96,80	%03,20	%100	-	-
Segura	%84,20	%15,80	%99,09	%00,91	
Zaldibia	%96,87	%03,13	%100	-	-
Zegama	%16,94	%83,06	%96,18	%02,73	%01,09
Zerain	%78,65	%21,35	%100	-	-[684]

Bizkaian, 267.466 boto-emaileen artean 241.629 pertsonek eman zuten botoa (%90,30k). Horietatik 236.564k alde bozkatu zuten (boto-emaileen %97,89k eta zentsuaren %88,44k) eta 5.065ek aurka (boto-emaileen %0,02k eta zentsuaren %0,018k). Araban gehiengoa txikiagoa izan zen: 56.056 boto-emailetatik 32.710ek soilik eman baitzuten botoa (%58,35ek). Alde 26.015 arabarrek bozkatu zuten (boto-emaileekiko %79,53k, baina zentsuarekiko %46,40k soilik) eta beste 6.695ek (boto-emaileekiko %20,46k eta zentsuarekiko %11,94k) aurka bozkatu zuten[685]. Arabako emaitza horiek, ikusiko dugun bezala, baiezko botoak zentsuaren erdira iritsi ez zirenez, eztabaida piztu zuten, eta hurrengo hilabeteetan eztabaida aunitzetarako aukera eman zuten. Oro har, guztira, hiru lurraldeetako 490.157 herritarretatik 425.952k bozkatu zuten, %86,90k. Baiezkoaren alde 411.756 herritar agertu ziren (boto-emaileen %96,66 eta zentsuarekiko %84) eta ezezkoaren alde 14.196 herritar (boto-emaileekiko %3,33 eta zentsuarekiko %2,89)[686].

Baina, ikusiko dugun bezala, 1934ko Gobernu-aldaketak Estatutuaren blokeoa ekarri zuen eta 1934ko abuztuan Gobernuak zerga mota berri bat ezarri zuela-eta, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako udalek aldarrikapen-mugimendu berri bat hasi zuten eta Beasaingo Udalak ere horretan parte hartu zuen. Hurrengo azpi-kapituluan ikusiko dugun moduan, erabaki horrek Beasaingo Udala kargugabetzea ekarri zuen.

[682] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 419-423. or.

[683] *La Constancia,* 1933-11-07koa. Botoak faltsutze hori beste ertzean zegoen Alderdi Komunistak ere salatu zuen. *Euskadi Roja,* 1933-11-11koa.

[684] Goierrin zenbait puntutan abstentzioa oso altua izan zen; hemen ditugu abstentzio tasa altuena eman zuten bi herriak (Zegama eta Gaintza), laugarren eta bosgarren tasarik altuena eman zutenak (Arama eta Beasain; zeinak ezezko tasarik altuena eman zuen) eta Zerainek, Segurak eta Gabiriak ere %10a baino abstentzio handiagoa izan zuten. Rodriguez Ranzen arabera, susmagarria da Ordizian, Zaldibian eta Mutiloan karlistek estatutuari emandako erabateko babes hori.

[685] Arabako eta Bizkaiko datuak Eusko Jaurlaritzaren webgunetik lortu ditut. Hona lotura: http://www.euskadi.net/emaitzak/republica/result_1933_referendum/ref_result_circunsp_1933_c.htm

[686] Datuen iturria ondorengo loturan ikus daiteke: http://www.euskadi.net/emaitzak/republica/result_1933_referendum/ref_result_circunsp_1933_c.htm

or.

1.5 1934ko gertakariak Beasainen

1.5.a) 1933ko hauteskundeak. Eskuineko Gobernu berria

Lehen esan dugun bezala, bai Estatutuaren arazoa zein langile-arazoa asko larriagotu ziren 1934an eskuineko Gobernuak boterea hartzerakoan, izan ere, Gobernu hori errepublikaren aurkako indarren babesaz (*CEDA*) sortua izan baitzen, eta hilabete batzuen ostean, haiek Gobernuan sartu ziren. Hala, atzerakada bat gertatzeko beldurra sartu zen, aurreko biurtekoan lortutako aurrerapen guztiak geldiarazi eta lehenera itzuliko zenaren beldurra, eta are gehiago beste diktadura bat ezartzearen beldurra ere zabaldu zen. Gobernu horren jardunaren ondorioak, Beasainen asko nabaritu ziren 1934. urtean zehar.

Hauteskunde berriak 1933ko azaroaren 17an izan ziren. Hauteskunde horietan, Espainiako Estatuan lehenengo aldiz parte hartu ahal izan zuten emakumezkoek. Beraz, 23 urte beteak zituzten Estatuko herritar guztiek parte hartu ahal izan zuten hauteskunde haietan. Horrek, Gipuzkoako boto-emaileen kopurua bikoiztea ekarri zuen: 1931ko ekainean 73.108 gipuzkoarrek izan zuten botoa emateko eskubidea eta 1933ko azaroan 166.635 gipuzkoarrek bozkatu ahal izan zuten[687]. 1931ko urriaren 1ean Espainiako Parlamentuak emakumezkoei boto-eskubidea ematea erabaki zuen; sozialisten, jeltzaleen eta eskuinaren aldeko botoekin. Errepublikanoak (talde guztietakoak, Azañaren aldekoak, zein Lerrouxen aldekoak, zein besteak) aurka azaldu ziren, izan ere, emakumeak Elizaren eragin kontserbadorearen azpian zeudela uste zutenez, emakumeei boto-eskubidea ematea kontserbadore katolikoei abantaila ematea zela eta "Errepublikaren laikotasuna arriskuan" jarriko zela uste baitzuten. Haien ustez, lehenbizi emakumeak "balio errepublikanoetan hezi" (Elizaren eraginetik atera) behar ziren boto-eskubidea eman aurretik. 1933ko azaroko hauteskunde haietan eskuinak irabazterakoan, errepublikano askok emakumeen botoengan jarri zuen gertaera horren arrazoia; gaur egun, ordea, jakin badakigu aldaketa politiko hartarako beste hainbat arrazoi izan zirela.

Arrazoi horien artean nagusienetakoa, ezkerreko Gobernuaren egoera ahula izan zen eta horren ondorioz atera ziren atera ziren emaitzak. Zentro-ezkerreko gobernuak 1932an eta 1933an zehar, babesa galdu zuen. Egia zen 1931n errepublikaren aurkako eskuindarrek oso boto eta diputatu gutxi atera zituztela, baina laster, Gobernua babesten zuen koalizioa (1930eko uztailean Donostiako Ituna sinatu zutenetik elkartuta jarraitzen zuena) puskatzen hasi zen. Lehen arrakala 1931ko abenduan sortu zitzaion, Lerrouxen alderdiak, *Partido Republicano Radicalak*, Gobernuan parterik ez hartzea erabaki zuenean. Lerrouxek Azaña Gobernuburuari, sozialistek parte hartuko zuten Gobernu batean ez parte hartzeko erabakia helarazi zion, praktikan sozialisten eta bere alderdiaren arteko ultimatum bat planteatu zion Azañari. Lerroux eta bere Alderdi Erradikala errepublikanoen eta sozialisten arteko koalizioaren eskuineko aldea zen, eta alderdi horren eta sozialisten arteko amildegia handituz joan zen. Azañak, zentro-ezkerreko bere programa aurrera eramateko sozialistak aliatu bezala nahiago zituela erabaki zuen (bestalde, bi buruzagi errepublikanoren, Azañaren eta Lerrouxen arteko tira-bira pertsonalak gertatu ziren, biak baitziren errepublikanotasunaren barruan izen handiena zuten buruzagiak).

1932. urtean zehar Gobernuaren ekintzak aurrera joan ahala eta Gobernuak bere programa aurrera eraman ahala, Lerroux eta bere alderdia aurkakotasuna gogortzen eta eskuinerantz biratzen hasi ziren eta zenbait laneko lege eta lege sozialen aurka ugazaben erakundeekin (eskuin monarkikoari oso lotutakoak) elkartzen hasi ziren; oro har Errepublikaren berrikuntzek kalte zitzakeen taldeei hurbiltzen hasi zen Alderdi Erradikala. Oro har, Largo Caballero Lan Ministro sozialistaren lan-erreformen aurka eta Azañaren Gobernuak bultzatu nahi zuen Nekazaritzako Erreformaren (latifundioak nekazaritza-kooperatiben edo lurrik gabeko nekazarien artean banatzeko sistema bat ezarri nahi zuen erreforma) aurka hasi ziren. Beste alde batetik, bai Gobernuaren politika ekonomikoak zein politika laikoak, eskuinaren sektore ezberdinen aldetik aurkako jarrera gogortzea ekarri zuen. Aurkako jarrera horren adierazpenik handiena, 1932ko abuztuan Jose Sanjurjo militarrak gidatuta emandako militarren Estatu-kolpea izan zen.

Alde batetik, egia zen katolikoen artean aurkakotasuna handitzen joan zela, batez ere Gobernuak Jesusen Konpainia (Jesuitak) desegin zuenetik. Aurkakotasun hori, gure lurraldean, Gipuzkoan, proportzioan ordena erlijiosoetako kide gehien zituen Estatuko probintzia izanik[688], asko nabaritu zen; adibidez, Gipuzkoako mezatako asistentzia Espainiakoaren batez bestekoa baino askoz ere handiagoa zen[689] (aurreko atalean azaldu dugu horrek ezkertiarren eta jeltzaleen arteko harremanak apurtu zituela). Gainera, 1931n, Mateo Muxika Gasteizko gotzain idiazabaldarra jaiotzez baina Beasainen hazia botatzeak

---

[687] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 408-409. or.

[688] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 408-409. or. Rodriguez Ranzen arabera, Gipuzkoak, populazioaren arabera, Espainiar Estatuko 38. probintzia zenak, gizonezkoen komunitate erlijiosoen hirugarren kopururik handiena zuen, emakumezko erlijiosoen komunitateen artean bosgarren kopururik altuena, fraideetan laugarren kopururik altuena (1.142) eta mojen laugarren kopururik altuena (2.649).

[689] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 233. or. Rodriguez Ranzen arabera, eskola erlijiosoetan matrikulatutako umeen ehunekorik handiena zuen probintzia zen Gipuzkoa.

ere, katoliko euskaldun askoren sentimenduak mindu zituen. Urte hartan, Ezkioko Ama Birjinaren ustezko agerpenak eta hara egindako prozesioek eta erromesaldiek sentimendu katolikoa suspertu egin zuten eta oposizioko alderdiek Gobernuaren kontra politizatu nahi izan zuten. Baina egia da halaber, Gipuzkoan eta Hego Euskal Herrian, bi alderdi katoliko (EAJ eta karlistak) oso garrantzitsuak baziren ere, Espainian, alderdi katolikoek gutxiengoa osatzen zutela eta Parlamentuan oso indar gutxi zutela (politikoki antolatzen hasiak baldin baziren ere). Halako sektore askok 1932ko Sanjurjoren Estatu-kolpea babestu ondoren, halako eskaerak ordukoz behintzat jokoz kanpo gelditu ziren (gainera kontuan izan behar da Hego Euskal Herriko alderdi katolikorik handiena, EAJ, Errepublika onartzearen alde zegoela eta ez hura uzkailtzearen alde).

Bestalde, Frantzisko Largo Caballero Lan Ministro sozialistaren lan-erreformek, jakina denez, langileen hobekuntza helburu bazuten ere, nahiko aurkakotasun ere piztu zuten. Largo Caballerok ezarritako erreformen artean, lan-negoziazioetan sindikatuei indarra ematea, hitzarmen kolektiboen legea berritzea, ordaindutako oporraldia izatea, gizarte-segurantzaren hastapen bat (osoa ez bazen ere, lan-istripuak estaltzea, lehen Beasainen ikusi ditugun kasuetan bezala) eta lan-harremanak bideratuko zituzten Batzorde Mistoen legea (enpresarien zein langileen kopuru berdinez osatutako enpresetako Batzorde Mistoek lan-egutegia, lan-arauak eta abar erabakitzeko boterea zuten) onartu zituzten. Lege horiek eskuineko alderdietatik eta enpresarien elkartetik aurkakotasun handia izan zuten, haiek lege sozialen aurkakoak zirelako; baina baita komunisten eta anarkisten partetik ere, UGT sindikatu sozialista puzteko eta langile-klasea Estatuaren mendeko bihurtzeko tresna gisa ikusten zituztelako, "Estatu korporatibo" baten aurrerapauso gisa.

1932an zehar, ezkerreko Gobernuak nolabait ere oposizioa kontrolatzen, erreformak bidean jartzen eta bere jarrera sendotzen jakin izan zuela ematen zuen. Baina 1933an, arrisku horiek denak berriz ere hazi egin ziren. Alde batetik, krisi ekonomikoa larriagotzeak, langabezia handitu egin zuen, eta lanean zebiltzanen soldatak txikiagotu; horrekin, praktikoki, Largo Caballeroren legeak eta erreformak eragin gabe utziz. Horrek, 1933an greba-kopurua eta istilu-kopurua handitu egin zuen. Beste alde batetik, Gobernu ezkertiarrak anarkisten grebetan langileen kontrako errepresio bortitza erabili zuen (hildakoak maiz gertatzen ziren), istiluak handitu egin ziren eta iritzi publikoan, batez ere Gobernuaren alderdien aldekoen artean, egonezin handia sortu zuen (Guardia Zibila, grebetan langileen etsai tradizionala zena, "norbere" alderdiak beste joera bateko langileen aurka erabiltzea, ezin zuten ondo ikusi sozialista askok), ezagunena, 1933ko urtarrilean Kadizko Casas Viejaseko greba anarkistaren kasua dugu, non Guardia Zibilak, hogei bat pertsona hil zituen. Errepublikaren irudia asko kaltetu zuen hilketa horrek, "burgesen beste Gobernu" bat zela zioen ezkerraren aburuz eta "Gobernatzen ez zekien Gobernua" zioen eskuinaren aburuz.

Halako istiluen eta bortizkeriaren igoerak, beste arazo bat ere berpiztu zuen berriro. Eskuineko alderdiek, bai Lerrouxen alderdi errepublikano eskuindarra zein errepublikaren aurkako eskuin katolikoa "ordena berrezartzeko" aukera bezala euren buruak aurkezten hasi ziren. Bestalde, Elizak eta katolikoek, zetorren istilu-zikloa Espainiaren "katolikotasuna galtzearekin" lotu zuten. Gobernuak alde batetik "Eliza" eta bestetik "jabetza" (nekazaritza- eta lan-erreformen bitartez) "erasotzen" zituela lotu zuen eskuinak eta horren propaganda bortitza egin zuen. Eta beste ertzean, berriz, ezkerrean, anarkisten aipatutako aurkakotasunaz gain, sozialistak ere pixkanaka Gobernutik aldenduz joan ziren, langile-gatazkei aurre egiteko modu bortitzak deseroso sentiarazten zituenez (azken finean, sozialisten giza oinarria langile-klasean zegoen) eta beste alde batetik, Errepublikaren aldetik "gutxiegi" lortu zutenaren ustea ere nagusitzen joan zen haien artean (sozialistek Errepublika ez zuten helburu gisa ikusten, sozialismoa lortzeko tresna gisa baizik). Sozialisten arteko barne-tirabiretan, errepublikanoekin ituna puskatzearen aldeko sektorea nagusitu zen, batez ere Gobernuan jarraitzeak, alderdiaren giza oinarria desatsegin jar zezakeelako.

Gauzak hala, Azañak 1933ko irailean dimititu egin zuen (hiru lurraldeetarako Euskal Estatutua azken txanpan sartuta zegoenean), eta alderdi errepublikano ezberdinak Gobernu berri bat adosteko gai izan ez zirenez, azaroaren 19rako hauteskunde berriak deituak izan ziren.

Emakumezkoen botoez gain, hauteskunde horiek 1931ko hauteskundeekiko beste berrikuntza bat ere izan zuten: 1933ko uztailaren 27an beste dekretu bat atera zen, non barruti batean, hautagairik bozkatuenak, gutxienez ere botoen %40 izan behar zituen eta gainerakoek gutxienez ere %20 izan behar zituzten diputatu gisa lehen itzulian izendatuak izateko. Hautagaitzarik bozkatuenak botoen %40rik lortzen ez bazuen edo besteek %20rik lortzen ez bazuten, barruti horrek bi asteren buruan hauteskundeen bigarren itzulia egin beharra izango zuen[690].

Gipuzkoan ere zatiketa hori handitu egin zen. 1931n hiru hautagaitza bakarrik aurkeztu baziren, 1933an sei hautagaitza aurkeztu ziren: sozialistak, errepublikanoak, eskuina, jeltzaleak, Eusko Abertzale Ekintza eta Alderdi Komunista. Eskuindarren

[690] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 423-424. or.

or.

eta jeltzaleen arteko apurketa normala zen, aurreko bi urteetan batzuen eta besteen bideak erabat bereizi zirelako. Jeltzaleek Errepublikaren onarpenera jo zuten, eskuindarrek aldiz bai Estatutuaren zein Errepublikaren aurka egitera. Baina beste alde batetik, ezkerren artean ere zatiketa izan zen. Kasu horretan ez zen arraroa izan, azken bi urteetako Gobernu-esperientziak, batez ere helburu ezberdinak zituzten alderdien artean zatiketak eragin zituen; bai errepublikano eta sozialisten artean, zein errepublikanoen talde ezberdinen artean. 1930eko Donostiako Itunarekin hasi zen eta 1931n jarraipena izan zuen ituna, jada agortuta zegoen. Beraz, sozialistak eta errepublikanoak hautagaitza ezberdinetan joan ziren. Gipuzkoan, hala ere, talde errepublikano ezberdinek hautagaitza bateratua egitea lortu zuten, nahiz eta Espainian alderdi horien arteko harremanak oso txarrak izan. Izan ere Gipuzkoan, errepublikanoek euren aldetik zuten indar txikia (hirietan eta herri handietan soilik zuten pisua, eta 1931ko udal-hauteskundeetan zinegotziak eta alkatetzak lortu bazituzten, hein handi batean euren orduko aliatu sozialisten botoak zirela-eta lortu zituzten), batasun horri eusteko arrazoi bat, eta ez txikia, izan zitekeen. Alderdi Sozialista bakarrik joan zen, kasu horretan inolako bidaiderik gabe. Hautagaitzen zerrenda itxiz, Eusko Abertzale Ekintza eta Alderdi Komunista, biak aukerarik gabe (azken honek bere zerrendetan Urretxun jaio eta Beasainen hazitako Jesus Larrañaga aurkeztu zuen).

1931n batera joan ziren eskuindarren eta jeltzaleen arteko talkak bi gune izan zituen: Estatutua eta erlijioa, lehenean bi hautagaitzen artean desadostasun sakona piztu zelako, eta bigarrenean, biek Gipuzkoan oso indartsu zen gai bat berenganatu nahi zutelako. Eskuindarren hautagaitzak *Eskuindarren Batasuna* (gazteleraz, *Unión de Derechas*) izena izan zuen eta batez ere karlistez osatua izan zen: lautik hiru karlistak baitziren: Agustin Telleria, Antonio Pagoaga eta Maria Rosa Urraca Pastor bizkaitarra. Monarkiko alfontsotarren *Unión Regionalista Guipuzcoana*k (*Renovación Española* alderdiaren parte) Ramiro Maeztu arabar filosofo ezaguna aurkeztu zuen. Azken bi horiek gipuzkoarrak ez izateak gipuzkoar karlismoaren sektore batzuetan ezinegona piztu zuen[691]. EAJk bestalde, bi aste lehenago izan zen Estatutuaren aldeko erreferenduma bere alde kapitalizatzeko aukera ikusi zuen. Gipuzkoako EAJk "Estatutuaren alde zeuden indar guztiak hautagaitza batean joatea" proposatu zuen, eskuinarekin zein ezkerrarekin bat eginez, baina beste alderdiek ezezkoa eman zioten gonbidapen horri[692] (EAJ eta Lerrouxen jarraitzaileen arteko koalizio "zentrista" baten posibilitateez ere hitz egina zen)[693]. EAJk, orduan, bere hautagaitza propioa aurkeztu zuen, bost hautagaiz osatua: Leizaola eta Pikabea diputatuez gain, Manuel Irujo nafarra, Telesforo Monzon gerora ezaguna egingo zen politikari bergararra eta Joan Antonio Irazusta agertzen ziren[694]. Estrategia arriskutsua zen, boto-emaile bakoitzak lau hautagai soilik aukera zitzakeelako, eta beraz, lau hautagaitik gora aurkezteak bozka hautagai ezberdinen artean zatitzea eta hautagai horiek kanpoan gelditzea ekar zezakeen.

Eskuindarrek eta jeltzaleek Elizaren eta bere ordezkarien aldekotasuna lortzeko gogor borrokatu zuten. Eskuindarrek "Errepublika laikoa" desegitea lehen helburu gisa jarriz "katoliko" izendapenaren monopolioa lortzea zuten helburua, "hautagaitza benetan katolikoa" eurak zirela esanez, eta besteak "katolikoen etsaiak" edota etsaien "laguntzaileak" zirela esanez (horren atzean EAJren deslegitimazioa zegoen)[695]. Hala ere, eskuinak, Errepublika/Errepublika-aurkako lehia horretan ez zuen lortu Eliza eta Elizaren ordezkariak berak nahi bezala inplikatzerik, izan ere, Mateo Muxika Gotzainak (Gotzain bat eta bera zuten Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan) ez baitzuen hautagaitza jakin baten aldeko botorik eskatu[696]. Bestalde, Elizari eta katolikotasunari gehien lotutako egunkari gipuzkoarrak, *El Día*k, hauteskunde horietan jeltzaleen aldeko jarrera argia izan zuen[697].

Bestetik jeltzaleen aldetik, Estatutuaren defentsan zentratu zuen bere kanpaina EAJren hautagaitzak. Alde horretatik, 1931ko ekainean "Estatutuaren Defentsarako Euskal Hautagaitzaren" antzeko estrategia erabili zuen, hau da, hautagaitza bat Estatutuaren kausaren defendatzaile bakar bezala agertuz. Alde horretatik, estrategia horrek EAJren alde oso lan ona egin zuen eta EAJren boto-kopurua handitzeko oso baliagarria izan zen. Beste alde batetik, EAJk *Eskuindarren Batasunaren* aurka

691 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 427-428. or.

692 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 429-432. or. Rodriguez Ranzen arabera, proposamen hori hasieratik zegoen porrotera emana, beraz agian hautesleriari begira eginiko estrategia izan zen.

693 FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 106. or.

694 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 432. or.

695 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 452-457. or.

696 Mateo Muxikaren jarrera horrek biziki haserretu zituen eskuindarrak. Kontuan hartu behar dugu Idiazabalen jaio eta Beasainen hazitako gotzainak, bi aste lehenago burutu zen Estatutuaren erreferendumean baiezko botoa eskatu ez zuen arren, "arau katolikoen arabera, baietz bozkatzea zilegi zela" esan zuela, eta berak, pertsonalki, botoa eman zuela. Muxikak, 1931ko ekainean "katolikoen alde" botoa emateko deia egin zuen, baina orduan eskuindarrak eta jeltzaleak batera zeuden hautagaitza bakarrean.

697 RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 427-428. or.

zentratu zituen erasoak (haiek bere aurka egin bezala), "Estatutuaren etsaiak" zirela esanez (beste hautagaitzak "Estatutuaren inguruko oportunistak" soilik ziren), eta euren katolikotasuna monopolizatzeko estrategia, "erlijioaz abusatzea" zela esan zuten. EAJk eskuindarren argudioa beren aurka itzularazi nahi izan zuen, esanez, Gipuzkoako alderdi katoliko nagusia eurak baziren, beste "alderdi katolikoak" (*Eskuindarren Batasuna* kasu horretan) "laikoen laguntzaileak ziratekeela"[698]. Eskuinaren eta jeltzaleen arteko beste marruskadura-puntu bat, eskuinak jauntxoen partetik zuen babesa izan zen. Lehen kapituluan esana dugun bezala, azken mendeetan, baserri-guneetan, Goierrin ere bai, baserritar asko, zorrak tarteko, euren lurrak edota baserria jauntxoei saltzera behartuak gertatu ziren, hala eurak eta beren ondorengoak, errenta ordaintzearen truke maizter bihurtuz. Abertzaleek, *Euzko Nekazari Bazkuna* nekazaritzako sindikatuaren bitartez, nekazariak eta tartean maizter horiek defendatzen saiatu ziren, baserritik botatzearen aurka joz. Hala, eskuinak "jabetza pribatuaren" aldeko propaganda egiten zuen, abertzaleek hura ez zutela defendatzen esanez. Afera horren punturik dramatikoena, jauntxo batzuk, eskuinaren jarraitzaileak izanik, botoa hautagaitza horri eman ezean baserritarrak mehatxatzen zituztenean gertatzen zen. Horixe gertatu zen gure eskualdean ere, Lazkaoko Infantadoko Dukeak eskuindarren hautagaitza bozkatu ezean bere maizterrak mehatxatu egin baitzituen[699].

Ezkerren artean, errepublikanoak eta sozialistak erabat urrunduta agertu ziren oraingoan, 1931ko koalizioa errepikatzeko aukerarik gabe. Bestalde, errepublikanoen artean, Azañaren jarraitzaile ziren zentro-ezkerreko alderdi ezberdinak eta Lerrouxen jarraitzaile zen zentro-eskuineko Alderdi Erradikala ere, euren artean asko urrundu ziren. Eta beste alde batetik, sozialistek urrian bertan Gipuzkoako gestora uztea erabaki zuten (jada Estatutua bideratua zegoen, beraz ez zuen askorik eragin horretan). Beraz, ezkerreko errepublikanoek (Azañaren aldekoek) sozialistekin koalizioa egin nahi zuten arren[700], sozialistek bide hori ukatu egin zieten, nahiko etsita irten ziren-eta errepublikanoekin izandako Gobernu-elkarlanetik. Gainera, euren barne-erradikalizazioak beste helburu batzuk finkatzera (sozialismora heltzera) eraman zituen eta horrek errepublikanoekin bat egitea ezinezko bihurtu zuen. Sozialistak proiektu zen elkargo horretatik ateratzeak, Gipuzkoako sektore errepublikano guztien artean koalizioa egitea erraztu zuen eta azaroaren 10ean iragarri zuten elkartze hori. Lau hautagaiak, Joan Usabiaga Laskibar ordiziar zinegotzi-ohia eta 1931n diputatu aukeratua (Alderdi Erradikaletik), Nikolas Bizkarrondo "Bilintx" bertsolariaren iloba (Azañaren aldeko Acción *Republicana* alderditik), Manuel De la Torre (Alderdi Federaletik[701]) eta Jose Migel Gomendio (Gipuzkoako Elkarte Errepublikanoen Federaziotik) izan ziren. Akordio horrek, Espainian alderdi errepublikano ezberdinen arteko harremanak nolakoak ziren kontuan izanda, tirabira handiak eragin zituen errepublikanoen artean, nahiz eta hautagaitza bakarra osatzeko gai izan[702].

Sozialistek bestalde, urriaren 15ean Gipuzkoan hauteskundeetara bakarrik joateko erabakia iragarri zuten, beraz errepublikanoekin edozein itun egitea ere baztertu egin zuten. Sozialisten erabaki hori barneko kontraesanen emaitza izan zen, hau da, errepublikano burgesekin itun oro hausteko ildoa alderdiaren baitan nagusitzearen emaitza. Gipuzkoako Alderdi Sozialistaren hautagaitza osatzen zutenak, Endrike De Frantzisko diputatu tolosarra, Toribio Etxebarria eibartar gidari historikoa eta euskal idazlea, Julia Alvarez eta Federico Angulo izan ziren[703]. Sozialistak eta eskuindar hautagaitza izan ziren, emakumezko hautagai bana aurkeztu zuten hautagaitza bakarrak. Bestalde, beste antzekotasun bat ere izan zuten eskuindar hautagaitzarekin: gipuzkoarrak ez ziren hautagaiak aurkeztea, kasu horretan Julia Alvarez nafarra[704]. Duela hilabete gutxi arte Gobernua elkarbanatzen zuten bi hautagaitzek hauteskunde horietan mezu zeharo desberdinak zabaldu zituzten: errepublikanoek indarrean zegoen II. Errepublikaren aldeko defentsa egin zuten, eta "bi arriskuak", hots eskuineko diktaduraren edota monarkiaren eta ezker sozialistaren iraultza parekatu zituzten, euren burua demokrata bakartzat aurkeztuz, "diktadura zuriaren" edota "diktadura gorriaren" aurka. Horrez gain "gipuzkoar ekonomiaren" defentsa egin zuten, Joan Usabiaga diputatu eta hautagai ordiziarrak Gipuzkoako enpresen eta gure lurraldeko ekonomiaren alde egindako bitartekaritza-kudeaketak nabarmenduz. Beraz, klaseetatik at gelditzen zen mezu bat zabaldu zuten. Sozialistek ordea, II. Errepublikaren hasierako urteetan izandako ordena berriaren identifikazioa ahaztuta, askoz ere terminologia marxistagoa erabili zuten ("sozialismoa", "errepublika burgesaren

[698] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 459-464. or.

[699] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 28. or.; eta El Día, 1933-06-18koa.

[700] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 435. or.

[701] Alderdi hori nahiko txikia zen, baina Gipuzkoan bazuen nahiko indar, hainbeste izan ere, ezen Fernando Sasiain Donostiako alkatea alderdi horretakoa zela.

[702] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 436-437. or.

[703] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 437-438. or.

[704] Federico Angulo Vazquez Salamancan jaioa bazen ere, 1930etik aurrera Donostian bizitakoa zen.

aurka", "boterea proletalgoarentzat"). Beraz, bi aukera horiek inoiz baino urrunduago egon ziren[705]. Bi hautagaitza horien arteko arerio-giro horretan, Gipuzkoako egunkari ezkertiarra zen *La Voz de Guipúzcoa*k hautagaitza errepublikanoaren alde egin zuen erabat, sozialisten aurka eginez eta haien protestak ozenduz[706].

Komunistek Jesus Larrañaga urretxuar beasaindartua aurkeztu zuten. Gipuzkoar komunista ezagunarekin batera, Joan Astigarribia pasaitarra eta Luis Zapirain eta Rikardo Urondo donostiarrak aurkeztu zituzten. Komunistak garai hartan II. Errepublikarekiko, haren erakundeekiko eta haren alde zeuden alderdiekiko ere erabateko aurkakotasuna erakutsi zuten eta horixe erakusten saiatu ziren kanpainan zehar. Hala, beste alderdi guztien aukako kanpaina egin zuten, bai ezkerrekoen zein eskuinekoen aurka; "Langileen eta Nekazarien Gobernuaren alde". Alderdi Komunistak, sozialisten demagogia kritikatu zuen, aurreko bi urteetan Gobernuan izaki, "errepresioaren gaizkide" izan zirelako[707]. Alderdi Komunistak Gipuzkoa osoan, eta Goierrin ere bai, kanpaina egin zuen, bere hautagai nagusiaren jatorria bertan zegoen-eta[708]. Eusko Abertzale Ekintzak, ordea, Estatutuaren aldeko hautagaitza bakarra aurkeztea helburu bazuen ere (EAJrekin bat eginez), azkenean, asmo horiek ez gauzatzean, hautagai bakarra aurkeztu zuten, EAEk Gipuzkoan zuen indar txikia ikusita. Hautagai hura Jose Imaz Arrieta izan zen. Bestalde, gipuzkoar bakoitzak lau izen bozka zitzakeenez, Joan Usabiaga eta Nikolas Bizkarrondo errepublikanoentzako eta Jesus Maria Leizaola jeltzalearentzako botoa ere eskatu zuten. EAEren helburu nagusia, alderdia ezagutaraztea zen, hauteskundeetan bazterrean gelditzeko arriskua alboan utzita[709].

1931ko ekainekoarekin konparatuz (gogora dezagun Bergaran hildako bat izan zela), hauteskunde-kanpaina lasai samarra izan zen. Horrek ez du esan nahi bortizkeriazko pasadizorik izan ez zenik. Bestalde, Antzuolan, karlistek adin txikikoak ziren boto-ikuskatzaileak erabili zituztela ere salatua izan zen[710]. Hala ere, guztiz lasaia izan zenik ere ezin dugu esan, Frantzisko Cuenca militante komunistak, Jose Antonio Egidori kontatutako testigantzaren arabera "Larrañagarekin batera Goierri osoan egin nuen kanpaina. Guk gurekin pistola generaman, istilurik gertatzen bazen ere"[711]. Ordizian mitin karlista bat izan zenean, herritarrek, abertzaleek zein ezkertiarrek, Urraca Pastor hizlari karlista iraindu zuten eta bere hitzak abesti abertzaleekin batzuek, eta Internazionalarekin besteek, moztu zituzten; hizlariak ikusleak ere iraindu zituen. Guardia Zibilak hizlaria babestu behar izan zuen[712].

Azaroaren 19an, eguraldi oneko egunean, 130.098 gipuzkoarrek eman zuten botoa, %78,07k, beraz, 1931n baino gutxiagok proportzioan (orduan, gizonezkoek soilik eman zezaketen botoa eta %85,56k eman zuten). Parte-hartzea, bai Donostian, zein herri handietan eta txikietan antzeko samarra izan zen. Jose Antonio Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, EAJk 58.041 herritarren babesa lortu zuen (%45,13), *Eskuindarren Batasunak* 32.025 herritarrena (%24,76), Alderdi Sozialistak 20.414 herritarrena (%15,77), Koalizio Errepublikanoak 14.122 herritarrena (%10,91), Alderdi Komunistak 2.330 herritarrena (%1,80) eta Eusko Abertzale Ekintzak 2.106 herritarrena (%1,63). Sei hautagaietatik, bost jeltzale izan ziren aukeratuak: Jesus Maria Leizaola (56.449 boto), Telesforo Monzon (45.923 boto), Manuel Irujo (45.742 boto), Joan Antonio Irazusta (45.427 boto) eta Rafael Pikabea (42.636 boto). Seigarrena eskuindar bat izan zen aukeratua, Ramiro Maeztu (32.320 boto). Azken hori ozta-ozta izan zen aukeratua, bere hautagaitzako kide zen Antonio Pagoaga karlistak 32.055 boto lortu baitzituen (beste biek gutxixeago lortu zituzten; Agustin Telleriak 31.708 boto eta Maria Rosa Urraca Pastorrek 31.618 boto)[713]. Inguruabar horrek haserrea piztu zuen karlisten artean, izan ere, eskuindarren artean karlista ez zen hautagai bakarra izan zen aukeratua. Maeztu bera babesten zuen alderdia, *Unión Regionalista Guipuzcoana*, Gipuzkoan oso txikia zen eta karlistek euren botoak eurena ez zen hautagai bat aukeratzeko eman izanaren atsekabea izan zuten. Prentsa karlistan salatu egin zen monarkiko alfontsotar gipuzkoarrek Maezturen izena soilik markatzen zutela, beste hiru hautagaiak kanpoan utziz, leialtasun-falta gisa salatu zuten gertakari hori[714]. Beste hautagaiak oso urrun gelditu ziren: hautagai sozialista bozkatuena Endrike De Frantzisko tolosarra izan zen, baina ez zuen diputatu gisa errepikatzerik izan (21.596 boto lortu zituen). Joan Usabiaga ordiziarra izan zen errepublikanorik bozkatuena

[705] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 464-469. or.

[706] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 446-468. or.

[707] Komunisten hauteskundeen aurreko planteamenduari buruzko informazio gehiago honako argitalpen hauetan: *Euskadi Roja,* 1933-10-28koa; *Euskadi Roja,* 1933-11-04koa; *Euskadi Roja,* 1933-11-11koa eta *Euskadi Roja,* 1933-11-18koa.

[708] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 61. or.

[709] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 438-440. or.

[710] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 475. or.

[711] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 61. or.

[712] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 28. or.

[713] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2 zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 479. or.

[714] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 482-483. or.

15.698 botorekin (horrek ere ez zuen errepikatzerik izan). Alderdi Komunistan, nabarmenena Joan Astigarribia pasaitarra izan zen 2.381 botorekin (Jesus Larrañaga goierritarrak 2.349 boto bildu zituen). Azkenik, Eusko Abertzale Ekintzako Jose Arrietak 2.116 boto[715].

EAJren garaipena, ikusten denez, erabatekoa izan zen. Alde batetik, hauteskunde-sistemarekiko erabateko nagusitasuna erakutsi zuen, bost hautagai (boto-emaile bakoitzak lau soilik aukera zitzakeenean) aukeratuak izatea lortu baitzuen, kontuan hartuz hautagai batek behintzat emandako botoen %40 lortu beharra zuela (Leizaola izan zen langa hori gainditu zuen hautagaia, bere aldeko botoak beste hautagai jeltzaleenak baino 9.000 gehiago izan ziren)[716]. Egia da botoen %45ekin seitik bost diputatu lortzeak hauteskunde-sistemaren injustizia nabarmen zezakeela, baina egia da halaber, EAJk Gipuzkoako 89 udalerrietatik 75etan alderdirik bozkatuena izatea lortu zuela, Eskubien Batasunak 12tan eta Alderdi Sozialistak 2tan soilik (Eibarren eta Irunen) lortu zuten bitartean[717].

EAJk, Donostiaz gain, herri handietan (Jose Antonio Rodriguez Ranzek hala definitutako 18tatik 15etan garaitu zuten jeltzaleek, botoen %44,83rekin; aipatutako Eibar eta Irunez gain, Ordizia gelditu zen eskuinaren esku), zein ertainetan (botoen %62,28) zein txikietan (%60,40) irabazi zuen. Eskuinak herri txikietan botoen %28,53 soilik lortu zuen, herri ertainetan %26,81, herri handietan %24,41 eta %22,71 Donostian. Eskuinaren indarra, batez ere Gipuzkoako hegoaldean zegoen, gailendu zen 12 herrietatik 11, Goierrin edo Tolosaldean baitzeuden. Ezkerreko hautagaitzen kasuan sozialistak errepublikanoak baino gehiago izan ziren Donostian, herri handietan eta ertainetan; baina ez herri txikietan. Horrek, praktikoki, sozialistak Gipuzkoako hirugarren alderdi bezala ezarri zituen. Esan beharra dago baita ere, ezkerreko hiru hautagaitzak batera joanez gero, %30 bat lortuko zuketela, 1931n baino askoz ere gutxiago (%42 lortu zuten orduan) baina askoz ere egoera txarragoan lehiatu ziren oraingoan, zatituta eta 1931n bezala Errepublika berria defendatzeko ilusiorik gabe. Azken finean, Gipuzkoako hautesleriak, hauteskunde horietan, erregimen errepublikanoa defendatzearen aurretik beste lehentasun batzuk izan zituen, adibidez Estatutuaren alde egitea. Estatutuaren afera hori eta baita moderazioaren aldeko hautua ere (hau da, Errepublika uzkailtzearen alde egon gabe, baserritarren eguneroko arazoak, adibidez maizterrak etxetik botatzearen aurkako kanpaina)[718].

EAJren 1933ko garaipenak, Gipuzkoan 1931-1933 biurtekoan izan zuen hazkunde handia islatu zuen. Irudian, 1933an Donostian ospatutako Aberri Eguna.
(Argazkia: Beasaingo Batzokiko argazki-bildumakoa)

[715] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 479. or. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, EAJren bost hautagaiek, denek batera 236.177 boto lortu zituzten, Eskubien Batasunaren lau hautagaiek 127.701 boto, Alderdi Sozialistaren lau hautagaiek 81.560 boto, Koalizio Errepublikanoaren lau hautagaiek 55.327 boto eta Alderdi Komunistaren lau hautagaiek 9.365 boto.

[716] Egia da Eusko Abertzale Ekintzak Leizaolaren aldeko botoa ere eskatu zuela, baina 2.000 boto soilik izan zituen alderdi horrek, beraz, beste 7.000 EAJk bere afiliatuei ezarritako estrategiatik etorri ziren.

[717] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 484. or.

[718] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 486-492. or.

or.

HERRIA	EAJK		ESKUINAK		PSOEK		ERREPUBLIKARREK		PCEK		EAEK		PARTE-HARTZEA
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	
Altzaga	65	73,86	13	26,13	0		0		0		0		%78,57
Arama	23	37,70	38	62,29	0		0		0		0		%82,43
Ataun	710	71,07	275	27,52	3	0,30	11	1,10	0		0		%75,68
BEASAIN	**726**	**36,85**	**523**	**26,54**	**482**	**24,46**	**231**	**11,72**	**7**	**0,35**	**1**	**0,03**	**%73,16**
Ezkio	186	90,73	6	2,93	0		5	2,44	0		0		%77,65
Gabiria	292	82,02	28	7,86	2	0,56	34	9,55	0		0		%79,11
Gaintza	34	25,37	84	62,68	0		16	11,94	0		0		%77,01
Idiazabal	365	63,92	120	21,01	3	0,52	80	14,01	0		3	0,52	%78,43
Itsaso	103	65,60	42	26,75	1	0,64	11	7,01	0		0		%69,16
Itsasondo	188	57,84	124	38,15	11	3,38	2	0,61	0		0		%84,71
Lazkao	435	67,65	170	26,43	13	2,02	25	3,89	0		0		%79,28
Legorreta	210	66,87	71	22,61	31	9,84	2	0,64	0		0		%77,91
Mutiloa	114	56,43	86	42,07	3	1,48	0		0		0		%76,51
Olaberria	118	51,75	99	43,42	9	3,85	2	0,88	0		0		%79,44
Ordizia	608	34,68	654	37,30	198	11,29	222	12,66	0		71	4,05	%76,56
Ormaiztegi	186	62,00	70	23,33	17	5,62	26	8,67	0		1	0,33	%72,53
Segura	280	50,81	249	45,19	1	0,18	20	3,63	0		1	0,18	%83,86
Zaldibia	262	42,39	351	56,79	0		5	0,81	0		0		%77,34
Zegama	175	21,65	589	72,89	0		44	5,44	0		0		%73,53
Zerain	158	73,83	55	25,70	0		1	0,47	0		0		%73,88

Goierrin ere antzerako emaitzak ikusten ditugu. Gure eskualdeko 20 herrietatik 15etan EAJ izan zen lehen alderdia, eta Eskubien Batasuna 5 herritan nagusitu zen. Jeltzaleek 5.238 boto atera zituzten gure eskualdean, Goierriko kopuru osoaren erdiak, eta eskuindarrek 3.647 (%37,80). Oso atzean gelditu ziren sozialistak eta errepublikanoak, hurrenez hurren 774 (%7,38) eta 737 (%7,03) boto atera baitzituzten. EAEren eta komunisten boto-kopurua sinbolikoa izan zen. Herriz herri joanez gero, EAJk alkatetzak zituen 12 herrietatik 10etan irabazi zuen, eta bost berri "lortu" zituen, tartean, Beasain. Gure herrian, ezkerraren gotorlekuan, 726 bozka lortu zituen, %36,8; eskuinak 523 (%26,5) lortu zituen bitartean. Ezkerreko hautagaitzentzat, eta batez ere indar handia zuen Alderdi Sozialistarentzat porrot handia izan zen, izan ere hirugarren gelditu baitziren 482 botorekin (%24,4), errepublikanoek 231 (%11,72) lortu zituzten bitartean. Ezkerreko lau hautagaitzak batuta ere ez ziren EAJren emaitzetara iritsi, 721 boto lortu baitzituzten (%36,6). Emaitza horiek erakusten dute 1931ko maiatzeko ezkerraren erabateko garaipenak Beasainen ezkerrak zuen indar handia erakutsi bazuen ere, benetan ez zela emaitzak erakutsi zuena adinakoa, bai orduan EAJ aurkeztu ez zelako, eta baita testuingurua orduan ezkerrarentzat oso aldekoa zelako ere (hala ere akats bera izan liteke 1933ko emaitza horiek, ezkerrak oso testuinguru txarra zuenean izandakoak, Beasaingo emaitza finkatu moduan hartzea). Esan bezala, EAJk garaipen handia izan zuen, Beasain bera ere lortuta, baina Ordizian (non alkatetza zuen) galdu egin zuen, Zaldibian bezala. Jeltzaleek garaipena izandako bost herri berriak, Beasain ezkertiarra eta "independenteek" alkatetza lortu zuten Itsaso kenduta, Legorreta, Ormaiztegi eta Segura izan ziren (hirurak eskuinekoak). Eskuinak garaipena lortutako bost herrietatik hiru, Arama, Gaintza eta Zegama, Estatutuaren erreferendumean oso parte-hartze txikia izandako herriak izan ziren. Hirurak eskuineko alkateak zituztenak. Hala ere, eskuineko alkateak zituzten beste hiru herrietan, Idiazabalen, Legorretan eta Seguran ez zuen garaipenik lortu, baina Zaldibian eta Ordizia garrantzitsuan irabaztea lortu zuten. Ezkertiarrei dagokienez, oro har oso emaitza txarrak izan zituzten. Lehengo lerrokadan aipatu dugu sozialistek errepublikanoek baino emaitza hobeak izan zituztela herri handi eta ertainetan, baina txarragoak herri txikietan. Goierrin, zenbait ñabardurekin, eskema hori jarraitu zuten hauteskunde horietan, sozialistek Beasainen, errepublikanoek baino 250 boto gehiago lortu zituzten eta beste lau herritan soilik izan zituzten errepublikanoek baino boto gehiago (Ordizian, Lazkaon eta Idiazabalen gutxiago izan zituzten). Sozialistak, Beasaindik kanpo, Ordizian soilik gainditu zuten %10a (%11,20), Legorretan gertu ibili baziren ere (%9,84). Horrez gain, beste herri bakar batean, Ormaiztegin, gainditu zuten %5eko langa. Errepublikanoei dagokienez, lau herritan gainditu zuten %10eko langa: Beasainen, Gaintzan, Idiazabalen eta Ordizian; beste hirutan, Gabirian, Ormaiztegin eta Zegaman %5ekoa gainditu zuten. Aipagarria izan zen hautagaitza horrek Gabirian bigarren indarra izatea lortu zuela, eskuindarren aurretik.

Hego Euskal Herrian ere, ezkerraren desastrea sekulakoa izan zen: bi diputatu soilik lortu zituzten, biak Bilboko barrutian, eta kontuan izan pisu handiko hautagaiak (Manuel Azaña eta Indalezio Prieto) aurkeztu zituztela. Garaipena EAJrena izan zen, Bilbon lau diputatu lortu baitzituen, Bizkaiko herrialdean bi eta Araban bat (nahiz eta hemen galdu). Beraz, hamabi diputatu lortu zituen EAJk. Eskuinak, Gipuzkoan lortu zuenaz gain, Araban beste bat, Bizkaian beste bat eta Nafarroako zazpiak lortu zituen, han jokoan ziren guztiak. Beraz, guztira hamar diputatu euskal zerrenda eskuindarren aldetik: sei karlista, monarkiko-alfontsotar bat (Maeztu), *CEDA*ko bat eta bi independente[719].

Espainian ere garaipena, eskuindar indarren aldekoa izan zen, ezkertiar indarren hondoratzea gertatu zen heinean. Alderdirik bozkatuena *CEDA* (*Confederación Española de Derechas Autónomas* edo Eskuin Autonomoen Espainiako Konfederazioa) alderdi eskuindar katolikoa izan zen, 115 diputatu lortuta, Lerrouxen Alderdi Erradikalak hurbiletik jarraitu zion (104 diputatu). Horrez gain, are eskuinerago zeuden beste alderdi eta koalizioek beste 60 diputatu lortu zituzten. Alderdi Sozialista hirugarren indarra izan zen, baina 59 diputatu soilik lortuta. Zentro-ezkerreko alderdi errepublikanoek, Azañaren jarraitzaileek, sekulako porrota jaso zuten, denen artean 20 bat diputatu soilik lortu baitzituzten. Beraz, eskuineko gehiengo garbia izan zuen Espainiak 1933tik aurrera. Hala ere, *CEDA*k baino, Alderdi Erradikalak eta Alejandro Lerrouxek hartu zuten Gobernuaren ardura, Nizeto Alcalá Zamora Errepublikako lehendakariak ez baitzuen nahi *CEDA* bezalako errepublikaren aurkako alderdi bat Gobernuan sartzerik. Izan ere, *CEDA*ko zuzendaritzak II. Errepublikako Konstituzioa aldatzea behin eta berriz eskatzen zuen, askotan azentua konstituzio horren izpiritu laikoan ezarriz, baina benetan alderdi horrek, sistema demokratikoa eta errepublikanoa, sufragio unibertsala eta alderdi-aniztasunean oinarritutako hauteskunde-parlamentarismoa ardatz zituena, bestelako sistema batez ordeztu nahi zuen, korporatibismoan oinarritutako sistema autoritario batez alegia, sufragio mugatuan eta parekidea izan izanik alderdiez gaindiko ordezkaritza-sistema oinarri izango zuenaz hain zuzen ere. *CEDA*ko zuzendaritza sistema autoritario batek klase-borrokari eta langileen sindikalismoari balazta jartzeko sistema demokratikoa baino aproposagoa zela uste zuten eta euren autoritarismoa Elizaren doktrinan justifikatzen saiatzen ziren (kontuan izan behar da 1930.eko hamarkada horretan faxismoa eta antzeko "konponbide" autoritarioak Europako eskuinaren inguruan modan jartzen hasiak zirela)[720]. Beraz, kolpe handia zatekeen halako alderdi bat Errepublikaren Gobernuan egotea. *CEDA*ko zuzendariek, batez ere Jose Maria Gil Robles bozeramailea, alderdirik bozkatuena izan zela eta Gobernuan sartzeko presioa egiten hasi zen eta eskaera horrek tentsio politikoa handitu egin zuen.

Euskal Herriari dagokionez, eskuineko Gobernuak Estatutuaren gaia erabat blokeatu zuen Espainiako Parlamentuan. 1933ko abenduaren 21ean Estatutua Parlamentuan eztabaidarako entregatua izan bazen ere, eta 1934ko urtarrilaren 9an Estatutua eztabaidatzen hasi baziren ere, gaia erabat okertzen hasi zen, eskuinak Araba Estatututik at uzteko asmoa erakutsi baitzuen[721]. Araban, Estatutuaren aldeko baiezkoak, zentsuarekiko %46,40 izan ziren. Boto-emaileekiko baiezkoen kopurua %79,53koa izan zen, baina parte-hartzea txikia izan zen, %58koa. Hori dela-eta, Arabako diputatu karlista Jose Luis Oriolek, Arabako alkate karlista batzuek babestuta aurkeztu zuen aurrena proposamen hori. Oriolek berak, 1931n diputatu aukeratua izan zenean, lau herrialdeetarako Lizarrako Estatutua eta abertzaleekin bat egitea defendatu zuen, baina oraingoan bere jarrera erabat aurkakoa izan zen[722]. Jarrera-aldaketa hori, hein batean, karlismoak Estatutuarekiko izan zituen jarreren ikurra izan zen, 1931n testuinguru politikoa zela-eta alde bazeuden ere, 1934tik aurrera zeharo aurka azaldu ziren. Gainera, sozialisten eta Gobernuko Alderdi Erradikalaren posizioa ez zen izan zalantza guztiak uxatzekoa, Araban erreferendum berri bat egitea proposatzen baitzuten, "Arabak bere nahia argi utz zezan"[723]. Abertzaleez gain, Araba Estatutuaren barne egotea eztabaidatzearen edo itzularaztearen aurkako alderdi bakarra ordura arte Estatutuaren kontra agertutako Alderdi Komunista izan zen[724]. Urtarril horretan *CEDA*ko diputatu Federico Salmonek[725] aurkeztu zuen Araba Estatututik ateratzeko mozioa, 1934ko urtarrilaren 27an eta 28an eztabaidatu

---

[719] Independente horien artean, Nafarroan aukeratutako Raimundo Garcia "Garcilaso" dugu, *Diario de Navarra* egunkariko zuzendaria eta Euskal Estatutuaren etsai nagusia.

[720] Helburu horiei dagokienez, *CEDA*k monarkiko-alfontsotarren *Renovación Española* alderdiarekiko antzekotasun handiak zituen: II. Errepublikaren sistemarekiko oposizioa ardatz ideologiko berdintsuetatik hartuta: Estatu konfesionala, demokrazia eta alderdi-parlamentarismoarekiko aurkakotasuna, berdinzaletasun-aurkakotasuna, autoritarismoa, ekonomia-korporatibismoa (langile-sindikatuen boterearen mugaketa), ordenaren defentsa, eta abar. Hala ere, ezberdintasunak bazeuden: horietako bat, *Renovación Española* alderdia *CEDA* baino erradikalagoa zela, *CEDA*k parlamentuko bideak lehenesten zituen, *Renovación Españolak* Estatu-kolpezko bideak, parlamentuari zilegitasun txikiagoa ematen baitzion. Bigarrena, monarkiarekiko jarrera zen: *Renovación Española* argiki alderdi monarkiko-alfontsotar gisa definitzen zen, *CEDA*k halako definizio esplizitu bat egitea saihestu egiten zuen. *CEDA*ren boto-emaile gehienak monarkikoak ziren arren, alderdiaren buruzagiek ez zuten auzi horri buruzko adierazpen argirik egiten, baina euren helburu ideologikoak forma politiko errepublikano baten pean lortzeari ez zioten uko egiten, Monarkiaren auzia bigarren mailan uzten zuten. *CEDA*ren jarrera horri "akzidentalismo" zeritzon.

[721] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 107. or.

[722] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 108-109. or.

[723] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 108. or.

[724] Euskadi Roja, 1934-04-14koa.

[725] Federico Salmón 1935eko maiatzetik abendura Lanaren Ministro izan zen. Gainera 1935eko irailetik abendura Justizia ministro ere izan zen.

or.

zen hura eta Araba Estatututik ateratzeko gehien hitz egin zuena Gipuzkoatik diputatu aukeratua izan zen Ramiro Maeztu arabarra izan zen. Maeztuk "nik ez dut sekula Euzkadi horretaz ezer entzun, arabarrok ez gara Euzkadiren existentzian haziak izan (…) Estatutu hau ", bezalako hitzak erabili zituen. Ustekabea izan bazen ere, gehiengoak uko egin zion mozioari (136 boto 125 botoen kontra)[726]. Manuel Irujo Gipuzkoatik aukeratua izan zen diputatu nafarrak: "egia esan, Madrilen, gauzak guk espero baino hobeto atera zaizkigu" esan zuen[727]. Egia esan, eskuinak ez zuen bloke baten gisa bozkatu, adibidez CEDAko Rafael Aizpun nafar diputatuak (1931-1933 biurtekoan Nafarroa Euskal Estatutuan sartzearen alde egon zenak) mozioaren kontra bozkatu zuen, horrela jeltzaleengan Nafarroarekin berriz elkartzeko esperantza piztuz[728]. Hala ere, 1934ko apirilaren 5ean EAJk Arabako bigarren erreferendumik ez egitea proposatzen zuen mozio bat ukatu egin zuen Parlamentuak[729]. Horrek, Araba Estatututik atera arazi ez bazuen ere, Euskal Estatutuaren gaia eztabaidarako zabalik utzi zuen, bere onarpena luzatuz; eta abertzaleen eta eskuineko alderdien arteko zubi guztiak hautsi egin zituen.

1.5.b) 1934ko udalen mugimendua

Gobernu eskuindarraren politikaren aurkako sektoreen ezinegona argia izan zen, eta 1934an bi gertakari izan ziren, ezinegon hori modu oso bortitzean azaleratu zutenak: bata udan, euskal udalen "matxinadarekin", eta bestea, urrian, 1934ko "Urriko Iraultza" zela bide. Azken iraultza hori, batez ere Asturiasen gertatu zen, baina Euskal Herrian ere bere txinpartak zabaldu zituen[730]. Mugimenduok oso izaera ezberdinekoak izan ziren, bata autogobernuaren aldekoa izan zen eta bestea izaera sozial eta proletariokoa, baina egia da pertsona batzuek bi mugimenduetan parte hartu zutela (udalen matxinada sozialistek eta ezkerreko errepublikanoek ere babestu baitzuten, eta are gehiago, Bilboko eta Donostiako Udalek, biak errepublikanoek zuzenduak, protagonismo berezia izan zuten). Bi mugimenduen artean ez zen lotura organikorik izan, eta alderdien inplikazioa ere ezberdina izan zen. Mugimendu bakoitzaren izaera berezia zehaztu zutenak, lehenean jeltzaleak zein ezkerrak izan ziren eta bigarrenean langileen ezkerreko alderdiek soilik parte hartu zuten alderdi gisa, ELAko militante batzuek ere, toki batzuetan, batu zitzaizkien arren; eta EAJk adibidez, behin eta berriz ukatu zuen bi mugimenduen arteko ahaidetasuna. Baina egia da baita ere, lehen mugimenduak Euskal Herrian bigarrena azkartzen lagundu zuela, Gobernuaren kontrako giroa hedatu egin baitzuen. Nahiz eta aliantza formalik ez egon (ELAren zuzendaritzak ez zuen bat egin 1934ko urriko iraultzarekin), giroan, oro har, bi mugimenduen artean Gobernuaren kontrako elkartasun moduko bat sortzea lortu zuten. Eta Beasaini dagokionez, bi gertakariek arrasto sakona utzi zuten gure herrian, bai mobilizazio aldetik eta baita errepresio aldetik ere: lehenak alkatea atxilotzea eta udaleko zinegotzi denek (batek salbu) dimititzea ekarri zuen eta, Gobernadore Zibilak, herriak aukeratu gabeko udal berria inposatu zuen; eta bigarrenari dagokionez, 31 herritar atxilotu egin zituzten polizia-indarrek eta horietatik 20ri baino gehiagori kartzela-zigorra ezarri zieten.

Udalen mugimendua sortzeko, lehen mailako faktorea izan zen Gobernuak (nekazaritza-munduko oligarkiako diputatu batzuen proposamenez), ardoaren gaineko zergak kentzeko legea atera izana. Lege hori, foru-haustea izateaz gain, euskal udalen ogasunentzat arriskua ere bazen, izan ere, ardoaren gaineko zergak udalen aurrekontuen zati garrantzitsua betetzen baitzuen (garbi zegoen noski Gobernuaren aldetik foruen kontra joateko borondatea ere bazegoela, Marraco Ogasun ministroak esan zuen "Estatuaren barrenean ezin da muga ekonomikorik izaten utzi"). Gainera, horri Estatutuaren geldialdia gehitu behar zaio, eskuina ez baitzegoen Estatutua indarrean jartzeko batere interesatua. Euskal Herrian bertan ere, Gobernuak ez zuen gauza handirik egin bertako erakundeak demokratizatzeko, Aldundietan Gestorak ez zituzten ordezkatu herriak aukeratutako ahaldunez; gestoren kolore politikoa soilik aldatu zen: ezkerreko alderdietako kideak Lerrouxen zentro-eskuineko alderdiko kideek ordezkatu zituzten, Euskal Herrian erabat gutxiengokoa zen alderdi bateko kideek alegia. Gogoratu behar dugu Gestorak ez aukeratuak izatea abertzaleen salaketa nagusietako bat izan zela eta 1931-1933ko ezkerreko alderdien nagusitasun-garaian eskuinak salaketa horrekin bat egin zuela. Gero ordea, Gestorak izendatzeko aukera hori bere alde erabili zuen eskuinak, Alderdi Erradikal Lerroux-zaleak Euskal Herrian zuen pisu txikia ikaragarri handituz (ezkerrak behintzat, Gestoren aukera bere alde erabili bazuen ere, Euskal Herrian pisu handia zuen une hartan). Bestalde, ekainean EAJko diputatuak legebiltzarretik erretiratu egin ziren, Gobernuak Kataluniako Generalitatek onartutako "Ereintza Kontratuen Legea" bertan behera utzi ostean. Ikusten den

[726] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 108. or.

[727] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 159. or.

[728] ZABALTZA, Xabier: *Mater Vasconia*. Hiria. Donostia, 2005, 66-67. or.

[729] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 108. or.

[730] Katalunian ere egon zen urrian mugimendu matxino bat, Generalitateko lehendakari Lluis Companysek "Espainiako Errepublika Federalaren barneko Estatu Katalana" aldarrikatu baitzuen. Hala ere, Kataluniako matxinada hori (*Fets de Prats de Molló*) erabat nazionalista izan zen, beraz ez zuen Asturiaskoarekin zerikusirik izan, Euskal Herrikoak ez bezala. Euskal Herriko urriko gertaerak, bereziki izaera sozialekoak izan ziren, beraz Asturiasko Iraultzarekin zerikusia izan zuten.

moduan, oro har, mugimendu autonomista edo abertzalea ere izan zen, baina ezkerreko alderdiek (ezkerreko errepublikanoek zein sozialistek) ere parte hartu zuten.

Marraco ministroak legea aurkezteko arrazoien artean, batez ere eskuineko "agraristen" taldeko diputatuen presioa zegoen. Haiek, lurjabeen eta lehen sektoreko ekoizle handien ordezkariak ziren eta ardoaren gaineko zerga kentzea nahi zuten, euren produktua hobeto merkaturatzeko. Kontuan izan behar da euskal udalen diru-sarreren zati handi bat halako zergetatik zetorrela, eta horrez gain, euskal probintziek, Hitzarmen Ekonomikoaren bitartez, beren zergen gain erabakitzeko ahalmena zutela. Lege horrek, ardoaren sarrera, salmenta, ikuskaritza eta zirkulazioaren gaineko zerga kendu zuenez, kalte handia egin ziezaiekeen euskal udalei; horrekin, Gobernuak eta hura babesten zuten interes-taldeek euskal foruak urratu zituzten (horrek, Euskal Estatutuaren inguruan eskuinak zuen aurkako jarrerari batuta, asko mindu zituen euskal autogobernuaren aldeko alderdiak).

Euskal erakundeak beren Hitzarmen Ekonomikoen alde koordinatzen hasi ziren. Hala ere, kontuan izan beharra dago, horietako batzuk (Gobernadore Zibilak eta Aldundietako Gestorak), Gobernuaren aldeko Alderdi Erradikalaren esku zeudela. Hala, 1934ko ekainaren 12an, hiriburuetako alkateak Aldundietako Gestorekin bildu ziren, eta azken horiek Marraco Ogasun Ministroarekin negoziatzea adostu zuten. Baina negoziazio hori tratatzean, ekainaren 25ean, Marracok bere posturari eutsi egin zion, eta gainera horretarako Aldundietako Gestoren laguntza izan zuen. Ekainaren 25ean argi gelditu zitzaien euskal udalei Gestorak ez zituztela auzi horretan alde izango, autogobernuaren gainetik alderdiarekiko leialtasuna zutela alegia.

Hala, Bilboko Udalaren ekimenez (zeina ezkertiarren esku zegoen eta ez jeltzaleen esku) Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Udalek, uztailaren 5ean Bilbon elkartzea erabaki zuten. Bilbon izan zen Batzar hartan, Beasaingo Udalaren ordezkaria ere bertan izan zen, Jazinto Urteaga alkatea hain zuzen ere[731]. Bilboko Batzarrean, euskal udalek probintzietako udalen arteko Batzordea eratzea onartu zuten, udalen eta autogobernuaren defentsan aritzeko. Gipuzkoak, 20 ordezkari izan behar zituen, Bizkaiak beste 20 eta Arabak 12. Abuztuaren 12an udalek aukeratu behar zituzten ordezkariak (udal bakoitzeko zinegotziek bozkatu behar zuten eta zinegotzi bakoitzaren botoa balio desberdinekoa izan behar zuen jasotako botoen arabera). Gipuzkoaren kasuan, lau barruti ziren eta barruti bakoitzeko bost ordezkari izango ziren. Udalen Batzar horretan, Abuztuaren 12ko aukeraketa iritsi artean, lurralde bakoitzak bost ordezkariz osatutako behin-behineko batzorde bat osatzea erabaki zuten: bat hiriburuaren ordezkari gisa, beste bat 10.000 biztanletik gorako udalerrien aldetik, beste bat Auzitegi-barrutiko buru ziren 10.000 biztanletik beherako udalen aldetik, beste bat Auzitegi-barruti izan gabe 10.000 biztanletik beherakoak ziren herrien aldetik eta beste bat, 2.000 biztanletik beherako herrien aldetik[732]. Udalen mugimendu berri bat hasi zen.

Batzorde hori aukeratzeko, Gipuzkoako udalek, uztailaren 15erako Batzar bat antolatu zuten. Urteaga alkateak aurreko Batzarrerako egin bezala, Batzar horren garrantzi handia azpimarratu zuen. Hala ere, oraingoan, Donostian, Beasaingo Udalaren ordezkari ez zen Jazinto Urteaga alkatea izan, Seberiano Azpeitia alkateordea baizik, lehen unean Leontzio Ibarbia bidaltzekotan baziren ere. Donostiako Batzar hartan, Gipuzkoako udalen behin-behineko batzordea aukeratu zen; kideak Donostiako alkatea: Fernando Sasiain (hiriburua), Irungo Florentzio Iratxeta zinegotzi errepublikanoa (10.000 biztanletik gorako herriak), Bergarako alkate jeltzalea: Ignazio Zubizarreta (10.000 biztanle baino gutxiagoko Auzitegi-barrutien buruak), Oiartzungo alkate jeltzalea: Feliziano Beldarrain (10.000 biztanle baino gutxiagoko herriak) eta Urretxuko alkate jeltzalea: Domingo Berriotxoa (2.000 biztanle baino gutxiagoko herriak) izan ziren[733].

Espainiako Gobernuak halako mugimenduak etsaitasun handiz ikusi zituen. Alderdi Erradikaleko politikarien arabera, Euskal Udalek Aldundien kontrola nahi zuten, Gobernuak ezarritako Aldundien Gestorak ordezkatuz (izan ere, aukeratu gabekoak izateaz gain, euskal autogobernuaren alde aritu ez zirenez, udalen mugimendu berri horren arabera, egia da, izan zezaketen zilegitasun apurra ere galdu egin zutela). Udalen mugimendu horrek, bazuen aurrekari bat, 1931ko udalen mugimendua: bietan udalak ziren protagonista (oposizioko udalak ere bai) eta autonomia zegoen erdigunean. Eskuinak hor, ezkerraren aldetik (abertzaletasuna bidelagun omen zuela) eskuineko Gobernua uzkailtzeko edo higatzeko mugimendu bat ikusi zuen eta ez zuen erakutsi elkarrizketarako inolako borondaterik (garai hartan, Espainiako Gobernuak, Kataluniako Gobernu Autonomoaren Ereintza Legea, jornalarien interesak defendatzen zituena, deuseztatu egin zuen). Hala, berez negoziatzaileak ziren batzordeei Gobernuak berak eman zien izaera politikoa edota "iraultzailea": abuztuaren 1ean Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Velardek, abuztuaren 12ko hauteskundeak debekatu egin zituen[734]. Egun batzuk geroago, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak, Emeterio

[731] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[732] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[733] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 502. or.

[734] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 113-115. or.

or.

Mugak, bide berbera jarraitu zuen: 1934ko abuztuaren 4an, Beasaingo Udal-bilkurak, Gobernadore Zibilaren oharra jaso izanaren berri eman zuen eta ohar horretan "Errepublikako agintariek, udal-legetik at zeuden ekintzak ez zituztela baimenduko" jakinarazi zuen[735]. Beraz, haustura erabatekoa izan zen eta horren arduraduna Espainiako Gobernua eta eskuineko alderdiak izan ziren, Euskal udalen mugimenduak ez baitzuen matxinadarako asmorik (EAJ urrian parlamentura itzuli zen, ezkerra ez, urrian gertatu zen langile-iraultzaren ostean erabat Gobernuaren kontra baitzegoen)[736]. Azkenean, abuztuaren 12rako gelditu ziren Beasaingo zinegotziak ordezkarien aukeraketa hori egiteko. Goizeko hamaiketan hasi zen udal-bilkura hartara, hamaika zinegotzi agertu ziren, Arbaizarrek eta Carrascalek soilik egin zuten huts (gogoratu egin behar dugu lehenak dimititu egin zuela 1931n, eta bigarrenak, ofizialki udalaren parte bazen ere, 1932ko ekainaren 9tik bere burua "dimititutzat" zuela). Guardia Zibilaren tokiko tenientea[737] bertan izan zen, baina ez zuen antza bilkura mozteko saiakerarik egin eta txosten bat idatzi besterik ez zuen egin, gero Auzitegira bidali zuena[738]. Hasieratik, Serafin Arana bozketaren kontra agertu zen, beraz, ez zuen botorik eman. Boto-sistema, zinegotzi bakoitzak berak nahi zituen hautagaiak izendatzean zetzan, baina zinegotzien botoa ez zen baliokidea, 1931ko maiatzaren 31n lortutako boto-kopuruaren araberakoa baizik. Bozketa hasi aurretik Urteaga alkateak zinegotziei euren erantzukizunaz jabetuak al ziren galdetu zien eta bozketarekin ados al zeuden galdetu zien. Serafin Arana soilik azaldu zen aurka, horrela, bere "erantzukizuna salbatuz". Ez dugu Serafin Aranaren jarrera hau argitzeko lagun diezagukeen datu zehatzik, baina kontuan izanda Arana 1931n errepublikano gisa aurkeztu zela orain bozketan parte hartzen ari zirenekin batera (1931n errepublikano guztiak bat eginda zeuden), pentsa genezake Espainiako Gobernuko Alderdi Erradikalarekin identifikatzen zela. Bozketan, bi zinegotzi eskuindarrek, Restituto Urteagak eta Jose Martin Sarriegik (bakoitzak 50 boto zituen), Ordiziako alkate Patxi Iturriotz, Andoaingo alkate Pablo Egibar eta Tolosako alkate Antonio Labaienen alde eman zuten botoa eta hirurak jeltzaleak ziren. Bertan zeuden zinegotzi ezkertiar gehienek, zazpik, Jose Alberto Labadiaren aldeko botoa eman zuten eta guztira 1.285 boto lortu zituen. Bere kabuz botoa eman zuen bakarra, Jazinto Urteaga alkatea izan zen, bere 72 botoak Joan Goibururen alde jarri baitzituen[739]. Tolosako barrutian hiru jeltzale horiez gain (Iturriotz, Egibar eta Labaien), beste bi izan ziren aukeratuak, Basilio Fernandez Zumarragako alkatea eta Domingo Berriotxoa Urretxuko alkatea. Gipuzkoako hogei ordezkarietatik, EAJko hamaika, bost errepublikano, hiru sozialista eta EAEko bat izan ziren izendatuak[740]. Hauteskunde edota aukeraketa hari dagokionez, udalen mugimenduaren bozeramaileen ustez, Gipuzkoako ia udal denetan egin zen hautaketa, 71 udaletan alegia[741]. Gobernu Zibilaren arabera, 22tan soilik egin zen, beste 14tan indar polizialek hautaketa galarazi egin zuten, 8tan udalek indar publikoek egindako ohartarazpenaren aurrean, bilera bertan behera utzi zuten, bitan atzeratu egin zuten eta 43tan hautaketarik ez zen izan[742]. Bizkaian ere antzeko desadostasun bat izan zen: hango Gobernadore Zibilaren arabera 117 udaletatik 41 udalek parte hartu zuten, Bizkaiko udalen Batzordearen arabera, ordea, Bizkaiko ia udal denek egin zuten hautaketa[743]. Arabako Gobernadore Zibilak hasiera batean Gasteizen soilik egin zirela esan zuen, baina gero udal gehiagotan ere egin zirela onartu beharra izan zuen[744]. Hautaketa gauzatu zen zenbait tokitan, Beasainen kasu, Guardia Zibilak alkatea atxilotu zuen: *La Constancia* egunkari eskuindarraren arabera, 28 alkate izan ziren atxilotuak egun hartan, tartean Donostiakoa, Irungoa, Eibarkoa eta Errenteriakoa[745]. Donostiako alkateari, Gobernadore Zibilaren komunikazio baten bidez komunikatu zitzaion atxiloketa, Donostiako Udaletik ez ateratzeko agindua emanez, eta gero etxeko atxiloketa agindua emanez[746]. Donostiako alkatearen atxiloketak elkartasun-korronte handia sortu zuen, telegrama aunitz jaso zituen egun hartan udal donostiarrak, bai Gipuzkoatik zein Gipuzkoaz kanpotik[747]. Errenterian eta Eibarren, indar polizialak udal-bilkura ospatzen ari zen bitartean sartu ziren batzar-aretora[748]. Esan beharra dago,

[735] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16 dokumentua.

[736] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 120-122. or.

[737] Agian Alejo Beñaran izan zen, 1936an frankistek fusilatutako berbera.

[738] *La Constancia,* 1934-08-14koa; eta *EL Día*, 1934-08-14koa.

[739] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16 dokumentua.

[740] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 502. or.

[741] *El Día* egunkariak, "9 udaletatik 80tan baino gehiagotan izan zela aukeraketa" esan zuen. *El Día,* 1934-08-14koa.

[742] *El Día,* 1934-08-14koa; *El Pueblo Vasco,* 1934-08-14koa; eta *La Constancia,* 1934-08-14koa. Hala ere ez dira oso datu fidagarriak; datu horien arabera, adibidez Ordizian ez bide zen bilerarik egin, jakin badakigunean Ordizian bilera egin zela. Bestalde, datu horien arabera, "indar publikoak bilera galarazitako" udalen zerrendan Donostia eta Beasain agertzen dira, udal horietan bilera eta hautaketa egindako akta egon badagoenean (*El Día,* 1934-08-14koa). Ordiziako oroimen historikoaren liburuan, Gipuzkoako 89 udaletatik 80tan bozketak egin zirela esaten da. ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 30. or.

[743] *El Día,* 1934-08-14koa. Bizkaian laurogei udal baino gehiagotan hautaketa egin egin zela esaten du *El Día*k.

[744] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 118. or.

[745] *La Constancia,* 1934-08-14koa. Hala ere, egunkari ezberdinen kroniken arabera, alkate gehienak, deklaratu ostean egun berean aske gelditu ziren.

[746] *El Día,* 1934-08-14koa; *El Pueblo Vasco,* 1934-08-14koa; eta *La Constancia,* 1934-08-14koa.

[747] Adibidez, Barakaldoko edo Bartzelonako Udalek elkartasuna erakutsi zioten. *El Día,* 1934-08-14koa.

[748] *La Constancia,* 1934-08-14koa.

herri batzuetan, hautaketa aurreko egunean egin zela, adibidez, Oiartzunen[749]. Hernanin etxe partikular batean bildu ziren[750]. Lezon, ordea, alkateak "bilerarik ez zuela egin" zioen ohar bat sinatu zuen, baina ez "bozketarik" egin ez zuenik[751]. Ikusten den moduan, Gobernadorearen aginduei iskin egiteko hainbat modu topatu zuten udal ezberdinek, kasu batzuetan, bozketa egin akta egin gabe, beste batzuetan legez kanpokotasunaz jabetuta ere bilkura burutu, eta beste batzuetan bilera beste toki batzuetan eginez. Beraz, kasu desberdinek ongi erakusten dute Gobernadore Zibilak emandako datuak (22 herritan soilik egin zela hautaketa) ziur aski okerrak izan zirela, herri askotan egun horretan udalaren egoitza ofizialean bilerarik ez egiteak, edota indar polizialek bileraren legez kanpokotasuna komunikatu izanak, ez baitzuen esan nahi udal-kideek bilerarik egin ez zutenik.

Prentsak, jakina denez, egun hori oso modu ezberdinez baloratu zuen. Eskuineko prentsaren arabera "indar nazionalistak, Azañaren biurtekoko indarrekin elkarlan iraultzailean ari zirela" frogatzen zuen hautaketa horrek (adibidez Gipuzkoako Udalen Batzordean jeltzaleak zein ezkertiarrak egotea, horren froga baino ez zen), eta aldi berean "tradizionalistak tinko mantendu izana" goraipatzen zuen[752]. Prentsa abertzalearen ustez, ordea, abuztuaren 12koa "jardunaldi demokratiko paregabe, baketsu eta eredugarria" izan zen[753]. Hala ere, *El Pueblo Vasco*k, doinu askoz ere aseptikoagoa erabili zuen, "Gipuzkoak bere udalak ordezkatuko dituen komisioa aukeratu du" esanez. Egunkari horren arabera "udal batzuek euren arteko ordezkaritza komuna adosteko batzordeak aukeratzean ez dago batere asmo matxinorik (…) ez baita inolako bortizkeriarik edo istilurik izan", eta Gipuzkoako Aldundiaren gestora eskuindarrak, udalen alde jarri ordez, Espainiako Gobernuaren alde jarriz eman zion izaera hori mugimenduari[754] (egia da egun hartan Espainiako parlamentuko diputatu jeltzaleek Aldundietako Gestoren dimisioa eskatu zutela, baina horretaz harago ez zen beste mugimendurik izan[755]). *La Voz de Guipúzcoa*ren ustez, "Euskal Herrian ez zen ezer larririk gertatu eta denek duintasunez jokatu zuten". Egunkari moderatuaren arabera "Espainiako Barne Ministroak ere Euskal Herriko jardunaldiko bakea nabarmendu zuen"; egunkari hori bi aldeen arteko konponbidearen inguruan baikorrena izan zen[756]. Gipuzkoako egunkari denek aukeratutako Batzordeko kideak zeintzuk ziren esanez berri eman zuten[757]. Prentsa komunistaren arabera, gatazka hori, "probokazio inperialista baten ondorioz (…) botere zentralaren eta Euskadiko masa zanpatuen arteko gatazka zen". Komunisten ustez "Euskadiko matxinadak (…) hemen ari diren indarrak bitan banatu ditu: Botere zentralaren alde dauden atzerakoi eta inperialistak batetik (…) eta Euskadiko herri-masak bestetik". Hala ere, jarrera horrek ez zuen esan nahi komunistak abertzaleen alde lerratu zirenik, "EAJrengan konfiantzarik ez izatea" gomendatzen baitzuten, "horiek ez baitute borrokatuko (…) langileek gure ildoaren bidez borrokatu behar dugu (…) garaipena ziurtatzeko grebara joan behar dugu" esaten zuten komunistek. Alderdi Komunistak, "Botere Zentralak Euskadi kolonia bat bailitzan inbaditu zuela" esan zuen, eta baikortasun osoz blai eginda, "udalen garaipen politikoa" ere goratu zuen, baina "garrantzitsuenak ez dira, ez udalek eratutako Batzordea, ez Hitzarmen Ekonomikoa, baizik eta langileek boterearekiko azaldutako aurkakotasuna (…) eta herriak aukeratutako kargudunak kargugabetzearen aurkako haserrea" erakutsi izana[758].

Jakin badakigunez, egun hartan Guardia Zibilak Jazinto Urteaga alkatea atxilotu zuen, ez zuzenean, baina bai haiek idatzitako txosten baten bidez Tolosako epaitegira deklaratzera deituz[759]. Atxiloketaren inguruko datu gehiegirik ez dugu, baina udal-bilkuraren ostean izan behar zuen, izan ere, akta zinegotzi denek sinatu baitzuten[760]. Abuztuaren 16an, Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Beasaingo Udalari alkatea kargugabetu egingo zuela jakinarazi zion eta alkate gisa, behin-behinean, lehen alkateordea, Leontzio Ibarbia, ezarri behar zela jakinarazi[761] (nahiz eta antza denez, Urteagaren kargugabetzea atxiloketaren

[749] *La Constancia,* 1934-08-34koa. Egunkari karlista horrentzat, Oiartzungo alkatea "mugimendu matxino horren buruzagia" izan zen.

[750] *El Día,* 1934-08-14koa.

[751] *El Día,* 1934-08-14koa.

[752] *La Constancia,* 1934-08-14koa.

[753] *El Día,* 1934-08-14koa.

[754] *El Pueblo Vasco,* 1934-08-14koa

[755] *El Día,* 1934-08-14koa.

[756] "*La Voz de Guipúzcoa*", 1934-08-14koa. Gogoratu egunkari hori Espainiako Gobernuan zegoen Alderdi Erradikalaren hurbilekoa zela eta poliziak atxiloketak edo epailearen esku-uzteak "bortizkeriarik gabe" egin izana goraipatu zuen.

[757] *La Voz de Guipúzcoa,* 1934-08-14koa; *El Día,* 1934-08-14koa; *El Pueblo Vasco,* 1934-08-14koa; eta *La Constancia,* 1934-08-14koa.

[758] *Euskadi Roja*, 1934-08-18koa.

[759] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 84-85 or.; ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 134. or.; eta *La Constancia,* 1934-08-14koa. *La Voz de Guipúzcoa*k Beasaingo alkatea "epailearen esku utzi zutela" baino ez zuen aipatu. *La Voz de Guipúzcoa,* 1934-08-14koa.

[760] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[761] Miren Barandiaranek bere liburuan alkatetza Viktor Bernedori eskaini zitzaiola esaten du; hala ere badirudi datu hori okerra dela, lehen alkategaia Ibarbia baitzen, eta gainera berak zuzendu zuen Urteaga kargugabetu ondorengo lehen udal-bilkura, udaleko zinegotzi gehienek dimititu zutenekoa. Egia da Bernedori ere postua eskaini zitzaiola, baina ikusiko dugunez, Ibarbiaren ondoren, Ibarbiari eskaini eta hark dimititu ondoren alegia. Bernedoren ondoren ere zenbait zinegotziri eskaini zitzaien kargua baina ez zuten onartu. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 84-85 or.

or.

hurrengo egunean, abuztuaren 13an, gertatu[762]). Ordizian ere behin-behineko alkatea (EAEko Anton Luzuriaga) atxilotu egin zuten, goizeko 11:30ak inguruan, baina hala ere, beranduago beste zinegotziak bildu egin ziren, bozketa egiteko[763]. Gipuzkoan, abuztuaren 13an, Beasaingo alkateaz gain, Azpeitia, Deba, Getaria, Ormaiztegi eta Zumaiako alkateak izan ziren kargugabetuak, eta hurrengo egunean beste herri batzuetakoak: Ezkio, Gabiria, Irun, Pasaia eta Urnietakoak adibidez[764]. Abuztuaren 19an, Gipuzkoako udal batzuetako alkateek, artean indarrean jarraitzen zutenek, kargugabetu zituztenekiko edo atxilotutakoekiko elkartasuna adierazten zuen agiri bat sinatu zuten[765].

Udal-bilkura ez zen abuztuaren 25a arte berriz bildu eta orduan Ibarbia alkateordearen buruzagitzapean bildu zen. Bilkura horretara hamar zinegotzi joan ziren, Urteaga kargugabetua, Arbaizar dimititua eta Dionisio Carrascal soilik falta izan ziren. Ibarbiak, alkatearen kargugabetzearen berri jakinda, bere elkartasuna adierazi zion eta "udalean jarraitzeko ezintasuna" aldarrikatu zuen, berak ere dimitituz eta dimisio hori zinegotzi denek onartu zuten, Serafin Aranak izan ezik. Horren ostean, beste alkateordearen, Viktor Bernedoren txanda izan zen, eta honek ere dimisio-prozedura bera jarraitu zuen (berriz ere Aranaren kontrako botoarekin)[766]. Beasaingo Udala, praktikan, desegina izan zen (nahiz eta beste iturri batzuen arabera, beste zinegotzien dimisioa irailaren 7an izan[767], baina praktikoki abuztuaren 25ekoa izan zen udal-talde horren azken bilkura, harik eta 1936ko otsailean Herri Frontearen Gobernuak berriz indarrean jarri zuen arte). Serafin Arana Gaiztarro zinegotziaren portaera, bera 1931ko maiatzean errepublikanoen eta sozialisten zerrenda ezkertiarrean aukeratua izan zen, errepublikanoen barne-eztabaiden eta Errepublikaren urteetan euren artean izandako hausturaren testuinguruan ulertu behar dugu; beste zinegotziak zentro-ezkerreko alderdien alde paratu ziren (Beasainen 1934an sortu ziren *Izquierda Republicana* eta *Unión Republicana* alderdiak) eta 1931tik aurrera zentro-ezkerreko errepublikanoek hautatu zuten bide autonomista moderatuarekin koherente jokatu zuten, baina Serafin Arana, orduan boterean zegoen zentro-eskuineko Alderdi Erradikalarekin lerratu zen.

Gobernadore Zibilak, hurrengo egunetan, boto-kopuru handienetik txikienera atera zituzten zinegotziei jarduneko alkate--kargua eskaintzeko agindua eman zuen. Hala, alkate-kargua eskaini zitzaien zinegotzien artean, Gregorio Lasak (abuztuaren 26an), Seberiano Azpeitiak (abuztuaren 27an), Pedro Lasak (abuztuaren 28an) eta Doroteo Aguadok (abuztuaren 29an) uko egin zioten karguari. Abuztuaren 30ean kargua Serafin Aranari eskaini zion, eta honek abuztuaren 31n onartu egin zuen[768]. Beraz, data horretan jarduneko alkate kargua hartu zuen eta irailaren 7an, berretsia izan zen[769].

Abuztuaren 12a pasatuta, hurrengo egunetan udalen mugimenduak erantzuna prestatu zuen. 1934ko abuztuaren 21ean, Gipuzkoako Udalen Batzordea Donostiako Udaletxean biltzekoa zen, batzorde egikaritzaile edo exekutiboa antolatzeko. Baina udaletxea Guardia Zibilak hartua zuen, eta batzordeko kide batzuk atxilotu egin zituen: tartean, Ordizia, Urretxu, Zumarraga, Andoain, Bergara, Deba, Hernani, Oiartzun eta Zumarragako alkateak, Tolosako alkateordea eta Monzon diputatu jeltzalea[770]. Guztira, prozesu osoan, indar polizialek Gipuzkoan 38 alkate atxilotu edo salatu zituzten, eta Bizkaian 25 alkate eta 30 zinegotzi[771]. 1934ko abuztuaren 22an, Gipuzkoako Udalen Batzordeak, bost kidez osatutako batzorde exekutiboa aukeratu zuen, Sasian Donostiako alkateak, Lizeaga Irungo zinegotzi errepublikanoak, Beldarrain Oiartzungo alkate jeltzaleak, Labaien Tolosako alkate jeltzaleak eta De los Toyos Eibarko alkate sozialistak osatutakoa[772]. Gainera Fernando Sasian hiru lurraldeetako mugimenduaren bozeramaile aukeratua izan zen[773]. Irailaren 2an, udal-mugimenduak, Zumarragan Udalen Batzarra egiteko deia egin zuen eta alkateekin (kalean jarraitzen zutenekin) batera, EAJko diputatuak eta Indalezio Prieto diputatu sozialista (Euskal Herrian aukeratuak izan ziren bi diputatuetatik bat)[774] egon ziren, Kataluniako diputatu abertzale batzuekin batera. Zumarragako Batzar horretan ez zen adostasun handirik lortu, baina sozialistek eta jeltzaleek autogobernuaren defentsan batera jokatzeko modua

[762] Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15. dokumentua.

[763] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 30. or.

[764] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 30. or.

[765] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 30. or. Liburu horren arabera, herri hauetako alkateak izan ziren: Aduna, Altza, Anoeta, Elduain, Leintz Gatzaga, Oiartzun, Olaberria, Ordizia, Orio, Usurbil eta Zestoakoa.

[766] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[767] Beasaingo Udal Artxiboa. 063. karpeta, 15. dokumentua.

[768] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 35. dokumentua.

[769] Beasaingo Udal Artxiboa. 063. karpeta, 15. dokumentua.

[770] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 30. or.

[771] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 119. or.

[772] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 502. or.

[773] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 117-118. or.

[774] Beste diputatua, Manuel Azaña errepublikanoa ere gonbidatua izan zen, baina ez zen Batzarrera azaldu.

erakutsi izanak eman zion garrantzia Batzar hari. Horrek eta Espainiako Gobernuak emandako erantzunak, Zumarraga poliziaz inguratu baitzuen, ordezkari asko herrira sartu ezinik gelditzea ekarri zuen. Poliziaren eta herritarren artean tirabira batzuk izan ziren, baina azkenean, Zumarragako Udaletxean, egin egin zen Batzarra. Hala ere, Joan Pablo Fusi historiagilearen arabera, Batzar haren garrantzia oso puztua izan zen, benetako akordiorik ez baitzen lortu bertan. Hurrengo egunean, Gernikan, katalan diputatuei egindako omenaldian, poliziak kargatu egin zuen eta istilu handiak sorrarazi zituen[775]. Horren aurrean, Espainiako Gobernuaren jarrera ikusita, udalen mugimenduaren ordezkariek, zinegotzien dimisio orokorra proposatu zuten; Gipuzkoan, Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, 352 zinegotzik dimititu zuten (Gobernu Zibilak 290en zifra eman zuen). Gipuzkoak, orduan 314 zinegotzi jeltzale eta 139 ezkertiar zituen. Gipuzkoako 19 alkate epailearen aurrean jarri zituzten, eta beste 17 kargugabetu[776]. Beraz, udal askotan, Gobernadore Zibilek herriak aukeratu gabeko behin-behineko Gestorak jarri behar izan zituzten. Horrek, monarkiaren garaiak gogorarazi zituen, udalerri askotan artean herriak aukeratu gabeko udalak baitzeuden. Irailaren 10ean, polizia-indarrek Bilboko alkatea eta 30 zinegotzi atxilotu zituzten "matxinadaren buruak" izatea leporatuta; zinegotzi horiek Burgosko kartzelan ere sartu zituzten. Eskuineko Espainiako Gobernua Euskal Herriarekiko erabat urrundua zegoen, baina beste alde batetik udalen mugimenduak, herri-babes handia lortzeaz gain, ez zuen emaitzarik lortu (Estatutua 1936an, gerra hasi ondoren, onartu zen).

1.5.d) Beasaingo Udal-gobernu eskuindarraren Gobernu-ekintza

Beasaingo Udalari dagokionez, Serafin Arana Gaiztarro gelditu zen behin-behineko alkate gisa, beste denek dimititu egin baitzuten. Serafin Aranaren lehenengo lana, udal berria osatu nahi zuten zinegotziak bilatzea izan zen. Oso gutxik onartu zuten hasiera batean, Jose Mendia soilik izan zen hasiera batean onartu zuen bakarra[777]. Azkenean, udal berria osatzeko adina lagun bi hilabete pasatu ondoren bildu zituen, 1934ko urriaren 31n. Horrek esan nahi du, urriaren hasierako gertakariak gertatu zirenean, langile-matxinada gertatu zenean, Serafin Arana zegoela udalaren arduradun gisa. Beraz, urriaren 31n osatu zen udala; Serafin Aranaz gain, alkate berria izango zen Manuel Pérez Vázquez, alkateorde berriak izango ziren Konstantino Imatz Nazabal eta Jose Mendia Lasa eta zinegotzi soil izango ziren Inozentzio Agirre Pagola, Frantzisko Amiano Azurmendi, Eusebio Asla Lapart, Migel Cerrajeria Tiffe, Joan Irizar Bikendi, Joan Jauregi Amiano, Ernesto Poignon Martin, Bizente Telleria Aiestaran eta Felipe Villaluenga Casasempere izan ziren udala osatu zutenak. Serafin Arana zinegotzi-sindiko izendatu zuten. Kargudun bakoitza; alkatea, bi alkateordeak eta zinegotzi-sindikoa aho batez aukeratuak izan ziren (boto zuri bat izan zen soilik bozketa bakoitzean, ziurrenik, aukeratuak berak bere buruaren alde ez bozkatzearren emana)[778].

Izendatutako zinegotzien profila begiratuta, bertan gero erregimen frankistarekin zinegotzi izango ziren bi (Eusebio Asla eta Migel Cerrajeria, azken hori alkate ere izango zena) aurkitzen ditugu, eta baita 1931ko apirilaren 12an, bertan behera gelditu ziren hauteskundeetan eskuinaren aldetik aukeratuak izan ziren bi zinegotzi ere: Manuel Perez alkate berria eta Bizente Telleria. Profil gutxi gorabehera ezkertiarra izan zuen bakarra Serafin Arana, aurreko udaleko zinegotzia zen. Zinegotzi horiek, "behin-behineko zinegotzi" bezala definitu zituzten euren buruak, baina eurak kargua hartu egin zuten eta udal-bilkuran esan zutenez, Gobernadoreari "eskerrak" eman zizkioten, "berak gonbidatu baikaitu postu hauek hartzera". Zinegotziok "ñabardura politikorik gabeko errepublikano" gisa definitu zituzten euren buruak, eta udaleko postuak "administratiboki udala normalizatzeko asmoz" hartu zituztela berretsi zuten, aurreko zinegotzien dimisioarekin "udalak ez baitzuen normal funtzionatzen"[779]. Euren helburu bakarra "udala aurrera ateratzea" zela esan zuten. Hala ere, halako adierazpen "tekniko" eta apolitikoak egin arren, argi eta garbi, eskuinarekin lerratutako udala izan zen udal hori. Autonomia Estatutuaren gaiaren inguruko eztabaidak, udal horrek erabat kanpoan utzi zituen. 1934ko urte-bukaeran eta 1935. urtean, Beasaingo Udalak Autonomiaren alde egindako ekintza bakar bat bera ere ez dugu ezagutzen.

Udalaren profil "teknikoa", udalaren osaketan baino gehiago nabaritu zen udalak hartu zuen ibilbidean: erabaki handirik hartzen ez zuen udala izan zen, lehengoak baino paper pasiboagoa izan zuen, ohiko arazo administratiboak konpontzen

---

[775] FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 119. or.

[776] RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 503. or.

[777] BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 84-85 or. Barandiaranek Agapito Oyarbide izeneko gizon batek ere kargua onartu zuela diosku, baina urriaren 31n osatu zen udal berri horretan ez zaigu Oyarbide horren konstantziarik agertzen.

[778] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[779] Alta, 1934ko urriaren 25eko *La Voz de Guipúzcoa* egunkariak esan zuen "bost karlistek kargua onartu dute, baina oraindik udala ez dago osatua". Jakin badakigu Eusebio Asla Lapart karlista zela, Bizente Telleria 1931n eskuineko hautagaitzarekin aurkeztu zela eta Migel Cerrajeria ere eskuindarra zela. Hala ere, azken bi horiek joera karlistakoak zirenik ezin dugu ziurtatu. Beste bi karlistak nortzuk ziren jakiterik ez dugu izan.

or.

jardun zuen[780], eta langabeentzako herri-lan berriak egiteko proiektuen egitasmoak egin zituen (Goierri kalea izan zena irekitzea, kale batzuek berritzea, ur-hornikuntza berria (Bernedo-enera), Arkasingo ur-hartunea handitzea, Garinen eskola berria egitea, Arriaranen beste errepide bat egitea), nahiz-eta horietako batzuek aurreko udalaren garaian ere jada pentsatuak izan[781]. Udal-zinegotzien arteko eztabaidak, zinegotziek mozioak aurkeztu eta mozioen inguruko askotariko ekarpenak, etab., 1931-1934 aldian hain normalak izan zirenak, 1934tik aurrerako urte eta ardi horretan asko jaitsi ziren kopuruz (hala ere, esan beharra dago 1935eko Errepublikaren Eguneko ospakizunak mantendu egin zituztela, diru-laguntza txikiagoekin izan arren)[782]. Nolanahi ere, udalak zenbait erabaki eztabaidatsu hartu zituen, adibidez, Beasaingo Guardia Zibilaren zuzkidura handitzea, horren atzean (1910eko hamarkadan bezala), ondasun-jabeen klasea zegoen, kasu horretan, zehazki, Gipuzkoako Ekoizleen Liga (*Liga de Productores de Guipúzcoa*), 1934ko iraultzaren ostean polizia-indarren presentzia handitzea eskatu zuena. Udal hori, beraz, eskuinekoa eta berez langile-mugimenduen kontrakoa izaki, iradokizun horrekin ados azaldu zen[783]. Udal horren akats nagusia, gastu handiegiak egitea izan zen eta, 1935eko abenduan, udal-zorraren hartzekodunei, zor--baleen interesak %5etik %4ra jaistea eskatu behar izan zien (kontuan izan behar da 1934ko urtarrilean Beasaingo udalaren egoera Gipuzkoako beste herriekin konparatuz, ontzat jo zutela ezkerreko zinegotziek). Hala ere, gastu gehien, gainezka egin zioten ohiko gastuetan izan zela ematen du eta ez hainbeste lan handiak egiten[784]. 1935eko otsailean jada, Perezen udalak esan zuen okerrera egin zuela udalaren egoerak[785]. Urte horretako kudeaketa-memorian, udal-talde hori bere burua zuritzen saiatu zen, 1934an "bi hilabetez" soilik egon zirela eta 24.000 pezetatik gorako defizita aurkitu zutela eta jesapenak erabiltzera behartuta gertatu zirela esanez. Perezen taldeak, Ospitalean zegoela gastu nagusia esaten zuen, geroz eta jende gehiagok eskatzen zuela-eta han sartzea (eta aldi berean, uraren arloan, udalaren diru-sarrerak murriztu egin zirela). Gainera, Garingo bidea zela-eta, udalak ordaintzeko modurik izan ez zuenez, kontratistak udalaren aurkako salaketa jarri zuen[786]. Salaketa horrek, 33.200 pezetako gain-kostua ekarri zion 1936ko ekainean Beasaingo Udalari (berriz ere ezkertiarren agindupean zegoela) hartaz txostena egin zuenean. 1934-1935eko udal-talde horrek, gain-kostu hura ordaintzeko Aldundiaren aldetik laguntzarik ez zuela jaso-eta, udalak beste 100.000 pezetako kreditu berri bat eskatu behar zian zion Gipuzkoako Aurrezki Kutxari[787].

Udal horren lehen arazoa, Martina Maiz kaleko eskola bateratuen inguruko bi mozioekin zer egin izan zen. Udal-talde horrek kargua hartu zuenean, bi mozio zeuden mahaian: batek (Aguado eta Lasa sozialistek aurkeztutako mozioak) eskola bateratu horietan eskola berri bat segituan martxan jartzea aipatzen zuen eta, besteak, errepublikanoek (tartean aurreko udaleko zein udal berriko kide zen Serafin Aranak defendatua) momentuz eskola berririk ez irekitzea defendatzen zuen. 1935ean hartu zen behin betiko erabakia, hau da, eskola berria zabaldu ordez, lokal haietara eskola publiko zaharreko (udaletxe ondoan zegoeneko) geletakoak eramatea, batez ere eskolaurreko adinekoak[788], eta hala jakinarazi zen 1935eko maiatzaren 22ko osoko bilkuran[789]. Konponbide hori behin-behineko konponbide gisa hartua izan zen arren, berez eskola berria zabaltzeko zegoen helburua sekula ez zen bete; urte batzuk igarota, erregimen frankistaren garaian, eskola hura karmeldarren esku gelditu zen. Udal hori, 1936ko otsailera arte egon zen agintean, Herri Fronteak (*Frente Popular)* hauteskundeak irabaztean berriz ere 1931ko hauteskundeetan hautatutako udalak hartu baitzuen agintea. Kargua berriz hartzerakoan, ordea, udalak Viktor Bernedo izan zuen alkate, 1935eko urriaren 8an Jazinto Urteaga Iurrita hil egin baitzen (haren hiletara, Manuel Perez alkatea buru zela, ofizialki joan zen udala eta dolu-eguna egitea ere dekretatu zuen)[790].

Tarteko udal horren barne-batasuna ere ez zen oso handia izan: 1935eko abenduaren 27ko udal-bilkuran zinegotzi batzuek dimititzeko asmoa erakutsi zuten. Agian, litekeena da Gobernadore Zibilak jarritako, eta ez herriak aukeratutako, udala izateak, alde batetik herritarren presioa ekarri izana, eta beste aldetik zinegotzien barne-higadura ere handiagoa izatea (kontuan hartu behar da, 1934ko abuztuaren bukaeran udal ezkertiarrek dimititu zutenetik 1934ko urriaren bukaeran udal hori jarri zen arte bi hilabete igaro zirela eta zinegotzi askorengan zinegotzi-kargua hartzeko eta karguan jarduteko gogoa ere moteldu egin bide zen, beraz, kargua,

[780] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 063 karpeta, 15. dokumentua.

[781] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3270-a dokumentu-sorta; Beasaingo Udal Artxiboa. 254. karpeta, 19. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 49. dokumentua.

[782] Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 60. dokumentua.

[783] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

[784] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

[785] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 03. dokumentua.

[786] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

[787] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[788] Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.

[789] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[790] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

"beste inork hartu ezean" hartu izana ere litekeena da). Litekeena da halaber udal-kideen arteko desberdintasunak egon izana ere, baina halakorik ez dugu aurkitu dokumentuetan (kontuan izan behar dugu oso profil politiko baxuko udala zela). Eta baliteke baita ere, Gobernadore Zibilaren iritziaren kontra, eta antza denez haren baimenik gabe, herriko azoka astearteetan egiteko erabakiak (larunbatetan egin beharrean), tentsioa sortu izana eta tentsio horiek udal-kide batzuk higatu izana (gerora ere luzatu zen azokaren aferaren inguruan). Bata edo bestea izan, abenduaren 27 hartan, udalak adierazi zuenez, "egunkarietan", udal osoak dimititu egin behar zuela agertu bide zen[791], baina udalak argitu zuen "udal-taldearen zati batek" soilik agertu zuela asmo hori. Asmo hori zutenak hauek izan ziren: Manuel Perez alkatea, Konstantino Imatz alkateordea eta Inozentzio Agirre, Migel Cerrajeria, Joan Irizar, Ernesto Poignon eta Felipe Villaluenga zinegotziak[792]. Hala ere, Serafin Arana zinegotzi-sindikoak "Gobernadore Zibilak haien dimisioa onartu arte", euren postuetan jarrai zezatela eskatu zien dimititzeko asmoa erakutsi zutenei eta haiek ados agertu ziren horrekin. Ez dakigu Gobernadore Zibilak dimisiorik onartu zuen ala ez, edota hauteskundeen gertutasuna zela-eta (1936ko otsailean egin ziren), gelditzen zen tarte txikirako dimisioekin atzera egitea erabaki zuten, baina badakigu 1936ko lehenengo osoko bilkuretan karguan jarraitu zutela, 1936ko urtarrileko eta otsaileko udal-bilkuren aktek hala baitiote[793].

1.5.e) 1934ko Iraultza Beasainen

1934ko urriko langileen mugimenduaren inguruan hitz egiterakoan, eta bere arrazoiak azaltzerakoan, normalean iraultza horren pizgarri gisa, 1933ko hauteskundeen ondoren zentro-eskuinak hauteskundeak irabazi eta Espainiako Gobernua Lerrouxen Alderdi Errepublikano Erradikalaren esku gelditu ostean, 1934an eskuinekoa eta errepublikaren aurkakoa zen *CEDA* alderdia sartzea aipatu izan da. Kontuan hartu beharra dago 1933ko azaroko hauteskundeetan *CEDA* izan zela alderdirik bozkatuena, gobernuburu zen Alejandro Lerrouxen Alderdi Erradikalaren gainetik, baina bai gizartean zein klase politikoaren artean, *CEDA* gobernuan sartzea arrisku bezala ikusten zen eta hori zela-eta, 1934an "Gobernuz kanpoko parlamentuko aliatu" moduan jokatu zuen. Hala ere, urrian bertan, Espainiako Gobernuan sartzea exijitu zuen, bestela Gobernuari babesa kentzearekin mehatxu eginez. Eta hala izan zen, Errepublikako lehendakari Alcala-Zamorak (ordura arte errepublikaren aurkakoak Gobernuan sartzeari betoa ezarri zionak) *CEDA*ko hiru ministro gobernuan sartzeko agindua eman zion Lerrouxi, tartean *CEDA*ko buru zen José María Gil Robles, Gudako Ministro gisa. *CEDA*k, bere Estatutuetan "Estatu berri bat" sortzea zuen ideologia gisa, hau da, Estatu autoritario bat, "gehiegizko askatasunari" mugak jarriko zizkiona, zuzeneko ordezkaritza demokratikoa zeharkako ordezkaritza-sistemaz ordeztuko zuena eta klase-borroka "gainditukо" zukeen gremio bidezko lan-antolaketa ezarriko zuena, Eliza Katolikoaren doktrina soziopolitikoaren bidetik. *CEDA*ko buru zen José María Gil Roblesen inguruan pertsonarekiko miresmena sortzen hasi ziren, karismadun buruzagi gisa azalduz (eta lider totalitario baten tankera ezartzen hasi ziren). *CEDA*ren nazioarteko eredua, Austriako agintari berri Engelbert Döllfuss zen, 1933an boterera iristean faxismoaren antzeko erregimena ezarri zuena[794]. Eta are gehiago, *CEDA* presente egon zen 1934an Alemaniako Alderdi Naziak Nuremberg hirian burutu zuen Biltzar Nagusian. Eta ez zen *CEDA* bakarrik izan, bere eskuinean zeuden alderdiek, *Renovación Española* alderdi monarkiko alfontsotar erradikalak eta karlistek, Italiara euren militante batzuk eraman zituzten instrukzio militarra egitera, indar paramilitarrak sortzeko asmoz. Gainera, falangistak ere euren lehen urratsak ematen hasi ziren ildo horretan.

Beraz, *CEDA* Espainiako Gobernuan sartzea, kronologikoki bat etorri zen Urriko Iraultza piztearekin, eta bateratze kronologiko horrek arrazoi horri pisu handia eman zion. Gainera, zuzendari sozialistek eta iraultzaileek diskurtso-arloan asko erabili zuten *CEDA*ren gobernuratzea iraultzaren pizgarri moduan, "probokazio atzerakoitzat" jotzen zutelako, "Errepublikak Errepublika izateari utzi" egin ziola argudiatuz. Halako argudioetan, zilegitasunaren inguruko eztabaida azaleratzen zaigu, izan ere, iraultza hori "atzerakoien kontrako defentsa-ekintza" gisa ikusteko modua ere ikusten baitugu.

Hala ere, langileen altxamendua piztu zuena ez zen "faxismoari zitzaion beldurra" edo "eskuinari zitzaion beldurra" bakarrik izan. Beste hainbat arrazoi egon ziren tartean. Horietako bat, "eskuinak egin zezakeena" baino, "eskuinak jada egindakoa" izan zen, 1931-1933 biurtekoan egindako erreforma batzuk atzera botatzeko asmoa, adibidez, Artekaritza Mistoak kentzeko asmoa. Egia esan, Artekaritza Mistoak, Primo de Riveraren Diktadura-garaian sortutako Batzorde Parekideen oinarrian sortu ziren, baina 1931ko azaroaren 27ko legeak eskumen handiagoak eman zizkien, adibidez, gatazken bitartekaritzaz gain, "lan-egutegia

[791] Hala ere, garaiko prentsan ez dut gertakizun horren arrastorik aurkitu.

[792] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[793] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[794] Döllfussek 1934an, hilabeteko borroka burutu eta irabazi zuen austriar sozialisten aurka, Vienako langile auzoak bonbardatuz. Bonbardaketa horiek hunkitu egin zuten Europako iritzi publikoa, batez ere langile-iritzi publikoa. Horrez gain, Espainian ere alderdi esplizituki faxistak sortzen hasi ziren. 1933an Falange alderdia sortu zen, beraz, "faxismoaren etorrera" hasi zen (kontuan izan behar da 1933an Alemanian Hitlerrek hauteskundeak irabazi zituela) eta faxismoa Europan errealitate bihurtzeko bidean zegoen.

or.

erabakitzeko, baldintzak jartzeko, ordutegia erabakitzeko" eta abar, edota nekazaritzako erreformaren planak deuseztatzeko edo bertan behera uzteko asmoa (lehen biurtekoan Alderdi Erradikala, ezkerreko errepublikanoen eta sozialisten erreforma-planak oztopatzen saiatu zen). Errepublikaren lehen biurtekoan (1931-1933) "biurteko aurrerakoia" edo "biurteko eraldatzailea" deitutako hartan, politika ekonomikoa nahiko kontserbadorea izan zen (gastuaren murrizketa egin zen, eta ez zen nazionalizazio handirik egin); eta langileen eta sindikatuen lorpen politikoak, enpresa barruan "ahotsa" lortzen ahalegindu ziren, hots, enpresa barruko botere-harremanen aldaketa lortzen (1932rako gipuzkoar enpresariak jada kexu ziren "araudi soziala hainbeste handitzeaz"[795]). Eta hori, Artekaritza Mistoen Legeari esker izan zen. Hura galtzea kolpe latza izan zitekeen langileentzat. Eskuinak, 1934ko urtarrilean Artekaritza Mistoak ia indarrik gabe, soilik "kontsulta-organo gisa" uzten zituen aldaketa bat onartu zuen, batere erabakimenik gabe utziz eta erabat ezabatzeko asmoa ere erakutsi zuen (nahiz eta erabat deuseztatzea ez zen gertatu, 1934ko abenduan halako Artekaritza asko bertan behera utzi zituzten)[796].

Hirugarren arrazoia, krisi ekonomikoa dugu. Jada aipatu izan dugu Beasainen langile askok krisia sufritzen zutela eta enpresetako lan-faltak langileak kaleratzea ekarri zuela. Bestelako industria-guneetan antzeko arazoak gertatu ziren. Kontuan hartu behar da, 1934ko urriko langile-matxinadak bere zentroa Asturiasko meatzarien artean izan zuela eta bigarren zentroa Hego Euskal Herriko lurralde industrializatuetakoa, hots Bizkaiko eta Gipuzkoako gune industrializatuenetakoa (Bizkaian Bilbon, Ezkerraldean eta Meatze-aldean gertatu ziren istiluak eta mobilizazioak eta Gipuzkoan herri handi industrializatuetan: Donostian, Tolosan, Pasaian, Errenterian, Eibarren, Arrasaten, Beasainen, etab.).

Laugarren arrazoia, langile-klasearen erradikaltzea izan zen. Alderdi Komunistaren jarrerak indartu egin ziren eta 1933an anarkistek hainbat herritan saiakera armatuak egin zituzten (1933ko urtarrileko Casas Viejaseko sarraskia gertatu ondotik saiakerarik garrantzitsuena izan zen hau) eta sozialistak ere erradikaltzera pasatu ziren, batez ere Largo Caballeroren eraginaren inguruan gontzarena eginez (esan beharra dago ordura arte Largo Caballero oso politikari moderatua izan zela: Primo de Riveraren Diktaduran goi-kargu bat ere izan zuen eta, 1931 eta 1933 artean, Lanaren Ministro izan zen). Largo Caballero bera, 1934ko urtarrilean PSOEko zein UGTko lehendakari aukeratua izan zen, eta gainera, Gazteria Sozialista erabat bere alde zuen. Langileengan eta sindikatuengan, "Errepublikak huts egin digu" edo "Errepublikak gutxi eman digu espero genuenarentzat" pentsamoldeek indarra hartu zuten[797]. Azken finean, 1931ko apirilaren 14an Eibarren aldarrikatutako Errepublika ez zen Errepublika sozialista, Errepublika burgesa baizik, indar burgesek (errepublikanoen moduan, ezkerrekoak izan arren, 1934tik aurrera, eskuineko burgesek) gidatutakoa. 1931 eta 1932an ondo funtzionatu zuen sozialisten eta ezkerreko errepublikanoen arteko akordioa, puskatuz joan zen, elkarrenganako konfiantza geroz eta txikiagoa izan zen handik aurrera. Akordio hori sozialismoaren moderazioagatik gertatu bazen ere, 1933an sozialismoaren erradikaltzea gertatu izanak, sozialismoa "indar burgesekin" aliantza egitea gaizki ikustera eraman zuen.

Eta bosgarren arrazoia, Euskal Herriaren egoerara mugatuta, Espainiako Gobernuaren zilegitasunaren galera ere kontutan hartzekoa da. Izan ere, 1934ko udako gertakariek, berez urriko langile-iraultzarekin lotura handirik izan ez bazuten ere (lehenengo gertakari haietan EAJk izan zuen pisua eta sozialisten parte-hartzea oso bigarren mailakoa izan zen; langile-iraultzaren kasuan sozialistek izan zuten pisua eta jeltzaleek parte-hartzeari uko egin zioten, eta hori gutxi balitz, EAJko zuzendari asko saiatu ziren Urriko Iraultzaren eta udalen mugimenduaren arteko loturak gezurtatzen). Euskal udalen mugimenduaren aurrean Espainiako Gobernuak izan zuen jarrerak zilegitasuna kendu zion Gobernuari. Zenbaitetan, batez ere eskuineko historiagile edo kazetarien aldetik, aipatu izan da Urriko Iraultza "demokratikoki hautatutako Gobernu baten aurkako mugimendua" izan zela[798], eta teknikoki hala zen, Lerrouxen Gobernua hautestontzietan aukeratua izan baitzen (nahiz eta, berriz diogun, demokraziaren geroz eta kontragokoa zen alderdi bat Gobernuaren aliatu izan eta Gobernuan sartzekotan egon). Hala ere, Euskal Herrian, abuztuan eta irailean Espainiako Gobernuak izandako jarrera antidemokratikoak, ezkerreko edo jeltzale ziren alkate eta zinegotzi guztiak kanporatu eta aukeratu gabeko udal batzuk ezartzean (eta baita Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan herritarrek bozkatutako Estatutua indarrean ez jartzean), herritarrek Gobernua, demokratiko gisa ez ikustea zekarren: "gobernu demokratiko baten

[795] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 55. or. eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 29. or.

[796] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución, insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 24. or.

[797] Arrasateko Gazteria Sozialistetako militante Jose Maria Arriaranek oso zentzu onean laburbiltzen ditu langile sozialista askoren sentipenak: "Guk askoz gehiago espero genuen Errepublikarengandik, bi urtez Gobernuan errepublikanoak egon baitziren. Atsekabe horrek 1933ko azaroan hauteskundeak eskuinak irabaz zitzan lagundu zuen. Gure artean, langile-klasearen aldarrikapenak betetzeko, Errepublika burgesa bai ala bai suntsitu beharra zegoela, eta hori bortxaz soilik lortuko zelako ideia barneratzen hasi zen. Gainera, 1933ko hauteskundeen ostean, ugazabak fabriketan geroz eta harroputzago azaltzen hasi ziren". GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 169. or.

[798] Izan da iraultza hau eta Francoren eta altxatuen 1936ko uztailaren 18ko Estatu-kolpea parekatu dituenik, biak "totalitarioak" izan zirela esanez; horrela, iraultza, Francoren eta konpainiaren altxamendua zuritzeko baliatu nahi izan dute.

aurka altxatzen ari gara" zioen iritziaren adimen-traba hori leundua edo desagertua geratu zen herritar askoren buruetan. Horrek azal lezake zergatik Asturiastik kanpo, matxinada soilik Euskal Herrian (1931ko zein 1933ko emaitzak indar kontserbadoreen aldekoak izan ziren toki batean) gertatu ziren; eta ez garai hartan tradizio sindikal edo ezkertiar handiagoa zuten Madrilen, Bartzelonan edo Andaluziako nekazaritza-gunean (Bartzelonan Generalitatek ere matxinada bat babestu zuen, "Errepublika Federalaren barruko Katalan Estatua" aldarrikatzean, baina matxinada hura nazionalista izan zen, ez zuen izan Asturiasen edo Euskal Herrian gertatutakoarekin zerikusirik, kronologia gorabehera)[799]. Beste toki askotan eskuina antidemokratikoa "izan zitekeen" edo "izateko arriskua bazegoen", baina Euskal Herrian, jende askorentzat, "jada antidemokratikoa zen".

Esan beharra dago, iraultzaileen programetako helburua, II. Errepublikaren "benetako izpiritua" berreskuratzea baino areago (ezkerreko errepublikanoek eta batez ere euren buru Azañak, edo are gehiago Indalezio Prieto bezalako sozialista moderatuek nahiko zuketen moduan), Errepublika Sozialista baterantz joatea zela. Iraultza horren eredua, praktikan boterea tarte laburrez lortu zuen tokia, Parisko Komuna izan zen. Alderdi Sozialistak 1934. urte-hasieran aurrekoa baino programa erradikalagoa onartu zuen eta programaren hamar puntuetatik punturik aipagarrienek lurra nazionalizatzea, industriaren gaineko langile-kontrola, ordena erlijiosoak kanporatzea, Administrazioan garbiketa egitea, Armada milizia demokratiko batez ordeztea eta Guardia Zibila deuseztatzea eskatzen zuten. 1934ko irail aldera, 1934ko urtarriletik jada Alderdi Sozialistaren eta UGTren lehendakari zen Frantzisko Largo Caballerok, programa hori ezartzeko beste programa txikiago bat erantsi zuen; non botere politikoa hartzea ezinbesteko puntu bezala ezartzen zen, mugimendua, bai praktikoki eta bai politikoki "iraultzaile" gisa definituz (hots, aldaketen bidez helburuak lortzeko bidea itxiz)[800]. Iraultza horren organo nagusiak "Langile Aliantzak" izan ziren, batez ere PSOEk eta UGTk zuzendutakoak, nahiz eta Alderdi Komunista ere sartu zen, baina betiere bigarren mailan eta matxinadaren zuzendaritza sozialistena izanik[801]. Anarkisten atxikimendua txikiagoa izan zen, eta Asturiasa mugatu zen, non paper garrantzitsua izan zuten, baina betiere bigarren mailakoa, mugimenduaren zuzendaritzan edo prestakuntzan ardurarik izan gabe[802]. Anarkismoa lehenengo langile-indarra zen tokietan ia ez zen matxinada-mugimendurik izan. Bestalde, EAEko militanteak, Euskal Herrian, grebara bildu ziren, baina horiek ere bigarren mailan. EAEko militanteak, alderdiak presentzia zuen tokietan soilik egin zuten grebarekin bat (kontuan hartu behar dugu EAE ez zela alderdi indartsua). Hala ere, euren parte-hartzeak ez zuen eragin politikorik izan, izan ere, askapen nazionalari erreferentzia egiten zion kontsignarik ez baitzen agertu.

Beste jokabide bat izan zen EAJrena eta ELArena. EAJk, hasiera batean esan zuen eurek mugimenduarekin ez zutela zerikusirik. Are gehiago, EAJko pertsona batzuek, adibidez, Jose Horn diputatuak esaterako, "legea eta ordena" ahalik lasterren berrezartzeko deia egin zuen Espainiako parlamentuan. EAJren *Euzkadi* egunkariak behin eta berriz esan zuen batzuk "ez parte hartzea" aurpegiratu digute eta beste batzuk "kolaboratzea" (…) guk ez dugu izan ez istiluetan ez errepresioan inolako paperik. Bizkaian eta Gipuzkoan indarra dugun tokietan ez da istilurik gertatu"[803]. Hala ere, Indalezio Prietok, esaterako, 1936ko otsailaren 29an, bere *El Liberal* egunkarian "abertzaletasunaren arloko pertsona batzuek, ez zuzendaritzakoek, parte hartu zuten" esan zuen. Antza denez, 1934ko irailaren 10ean, Jose Antonio Agirrek, gero lehendakari izango zenak, ezkerreko alderdi ezberdinekin bilera batean parte hartu zuen, eta bilera hartan, sozialistek, iraultzan parte hartzearen truke Estatutua berehala indarrean jartzea eskaini zieten[804]. ELAren kasuan, ELAren zuzendaritzak afiliatuei, mugimenduan ez zutela parterik hartuko esan zien. Halaber, "talkak saihestea" gomendatzen zien afiliatuei, eta "grebak indarra zuen tokietan, berori errespetatzea, baina betiere modu baketsuan". Hala ere, badirudi Gipuzkoako herri batzuetan, ELAko kideek gogotsu parte hartu zutela mugimenduan, adibidez, Tolosan, Zumarragan, Urretxun, Bergaran eta ikusiko dugun moduan, bata ere gure herrian, Beasainen. ELAkoen parte-hartze horrek zeresana sortu zuen beste alderdi batzuengan; adibidez komunistengan eta onerako, zeintzuk "EAJren zuzendarien jarrera bikoitza" deitoratzen zutelarik, "Alkartasunako kideen paper aktiboa" goretsi zuten[805]; karlistengan

[799] Asturiastik kanpo, lurralde horren mugakide ziren gune batzuetara ere zabaldu zen iraultza, adibidez, Leongo probintziaren iparraldeko meatzeen haranetara, edo Kantabriara. Espainiako Estatuko toki eta hiri askotan, Madrilen adibidez, greba orokorrak egin ziren, baina ez ziren matxinada-jitekoak izan, baketsuak baizik. Iraultzaren isolamendu hori azaltzeko, tokiko arrazoiak ere aurki daitezke: adibidez, anarkisten sindikatuak, CNTk, iraultza horretan izan zuen paper pasiboak, anarkistak nagusi ziren lurretan matxinada handirik ez izateko eragina izan zuen, baina baita 1934ko errepresioak ere.

[800] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 32-34. or.

[801] MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 84 eta 86. or.

[802] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 51. or.

[803] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 45-46. or.

[804] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 44. or.

[805] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 45. eta 153. or.; eta BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 339. or.

or.

aldiz, txarrerako, eta haiek "Alkartasunak, sozialistekin ahaidetasunean (...), Tolosan eta Urretxun adibidez, mugimendu iraultzailearekin bat egin zutela" deitoratu zuten[806]. Hala ere, ELAren parte-hartzea ez zela erabat osoa izan frogatzen du bere kideak beti bigarren mailan egon izanak eta zuzendaritzak lehen mailara pasatzeko asmorik inoiz erakutsi ez izanak; erakuslerik garbiena zera da: ELAren zuzendaritzak, Gipuzkoan, urriaren 11n, artean greba bukatu gabe zela, lanera itzultzeko deia egin izana[807]. Dario Anselen arabera, "zaila da greba horretan ELAk izan zuen papera guztiz argitzea"[808], eta "ELAko zenbat kidek parte hartu zuten jakitea"[809]. Anselen arabera, ELAren papera, hitz gutxitan defini daiteke eta neutraltasunezkoa edo gerrari ez izatekoa" izan zen[810]. 1984an, Matai Maidagan eta Sekundino Jauregi ELAko kide bizkaitarrek esan zuten bezala, "guk ez genuen mugimenduaren prestakuntzan zereginik izan, eta zoritxarrez diot, oso antolakuntza ona genuelako. Greba egin zen lantokietan, gu bazterrean utzi gintuzten grebalariekin bat egin genuen[811]". ELAk beregan errepresioa ere jasan zuen eta urriaren 6an Donostian, ELAko Gipuzkoako burua atxilotua izan zen eta egun horietan ELAko beste hainbat kide ere atxilotu zituzten eta beren sindikatu-egoitzak ere itxi egin zituzten. ELAren programa eta nahia izan zirenak zirelarik ere, Espainiako Gobernuak beste iraultzaileen moduan tratatu zituen. Beste alde batetik ere esan behar da, ELA, iraultza pasatu ondoren, bere oinarriko kideen parte-hartzea edo parte-hartzaile ELAkideen kopurua gutxiesten saiatu zela[812]. Hala ere, EAE eta ELAren parte-hartzea gora-behera, esan behar dugu, iraultza horretan, euskal nazio-askapenaren inguruko lelorik edo kontzepturik ez zela presente egon langileen aldarrikapenen artean, beraz, programaren inguruko eragina oso mugatua izan zuten.

Esan bezala, Asturiasen izan zen iraultzaren punturik beroena, hainbat faktore bildu baitziren Asturiasen iraultza han hasteko. Izan ere, berriz ere gogoratu beharra dago, iraultza hura ez zela mugimendu lokal bat izan, baizik eta Espainiako Estatu guztian zabaltzera zihoan matxinada. Adibidez, Madrilgo UGTren egoitzan, lurralde bakoitzeko kideei matxinadarako argibideak eman zizkieten[813]. Aurretik esan bezala, CNTk Asturiasen bai parte hartu zuen ekintza iraultzailean, horregatik han eratu zen lehen aldiz UHP (*Unión Hermanos Proletarios*, Langile Senideon Batasuna). Litekeena da han anarkistek indar guztiarekin parte hartu izatea eta hori da Asturiasen iraultzak aurrera egin zuela azaltzeko arrazoietako bat. Beste arrazoietako bat, Asturiasen jada 1934an giroa nahikoa "berotuta" egotea izan zitekeen, 1934an zehar sei greba orokor egin baitzituzten. Gainera, Asturias izan zen *CEDA*k Gobernuan sartzeko eskaera egin zueneko mitina egiteko erabili zuen tokia (Covadongan,



Bernedo-eneko lantegia. Elgoibartik etorri eta Viktor Bernedok lantegi hau eraiki zuen. Gaur egungo Bernedo-eneko aparkalekua eta Osasun Etxea dauden tokian zegoen. 1967-08-19an itxi zen. (Argazkia: JZG, 87. or.)

[806] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 44. or.

[807] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 339. or.

[808] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 1001, 222. or.

[809] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 1001, 226. or.

[810] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 1001, 225. or.

[811] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general. Intxorta 1937* Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 51. or. Adierazpenok, 1984an GITE-IPES taldeak Bilbon Urriko Iraultza haren 50. urteurrena ospatzeko antolatutako jardunaldi batzuetan egin zituzten.

[812] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera*. Txalaparta. Tafalla, 1001, 227-229. or.

[813] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 35. or.

Emilio Hunolten lantegia 1947an, egungo J. M. Iturriotz kaleko 14 eta 16 etxeak dauden tokian. 1977an Senperera joan zen eta handik ere desagertua da.
(Argazkia: JZG, 87. or.)

1934ko irailaren 9an), eta hura, Asturiasko langileek probokazio gisa ikusi zuten. Beste faktore bat, Asturiasko langileen entrenamendu-maila izan zen, sozialisten, komunisten eta anarkisten artean, oso ondo entrenatutako hiruzpalau mila langile zituzten. Hots, iraultza garaipenera eraman zezaketen tokiko indar praktikoak (prestakuntza militarra eta antolakuntza) eta politikoak (langile-klasearen batasuna) Asturiasen bildu ziren (gero praktikan hiru indarren arteko batasun-falta, sozialisten, komunisten eta anarkisten artekoa, izan zen 1934ko Urriko Iraultzaren porroterako arrazoi nagusia)[814]. Hala ere, ikusiko dugun bezala, armadaren kuartelik handienak ez hartzeak, mugimendua Asturiasen bertan isolatu eta ito zuen, Espainiako beste herrialdeetara zabaltzea ezinezko eginez.

Dena dela, iraultza bera, hasiera batean gaizki hasi zen, Indalezio Prieto zuzendari sozialistak enkargatutako armez kargatutako "*Turquesa*" itsasontzia San Esteban de Pravia herri asturiarrean deskargatzera zihoala poliziak atzeman baitzuen. Prieto, bertan zegoelarik, doi-doi libratu zen atxilotua izatetik[815]. Dena dela, Asturiasko langileek armak lortu zituzten, bai bertako arma-fabriketatik lapurtuz eta baita Eibarko fabriketatik eskuratu zituztelako ere[816].

Asturiasen, beste tokietan bezala, iraultza urriaren 5ean hasi zen, bi meatze-eskualdeetan (Nalón eta Caudal). Lehen orduetan Guardia Zibilaren 23 kuartel hartu zituzten eta hurrengo egunetan gehiago. Hala, iraultzaileek militarki eskualdea euren esku izatea lortu zuten. Oviedon, gaizki-ulertu batzuk medio, iraultza ez zen egun berdinean hasi eta bertako militarrei erantzuteko denbora eman zien. Hala ere, meatzariak, hurrengo egunean, urriaren 6an sartu ziren Oviedon, Ramon Gonzalez Peña buruzagiaren agindupean. Urriaren 6 eta 7aren artean hiri osoa hartu bazuten ere, ez zuten izan kuartel militarrak hartzeko denborarik, beraz, kuartelak setiatuta geratu ziren baina iraultzaileek ez zuten inolako aukerarik izan kuartel haiek hartzeko. Gijonen, aldiz, iraultza baketsua izan zen, iraultzaileek ez baitzituzten nahikoa arma Estatuaren indar armatuei aurre egiteko. 7an, armadaren itsasontzi bat iritsi zen Gijonera, Asturiasko iraultza zanpatzeko asmoz baina bertako iraultzaileek erresistentzia antolatu zuten. Pixkanaka-pixkanaka Asturias osora zabaldu zen iraultza.

Espainiako Gobernuak, errepresioa berehala hasi zuen. Errepresioaren buru, Frantzisko Franco (geroago diktadore izango zena) eta Manuel Goded jeneralak ibili ziren, bi urte geroago Errepublikaren aurkako altxamendu militarra hasiko zutenetako

[814] MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE.* Templando el Acero. Iruñea, 2012, 87. or.

[815] Itsasontzia eta armak ordaintzeko dirua Horazio Etxebarrieta Bilboko enpresari errepublikanoak jarri zuen. GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 34-35. or.

[816] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 35. or.

or.

bi. Beste alde batetik, erabili zituzten tropa militar gehienak marokoar erregularrak izan ziren, Gobernuak ez baitzuen nahi Armadaren barruan ere liskarra sortzerik. Tropa haiek eta euren buru Joan Yagüe jenerala[817], aipatu bezala Gijonen sartu ziren urriaren 7an eta urriaren 10erako jada Gijongo erresistentzia garaitu egin zuten. Mendebaldetik Lopez Ochoa jenerala sartu zen, Oviedo ondoan zegoen Trubia herriko arma-fabrika okupatuz. Ekialdetik, Solchaga jeneralak (honek ere 1936ko uztaileko altxamendu militarrean parte hartu zuen) Langreoraino eraman zituen bere tropak, Nalon meatze-eskualdearen hiriburua okupatuz. Oviedon, Asturiasko Batzorde Iraultzaileak, urriaren 11n, hiria okupatuta zegoela ikusita, erretiratzeko agindua eman zuen, nahiz eta hiriaren aldirietan eta langile-auzoetan erresistentziak urriaren 13ra arte jarraitu. Egun horretan hiria armadak okupatua izan zen. Urriaren 15ean, hegoaldetik, Leondik sartu ziren tropak, Balmes jenerala buru zela eta Caudal meatze-eskualdeko Mieres herrira sartzear jarri ziren. Hori zela-eta, Asturiasko Batzorde Iraultzaileak errenditzeko asmoa erakutsi zuen eta Belarmino Tomas buruzagi sozialistaren eta Lopez Ochoa jeneralaren arteko negoziazio batzuen bidez gauzatu zen errenditze hori (Lopez Ochoaren negoziazioa, ordea, beste jeneral batzuek, adibidez Francok edo Yagüek ez zuten onartu). Azken erresistentzia-guneek urriaren 18a arte iraun zuten.

Boterea izan zuten guneetan, iraultzaileek, tokiko Batzorde Iraultzaileak antolatuz, Estatu sozialistaren antzeko zerbait jarri zuten indarrean. Hala ere, "antzeko" hitza azpimarratu behar dugu, ez baitzen eredu bateraturik izan. Praktikan, koordinazio bakarra, militarra izan zen. Iraultzaileek boterea zuten tokirik gehienetan, batez ere tropa iraultzaileentzako hornikuntza eta funtzionamendu zibila (erietxeak edo gaixo eta zaurituentzako arreta, janari-banaketa) segurtatzea lehenetsi zuten. Iraultzaileek, hori bai, Oviedoko Espainiako Bankua asaltatu zuten, bertako gordailuak iraultzaren beharretarako erabiltzeko. Ekintza hori oso adierazgarria izan zen, bai sinbolikoki zein politikoki, ordena zaharra desjabetzea esan nahi zuelako. Nazionalizatu edo konfiskatutako jabetzen kopurua edo mota ere, aldakorra izan zen toki batetik bestera.

Oro har, halako iraultza batek bortizkeria handia ekartzen du eta Asturiaskoa horretan ez zen salbuespena izan. Hala ere, esan beharra dago, mugimendu iraultzailearen zuzendaritzak ez zuela bortizkeriarako deirik egin, baizik eta iraultzaren oinarrian zeuden elementu batzuen ekimenez gertatutako oldarraldiak izan zirela. Iraultzaren alde gainezka egindako elementu horien aldetik errepresio-gertakizun gogorrak ere izan ziren, batez ere kleroaren kontra, oso ezaguna izan zen 34 apaiz eta kleroko kide hil izana. Baina gertakizun hori Espainiako Gobernuaren edota eskuinaren aldeko prentsak oso entzutetsu egin bazuen ere, harrigarria izan arren, gisa horretako jokabideak ez ziren izan iraultzaren orokortasuna ordezkatu zutenak, izan ere, kasurik gehienetan, iraultzaren ordenako indarrek, guardia gorriek, gehiegikeriak ekidin edota gertatuz gero zigortu ere egin baitzituzten. Iraultzak atxilotutakoei emandako tratua oro har, ona izan zen. Guardia gorriek, lapurretak, gehiegikeriak eta neurrigabeko bortizkeria heriotzaz zigortuko zutenaren deia ere egin zuten.

Hala ere, konparatuz, Espainiako Gobernuaren errepresioa askoz ere gogorragoa izan zen. Historiagile gehienen arabera, 1.100 eta 1.500 langile artean hil zituzten[818], iraultzaileek 50 bat zibil eta 300 bat militar edo polizia hil zituzten. Espainiako Estatu osoan, 30.000 eta 40.000 pertsona artean kartzelatuak izan ziren (gai hau hain garrantzitsua izan zen, ezen 1936n Herri Fronteak (*Frente Popular*) hauteskunde-kanpainan, amnistia, aldarrikapen nagusietako bat izan zuela). Franco eta Yagüe jeneralen mendeko tropek erabateko tratu txarrak, torturak, bortxaketak, umiliazioak eta abarrak egin zituzten populazioaren artean (Espainiako Parlamentuaren ikerketa-batzorde batek tortura horien izantza frogatu zuen). Garai hartan, langile-mugimenduak Eduardo Lopez Ochoa jenerala jo zuen errepresioaren arduradun nagusitzat eta triskantza-egile nabarmentzat, baina gaur egun, badakigu Lopez Ochoaren jarrera beste jeneralena baino neurtuagoa izan zela.

Euskal Herrian, halako zenbakietara iritsi ez bazen eren, talka gogorrak izan ziren. Istilurik larrienak Bizkaian gertatu ziren. Bizkaian 5etik 17ra iraun zuten istiluek eta 24 pertsonaren heriotza eta 1.000tik gora atxilotzea ekarri zuten[819]. Geografikoki, Nerbioi ingurua izan zen Bizkaiko matxinadaren mapa, batez ere Meatze-aldea. Bizkaiko Iparraldean eta Ekialdean, Gernikan, Bermeon, Ondarroan eta Durangon mobilizazio batzuk izan ziren, baina ez matxinada-izaerakoak[820]. Grebak Euskal Herriaren barruan Bizkaian indar handiena izateko arrazoia, ziurrenik, bi mugimendu antolatzaileek, sozialistek eta komunistek han Hego Euskal Herriko beste ezein lurraldetan baino indar handiagoa zutelako izan zen. Alderdi Sozialistak 3.000 kide zituen Bizkaian, eta UGTk 30.000 baino gehiago (horietatik 8.000 baino gehiago metalurgiakoak), eta herrialdeko

[817] 1936ko gudan Extremadura aldean itzelezko sarraskiak egin zituen.

[818] Batzuek 3.000ra igotzen dute zifra hori: MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 88. or.

[819] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 48. or.

[820] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 47-48. or.

sindikaturik handiena zen[821]. Konparatuz, Gipuzkoan, sozialistek 600-700 bat kide zituzten, eta UGTk 8.000 bat kide (1934rako ELAk Gipuzkoan UGTri aurrea hartua zion)[822]. Araban eta Nafarroan, langile-mugimenduen presentzia are txikiagoa zen.

Hala ere, Hego Euskal Herrian, matxinada oso gaizki prestatu zuten. Alde batetik, agian sozialistek eurek iraultza antolatu zutelako (agian iraultzak arrakasta izan balu gero onura guztiak berek irabazteko) eta ardura guztiak berek hartu zituztelako. Lehenago aipatua dugu CNTrekin komunikazioa hautsia zela, eta ELA ere ez zela ezertarako kontuan hartu[823]. Kasu horietan, sindikatu horiek euren arrazoi ideologiko propioak izan zitzaketen matxinadarekin bat ez egiteko, baina matxinadaren alde egon zitezkeenak ere, hots, Alderdi Komunista adibidez, ez ziren garaiz deituak izan. Sebastian Zapirain komunista donostiarrak aipatu zuenez, "PSOEk eta UGTk mugimendua beren kontu antolatu zuten. Ez komunistei, ez CNTkoei, ez nekazariei ez zieten berririk eman. Alderdi komunista filtrazioen bidez enteratu zen (…) eta hankasartzea zela ondorioztatu zuen, oso gaizki antolatuta zegoelako. PSOEk, gauzak hala zeudela eta joan edo ez erabakitzeko esan zigun. (…) Alderdi komunistak, kritika ororen gainetik parte hartzea erabaki zuen, faxismoari aurre egiteko behar gorena zela-eta"[824]. Horren harira, sozialisten eta komunisten arteko komunikazio eskasaz ohartarazteko beste faktore bat badugu, alegia, bi alderdien arteko koordinazio-organo bezala aritu behar izan zuten Langile Aliantzak, matxinada hasi ondoren hasi ziren antolatzen[825]. Eta azkenik, armen gabezia izan zuten. Euskal Herrian bertan, greba luzea egin arren, Meatze-aldean izan ezik (eta Gipuzkoan Eibarren eta Arrasaten egun batez edo ordu batzuez), egoeraren kontrol eraginkorrik ez zuten lortu; greba hori matxinada pizteko izan zen arren.

Bizkaian, lehen mugimenduak, urriaren 4ko gauean hasi ziren. Antza denez, Madrilgo PSOEren oniritzia zuten, aurreko egunean, Bizkaiko komunistek ekintza-batasuna proposatu zietelarik, sozialisten erantzuna "Madriletik oniritzia jaso arte ez gara mugituko" izan baitzen[826]. Horrek ez zuen esan nahi aurretik nolabaiteko prestakuntzarik izan ez zenik, 1934an zehar izan ziren halako iraultza-prestakuntza batzuk, Gazteria Sozialistakoek baserri-guneetan entrenamenduak eta abar egin zituzten. Maiatzerako prest zegoen Batzorde Iraultzailea Paulino Gomez buru zela[827]. Urriaren 5ean Bilboalde osoa isolatua zen eta Bilbon bertan tiroketak izan ziren. Saltoki guztiak itxi egin ziren eta prentsa ez zen atera. Guardia Zibilak auto pribatuak konfiskatu zituen. Egun berean, Gallartan eta Muskizen iraultzaileak meatzeen kontrolaren jabe egin ziren. Muskizen, urriaren 8a arte jaun eta jabe izan ziren, eta Gallartan 9a arte. Abanto-Zierbenako Putxeta meatze-auzoan, Espainiako Gobernuaren indarrak ez ziren sartu urriaren 14a arte, eta Arboledan (Trapagaran), urriaren 17a arte. Herri horiek bonbardatuak ere izan ziren[828].

Hiriburuari dagokionez, grebak egun batzuez osoa izaten jarraitu zuen. Urriaren 6an Guda-egoera aldarrikatu zen. 7an tiroketa berrietan, indar publikoek zibil batzuk hil zituzten. 8an hasi ziren denda eta saltoki batzuk zabaltzen. Prentsa urriaren 9an hasi zen ateratzen, nahiz eta artean autoen zirkulazioa debekatuta zegoen. Egun horretan sindikatu katolikoetako langileak lanera itzultzen hasi ziren eta tiroketa berriak izan ziren. Hala ere, hurrengo egunetan langile gehiago sartu ziren lanera, urriaren 12an sindikatuek lanera itzultzeko kontsigna eman baitzuten. Prentsarik gehiena, urriaren 11n jardunean ari zen. Urriaren 13tik aurrera, Bilboaldean egoera lasai zegoen eta aipatu bezala, Meatze-aldean geratzen ziren erresistentzia-gune bakarrak, bonbardatuak izan ziren[829]. Errepresioa handia izan zen, urriaren bukaerarako 1.000 bizkaitar preso ziren. Errepresioan Bizkaiko goi-mailako klaseek ere parte hartu zuten, bai "diru-bilketa" eginez (urriaren 16rako 107.830 pezeta bildu zituzten) eta baita errepresio-indarren aldeko omenaldi publikoak eginez ere, adibidez, urriaren 16an bertan egin zen desfile militarra[830].

---

821 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 50-51. or.

822 BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 145. or.

823 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 74. or.

824 JIMENEZ DE ABERASTURI, Joan Karlos: "Protagonistas de la Historia Vasca 1923-1950: Sebastian Zapirain". Eusko Ikaskuntzaren *Cuadernos de Sección de Historia y Geografia* aldizkaria, Donostia, 1984, 140 or.; in GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 151 or.

825 Alderdi Komunistak, Alderdi Sozialistak halako matxinada bat prestakuntzarik gabe hastea gogor kritikatu zuen, baina parte hartzeko beharra ikusi zuen "langileek bestelako jarrerarik ulertuko ez zutelako": MARTIN EIZAGIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 86. or.

826 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 53. or.

827 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 48-49. or.

828 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 76-78 or.

829 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 55-67 or.

830 GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 66-67 or.

or.

Gipuzkoako matxinadan, mapa geografikoa eginez, erreferentzia Debarroa izan zela esan behar dugu, iraultzaileak boterea lortzeko hurbilen egon ziren tokia izan baitzen. Eraikin ofizialak hartzeko enfrentamendu armatu zuzenak izan ziren eta are boterea kudeatzeko gai izan ziren garai batez. Hala ere, kronologiari begiratuz, erreferentzia Donostia da, bertan grebak urriaren 5etik 12ra iraun baitzuen.

Gipuzkoan, iraultzaileak, batez ere sozialisten ingurukoak, 1934 hasieratik hartarako prestatzen ari ziren. Donostiako zinegotzi zen Gillermo Torrijosek paper garrantzitsua izan zuen Gipuzkoako matxinadaren prestakuntzan (nahiz eta, iraultza garaitua izan ondoren, iraultzaileen aurka egin zen Guda-kontseiluetako batean, buru izatea Endrike De Francisco tolosarrari egotzi zion). Urtarrilean bertan, Gipuzkoako Gazteria Sozialistara, "Alderdi Sozialistarekin elkarlanean arituko den mugimendu iraultzailea pizteko batzorde bat izendatzeko" enkargua iritsi zen[831]. Ordutik aurrera, gazte sozialistak armatzen hasi ziren, Artemio Etxeberribar eta Anjel Jimenez buru zituztela. 1934ko ekainean, Hernani aldeko Adarrako gainean, erakustaldia egin zuten, Lasarteko Gazte Sozialistetako kide (eta gero, Francoren diktadura garaian, gerrilla komunistako kide) Viktorio Bikuñaren arabera, 2.500 gazte sozialista gipuzkoar bildu ziren bertan[832]. Alderdi Komunista ere antolatzen aritu zen, MAOC (*Milicias Antifascistas Obreras y Campesinas*; Langile eta Baserritarren Milizia Antifaxistak) talde armatua antolatuz. MAOCen buru, 1930ean Jacan altxatu zen Fermin Galan martiri errepublikanoaren anaia, eta gero, 1936ko gudan, Eusko Gudarosteko teniente izan zen Frantzisko Galan izan zen eta berak zuzentzen omen zituen Hernani aldeko Adarra eta Igeldoko Mendizorrotz mendietan egiten ziren entrenamenduak (beraz, pentsa genezake Adarrako ekaineko desfile-ekitaldi sozialistan gazte komunista batzuek ere parte hartu zutela)[833]. Hala ere, askotan aipatzen denaren kontra, Jesus Larrañaga goierritarra, komunista gipuzkoarren burua, ez zen iraultza horretan zehar Gipuzkoako komunisten arduradun gisa ibili, Sebastian Zapirain donostiarrak Jose Antonio Egidori kontatu zionaren arabera. Zapirainek gehitzen du berak ez duela uste Bizkaian ere ibili zenik. Egidoren arabera, Ipar Euskal Herrian eta Frantziako Estatuan egon zen, Bokalen mitin batean parte hartu baitzuen eta Parisen bileraren batean ere parte hartu zuen. Larrañaga ez zen iraultzarekiko harremana galduta egon, izan ere, behin iraultzak porrot eginda, Lapurditik lagundu baitzien langileei estatu-muga pasatzen, baina ez zen ekintzaren aurrez aurreko frontean ibili[834]. Kontrako bertsioa ematen dute Larrañagaren ondorengoek, bere alaba Rosa Larrañagak eta iloba Miren Atxagak: "ziurrenik, Jesus Larrañaga greba horren arduradun izan zen, momentu horietan denean sartua zegoen-eta"[835].

Kontuan izan behar dugu baita ere, 1934an langile-gatazken kopurua gorantz joan zela Gipuzkoan. Lehen aipatu dugu hori eskuineko Gobernu bat indarrean jartzeagatik izan zitekeela, 1931-1933an ildo moderatu samarra hartu zuten-eta sindikatu sozialistek, baina 1934an jada, ildo horri atxikitzeko beharrik ez zuten. 26 greba egin ziren Gipuzkoan 1934an, aldiz, 1931-1933 epean 41 egin ziren[836]. Beste alde batetik, 1934ko irailean Donostian bi hilketa egin ziren: Manuel Carrion Danborenea tabernari falangista hil zuten ezkertiarrek irailaren 9an, eta falangistek aldiz, hurrengo egunean, Migel Casaus Ezker Errepublikanoko goi-kargua[837].

Donostian, esan bezala, urriaren 5ean izan zen grebak urriaren 12a arte iraun zuen. Lehen unetik talka gogorrak izan ziren poliziarekin hiri barnean zehar. Asteko merkatua itxi egin zuten, prentsa ateratzea galarazi eta tranbiak eta trenak geldiarazi. Estatu-mugarako, gobernadoreak, guda-egoera aldarrikatu zuen eta tropak kalera atera ziren, tranbiak martxan jar zitezen eta eraikin publikoak Estatuaren esku gera zitezen bermatzeko; hala, hurrengo egunean, herrialdeko agintaritza Leon Carrasco Amelibia gobernadorearen esku utzi zuen Gobernuak. Urriaren 6an beste tiroketa batzuk gertatu ziren, batez ere, alde zaharrean[838]. Egun horietan, Donostian, bi hildako izan ziren: Jose Berra kale-garbitzailea eta Antonio Castroviejo gaztea, iraultzarekin zer ikusirik ez zuena, polizia-indarrek tirokatuta[839]. Horiei gehitu beharra dago iraultza hasi baino egun bat lehenago,

---

[831] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 146 or.

[832] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 67. eta 148 or.

[833] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 65-66. or.

[834] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 68-70. or.

[835] Rosa Larrañaga Agarristari eta Miren Atxaga Larrañagari egindako elkarrizketa. Gasteizen, 2015-05-26an.

[836] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 99. or.

[837] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 24. or.

[838] JIMENEZ DE ABERASTURI, Joan Karlos "Protagonistas de la Historia Vasca 1923-1950: Sebastian Zapirain". Eusko Ikaskuntzaren *Cuadernos de Sección de Historia y Geografía* aldizkaria, Donostia, 1984, 138 or.

[839] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: Octubre del 1934 en *Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 159-160. or.

prestatzen ari zen bonba eskuetan lehertuta hil zen Eusebio Gonzalez sozialista[840]. Beraz, Donostian, grebak ez zuen lortu inolako botere-arlorik eskuratzerik, nahiz eta grebak urriaren 12a arte iraun.

Baina, esan bezala, Eibarren eta Arrasaten izan ziren iraultzek izan zituzten nolabaiteko kontrola eskuratzeko aukerarik handienak, eta errepresioa ere, bi toki horietan nabarmendu zen gero. Eibarren, goizean goiz hasi ziren tiroketak, goizeko 4:30ean izan zen tiroketa bat eta 5etarako iraultzaileek Eibarko postu nagusiak (armategi bat, udaletxea eta geltokia) hartuak zituzten. Lehen aurrez aurrekoak 6,30ak aldera bukatu ondoren, iraultzaileek herri osoa kontrolatu zuten, Guardia Zibilaren kuartela izan ezik. Arrasaten, abisua Eibartik etorri ostean, goizeko hirurak aldean iraultzaileak herria hartzen hasi ziren, baina horretarako aurretik gauzainak, mikeleteak eta zaindariak desarmatu egin zituzten. *Unión Cerrajera*, Arrasateko fabrika (Gipuzkoako bigarren handiena, CAFen hurrena) hartu zuten eta bertan arma batzuk eskuratu zituzten[841]. Geroago geltokia ere hartu zuten eta haren ondoren herriaren irteeretan zaintza-taldeak jarri zituzten. Hala bada, bai Eibar zein Arrasate, iraultzaileen esku gelditu ziren. Eibarren lehen orduetan, bi iraultzaile Pedro Gerrikabeitia eta Sebastian Landa hil ziren tiroketetan. Beste alde batetik, Eibarko enpresari eta Zirkulu Tradizionalistako buru zen Karlos Larrañaga ere hil egin zuten, baina ez dago argi iraultzarekin lotuta ala ika-mika pertsonalen inguruan gertatu zen[842]. Egun osoan zehar beste lau pertsona hil ziren Eibarren, hiru iraultzaile eta polizia-indarretako kide bat[843]. Hala ere, Eibarren iraultzaileek, Bizkaitik ekarritako Espainiako Gobernuaren errefortzuak aldi batez herritik kanpo mantentzea lortu zuten arren, indar txikia zutenez gero eta Gipuzkoako beste tokietan iraultza lehertu ez zenez, ordu biak aldera, Toribio Etxebarria buru zutela, langileek amore eman zuten (une horretan iraultzaileek Armagin Eskola soilik zuten kontrolpean)[844].

Arrasaten, ordea, langileek Errepublika Sozialista aldarrikatzeko beste indar bat izan zuten. Janarien banaketa Herriko Etxetik antolatu zuten eta dirua ordezkatzeko ordain-txartelak ere jaulki zituzten. Atxiloketak ere egin zituzten, Union Cerrajerako enpresariak eta baita orduko Arrasateko alkatea ere, Lerrouxen alderdikoa. Espainiako Gobernuaren indarrak arratsaldeko seiak aldera sartu ziren Arrasaten eta tiroketa batzuk ere izan ziren. Azkenean, hurrengo eguneko goizaldean herria hartua izan zen. Beraz, Gipuzkoako matxinada-gune biak itzaliak izan ziren[845] eta bakoitzean ehunka atxilotu izan ziren. Arrasaten lau pertsona hil ziren gertaera horietan zehar: iraultza hasi eta berehala langileek Eujenio Edurra langile karlista hil zuten lanera zihoala (greba ez errespetatzeagatik) eta hilaren 6an errepresio-indarrek Sekundino Bitoria gauzain iraultzailea hil zuten. Bestetik, hilaren 5ean, iraultzaileek, Armada herrian sartzera zihoala entzun zutenean, preso hartu zituztenetako bi, biak Union Cerrajerako enpresariak, Martzelino Oreja Administrazio Kontseiluko lehendakaria eta Dagoberto Rezusta gerentea exekutatu egin zituzten[846].

Probintziako beste toki batzuetan ere izan ziren bortizkeria-kasuak. Tolosan, sei eguneko greba egin zen, sozialisten zein jeltzaleen erabateko parte-hartzearekin. Hiru zaurituta gertatu ziren eta Julian Rouge 18 urteko gaztea, iraultzaren aldekoa, hilik gertatu zen (urriaren 12an bala batek jota hil zen) eta 45 pertsona atxilotu zituzten. Horrez gain, azaroan, iraultzaren testuinguruan eta hilean ez, baina haren arrazoiak tarteko, pertsona bat hil zen eta hilketak iraultzaren gertaerekin lotura izan zuen[847]. Askoz gogorragoa izan zen Pasaian gertatu zena. Pasaian, urriaren 6an, iraultzaren matxinada-guneak itzalita zeudenean, errepresio-indarrek arrantzaleen manifestazio baten aurka tiro egin zuten eta sei grebalari hil zituzten. 1931ko egun beltzak itzuli ziren Pasaiara eta beste egun beltz bat bizitu zuen Pasaiako langile-klaseak. Greba Gipuzkoa osoan egin zen arren, beste tokietan ez zen halako tragediarik geratu. Hernanin, bai urriaren 5ean eta baita 6an ere, tiroketak izan ziren eta zauritu batzuek ere izan

---

[840] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 333. or. Joan Ramon Garai Bengoa, Jesus Gutierrez Arosa eta Josu Chueca Inchustaren lanean agertzen da, urria igaro eta bi hilabetera, abenduaren 21ean, Pilar Gomez gaztea hil zela. Polizia-indarrek errua "legez kanpoko esku-orriak banatzen ibiltzea zela" (hau da, urriko iraultzan parte hartu zuten alderdienak noski) esan zuten eta halakoak banatzen zebiltzanak edo saltzen zituzten saltokien jabeak zigortu egingo zituztela ohartarazi zuten. Hala ere, ez zuten esan nork hil zuen gaztea edo banatzaileek armak nolatan izan zitzaketen. Urriko Iraultzaren aurkako errepresioaren ostean, beraz, hiru egile horien arabera, litekeena da polizia eskuorri klandestinoen salmenta edo banaketa zigortzen saiatzen ari zela, gazte hura tiro batek jo eta hil izana. GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 164. or.

[841] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 170. or.

[842] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 334. or.

[843] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 168. or.

[844] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 335. or.

[845] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 172-173. or.

[846] Martzelino Oreja, enpresaria izateaz gain, diputatu karlista ere bazen. Langileek oso gorrotatua zen, aurreko lan-gatazketan erakutsitako jarrera handinahi eta harroputzagatik eta langileak iraintzeraino ere iritsi zen. Dagoberto Rezusta zentro-eskuineko errepublikanoa zen, Gobernuko buru zen Alejandro Lerroux buru zuen Alderdi Erradikalekoa, eta gainera, Gipuzkoako Aldundiko Gestorako kide zen.

[847] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 195. or.

or.

ziren, baina hildakorik ez zen izan (nahiz eta pertsona asko atxilotu eta herritar asko ihes egitera beharturik gertatu). Bergaran eta Errenterian, urriaren 5etik 12rako grebak iraun zuen, Donostian bezala, baina batere istilurik gabe. Urriaren 11 eta 12 artean, greba itzaliz joan zen. 11n ELAk lanera itzultzeko deia egin zuen. Egun horretan tranbiak funtzionatzen hasi ziren, eta hurrengo egunean, prentsa kalera ateratzen hasi zen. Oro har, Gipuzkoan, iraultzaren eta errepresioaren ondorioz, 24 pertsona hil ziren eta milatik gora atxilotu[848], tartean Gillermo Torrijos eta Sergio Etxeberria Donostiako zinegotzi sozialistak, Toribio Etxebarria Eibarko zuzendari sozialista eta euskal idazlea eta Rikardo Urondo komunista Hego Euskal Herrian guztira, 52 pertsona hil ziren eta 133 zauritu[849].

Gure herrian ere, Beasainen, istiluak izan ziren. Lehen aipatu dugu Beasain berez herri lasaia izan zela langile-gatazkei zegokienean Errepublika-garaian zehar, hala ere, 1934ko urrikoa salbuespena izan zela esan daiteke. Beasainen, beste tokietan bezala, Alderdi Sozialistak izan zuen mugimenduaren ekimena, nahiz eta bertan ELAk ere parte hartu (CNTren parte-hartzea txikiagoa izan zen, eta komunistak ez zeuden antolatuta Beasainen). Beasainen, ondoren egindako epaiketan Beasaingo Elkarte Sozialistako buru Antonio Menaza Bermudezek egindako epaiketa-adierazpenaren arabera, Tolosako Elkarte Sozialistako kideek pasatu zuten abisua Beasaina eta autoz etorri ziren. Segituan, Menaza bera, eta Beasaingo EAJko kide ezagun bat, Alfontso Ibaibarriaga edo Jose Ibarbia, CAFeko zuzendari Antonio Sierrarengana joan ziren greba aldarrikatuta zegoela eta fabrika itxi egin behar zuela esanez[850]. Horri buruz, esan beharra dago 1935eko uztailaren 26an egindako epaiketan, CNTko Frantzisko Ruizen abokatu zen Cuartero kapitainak hau esan zuela: bere defendatua, Ruiz, eta bere kideak, CAFeko zuzendariarengana "langileentzako hobekuntza batzuk eginez gero arriskuak saihestu zitezkeela iradokitzera" joan zirela[851]; beraz, funtsean, xehetasun horrek, grebak izaera baketsua izan zuela pentsarazten digu. Epaiketan halaber, (*El Pueblo Vasco* egunkariaren arabera), "defentsak", greba, "langile-sindikatu guztien hausnarketa baten ondorio" izan zela dio, beraz, ez zela mehatxurik izan[852]. Aldi berean, UGTko kideek beste langileei greba egiteko esaten zieten. Beraz, Alderdi Sozialistaren inplikazioa oso argi dugu Beasainen. ELAri dagokionez, herrian buru zen Konstantino Maizek epailearen aurrean esan zuen sozialistek esan ziotela grebarekin bat egiteko, baina berak Gipuzkoako zuzendaritzaren baimena behar zuela esan zuen "telefonoz ordu bete itxaroten egon ostean, bat egitea erabaki genuen, langileen arteko talkarik izan ez zedin". Gauean, Bernabe Aierdik bat egiteko erabakia komunikatu zuen, jada Beasain greban zegoenean. Konstantino Maizek, adierazpen horietan esan zuen CNTko ordezkari Frantzisko Ruizek ere grebarekin bat egiteko agindua eman zuela UGTkoekin eta ELAkoekin batera; baina epaiketan, CNTko Anjel Galarretak esan zuen, berak, CNTko afiliatu gisa ez zuela izan batere parte-hartzerik greban eta hura "Alderdi Sozialistak gidatutako mugimendua izan zela"[853].

Oro har, Beasaingo iraultzaileak, Gipuzkoakoak bezala, oso gaizki armatuta zeuden. Beasaingo anarkistek ere pistolak zeramatzaten, hain zuzen, Galarretak berak, Basilio Pascualek eta Frantzisko Oronozek. Jakin dugunaren arabera, armak bazituzten eta atxilotua izan ondoren, polizia-indarrek Tiburtzio Lopez kartzelatik Beasaina ekarri zuten errekan gordeta zituzten armak ateratzera[854]. 1935eko uztailaren 26an Beasaingo iraultzaileen aurka egin zen epaiketan, Davila fiskalak, armak udan biltzeaz eta "iraultza hasi baino egun bat lehenago banatzeaz" (hots, 1934ko urriaren 4an) salatu zituen iraultzaileak[855]. Hala ere, arma batzuk izateak ez du esan nahi behar adina armatuta zeudenik, izan ere, Beasaingo sozialistak eta jeltzale batzuk Ataungo harrobira joan baitziren (Rufino Sarasola, Frantzisko Zabaleta, Agapito Noriega, Fidel Areta eta Jose Ibarbia ELAko Gipuzkoako burua) handik dinamita lapurtzera. Sozialistek telefonoen eta trenbideko kableak ere moztu zituzten herria isolatzeko (Anjel Galarretaren arabera, Rafael Polo, Joan Lopez, Frantzisko Hernandez, Laureano Rodriguez, Tiburtzio Lopez, Anjel Galarreta bera eta "Rodriguez karamelu-saltzailea"[856] izan ziren). Hala ere, beste herrietan gertatu zen bezala, Beasainen ez dugu

---

[848] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 145. or.

[849] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 255-256. or.

[850] Joan Ramon Garai, Jesus Gutierrez eta Josu Chuecaren arabera, Alfontso Ibaibarriaga izan zen jeltzale hori. GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 187. or. Hala ere, Miren Barandiaranen arabera, Alfontso Ibaibarriagak ez zuen izan parte-hartze handirik greba hartan, Gurutzepe antzezlana ikustetik zetorrela atxilotu zutela baitio. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 86-87 or. Gainera, Alfontso Ibaibarriaga ez zen epaitua izan, eta ez zen CAFeko langilea ere, Bernedo-enean egiten baitzuen lan. Ziurrenik, Ibaibarriaga ez baizik eta Jose Ibarbia ELAko arduradun beasaindarra izan zitekeen ordezkaritza horretan parte hartu zuena.

[851] *El Día,* 1935-07-27koa.

[852] *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa.

[853] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 187-188. or.

[854] Datu hori Tiburtzio Lopezen iloba Migel Anjel Ruiz de Gauna Lopezek eman digu.

[855] *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa; eta *El Diario Vasco,* 1937-07-27koa. *El Pueblo Vasco*k, fiskalak "armak mugimendu iraultzailea hasi baino lehenago banatu zituzten" esan zuela dio, baina datarik eman gabe (*El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa).

[856] Hori ziurrenik, Isidoro Rodriguez izan zen, epaiketako kroniketan *La Constancia, El Diario Vasco* eta *El Pueblo Vasco* egunkariek, Isidoro Rodriguezen ezizena "kamareroa" zela esaten baitute. Ziurrenik pertsona bera ziren Isidoro Rodriguez eta "kamareroa".

polizia-indarren aurkako asaltorik edo saiakerarik ezagutzen (kontuan hartu behar dugu Beasainen Guardia Zibilaren kuartela zegoela); Beasainen armamentu eskasa zuten, beste herrietan baino eskasagoa eta hori har daiteke borroka armaturik ez egin izanaren arrazoietako bat bezala. Grebaren izaera baketsuaren inguruko gure uste hori, 1935eko uztailean istilu horiengatik atxilotuak izan ziren langileen abokatuak, Eustasio Amilibiak, epaiketan egin zituen adierazpenek berresten dute. Amilibiak esan zuenez, "indar publikoek Beasainen ez zuten esku hartzeko arrazoi edo beharrik izan", eta "matxinada hori Gipuzkoara zabaltzeko asmorik ere ez zen izan". Amilibiak halaber, bere ustez "Asturiasko matxinadarekin loturarik ez zuela izan" ere esan zuen eta guztia "mehatxu txiki batzuek egitera" mugatu zela. Baieztapen hori egia da arlo praktikoari dagokionez, izan ere, beasaindar matxinatuek oso laguntza praktiko gutxi izan zuten eta beren kasa mugitu ziren, tokiko testuinguru eta markoan, eta gainera oso modu baketsuan. Hala ere, ez gaude hain ziur hori euren borondatez izan zenaz, izan ere, argi ikusten baitugu Asturiasko eta Gipuzkoako beste tokietako iraultzaileekin elkartasun ideologikoa partekatzen zutela[857].

Horrek guztiak 32 goierritarren (gehienak beasaindarrak, Zurbano Melerok horietako 13 soilik zirela beasaindarrak esaten badu ere; gehiago zirela ziurta dezakegu)[858] atxiloketa eta epaiketa ekarri zuen. Halako kopuru handiaren zergatia ulertzeko, haiek egindakoa baino gehiago (triskantza material edo pertsonal handirik ez baitzen gertatu), bizitu zen egoeran istilu haiek gertatu izanagatik zigortu zituzten beasaindar langileak. Ikusiko dugun bezala, atxilotu gehienak sozialistak izan ziren, baina izan ziren baita ere anarkistak eta jeltzaleak, horien artean Gipuzkoako ELAko buruzagi garrantzitsua zen Jose Ibarbia[859].

Matxinadaren porrota azaltzeko, bi arrazoi aipa genitzake: alde batetik, prestakuntza eskasa, Alderdi Sozialistak bere kasa antolatu nahi izan baitzuen matxinada, eta gainera, Hego Euskal Herriko puntu ezberdinen arteko batere koordinaziorik izan gabe. Hego Euskal Herrian, herri bakoitzeko iraultzaileak euren herrian ahal izan zutena egitera mugatu ziren eta emaitza ezberdinak izan zituzten. Bigarrenik, Gipuzkoan batez ere, iraultzaileek zituzten armak oso urriak izan ziren halako mugimendu batean garaipena lortzeko. Hego Euskal Herrian, iraultzaileen ausardia gora-behera, Asturiasen gertatu ziren ekintzen kontrako faktoreak modu larriagoan izan ziren eta gainera haien antolaketa-bertuterik izan gabe.

Errepresioa oso gogorra izan zen. 1934ko urriaren 17an heriotza-zigorra berrezarri zen Estatuan eta iraultzan parte hartu zuten euskaldun batzuei zigor hori ezarri zitzaien (1936ko otsailean ezkerrak hauteskundeak irabazteak eta amnistia emateak salbatu zituen patu beltz hartatik). Guda-egoera indarrean zegoenez, iraultzaileak bide militarretik, hots, Guda-kontseilu militar bidez epaitu zituzten. Guda-egoerak 1935ko urtarrilaren 23a arte iraun zuen Araban, eta apirilaren 9a arte Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan. Langile askok Gobernuaren aginduz lana galdu zuten eta industria asko administrazio militarraren mende gelditu ziren. Esan bezala, zentro politiko eta sindikal denak, eskuinekoak izan ezik, itxiak izan ziren; sindikatuen lokal batzuk 1935aren bukaeran hasi ziren zabaltzen eta erakunde sindikalen lana "soilik kooperatiba eta laguntza-arloko lanetarako" baimentzen hasi ziren[860]. ELAk, adibidez, 1935eko maiatzaren 16an soilik izan zuen baimena bere jarduerei berriz ekiteko[861], eta sindikatu ezkertiarrek geroago, 1935eko udazkenean. Prentsa abertzalea edo ezkertiarra ere itxi egin zuten. Kaleetan, eskuineko alderdien gazteriek osatutako talde paramilitarrak agertu ziren eta horiek betiere banketxeek edota burgesiak finantzatzen zituen[862]. Izan ere, iraultza eta 1934ko udako udalen mugimendua kronologian bateratsu etortzeak, eskuinaren isolamendu-egoera handitu egin zuen, eta Bizkaian eta Gipuzkoan behintzat garbi gelditu zitzaion gutxiengoa zela eta iraganeko hegemonia ez zuela berreskuratuko, eta horren ondorioz, setio-pentsamolde horrek bortizkeriara jotzeko logika bat ezarri zuen eskuindarren adimen kolektiboan.

Torturak ere orokortu egin ziren. Gero lehendakari izango zen EAJko Jose Antonio Agirre diputatuaren esanetan, "1934ko urrian eta azaroan izandako errepresioa hain basatia izan zen, hain zibilizazioaren aurkakoa, ezen orduan bizi izandakoa (bera ere atxilotua izan zen) ez dut sekula ahaztuko". Bai Bizkaian[863] zein Gipuzkoan orokortu egin ziren torturak eta azken herrialde

---

[857] *El Día,* 1935-07-27koa; eta *El Diario Vasco,* 1935-07-25koa.

[858] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 123. or.

[859] ELAren ideologia kristaua eta moderatua ez zen izan errepresioaren aurkako hesi eta bere egoitzak, ez soilik Beasainen, baizik eta Gipuzkoa osoan ere itxiak izan ziren.

[860] ANSEL, Dario: *ELA en la Segunda República. Evolución de una organización obrera.* Txalaparta. Tafalla, 1001, 224. or.

[861] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 341. or.

[862] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 259. or.

[863] Bizkaian behintzat bi pertsona hil ziren hurrengo egunetan torturaren ondorioz: Abanto-Zierbenako Endrike Ortega eta Portugaleteko Markos San Esteban, EAE-ANVko kidea. GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general.* Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 268. or.

or.

horretan bai Guadalupeko gotorlekuan preso zeudenak zein Ondarretako kartzelan preso zeudenak izan ziren torturen biktima; baina ez haiek bakarrik, iraultzaren guneetako bat izan zen Eibarren adibidez, iraultzaren aldekoak izatearen susmagarri zirenak noizbehinka atxilotu eta jipoitu egiten zituen Guardia Zibilak. Gipuzkoako kartzeletan, Lehoz tenientea eta Beorlegi teniente--koronela[864] nabarmendu ziren presoen kontrako jipoi eta mehatxuetan. Joan Astigarribia zuzendari komunista pasaitarraren testigantza ere ikaragarria da: "Euskadin errepresioa ez zen nolanahikoa izan, Bilbon jipoi handiak ematen ziren (…) Guardia Zibila ni atxilotzera etorri zenean, haurdun zegoen emaztea ere atxilotu egin zuten (…) Kuartelean erditu behar izan zuen". Orduan bizi zirenek jasandako errepresioa inoiz bizitako gogorrena izan zen arren, gutxik espero zezaketen, bi urteren buruan Hego Euskal Herrian, Francoren diktadurak agintea ezartzean, 1934ko errepresioa bortizkerian eta indarkerian gainditua izango zenik[865].

Esan bezala iraultzaileei Guda-kontseilu militarrak egin zitzaizkien eta horretarako metodorik ohikoena, gipuzkoarrei dagokienez behintzat, herri bateko atxilotu denak kolektiboki epaitzea izan zen. Epaileak eta fiskalak militarrak izan ziren, epaiketa gehienak Donostian egin ziren, eta eibartarren kontrakoa, Iruñean. Donostian egin ziren epaiketa ia denen epaile Leon Carrasco Amelibia koronela izan zen, Gipuzkoako gobernadore militarra. Lehenengo Guda-kontseilu militarra, Lasartekoen kontrakoa izan zen (dinamita eramatea eta legez kanpo armak izatea leporatzen zitzaien), 29 akusatutatik 27 zigortu zituzten. 1935eko uztailaren 30ean, 39 hernaniar epaitu zituzten eta 23 zigortu, udaletxea asaltatzea eta Guardia Zibilari tiro egitea leporatuta. 1935eko abuztuan Gillermo Torrijos Donostiako zinegotzi sozialista epaitu zuten, 20 urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, Gipuzkoako mugimendu iraultzailearen zuzendari izatea leporatuta. Baina Guda-kontseilu militarrik larriena 1936ko urtarrilaren 21ean izan zen, Iruñean, eibartarren aurka. Solchaga koronela izan zen epaile eta Davila fiskala. Biek, 1936ko uztailaren 18ko Estatu-kolpean paper garrantzitsua jokatu zuten, Davila bera jeneral izan zen gero Armada frankistan. Aurrean 171 eibartar izan zituzten, tartean Alejandro Telleria sozialista eta alkate-ohia, Tiburtzio Egia Eibarko Elkarte Sozialistako lehendakaria, Frantzisko Zabala Bergarako Elkarte Sozialistako lehendakaria eta Toribio Etxebarria zuzendari sozialista ezaguna. Agertu gabe epaituak izan ziren Endrike De Frantzisko Madrilen diputatu sozialista zen tolosarra eta Joan De los Toyos, gero Euzko Jaurlaritzan kontseilari izango zena. Ehun bat lagun zigortuak izan ziren eta kartzela-zigorrik gogorrenak 25 urtekoak izan ziren. Horrez gain, hiru pertsona, ...Joan Ibarra, Fernando Intxaurriaga eta Joan Prieto heriotzera kondenatuak izan ziren (fiskalak Toribio Etxebarriarentzat ere heriotz-zigorra eskatu zuen, baina epaileak ez zuen heriotzara kondenatu, bizi osoko kartzela-zigorra ezarri zion). 70 bat errugabetuak izan ziren. Zigortuak, hiru heriotzara kondenatuak eta bizi osoko zigorra jaso zuen Etxebarria, Herri Fronteak (*Frente Popular*) hauteskundeak irabaztean amnistiatuak izan ziren[866].

Beasaindarrek eta goierritarrek 1935eko uztailaren 26an izan zuten epaiketa, Donostian. 32 epaitu izan ziren eta euretako gehienak beasaindarrak: Julian Blanco, Dionisio Carrascal, Fabriziano Diez, Fidel Fernandez, Anjel Galarreta Maestre, Migel Garbayo Rodriguez, Telesforo Gomez Artze, Balentin Gomez Artze, Frantzisko Hernandez Toves, Jose Ibarbia Untzueta, Joan Bernardo Lopez, Tiburtzio Lopez, Antonio Menaza Bermudez, Agapito Noriega Garcia, Seberiano Onesimo Matute, Faustino Oronoz, Rafael Polo Carrascal, Frantzisko Rodriguez Antolin, Isidoro Rodriguez Picazo, Laureano Rodriguez Picazo, Frantzisko Ruiz de Apodaka Fernandez, Rufino Sarasola Lasa, Higinio Urbina eta Frantzisko Zabaleta Gerriko. Beste bat, Basilio Pascual Juarros litekeena da beasaindarra izatea[867]. Beraz, 32tatik 24 beasaindarrak zirela ziurta dezakegu eta beharbada beste bat ere bai. Bestalde lau ordiziar aurkitu ditugu: Pablo Aguado[868], Alvaro Calvillo[869], Gumersindo Capa eta Alejandro Txintxurreta. Bosgarren bat ere, Jose Migel Maiz, agian ordiziarra zatekeen[870]. Beste bi epaituen (Fidel Areta eta Joakin Zulaikaren) herritartasuna ez dugu zehazterik izan.

---

[864] Alfontso Beorlegi 1936ko gudan, Gipuzkoan sartu ziren tropa frankisten buruetako bat izan zen. Oiartzungo frontetik Irun eta Donostiarantz sartu zen eta guda hartan bertan hil zen Bizkaian.

[865] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 259-272. or.

[866] BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936)*. Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 342-344. or.

[867] Beasaingo Udalak, 1934ko abenduan Gobernadore Zibilari bidali zion eskutitz batean, zortzi presori Gabonetan "jaiak familiarekin igaro ditzaten" aldi baterako askatasuna ematea eskatu zion eta Basilio Pascual ere eskutitz horretan izendatua azaltzen denez, beasaindarra zela pentsatzen dugu; baina zerrenda horretan Alvaro Calvillo eta Pablo Aguado ordiziarrak ere azaltzen dira, beraz, badirudi aldi baterako askatasun hori, une hartan (1934ko abenduan artean epaitu gabe, epaiketa aurreko kartzela-aldian zeuden) preso zeuden beasaindarrentzat eta inguruko besteren batzuentzat ere eskatu zutela. Hori dela-eta, ezin dugu esan bete-betean Basilio Pascual beasaindarra zenik.

[868] Pablo Aguado 1936ko gudan frankistek preso hartu eta 1941ean aske uztean, Beasainen jarri zen bizitzen; baina Ordizian jaioa zenez, bere gaztaro osoa Ordizian egin zuenez eta bere militantzia politikoa han hasi eta garatu zuenez (eta gainera 1934-1935ean artean Ordizian bizi zen), ordiziartzat jotzen dugu.

[869] Alvaro Calvillo Lopez Beasainen jaio zen 1912an, baina ordurako Ordizian bizi zen.

[870] 1930eko Ordiziako erroldan "Jose M. Maiz Maiz" bat agertzen da eta bere ogibidea "jornalaria" dela dio. Beasaingo orduko erroldan ez dugu Jose Migel Maiz deitutako herritarrik aurkitu.

Epaituetako hiru 1936ko gudan fusilatuak izan ziren, hain zuzen ere, Frantzisko Ruiz de Apodaka Fernandez de Okariz beasaindarra[871], CNTko kidea, Beasainen bertan[872], Jose Ibarbia Unzueta beasaindarra, ELAko buruzagia, 1937an Santoñan, eta Alejandro Txintxurreta sozialista ordiziarra. Beste bat, Rufino Sarasola, ELAko kide beasaindarra, 1948an bere buruaz beste egitera bultzatua izan zen erregimenekoen jazarpenagatik. Julian Blanco 1931-1933 artean Elkarte Sozialistako lehendakari izan zena (gero, Metalgintzako Sindikatuko zuzendarietako bat), gudan hil zen, 1937an, borrokan ari zela, *Rusia* batailoiko kidea zen. Tiburtzio Lopez Rodriguez, geroago, 1936an, Beasaingo Metalgintzako Sindikatuaren buru izan zena[873] (une hartan, kargu horretan, beste epaitu bat, Gumersindo Capa ordiziarra zegoen) gudan hil zen halaber, baina ez frontean, atzeguardian baizik, tuberkulosiak jota[874]. Tiburtzio Lopez Ingeniarien 2. Batailoiko kide zen. Seberiano Onesimoren eta Rafael Poloren anaiak (sozialistak biak), Ignazio Onesimo eta Valerio Polo fusilatuak izan ziren, lehena 1936ko uztailean Beasainen eta bigarrena 1937an Ciriegoko kartzelan Kantabrian.

Beasaindarren artean garbi dago sozialisten kopurua dela nagusiena. Aipatutako Julian Blanco, Tiburtzio Lopez, Seberiano Onesimo eta Rafael Poloz gain, epaitutako beste hamabi beasaindar ere sozialistak ziren. Haietako bat, Dionisio Carrascal, 1931n aukeratutako eta 1934an dimititutako zinegotzi sozialista zen. Hauteskunde haietara Fidel Fernandez ere aurkeztu zen, baina ez zen hautatua izan[875]. Bestetik, Antonio Menaza, orduko Beasaingo Elkarte Sozialistako lehendakaria zen. Sozialistak ziren besteak, Migel Garbayo (1932ko Elkarte Sozialistaren zuzendaritzakoa[876]), Agapito Noriega (1934an Elkarte Sozialistaren zuzendaritzakoa, lehendakariordea[877]), Joan Bernardo Lopez (1934an, Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako idazkariordea[878]), Laureano Rodriguez Picazo (1934an Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako kontuen ikuskatzailea[879]), Telesforo Gomez Artze eta Balentin Gomez Artze (Elkarte Sozialistaren zuzendaritzako idazkaria) -azken bi horiek kartzeletako fitxetan edota udal frankistek egindako fitxetan agertzen dira[880]- eta Fabriziano Diez ziren (honi buruz ez dugu datu zehatzik Eustasio Amilibia abokatu sozialistak defendatu zuenaz haratago; eta jakin badakigu abokatu honek epaitu sozialistak defendatu zituela bai goierritarren kontrako Guda-kontseiluan eta baita beste Guda-kontseilu batzuetan ere). ELAko kideak, aipatu ditugun Jose Ibarbia eta Rufino Sarasolaz gain, Frantzisko Zabaleta Gerriko (1935ean Beasaingo ELAko zuzendaritzako kide zena[881]) eta Higinio Urbina (1931n ELAko ordezkaria Beasainen[882]) izan ziren. Anarkisten aldetik, bi beasaindar aurkitu ditugu, aipatutako Frantzisko Ruiz de Apodaka Fernandez de Okariz, CNTko ordezkari zena[883] eta Anjel Galarreta Maestre. Frantzisko Hernandez Toves, Faustino Oronoz Amigot, Frantzisko Rodriguez Antolin eta Isidoro Rodriguez Picazoren filiazio politikoa ez dugu zehazterik izan.

Aurreko orrialdeetan komentatu dugu zalantza dugula Pascual Juarros, beasaindarra ote zen ala ez eta ez dugu ez horren eta ez bere ideologiaren gaineko ziurtasunik. Beste alde batetik, lau ordiziarren inguruan; aipatu izan dugu Alejandro Txintxurreta sozialista fusilatua izan zela, armada frankista Ordiziara sartzean atxilotu eta 1936ko abenduaren 1ean Iruñean fusilatu zuten. Beste bi sozialista ere bazeuden tartean, Gumersindo Capa, UGTren Metaleko Sailaren buru zena[884], eta Alvaro Calvillo Lopez (gero 1936ko gudan gudari ibili zena). Laugarren ordiziarra, Pablo Aguado, CNTko kide historikoa izan zen Goierrin, eta batailoi

---

[871] Pertsona honen izena egunkari gehienek "Frantzisko Ruiz" edo "Frantzisko Ruiz Fernandez" gisa jartzen dute. Hala ere, *La Constancia* egunkariaren kronikan (*La Constancia,* 1935-07-27koa), "Frantzisko Ruiz de Apodaka" azaltzen da. Kontuan izanik epaituaren bigarren abizena "Fernandez" zela, eta Beasainen fusilatutakoaren bigarren abizena "Fernandez de Okariz" zela, nahiko argi dago "Frantzisko Ruiz Fernandez" eta "Frantzisko Ruiz de Apodaka Fernandez de Okariz" fusilatua pertsona bera zirela.

[872] Epaiketaren eta iraultzaren inguruko datuen arabera, CNTko kide izan zen. Hala ere, bere iloba Pako Ruiz de Apodakak kontatu digunez, familia hartan EAE-ANVko kideak ziren; bere bi anaia, Anjel Ruiz de Apodaka (Pako Ruiz de Apodakaren aita) eta Luis Ruiz de Apodaka EAE-ANVko batailoietan gudari gisa ibili ziren. Luis Ruiz de Apodaka frontean hil zen. Hala ere, horrek ez du esan nahi Frantzisko Ruiz de Apodaka ere EAE-ANVkoa zenik, eta epaiketaren inguruko datuek bere militantzia anarkista azpimarratzen dute. (Pako Ruiz de Apodaka Galartzari eginiko elkarrizketa. Beasainen, 2014-06-18an).

[873] Beasaingo Udal Artxiboa. 543. karpeta, 45. dokumentua.

[874] Datu hau Tiburtzio Lopezen iloba Migel Anjel Ruiz de Gaunak eman digu.

[875] *La Voz de Guipúzcoa,* 1931-06-02koa.

[876] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

[877] Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

[878] Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

[879] Beasaingo Udal Artxiboa. 171. karpeta, 26. dokumentua.

[880] Telesforo Gomez Artzeri buruzko dokumentuak: Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 073. karpeta, 23. dokumentua; eta Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala. 2837. kutxa; 86. espedientea. Balentin Gomez Artzeri buruzko dokumentuak: Beasaingo Udal Artxiboa. A088 karpeta, 01. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 3189. karpeta, 19. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 1169. karpeta, 02. dokumentua; eta Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintziala (Oñati). 3597. kutxa; 8. espedientea. Bi anaiak, bai Telesforo zein Balentin, 1936ko guda garaian, Beasaingo Defentsa Batzordeko kide izan ziren.

[881] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 57. dokumentua.

[882] Beasaingo Udal Artxiboa. 134. karpeta, 14. dokumentua.

[883] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 187. or.

[884] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 27. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 080. karpeta, 01. dokumentua.

or.

anarkista batean borrokatu zuen gudan. Guda ostean, 1941 arte, preso egon zen[885]. Lehen ordiziarra izatea litekeena dela esan dugun Jose Migel Maizen ideologia ez dugu ezagutzen eta euren herritartasuna jakiterik izan ez dugun Fidel Areta eta Julio Zulaika epaituen filiazio politikoaz, ez dugu arrastorik.

Epaiketaren aurretik, badakigu behintzat zortzi lagun preso egon zirela, 1934ko abenduan, Beasaingo Udalak horientzako Gabonetarako askatasuna eskatu baitzuen. Hala ere, *El Pueblo Vasco* egunkariaren arabera, epaitu denak egon ziren "preso-aldi arinduan" epaiketa iritsi arte[886]. Preso horiek Pablo Aguado, Alvaro Calvillo, Fabriziano Diez, Jose Ibarbia Basilio Pascual, Frantzisko Ruiz de Apodaka, Rufino Sarasola eta Frantzisko Zabaleta izan ziren[887]. Bestalde, aipatu izan dugu Tiburtzio Lopezen kasua, zeina kartzelatik ekarri zuten errekara, han gordeta zituen armak ateratzera[888].

Epaiketa, esan bezala, 1935eko uztailaren 26an izan zen. Hurrengo egunean atera zen berria egunkarietan (kasualitatez, 1936ko gudan altxatuak Beasaina sartu baino urtebete lehenago). Guk, zazpi egunkari kontsultatu ditugu gai horri buruz: Donostiako *La Constancia*, *El Día*, *El Diario Vasco, El Pueblo Vasco* eta *La Voz de Guipúzcoa* eta Bilboko *Euzkadi* eta *El Liberal.* Informaziorik zabalena *El Día*k eta *La Voz de Guipúzcoa*k ematen dute, epaiketaren kronika osoa egiten baitute. Donostiako beste hiru egunkariak, gutxi gorabehera, akusatuentzako zigor-eskaerak, akusatuen abokatuak, epaile eta fiskalak eta akusatu bakoitzari ezarritako zigorra azaltzen dute, baina abokatuen argudioekiko zehaztasun handirik eman gabe. Hala ere, hirurek, akusatu bakoitzaren izena eta bi abizenak ematen dituzte[889]. Bilboko egunkariek, askoz ere informazio laburragoa ematen dute. Esan beharra dago, egunkari gehienek, "Beasaingo herritarrak" aipatu zituztela, nahiz eta badakigun batzuk ez zirela beasaindarrak. Epaiketa Donostiako Epaitegi Militarrean egin zen, Garibai kalean, Tabako fabrika zaharrean[890]. 32 prozesatu epaitu zituen epaile militarra, ingeniarietako Jose Vallestin teniente-koronela izan zen eta epaile instruktorea Antonio Jimenez de Blas. Epaiketako bokalak zazpi kapitain izan ziren: Serres, Sancho, Piris (edo Peris), Carnero, Tiestos, Rodriguez Hinojosa eta (Gutierrez) Altzaga[891]. Fiskal gisa Davila aritu zen.

Defentsari dagokionez, gehienak militarrak izan ziren, ziur aski ofizioko abokatuak: Cuartero, Lambea eta Cadena Iraizos kapitainak[892] eta Morencos tenientea. Hala ere, hiru zibilek ere jardun zuten defentsan: Eustasio Amilibiak, Jerman Maria Iñurrategik eta Fermin Vega de Seoanek. Eustasio Amilibia Matxinbarrena Gipuzkoako sozialista famatua izan zen, Migel Amilibia sozialistaren anaia. Migel Amilibia, PSOEko Gipuzkoako zuzendarietakoa izateaz gain, 1936ko gudan Gipuzkoako Defentsa Batzordeko buru ere izan zen[893]. Bederatzi kide defendatu zituen Amilibiak, denak ideia sozialistetakoak: Gumersindo Capa, Alejandro Txintxurreta, Fabriziano Diez, Balentin Gomez Artze, Joan Bernardo Lopez, Tiburtzio Lopez, Agapito Noriega Garcia, Rafael Polo Carrascal eta Laureano Rodriguez Picazo[894]. Jerman Maria Iñurrategi, 1931n Tolosan zinegotzi jeltzale aukeratua izan zenak[895] hiru akusatu defendatu zituen eta hirurak joera abertzalekoak: Jose Ibarbia, Rufino Sarasola eta Frantzisko Zabaleta[896]. Fermin Vega de Seoane *Izquierda Republicana* alderdiko militantea zen abokatuak akusatu bakarra defendatu zuen: Antonio Menaza Bermudez hain zuzen (1934ko gertakariak gertatu zirenean, Elkarte Sozialistaren lehendakari zena). Beraz, 32 akusatuetatik 13, abokatu zibilek defendatu zituzten, elkartasun politiko-ideologikoan topa genitzake arrazoiak. Hala ere, defendatu gehienek ofiziozko abokatuak izan zituzten eta litekeena da baliabide faltagatik izatea (ez ahaztu gehienak langileak zirela).

Ofizioko abokatuen artean, Lambea kapitaina izan zen akusatu gehienak defendatu zituena, 11 guztira: Pablo Aguado, Fidel Areta, Julian Blanco, Migel Garbayo, Telesforo Gomez Artze, Frantzisko Hernandez, Jose Migel Maiz, Seberiano Onesimo Matute, Basilio Pascual Juarros, Isidoro Rodriguez eta Joakin Zulaika (Frantzisko Zabaletaren defentsaz, *El Día* eta *La Voz de Guipúzcoa*

---

885 Ordiziar horien inguruko informazio gehiago izan nahi duenak, ikus beza ondorengo liburua: ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian.* Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014.

886 *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa.

887 Beasaingo Udal Artxiboa. 3762. karpeta, 55. dokumentua.

888 Informazio hau, Tiburtzio Lopezen iloba Migel Anjel Ruiz de Gauna Lopezek emana izan da.

889 *La Constancia,* 1937-07-27koa; *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa; eta *El Diario Vasco,* 1935-07-27.

890 *El Día*, 1935-07-27koa eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-07-27koa.

891 1935eko uztailaren 27ko *El Día*ren kronikan "Piris" eta "Gutierrez Altzaga" bezala agertzen dira. *La Voz de Guipúzcoa*ren kronikan "Peris" eta "Altzaga" ordea.

892 *El Día* egunkariaren kronikan, gizon hau, modu okerrean "Cadenas Iraizos" moduan aipatzen dute. *El Día*, 1935-07-27koa.

893 Francoren agintaldiaren ondoren, trantsizio-garai deituan, Herri Batasuneko kide izan zen eta Mahai Nazionaleko kide ere bai.

894 *La Voz de Guipúzcoa* eta *El Día* egunkariak bederatzi hauek kontatzen dituzte. *El Diario Vasco*k, aldiz, zortzi, Rafael Polo ez du zerrenda horretan sartzen. *El Pueblo Vasco*ren arabera, sei ziren Amilibiak defendatutakoak; Rafael Poloz gain, Tiburtzio Lopez eta Laureano Rodriguez uzten baititu zerrendatik kanpo. (*El Día*, 1935-07-25ekoa; *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-07-27koa; *El Diario Vasco*; 1935-07-27koa; *El Pueblo Vasco*, 1935-07-27koa).

895 1935ean ez zuen kargu hori, 1934ko udalen mugimendua zela-eta kargugabetua izan zelako.

896 *El Día*ko kronikak (1935-07-27koa) ez du argi uzten Frantzisko Zabaletaren defentsa nork egin zuen, toki batean Jerman Maria Iñurrategik defendatu zuela dio eta beste batean Lambea kapitainak defendatu zuela. *La Voz de Guipúzcoa*ko kronikak ere hala dio (1935-07-27koa).

egunkarien kronikek, bi toki ezberdinetan, Jerman Maria Iñurrategik eta Lambea kapitainak egin zutela esaten du. Zabaletaren ideologia abertzalea zela-eta, ziurrago ikusten dugu Iñurrategik defendatu izana. *El Diario Vasco*ren kronikak ordea, Frantzisko Zabaleta Iñurrategiren defendatuen artean sartzen du, baina ez du Jose Migel Maiz Lambea kapitainak defendatuen zerrendan sartzen). Cuartero kapitainak hiruzpalau pertsona defendatu zituen: Alvaro Calvillo, Dionisio Carrascal Aguado, Frantzisko Ruiz Fernandez eta iturri batzuen arabera Higinio Urbina[897]. Morencos tenienteak, gure datuen arabera, bakarra defendatu zuen: Anjel Galarreta[898]. Beste hiru preso, Higinio Urbina Estadillo, Fidel Fernandez eta Faustino Oronoz Amigot, iturri batzuen arabera, Cadena Iraizos kapitainak defendatu zituen[899]. Gure datuen arabera, Frantzisko Rodriguez nork defendatu zuen ez dugu jakiterik izan.

Bai *El Día* egunkariak, zein L*a Voz de Guipúzcoa*k, zein *Euzkadi*k, Anjel Galarretaren izena nabarmentzen dute, beraz, pentsatzekoa da nolabait Beasaingo gertakariak Anjel Galarretaren izenarekin lotuta egotea. *Euzkadi*ren (hots, Gipuzkoan ateratzen ez zen egunkari batean ere) kronikan "Anjel Galarreta eta Beasaingo beste 30 herritar epaitu dituzte" aipatzen dute (esan dugu denak ez zirela beasaindarrak)[900]; eta esaldi bera agertzen da *La Voz de Guipúzcoa*n[901]. *El Día*n, ordea, "Anjel Galarreta eta epaitutako beste hogeita hamar pertsona" aipatzen dituzte[902]. *El Pueblo Vasco*k, *El Diario Vasco*k, *La Constancia*k eta *El Liberal*ek ez dute Galarretaren izena nabarmentzen. Hala ere, ikusiko dugunez, Anjel Galarreta ez zen izan ardura gehien izan zuena; nahiz eta hasieran, fiskalak eskatutako zigorrik gogorrena berarentzat izan (Gumersindo Capa, Antonio Menaza eta Seberiano Onesimorekin batera): 20 urteko kartzela-aldia eskatu zieten, eta Seberiano Onesimorekin batera zigorrik gogorrena izan zuen: 6 urteko kartzelaldia.

Antonio Jimenez de Blas epaile instruktorearen arabera, epaituek "Gazteria Sozialistaren ordenak" jarraitu zituzten, Beasaingo fabrikan zein Trenbide Konpainian "sabotajek egiteko eta langileak, lana utz zezaten mehatxatzeko" ados jarriz. Ideia hori, Gazteria Sozialistaren inplikazioa, izan zen Anjel Galarretaren defentsarako argudio nagusia, bera CNTko kidea zela-eta, mugimenduaren prestakuntzan ez zuela parterik hartu argudiatu baitzuen defentsak. Fiskalak, Davilak, beste delitu batzuen artean (adibidez, armak ilegalki izatea), matxinada militarra laguntzea leporatu zien, eta epaitu guztiak arduradun jo zituen. Davilaren arabera, udatik hasi ziren "Beasaingo elementu sozialistak" armak biltzen eta "Iraultzaren aurreko egunean banatu zituzten"[903]. Hortaz, aipatutako lauren aurka, 20 urteko kartzela zigorra eskatu zuen, beste bosten kontra (Pablo Aguado[904], Dionisio Carrascal, Fidel Fernandez, Faustino Oronoz eta Higinio Urbina) hamasei urteko kartzela-zigorra eta beste denentzat hamabi urteko kartzela-zigorra. Frantzisko Rodriguez eta Isidoro Rodriguezen aurkako zigorrik ez dugu ezagutzen; hala ere badakigu Tiburtzio Lopezek zein Isidoro Rodriguez "kamareroak" trenbideko kableak mozten lagundu zutela, beraz, ziur aski zigor-eskaera gogorra izan bide zuten: Galarretaren arabera, trenaren kableak moztera joan zirenek –Tiburtzio Lopez, Laureano Rodriguez, Rafael Polo eta Frantzisko Hernandez– 12 urteko kartzela-zigorraren eskaera izan zuten eta, Galarretak berak, eskaera gogorragoa izan zuen: 20 urtekoa. Hirugarren bati, Tiburtzio Lopezi, *La Constancia* egunkariaren arabera, 12 urteko kartzela-zigorra eskatu zitzaiola esaten du, baina egunkari horrek bakarrik dakar hori eta beste denek ez dute aipamenik egiten[905].

Abokatu defendatzaileen estrategia, mehatxuak egitea eta armen legez kanpoko jabetza onartzea izan zen, baina matxinada militarra laguntzea edo prestatzea ukatzekoa izan zen. Beraz, delitu bakunengatik soilik epaituak izan behar zuten eta ez plan handiago baten parte izateagatik. Eustasio Amilibiak, akusatuak langile zintzoak zirela esan zuen eta halako plan handi bat prestatzeko gaitasunik ez zutela, beraz, absoluzioa ematea edota zigorra egin zezaketen delituaren araberakoa jartzea (delitu isolatu baten araberakoa) zela bidezkoa esan zuen. Amilibiaren arabera, asko jota "mehatxuz" edo "desordenaz" bakarrik errudun daitezke epaitutako goierritarrak. Antzeko ildoa jarraitu zuen Fermin Vega de Seoanek eta bere defendatu bakarra, Antonio Menaza, errudun izatekotan armak legez kanpo edukitzeagatik soilik izan zitekeela esan zuen, beraz, errugabetzea edo asko jota lau urteko zigorra jartzea zegokiola esan zuen. Bai Lambea kapitainak, Cadenas Iraizos kapitainak, zein Cuartero kapitainak, beren defendatuentzako errugabetze osoa eskatu zuten[906]. Aipatu beharra dago, Cuartero kapitainaren arabera,

---

[897] Bai *La Voz de Guipúzcoa*k zein *El Día*k, Higinio Urbina Cuartero kapitainak defendatu zuela diote, baina *El Diario Vasco*ren eta *El Pueblo Vasco*ren arabera, Cadenas Iraizos kapitainak defendatu zuen. *El Día*, 1935-07-27koa; *La Voz de Guipúzcoa* 1935-07-27koa; *El Diario Vasco*, 1935-07-27koa; eta *El Pueblo Vasco*, 1935-07-27koa.

[898] *El Diario Vasco*, 1935-07-27koa; eta *El Pueblo Vasco*, 1935-07-27koa.

[899] *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-07-27koa. Hiru horien erreferentzia egunkari horretan soilik agertzen da, *El Día*n ez.

[900] *Euzkadi*, 1935-07-27koa.

[901] *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-07-27koa.

[902] *El Día*, 1935-07-27koa.

[903] *La Voz de Guipúzcoa*; 1935-07-27koa.

[904] *El Día* egunkariaren kronikan, okerbidez, Pablo Aguado, 16 urteko zigor-eskaera zein 12 urteko zigor-eskaera zutenen zerrendetan sartzen dute. *La Voz de Guipúzcoa*ren eta *La Constancia*ren arabera, hamasei urteko kartzela-zigorra eskatu zuen fiskalak bere aurka, beraz, irizpide hori hobetsiko dugu.

[905] *La Constancia*, 1935-07-27koa.

[906] *El Día*, 1935-07-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa*, 1935-07-27koa.

or.

bere defendatuetako batek, Frantzisko Ruiz anarkistak, Antonio Menaza sozialistarekin eta ELAko kide batekin (Jose Ibarbia, ematen duenez), Antonio Sierra CAFeko zuzendariarekin bilera batean parte hartu zuela eta "hobekuntza batzuen truke" greba bertan behera uztea ere eskaini ziotela. Beraz azpimarratu zuenez, ekintza, greba maila ekonomikora mugatzeko saiakera izan zen, karga politiko edo matxinada-joerarik gabea eta izaera baketsukoa[907]. Morencos tenienteak, arratsaldez defendatu zuen bere defendatu bakarra[908]: Anjel Galarreta. Lauetan hasi zen[909] defentsa-saio hartan, Morencosek Galarreta, CNTko kide zela esan zuen, beraz, mugimenduarekin ez zetorrela bat, "Alderdi Sozialistaren guztiz aurkako ideologia" zuelako. Galarretaren parte-hartzea mugimenduaren "indarra jasanezina zelako" izan zela azaldu zuen Morencosek[910].

*El Día*ren kronikaren arabera, defentsa-abokaturik onena Jerman Maria Iñurrategi izan zen (*El Día* ez zen berez egunkari jeltzalea, baina bai Alderdi horrekiko oso hurbilekoa, beraz, balorazio hori, abokatuaren eta egunkariaren ideologia hurbilekoak zirelako izan zitekeen). *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoan, ordea, Iñurrategiren lana, besteen lanaren pare komentatu zuten eta aseptikotasun berdinaz deskribatu zuten[911]. Beste egunkariek ez zuten abokatuen lanaren gaineko aparteko aipamenik egin). Iñurrategik, bere defendatuen alde, ordenaren eta kristautasunaren ideologia zuten erakundeetan militatzen zutela esan zuen (goizez izan zen Iñurrategiren defentsa-saioa eta ikusi dugun moduan Morencos abokatuak ildo hori bera, Alderdi Sozialistarekiko loturarik ez izatea, erabili zuen Galarreta anarkista defendatzeko). Abokatu horrek, besteek bezala, ez zela kalterik egin, eta beraz, egitate hori gailendu egin behar zela nabarmendu zuen. Baina Iñurrategik erabilitako argudiorik garrantzitsuena, betiere *El Día*ren kronikaren arabera, "Beasaingo herriaren egoera" aipatzea izan zen. Hau da, Beasainen, jakin dakizuen moduan, 1934ko urriaren hasieran Serafin Arana zegoen behin-behineko alkate-postuan (Gobernadoreak, udala osatzeko, eskuineko zinegotzi gehiago izendatu zain), aurreko alkate hautetsia, Jazinto Urteaga, 1934ko abuztuan, mugimendu autonomistan parte hartzeagatik kargugabetua izan zelako. Hau da, horrek kapitulu honen hasieran aipatu dugun arrazoi batekin egiten du bat, eskuineko Gobernuak Euskal Herrian alkate batzuk kargugabetu eta haien ordez eskuineko udal-agintariak jarri izanak, ezkerretik hainbeste aipatzen den eskuinaren "izaera totalitarioa" nabarmendu zutela, matxinadari zilegitasuna emanez. Pentsatzekoa da, defentsa-elementu horrek asko lagundu ziela, ez soilik abokatu horren defendatuei, epaitu zituzten guztiei baizik[912].

Azkenik, *El Pueblo Vasco* egunkariak dakarrenez, "defentsak" (egunkari horrek ez du zehazten nork, abokatu bakoitzaren adierazpenen berri ez baitzuen eman), greba baketsua izan zela esan zuen, eta mehatxurik ez zela izan "sindikatu guztien hausnarketen ondorio" izan zelako[913].

Arratsaldeko saioan, azken abokatuak, Morencos kapitainak, bere defentsa bukatu ondoren, Davila fiskalak berriz hitz egin zuen. Kasu horretan, bere hasierako akusazioak apaldu egin zituen. Lehenik eta behin, Alvaro Calvillo Lopezen kasuan, une batez eskuetan pistola bat izatea soilik leporatu zitzaiola esan zuen, beraz, bere kontrako salaketa guztiak erretiratzen zituela eta errugabetua gelditzen zela. Beste alde batetik, sei akusaturi; Pablo Aguadori, Julian Blancori, Fabriziano Diezi, Migel Garbayori, Telesforo Gomezi eta Jose Migel Maizi matxinada militarra lagundu izanaren delitu-salaketa erretiratu egin zien, baina armak legez kanpo edukitzearen delitu-salaketa mantendu egin zuen; beraz, hasierako zigor-eskaera jaitsi eta bi urtean utzi zuen eskaera (kontuan izan behar dugu horietako bostentzat hasieran hamabi urteko kartzela-zigorra eskatu zuela; Pablo Aguadoren kasuan, hamasei urtekoa). Beste guztiekiko, euren kontrako salaketak apaltzeko edo erretiratzeko modurik ez zuela ikusten esan zuen, baina delituak eta ondorioak larriak izan ez zirenez gero, tribunalaren "sentimendu kristauei" dei egin zien, "erruki izan zezaten eta ahal zen zigorrik txikienak ezar ziezazkieten"[914].

Arratsaldeko jardunetan, abokatuak askoz ere lasaiago aritu ziren eta euren jardunen arabera, helburuaren parte handi bat lortua zutela eta euren tesiak (matxinada militarrari laguntzearen salaketa erretiratzea, kalteen salaketa erretiratzea eta asko jota mehatxuak eta batzuen kasuan armak legez kanpo izatearen salaketak soilik mantentzea) nagusitu izanaren sentsazioa izan zuten. Amilibiak, Beasaingo istiluak Asturiasko matxinadarekiko loturarik gabe utzi zituen, Beasainen gertatutakoak Asturiasko iraultzaileen garaipenerako ekarpenik ez zuela egin azpimarratuz, beraz, asko jota "ordena publikoko falta" soilik izan zela esan

[907] *El Día,* 1935-07-27koa.

[908] Sei egunkarik Morencosek salbu abokatu denek goizez hitz egin zutela badiote ere, *El Liberal* egunkariaren arabera, "seigarren abokatu bat hitz egiten ari zela epaiketa eten egin zen eta arratsaldez berak eta zazpigarren abokatuak (Morencosek) jarraitu zuten". (*El Liberal,* 1935-07-27koa). Beste egunkariak kontsultaturik, seigarren abokatu hori Cadena Iraizos kapitaina zela pentsa genezake.

[909] *El Diario Vasco,* 1935-07-27koa.

[910] *El Día,* 1935-07-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa.

[911] *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa.

[912] *El Día,* 1935-07-27koa.

[913] *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa.

[914] *El Día,* 1935-07-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa.

zuen. Horri, Beasainen greba-deialdia guda-egoera aldarrikatu aurretik egin zela gehitu zion; eta bere esperientzia baliatuz, "beste guda-kontseiluetan halakoak mehatxuagatik soilik epaitu izan zirela" esan zuen. Fermin Vega de Seoanek eta Cuartero kapitainak bat egin zuten Amilibiarekin, eta beraz, gertatutakoak delitu baino falta moduan kontsideratzea eskatu zuten. Vega de Seoaneren arabera, berak defendatua, Antonio Menaza, soilik armak legez kanpo izateaz akusa zitekeen; eta Cuarteroren arabera, berak defendatutako Frantzisko Ruiz, CAFen zuzendariarengana "arriskuak ekiditeko hobekuntza batzuk iradokitzera joan zen". Iñurrategik, zigorrak are gehiago apaltzeko eskatu zuen eta berak defendatutakoak, asko jota, bi hilabeteko kartzela-zigorra merezi zutela esan zuen (soilik armak izatearren zigor zitezkeela esan zuen). Azken hiru abokatuek, Lambea kapitainak, Cadenas Iraizos kapitainak eta Morencos tenienteak, "frogatutzat" eman zuten Beasainen matxinada militarrik edo antzekorik ez zela izan eta epaitegiak horri buruzko "ideia argia" izango zuenaren konfiantza adierazi zuten[915].

*El Día*ren kronikaren arabera, jardun eta hitzaldi guztiak entzun ondoren, epaitegiak "denbora dezente igaro ondoren" hartu zuen erabakia. Matxinada militarraren delitua "saiakera-mailan" mantendu zuen, eta horrez gain, sabotajea (trenbidearen kontra), lapurreta (Ataungo harrobitik dinamita lapurtu zuten) eta mehatxuak leporatu zizkien. Zigorrik gogorrenak Seberiano Onesimo Matute eta Anjel Galarretarentzat izan ziren, bakoitzari sei urteko kartzela zigorra ezarri baitzitzaien (Galarretak, bere adierazpenen arabera, bai Ataungo harrobiko lapurretan zein trenaren kontrako sabotajeetan parte hartu zuen), biei "Matxinada militarra laguntzearren"[916]. Lau urteko zigorrak jarri zizkien Gumersindo Capa eta Dionisio Carrascali. Kontuan izanik bat Beasaingo UGTko buru zela eta bestea zinegotzi sozialista dimititu berria, agian xehetasun horiek nolabaiteko pisua izan zuten. Bi urteko zigorra jaso zuten Antonio Menazak (CAFeko zuzendariarekin fabrika ixteko esanez hitz egitera joan zenetako batek), Fidel Aretak eta Faustino Oronozek. Agapito Noriegak, Frantzisko Hernandezek, Rafael Polok, Laureano Rodriguezek eta Frantzisko Rodriguezek[917] urtebeteko kartzela-zigorra jaso zuten. Aldiz, zortzi hilabeteko kartzela-zigorra jarri zien epaitegiak Alejandro Txintxurretari, Fidel Fernandezi, Balentin Gomez Artzeri, Basilio Pascual Juarrosi, Rufino Sarasola Lasari eta Higinio Urbinari. Zigorretan apalenetakoa sei hilabeteko arrastatze handia izan zen, hamaika presok jasotakoa: Pablo Aguadok, Julian Blancok, Migel Garbayok, Telesforo Gomez Artzek, Jose Ibarbiak, Joan Bernardo Lopezek, Tiburtzio Lopezek, Isidoro Rodriguezek, Frantzisko Ruizek, Frantzisko Zabaletak eta Joakin Zulaikak[918]. Fabriziano Diez, *El Pueblo Vasco*ren arabera, (baina ez *El Día*, ez *La Voz de Guipúzcoa*ren arabera) lau hilabeteko kartzela-aldira izan zen kondenatua[919]. *El Pueblo Vasco*k beste lau akusaturi lau hilabeteko zigorra jarri zietela esaten du (Pablo Aguadori, Julian Blancori, Migel Garbayori eta Telesforo Gomez Artzeri), beraz *El Día*rekin desadostasuna ikusten dugu hemen[920]. Jose Migel Maizen kasuan, ez dakigu nolako zigorra izan zuen, baina badakigu armak soilik izatearren zigortu zutela[921], beraz, litekeena da 4 hilabeteko kartzela-zigorra izatea, Diezek bezalaxe. Horrez gain, 31 horietatik 25i, armak legez kanpo izateagatik sei hilabeteko arrastatze handiko zigorra ezarri zitzaien. Horietako sei, lehen aipatutako seiak, arratsaldeko saioan Davilak euren kontrako matxinada militarrerako saiakera-akusazioa erretiratu zienak dira: Aguado, Blanco, Diez, Garbayo, Telesforo Gomez eta Maiz; baina ezin dugu besteen kasuan jakin nor izan zen matxinada militarra laguntzeagatik soilik kondenatua eta nor izan zen bi delituengatik kondenatua.

Beraz, azkenean kale egin zuen langile-iraultzak. Iraultza horren aurkako errepresioa, esan bezala oso gogorra izan zen, ez soilik hildakoen zenbaki handiari begiratuta, baita presoen zenbatekoari eta errepresioak utzi zuen arrastoari begiratuta ere. Presoen aferak asko hunkitu zituen ezkertiarrak eta langile-klaseetako jendea, baina elkartasuna ere handia izan zen. Horrez geroztik, "Amnistiaren" leloa, 1936ko otsaileko hauteskundeetan Herri Frontearen (*Frente Popular*) lelo nagusietakoa bilakatu zen. Horrez gain, langile-antolamenduen egoitzak urtebetez gutxi gora behera itxita egon ziren eta biltzeko eskubiderik ere ez zuten izan. Ekintza sindikalak ere debekatuak izan ziren.

Beasainen, 1934ko bi krisiek errepresioa eragin zuten eta hori izan zen urte hartako balantzerik nabarmenena. Lehenak, alkatea atxilotzea eta kargugabetzea eta haren ondorengo udalaren aldaketa ekarri zuen eta, bigarrenak, hainbat alderdiren egoitzak eta sindikatu guztienak itxita gelditzea (Batzoki berria obretan ari zen artean). Ezkerrak, boteretik at, eta kaleko presentziarik gabe, ekarpen askorik egiterik ez zuen izan eta Beasainen nabaria izan zen halako ideien pisuaren hutsunea.

---

[915] *El Día,* 1935-07-27koa.

[916] *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa.

[917] *El Liberal* egunkariak Frantzisko Ruiz nahasten du Frantzisko Rodriguezekin, Ruizi urtebeteko zigorra jarri zitzaiola oker esanez (sei hilabeteko zigorra ezarri zioten). (*El Liberal,* 1935-07-27koa)

[918] Hamaika horien zigorrez, *El Día*k soilik ematen du berri. Beste egunkari batzuek, *La Voz de Guipúzco*ak, *El Diario Vasco*k edo *El Liberal*ek, esaterako; sei kondenatu soilik aipatzen dituzte: Jose Ibarbia, Joan Bernardo Lopez, Tiburtzio Lopez, Isidoro Rodriguez, Frantzisko Zabaleta eta Julio Zulaika.

[919] *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa.

[920] *El Pueblo Vasco,* 1935-07-27koa. *El Pueblo Vasco*k, akats bat egin zuen: Balentin Gomez bi aldiz aipatu, bat zerrenda horretan eta beste bat lau hilabeteko kondena jaso zutenen artean.

[921] *El Día,* 1935-07-27koa; eta *La Voz de Guipúzcoa,* 1935-07-27koa.

or.

Hala ere, 1935. urtearen erdi aldera, Beasainen Ezker Errepublikano alderdia jada funtzionatzen ari zen, batzarrak eta abar, egiten zituzten (lehendabizi Gobernadore Zibilari baimena eskatu behar izaten zioten arren); baina hori bai, Merkatu-plazan, ez beren egoitza zen Zentro Errepublikanoan[922]. Beasainen, 1935eko urrian, Langileen Sindikatu Bakarrak (CNTren mendeko erakundea) bere lokala ireki zuen, ordura arte Ordizian soilik baitzuen. Beraz, 1935. urtearen amaieran nolabaiteko pixkanakako suspertzea hasi zela ikusten da[923].

Beasainen eta eskualdean ere errepresaliatuen aldeko ekintzak nabarmendu egin ziren. Udalak, orduan eskuindarren esku zegoen arren, herritarren nahiari erantzunez, 1934ko abenduaren 22an, epaiketaren zain zeuden zortzi preso beasaindarrek behintzat Gabonak familiekin pasatzeko aldi baterako askatasuna izan zezatela eskatu zuen. Preso horiek, Frantzisko Ruiz, Alvaro Calvillo, Pablo Aguado, Basilio Pascual, Fabriziano Diez, Frantzisko Zabaleta, Jose Ibarbia eta Rufino Sarasola ziren[924]. Are gehiago, 1935eko martxoan, herriko hainbat eragileren presentziarekin (ELA, eskuineko Sindikatu Profesionala, eskuineko Nekazarien Sindikatua, Merkatarien Elkartea, Jabeen Elkartea, Trenbideko Joko Elkartea, EAJ, Izquierda Republicana, Langileen Ekonomatoa eta Langileen Kooperatiba) batzar bat antolatu zuen udalak eta batzar horretan bost eragile falta zirela esan zuen Manuel Perez alkateak eta deigarria da sozialistarik agertu ez izana –ez UGT, ez Elkarte Sozialista– nahiz-eta kartzelatutako gehienak sozialistak izan (agian udal eskuindarrarekiko erabateko oposizioa erakutsi nahi izan zuten). Batzarraren helburua, CAFeko zuzendari Antonio Sierrari, epaiketaren zain zeuden beasaindarrak eta goierritarrak, aske utziz gero, enpresan berriz onartzeko eskaera egitea zen[925]. Bestalde, Gobernadore Militarrari, epaiketa ahalik eta lasterren burutu zedila eskatu zioten. Proposamen hori, antza denez, Ignazio Cortes merkatari errepublikanoaren eskutik etorri zen. Cortesek, bitartekaritzarako eta negoziaziorako trebezia handia erakutsi zuen halaber 1936ko Estatu-kolpearen hurrengo egunetan, bere etsai ideologikoen (eskuindarren) alde bitartekaritza-lanak egitean eta Beasaingo kartzelatik askatzea lortzean. Baina 1935eko martxoko batzarrera itzulita, batzarkideen artean zenbait tirabira izan ziren. Adibidez, ELAko ordezkari Jose Maria Lozaresek "berronartzeko kudeaketak CAFez gainerako fabriketan" ere egitea eskatu zuenean, tartean Legazpiko Patrizio Etxeberriaren fabrikan lan egiten zuen beasaindar baten kasua aipatu zuen. Udalaren ordezkariek ordea, Beasaingo Udalak Legazpin zer esanik ez zuela esaten zuten. Beste alde batetik, jabeen ordezkari zen Pedro Jose Iguainek (Musikako udal-bandaren zuzendari ere bazenak) errugabeen eta zigortuen artean bereiztea eskatu zuen; langileren bat zigortua bazen, enpresariei ezin zitzaiela berronartzea eskatu adierazi zuen, iradoki baizik ezin zitekeela egin, legearen gainetik jartzea ezinezkoa zela-eta, beraz epaiketa egin arte itxarotea eskatu zuen, zenbat errugabe eta zenbat zigortu ziren jakiteko. Beste batzarkideek Tolosan eta Azpeitian zigortutako langileak ere berronartze-prozesuan sartu zituztela erantzun zioten. Beste alde batetik batzarrean kartzelatu haien eta gainerako langabeen (118 aipatzen ziren) egoera alderatu zen eta nola har zitezkeen zigortuak galdetu, zenbat denborarako zigortuta zeuden ere kontuan hartu gabe, aldi berean herrian hainbeste langabe zeudela kontuan izanda. *Izquierda Republicana*ko Manuel Gorrotxategik erantzun zuen, langabe "arrunt" gehienak gazteak zirela eta lana topatzerik bazutela, alta, kartzelan zeuden edo epaiketaren zain zeuden ia denak, familiadun gizonak zirela. Berriz ere, krisi ekonomiko garaietan langile-klasearen barruan izandako zailtasunen eta barne-arazoen adibide bat topatzen dugu hemen[926].

Bestalde, 1935ean Gipuzkoan Presoen Aldeko Batzordea (*Comité Pro-Presos de Guipúzcoa*) sortu zen, komunisten *Laterriarteko Sorospen Gorrija* (*Socorro Rojo Internacional*) taldeak bultzatuta. Presoen Aldeko Batzorde horrek, Gipuzkoa osoan zehar diru-bilketa handi bat hasi zuen eta 1935eko uztailaren 31rako 290.328,30 pezeta bilduak zituen, horietako 7.447 pezeta Beasainen[927]. Goierriko presoen aldeko ekitaldiak ez ziren soilik Beasainen egin, Ordizian, 1935eko azaroaren 30ean, Etxezarreta antzokian, Goierriko presoen aldeko gaua antolatu zen, presoen familiak diruz laguntzeko asmoz[928]. Halako elkartasun- eta laguntza-ekitaldiak, Gipuzkoan eta Hego Euskal Herri osoan egin ziren modu bertsuan (baita Asturiasen ere) eta presoen alde hainbat erakundek egindako lan komun horrek, 1936an Herri Frontea (Frente Popular) eratzea erraztu zuen eta, agian, hori izan zen porrot haren ondorio baikor bakarretakoa ezkerrarentzat: 1935eko abenduaren 30ean, Gipuzkoan, sindikatu komunistak UGTn sartzeko prozesua hasi zuen eta 1936ko urtarrilaren 1ean, Donostian, sozialisten eta komunisten arteko lehen mitin bateratua ospatu zen, Jesus Larrañaga goierritarra ere bertan zela[929].

---

[922] Beasaingo Udal Artxiboa. 119 karpeta, 11 dokumentua.

[923] Beasaingo Udal Artxiboa. 138 karpeta, 32 dokumentua.

[924] Beasaingo Udal Artxiboa. 3762 karpeta, 55 dokumentua.

[925] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

[926] Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.

[927] GARAI BENGOA, Joan Ramon; GUTIERREZ AROSA, Jesus eta CHUECA INTXUSTA, Josu: *Octubre del 1934 en Euskal Herria. Revolución , insurrección y huelga general*. Intxorta 1937 Kultura Elkartea. Oñati, 1934, 201. or.

[928] ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 24. or.

[929] EGIDO SIGÜENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.).Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 34-35. or.



RELACION DE LOS VECINOS DE LOS PUEBLOS DE BEASAIN, VILLAFRANCA DE ORIA Y LAZCANO, que se encuentran presos en el Fuerte de Guadalupe (Fuenterrabia).

Fidel Areta
Antonio Menaza
Juan Bernardo Lopez
Julian Blanco
Tiburcio Lopez
Telesforo Gomez
Rafael Polo
Laureano Rodriguez
Valentín Gomez
Miguel Garbayo
Andrés Onésimo
Joaquin Zulaica
Agapito Noriega
Fabriciano Diez
Fidel Fernandez
Dionisio Carrascal
Higinio Urbina
Francisco Ruiz
Faustino Oronoz
Francisco Hernandez
Francisco Zabaleta
Rufino Saramola
José Ibarbia
Gumersindo Capa
José Miguel Maiz
Pablo Aguado
Basilisc Pascual
Alejandro Chinchurreta
Angel Galarreta
Antonio Rodriguez
Alvaro Calvillo

Al Ilustre Ayuntamiento de la Villa de

BEASAIN

Los que suscriben, en nombre de los treinta y un ciudadanos, que se encuentran presos en este Fuerte de Guadalupe, en Fuenterrabia, de esta provincia de Guipuzcoa, a V.S., con el mayor respeto, y como más y mejor proceda, dicen

Que, enterados de que varios Ayuntamientos de esta Provincia, mediante solicitud a la Autoridad competente, han obtenido la libertad provisional para sus vecinos; y, creyendo que con los que suscribenpuede ese Ilustre Ayuntamiento proceder en igual forma,

SUPLICAN a tan digna Corporación ponga el máximo interés en la consecución inmediata de dicha libertad para los mismos, y para aquellos, cuyos nombres se adjuntan en otra relación.

Gracia, que los exponentes no dudan obtener de la reconocida caballerosidad de los Ilustres Miembros de esa Corporacion.

Vivan muchos años.

Guadalupe veintidos de Diciembre de mil novecientos treinta y cuatro.

SEÑOR ALCALDE PRESIDENTE DEL ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE BEASAIN

13.- 1935/Diciembre/22.(Documento) En octubre de 1934 los obreros de Beasain respondieron de forma mayoritaria a la Huelga General convocada por los sindicatos y las fuerzas de izquierda. La represión del movimiento llevó a prisión a 31 ciudadanos de la zona fabril de Beasain, de ellos 13 de esta localidad. Carta de los 31 ciudadanos presos en el Fuerte Guadalupe.

1934ko gertakariengatik preso zeuden beasaindarrek Beasaingo alkateari idatzitako gutuna. (Dokumentuak: Beasaingo PSOEk utziak)

Politikoki, matxinada haren ondorioz, “ezkerreko” eta “eskuineko” blokeak sendotu egin ziren iraultza haren bidez. Bi blokeen arteko lubakia handitu egin zen, eta bien arteko elkarlaguntza ia ezinezko bihurtu zen, adibidez, orduan Gobernuan zegoen Alderdi Erradikalaren barruan (zentro-eskuineko alderdi errepublikanoa), “eskuineko” izaerak gain hartu zion “errepublikano” izaerari. Bloke horietako bakoitzean ere, aldaketak nabaritu ziren: ezkerrean, lehen urteetako ezinikusia gaindituta, batez ere langile-erakundeen artekoa (sozialistak, komunistak eta anarkistak), euren arteko hurbiltze bat nabaritzen hasi zen, batez ere esperientzia gogor haren eraginez. Eskuinean, aldiz, Armadaren esku-hartzeak, “ordenaren jarraipena” bermatu zuenak, ospe handia lortu zuen eta eskuindar politikarien barruan “Iraultzaren aurrean Armada ez den beste defentsarik ez dago” pentsamendua sortu zuen, hain zuzen ere gero, 1936ko Estatu-kolpea ematera eraman zuena.

1.6 Beasaingo elkarteak eta zerbitzuak

Urte horiek Beasainentzat ekonomikoki urte latzak izaki, herri honetako zerbitzu-eskaintzak ere ez zuen izan lehengo maila mantentzerik. Udalak gastu sozialetarako bideratutako diru gehiena, lanik gabe gelditu zirenei laguntzeko erabili behar izan zuen.

Hala ere, eskola-arloan egin ziren hobekuntza batzuk. Horietako bat, Arriaran auzoan egin zen eskola berria izan zen, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta. Arriarango eskola egiteko ahaleginak, 1930. urtean, hasi ziren, Hezkuntza Batzordeak Gipuzkoako Foru Aldundiari Gipuzkoan 100 eskola berri egitea proposatu zionean. Gipuzkoako Hezkuntza Batzordearen arabera, lurraldean zegoen hezkuntza-sistemaren egoera oso txarra zen eta aldatu beharra zegoen. 1930eko azaroaren 4an Gipuzkoako Foru Aldundiari bidalitako proiektuak, gipuzkoarren artean “zegoen analfabeto-kopuru handia” jaistea zuen helburu, izan ere, Aldundiak hezkuntzan egin beharreko gastua handitzat jo izanak “auzi hori artean osotasunean konpondu gabe zegoela” esan nahi zuen, baina beste zailtasun bat ere aipatzen zuten: Gipuzkoaren erliebe-eraketa menditsua (“zaila”). Gipuzkoako Hezkuntza Batzordeak, Bizkaiko Aldundiak Bizkaiko auzo-eskolak egiterakoan erabilitako eredua jarraitzea proposatu zuen, eta baita auzo-eskola horiek zein herritan kokatzen zirenaren arabera, eredu ezberdinak erabiltzea ere (kontuan izanik ikasleek

or.

etorkizunean lan ezberdinak izango zituztela). Aipatu beharra dago baita ere (artean Errepublika aldarrikatu gabe zegoela) erlijioaren irakaskuntza eskola-orduetan irakasgai gisa emateko tratatua izan zela. Eskolak, herrigunetik kilometro batera edo gehiagora zeuden auzoetan edo baserri-etxaldeetan kokatzekoak ziren. Aldi berean, eskolak egiteko aurrekontuaren zatirik handiena udalen kontura izango zen, baina Aldundiak bakoitzaren %25 ordaindu beharko zuen, eta horrez gain, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak finantzatzeko kreditu errazak eskaini behar zituen[930]; hala ere eskolako materiala Aldundiaren kontura izan behar zuen. Hasiera batean, eskola horiek guztiak hamar urtetan eraikitzea proposatu zuten, baina Aldundiak hori bost urtera mugatzea eskatu zuen. Eskolen ikuskaritza ere herrien esku egongo zen. Eskolak egiteko eskaera, udalek edota auzoko elkarteek egin behar zuten eta Aldundiak baimena eman. Batzordeak, hamar urtetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu hori finantzatzen 500.000 pezeta gastatu behar zituela kalkulatu zuen (irakasleen soldata 3.000 pezetakoa izango zela ere kalkulatu zuen)[931].

Berrikuntza bat (gero, Aldundiko diputatuen arteko eztabaidan ikusiko den bezala), lehen aldiz euskararen irakaskuntza sistematikoa jartzea zen, eta beraz, irakasle-postua hartzeko euskara jakitea beharrezkoa zen (irakasleek euskararen ezagutza--azterketak gainditu behar zituzten). Umeei eskolak ematerakoan, euskararen presentzia lurralde osoan homogeneoa ez izatea proposatu zuten: euskarak presentzia handiagoa zuen herrietan, haur-hezkuntzako mailetan euskaraz hasiko ziren, gero, pixkanaka, erdara sartuz joan eta goi-hezkuntzako ikasketak erdaraz bukatzeko. Euskarak presentzia urriagoa zuen eremuetan, ordea, bi hizkuntzetan hasiko ziren hasieratik, goi-ikasketak erdaraz bukatzeko[932]. Diputatuek nahikotzat eman zuten euskara irakasgai bezala jartzea; adibidez, Brunet diputatuak eskola-aldia bukatzerakoan, ikasle guztiek "bi hizkuntzak ondo jakitea" zuen helburu, eremu euskaldunetan haurtzaroan klaseak euskaraz hasiz eta geroago erdara sartuz; eta eremu elebidunetan "irakaslearen arabera" hizkuntza bati edo besteari lehentasuna eman behar zitzaion. Paguaga diputatuak, Gipuzkoako hezkuntzaren egoera txarra, Gipuzkoaren erliebeaz gain "arrazoi- eta pedagogia-aurkako metodoak" erabili izana aipatzen du; eta berrikuntza horren bidez, "ikasleek ulertzen ez duten hizkuntza batean (erdaraz) ikasteko torturarik gehiago ez dutela jasoko" adierazten du. Paguagak, klaseak euskaraz emateaz gain, euskara bera, euskal gramatika irakasgai bezala ematea proposatu

Loinazko San Martin (Lasalle) ikastetxeko ikasleak eta irakasleak Errepublika garaian. Irakasleak abiturik gabe daude. (Argazkia: Mari Karmen Ibarbiak utzia)

[930] Aldundiaren interesa interesik gabeko krediduen bidez finantzatzea bazen ere, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak, 1931ko martxoaren 21eko bileran (1932ko maiatzaren 23an berretsia), %5eko interesdun krediduak ezartzea gomendatu zuen, bestela behar adina dirurik ez zegoela-eta. Bilera horretan, eskola-eraikin bakoitza bukatzerakoan Aurrezki Kutxak %10eko saria emateko erabakia hartu zuen. Aurrezki Kutxaren arabera, eskola bakoitza 20.000 eta 30.000 pezeta artean kostako zen. Hala ere, ezaguna da bai garai hartako krisia eta baita Errepublika garaian, erakunde publikoek egin zuten gastuen murrizketarako politika, beraz, 1932ko uztailaren 15ean Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren Administrazio Kontseilua zalantzak agertzen hasi zen, eta gehienera ere eskola bakoitzeko kostuaren %10aren ekarpena egingo zuela esan zuen. Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 784-2 dokumentu-sorta.

[931] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 784-2 dokumentu-sorta.

[932] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 784-2 dokumentu-sorta.

zuen. Hala ere, denak ez zeuden ados halako kontzeptuekin: Aztiria diputatuak, Debako alkate ere bazenak, "euskararen sarrera ona bazen ere", "erdararen irakaskuntza beharrezkoa zela" esan zuen, eta "ezin zela deskuidatu". Azkenean, Aldundiak, Hezkuntza Batzordearen planteamenduak zuzendu egin zituen, eta goi-mailako ikasketak, "bi hizkuntzetan, erdara nagusi zela baina euskararen irakaskuntza baztertu gabe" ematea proposatu zuen (Hezkuntza Batzordeak goi-mailako ikasketak erdaraz bakarrik ematea proposatua zuen)[933].

Hala ere, eskolak eraikitzeko erritmoan zailtasun batzuk izan ziren. Horietako bat, finantzaketarena izan zen eta aurreko orrialdean azaldu dugun bezala, Gipuzkoako Aurrezki Kutxak ezin izan zuen hasieran agindutakoa bete, eta azkenik eskola bakoitzeko %10 finantzatzera (gehi eraikin bakoitza bukatzerakoan prima bat ematera) mugatu zen. Bestalde, esan beharra dago, 1936ko maiatzerako, aurreikusitako ehun eskoletatik 20 soilik zeudela bukatuta, izan ere, udalek, eskola bakoitzaren %65 finantzatu beharra, zama handiegia izan zen berentzat. Maiatz horretan Gipuzkoako Aldundiak, dokumentu batean, proiektu hori bukatzeko "baliabide bereziak" erabiltzea planteatu zuen, udalek zama ekonomiko handiegia beren gain har ez zezaten: udalen ekarpena %25era murriztea planteatu zen. Azkenean, 1936ko ekainaren 1ean, Aldundiaren beste dekretu batean, udalek egin beharreko ekarpena %25era jaitsi zen[934].

Nolanahi ere, Beasaingo Udala, Arriarango eskola hori egiten lehenengo udaletako bat izan zen, beraz, arrisku horietatik at gelditu zen. Eskola egiteko lehen pleguaren arloko bilera 1932ko irailaren 19an egin zen, Jazinto Urteaga Iurrita alkatea, Leontzio Ibarbia alkateordea eta Serafin Arana zinegotzia bertan zirela[935]. 1936an militar altxatuek alkate izendatuko zuten Jose Luis Guridi kontratistak 32.000 pezeta inguruko aurrekontua aurkeztu zuen, 100 pezeta bakoitzeko 10,27 pezetako beherapena eskainiz[936]; eta Zumarragako Kosme Salegik beste aurrekontu bat aurkeztu zuen, non gastatutako 100 pezetetatik, udalari 18,65 pezetetako beherapena eskaintzen zion. Bakoitzak 1.500 pezetako fidantza jarri zuen. Beste hiru aurrekontu ere bazeuden, *Odriozola y Compañia* talde beasaindarrarena (100 pezetetatik 10,15 pezetaren beherapena eskaintzen zuen), laugarrena Joan Iguain beasaindarrarena (33.900 pezetako aurrekontua aurkeztu zuen) eta bosgarrena Jose Antonio Intsausti lazkaotarrarena, zeinak 100 pezetatik 13 pezetako beherapena eta 1.500 pezetako fidantza aurkeztu zituen[937]. Hurrengo bilera batean, Donostian, 1932ko urriaren 8an, lana egiteko enkargua Kosme Salegi zumarragarrari emateko erabakia hartu zen, lanak 29.007,57 pezetako hasierako aurrekontua zuela[938]. Eskola egiteko, 1932ko urriaren 6an Kasilda Gaitan de Aialari lursail bat erosi zion udalak[939].

Dokumentu baten arabera, 1932ko azaroaren 28rako, lanak jada nahiko aurreratuta zeuden[940]. 1933ko apirilaren 24ko dokumentu batek, kostu osoa, 41.766 pezetakoa izan zela dio, zimenduen arloan 3.280 pezetako gain-kostua izan zelako (beraz, hasieran Kosme Salegik aurkeztutakoa baino 12.000 pezeta gehiago kosta zen obra)[941]. Azkenik, eskola 1934ko apirilaren 13an inauguratu zen[942]. Eraikuntza-fasean arazo batzuk sortu ziren; adibidez, ur-ekarreraren arazoak, 1934ko martxoan, eta horrek 7.402 pezetako gain-kostua ekarri zuen; horietatik 1.858,95 pezeta Aldundiak ordaindu behar izan zituen[943]. Hala ere, horrek kalapita bat ekarri zuen, izan ere, Aldundiaren arkitektoak, 1934ko urtarrilaren 15ean, "Aldundiak halako udal-lanik sekula ez du ordaindu" esan baitzuen[944]. 1935ean, ordea, premiazko lan batzuk egin behar izan ziren konponketak egiteko, hezetasuna eta abar saihesteko ingurua isolatuz eta guztira 2.919 pezetako kostua izan zuten lan horiek. 1935eko urriaren eta abenduaren artean sinatu zen esleipen hori[945].

Horrez gain, herri barruan ere eskola berriak egin ziren, adibidez, 1932an Donostiako Institutuaren mendeko Ikasketa Berezien Akademia zabaldu zen Beasainen[946], eta horrez gain, 1933an (1932an onartuta), Martina Maiz kalean eskola berriak (neskentzako

933 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 784-2 dokumentu-sorta.

934 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 784-2 dokumentu-sorta.

935 Beasaingo Udal Artxiboa. 1.237. karpeta, 42. dokumentua.

936 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta.

937 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta.

938 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta.

939 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 4278 dokumentu-sorta.

940 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 4278 dokumentu-sorta.

941 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 4278 dokumentu-sorta. Aurrekontu barnean dauden lanetan 35.353 pezeta gastatu ziren eta aurrekontutik kanpoko lanetan 6.413 pezeta. Dokumentu horrek lan ezberdinen kostuaren banaketa du eta interesatua dagoenak bertara jo dezake. Horrez gain, lorezaintza-lanetan 1.323 pezeta gastatu ziren eta onuraduna Hernaniko Joan Bautista Pagola izan zen.

942 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 3.256. karpeta, 20. dokumentua.

943 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta.

944 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 4278 dokumentu-sorta.

945 Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 1455/1971 dokumentu-sorta.

946 ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 94-95. or.



Loinazko San Martin ikastetxeko dantzariak 1933an. Ramon Aranburu *Txanbo* izan zuten txistulari. (Argazkia: JZG, 101. or.)

Loinazko San Martin ikastetxeko ikasleak eta irakasleak Gernikako zuhaitzaren azpian. (Argazkia: JZG, 101. or.)

bi eta mutikoentzako bi) egiten hasi ziren (Estatuak 1931n eman zuen eskolak egiteko baimena)[947]. Eskola horiek, geroago, karmeldarren eskuetan gelditu ziren (Karmeldarrek, Notre Dameko mojek neskentzako eskola jartzeko egindako saiakera antzuari segida eman, eta hala, neskak ere onartzen zituen eskola erlijiosoa jarri zuten), nahiz eta Errepublika garaiko udalaren lehen proiektua eskola publikoa izatea izan zen[948] (areago oraindik, eskola publiko nagusitik eskolaurreko gela batzuk hara eraman zituzten)[949]. Azkenik, 1935ean (Manuel Perezen alkatetzaren garaian) Plazako Eskolen berrikuntza egin zen[950]. Beraz, garai horietan, Beasainen, lehen hezkuntzako hiru eskola egon ziren; bi herrian, graduatuak 595 ikaslerekin eta haurrenak 190 ikaslerekin eta beste bat Arriaranen, 43 ikaslerekin. Aldi berean, hiru eskola pribatu ere baziren: neskentzako, mojen *Ntra. Sra. del Carmen* ikastetxea, 90 ikaslerekin eta mutikoentzako Lasalletarren Loinazko San Martin ikastetxea (230 ikaslerekin)[951] biak erlijiosoak eta langileen semeentzako (mutikoen eskola, dakigunez) CAFen lanbide-eskola. Eta oinarrizko eskolez kanpo, aipatzekoak dira, Arte eta Ofizioen bi Eskolak (publikoa bata, udalarena, eta CAFena bestea), Ikasketa Berezien Akademia eta Musika Eskola.

Hala ere, eskolen inguruan ere halako tirabira batzuk izan ziren. 1931ko ekainean, eskola publikoetako irakasleak, Beasainen "irakasleentzako etxerik" ez zegoelako kobratzen zuten diru-saria, urteko 260 pezetatik 500 pezetara igo zedila eskatu zuten. Irakasleen arabera, 260 pezetako dirusaria 5.000 biztanle baino gutxiago zituzten herrietako irakasleei ordaintzen zitzaien, baina irakasleen aburuz, Beasainek, praktikoki ("erroldan artean ofizialki hala islatu ez arren") 5.000ko muga hori aspaldi gainditua zuela esaten zuten, beraz 500 pezetako diru-saria behar zutela (gogoratu beharra dago, orain arte aipatu ditugun ikerketa guztien arabera, 1930ean 5.260 biztanle zituela Beasainek, baina errolda berria ez zen 1931 urtera arte argitaratu). Irakasle horien eskaera, igoera berehala eta errolda ofiziala argitaratu aurretik egitea, edo bestela eurek alokatu beharreko etxebizitzak udalak ordaintzea izan zen[952]. 1932ko dokumentu baten arabera, udalak urtean 3.000 pezeta gastatzen zituen Beasaingo irakasleen etxebizitzetan (175 pezeta Astigarretako irakaslearen etxebizitzan eta 300 Aratz-Matxinbentakoarenean)[953]. Irakasleen etxebizitzen arazoak 1935eko abenduan agertu ziren berriz ere, baina kasu horretan, Beasainen bertan, izan ere, Pilar Barber eskola publikoko nesken saileko irakaslea hil ostean, beste bi irakaslek, Maria Teresa Puente Pazek eta Joakin Cortijo Garcesek, haren etxebizitza erabiltzea eskatu baitzuten. Udalaren irizpidea, etxea lehenik Puente Pazi ematea izan zen, aldi baterako eta txandakatze-sistema ezarriz[954]. Hala ere, badirudi horrek ez zuela arazoa konpondu eta 1936ko apirilean Teresa Puenteri etxea Joakin Cortijori uzteko eskatu behar izan zion udalak[955], azken horrek jarritako helegite batzuen ostean, etxebizitza berari zegokiola erabaki baitzuen Hezkuntza Ikuskaritzak.

Bestalde, nahiz eta Arriaranen eskola berria egiteko proiektuak egon, egia da halaber, 1931n Garingo auzo-eskolan irakaslea falta izan zela eta garindarrek seme-alabak Astigarretako eskolara eraman behar izan zituztela. Garinen, udalak egindako ikuskapen baten ostean, bertako maisu Kandido Arregiren lana deitoratu zuen, eta udalak hura kargugabetzea erabaki zuen[956]. 1931ko abuztuan, Garingo herritar talde batek udalari idatzitako gutun batean, "Garinen auzo-eskola egitea agindu zuela" gogorarazi zioten, eta "hitz hori ez betetzeagatik" seme-alabak Astigarretako eskolara eramatera behartuta zeudela esaten zuten. Garindar horien arabera, umeak egunero Astigarretara eramatea "ezinezkoa" zen, eta konponbide bezala "lehen hezkuntza bukatzear zegoen gazte batek, aldi baterako, ume txikienei oinarrizko hezkuntza irakastea" proposatzen zuten. Gertakari horrek argi uzten digu baserri-auzoetan hezkuntzaren egoera zeinen kaxkarra zen, eta zergatik 1930ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 100 auzo-eskola egitea proposatu zuen, halako premia larria ikusita. Udalak irailaren 3ko bilkuran eman zien erantzuna garindarrei, gai hori "aztertuko zuela" esanez[957]. Garingo eskolaren gabeziak nahiko nabarmenak ziren, 1935eko maiatzean, eskola hartan irakasle profesionalik ez zegoela-eta, badakigu jakin bertako apaiza zela eskolaren arduradun[958]. Hala ere, udalak Garinen eskola berri bat egitea pentsatuta zeukan urte horietan, Serafin Arana zinegotziak esan zuenez.

---

[947] Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.

[948] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936). (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 96. or.

[949] Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.

[950] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 94-95. or.

[951] ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 95-96. or.

[952] Beasaingo Udal Artxiboa. 151. karpeta, 40. dokumentua. Gainera, Aratz-Matxinbentako irakaslearen kexu-gutuna irakur daiteke. Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[953] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

[954] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[955] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[956] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua. Dena dela, dokumentu berean azaltzen denez, Garingo kasua salbuespena zen Beasaingo auzo-eskolen artean.

[957] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[958] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

or.

1932ko azaroko datuen arabera, Beasaingo eskola publikoetan (Beasaingo, Astigarretako eta Aratz-Matxinbentako eskoletan[959]), 1.554 ume zeuden matrikulatuta: 788 mutiko eta 766 neskato. Adinaren arabera banatuta, 3 eta 6 urte bitarteko 396 ume zeuden matrikulatuta, 6 eta 8 urte bitarteko 275, 8 eta 10 urte bitarteko 268, 10 eta 12 urte bitarteko 270 eta 12tik gorako 345. Beasaingo eskola-eskaintza, sare publikoko udal-eskolek, Arriarango auzo-eskolak (aurreko orrialdeetan azaldu dugu nola egin zen), Arte eta Lanbideen Eskolak eta haur-eskolak osatzen zuten[960]; eta sare pribatukoak, berriz, Loinazko San Martinen eskola (Lasalletarrena), *Ntra. Sra. del Carmen* eskola moja karmeldarrena eta 1932ko urrian jarritako goi-ikasketetarako Akademia Bereziak osatzen zuten (lehenengo biek udalaren subentzioa jasotzen zuten eta hirugarrena Donostiako Institutuaren mende zegoen)[961]. Eskola-sistema berrikuntza-giroan sartuta zegoen, laborategi bat ere eraikitzen ari ziren-eta[962].

Hala ere, herriguneko eskola publikoaren egoera ez zen uste bezain ona, Beasaingo Elkarte Sozialistaren arabera behintzat eta Elkarte horren salaketetan agertzen denez, 1932an, 60 bat ume zeuden 25entzako tokia zegoen gelan, beraz, pilaketa nabarmena zen. Talde horrek udalaren gain jartzen zuen agintean zeraman urtebetean arazoa konpontzeko urratsik ez eman izana[963]. Kasu horretan, udalaren erantzuna zera izan zen, udalak hezkuntzarekiko ez zuela jarrera arduragabea erakutsi eta 1932an eskola bateratua eta auzo-eskola eraikitzen ari zirela esan zuen, beraz, ezin zitzaiola udalari utzikeriarik leporatu, arazo guztiak konpontzea lortu ez bazuen ere[964]. 1933ko otsaileko udal-bilkura batean, Pedro Lasa Segurola zinegotziak eskoletan jantokiak jartzea proposatu zuen "Tolosan eta Donostian daudenen antzekoak"[965]. Eskolako jangela horien gainean, 1934ko apirilean udalak jakinarazi zuen Hezkuntza Ministerioak jangela horientzako 2.000 pezetako subentzioa ematen zuela[966], eta geroago, 1934ko azaroan, Joan Usabiaga parlamentariak 3.000 pezeta eman zituela ere jakin izan zen[967]. Azkenik, 1935eko

Errepublika garaian, Pedro Lasa Segurola zinegotziaren ekimenez, eskola publikoan umeentzako jangela publikoa zabaldu zen. (Argazkia: FL/MG, 106. or.)

959 Lehen kapituluan esan bezala, Beasaingo eskola publiko berria 1924an egin zen, 100.000 pezeta kosta zen (Estatuak 60.000 pezetako subentzioa eman zuen). Aratz-Matxinbentakoa eta Astigarretakoa 1923an eta 1926an egin ziren eta, hurrenez hurren, 6.000 pezeta eta 12.000 pezeta kosta ziren. Kontuan izan behar da udalarena zen Garingo eskola eta Aldundiak eraikitako Arriarangoa ere hor zirela.

960 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua. Haur Eskola 1914an egin zen eta Arte eta Lanbideen Eskola 1915ean.

961 Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 34. dokumentua. Eskola horiei CAFen lanbide-eskola ere gehitu behar zaie, 1917an sortua. Bestalde, eskola pribatuetan lehena Lasalletarrena izan zen, 1909an sortua. Martina Maiz kalean eskola-areto berriak egin ziren 1933tik aurrera. Azkenik, Akademia, Beasainen 1932an sortu zena, Loinazko San Martin plazako 3 zenbakian kokatuta zegoen. CAFen eskolak jada ez zuen funtzionatzen. 1935ean, CAFeko eskolako ikasle-ohiek eskola hartako zuzendari zen Leon Arregiri omenaldi bat egitea erabaki zuten. Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

962 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua. Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 34. dokumentua

963 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

964 Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.

965 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

966 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

967 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.



AGRUPACIÓN SOCIALISTA
BEASAIN
(GUIPÚZCOA)

23 de marzo de 1932

Sr. D. Jacinto Urteaga
Alcalde de Beasain

Muy Sr. mio: Esta Agrupación Socialista de Beasain veria con gusto y suplica a U. que con motivo de la estancia en Madrid al frente de la Comisión que ha de recabar del Gobierno de la República, ayuda para resolver la crisis de trabajo que se padece en esta zona industrial; aprovechara la ocasión para recabar del Sr. Ministro de Instrucción Pública, una consignación para construir en Beasain un grupo escolar que como U. no ignora es bien necesario, dadas las malas condiciones que reunen algunos de los locales hoy existentes; con lo cual se contribuiria además a remediar en parte la aludida crisis de trabajo.

Reciba un saludo y el apoyo incondicional de esta Agrupación

El Presidente

Angel Iparraga

9.- 1932/Marzo/23. Las preocupaciones por el paro obrero y la educación ocupan a los militantes socialistas en aquellos años. La demanda de un nuevo grupo escolar bajo el viejo ideal de que la enseñanza mejorará la igualdad de oportunidades y la formación del individuo para sí y para la sociedad.

Beasaingo Alderdi Sozialistak eskola berriak egin zitezen eskaera plazaratu zuen. 1932an, alkateari hori aipatzeko eskatu zion, Errepublikako Gobernuarekin lan-krisia konpontzeko bilera batera joan zenean. (Dokumentua: Beasaingo PSOEk utzia)

urriaren 30ean, jangelak 3.000 pezetako subentzioa jaso zuela jakin zen[968]. Eskola bateratuak, 1934ko erdialdera bukatu ziren, baina 1934ko uztailaren 29an Pedro Lasa eta Doroteo Aguado zinegotziek eskola bateratuak irakasle faltagatik martxan ez jarri izana salatu zuten, eskola publikoa gainezka baitzegoen eta eskola pribatuetan hezkuntza doakoa ez zenez, irakasleetan halako inbertsioa egitea komenigarri ikusten zutela zioten, baliabide handirik gabeko familiak laguntze aldera[969]. Mozio horren kontrako beste mozio bat ere aurkeztu zuten abuztuaren 9an Ibarbia alkateordeak eta Arana zinegotzi errepublikanoak, esanez, berez eskola bateratu horiek "gabeziak zirenerako" egin zirela eta berrituta prest egon beharko zuketela beste eskolak gainezka zeudenerako, baina kasua ez zela hori. Ibarbia eta Arana zinegotzien kontramozioan zera zioten "5.000 inguru biztanleko herri gutxi daude hezkuntza beharrak Beasainek bezain ondo beteta dituztenak" (hamar gela herrian bost sexu bakoitzeko eta auzoetan beste hiru eskola publiko, gehi Arriaranen Aldundiak egindakoa), beraz, "ez zegoela udala irakasle gehiago kontratatzeko gastu gehiagorekin zertan kargatu", beraz udalari "Martina Maizeko lokalak Eskola bateratuak egiteko eraiki zirenak, eskola publikoetatik ikasle batzuk eramanez probesteko" eskatzen zioten. Gaia ez zen eztabaidatu eta zortzi egun utzi ziren gaia aztertzeko, baina segituan 1934ko udalen mugimendua gertatu zen, abuztuaren 12ko alkatearen atxiloketarekin eta abuztuaren 25eko udalaren dimisioarekin, beraz, gaia atzeratu egin zen[970]. 1935ean, agintariekin zenbait tirabira izan ostean, eskola horietara, eskolaurreko umeak eramatea erabaki zuten, eskola berria egin ordez. Gainera 1936ko martxoan, jada alkate Viktor Bernedo zela, eskola horretako patioa egiten hasi ziren, 5.925 pezetako aurrekontuarekin. Esleipenaren onuraduna Jose Garaialde izan zen[971]. Eskola-lokal horien arazoak ez ziren hor bukatu, izan ere, 1936ko martxoan, Pedro Lasa zinegotzia eskola horietako leihoak harrikadez puskatu zituztelako kexu azaldu zen[972].

[968] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[969] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[970] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua.
[971] Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 10. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 061 karpeta, 20 dokumentua.
[972] Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24 dokumentua.

or.

Beste afera bat, noski, eskolen laikotasunaren ingurukoa izan zen. 1932 eta 1933 urteetan nabariak izan ziren Elkarte Sozialistak zein udaleko zinegotzi sozialistek Beasaingo eskola pribatu erlijiosoei udal-laguntzak kentzeko eskaerak. Udalak, laguntzak murriztu zituen arren, sekula ez zituen kendu, eskola horietako umeak sare publikoan "hartzeko" tokirik ez zegoela argudiatuz (esan beharra dago Martina Maiz kaleko lokalak 1935. urtera arte ez zirela bukatu). Hala ere, Viktor Bernedo Zubiaurre 1936an alkate jartzean laikotasunaren aldeko borroka gogortu egin zuen: udal-eskoletan, haur-eskolan erlijio-eskolak ematearen aurkako mozioa onartuko zuen udalak (ordura arte, erlijiosoek haur-eskolako eskolak ematen zituzten eskola publikoan)[973]. 1936an Seberiano Azpeitia alkateordea eta Viktor Bernedo alkatea Donostiara joan ziren Aldundikoekin biltzera eta Garinen eskola egiteko proiektua zehaztera. Nahiz eta proiektua bideratu samartua izan (eskola eraiki artean, irakasle postu bat sortzeko eta bitartean han zegoen apaiza eskolatik kanporatzeko konpromisoa hartua zen) batzarraren ostean, denok dakigu 1936ko gudak ez zuela eskola berriaren egitasmo hori aurrera eramaten utzi[974].

1931n bertan, Aratz-Matxinbentako eskolako maisuaren kexu bat agertu zen, auzoko umeak eskolara joaten ez zirelako eta behartu egin behar zirela zioen kexuan. Beasaingo Udalak, Aratz-Matxinbentako auzo-alkatea arazo horren jakinaren gainean jarri zuen[975]. Ez zen hori Aratz-Matxinbentako eskolaren arazo bakarra: 1933an berogailua jartzea eskatu zuten eskolan, ordura arte auzo hartako eskolan, neguan, horren gabezia nabaria izaten zen-eta[976].

Kexuen inguruan kontuan izan behar dugu baita ere, kexu batzuek, garai hartako gizartean emakumea zeinen zokoratua zegoen edo lanpostu batzuetarako zeinen gaizki kontsideratua zegoen erakusten digutela. Adibidez, 1935ean Astigarretako bizilagun batzuek, bertako eskolako irakasle Teresa Rekondo izendatu zutela-eta protesta egin zuten, haren ordez gizonezko bat jartzeko eskatuz[977].

1931ko azaroan, Beasaingo Udaleko langileria nahiko murritza zen eta hori bera ere arazo bihurtu zen, aurreikusitako zazpi udal-lanpostu hutsik baitzeuden. Udal-bilkura bateko aktak erakusten digunez, langilegoa pertsona hauek osatzen zuten[978]: behin-behineko idazkaria, Kandelario Aranburu[979], arielen administratzaile, Joan Aranburu Irizar eta alondegiko arduradun Martin Aranburu. Esan beharra dago, 1933an idazkari-postua, beste bederatzi hautagairen aurka lehiaketan irabazi ostean, Jose Beriztain Zubiagak lortu zuela[980]. Mendeko postuetan, Meltxor Garcia zegoen udaltzainburu, Esteban Peñagarikano udaltzain, Jose Kerexeta kale-garbitzaile eta Eduardo Sanchez Martin mandatugile (gauzainen, hiltegiko abere-hiltzailearen eta errai-garbitzaileen postuak hutsik zeuden). Horrez gain, teknikari gisa, mediku titular eta osasun begirale zegoen Hilario Urteaga, albaitari Pedro Goena, Arkitekto Gregorio Azpiazu, Bandaren zuzendari Pedro Jose Iguain, Arte eta Ofizioetako Eskolako zuzendari Feliziano Arizmendi eta Arte eta Ofizioetako Eskolako Aritmetika eta Geometria irakasle Gaspar Trompeta. Marrazketa-irakaslearen postua hutsik zegoen (1932ko otsailean Arturo Garcia Urtzelaieta izendatu zuten)[981]. Hala ere, abenduaren hiruan hiltegiko abere-hiltzaile Jose Antonio Aduriz izendatu zuten eta errai-garbitzaile Antonia Bares[982]. Bestalde, 1933an jada Ignazio Irastortza gauzain zegoela ere badakigu[983] eta 1934ko abenduan karguan jarraitzen zuen, Frantzisko Donazarrekin batera[984]. Kale-garbitzaileen arloan, 1934ko urtarrilean Agustin Cacho izan zen kontratatua[985], aurretik zegoen Joan Ziarekin batera[986]. 1934ko azaroan, udaleko erizaina (praktikantea) Jose Galparsoro zen[987]. Urte horretan bertan, urtarrilaren 19ko udal-bilkuran, eskualdeko auzoetarako mediku bat kontratatzen laguntzea deliberatu zuen udalak[988]. 1934an, Emilio Muñoz Novillo behin-behineko langileak, udal-langileen artean sartzea eskatu zuen, baina adin txikikoa zelako bere eskaera ez zen onartua izan[989]. Hala ere, Muñoz Novillo bera, 1936ko udaberrian, hilabete batez bere idazkari-laguntzaile postutik apartatua izan zen, kalean "Gora faxismoa!" oihukatzen harrapatu

[973] Beasaingo Udal Artxiboa. 252. karpeta, 21. dokumentua
[974] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[975] Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 43. dokumentua.
[976] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[977] Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 14. dokumentua.
[978] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[979] Herriko EAJko kide garrantzitsua zen.
[980] Beasaingo Udal Artxiboa. 4243. karpeta, 08. dokumentua.
[981] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.
[982] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[983] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.
[984] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[985] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua
[986] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[987] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[988] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[989] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

zutelako[990]. 1935eko irailean, udalak bi basozain-postu eskaini zituen, eta postuak, Nekazarien Sindikatuak proposatuta, Jesus Ibarbia Untzuetak eta Bonifazio Apalategi Zurutuzak hartu zituzten[991]. 1935eko irailean behintzat, suhiltzaileen burua, Frantzisko Otaegi zen[992].

1934ko uztailaren 24an, udalak Foru Aldundiari jakinarazi zion Beasaingo kale-etxe denek ur edangarria bazutela eta Joan Aranburu Irizar zela zerbitzu horren arduraduna. Halaber, argi elektrikoa ere bazegoela jakinarazi zion eta Araxes konpainia hidroelektrikoak hornitua zela. Argiaren zerbitzuaren arduradun Roberto Elcoro ordiziarra zen[993].

Uraren arazo kronikoa ere txitean-pitean agertzen zen Beasainen. 1931ko uztailaren 16an egindako udalaren osoko bilkuran, Antzizar auzoko baserritarrek, auzo horretara ura helaraztea eskatu zuten, Igartzaraino heltzen zen hodia Antzizarreraino luzatuz[994]. Modu berdinean, 1931ko abuztuaren 20an, Garcia Hernandez etorbidean, estolderien hobekuntza bat egin zen, Joan Iguain jaunari enkargatutako lan hori 33.180 pezeta kosta zen[995]; estolderia horren lanen erdia Aldundiak ordain zezan eskatu

Roman Unanue Irulegi medikua, besoetan bere alaba Sara Unanue (lan honi lekukotza eman diona) duela. (Argazkia: Sara Unanue Lobetok utzia)

990 Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
991 Beasaingo Udal Artxiboa. 245. karpeta, 05. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
992 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
993 Beasaingo Udal Artxiboa. 3.186. karpeta, 40. dokumentua.
994 Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
995 Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 02. dokumentua.

or.

zuen Beasaingo Udalak 1933an[996]. 1933an halaber, Serafin Aranak Bidaniko Arkasingo iturrietatik ur gehiago ekartzeko eskaera egitea proposatu zion udalari[997]. Bestalde, 1934ko otsailean, Zazpiturrietako ur-harrera handitzea ere erabaki zen.

Lehendik ere aipatu izan dugu Beasainek XX. mendearen hasieran osasun-arloan egin zuen aurrerapena: lau mediku zeuden udalerrian (horietako hiru herrian, Roman Unanue[998], Hilario Urteaga eta Zesareo Ugarte), CAFek beste bat zuen (Joan Perez) eta baita larrialdietarako berehalako taldea ere (gainera 1932tik aurrera Lan Istripuen Legea indarrean jarri zen), erizainak (Jose Galparsoro eta Damian Erauskin) bi botika-denda zeuden (Antonio Sagarminagarena eta Domingo Jauregirena) eta Arangoiti ospitalea, 1935ean are gehiago handitzea erabaki zena (1935eko abuztuan 40 oheko gaitasuna zuena). Horrez gain, 1935eko apirilean udalak, Astigarreta, Arriaran eta Garin auzoetarako, bertan bizi beharko zuen erizain bat kontratatzea eztabaidatu zuen eta ekainaren 19an erabaki hori hartu zuen (garai hartan zinegotzi zegoen Migel Cerrajeria, auzo horietako erizaina auzo horietan bizi behar izanaren kontra agertu zen)[999].

Hirigintza-arloari dagokionez, 1933ko ekainean arazo larri batekin egin zuen topo Beasainek: uholdeekin (Gipuzkoako hainbat herritan izan ziren uholdeak). Udalak herritarrentzako kexuak agertzeko eta arreta eskaintzeko bulego bat zabaldu zuen eta udal Musika Banda kaltetuentzako diru-bilketa egitera bidali zuen. Kalteak, bai herrian bertan zein Aratz-Matxinbentan izan ziren[1000]. Behin-behineko udaleko idazkari Kandelario Aranbururen arabera, guztira, udalaren eta Bandaren artean 819,70 pezeta bildu ziren kaltetuak laguntzeko. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gestoraren arabera, 750.000 pezetako kalteak izan ziren. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Araba, Bizkai eta Nafarroako Aldundiekin elkarlanean aritzea proposatu zuen[1001]. Uholdeek eragindako kalteei emandako erantzuna, Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatu zuen, hainbat herritan gertatu baitziren kalteak. Beasaingo Udalak, Gipuzkoako udalek antolatu zuten diru-bilketan ere parte hartu zuen beste herriei laguntzeko. Baina beasaindarren eta garaiko euren udalaren elkartasuna ez zen Gipuzkoara mugatu eta, jakin badakigu, 1933ko irailaren 14an, hondoratutako hiru ontzi bermeotarretako familiak laguntzeko diru-bilketan ere parte hartu zuela[1002].

Hirigintzarekin jarraituz, Beasaingo kaleetan ere hobekuntza-lanak egin ziren; esaterako 1932ko urtarrilaren 21eko bilkuran, Kale Nagusiaren erdialdetik Pablo Iglesias kalearen hasiera arteko tartean (gaur egun, gutxi gorabehera Kale Nagusiaren alboko Zubimuzu plazatik, Bideluze plazara arte) espaloiak jartzea adostu zen, eta baita orduko Jose Migel Iturriotz kalea (gaur egungo Andre Mari kalea) zabaltzea ere[1003]. Errepideei dagokienez, jada aipatu dugu langabeek Arriaran eta Garin artean egindako errepidea, eta horrez gain, 1934an beste errepide bat ere egin zen, Salbatoreraino[1004]. Beste alde batetik, ekainean, CAF enpresak, bere langileentzako zituen etxebizitzetako ur-gastuarengatik metro kubikoko 0,15 pezeta ordaintzeko konpromisoa hartu zuen[1005]. Urte horretako martxoan, espaloiak baldosaz hornitzea adostu zen eta esleipena eskuratu zuen eraikuntza-enpresaria Jose Luis Guridi izan zen, gero lehenengo alkate frankista izan zena[1006]. Bestalde, 1932ko azken hilabeteetan, Zabalgunerako 14.400 pezetako aurrekontu berezi bat eskatu zuen Beasaingo Udalak, eta aldi berean, inguru horretako ondasun higiezinak Foru Aldundiari baso-lurren tasak ordaintzetik hiri-lurren tasak ordaintzera pasa zitezela ere eskatu zion. Beraz bazirudien Zabalgune bat egiteko asmoa zuela udalak[1007]. Bestalde, herriaren itxura hobetze aldera, 1934ko ekainaren 6an, udalak, Antselmo Garmendia margolariari, herriko plazak pintatzea agindu zion[1008]. 1935eko apirilean, hilerriaren hormak berritzeko lana eman zitzaion Jose Luis Guridi kontratistaren enpresari. Kontratista horrek, hilabete horretan bertan, Kale Nagusiko espaloietan baldosak jartzeko agindua ere jaso zuen[1009]. Bi lanak 1935ean bertan aurreikusitakoaren arabera egin ziren[1010], hilerriko lana (langabeak erabili zituztena) 1936an bukatu bazen ere[1011]. 1935eko maiatzaren 29an, udalak, Gantzarain, Erauskin eta Muru-erreka auzoetako baserritarren eskaerak onartuz, auzo horietara, Andres Deunaren baselizaraino zihoan bide bat egitea erabaki zuen. Udalak,

[996] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[997] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.
[998] Roman Unanue udalerriko mediku izan aurretik CAFen mediku izan zen. Sara Unanue Lobetori egindako elkarrizketa. Donostian, 2014-10-01ean.
[999] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua
[1000] Beasaingo Udal Artxiboa. 145. karpeta, 38. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua
[1001] Beasaingo Udal Artxiboa. 145. karpeta, 38. dokumentua.
[1002] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1003] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.
[1004] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.
[1005] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1006] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[1007] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[1008] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1009] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[1010] Beasaingo Udal Artxiboa. 061 karpeta, 20. dokumentua.
[1011] Beasaingo Udal Artxiboa. 060 karpeta, 02. dokumentua.

Gipuzkoako Aldundiarekin adostu zuen errepide horren gastuak udalak ordainduko zituela[1012]. 1935eko irailean herriko errepide batzuk berritu egin ziren, bai Aratz-Matxinbentan eta baita Antzizarren ere[1013].

Horrez gain, nahiz eta proiektua onartua ez izan, (RENFErekin adostasunik ez baitzuten lortu), udalak trenbideko langileentzako beste etxe bat egiteko proiektua zuen, 1936ko apirilean eman ziren komunikazio batzuek adierazten dutenez. Hala ere, RENFEk saldu nahi zuen lursaila "handiegia" (beraz, garestiegia) zela-eta proposamen horri uko egin zion Viktor Bernedo alkatea buru zuen udalak. Zinegotziek, lursail hori hartzeko, RENFEk lursailaren salneurria jaistea eskatzen zuten[1014]. 1935eko maiatzaren 16an jakitera eman zenez, artean trenbideko langileak bizi ziren "Karolaren" etxea botatzeko eta etxe berria egiteko aurrekontua 67.786 pezetakoa zen[1015]. Proiektua burutzeko asmoa bazegoen, baina altxamenduak sortu zuen gudak galarazi egin zuen asmo hura gauzatzea.

1934an, Doroteo Aguado eta Pedro Lasa zinegotziek hirigintzari dagokionez hainbat gauza zuzentze aldera mozio bat aurkeztu zuten. Mozio horretan, herriaren zenbait gabezia markatu zituzten, "premiaz konpondu beharrekotzat" jota. Aguadok eta Lasak, hirigintza-plan hori aurkezterakoan, buruan zuten lehen helburua "langabeei lana ematea zen (…), hala gosea eta atsekabea Beasaingo etxe askotan sartzea ekidingo" zela esaten zuten eta interesgarria zen proposamen hori, izan ere, planteatzen zituzten lan batzuk "premiazkotzat" jotzen baitzituzten. Bi zinegotziek proposatutako lanen artean, 1934ko urtarrilaren 11n bildutako udal-bilkurak, ur-andel edo gordailu berri bat egitea, Lazkaorako bidean zubi berria egitea eta Antzizarko trenbideko pasabidea kentzea onartu ziren[1016]. Esan beharra dago, proposamen horretan bertan, frontoi bat egiteko asmoa ere agertu zutela bi zinegotzi sozialistek, baina udalak ez zuen proposamen hori onartu "udala halako lan bat egiteko gai ez zelako" (lehen ere onartu gabe utzia zen halako proposamen bat Serafin Aranak 1934ko maiatzean frontoia egitea proposatu zuenean). Hala ere, frontoiari dagokionez, 1934ko ekainaren bian, Leontzio Ibarbia zinegotzi errepublikanoak lehengoa konpontzea proposatu zuen eta hori onartua izan zen[1017] (hala ere, 1936ko maiatzera arte itxaron behar izan zen konponketa horiek -langabeen bidez-egiten has zitezen[1018]). Urriaren 31n, Antzizarko trenbideko pasabidea kentzeko lanak hasi ziren[1019]. Bestalde, Antzizarko Eztanda errekaren gaineko zubia konpontzea erabaki zuen udalak 1934ko azaroaren 14an, Manuel Perez alkate zela[1020]. Baina, aurretik esan bezala, udal horrek, beste proiektu batzuk ere kontratatu zituen langabeentzat (herri barruko kaleen berrikuntzak eta Arkasingo ur-hartunea handitzea, aurretik proposatu zen Zazpiturrietakoaren ordez), beste proiektu batzuk, adibidez Lazkaoko trenbideko pasabidearena, alde batera utzi zituen. Hala ere, Arkasingo ur-hartunearen lanak, 1935ean geratuta egon ziren, Estatuaren subentzio baten zain[1021]. 1936ko apirilean, Viktor Bernedo buru zuen udalak egindako memoriaren arabera, 1935ean onartu ziren Erauskindik Gantzarain auzorako bidea eta Arriarango plazan sartzeko errepide berria egiteke zeuden. Bernedok, Manuel Perezen alkatetza-garaian albora utzitako Lazkaorako bidean trenbideko pasabidea kentzeko lanari berriz heltzeko asmoa zuen. Beste lanen artean, abere-hiltegiaren ondoan (gaur egun Gipuzkoa plaza dagoen tokian) plaza bat egitea, Oria ibaiaren hormak zabaltzea, Martina Maiz kalea zabaltzea eta eskola publikoetan beste jolastoki bat egitea izan ziren gauzatu zirenak[1022].

Beasaingo garraio-sistemak ere aurrerapenak ezagutu zituen. 1933ko irailean, Seberiano Azpeitia zinegotziak proposatuta, udalak RENFEri Beasainen Gipuzkoako herri guztietara joateko eta handik etortzeko txartelak saltzeko aukera izan zedila eskatu zion[1023]. 1935eko inkesta militar baten arabera, lau autobus-lerro zeuden: batek Mutiloa, Zerain, Segura eta Zegamara eramaten zuen, beste batek Idiazabala, beste batek Lazkaora eta Atauna eta laugarrenak Ormaiztegira[1024].

Beste berrikuntza bat azoka-plazakoa izan zen. Beasaingo merkatua berriro ere abian jarria zen, 1927ko Primo de Riveraren garaiko dekretua (merkatuak asteburuetan ez baziren elkarrengandik 15 km baino gutxiagora egitea debekatzen zuen eta kasu horretan Ordiziakoa zaharragoa zenez eta km gutxiagora zegoenez Beasainen aste barruan ezin zen egin), 1935ean deuseztatu zelako. (1931n jada, 217 beasaindarrek sinatu zuten eskaera batean, merkatu-eguna asteartea izatea eskatzen zen, 1927tik aurrera

[1012]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[1013]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[1014]Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24. dokumentua.
[1015]Beasaingo Udal Artxiboa. 081 karpeta, 24. dokumentua.
[1016]Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138 karpeta, 33. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua
[1017]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1018]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1019]Beasaingo Udal Artxiboa. 063. karpeta, 15. dokumentua.
[1020]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1021]Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.
[1022]Beasaingo Udal Artxiboa. 485. karpeta, 44. dokumentua.
[1023]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1024]Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 66. dokumentua.

or.

Aizkora-apustua 1934 inguruan Loinazko San Martin plazan Loinatzetan. (Argazkia: JZG, 148. or.)

asteburuetara, larunbatetara. pasatu behar izan baitzen)[1025]. 1933ko maiatzaren 4ko udal-bilkuran asteroko merkatua larunbatetan egiten zela esaten da eta Serafin Arana zinegotziak larunbatetik asteartera aldatzea proposatu zuen. Maiatzaren 11n, Nekazarien Sindikatuak eta Merkatarien Elkarteak proposamen bera aurkeztu zuten udal-bilkuran[1026]. Azkenik, 1935eko urriaren 31n atera zen merkatua larunbatetatik asteartetara pasatzeko baimena onartu zen Legea eta Beasaingo udalaren 1935eko abenduaren 11ko erabaki baten arabera, abenduaren 24an egin zen lehen merkatu-eguna asteartez, aldi berri horretan. Baina kalapitak ez ziren horrekin bukatu, ordiziarrak Beasaingo merkatua astearteetan jartzearen kontra baitzeuden; euren ustez Beasainen merkatua egitekotan, asteazkenaren ondorengo egun batean izan behar zuen, Ordiziakoa asteazkenean zelako. 1936ko urtarrilean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak bidalita zentzu horretako idazki bat heldu zen Beasaina hori argitzeko eskatuz[1027]. 1936ko urtarrilaren 20an, Beasaingo Merkatarien Elkarteak, "Beasaingo Udalaren 1935eko abenduaren 11ko erabakia, merkatua astearteetan egitea onartzen zuena babestea (…) eta Beasaingo Udalaren erabakiaren aurka har zitekeen edozein neurriren kontra protesta egitea" erabaki zuen[1028]. *El Diario Vasco*ren arabera, ez zen legezko erabakia izan eta, Beasaingo Udala, erabaki horrekin, "Gobernadore Zibilaren aurkako errebeldian" kokatu zela salatu zuen[1029]. Hala ere, Herri Frontearen garaian, Beasaingo merkatua asteartetan egingo zela baieztatu zen[1030]. Eta azoken eta jaien ildoa jarraituz, Errepublika-garaia izan zen Loinatz jaiak zabaldu zirenekoa, 1933ko maiatzaren 11ko udal-bilkuran, 1931ko urriaren 28ko Errepublikaren Gobernuaren dekretu bati jarraiki, udalak, Loinatzetan bigarren egun bat jaiegun gisa (asteartea; CAFen eta enpresetan betetzeko) ezarri baitzuen[1031].

Elikagaien gaiarekin jarraituz, abuztuko udal-bilkura batean, Beasaingo Udalak, Beasainen prezioak, Ordizian, Azpeitian eta Zumarragan baino garestiagoak zirela egiaztatu zuen. Hala, 1931ko urriaren 8ko udal-bilkuran, Beasaingo haragiaren

[1025]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[1026]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

[1027]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[1028]Beasaingo Udal Artxiboa. 254. karpeta, 19. dokumentua.

[1029]*El Diario Vasco,* 1936-01-28koa.

[1030]GOZALO, J.: "Ekonomia komunikazioak eta merkataritza-jarduera" in LOPEZ GONZALEZ, Migel Anjel (zuz.): *Beasain: udalerri gipuzkoar baten historia,* 114. or.; eta ZURBANO MELERO, Jose Gabriel: *Industrializazio prozesua eta gizarte modernizazioa Beasainen (1860-1936).* (Beasaingo paperak bilduma, 3. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 84-85. or.

[1031]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua

tarifa ofizialak, Tolosakoak erreferentzia hartuta erabaki ziren[1032]. Hala ere, abenduan, Beasainen zegoen abere-falta ikusita, Hornikuntza-batzordeak haragiaren tarifak "probintziako beste herriak erreferentzia gisa hartuta" merkatzea erabaki zuen[1033]. Baina merkatariak ez zeuden noski pozik halako neurriekin. 1933an, Beasaingo prezioak Ordiziakoak edota Tolosakoak baino merkeagoak zirela-eta (udalaren Hornikuntza-batzordeak prezioak jaistearen alde egin zuen), zergak jaisteko eskatu zioten udalari, Beasaingo haragi-merkatua aldi berean lehiakorra eta onuretan eraginkorra izan zedin[1034]. Beasainen, 1933an, Hornikuntza-batzordearen arabera, lehen mailako behikiaren kiloa 4,30 pezetan zegoen (4,10 pezetara merkatzea eskatzen zuten), bigarren mailako behikiaren kiloa 2,40 pezetan (Hornikuntza-batzordeak, 2,10 pezetara merkatzea proposatzen zuen), lehen mailako txahalkiaren kiloa 5 pezetan (Hornikuntza-batzordeak 4,80 pezetara jaistea eskatzen zuen), bigarren mailako txahalkiaren kiloa 4 pezetan (Hornikuntza-batzordeak 3,80 pezetara jaistea eskatzen zuen) eta hirugarren mailako txahalkiaren kiloa 2,80 pezetan (Hornikuntza-batzordeak 2,50 pezetara jaistea eskatzen zuen)[1035]. Beraz, prezio horiek, oro har, Gipuzkoako prezioen inguruan zeuden, Pedro Barrusoren kalkuluak aintzat hartuz, 1933an, behi-okelaren kiloak (mailak ezberdindu gabe), 3,6 pezeta balio zituen batez beste, eta ardiarenak 3 pezeta[1036].

Beasainen, dirudienez, haragi-saltzaileen eta udalaren arteko lehia luzea izan zen II. Errepublika garaian, saltzaileak prezioak igotzearen alde eta udala prezioak merkatzearen alde ibili ziren: 1933ko abuztuan Leontzio Ibarbia zinegotziak berriz ere prezioak merkatzea eskatu zuen[1037], eta hain zuzen ere, 1934ko ekainean, txahalkiaren haragi-kiloaren batez besteko prezioa 3,70 pezetatik 3,55 pezetara jaitsi zuen udalak[1038]. Udalaren eta merkatarien arteko gudaren beste urrats bat izan zen hori, izan ere, 1934an Merkatarien Elkarteak, Gobernu Zibilean helegitea jarri baitzuen. Gobernadoreak, 1934ko maiatzean, merkatariei arrazoi eman zien eta udalak proposatutako prezio-merkatzea bertan behera gelditu zen[1039]. Are gehiago 1934ko ekainean, Merkatarien Elkarteak, igoera berri bat proposatu zion Beasaingo Udalari[1040], uztailean Gobernadoreari berari ere igoera hori eskatuz. Eskaera horretan, azpizuna 6,2 pezetan jartzeaz gain, lehen mailako haragia 5,4 pezetara eta bigarrenekoa 4,2 pezetara igotzea eskatzen zuten, hirugarren mailako haragiaren prezioa bere hartan mantenduz. Ez dakigu Gobernadorearen erantzuna zein izan zen, ez baitugu eskaera horri buruzko dokumenturik topatu (Gobernadoreak handik gutxira udala aldarazi zuen, 1934ko udako udalen mugimendu autonomista zela-eta)[1041].

Ikusten dugun bezala, eta aurreko orrialdeetan kontatu dugun moduan, langile baten soldata eguneko 9 eta 12 pezetaren artean kokatzen zenez, haragia jenero garestia zen. Beste jeneroek Beasaingo dendetan zenbat balio zuten jakiteko adina informaziorik ez dugu, baina bai Gipuzkoako batez besteko prezioen estatistika, Pedro Barrusoren lanean agertzen dena. Barrusoren informazioa aintzat hartuz, ogiak kiloko 0,65 pezeta balio zuen gutxi gorabehera Errepublikak iraun zuen denboraldian, baina 1936ko ekainean 0,55 pezetara jaitsi zen. Langileen oinarrizko beste elikagai batzuk, txitxirioak eta arroza ziren eta biek ere izan zituzten gorabeherak prezioetan. Txitxirioak kiloko 1,2 eta 1,7 pezeten artean mugitu ziren. Arrozak, aldiz, 1931n kiloak 1,1 pezeta balio zuen, baina pixkanaka merkatzen hasi zen eta 1936an 0,8 pezeta balio zuen. Arrautzen prezioa, ordea, nahiko garestia eta gorabeheratsua izan zen, 1931n dozenak 4,5 pezeta balio zuen, eta hala iraun zuen gehienbat, 3 eta 4 pezeta artean. Aipatu beharra dago baita ere, haragiaren prezioa, kiloko 3 eta 3,5 pezeta artean ibili zela, beraz Beasaingo prezioaren antzekoa izan zuela, hala ere, 1936ko urte-hasieran, haragiaren prezioak jaitsiera izan zuen (kiloko batez besteko 2,2 pezetarekin hondoa jo zuen). 1936ko ekainean, berriro batez besteko kiloko 4 pezetaraino igo zen. Pedro Barrusok kalkulatzen duenaren arabera, gipuzkoar familia baten oinarrizko erosketa-saskirako aurrekontua 1931n 23,7 pezetakoa zen, 1933ko irailean 20,5 pezetakoa eta 1936ko martxoan 19 pezetakoa. Beraz, datu horietatik bi ondorio atera daitezke: bata, langileen soldataren zati handi bat (soldaten arloan esan dugu, soldatak, gutxi-gora-behera, 9 eta 12 pezeten artekoak zirela, mailen arabera) elikatzeko behar zutela, eta bestea, Errepublika-garaian izan zen jenero-merkatzeak, soldaten igoera batzuekin batera (langile-mobilizazioek eta aldeko mekanismoak, adibidez Artekaritza Mistoak, erabiltzeak ekarritakoak adibidez), lana mantendu zuten langileen (langabezia

[1032]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[1033]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[1034]Beasaingo Udal Artxiboa. 065. karpeta, 75. dokumentua.

[1035]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

[1036]BARRUSO BARES, Pedro: El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936). Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 67. or.

[1037]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.

[1038]Beasaingo Udal Artxiboa. 255. karpeta, 27. dokumentua.

[1039]Beasaingo Udal Artxiboa. 3.762. karpeta, 59. dokumentua.

[1040]Beasaingo Udal Artxiboa. 255. karpeta, 27. dokumentua.

[1041]Beasaingo Udal Artxiboa. 255. karpeta, 27. dokumentua.

or.

handia zela ere ikusi baitugu) egoera zerbait hobetzea ekarri zuen[1042]. Izan ere, Isabel Peñagarikano Dorrontsorok kontatu digun bezala, "garai haietan langileek gutxi irabazten zuten (…) gure etxean baratzak aurrera ateratzen laguntzen zigun"[1043].

Borroka horrek beste fronte bat ere izan zuen, jeneroen gaineko zergarena. Izan ere, 1934ko azaroan, udalak, jeneroen gaineko zergak igotzea proposatu zuen, ardoaren zerga 13 zentimotik 15 zentimora igotzea eskatzen zuten, eta ardo onaren gaineko zerga 16 zentimotik 18 zentimora; behikiarena 8 zentimotik 10 zentimotara, txerrikiarena 15 zentimotik 18 zentimora, eta hestebete eta urdaiazpikoena, 20 zentimotik 25 zentimora. Zinegotzi batek, Bizente Telleriak, uraren prezioa, 20 zentimotik 25 zentimora igotzea proposatu zuen eta erabilpen industrialerako uraren prezioa 10 zentimotik 20 zentimora, nahiz eta azkenean igoera hori ez zen onartu. Manuel Perezek zuzendu zuen udal hark, merkatariak konpentsatzeko proposamen bat egin zuen, haragiaren esportaziorako 4 zentimoko zerga eta 100 litroko 20 zentimoko zerga kentzea[1044].

Haragiaren auziarekin jarraituz, 1931n udal-hiltegia handitzeko berrikuntza bat egitea onartu zuen udalak (udal-hiltegia aurreko urtean, 1930ean, inauguratu zen); berrikuntza horren lana Jose Luis Guridiri eman zioten[1045]. Hala ere, hiltegiaren berrikuntzak eta hiltegian erabili beharreko metodoek eta higiene-sistemak eztabaida sutsuak piztu zituzten (baita alderdikideen artean ere); horren adibide dugu 1932ko maiatzean Bernedo alkateordeak hiltegiaren batzordetik dimititzea "hiltegiko araudia legez kanpokotzat" jotzen zuelako[1046].

Horrez gain, Azurmendi Dorrontsororen arabera, 1936rako Beasainen 6 janari-denda zeuden[1047]. 1935eko abuztuan Beasaingo Udalak emandako estatistika baten arabera, ordea, zazpi haragi, hiru okindegi, hiru egur-biltegi, lau ikatz-biltegi eta 17 oinarrizko elikagaien biltegi zeuden herrian[1048]. Bestalde, Iturriotz kalean, liburu-denda bat ere izan zen, Onesimo-Matute familiak zuena, batez ere Abelina Matute zen negozio horren buru (haren jabeei "periodistak" deitzen zitzaien ezizenez eta familia horretako seme bat, Ignazio Onesimo Matute, hil egin zuten tropa matxinatuek Beasainen sartzean; Julian Onesimo, berriz, familiako aita, Abelina Matuteren senarra, kartzelan hil zen)[1049]. Horiez gain, bi kontsumo-kooperatiba zeuden Beasainen,



Beasaingo abere-hiltegia, 1930ean inauguratua. Gipuzkoako hiltegi aurreratuenetakotzat jotzen zen, baina Errepublika garaian bertako araudia eztabaida-iturri izan zen. (Argazkia: JZG, 32. or.)

[1042]BARRUSO BARES, Pedro: *El Movimiento Obrero en Gipuzkoa durante la II República. Organizaciones obreras y dinámica sindical (1931-1936).* Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoa, 1996, 60-67. or.

[1043]Frantziska Peñagarikano Dorrontsorori eta Isabel Peñagarikano Dorrontsorori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-09an.

[1044]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[1045]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[1046]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.

[1047]AZURMENDI DORRONSORO, Jose Manuel: *Beasain. Historia y desarrollo hasta nuestros días.* Donostiako Aurrezki Kutxa. Donostia, 1970.

[1048]Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 66. dokumentua.

[1049]Ramon Perez Onesimori egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-30ean. Gainera, lehen aipatutako janari-dendetako bat, Abelina Matute horrena zen.

bat CAFeko Langileen Ekonomatoa eta bestea Herri Elkartearen Kooperatiba. Bestalde, 1935 aldera, Errepublikaren plazan (gaurko Bideluze plaza), abereentzako ur-aska bat egin zen[1050]. Baina, haragiaz eta merkatuaz gain, bazegoen beasaindarrak, batez ere merkatariak, kezkatzen zituen beste ekonomia-aferarik ere. Badakigu jakin, 1932ko otsailean, Migel Irizar izeneko okindegi-jabeak irinaren gaineko zerga berriaren kontrako protesta egin zuen[1051]. Bestalde Viktor Bernedo alkateordeak, 1932ko otsailean bertan, okin ezberdinei jarritako zerga-kopuruak ezberdinak zirela-eta ohartarazi zuen udala, denei zerga mota berdina jartzea eskatuz[1052]. Ogiaren pisuarekin iruzurra egitea ere garai hartan normal samarra zela ematen du eta 1933ko abenduko udal-bilkuraren aktak bi okini jarritako isunen berri ematen digu[1053]. Beste alde batetik, tabernen negozioa ere goraka joan zen Beasainen eta kontuan izan behar dugu garai hartan baserri batzuek sagardoa ekoizten zutela eta sagardotegi gisa ere jarduten zutela. Horietako bat, Antzizarberri baserria zen, Aitor Garmendia Goitia jaiotako baserria[1054].

Tasak zirela-eta, elikagaien sektorea ez zen udalean eztabaidan ziharduen bakarra. Finken Jabeen Elkarte Askeak ere, Jose Luis Guridi buru zela, jabetza-zergaren gaineko udal-zergaren %2ko igoera ez ezartzea eskatu zuen. Irailaren 14ko udal--bilkuran, udalak, Pedro Lasa zinegotziaren proposamenez, Jabeen Elkartearen eskaerari ezetza ematea erabaki zuen[1055]. 1934ko azaroaren 21ean, Manuel Perezen udal-taldeak, Ogasun-batzordearen txosten bat aintzat hartuta, uraren, haragiaren eta ardoaren gaineko udal-zergak igotzea proposatu zuen[1056].

Ordena publikoko indarrei dagokienez, 1934ko azaroaren 14an, Manuel Perezek zuzendutako udalak, Serafin Aranak proposatuta, Guardia Zibilaren zuzkidura handitzea eskatu zuen, baina aurretik handitze hori CAFekin adostu behar zela esan zuten[1057]. Izan ere, dirudienez, ideia hori Gipuzkoako Ekoizleen Ligaren ideia zen, Gipuzkoako toki "estrategikoetan", hots, langile-mobilizazio handienak izan zitezkeen tokietan, Guardia Zibilaren indarrak ugaltzea aurreikusi baitzuten enpresariek. 1934ko azaroaren 21ean, Beasainek, Udalaren eta Gobernadorearen arteko akordioaren bidez, 20 agenteko zuzkidura behar zuela adostu zutela jakinarazi zuen udalak[1058]. Kontuan izan behar da halaber, Guardia Zibilak 1934ko abuztuan aukeratutako alkate Jazinto Urteaga atxilotu zuela, beraz erabakia eztabaidagarria izan zitekeen. Hala ere, hor, bazegoen nolabaiteko interes pertsonalik ere, izan ere, hurrengo hilaren 13an, Guardia Zibilaren kuartel berria ezartzeko eraikina eskaini zuen jabea, Joakin Arana Gaiztarro, altzari-fabrika baten jabea baitzen, hain zuzen ere zuzkidura handitzea proposatu zuen Serafin Aranaren anaia. Joakin Aranak eskaini zuen eraikinak 1.400 metro karratu zituen eta Pablo Iglesias kalean zegoen, errepidearen ondoan, ordura arte Guardia Zibilak zuen kuartelaren ondoan[1059]. 1935ean, Leonardo Zuntzunegi eta Aseginolatzak ere bere familiako lursail bat eskaini zuen[1060]. Ideia horiek bertan behera gelditu ziren, Gipuzkoako Guardia Zibilaren buruzagitzak herri industrialetan zuzkidurak handitzea ez baizik eta herri txikiagoetan kuartel berriak irekitzea erabaki zuenean[1061]. Hala ere, kuartel berria egitea eskatu zion Gipuzkoako buruak udalari: 1935eko azaroan Guardia Zibilaren buruzagitzak, Beasaingo kuartelak ez zituela gutxieneko baldintzak betetzen eta baldintza horiek hobetzen ez baziren Beasaindik beste toki batera eramango zituztela adierazi zion udalari. Udalak, kuartela handitzeaz hitz egiteko eragileen batzar bat deitzea premiazko ikusi zuen. Gogoratu egin behar dugu garai hartan eskuineko indarra zegoela boterean udalean, eta haiek, jabedunen eta indar kontserbadoreen ordezkariak izaki, Guardia Zibilaren zuzkidura handitzeko interes handia zuten[1062]. Proiektu horiek, 1936ko otsailean ezkerreko udala eta Viktor Bernedo alkate zela indarrean jartzerakoan bertan behera gelditu ziren. Ordena publikoaren aferarekin jarraituz, 1936ko apirilean, ordurako alkateorde zen Seberiano Azpeitiak, udaltzain-postu berri bat sortzea proposatu zuen eta udal-bilkurak baietza eman zuen[1063]. Maiatzaren 2an, postu hori Segundo Lozares Escolarrentzat izan zela jakinarazi zuen udal-bilkurak[1064]. Horrez gain, maiatzaren 16an Ezkiaga auzoko biztanleek beste udaltzain postu bat sortzea eskatu zuten, auzoa hobeto kontrolatzeko, bana udalak erantzun zuenez, une hartan ez zegoen eskaera hori betetzeko adina diru[1065].

[1050] ZUFIAURRE GOYA, Jose: "Alcaldes de Beasain" in *Beasain Jaietan* urteko aldizkaria, 2001 (17-21.or.).
[1051] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.
[1052] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 01. dokumentua.
[1053] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.
[1054] Aitor Garmendia Goitiari egindako elkarrizketa. Beasainen, 2014-07-16an.
[1055] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1056] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1057] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1058] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1059] Beasaingo Udal Artxiboa. 545. karpeta, 37. dokumentua.
[1060] Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua. Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua."
[1061] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.
[1062] Beasaingo Udal Artxiboa. 988. karpeta, 01. dokumentua.
[1063] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1064] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1065] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

or.

Beste zerbitzu batzuei dagokienez, 1933ko apirilean, Ordiziako telefono-zerbitzuaren funtzionamendu kaskarraz kexatu zitzaion udala Gipuzkoako Foru Aldundiari[1066]. Izan ere, Gobernuak, 1932an Beasaingo telegrafo-estazioa itxi zuenetik, zerbitzu hori gabe zeuden beasaindarrak eta Ordiziako zentralaren mende aurkitzen ziren. Urte horretako maiatzean, udalak, Beasainen azpizentral bat jartzea eskatu zuen[1067]. Ekainaren batean, ordezkari batzuk Madrilera joan zitezela erabaki zuen udalak, Madrilen diputatu sozialista zen Endrike de Francisco tolosarrarekin gai hori kudeatzera. Antza denez, de Frantziskok hainbat diputatu konbentzitu zituen Telefonoen Konpainiari arazo hori konpontzea eskatzen zuen gutun bat bidaltzeko. Azkenean ekainaren 28ko bilkuran eman zen dema honen askaera: Beasaingo Udalaren eskaerak partzialki onartuak izan ziren eta Beasaini, azpizentral bat ez, baina lehen mailako estazio bat izateko eskubidea aitortu zitzaion[1068]. 1934ko urtarrilean Beasaingo estazioa berriro ireki zen, hamabi orduz, baina udalak beste toki batean jartzea eskatu zuen[1069].

Laburbiltzeko, 1935ean inkesta militar batek udalerriak zituen zerbitzuen berri ematea eskatu zion udal bakoitzari eta Beasaingoak 1935eko abuztuaren 20an emandako erantzunean, herrian zeuden zerbitzuen laburpena egin zuen. Erantzun haren arabera, Beasainen lau autobus linea (Segura-Zegama-Zerain-Mutiloa, Idiazabal, Lazkano-Ataun eta Ormaiztegi), posta-zerbitzua, telefono- eta telegrafo-zerbitzua, Araxes enpresari kontratatutako argindarraren zerbitzua, udalaren ur-zerbitzua (lau iturri, bi aska eta arropa garbitzeko toki bat barne zirela), 40 abererentzako tokia zuen abere-hiltegia, hiru okindegi, zazpi harategi, lau ikatz-biltegi, hiru egur-biltegi, 17 elikagai-biltegi, bi espartin-denda, lau zapata-denda, lau automobil-tailer, zortzi aroztegi, bi botika, albaitari bat (Pedro Goena), eta 40 ohe zituen Arangoiti ospitalea aurkitzen ditugu[1070]. Galdeketa horretan agertu ez arren, kontuan izan behar dugu bi elkarte kooperatibo zeudela garai hartan Beasainen.

Beasaingo udal-aurrekontuen kopuruak, pixkanaka aldatzen joan ziren. 1932ko aurrekontua, 1931ko urriaren 12an proposatu eta 1931ko abenduaren 3an onartua, 209.842,90 pezetakoa izan zen[1071]. 1934ko aurrekontua, garai hartako txikiena, 197.481,15 pezetakoa eta 1935ekoa, 1934ko abenduaren 14an onartua, 212.190,50 pezetakoa[1072]. 1936. urterako aurrekontua, 1935eko abenduaren 21ean onartu zen, eta 219.649,50 pezetakoa izan zen[1073]. Ikus gastuen eta sarreren taulak:

AURREKONTUAK (Pezetatan)

GASTUAK:

KONTUSAILAK	1932	1933	1934	1935	1936
Orotariko beharrak:	49389,12		51.227,55	56.305,00	62.846,60
Udal ordezkaritza:	2.500,00		2.500,00	3.000,00	3.000,00
Zaintza eta segurtasuna:	14.790,00		11.866,80	12.378,40	12.840,40
Udaltzaingoa:	17.120,00		15.672,80	16.696,40	15.410,40
Diru-bilketa:	4.976,00		5.519,52	6.602,76	6.381,76
Bulegoko pertsonala eta materiala:	18.570,00		19.020,00	19.820,00	17.920.00
Osasuna eta higienea:	13.968,00		13.743,18	13.743,18	14.603,50
Ongintza	6.900,00		8.496,00	13.025,00	11.127,50
Gizarte-asistentzia:	21.700,00		20.850,00	20.850,00	21.000,00
Hezkuntza:	33.462,78		24.349,96	24.258,96	29.526,10
Herri-lanak:	11.500,00		10.015,00	11.015,00	9.815,00
Mendiko lanak:	200,00		200,00	200,00	200,00
Interes komunak:	9.767,00		6.600,00	7.100,00	7.100,00
Aurreikusi gabeak	5.000,00		7.420,34	7.784,98	7.878,24
GUZTIRA	**209.842,90**		**197.481,15**	**212.190,50**	**219.469,50**

[1066]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1067]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1068]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua.
[1069]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1070]Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 66. dokumentua.
[1071]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.
[1072]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1073]Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 14. dokumentua.

SARRERAK

KONTUSAILAK	1932	1933	1934	1935	1936
Subentzioak:	1.000,00		2.000,00	2.000,00	3.250,00
Udal-zerbitzuak:	42.000,00		39.918,65	40.000,00	38.000,00
Behin behinekoak eta ez-ohikoak	4.060,00		20.160,00	22.660,00	22.260,00
Ariel ez-fiskalak:	170,00		100,00	200,00	200,00
Tasak:	31.350,00		19.200,00	15.003,00	16.512,00
Kuotak, errekarguak eta Estatu-zergetakoak:	300,00		16.430,00	16.730,00	20.230,00
Udal-zergak:	130.942,90		98.475,00	115.400,00	121.000,00
Mankomunitatea:	20,00		35,00	35,00	35,00
Errentak			162,50	162,50	162,50
GUZTIRA	209.842,90		197.481,15	212.190,50	219.469,50
Herri-lanak:	11.500,00		10.015,00	11.015,00	9.815,00
Mendiko lanak:	200,00		200,00	200,00	200,00
Interes komunak:	9.767,00		6.600,00	7.100,00	7.100,00
Aurreikusi gabeak	5.000,00		7.420,34	7.784,98	7.878,24
GUZTIRA	**209.842,90**		**197.481,15**	**212.190,50**	**219.469,50**

1933ko aurrekontuaren xehetasunik ez dugu topatu baina datu batzuen arabera, Beasaingo udalaren ondasun higiezinen ondareak 1.287.055 pezeta balio zuen, eta 555.467,55 pezetako pasiboa zuen[1074]. 1934an berriz, aktiboa 1.388.200 pezetakoa zen eta pasiboa 748.000 pezetakoa[1075]. Hala ere, bi zinegotzik 1934ko urtarrilaren 8an esan zuten bezala, "Gipuzkoako beste herriekin konparatuz", Beasaingo finantzak "egoera on samarrean" zeuden[1076]. Beasaingo udalak zorrak ere izan zituen, adibidez, 1932ko maiatzaren 4an, Gipuzkoako Aurrezki Kutxari 175.000 pezetako kreditua eskatu zion. Zor hori, 1934ko ekainaren 16an likidatu zen, udal-bilkurak jakinarazi zuenaren arabera[1077]. Hala ere, 1935ean, hainbat herri-lan egiteko 100.000 pezetako beste kreditu bat eskatu zion Gipuzkoako Aurrezki Kutxari (urteko %5,5ko interesekin). 1935eko abenduan, Beasaingo Udalaren zor osoa 844.500 pezetakoa zela jakinarazi zuen udalak eta zor horren barruan azkeneko kreditu hori sartuta zegoela[1078]. Baina zorrak are handiagoa izateko arriskua zuen, Garingo bidea ezin ordainduta zebilelako kontratistak udala salatzeko mehatxua egin baitzuen 1935eko abenduan[1079]. Urteko azken eguneko osoko bilkuran, udalaren zor publikoaren baleen hartzekodunei, interesak %5etik %4ra jaistea erabaki zuen[1080]. Udalaren defizita, Manuel Perez alkatearen eta bere mendeko zinegotzien arabera, batez ere Arangoiti ospitaleak zuen artatze-karga handitu zelako gertatu zen[1081]. 1936ko ekainean, Viktor Bernedoren udalak esan zuen Salbatoretik Garinerako bide horren gain-kostua (kontratistaren eskaerak asetzeko) 33.200 pezetakoa zela, eta Aldundiak ordaintzeko (eta urte batzuen buruan udalak pixkanaka itzultzeko) eskaera bete ez zenez, Gipuzkoako Aurrezki Kutxari beste 100.000 pezetako kreditu bat eskatu behar izan zitzaiola[1082].

Horrek ez du esan nahi Beasainen zailtasunik ez zegoenik. Hala ere, krisia zela-eta, asko jaitsi zen Beasaingo Udal-aurrekontua (1933an 203.705 pezeta bildu zituen, eta 1934ko lehen bost hilabeteetan 53.838 pezeta soilik), eta bi urtetan, 1933an eta 1935ean, bere beharrei eta erronkei aurre egiteko aparteko aurrekontua erabili behar izan zuen. 1933an, 1932an 125.649 pezeta soilik bildu zirela kontuan izanda eta egiteko obra asko zeudela ikusita (Eskola Bateratuak, Arriarango eskola, Arriaran eta Garin arteko errepidea, langabeei euren jatorriko herrietara joateko txartela ordaintzeko ezusteko gastua, etab.), aparteko aurrekontua

[1074] Beasaingo Udal Artxiboa. A415 karpeta, 05. dokumentua.
[1075] Beasaingo Udal Artxiboa. A145 karpeta, 06. dokumentua.
[1076] Beasaingo Udal Artxiboa. 2.138. karpeta, 33. dokumentua.
[1077] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1078] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua.
[1079] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.
[1080] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[1081] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.
[1082] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua. Bernedok zuzenduriko Udalak gainera esan zuen, kreditu hori lortu ezean, langabeentzat jada kontratatuak ziren lanak arriskuan egongo liratekeela.

or.

erabili zuen udalak[1083]. 1935eko aparteko aurrekontua eskatzeko dokumentuan, Beasaingo Udalak Arangoitiko ongintza-etxean beste solairu bat egitea, Arkasingo iturburutik ur-ekarketa txiki bat Zazpiturrietakoari gehitzea, hilerriaren horma berritzea, pabilioiak egitea, Kale Nagusian espaloiak egitea, kale batzuetan berrikuntzak egitea (Goierri kalea, Kale Nagusia eta Fermin Galan kalea), Arriaranen errepide bat egitea (ikusi dugun bezala langabeek egin zuten), Bernedo-eneko fabrikara ur-ekarketa egitea eta baita Garinen Arriarangoa bezalako beste eskola bat egitea zeuden[1084]. Guztira, 115.000 pezetaren kostua izan zuten lan horiek. Eskaera horretan, Arangoiti ospitalean beste solairu bat egiteko, udalak, Balantzategi jaunaren aldetik 15.000 pezetako dohaintza jaso zuela esaten da, baina hala ere, Gipuzkoako Aurrezki Kutxari 100.000 pezetako kreditua eskatu zion, urteko %5,5eko interesarekin, bi urtean itzultzeko epemugarekin[1085]. Hala ere, dirudienez, kreditu hori karga handiegia zen nonbait Beasaingo Udal-ogasunarentzat eta 1935eko otsailean, Beasaingo Udalak Madrileko politikari bati eskutitz bat bidali zion lan horiek Estatuak subentzionatzea lortzeko bitartekaritza-lana egin zezan eskatuz[1086]. Arangoiti ospitalean solairu berria egiteko lanei zegokienez, 1935eko apirilaren hiruko udal-bilkuran Joan Urbinari enkargatu zitzaizkion, 14.500 pezetako aurrekontuarekin[1087], eta 1935. urte-bukaerarako lana bukatuta zegoen[1088]. Hori izan zen beste lan batzuk, Arkasingo ur-hartunea adibidez, edo Goierri kalea handitzea, ez egiteko arrazoia[1089].

Aipatu beharra dago halaber, 1931ko azaroaren 8ko osoko bilkuran, udaleko langileei, antzinatasun-saria bosturteka ordaintzeko proposamen bat onartu zuela udalak, Pedro Lasa zinegotziaren proposamena kontuan hartuta[1090]. 1933an udal-langile batzuek, aurrekontuaren egoera kontuan hartuta, igoera hori bosturtekoaren bukaeran kobratu ordez, urtero %20a kobratzea eskatu zuten. Hala ere, Pedro Lasa zinegotziak esan zuen hori beste igoera mota bat zela eta ezin zitekeela aplikatu sari moduan ez bazen. Azkenean, hala onartu zen igoera hori eta sari-kontzeptuan aplikatzea erabaki zen[1091].

Bestalde, herri-elkarteek ere euren bidea egin zuten. Horietako bat, lehen kapituluan azaldutako *Casino Recreativo de Beasain FC* (Beasaingo Futbol-taldearen Joko-kasinoa) izan zen. Kasino horrek, aisialdia eta kirola lantzen zituen, futbol-taldea izateaz gain, Loinatz jaiak zirela-eta, txirrindularitza-proba antolatzen zuen urtero, sariak udalaren laguntzarekin emanez[1092]. 1933an, adibidez, tiro-lehiaketa bat ere antolatu zuten[1093]. Horrez gain, jaialdiak ere antolatzen zituen, adibidez, 1931ko uztailean eta 1932ko otsailean bandarekin dantzaldi bat antolatu zuen[1094], eta beste bi 1932ko uztailean, zein 1933an[1095], 1934an[1096], 1935ean[1097] eta 1936an[1098]. 1935eko apirilaren 21ean pilota-txapelketa bat ere antolatu zuen eta baita danborrada ere. Azken hori udalaren enkarguz Loinatz jaietarako, ez elkartearen jai pribatu gisa[1099]. 1936an ere pilota-txapelketa errepikatu egin zuten[1100]. 1935a urte handia izan zen Joko-kasinoarentzat, bere sorreraren 30. urteurrena ospatu baitzuen, Banda eta guzti, jai handi bat antolatuz[1101]. Beasaingo Futbol-taldearen Joko-kasinoko lehendakaria, 1936an, Joan Aranburu Irizar udal-langilea zen[1102]. Bestetik, *Sociedad Recreativa Ferroviariak* (Trenbideko Joko Elkarteak) ere bere jaiak antolatzen zituen (Trenbideko

[1083] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa), JDIT 3278-1 dokumentu-sorta.

[1084] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3270-a dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 254. karpeta, 19. dokumentua. Garinen bazegoen eskola, baina zaharkitua eta irakaslerik gabe, apaizaren ardurapean.

[1085] Gipuzkoako Artxibo Orokorra (Tolosa). JDIT 3270-a dokumentu-sorta; eta Beasaingo Udal Artxiboa. A145 karpeta, 06. dokumentua.

[1086] Beasaingo Udal Artxiboa. 060. karpeta, 02. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 062. karpeta, 49. dokumentua.

[1087] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15, dokumentua.

[1088] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

[1089] Beasaingo Udal Artxiboa. 061. karpeta, 20. dokumentua.

[1090] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 03. dokumentua.

[1091] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 31. dokumentua.

[1092] Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 23. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 28. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 05. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta 08. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 01. dokumentua. Adibidez bat jartzearren, 1934ko edizioko sariak, beste batzuen artean, lehenari 300 pezeta, bigarrenari 200 pezeta eta hirugarrenari 100 pezeta izan ziren. 1935ean sariak apaldu egin ziren, lehenari 150 pezeta, bigarrenari 100 eta hirugarrenari 75 pezeta eman baitzizkieten.

[1093] Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 28. dokumentua.

[1094] Beasaingo Udal Artxiboa. 0142. karpeta, 01. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 0151. karpeta, 24. dokumentua.

[1095] Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 05. dokumentua

[1096] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[1097] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[1098] Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

[1099] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 08. dokumentua

[1100] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 01. dokumentua.

[1101] Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.

[1102] Beasaingo Udal Artxiboa. F012 karpeta, 01. dokumentua. 1936ko ekaineko datua da hau.

Beasaingo Joko Kasinoko antzerki-taldea. (Argazkia: JZG, 120. or.)

Joko Elkartearen lehendakaria, 1933an behintzat, Balentin Toribio Toranzo zen), adibidez 1932an[1103], 1934an[1104] edo 1936an[1105]. Azken talde horrek, uztail bakoitzean, elkartearen festak antolatzen zituen, banda presente zela afari-dantzaldiak eginez[1106]. Joko-kasinoarentzat izan zen moduan, Trenbideko Joko Elkartearentzat ere 1935a urteurren urtea izan zen, hamabost urte bete zituen-eta.[1107] Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagak anekdota bitxi bat kontatu digu: "Errepublikaren garaian, Trenbideko Joko Elkartearen eta Batzokiaren artean lehia handia zegoen, gazteak nork erakarriko. Gehienak Trenbideko J. E.-ra joaten ziren, han dantzaldiak liberalagoak ziren-eta. Gure ama ere hara joaten zen, eta atzetik aitona, ea ama hara joan ote zen ikustera" (kontuan izan behar da Beasainen Usabiagatarrak familia jeltzalea zirela, Pedro Usabiaga (Pedro Maria Ibaibarriagaren aitona) Beasaingo EAJ sortu zutenetakoa zen)[1108].

Errepublikaren garaian, elkarte berri bat ere sortu zen: Aitz-zorrotz Ehiz eta Arrantza Elkartea eta Kale Nagusian zegoen Agirreren tabernan kokatu zen tabernako jabe zen Joan Agirre bera ohorezko lehendakari izendatuta[1109]. Elkarte, horrek, ehizaz gain, aisialdi-ekitaldiak ere egiten zituen; adibide bat jartzearren, 1935eko ekainean, tiro-lehiaketa bat antolatu zuen, erreka-garbiketarako dirua biltzeko asmoz. Lehiaketa horrek udalarekin gora-beherak izan zituen. Udalak, elkarteak eskatutako diru-laguntza ez zuen eman nahi izan, laguntza hura elkartea bera (eta ez gizarte-helburuak) zeharka laguntzeko modua izan zitekeelako[1110]. Hala ere, 1936an, jada tiro-lehiaketa hori antolatu ahal izan zuen, udalaren aldaketarekin, diru-laguntzen irizpidea ere aldatu egin zen-eta[1111]. Elkarte horiekin batera, *Usurbe Elkartea* zegoen, lehenengo kapituluan aipatua dugunez Beasaingo zaharrena zena, eta gutxi gorabehera klase ertaineko edo goiko mailako pertsonak biltzen ziren bertan.

[1103]Beasaingo Udal Artxiboa. A010 karpeta, 04. dokumentua.
[1104]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 24. dokumentua.
[1105]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1106]Beasaingo Udal Artxiboa. 121. karpeta, 27. dokumentua.
[1107]Beasaingo Udal Artxiboa. 113. karpeta, 06. dokumentua.
[1108]Arantza Ibaibarriaga Usabiagari eta Pedro Maria Ibaibarriaga Usabiagari egindako elkarrizketa. Donostian, 2015-11-15ean.
[1109]ASKOREN ARTEAN: *Beasaingo elkarte herrikoiak*. (Beasaingo Paperak bilduma, 1. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1992, 29. or.
[1110]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 15. dokumentua.
[1111]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

or.

Trenbideko Aisialdi Elkartearen herri-bazkaria, 1930eko uztailaren 7an. (Argazkia: JZG, 122. or.)

Bazeuden baita ere jatorriaren arabera eratutako elkarteak, adibidez, 1934ko abuztuan *Colonia Alavesa* deitutako elkartea sortu zen, Beasaingo arabar jatorrikoak biltzen zituena[1112].

Aisialdiaren atala bukatzeko, gogorarazi behar dugu Errepublika garaian zinema bat eraiki zela Beasainen. 1934ko urtarrilean, Kale Nagusiaren eta Fermin Galan kaleen artean, udalak Espainiako Iparraldeko Trenbideetako Konpainiari (*Compañía de Ferrocarriles del Norte de España*) lursail bat saltzea eskatu zion, zinema eraikitzeko, baina Konpainia horrek ezetz erantzun zion, "trenbidearekiko hurbilegi zegoenez, bertan agian pabilioi berri bat jar zitekeelako"[1113]. Ezezko horrek asko mindu zuen Beasaingo Udala, izan ere, idatzi bat bidali zion Gobernadoreari, hark Herri-lanen Ministerioaren aurrean bitartekaritza egin zezan, lursail hori uzte aldera[1114]. 1934ko maiatzaren 26an Serafin Aranak, udal-bilkuran zinema eraikitzeko proposamena egin zuen, jada eraikita zegoen areto batean eta kostuak, zinema egiteko 150.000 pezeta eta aretoaren alokairua 12.000 pezeta estimatu zituen. Hala ere, ekainaren 2an bere proposamena ez zen onartua izan[1115]. Kontratua Irungo Comas enpresarekin sinatu zuten azkenean eta enpresa hark ekainean, hartarako jarritako lokal batean instalatzeko prestutasuna erakutsi zuen[1116]. Hala ere, 1936ko apirilean badugu Beasainen, Berruezo deitutako pertsona baten jabetzakoa zen areto batean, zinema bat zegoenaren datua[1117].

Bukatzeko, elkarte kooperatibo herrikoiak ere jarraitu egin zuen Errepublikaren aroan eta bere ordezkariak Viktoriano Ayuso[1118] eta Mariano Olea[1119] izan ziren. Kooperatibak egoitza Pablo Iglesias kaleko 26. zenbakian izan zuen[1120]. Kooperatiba horrek, lehen kapituluan esan bezala, kontsumoa erraztea zuen helburutzat. 1933an, udalari, ur-kontsumoaren gaineko tasa bat ezartzea eskatu zuen, baina udalak, eskaera horri ezetz erantzun zion[1121]. Beste alde batetik, Langileen Ekonomatoa ere bazegoen eta 1935ean Jose Saldaña, Eujenio Lasa eta Emilio Poignon ziren haren ordezkariak[1122]. 1934an, bere egoitzan sute bat jasan zuen. 1934an ekonomato hori tokiz aldatzeko eskaera egin zioten udalari[1123].

[1112]Beasaingo Udal Artxiboa. 448. karpeta, 14. dokumentua.
[1113]Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 12. dokumentua.
[1114]Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 12. dokumentua.
[1115]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.
[1116]Beasaingo Udal Artxiboa. A132 karpeta, 12. dokumentua.
[1117]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1118]Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 33. dokumentua.
[1119]Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua.
[1120]Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 33. dokumentua.
[1121]Beasaingo Udal Artxiboa. 498. karpeta, 33. dokumentua.
[1122]Beasaingo Udal Artxiboa. 164. karpeta, 32. dokumentua; Beasaingo Udal Artxiboa. 059. karpeta, 70. dokumentua; eta Beasaingo Udal Artxiboa. 501. karpeta, 04. dokumentua
[1123]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

1.7 Euskararen egoera Beasainen Errepublika garaian

Errepublika garaian, dudarik gabe, euskarak hobera egin zuen gure herrian. Lehen aipatu dugu Arriarango eskolaren proiektua, zeinak, lehen aldiz, Beasainen euskarazko irakaskuntza sistematikoa izatea aurreikusten zuen.

Horrez gain, udalaren bandoak euskaraz agertzen hasi ziren, artean kopuru txikitan izan arren. 1931ko, euskarazko bi udal-bando aurkitu ditugu: bata, geltokiaren inguruan zangak irekitzeko lanak egiteko lan-poltsaren berri emanez[1124] eta bestea, abuztuaren 14koa, umeak Astigarretako eskolara bidaltzeko beharra gogoraraziz eta joaten ez ziren umeen gurasoei isuna jarriko zitzaiela aginduz[1125]. 1935eko abuztuaren 10ean, merkatu-egunean jokatu behar ziren lehiaketa eta apustu batzuen inguruko bandoa ere bi hizkuntzetan kaleratu zen[1126].

Beasaingo Udalak, garai horretan, euskal kulturaren inguruko ekitaldiak ere babestu zituen, adibidez, Euskaltzaleak elkarteak 1934ko ekainaren 10ean Zarautzen egin zuen Euskal Jaiaren aldeko diru-laguntza eman zuen[1127]. 1936an Viktor Bernedo buru zuen udalak, Euzko Pizkunde Bazkunari 100 pezetako diru-laguntza eman zion Donostiako Union Radioren bitartez Estatutuaren eta euskararen aldeko kanpaina egin zezan. Kanpaina horretan Gipuzkoako udal guztiek hartu zuten parte[1128].

Kontuan hartu behar da Errepublikaren garaian, "Euskal Pizkundea" deitutako mugimendua hasi zela Euskal Herrian. Euskararen aldeko mugimendua oso bizkor joan zen hedatzen gizartearen sektore guztietan. Horren adibide dugu ondoko herrian, Ordizian, 1931ko ekainean Patxi Iturriotzen alkate izendapenerako udal-saioan, oposizio karlistako Jose Arrieta zinegotziak euskaraz esandakoa (berak ez zuen Iturriotzen aldeko botorik eman): "Pozgarria da oso udal-talde honetako zinegotzi denek euskaraz jakitea, beti ez baita hala izan. Hala, udal-saioetan euskaraz mintzatu ahal izango gara"[1129].

Hala ere, euskararen egora apur bat hobetu zen arren, kontuan izan behar da garai hartan, Beasainen, 1936an, erdara nagusi zela, *El Día* egunkari jeltzale-aldekoak ere, 1936ko ekainaren 6an aitortu zuen bezala[1130].

1.8 1936ko hauteskundeak eta horiek Beasainen izan zuten eragina

1935. urtearen bukaerarako, Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren Gobernuak hondoa jo zuen, batez ere bi arrazoirengatik: ustelkeria-kasu larriak izan zirelako eta 1931-1933 biurtekoan egindako aurrerapen guztiak atzera itzularazten aritu zirelako. Hori zela-eta, Nizeto Alcala-Zamorak 1935. bukaeran jada sinesgarritasunik gabeko Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren Gobernua kargugabetu eta zentroko elementuek osatuta behin-behineko Gobernu berria indarrean jarri zuen. Gobernu horrek, 1936ko otsailerako hauteskunde-deia egin zuen.

Eskuineko Gobernuaren porrotaren arrazoiak hainbat izan ziren. Argiena, langile-klasearen kontrako errepresio bortitza izan zen. Baina zuzeneko errepresioaz gain, izan ziren bestelako arrazoi batzuk ere, adibidez, Nekazaritzaren Berrikuntza gelditzea, eta bestetik, lehen biurteko ezkertiarrean onartutako babes-lege asko bertan behera gelditzea. Horrez gain, kontuan izan behar dugu langabeziaren igoerak eskuinaren propaganda eta zioa mindu egin zituztela. 1933an, eskuineko alderdiek, enpresarien erakundeek lagunduta, arazo horren errua "ezkerreko Gobernuen lege sozialek sindikatuei botere gehiegi eman izanak" zuela esan zuten, horrek krisi ekonomikoaren ondorioak okertu egin omen zituela-eta. Hori hala izan balitz, 1933 eta 1935 artean langabeziak gora egiteak eskuinaren sinesgarritasuna hondoratu egingo zukeen. Horrez gain, Lerroux-en Gobernuaren ustelkeria-kasu erraldoiak ere gertatu ziren. Eta horrez gain, 1931-1933 arteko Gobernuak izan zuen arazo bera izan zuen eskuineko Gobernuak ere: gobernu-kide ziren alderdi ezberdinen arteko desadostasunak. 1931n boterea hartu zuen aliantza ezkertiarrari gertatu zitzaion bezala, boterean jarduteko programa komun bat adostea baino errazagoa egin zitzaion koiuntura batean arerioaren aurka elkartzea.

Eskuinaren gobernu-ekintza zela-eta, Asturiasko Iraultzaren ondorengo errepresioak hamarna milaka preso utzi zituen. Langile klaseak errepresio hori langileriaren aurkako errepresio kolektibo bezala ikusi zuen (enpresa askotan, jabeek sindikalistarik

---

[1124]Beasaingo Udal Artxiboa. 0151. karpeta, 41. dokumentua.

[1125]Beasaingo Udal Artxiboa. 0137. karpeta, 06. dokumentua.

[1126]Beasaingo Udal Artxiboa. 0525. karpeta, 11. dokumentua.

[1127]Beasaingo Udal Artxiboa. F013 karpeta, 16. dokumentua.

[1128]Beasaingo Udal Artxiboa. 066. karpeta, 06. dokumentua.

[1129]ASKOREN ARTEAN: *Ahaztuen mindura. 1936ko gerra eta frankismoa Ordizian*. Ordiziako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi. Ordizia, 2014, 26 orr.

[1130]BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia*. Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 64. or.

or.

ezagunenak kalera botatzeko ere aprobetxatu egin zuten). Hainbesterainokoa izan zen jazarpenak sortutako amorrua, ezen 1936ko otsaileko hauteskundeetan, ezkerreko Herri Frontearen kanpainaren ardatzetako bat amnistiaren aldarrikapena izan zela.

Bestalde, lan-harremanen arloan ere, eskuineko Gobernuaren ekimena, 1931-1933ko berrikuntzak berriro ezartzearen aldekoa izan zen. Lehen aipatu dugu lege horiek, hein batean 1934ko urriko iraultzaren arrazoietako bat izan zirela, adibidez, Artekaritza Mistoen Legea edukiz husteko saiakerak. Beste alde batetik, aurreko Gobernuak onartutako Lan-kontratuen Legea (kontratazioetan sindikalismoari ahotsa ematen ziona) ere baliogabetzen saiatu zen. Lege horien aurkako erasoa, 1934ko urriko iraultzaren porrotaren ondorioz etorri zen; haren ostean, Artekaritza Mistoen Legea kendu ez bazen ere, enpresa askotako Artekaritza Mistoak bertan behera utzi zituzten. Gainera, 1934ko abenduan Gobernuak "gehiegikeriazko grebak" legez kanpo ezartzeko dekretu bat onartu zuen (noski, greba bat "gehiegikeriazkoa" zen ala ez Gobernuak erabaki behar zuen, beraz praktikan, greba deklaratu behar zuen sindikatuak Gobernuaren baimena behar zuen). Kontuan izan behar dugu, urriko iraultzaren ostean, sindikatuen egoitzak itxita zeudela. Hala bada, enpresari askok, sindikatuen kontrako giro horretaz jabeturik, langileak kaleratzeaz gain, soldatak izoztea edota lanegunak ugaltzea bezalako neurriak hartu zituzten. Horrela, jakina da noski Gobernu berri horrekiko zein izan zen langile-klasearen atsekabea.

Industriako lan-harremanen arloko kontrarreformez gain, nekazaritzako erreforma ere suntsitzeko nahia erakutsi zuen Gobernu eskuindar horrek. Gobernuak, industrian egin zuen bezala, landa-eremuetan ere sindikatuen papera ahultzeko asmoa zuen[1131]; hori zela-eta, 1934ko apirilean Sanjurjoren Estatu-kolpean parte hartu zuten pertsonak, tartean lurjabe handi asko, zigorgabetuak izan zirenean, lur haiek euren jabeei itzuli zitzaizkien. Alderdi Erradikalaren Gobernuak, legea bera aldatu ez bazuen ere, maizterrak etxerik gabe uzteko erraztasunak eman zituen eta jabeei legea urratzeko aukera gehiago eman zien (eta jabeen jarrera harroputzak nekazari asko iraindu egin zituen). Horri erantzunez, UGTk 1934ko ekainean nekazarien greba bat deitu zuen eta Espainiaren hegoaldean jarraipen handia izan zuen. Kurioski, 1934ko urrian *CEDA* gobernuan sartu zenean eta Nekazaritza Ministerioa hartu zuenean, Manuel Gimenez ministro berriak, aurreko Alderdi Erradikaleko ministro Cirilo Del Riok baino politika askoz ere bareagoa egin zuen. 1935eko apirila arte, aurreko ezkerreko Gobernuaren izpirituko Nekazaritzako Berrikuntzaren politika jarraitu zuen[1132]. Hala ere, 1935eko maiatzean, *CEDA*k ministro hori (eskuineko prentsak eta politikariek "ezkertiar infiltratu" bezala tratatzen zuten), Nicasio Velayosekin ordeztu zuen eta Velayosen politika erabat lurjabeen aldekoa izan zen. Velayosek Nekazaritzako Berrikuntzaren Institutuak jaso beharreko aurrekontua murriztu egin zuen (berrikuntza aurrera eramatea praktikoki ezinezko eginez) eta gainera Nekazaritzako Berrikuntza Aldatzeko Legea aurkeztu zuen, desjabetutako lurjabeei atzeraeragineko ordainsariak ordaintzen zizkiena, eta kasu batzuetan berrikuntzaren bidez tokian ezarritako maizterrak botatzen zituena. Velayosen legeak, gainera, lurjabeei desjabetuak izan behar zuten lurren prezioa finkatzea baimentzen zien, eta horrela, edozein desjabetze ere praktikoki bideraezin egiten zuen. Horrela, jornalarien bizitza-kalitatea ere asko jaitsi zen.

Langile-klaseaz gain, Gobernu eskuindarrak, sentiberatasun demokratikodun klase ertainetako iritzi publiko errepublikanoa ere mindu egin zuen. Izan ere, 1934ko apirilean, Gobernuak 1932ko Sanjurjoren Estatu-kolpean parte hartu zuten militarrak eta politikariak zigorgabetzeko legeak atera zituen (Errepublikako lehendakari Nizeto Alcala-Zamoraren aurkakotasuna izan arren). Afera horrek eta Errepublikako lehendakaria militar eta politikari haiei amnistia ematearen aurka egoteak, Alejandro Lerrouxen dimisio laburra ekarri zuen (hilabete horietan, 1934ko apirilaren bukaeratik 1934ko urriaren hasierara, Alderdi Erradikaleko beste politikari bat, Rikardo Samper izan zen Gobernuburu). Eskuineko pertsonalitate horien jarrera zigorgabetzeko legeak, aipatu dugun bezala, zenbait lurjabe handik euren lurrak berreskuratzea ekarri zuen, nekazarien sektore handi bat kontra jarriz. Horrez gain, Gobernuak, Armada barruko eskuineko jeneral asko, Errepublikarekiko leialtasun zalantzagarria zutenak (horietako asko gero 1936ko Estatu-kolpean sartuta agertu zirenak) saritu egin zituen, Errepublikaren aldeko jeneralak bigarren mailan utziz. Bestetik, laikotasunaren inguruan ere, Gobernu horrek 1931-1933 garaiko politika laikoa hein batean aldatu egin zuen: adibidez 1931ko Konstituzioak kleroarentzako Estatu-aurrekontua bertan behera uztea ebatzi zuen arren, 1934ko Gobernu berriak, beste diru-sarrerarik ez zuten apaizentzako aurrekontua mantendu egin zuen eta 1931-1933 biurtekoan desjabetutako ondasun batzuk itzuli egin zizkion Elizari. Eskuineko Gobernuaren (baita ere Gobernu horretako Alderdi Erradikal errepublikanoaren) eta ezkerreko errepublikanoen arteko tentsioak, erabat apurtuta utzi zuen bi aldeen arteko harremana eta, adibidez, 1934an Gobernuak Manuel Azaña Gobernuburu-ohiaren atxiloketa agindu zuen, hark Asturiasko urriko iraultza abian jartzeko planetan parte hartu zuela argudiatuta, halakorik izan ez zen arren: Azañaren atxiloketak politikoki eragina izan zuen.

Beste alde batetik, bestelako sektore moderatu eta ez-sozialistekin ere harremanak izateko ez zen gai izan eskuineko Gobernua. Hain zuzen ere, Espainiako nazio txikietako sektore nagusiekin, euskal herritar eta katalan abertzaleekin; euskal

[1131] 1934ko urria arte Nekazaritzako Ministro izan zen Cirilo Del Rioren hitzetan "baserri-eremuko botere sozialista txikitu behar dugu".

[1132] Manuel Gimenez, 1936ko uztaileko Estatu-kolpea babestu ez zuen *CEDA*ko kide gutxienetakoa izan zen.

Estatutuaren blokeoa eta boikot-saiakera, euskal foruen kontrako zerga-legeak, udalen matxinada eta katalan Estatutuaren aurkako eskusartzea (Kataluniako Generalitaten Ereintza Kontratuen Legea indarrik gabe utziz) nahiko adierazgarriak izan ziren Gobernu haren politika zentralista ikusteko.

Alderdi Erradikala eta Lerroux bera gehien kaltetu zituena (baita euren boto-emaileen artean ere) ustelkeria izan zen. Ildo horretakoak izan ziren "estraperloaren kasua" eta "Nombela kasua". Lehenak, Espainiako Estatuan jokorako erruleta debekatua zegoen une batean, Strauss eta Perlowitzek asmatutako erruleta antzeko bat baimentzearekin zerikusia izan zuen[1133]. Estraperlo deitutako erruleta hori Donostiako kasinoan baimendua izan zen, eta dirudienez, Alderdi Erradikaleko politikariek (Lerrouxek berak barne) komisioen truke baimendu zuten, erruleta hura manipulatzeko erraza izan arren. Bigarrena, Nombela kasua izan zen. Antonio Nombela funtzionarioak, Lerrouxen Gobernuak itsas merkataritzako enpresa pribatu bati, zuritu gabeko kalteordain bat eman izanaren salaketarekin hasi zen.

Azkenik, eskuineko koalizioa osatzen zuten kide nagusien, Alderdi Erradikalaren eta *CEDA*ren, arteko desadostasun politikoak eta ideologikoak ikusten dira. Izan ere, bi alderdiek 1931-1933 biurtekoan ezkerreko politikarekiko aurkakotasuna eta horren ondorioak eraginik gabe uzteko beharra adostua bazuten ere, helburua ezberdina zuten: *CEDA*k 1931ko Konstituzioa berritzea edo aldatzea (Hots, II. Errepublika beste mota bateko erregimen batez aldatzea eskatzen zuen). Bi alderdien arteko desadostasunak, hezkuntzaren inguruko politikarekin hasi ziren, batez ere hezkuntzan Elizak izan zezakeen papera zela-eta (gauza normala, kontuan hartuta Alderdi Erradikala eta batez ere beren buru zen Lerroux tradizionalki laikoa eta antiklerikala izandakoa zela eta *CEDA* berriz alderdi katolikoa). Alderdi Erradikaleko kide batzuk, tartean 1934an Hezkuntza Ministro izan zen Villalobos, ez zeuden ados *CEDA*k proposatutako hezkuntza-sistema publikoa mugatzearekin (hots, hezkuntza berriz ere erlijio-erakundeen esku uzteko) proposamenekin, hura laikotasunaren jarraipen gisa ikusten zutelako. Desadostasunek urriko iraultzaren ostean ere jarraitu egin zuten, *CEDA*k errepresioa gogortzea (heriotza-zigorren kopurua handitzea, adibidez) eta errepresio-aldian "bigunegiak" izan ziren ministro eta arduradun politikoak kaleratzea eskatu zuen. *CEDA*ren politika hori oso kontraesanekoa izan zen, alderdi hori izan baitzen 1934ko apirilean (artean Gobernuan ez zegoen arren), Gobernuak atera zuen 1932ko Sanjurjoren Estatu-kolpea amnistiatzeko gogorren borrokatu zen alderdietako bat. *CEDA*k 1934ko urriaz geroztik hiru ministro izan zituen, baina urriko iraultza zanpatuta, bere kokapena indartzeko gai izan zitekeela ohartu zen. 1935eko maiatzean jada *CEDA*k bost ministro zituen Gobernuan (eta gainera nekazariekin ituna bilatzeko politika egin zuen Manuel Gimenez at gelditu zen). *CEDA*ren buru Jose Maria Gil Roblesek bi helburu zituen: bata, "alderdi bozkatuenaren buru gisa" Gobernuburu izatea, eta bestea II. Errepublikaren Konstituzioa aldatzea edo berritzea; alderdiaren presio osoa helburu horiek lortzeko jarri zuen (helburu bata zein bestea oso gaizki ikusi zituzten, bai oposizioak eta baita iritzi publikoak zein Nizeto Alcala-Zamora Errepublikako presidenteak ere). *CEDA*k, esan bezala, erregimen autoritario bat ezarri nahi zuen, 1931-1933 biurteko politika "zuzentzeko", eta pixkanaka, faxismorantz hurbiltzen hasi zen, erretorikoki eta estetikoki bederen (adibidez Engelbert Dollfuss austriar lehen ministro faxista *CEDA*ren eredu bihurtu zen)[1134]. Halako adierazpen ideologikoek, bere aliatu zentro-eskuineko errepublikanoen (tartean Errepublikako lehendakari Nizeto Alcala-Zamoraren) deserosotasuna handitu egin zuten.

Desadostasun horiek eta ustelkeria tarteko, Lerrouxek 1935eko irailean Gobernuburu gisa dimititu egin behar izan zuen, eta behin-behineko Gobernu berri bat ezarri zen, Joakin Chapaprieta independentea buru zuena (Lerroux ministro bezala mantendu zen, eta *CEDA*k bere kuotari eutsi zion. Gobernu horrek goierritar bat ministro izan zuen, Joan Usabiaga ordiziarra, Nekazaritzako Ministro postuan). Hala ere, ustelkeria-kasuak argitzeak, 1935eko urrian, Lerrouxen eta Alderdi Erradikaleko ministroen erabateko dimisiora eraman zuten Gobernua. Gainera, 1935eko urtearen bukaeran, 1931ko Konstituzioak lau urte bete zituen eta hura berritzeko jada Parlamentuaren erdiaren aldekotasuna soilik behar zen (lehen lau urteetan bi hereneko gehiengoa eskatzen zen horretarako). *CEDA*k hor bere aukera ikusi zuen eta Gil Roblesek beste behin Gobernuburuaren postua eskatu zuen. Ez zuen lortu, Alcala-Zamora lehendakariak ez baitzion postu hori eman nahi (Konstituzioa eta erregimen errepublikanoa aldatzeko arriskua ikusten zuelako) eta haren ordez Manuel Portela "zentrista" aukeratu zuen, babes gutxiko pertsona. Biurteko horretako emaitza ekonomiko eta sozial txarrak ikusita, herri-babesa galduta eta programa baten faltan, Portelaren gobernuak segituan, 1936ko otsailaren 16rako hauteskunde berriak deitu behar izan zituen. Gil Roblesek ez zuen hainbeste desiratzen zuen Gobernuburu postua lortu, baina

[1133] "Estraperlo" terminoak erruleta horri egiten zion erreferentzia hasieran, erruleta mota horren asmatzaileen izenak aintzat hartuz; baina geroago, frankismo-garaian, merkatu beltza izendatzeko erabili zen hitz hori berbera.

[1134] *CEDA*ren faxismoarekiko sinpatia hori zein puntutaraino zen erretorikoa edo miresmen soila (1930.eko hamarkadan europar eskuinaren parte handi batek elkarbanatzen zuen faxismoarekiko miresmena "ordenaren zaintzaile" edota "iraultzaren kontrako hesi" gisa) eta zenbateraino zen asimilazio ideologikoa, historiagileen arteko eztabaida luzea sorrarazi duen afera da, eta guk ez dugu hemen horretan sakontzeko tokirik. Hala ere esan behar da, CEDAren ideologiaren eta faxismoarenaren artean antzekotasun handiak izan zirela.

or.

Konstituzioaren aldaketaren inguruan egindako maniobra hori hauteskunde berri haietarako hauteskunde-programa bihurtu zen, eskuinak hautaketa horretan bere proposamenen goiburu gisa Konstituzio berri bat idaztea jarri baitzuen.

Bestalde, ezkerreko alderdiek euren artean bat egiteko beharra ikusi zuten. Bi faktorek eragin zuten hori: alderdi errepublikano ezberdinek eta Alderdi Komunistak. Alderdi errepublikanoen artean, 1934an, oposizioan zirenean hasi zen esparru ideologiko horretako alderdi eta taldeen arteko batze-prozesua. Hasiera batean Azañaren inguruan *Izquierda Republicana* alderdia eratu zen, *Acción Republicana*k beste talde batzuekin bat egin ostean. Bestalde, Diego Martinez Barrio Alderdi Erradikaleko kide-ohiak, Lerrouxen eskuinerako biraketarekin desados zegoela-eta, *Union Republicana* alderdia eratu zuen (bi alderdi horien inguruko informazio gehiago, batez ere Beasainen izan zuen pisuaren ingurukoa, Beasaingo alderdi politikoez jardun dugun atalean aipatu dugu). Bi alderdi horiek, 1935ean, hauteskundeetara elkarrekin joateko hitzarmen bat egin zuten. Bestalde, Alderdi Komunistak, 1935ean estrategia-aldaketa bat egitea erabaki zuen. Alderdi Komunistak, batez ere 1935eko udan Internazional Komunistak egindako Kongresuaren ostean, bere taktika erabat aldatu zuen. Komunisten taktika berria, "fronte antifaxistak" eratzea izan zen, sozialistekin eta bestelako indar demokratikoekin aliantza antifaxista bat lortzen saiatuz. Komunisten arabera, batez ere 1933an Hitlerrek boterea lortu ostean, erregimen faxista Europan zehar ezartzea zen arriskurik nagusiena, eta ez hainbeste "iraultza atzeratzea", beraz, iraultzaren bidea hartzen ez zuten edo ukatzen zuten ezkerreko alderdiak orain aliatu moduan ikusi zituzten, arerio gisa ikusi ordez[1135]. Egia esan, 1933an jada agertu ziren ildo-aldaketaren zantzu batzuk: 1933ko martxoan Internazional Komunista hasi zen jada "faxismoa arrisku zen egoeratan" sindikatu sozialistekin "behin-behineko tartekako elkarlana" egitea aholkatzen[1136]. 1933aren bukaeran, Alderdi Komunistak, Alderdi Sozialistari "arrisku faxistaren aurka" hauteskundeetara batera joatea proposatu zion, baina erantzuna ezezkoa izan zen[1137]. 1934ko iraultzan komunistak Alderdi Sozialistarekin eta UGTrekin batera egin zuten borroka eta nolabaiteko elkarlana egin zuten. Beste alde batetik, 1935eko udako Internazional Komunistaren Kongresua, 1933ko abenduan izan zen deitua eta deialdi horretan argi utzi zuen Internazionalak arrisku handiena faxismoa zela. Beraz, 1935eko udako Biltzar Nagusi horrek, aurreko bi urteetan egindako ildo-aldaketa berretsi, sendotu eta ofizialdu egin zuen; halere, ez zuen erabateko haustura aldeztu. Nolanahi ere garrantzia izan zuen "fronte antifaxista" "gomendio" baino areago premia handiko helburu bezala jartzeak. Espainiako Alderdi Komunistak 1935eko ekainaren 2an egin zuen lehen aldiz indar antifaxistak "gomendiotik" areago denak koalizioan elkartzearen aldeko deia[1138]. Aldi berean, komunistek langile sozialistengan euren eragina izan nahi zuten, fronte antifaxistaren bitartez, masak elkarrengana biltzeko. Lan horrek bere fruituak eman zituen: 1936ko martxoan Gazteria Sozialistak eta Gazteria Komunistak bat egin zuten, Gazteria Sozialista Bateratua (Juventud Sozialista Unificada) sortuz, erakunde hori Alderdi Komunistaren eraginpean egon zen. 1936ko uztailean Kataluniako Alderdi Sozialista eta Komunista ere batu egin ziren, Kataluniako Alderdi Sozialista Bateratua (*Partit Socialista Unificat de Catalunya*) sortuz eta alderdi Internazional Komunistan sartu zen (beraz ez zen PCEren parte izan, alderdi komunista autonomoa baino). Hots, Gazteria erakunde batua eta Kataluniako alderdi bateratua komunisten eraginpean izan ziren. Beste alde batetik, lehen, Gipuzkoako langile sindikatuei buruzko atalean azaldu dugun bezala, komunisten CGTU sindikatua UGTren barruan sartu zen.

Komunisten eta beste indarren arteko elkarlana segituan nabaritu zen Gipuzkoan bertan: 1935eko udazkenean, Donostiako Urumea frontoian, Jesus Larrañaga komunista goierritarrak Julio Somonte bilbotar sozialistarekin batera hitz egin zuen (Gipuzkoan sozialistek eta komunistek batera eman zuten lehen mitina). Larrañagak, toki berberean Calvo Sotelo eskuindarrak aste batzuk lehenago esan zituen hitzei ("Nahiago Espainia gorria Espainia hautsia baino") erantzun zien: "Espainia gorria Espainia hautsia izango da, nazionalitate ezberdinek askatasuna lortuko dutelako". Mitin horretan euskaltzaletsuna erakutsi zuen: "Euskal legebiltzarra bai ala bai lortuko dugu" esan zuen (horrek Estatutuaren inguruko komunisten posizioaren aldaketa zekarren: esan dugun bezala, aurreko urteetan "gutxiegi" zelako aurka egiten zuten-eta). Mitina, Internazionala euskaraz eta espainieraz abestuz bukatu zen[1139]. Gerora, hauteskunde-kanpaina hasi aurretik ere, Larrañagak mitin gehiago eman zituen komunistekin, adibidez, 1936ko urtarrilaren 1ean bat, eta 9an bestea[1140]. Sindikalgintzari dagokionez, 1935eko abenduaren 30ean Donostiako Langile Elkarteen Tokiko Federazioa (komunisten kontrolpean zegoena), UGTn sartu zen[1141].

[1135] Internazional Komunistaren ikuskera-aldaketa horretan, eragin handia izan zuen faxismoa hain zuzen Alemanian nagusitzeak, Alemaniak mugimendu komunistarentzat garrantzi handia baitzuen (Europako herrialderik industrializatuena zen, proletario-kopuru handiena zuena, eta Alderdi Komunista indartsua zuena). Alemaniar nazismoak Alemaniako Alderdi Komunista zanpatuta, argi gelditu zen Europan iraultza epe labur batean gauzatzea oso zaila izango zela.

[1136] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 77-79. or.

[1137] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 82. or.

[1138] MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 90. or.

[1139] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 75-77. or.

[1140] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 79-80. or.

[1141] EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 77. or.

Bi mugimendu horiek, errepublikanoen aldetik batera joateak, eta komunisten aldetik ezkerreko indarrak batu nahi izateak, 1936ko urtarrilaren 15an Herri Frontearen (*Frente Popular*) ituna sinatzea ekarri zuen. Koalizio hori osatzea ere oso onuragarria izan zen Alderdi Sozialistarentzat, orduan Indalezio Prietoren ildo moderatuaren eta Frantzisko Largo Caballeroren ildo erradikalaren arteko barne-tentsioak puri-purian baitzeuden: lehenak alderdi errepublikanoekin bat egin nahi zuen, baina bigarrenak (1933-1934tik aurrera ezkerrerako biraketa pertsonala izan zuenak) Alderdi Komunistarekin batzea nahi zuen. Bi multzoak batera joateak, Alderdi Sozialistari erraztu zion erabakimena. Beraz, 1936ko urtarrilaren 15ean, Herri Fronteak eratzeaz gain, 13 puntuko gutxieneko programa bat aurkeztu zuen: programa hori iraultzailea baino gehiago erreforma-zalea izan zen eta batez ere ezkerreko errepublikanoen programa bildu zuen: 1931ko erreformismoa berriz indarrean jartzea, gizarte-gaietako legeria berreskuratzea (eta ez ekoizpenaren gaineko langile-kontrola) lurra "birbanatzea" (eta ez nazionalizatzea), "eskualdeen" autonomia (eta ez autodeterminazioa), zergen banaketa zuzenagoa (eta ez Banketxeen nazionalizazioa), etxegabetzeak gelditzea eta "Errepublika demokratikoa, hiritar guztiena izatea eta ez klase batena" defendatzen zen (hots, langileen Errepublikari uko egiten zitzaion). Akordio hori, ezkerreko bi partidu errepublikanoek (*Izquierda Republicanak eta Union Republicanak*), PSOEk, UGTk, Gazteria Sozialistak, Alderdi Komunistak, eta beste ezker muturreko alderdi txiki bik; *Partido Obrero de Unificacion Marxista eta Partido Sindicalista*[1142] alderdiek sinatu zuten. CNT sindikatu anarkistak ez zuen itun hori sinatu (bere Estatutuen kontra zihoan hauteskundeetan parte hartzea) baina abstentzioaren aldeko edota Herri Frontearen aurkako propaganda ez egiteko konpromisoa hartu zuen. Hurrengo egunetan, tokiko alderdi abertzaleei tokia egiteko tokiko itunak sinatu ziren, adibidez, otsailaren 4an Katalunian ezkerreko katalan abertzaleak (Kataluniako alderdi nagusia) batzeko ituna sinatu zen. Gipuzkoan, Herri Frontearen aliantza zazpi egun beranduago sinatu zuten alderdi ezberdinek, sinatzaileak, Gipuzkoan presentzia zuten alderdiak izan ziren: *Izquierda Republicana, Unión Republicana,* Alderdi Sozialista, Alderdi Komunista, UGT, Gazteria Sozialista, Eusko Abertzale Ekintza eta *Ezkerra Vasca Federal* deitutako alderdia (alderdi hori Fernando Sasiain Donostiako alkatearen jarraitzailek osatutako alderdia izan zen eta bere presentzia Donostiara mugatu zen).

Horren aurrean, eskuineko liderrek, eta batez ere *CEDA*ko buru Jose Maria Gil Roblesek, "Fronte Nazional Kontrairaultzailea" deitutako koalizio bat osatzeko deia egin zuten, eskuineko indar guztiak "Espainiaren defentsan" eta "erlijioaren defentsan", "Iraultzari aurre egiteko" biltzearren. Hala ere, eskuineko koalizioa ez zen izan Herri Frontea bezain bateratua eta koordinatua: probintzia gutxitan lortu zuen eskuineko indar guztien koalizioa egitea, izan ere, batzuetan eskuin muturreko monarkikoekin eta karlistekin eta beste batzuetan zentro-eskuineko errepublikanoekin joan baitzen. *CEDA*ren helburua beste erregimen bat ezartzea zen, 1931koa aldatuz; baina bazekien helburu hori lortzeko lehenik ezkerra garaitu behar zuela, eta horretarako, toki batzuetan, helburu hori ez zuten indarrekin ere (zentro-eskuineko alderdiekin) bat egin beharra zeukala. Beraz, nahiz eta *CEDA*k argi izan bere helburua Konstituzioa aldatzea zela (helburu horretan eskuin muturrak, monarkikoek eta karlistek bat egiten zuten), hauteskundeak konstituziogile gisa hartuz, baina helburu hori hain argi azaldu gabe, "iraultzarekiko aurkakotasuna" saldu zuen. Beste alde batetik, orduko behin-behineko Manuel Portelaren Gobernua saiatu zen "zentroko" aukera bat gorpuzten, sinesgarritasuna galdu zuen Alderdi Erradikalaren lekua betetzeko.

Panorama hori izan zen 1936ko otsailaren 16ko hauteskundeak egin zirenean. Ezkerreko eta eskuineko blokeak erabat elkarren aurka jarrita zeuden, batez ere 1934ko urriko iraultzaren ostean, izan ere, eskuinekoak "Aberriaren zaintzaile" edo "ordenaren bermatzaile" gisa euren konfiantza "Armadan" (Armada izan baitzen iraultza zapaldu zuena) jarria baitzuten, erakunde demokratikoetan jarri ordez. Eta ez hori bakarrik, 1931ko apirilean II. Errepublikak izan zuen adostasun handia jada desagertua zen, bi blokeek marko hori gainditutzat jotzen zutelako: ezkerrak, Herri Frontearen programan 1931ko erreformak aipatu arren, erreformetan sakondu nahi zuen (edo komunisten eta sozialista batzuen kasuan errepublika sozialista baterantz abiatu) eta eskuinak erregimen autoritario bat ezarri nahi zuen. Hauteskunde horiek, nolabait 1931ko apirileko hauteskundeekin antzekotasun bat izan zuten: erreferendum bezala deituak izan zirela.

Gipuzkoan, hiru hautagaitza aurkeztu ziren. Esan bezala, Herri Fronteak urtarrilaren 22an aurkeztu zuen bere Gipuzkoako ituna. Hala ere, hautagaitza osatzeko orduan zailtasun batzuk agertu ziren. Lau hautagaiz osatutako zerrendan, bi errepublikano, sozialista bat eta komunista bat aurkeztea erabaki zuten, hautagaitzaren oreka ideologikoa mantentzeko; baina logikoa zirudien hautaketa horrek ika-mika batzuk eragin zituen. Alde batetik, EAEren hautagairik ez sartzea, alderdi horren barruan nolabaiteko deserosotasuna sortuz, gero horrek alderdi abertzaleak Herri Frontearekiko babesa erretiratzea ekarri ez bazuen ere. Bestetik, alderdi errepublikanoek babesa eman zuten arren, ez ziren izan Gipuzkoan hautagaiak bilatzeko gai eta hautagai izateko gai ziren pertsonen artean (Gipuzkoako errepublikanoen arteko zuzendarien edota pertsona ezagunen artean), izan ere, inork

[1142]POUM alderdia troskismotik gertu zegoen alderdia zen, bere burua marxistatzat zuen, baina SESBekiko eta haren lider Stalinekiko aurkakotasun gogorra erakutsi zuen. Alderdi Sindikalista CNTren banaketa posibilista batetik jaiotako alderdia zen.

or.

ez baitzuen bere izena komunistekin batera zerrenda batean ikusi nahi. Beraz gipuzkoarrak ez ziren hautagaiak aukeratu behar izan zituzten: Mariano Anso nafarra, 1931n Nafarroatik diputatu izan zena eta euskal autonomiaren aldeko porrokatua eta Luis Apraiz gasteiztarra[1143]. Sozialistek Migel Amilibia Matxinbarrena donostiarra aukeratu zuten, orduan behin-behinean Gipuzkoako Aurrezki Kutxako zuzendari zena, 1936ko gudan Gipuzkoako Defentsa Batzordeko lehendakari izango zena eta 1935eko epaiketan langile beasaindarrak defendatu zituen Eustasio Amilibia abokatuaren anaia[1144]. Komunistek Jesus Larrañaga goierritarra hautatu zuten, hasiera batean Espainiako Alderdi Komunistaren Komite Zentralak Joan Astigarribia pasaitarraren aldeko hautua egin zuen arren. Hala ere, Euzkadiko Partidu Komunistaren Batzorde Zentralak erabaki hori zuzendu eta Jesus Larrañaga aukeratu zuen; urretxuarra aukeratzeko argudioen artean "masen artean duen izen handia (…) hautesle jeltzale askok Herri Frontea, eta hautagaitza osoa ez bada ere, gure Alderdiaren hautagaia bozkatzea behintzat posible egingo baitu" azaltzen zen. "Masa nazionalistek "Goierrirengan", askapen nazionalera eramango dituen liderra ikusten dute"[1145]. Jendearen artean Larrañagak zuen izen on hori argi ikusi zen Herri Frontearen kanpainan, mitin gehienetan parte hartu zuen hautagaia izan baitzen: guztira 113 mitinetan parte-hartu zuen, 13tan orotara[1146] (kanpaina hartan, Herri Frontearen 189 mitinetatik komunistek 42 eman zituzten, horrek erakusten du alderdi hori, kidez txikia bazen ere, sinpatia handi samarra zuen alderdia zela)[1147]. Larrañagak kanpainari hasiera Donostian eman zion, urtarrilaren 19an Ramon Maria Aldasoro Gobernadore-ohiarekin (Aldasorok 1931ko maiatzean, Gipuzkoako Gobernadore Zibil zenean, Pasaiako arrantzaleen aurka tiro egiteko agindua eman zuen). Mitin horrek errepublikanoen eta komunisten arteko aliantza ordezkatzen zuen, Herri Frontearekiko sektore ezberdinen konpromisoa garbi erakutsiz[1148]. Larrañagaren hitzak izan ziren "zu zer zaren gogoratzen badugu ere, orain batera ibili beharrean gaude".

Eskuinak Gipuzkoan 1933ko partaide berak izan zituen: gipuzkoar eskuinean erabat hegemonikoa eta nagusi zen Alderdi Karlista, *Union Regionalista Guipuzcoana* monarkikoa eta *Derecha Vasca Autonoma,* estatuko *CEDA*ren adarra. Oraingoan, eskuineko hautagaitzaren izena Koalizio Kontrairaultzailea (*Coalición Contrarrevolucionaria*) izan zen; eta 1933ko hauteskundeekiko beste aldaketa bat *CEDA*ko hautagai bat aurkeztea izan zen. Hautagai hori Joan Pablo Lojendio Irure abokatu eta diplomatikoa zen[1149]. Beraz, Karlistek, bi hautagai bakarrik aurkeztu zituzten, Antonio Paguaga (1933an ere hautagai izan zena) eta Rikardo Oreja, 1934ko iraultzan hil zuten Martzelino Orejaren anaia (izendapen horren bitartez, sentimenduzko botoak jaso nahi zituzten). URGk, 1933an aurkeztutako Ramiro Maeztu berriz aurkeztea oso zaila zela ikusita (karlisten inguruan utzi zuen oroimen txarrarengatik), Donostiako abokatuen dekano zen Jose Muxika aurkeztu zuen[1150]. Beraz, errepublikaren aurkako eskuin indarrak soilik aurkeztu ziren: Alderdi Erradikalak uko egin zion hautagaitza horri eta baita beste edozein babesteari ere[1151], eta EAJrekin koalizioa egitea jada ezinezkotzat jotzen zen, aurreko bi urteetan gertatu zena ikusita bi indarrak erabat aldenduta agertzen baitziren. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, *CEDA* (gogora dezagun iraultzaren kontrako ahalik eta indar gehien biltzea zuela helburu hauteskundeak irabazteko) eta bere hautagai Lojendio saiatu ziren halako hurbilketa bat egiten, baina ez EAJk, ez Gipuzkoako eskuineko alderdi nagusi zen Alderdi Karlistak ez zuten hura ondo ikusi[1152].

EAJk, 1933an egin zuen bezala, bakarrik aurkezteko erabakia hartu zuen, eta 1933an jarraitu zuen estrategia arrakastatsua errepikatu nahi izan zuen: bost hautagai aurkeztu zituen. Horietako lau, 1933an aukeratutako diputatuak ziren: Joan Antonio Irazusta, Manuel Irujo, Telesforo Monzon eta Rafael Pikabea. Bosgarrena, Leizaolaren tokia hartu zuen Jose Maria Lasarte izan zen, ELAren hurbileko gizona[1153]. Jose Antonio Rodriguez Ranzen arabera, Gobernuaren eta Gobernadore Zibilaren aldetik egin

---

[1143]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 517. or.

[1144]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 80. or.; eta RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 518. or.

[1145]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: Jesus Larrañaga. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 80. or.; RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 517-518. or.; eta Euskadi Roja, 1936-02-13.

[1146]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 81-82. or.

[1147]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 523. or.

[1148]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga*. (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 81-82. or.

[1149]Francoren diktaduraren garaian Espainiako enbaxadore izan zen Kuban.

[1150]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 512-513. or.

[1151]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 511. or.

[1152]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 509. or.

[1153]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 513. or.

Ubilotz (Ibulus) baserriko Kandida Jauregiren eztei-deietako argazkia. Bazkaria Pakoren jatetxean egin zuten 1936ko maiatzean. (Argazkia: JZG, 124. or.)

zen EAJrekiko hurbiltze-saiakera bat, Gipuzkoan EAJ "zentroaren aukera" eraikitzeko erabiltzeko. Gobernuak, berriki Alderdi Erradikaletik egotzitako Joan Usabiaga diputatu eta ministro-ohi ordiziarra zentroko hautagai gisa babestea erabaki zuen, baina bakarrik aurkezteko indar gutxi zuela jabeturik, Usabiaga EAJren zerrendan paktu bidez sartzen saiatu zen, baina saiakera hori antzua izan zen[1154]. Uko horren aurrean, Usabiagak, bakarrik aurkezteko keinua egin zuen arren, azkenean erretiratu egin zen eta Gipuzkoako hautagaitza-kopurua hirura mugatu zen.

Gipuzkoako hauteskunde-kanpaina, tentsio handikoa izan zen arren eta ahozko nahiz hitzeko erasoak asko izan ziren arren, nahiko baketsua izan zen eta istilu handirik ez zen gertatu (egia esan, 1931koa eta 1933koa baino lasaiagoa izan zen). Hainbat gai ukitu ziren kanpaina horretan, alde batetik, Espainiako kanpainarekin bat eginik, Estatuaren eta erregimenaren etorkizuna izan zen gehien aipatu zen gaietako bat, baina Euskal Herriko gaiak ere aipatu ziren: adibidez, baserritar maizterrak etxegabetzea, edo Estatutua. Kanpaina hartan, Rodriguez Ranzen arabera, emakumezkoen presentzia gutxitu egin zen eta berrikuntzen artean, bertsolarien erabilera aipatzen du[1155]. Bestalde, Donostiako prentsaren jarrera ere aipatu beharra dago, egunkariak kanpainan buru-belarri sartu ziren, eta ez soilik informazio-emaile gisa, baizik eta alderdi jakin bat babesteko asmoarekin. Hala, *El Pueblo Vasco* eta *El Día* egunkariak jeltzaleen alde jarri ziren erabat (*El Día*k 1931ko "batasun katolikorako" deiak ahaztuak zituen) eta *La Constancia* eta *El Diario Vasco* (azken hori 1934an monarkikoek sortu zuten), Koalizio Kontrairaultzailearen alde[1156]. Herri Fronteak, ordea, ez zuen beste bi hautagaitzek bezala hain alde zuen egunkaririk izan: ordura arte errepublikanotasunarekin identifikatzen zen *La Voz de Guipúzcoa*, Joan Usabiagaren egunkaria zen, beraz sozialistak eta komunistak barneratzen zituen hautagaitza batekiko urruntasuna agertu zuen. Egunkari horrek oso berandu eta oso modu zehatzean bakarrik erakutsi zuen ezkerreko hautagaitzaren aldeko babesa; beste egunkariek beren aldekoak "gureak" gisa tratatzen bazituzten ere, *La Voz de Guipúzcoa*k Herri Frontea "gaitzerdi" moduan tratatu zuen, bestelako hautagaitza bat aurkez zitekeenaren desioa agertuz.

[1154]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 510-511. or. Rodriguez Ranzen arabera, Gobernuaren ordezkariek, Usabiaga zerrendan sartzearen truke, Gipuzkoako EAJren alkate eta zinegotzi denak berehala euren karguan berriz indarrean jartzea, euskararen ofizialkidetasunaren inguruko dekretu bat eta Gipuzkoako hurrengo Gobernadore Zibila EAJk aukeratzea eskaini zituen.

[1155]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 522-523. or.

[1156]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 524-526. or.

or.

"Zentroko hautagaitza" aurkeztearen aldeko jarrera erakutsi zuen lehenbizi eta hautagaitza hori ez zela aurkeztuko garbi gelditu zenean soilik, eta zeharbidez, babestu zuen Herri Frontea[1157].

Esan bezala, hauteskunde haietan, garrantzi handiko elementu bat, Estatuaren izaerari buruzkoa izan zen. Alde horretatik, eskuinaren propaganda, aurreko hauteskundeetakoaren antzekoa izan zen; Espainiaren defentsa, erlijio katolikoaren defentsa eta bere burua hautagai katoliko edo ordenadun bakar bezala aurkeztea. Kasu horretan, eskuinak antzeko kanpaina egin zuen, ezkerra etsai nagusitzat hartuz eta EAJ "iraultzaren gaizkide" moduan zilegitasuna kentzen saiatuz. Leloa horixe bera zen: "Iraultzaren eta gaizkideen aurka!". Hala ere, EAJren kontrako kanpainan, 1931ko apirilean eta 1933ko azaroan agertu ez zen elementu bat agertu zen: independentziaren aurkako kritika. "Separatismoaren arriskua" ia ez zen agertu aurreko kanpainetan, bai ordea 1936an (Estatutua eskuineko indarrek Parlamentuan blokeatuta zuten, eta euren blokeo horretarako argudioetako bat Estatutua "independentista" omen zela esatea zen). Beste alde batetik, EAJ "Iraultzaren gaizkide" izatearen akusazioa oraingoan zehaztu egin zen, 1934ko udako udalen mugimendua edo 1934ko urriko iraultza aipatuz (esan dugun bezala, bigarren horretan ez zen EAJren inplikaziorik izan)[1158]. Eskuinaren kanpainak oso kolpe handia jaso zuen Gasteizko gotzainaren aldetik eta bikario nagusi Jaime Berastegik "batasun katolikorako" deia egiteaz gain, batasun hori egin ezean, "katolikoentzat edozein hautagaitza katoliko bozkatzea" zilegi zela esan zuen. Beraz, Apezpikutzak ez zuen eskuineko hautagaitza "hautagaitza katoliko bakar" gisa zilegiztatu eta eskuinari kolpe gogorra eman zion[1159].

EAJ, bere aurkako kanpaina horri erantzunez, eskuinarengandik urruntzen saiatu zen lehia hartan eta bere burua, alderdi katoliko-sozial gisa aurkeztu zuen; eskuina jauntxoen alderdia bailitzatekeen aurkeztuz eta EAJ "klase apal katolikoen" alderdi legez. Kanpainan garrantzi handia hartu zuen baserritar maizterren etxegabetzeak, kasu horretan, kanpaina-aldian bertan, Azpeitiko Etxezuri baserriko maizterra zen Migel Arrieta baserri haren jabe eskuindarrak kaleratzeak. Migel Arrieta, abertzalea izaki, baserritik botatzearen atzean arrazoi politikoak egon zitezkeela salatu zuen EAJk[1160]. EAJk, 1933an egin bezala, iraultzaren "benetako gaizkideak" eskuinekoak zirela esan zuen, baina orain ez jada "Gipuzkoako alderdi katoliko nagusia geu garelako eta beraz sektarioak haiek direlako", baizik eta, eskuinak erreforma sozialen programa bat ez duelako eta beharrik ere ikusten ez duelako, langile-klasea eta oro har klase apalak "iraultzara bultzatzen dituelako". Eskuinaren "diruzaletasuna" asko kritikatu zuen EAJk kanpaina hartan eta bere aurpegirik sozialena erakutsi zuen. Beste alde batetik, EAJk hauteskunde haien iraultza-kontrairaultza erreferendum-planteamendua hauteskundeetatik albora jartzen saiatu zen, hirugarren bidea edo eredua aurkeztuz. Kasu hartan, EAJren "bi diktaduren" edo "bi muturren" aurkako diskurtsoa, 1933an errepublikanoek erabili zutenaren antzekoa izan zen, baina kasu honetan, "muturkerien" aurkako konponbide gisa "Errepublika" aipatu beharrean "euskal askatasuna" aipatu zuten ("euskal askatasunaren" kontzeptu abstraktu bat erabiliz, "Estatutua", iraganeko kanpainetan hain presente zegoena, erabili ordez). EAJren leloa *"Zibilizazio kristauaren alde! Justizia Sozialaren alde! Euskal askatasunaren alde!"* izan zen[1161].

Estatutuaren gaia, Herri Fronteak erabili zuen gehien. Herri Fronteak behin baino gehiagotan aipatu zuen Estatutuaren gaia. Herri Fronteak, hauteskundeak irabazten bazituen, Euskal Estatutua segituan indarrean jartzeko promesa egin zuen, euskararen ofizialtasuna ezartzearekin batera[1162]. Komunisten egunkarian defenditzen zenez, Herri Fronteak, bere prentsan, masa abertzaleari ere ezkerreko hautagaitza bozkatzeko deia egin zion, hautagaitza horrek bai eskubide nazionalak zein sozialak defendatzen zituelako[1163]. Beste alde batetik, Herri Frontearen kanpainan Amnistia bezalako erreibindikazioak oso presente egon ziren, une hartan, Gipuzkoan 600 eta 700 arteko preso-kopurua baitzegoen eta Espainiako Estatu osoan 30.000 inguru (hori kargugabetutako udaletako kargudunak kontuan izan gabe)[1164]. Gipuzkoako Herri Fronteak, beste alde batetik, baserritar maizterren defentsa egin zuen. Herri Fronteak, kasu honetan, EAJ kritikatu zuen gehiena, kanpainan erakusten ari zen biraketa soziala ez zela benetakoa esanez: ezkertiarrek behin baino gehiagotan gogoratu zuten kanpainan zehar EAJk

---

[1157]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 524-528. or.

[1158]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 540-547. or.

[1159]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 530-533. or.

[1160]Kasu honi buruz, ikus adibidez, *El Día*, 1936-01-28koa; edo *El Pueblo Vasco*, 1936-02-12koa. Hala ere, prentsa abertzaleak kanpaina handia egin zuen kasu horri buruz, eta egunero aurki daitezke artikuluak.

[1161]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 547-554. or.

[1162]*Euskadi Roja*, 1936-02-13koa.

[1163]*Euskadi Roja*, 1936-02-01ekoa. Ale hori euskal nazionalismoaren fundatzaile Sabino Aranaren aipuak erabiltzera ere iritsi zen. *Euskadi Roja*, 1936-02-15koa. Ale horretan "Inperialismotik eta klerikalismotik aske izango zen Euzkadi" aldarrikatu zuten.

[1164]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 557. or.

Espainiako Parlamentuan eskuineko Gobernuaren Baso-lurren Alokairuen Legearen alde bozkatu zuela eta horrek baserritarrak eta maizterrak arriskuan jartzen zituela[1165]. Oro har, Herri Frontearen kanpaina gutxienekoen programa batean zentratu zen, hau da, II. Errepublikaren markoa puskatzeko erreferentziak ez ziren presente egon kanpaina hartan (nahiz eta egia izan, komunistek, "langileek boterea" lortzeko hauteskundeak irabazi beharra zegoela aipatu zutela, hura urrutiko helburu gisa ikusten zuten arren); eta batez ere lan-arloan zein politika publikoetan hobekuntzak eta demokraziaren defentsa defendatu zituzten. Herri Frontearen leloa *"Amnistia! Estatutua! Etxegabetze gehiago ez!"* izan zen[1166].

Bestalde, kanpaina hartan, prentsa jarraituz (batez ere egunkari abertzale eta ezkertiarretan agertu ziren halako berriak), baserritarrei eta txiroei botoa erosteko ahaleginak salatu izan ziren, batez ere Koalizio Kontraiaultzaileari leporatu izan zitzaion amarru horiek erabili izana.

Gure herrian ere mitin ezberdinak izan ziren. Jose Antonio Egidoren arabera, urtarrilaren 26an Herri Fronteak mitin jendetsu bat eman zuen, 3.000 pertsonaren aurrean. Mitin horretan Jesus Larrañaga egon zen noski, eta horrekin batera, Luis Zapirain komunista donostiarra, Joan Alonso sozialista eta Fermin Vega de Seoane errepublikanoa, beasaindar ezkertiarrentzat oso oroitzapen onekoa izan zena, 1935eko uztaileko epaiketan langile beasaindarren defentsan parte hartu baitzuen[1167]. Herri Fronteak beste mitin bat ere eman zuen Beasainen, otsailaren 11n eta kasu hartan Jesus Larrañagarekin batera Migel Amilibia hautagai sozialista agertu zen. Mitina gaueko bederatzietan izan zen, Merkatu-plazan[1168]. Herri Frontea ez zen izan Beasainen mitinak eman zituen bakarra. Otsailaren 7an eskuinak ere eman zuen mitina gure herrian, Caballero, Arredondo eta Muguruza izan ziren hizlari. Mitina goizeko 11etan izan zen[1169]. Hala ere, eskuineko prentsan ez dugu aurkitu mitin horren inguruko informazio handiegirik, izan ere, egun hartan bertan Irunen eskuineko lau hautagaiek parte hartu baitzuten mitin batean eta hurrengo eguneko *La Constancia* eta *El Diario Vasco* Irungo mitinaz aritu ziren buru-belarri[1170]. Hauteskundeen bezperan, otsailaren 15ean, arratsaldeko zortzi eta erdietan, EAJren txanda iritsi zen eta Merkatu-plazan izan zen mitin hartan bi izan ziren hizlariak, Jose Maria Lasarte hautagaiak euskaraz hitz egin zuen eta Manuel Irujok espainieraz[1171].

1936ko otsailaren 16a, harrigarria bazen ere, oso lasaia izan zen Gipuzkoan. Kasu hartan, Gipuzkoa, ordea, nahiko salbuespena izan zen eta beste probintzia askotan hautagaitzek, elkarri tranpa egitea, botoak faltsutzea, aktak lapurtzea, eta abar, leporatu zioten. Gipuzkoan apenas izan zen istilurik. Guztira 136.654 gipuzkoarrek eman zuten botoa, eskubidea zutenetatik %78,93k, beraz, parte-hartzea 1933koa baino handiagoa izan zen (ez 1931koa bezain handia -%85,56- baina kontuan hartu orduan gizonezkoek soilik zutela botoa emateko eskubidea)[1172].

Emaitzei begiratuta, EAJk beste garaipen bat lortu zuela ikusten dugu. Jose Antonio Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, 50.285 gipuzkoarrek eman zieten botoa jeltzaleei, %36,85k. Guztira bost hautagai jeltzaleek 200.400 boto jaso zituzten. Eskuinari 45.095 herritarrek eman zieten botoa, boto-emaileen %33,05ek (guztira, eskuineko hautagaiek 179.258 boto jaso zituzten). Herri Fronteak, Rodriguez Ranzen arabera, 41.073 gipuzkoarren babesa izan zuen, %30,10ena (guztira, bere hautagaiek 162.696 boto jaso zituzten). Beraz, emaitza haiek Errepublika garaian Gipuzkoan izan ziren hauteskunderik parekatuenak izan ziren, "hiruki" ia-perfektua osatzeraino. Hala ere, botoen %40 lortu zuen hautagairik izan ez zenez (54.661 boto behar ziren), martxoaren 1erako bigarren txandarako deia egin zen. Egia esan, lege hori egoteak egoera salbatu zion EAJri, bost hautagai aurkezteak botoaren barreiaketa eragin baitzion. Hautagai bozkatuena Joan Pablo Lojendio Irure izan zen 45.153 botorekin, Manuel Irujok 45.088 bakarrik zituen bitartean. Hurrengo hiru bozkatuenak ere eskuinekoak izan ziren: Rikardo Oreja (44.845), Antonio Paguaga (44.711) eta Jose Muxika (44.590). Seigarrena Herri Frontekoa izan zen: Mariano Anso (41.193). %40ko gutxiengoaren legea

---

[1165]Adibidez; *Euskadi Roja,* 1936-01-25ekoa; *Euskadi Roja,* 1936-02-01ekoa; *Euskadi Roja,* 1936-02-13koa eta *Euskadi Roja,* 1936-02-15ekoa.

[1166]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 554-559. or.

[1167]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 81. or. Miren Barandiaranek ordea, Luis Zapirainek eta Fermin Vega de Seoanek soilik parte hartu zutela dio bere liburuan. BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Zarautz, 1995, 87-88. or. Informazio gehiago: La Voz de Guipúzcoa, 1936-02-06 eta hurrengo egunak.

[1168]EGIDO SIGUENZA, Jose Antonio: *Jesus Larrañaga.* (Beasaingo Paperak bildumako 2. zk.). Beasaingo Udalaren kultura-batzordea. Beasain, 1993, 82. or.

[1169]*La Constancia,* 1936-02-07; eta *El Diario Vasco,* 1936-02-07. Antza denez mitina erdaraz izan zen, bi egunkariek Gipuzkoako eskuinaren mitin ezberdinak iragartzerakoan, hizlari bakoitza euskaraz egitekoa zenean, iragarri egiten zuten; kasu horretan ez zuten halakorik iragarri.

[1170]*La Constancia,* 1936-02-08koa; eta *El Diario Vasco,* 1936-02-08koa.

[1171]BARANDIARAN CONTRERAS, Miren: *Euzko Alderdi Jeltzalea Beasainen. 100 urteko historia.* Beasaingo EAJ-PNV. Itxaropena argitaletxea. Zarautz, 1995, 87-88. or. Mitin abertzalerako informazioa: *El Día,* 1936-02-15ekoa; *El Pueblo Vasco,* 1936-II -15ekoa; eta *El Día,* 1936-02-16koa.

[1172]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República.* Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 560-561. or.

or.

egon ez balitz, Gipuzkoak lau hautagai eskuindar, jeltzale bat eta ezkertiar bat aukeratuko zituzkeen[1173]. Alfontso Ibaibarriaga Beasaingo jeltzale historikoak esan izan zuenez, egun hartan, eguerdian, Jesus Maria Leizaola hautagaia jabetu zen egoera ez zela ona jeltzaleentzat eta Irujori botorik ez emateko deia egin zuen, Irujo %40tik pasa ez zedin, eta hala, bigarren itzulia egin beharra izan zedin. Halako estrategia bat inprobisatzeko gaitasunak, EAJren diziplina eta antolakuntza oso handia zela erakusten digu[1174].

Emaitzak ikusita, nahiz eta Herri Frontea alderdi bozkatuena izatetik gertu egon, ikusiko dugu ez zela praktikoki 1933ko azarokoekiko igo; orduko lau ezkertiar hautagaitzak batera joan izan balira, praktikoki Herri Frontearen emaitzak berdindu egingo zituzkeen-eta. Egia da, Herri Fronteak (*Frente Popular*) Gipuzkoako zazpi udalerritan irabazi zuela (Donostian, Beasainen, Eibarren, Hernanin, Irunen, Pasaian, eta harrigarria izan zen arren, Leaburu-Txaraman eta Errenterian gertu ibili zen), 1933an ezkerreko hautagaitzak bi herritan soilik irabazi zuen, Eibarren eta Irunen baina oraingoan herri gehiagotan gailentzea, batez ere ezkerreko alderdi guztiak batera joateagatik izan zen hein batean (1933an Donostian eta Pasaian ere irabaziko zukeen, batera joan izan balitz)[1175]. Eibarren eta Irunen, ezkerreko hautagaitzek 1933ko emaitzekiko atzera ere egin zuten eta herri handi gehienetan (ezkerreko gipuzkoar hautesleriaren gehiengoa kokatzen zen lekuetan), emaitzak 1933koen antzekoak izan ziren (herri handien artean, soilik Hernanin, Pasaian eta Errenterian gertatu zen Herri Frontearen gorakada)[1176].

Ezkerraren portaeraren inguruan, esan beharra dago, noski, hiriguneetan zuen indarra mantendu egin zuela. Donostian irabazi egin zuen, botoen %46,82 lortuta (hala ere, bi urte lehenago, ezkerreko hautagaitza ezberdinak batuz gero, %48,83 lortuko zituzkeen; horregatik ez zen nagusitu ezkerra 1933an hiriburuan, eskuinaren (%30,99) eta EAJren (%22,19) gainetik. Herri handietan ere indar handia izan zuen, %31,86 lortuta, EAJren (%36, 99) atzetik eta eskuinaren (%31,15) aurretik. Herri handiak ere Herri Frontearen indargune izan ziren, baina Gipuzkoako halako hamazortzitatik bostetan soilik irabazi zuten. EAJk, halako herrietan bozkatuena izan zen arren, atzera egin zuen 1933ko emaitzekiko eta zortzitan soilik irabazi zuen (aurreko hauteskundeetan hamabi herri handitan irabazia zen). Eskuinak, herri handietan ere aurrera egin zuen, haietako bost lortuz eta 1933ko emaitzekiko %8 igoz (1933an, herri handietatik Ordizian soilik irabazi zuen)[1177].

Beraz, EAJtik eskuinerako boto-aldaketa ere gertatu zen. Boto-aldaketa hori askoz ere handiagoa izan zen herri ertainetan (EAJk %9,56 galdu zuen eta eskuinak %10,14 irabazi) eta herri txikietan (EAJk %11,84 galdu zuen eta eskuinak %13,28 irabazi) herri handietan edota Donostian baino; nahiz eta Gipuzkoako alderdirik bozkatuena izaten jarraitu zuen hiru eremuetan (Donostian izan ezik), hala hegemoniari eutsiz[1178]. Hala ere, deigarria da EAJk Gipuzkoako hiru herritan soilik, Alegian, Gaintzan eta Larraulen, 1933an baino boto gehiago lortu izana. Eskuinak ordea, Gipuzkoako 89 herritatik 86tan bototan gora egin zuen; beraz, argi gelditu zen alderdi batetik besterako aldaketa izan zela[1179]. 1933an Gipuzkoan EAJ 75 herritan nagusitu zen baina 1936an 52 herritan soilik lortu zuen hori eta horietako bost Herri Frontera joan ziren, beste 18 eskuinaren aldera joan ziren bitartean. Eskuinak, hauteskunde haietan 30 herritan irabazi zuen[1180].

Beraz, datu horiek ikusita eta praktikan 1933ko hauteskundeekiko EAJtik eskuinera botoak pasatu zirela argi utzita, ondorio batzuk atera beharrean gaude. Lehenik eta behin, ezkerreko hautagaitzak batera joan izanak ez zuela lortu sektore harentzat boto-emaile berririk lortzea, nahiz eta horrek ezkerraren indarra begi-bistan jarri. Ezkerrak herri handietan bildu zuen indarra, baina haietan ere ez zuen hegemoniarik izan (kasu batzuk kenduta), bai ordea, Donostian. Beste alde batetik, EAJren boto-galerak, ia toki guztietan gertatu zenak, herri batzuetan ere Herri Frontearen garaipena erraztu zuen (Beasainen, gure herrian, non Herri Frontearen hazkundea oso txikia izan zen, edo Hernanin edota Leaburu-Txaraman). EAJren boto--galerak, hausnarketa egitea merezi du, batez ere herri handietan baino herri txiki eta ertainetan boto gehiago galdu zuela

[1173]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 562-564. or.

[1174]Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[1175]Hala ere, kontuan izan behar dugu, 1933an, Gipuzkoan aurkeztu ziren lau hautagaitza ezkertiarretako baten zati zela Alderdi Erradikala. 1933-1935 biurtekoan Gobernuan egon zen alderdi hori, 1936an ezkerraren aurka zegoena hain zuzen ere. Hala ere, horrek ezberdintasun apur bat agertzen duen arren, ez du inolako iraultzarik suposatzen.

[1176]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 565. eta 575-576. or.

[1177]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 571-575. or.

[1178]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 570-573. or.

[1179]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 565. or.

[1180]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 584. or.

kontuan hartuta. Izan ere, 1933ko hauteskundeak, EAJri Gipuzkoan erabateko nagusitasuna eman ziotenak (botoen %45), errepikatzeko zailak izateaz gain, Estatutua gai zentral gisa zela burutu ziren. Hori zela eta, EAJk bazuen aukera anitz bere herri-babesa handitzeko. Kasu horretan, 1936an, Estatutua ez zen kanpainan agertu eta gai zentrala Errepublikaren etorkizuna izan zen (ezkerraren eta eskuinaren arteko demarekin). Baldintza horietan, 1933an EAJk lortutako boto asko, 1936an eskuinera itzuli ziren eta itzultze hori, batez ere, herri txikietan gertatu zen. Lehen ere aipatu dugu EAJk 1931-1933 artean izan zuen hazkundea, kasu askotan, 1931ko apirileko udal-hauteskundeetan botoa "monarkikoei", orduan Gobernuan zegoen alderdiari, eman ziotenen kontura izan zela, "oso politizatua ez zen baina joeraz kontserbadorea zen sektorearen" botoak bereganatuz. Hala ere, hiru urteren buruan, eskuinak "iraultza ala gu" goiburuarekin kanpaina hasi zuenean (eta EAJ "iraultzaren laguntzaile" bezala salatzeari ekin zionean), sektore kontserbadore horretako zati bat, iraultzari zion beldurra tarteko, hura ez gertatzea lehentasun gisa hartu eta eskuinari botoa ematera itzuli zen.

HERRIA	EAJ		ESKUINA		HERRI FRONTEA	
	KOPURUA	%	KOPURUA	%	KOPURUA	%
Altzaga	72	68,57	33	31,42	0	-
Arama	23	34,42	43	64,17	1	01,49
Ataun	612	59,24	411	39,78	10	00,97
BEASAIN	**657**	**33,60**	**569**	**29,10**	**729**	**37,28**
Ezkio	149	68,03	56	25,57	14	06,39
Gabiria	246	65,25	117	31,03	14	03,71
Gaintza	36	26,27	96	70,07	5	03,65
Idiazabal	330	59,13	179	32,07	49	08,78
Itsaso	69	38,76	105	58,98	4	02,25
Itsasondo	190	55,71	135	39,58	16	04,69
Lazkao	379	63,91	170	28,66	44	07,42
Legorreta	175	51,62	125	36,87	39	11,50
Mutiloa	98	46,88	106	50,71	5	02,39
Olaberria	109	47,18	102	44,15	20	08,66
Ordizia	601	32,73	774	42,15	461	25,10
Ormaiztegi	156	48,90	122	38,24	41	12,85
Segura	271	49,81	268	49,26	5	00,92
Zaldibia	237	35,21	435	64,63	1	00,15
Zegama	178	20,72	632	73,57	49	05,70
Zerain	120	55,29	97	44,70	0	-
Guztira	4.708	43,63	4.575	42,40	1.506	13,96

Goierriko emaitzak ikusten baditugu, patroia Gipuzkoan gertatu zenaren antzekoa izan zela jabetuko gara. Herri Fronteak ezkerraren gotorleku zen Beasainen irabazi egin zuen, baina 729 boto lortuta, hots, 1933an ezkerreko hautagaitza guztienak batuta zituzten 721 botoekiko oso hazkunde apala lortuta. EAJ, berriz, hemen ere jaitsi egin zen, 1933ko 726 bototatik, 1936ko 657 bototara eta hori eskuinak probestu zuen, Beasainen hazkunde txiki bat izan baitzuen. Beasainez gain, Herri Fronteak Ordizian soilik lortu zuen botoen %20a baino gehiago ateratzea eta beste bitan gainditu zuen %10aren langa: Legorretan eta Ormaiztegin (Itsasondon eta Olaberrian hurbildu egin zen %10era). Guztira, EAJk, Goierriko hogei herrietatik hamabitan irabazi zuen; 1933an hamabostetan garaitu zuen, beraz hiru herri "galdu" zituen: aipatutako Beasain ezkerraren alde eta Itsaso eta Mutiloa eskuinaren alde. Eskuindarrek, bi horiek lortzeaz gain, Araman, Gaintzan, Ordizian, Zaldibian eta Zegaman garaipena errepikatu zuten. Zazpi herri horietatik, eskuinak hiru herritan zuen alkatetza (Araman, Gaintzan eta Zegaman) eta Itsason "independenteek" agintzen zuten. Eskuinak alkatetza zuen hiru herrietan; Idiazabal, Legorreta eta Seguran, ez zuen irabazterik izan eta haietan EAJ berriz nagusitu zen. Hala ere, eskuinak Goierriko herri denetan boto-kopurutan gora egin zuen (Lazkaon boto-kopuru absolutuetan berdin gelditu zen, baina ehunekotan gora egin zuen) eta EAJk 20 herritatik hamabostetan boto--kopuruetan behera egin zuen eta lautan soilik hobetu zituen bere emaitzak (Altzagan –hala ere, boto-ehuneko txikiagoarekin-,

or.

Gaintzan, Itsasondon eta Zegaman; Araman boto-kopuru berdina izan zuen, baina ehuneko txikiagoa). Boto-aldaketa hori, herri gehiagotan ere iraultzeko zorian izan zen: Olaberrian, Ormaiztegin eta Seguran hain zuzen ere. Laburbilduz, Goierrin, Gipuzkoan azaldu ziren patroi berberak errepikatu ziren; alde batetik, ezkerraren emaitzak 1933koekiko berdin samarrak izan ziren (1936an Herri Fronteak 1.507 goierritarren babesa izan zuen, %13,96rena; 1933an lau hautagaitza ezkertiarrek 1.595 boto bildu zituzten, %15,21) eta euren boto-harrobia herri handietan bildu zen (Beasainen eta Ordiziaren artean 1.190 boto bildu zituzten, Goierrin bildutakoen %78,96). Bestetik, EAJtik eskuinerako boto-aldaketa ere gertatu zen: 1933an EAJk garaipen argia lortu zuen 5.238 boto lortuta (%49,98), eskuinaren 3.647 botoen aurka (%34,79); 1936an, aldiz, EAJren garaipena askoz ere estuagoa izan zen, jeltzaleen alde 4.708 goierritarren aldekotasuna izan baitzen, eskuindarrek 4.575ena izan zuten bitartean (boto-ehunekotan, %43,73 jeltzaleen alde eta %42,40 eskuinaren alde).

Euskal Herrian, egun hartan, bost barrutietatik bitan soilik gertatu zen aldaketa; Nafarroan (eskuinaren garaipena, zazpi diputatuak lortuz) eta Bilbon (Herri Frontearen garaipena, lau diputatu lortuz; EAJk bi lortu zituen). Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan martxoaren 1ean bigarren itzulia egin behar izan zen. Ez da arraroa euskal barruti gehienetan bigarren itzuli hori egin behar izana, hiru hautagaitza indartsu egoteak zail egiten baitzuen %40 hura lehen itzulian lortzea.

Hauteskunde haietan, probintzia askotan bigarren itzulia egin behar izan zen arren, hauteskundeen egunean argi gelditu zen ezkerreko hautagaitzek hauteskundeak irabazi zituztela. Espainiako Estatuan, Errepublika-garaian parte-hartzerik handiena izan zen hauteskunde haietan (%72,9; hala ere, Gipuzkoakoa baino txikiagoa). Emaitza guztien berri jakiteko itxaron egin behar izan zen (bost probintziatan bigarren itzulira joan behar izan zen –horietatik hiru Euskal Herrikoak izan ziren- eta bitan hauteskundeak deuseztatu egin ziren; beste probintzia batzuetan ere, salaketak –gezurrezkoak eta egiazkoak zirela adieraziz– eta zurrumurruak ugaldu egin ziren eta akten argitalpenen atzerapenak ere gertatu ziren). Ezkerreko masak otsailaren 16an bertan atera ziren kalera manifestazioen bidez garaipena ospatzera; manifestazio horietan Herri Fronteak Gobernua har zezan eskatu zuten (ikusiko dugun bezala manifestazio haiek Herri Frontearen gobernua bermatu zuten, lehengo goi-kargudun asko ez baitzeuden boterea Herri Fronteari pasatzeko asmoz)[1181]. Egia esan, bi hauteskunde-txandak igaro ondoren, Herri Frontearen garaipena zalantzagabea izan zen arren, nahiko estua izan zen botoei zegokienez: estimazio gehienek %47-48ko babesa eman zioten Herri Fronteari eta eskuinari %45,5-46koa (beste %5 inguru lerrokatu gabeko indarretara joan ziren)[1182]. Hala ere, gehiengoen sistema zela-eta, Herri Fronteak 263 diputatu lortu zituen, eskuineko indarrek 163 eta beste 54 lerrokatu gabeko indarren artekoak izan ziren[1183]. Hego Euskal Herrian, bi txandak jokatu ostean, EAJk Gipuzkoan eta Bizkaian irabazi zuen bederatzi diputatu lortuta (Gipuzkoan lau, Bizkaian hiru eta Bilbon bi), eskuinak Araban eta Nafarroan irabazi zuen zortzi diputatu lortuta (Nafarroako zazpiak eta Araban beste bat; horietako bost karlistak ziren, bi CEDAkoak eta bat independentea), eta Herri Fronteak Bilbon irabazi zuen eta guztira zazpi diputatu lortu zituen (Bilbon lau, Gipuzkoan bi eta Araban bat; horietako hiru errepublikanoak ziren, beste hiru sozialistak eta bat komunista).

Eskuinak ez zituen hauteskundeen emaitzak onartu (bost hilabete geroago, Francok eman zuen Estatu-kolpearen zurigarri gisa erabili zuen "Herri Frontearen Gobernuaren kaosa"[1184]); otsailaren 17an eta 18an, militar batzuek, ezkerreko herri--manifestazioak eta "desordena" aitzakiatzat hartuta Estatu-kolpea ematen saiatu ziren (Franco bera tartean zela) eta guda-egoera aldarrikatu zuten hauteskundeak deuseztatzeko asmoz. Hala ere Estatu-kolpe horrek ez zuen arrakastarik izan[1185]. Manuel Portela Gobernuburuak ere, guda-egoera aldarrikatu zuen, baina herriaren aldetik presioa hainbesterainokoa izan zen, ezen otsailaren 19an Manuel Azaña Gobernuko presidente izendatu behar izan zuten herri-babesak hala eskatuta (parlamentua eratu

[1181]MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 95. or.

[1182]Ez da erraza horren datu zehatzak ateratzea, esan dugun bezala, botoak ez baitziren zerrenda oso baten alde, hautagai jakin batzuen alde baizik (hautesle bakoitzak zerrenda ezberdinetako hautagaiak aukera zitzakeen). Gainera Herri Frontea Espainiako Estatuko probintzia guztietan batera eta kohesionatuta aurkeztu bazen ere, eskuinak ez zuen hala egin (lehenago esan dugu *CEDA*k probintzia batzuetan zentro-eskuineko indar errepublikanoekin egin zuela koalizioa eta beste batzuetan eskuin muturreko errepublikaren aurkakoekin), eta probintzia batzuetan bi zerrenda eskuindar ere aurkeztu ziren.

[1183]Ezkerreko 263 diputatuen artean, 99 *Alderdi Sozialistakoak* ziren (diputatu gehien zuen alderdia), 87 Azañaren jarraitzaileen *Izquierda Republicanakoak,* 37 *Unión Republicanakoak,* 17 *Alderdi Komunistakoak* (gehi beste lau Kataluniako beste *alderdi komunistetakoak*), eta 30 bat *ezkerreko katalan abertzaleak*. Eskuineko 156 diputatuen artean, 88 CEDAkoak ziren, 15 bat *monarkiko-alfontsotarrak* eta 12 bat *karlistak* (beste denak beste talde txikiagoetakoak edo independenteak). Lerrokatu gabeko 54 diputatuen artean, 21 Portelak sortu zuen *Zentroko Alderdikoak* ziren, 9 *EAJ*koak, eta 5 *Alderdi Erradikalekoak*. Alderdi horrek sekulako kolpea jaso zuen (gainerakoak alderdi txikiagoetakoak ziren).

[1184]Akusazio hori ez zen egiazkoa izan eta lan-munduaren aztoramena izan zen arren, bai hirietan zein baserri-guneetan, Errepublikaren beste urteetan baino askoz ere txikiagoa izan zen eta Herri Frontearen Gobernuak ez zuen sekula kontrolik galdu. Are gehiago, Espainiaren hegoaldean, baserritar batzuei, 1931-1933ko nekazaritza-berrikuntzak aplikatu zitzaizkien baina 1934an desjabetutako lurrak hartzen saiatu zirenean, eskuineko Gobernuak, Herri Frontearen gobernuak ezarritako aldaketa horiek desegin egin zituen.

[1185]Herri Frontearen Gobernuko buru Manuel Azañak, kolpe horretan ibili ziren militar susmagarriak Armadatik bota beharrean edo kargua kendu beharrean, Madriletik aldendu egin zituen: Franco Kanarietara bidali zuen, Goded Balearretara eta Emilio Mola Nafarroara. Geroak frogatu zuen zigor bigun horiek ez zirela behar bestekoak izan eta benetako zigorrik izan ez zutelako, 1936ko uztailean, beste altxamendu bat egin zuten, eta hark hiru urteko gerra ekarri zuen. Gerra horretan, milioi bat pertsonatik gora hil zen eta luzarorako diktadura ezarri zuten.

Amnistia pozarren hartu zuten Beasaingo kaleetan. 1936ko otsaileko argazki honetan, autoen gainean, 1934ko Iraultza zela-eta preso egondako beasaindarrak ikusten dira. Aurrean bandera gorriak agertzen dira. Argazkia Jose Migel Iturriotz kalean aterata dago, zinema zaharraren ondoan. (Argazkia: FL/MG, 118. or.)

baino lehenago, hura martxoaren 15ean, hauteskundeen bigarren txandaren ondoren eratu behar izan baitzen)[1186]. Azañaren Gobernuak ezkerreko errepublikanoak soilik izan zituen bidaide eta sozialistarik eta komunistarik ez zuen izan tartean. Herri Frontearen programako zenbait puntu berehala aplikatu ziren: otsailaren 21ean amnistia eman zuen, bai presoak kaleratzeko eta baita kargugabetutako kargudunak karguetara itzultzeko ere, otsailaren 28an, 1934ko gertakariengatik lanetik botatakoak lantokian berriro onartzeko agindua eman zuen (bi lege horiek garrantzi handia izan zuten Beasainen, izan ere, gure herrian, jada aipatua izan den moduan, 1934ko gertakariek udalaren aldaketa, herritar batzuk preso sartzea eta preso horietako batzuk CAFeko langile izateagatik, lanik gabe gelditzea ekarri baitzuten) eta martxoaren 1ean Kataluniaren autonomia berriz indarrean jarri zen.

Gipuzkoan jokatu zen bigarren itzulian, martxoaren 1ean, bi hautagaitza soilik aurkeztu ziren: Herri Frontearena eta EAJrena, eskuinak jada ikusi baitzuen hauteskunde orokorrak galduak zituela. Hala ere, eskuinaren aldetik ez zen jarrera homonimorik izan: karlistek eta *Union Regionalista Guipuzcoana*koek (*Renovación Española*ren gipuzkoar adarra) ez zuten inolako hautagaitzarik babestu, eta hor eman zuten argitara otsailaren 26an, beren hiru hautagaien, Muxika, Paguaga eta Orejaren bitartez. *CEDA*ko gipuzkoar adarra zen *Derecha Vasca Autónoma*k eta bere hautagai Joan Pablo Lojendiok, ordea, EAJ babesteko deia egin zuten, hura baitzen "hauteskunde haietan agertu zen hautagaitza katoliko bakarra"[1187].

Herri Fronteak bere hautagaitza ez aldatzea erabaki zuen, beraz, lehen txandako laurak, Anso eta Apraiz errepublikanoak, Amilibia sozialista eta Larrañaga komunista aurkeztu zituen. EAJk ordea, bost hautagai lortzen saiatzeak lehen txandan porrota ekartzeko zorian utzi zuenaz jabeturik oraingoan lau hautagai soilik aurkeztu zituen: Irujo, Irazusta, Pikabea eta Lasarte, Telesforo Monzon kanpoan utziz[1188]. Ezkerreko Gobernu bat ezarri izanak, eta hark amnistia eta udal-karguen berrezarpena berehala

[1186]Antza denez, Azañak ez zuen boterea modu horretan hartu nahi eta bide "formalak" erabiltzearen aldekoa zen: hau da, Parlamentua berriz ireki arte boterea ez hartzearen aldekoa; herri-manifestazioek bera boterera eramatea ez zuen begi onez ikusi, herri-presioak koalizioak berak baino ezkerrerago eraman zezakeelako. MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 95-96. or.

[1187]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 587-588. or.

[1188]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 588. or.

or.

ezarri izanak, Herri Frontearen kanpainan garrantzi handia izan zuen, "guk agindutakoa bete egiten dugu" esanez. Presoak etxeratzeak eta haiei egin zitzaizkien omenaldiek propaganda-eragin handia izan zuten. Bestalde, EAJk, ezkerreko Gobernu batekin Estatutua lortzea errazagoa ikusten zuenez gero, Estatutuan zentratu zuen kanpaina[1189].

Bazirudien, eskuina erretiratzeak hauteskunde-kanpaina askoz ere lasaiago bihurtu behar zuela, baina ez zen ahal gertatu. Istilu aunitz gertatu ziren, borrokak, pistolen bidezko mehatxuak eta abar. Oiartzunen Herri Frontearen ikuskatzaile bat tiroz hila izan zen. Gipuzkoa osoan izan ziren emaitza-faltsutzeak eta haien salaketak eta Donostiako bost mahaitan ere, martxoaren 3an, ostera hauteskundeak errepikatu behar izan ziren[1190]. Azkenean EAJk irabazi zuen, Rodriguez Ranzen arabera 63.641 boto lortuta (%58,92), lau hautagai jeltzaleek batera 250.842 boto lortu zituzten. Herri Fronteak 43.302 boto izan zituen (%40,20) eta haren hautagaiek batera 164.518 boto. Hautagai bozkatuena Jose Maria Lasarte izan zen, 63.150 botorekin. Bere alderdikide Pikabeak, Irujok eta Irazustak, 62.613, 62.500 eta 62.434 boto bildu zituzten hurrenez hurren. Herri Frontearen aldetik Mariano Anso (42.228 boto) eta Migel Amilibia (41.836 boto) izan ziren aukeratuak: Apraizek 40.649 boto izan zituen eta Jesus Larrañaga goierritarrak 39.805 boto[1191].

Hauteskunde haietan, EAJk Gipuzkoako 89 herritatik 83tan irabazi zuen, tartean Beasainen, hamazazpi botoko aldearekin[1192]. Herri Fronteak bere gotorlekuetan irabazi egin zuen berriz ere. Bestalde, eskuineko boto-emaileen parte batek, gutxiengoak, baina ez gutxiengo marjinalak, EAJri eman zion botoa: Rodriguez Ranzen kalkuluen arabera, otsailaren 16an, eskuinari botoa eman zioten 45.095 gipuzkoarretatik 13.202k EAJren aldeko botoa eman zuten eta gehiengo nagusia 31.893 abstenitu egin zen (hori eskuineko gipuzkoar boto-emaileen %29,28 zen). Rodriguez Ranzek ondorio bitxi bat ateratzen du: 1933ko azaroko hauteskundeetan eskuinari 32.035 gipuzkoarrek eman zioten botoa eta kopuru hori martxoko bigarren txanda hartan EAJri botoa emateari uko egin zion kopuruaren antzekoa da. Beraz, litekeena da 1933an EAJri eta 1936an eskuinari botoa eman ziotenek, bigarren txanda hartan EAJri berriz ere botoa ematea, "betiko eskuindarrek" abstenitzea erabaki ondoren[1193].

Beasaingo Udalaren etapa berri honi buruz hitz egiterakoan, lehen esan dugu otsailaren 21ean, amnistiaren dekretua sinatzerakoan, 1931n aukeratu eta 1934ko abuztu-irailetan kargugabetutako udal-taldea, berriro agintera itzultzeko modua zabaldu zela eta epaitegiek kondenatuak etxera itzultzeko aukera ere ireki egin zen. Beasainen, otsailaren 23an bildu ziren berriz karguan jartzeko 1931n aukeratutako zinegotziak. Bederatzi bildu ziren guztira eta lau falta ziren; Jazinto Urteaga alkate-ohia eta Emiliano Arbaizar hilak zirelako (Arbaizarrek 1931n dimititu egin zuen gainera), Serafin Arana parterik ez hartzea erabaki zuelako (ez zuen aldi honetako saio batean ere parte hartu) eta Dionisio Carrascal kartzelatik aurreko egunean irten zelako, 1934ko gertakariengatik kartzelan zegoen-eta. Bertan bildu ziren ordea, 1934an beste kideekin batera dimititu zuten bi zinegotzi eskuindarrak, Jose Martin Sarriegi eta Restituto Urteaga. Udal berriak, Viktor Bernedo sozialista aukeratu zuen alkate eta Seberiano Azpeitia eta Gregorio Lasa errepublikanoak alkateorde[1194]. Egun hartan bertan, bi mozio irakurri zituzten.

Viktor Bernedo Zubiaurre, Bernedo-eneko lantegiaren sortzailea eta ugazaba, 1936ko otsailean hautatutako legezko alkate sozialista, uztailaren 28an Pablo Cayuela Teniente Koronel matxinatuak kargugabetu zuen eta 1937-06-20an Bilbon atxilotu ondoren, epaiketa militarrean heriotza-zigorra ezarri zioten. Segovian egon zen kartzelan eta gerora zigorra aldatu egin zioten. 1944an, oso gaixo zegoela askatu zuten. 7 urte kartzelan eginda, etxeratu eta berehala hil zen 74 urterekin. (Argazkia: JZG, *"Alcaldes de Beasain" in Beasain Jaietan* urtekaria, 2001, 17-21. or.).

[1189]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 588-590. or.

[1190]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 590-591. or. Errepikapen horretan, Apraiz errepublikanoa erretiratu egin zen eta botoa Anso errepublikanoari eta Amilibia sozialistari soilik ematea gomendatu zuen, Larrañaga komunistari bidea ixteko. Urtarril-otsailetan komunisten eta errepublikanoen artean azaleratutako ika-mikak ez ziren guztiz itzali.

[1191]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 592-593. Parte-hartzea %62,62koa izan zen.

[1192]Alfontso Ibaibarriagaren adierazpenen arabera, garaipen hori oso ospatua izan zen Beasaingo jeltzaleen artean. Markel Olanok Alfontso Ibaibarriagari eta Antonio Zubillagari egindako elkarrizketa. Beasaingo EAJko ordezkari Jose Antonio Imatzek utzia.

[1193]RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio: *Guipúzcoa y San Sebastián en las elecciones de la II República*. Gipuzkoa-Donostia Kutxaren Fundazio Soziala. Donostia, 1994, 595-597.

[1194]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

Lehena, Bernedo alkatearena izan zen, eta bertan, "joan zen igandean (hots, hauteskundeetan, Herri Fronteari garaipena emanez) herriak egindako ahalegin handia" goraipatu zuen alkate berriak eta "biurteko beltzaren borreroak (eskuineko gobernua)" deitoratu egin zituen. Mozio hori, hildako bi udal-kideak gogoratuz eta Carrascal zinegotziaren askatasuna ospatuz bukatzen zen. Beste mozioa Restituto Urteaga eskuindarrarena izan zen. Mozio hartan, Urteagak Gobernu berriari eskerrak ematen zizkion "Euskal Herriaren interesen alde borrokatzearren utzi behar izan genituen karguetan berriz jartzeko keinu noblea izan duelako". Urteagak "mugimendu hartan, gure autonomiaren hondar den Hitzarmen Ekonomikoaren aurka Gobernuak egindako erasoaren aurrean udal guztiok altxatu ginen" gogorarazi zuen eta orduko Gipuzkoako agintariak (Gobernadore Zibila eta Aldundiaren Gestora) deitoratu zituen "herriaren interesak baino Gobernuaren interes zikinak" defendatzearren. Urteagak Gipuzkoan agintea "herriak eta ez Estatuak aukeratutakoak izan zezaten" dei egin zuen (Alderdi Jeltzalearen erreibindikazio historiko batekin bat eginez) eta "herriak bozkatutako Euskal Estatutua berehala indarrean jar zedin" ere bai. Harrigarria suerta daiteke, Restituto Urteagak mozio hura aurkeztu eta bost hilabetera, Armada kolpistak Beasainen inposatutako udalean ostera parte-hartzea erabaki izana[1195]. Hori ez zen izan Beasaingo Udalak aldi labur hartan Estatutuaren alde egin zuen ekintza bakarra, izan ere, 1936ko ekainean, Gipuzkoako Aldundiaren Gestorak Hitzarmen Ekonomikoaren alde udal gipuzkoar guztiei bideratutako kanpaina batean partea hartzea erabaki baitzuen[1196]. Argi zegoen halako ekimena 1933ko abendutik itxaroten zen Estatutuaren aplikazioaren alde presionatzeko modu bat zela. Beste alde batetik, udalak, *Euzkaldunak* elkarteak euskararen alde antolatu zuen jaialdi bati, edo *Euzko Pizkunde Bazkuna* elkarteak Estatutuaren alde antolatu zituen kanpainei subentzioa ematea onartu zuen[1197].

Hurrengo bilkuran, otsailaren 27an, zinegotzi-sindiko gisa Pedro Azarola Gorrotxategi aukeratu zuen udalak. Udal-bilkura hartan, 1932ko ekainetik parte hartzen ez zuen Dionisio Carrascalek ere sinbolikoki parte hartu zuen eta udalari bere askatasunaren aldeko lana eskertu nahi izan zion, baina 1932an dimititu egin nahi izan zuela-eta, berriz beste bilkura batean parterik ez zuela hartuko esan zuen[1198].

Beasaingo Udalak, 1936ko martxoaren 21ean Donostiako Udalaren proposamen batekin bat egin zuen eta 1934. urtearen bukaeran eta 1935ean Gobernadoreak Gipuzkoan ezarritako behin-behineko udalek (Beasaingo kasuan, Manuel Perezen udalak) egindako balantze ekonomikoaren auditoria egin eta haiek hartutako neurriak eta itunak bertan behera uzteko ahalmena defendatzen zuen proposamen horrek (kontuan hartu behar dugu 1930eko hamarkada osoan Gipuzkoa krisi ekonomiko larrian sartuta zegoela eta hori dela-eta, edozein gain-kostuk udalen egoera kolokan jar zezakeela)[1199].

Hala ere, udal berritu hark neurri propioak hartzeko oso aukera gutxi izan zuen, bost hilabete barru Estatu-kolpea izan baitzen (eta agindu zuten bost hilabete haietan, aurreko udal-taldeak eginiko aurrekontuarekin agindu behar izan zuen). Hirigintzari dagokionez, aipatutako Fermin Galan kalean espaloietan baldosak jartzea onartu zuen udalak[1200]. Beste alde batetik, Garingo errepidearen gain-kostua ordaintzeko, eta langabeekin egiteko kontratatu zituzten lanei eusteko, beste 100.000 pezetako kreditu bat sinatu behar izan zuen udalak[1201].

1936ko martxoan, udaltzaingoaren uniformea aldatzeko eta neguan zein udan urdinez eta txapel urdinarekin janzteko proposamena egin zuen udalak[1202].

Horrez gain, Herri Fronteak, boterean egon zen bost hilabeteetan, gutxi gora-behera, 1931-1933 arteko Azañaren politika erreformista bera egin zuen: orduko legeria sozial bera ezarri zuen, nekazaritza-berrikuntzari berriz ekin zion eta Artekaritza Mistoei erabateko boterea eman zien. Lehen, Gipuzkoako langile-klaseaz hitz egin dugun atalean, 1936an grebak ugaritu egin zirela esan dugu. Egia da, batez ere langileek 1934ko eta 1935eko atzerakadaren ondoren, 1931-1933 aroko baldintzak berreskuratzeko aukera ikusita grebara jo zutela, baina lan-arloko grebak izan ziren, ez politikoak, ez eta matxinadakoak ere (UGTk edota CNTk ez zuten matxinadaren aldeko planik prestatu eta ezta Alderdi Komunistak ere, bai baitzekien sozialismoa epe luzean ezarri behar zela eta ez berehala. Are gehiago, Herri Frontearen Gobernuak baserritarrek euren aldetik egindako

[1195]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1196]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1197]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1198]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1199]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1200]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1201]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.
[1202]Beasaingo Udal Artxiboa. 081. karpeta, 24. dokumentua.

or.

lurjabeen lur-okupazioak zigortu egin zituen[1203]. Beraz, ez da egia, Estatu-kolpearen aldekoek bere garaian esan zuten bezala eta gaur egun zenbait eskuineko historiagilek eta kazetarik dioen bezala, Herri Frontearen gobernupean Espainia "kaosera" edota "sobietar gobernu batera" bideratuta zegoela.

Herri Fronteak, horrez gain, Estatutuaren bidea berriz ireki zuen. EAEko Frantzisko Ulazia abertzale beteranoak esan zuen bezala "Estatutua izango da, eta Herri Frontearen garaipenari esker izango da"[1204]. Egia da behin proiektua eginda, Gobernu berria Estatutuaren proiektuan jarria egonik eta Euskal Herriko indar nagusiak proiektu horren alde (ezkertiarrak eta jeltzaleak) zeudela argi egonda, Estatutua azkar jar zitekeela indarrean. Antza denez, Bilboko bere *El Liberal* egunkarian ere, Indalezio Prietok berak abertzaleekiko beste doinu bat erabili zuen, bertan Jose Antonio Agirreri idazteko gonbita eginez eta Sabin Aranarekiko hitz positiboak erabiliz[1205]. Horrez gain, Nafarroako ezkerra, 1932an Euskal Estatutua zela-eta hain zatikaturik agertu zena, oraingoan Estatutuaren alde agertu zen erabat. Nafarroako Herri Fronteak, Nafarroa bakarrik gelditzeak lurralde horretan eskuinaren nagusitasuna betikotzea zela ulertu zuen, eta beraz, 1936an Euskal Estatutuaren aldeko kanpaina egin zuen. Floren Aoizen arabera, 1934ko eskuinaren aldetik jasandako errepresioak, nafar ezkerreko oinarriengan ere hunkipen handia eragin zuen[1206].

1936ko apirilaren 29an, Espainiako Parlamentuak Euskal Estatutu-proiektuaren legezkotasuna aztertzeko ponentzia hasi zuen eta ponentzia horren kide bi euskaldun izan ziren, Araban Herri Frontearen aldetik aukeratua izan zen Ramon Rodriguez Biguri errepublikanoa eta Jose Antonio Agirre jeltzalea. Eskuinak, Estatutuaren aurkako protestetan jarraitu zuen, argi erakutsiz, bere ustez, Estatutua "separatista" zela. Azkenean, batzorde horrek maiatzaren 12an eman zion baietza Estatutuaren legezkotasunari[1207]. Nafarroako Aldundia kontrolatzen zuen Nafarroako eskuinaren erantzuna, 1932ko ekainean, nafar udalak Euskal Estatututik at gelditzea erabaki zutenean, orduko Aldundi ezkertiarrak Nafarroa Euskal Estatutuan sartzea errazteko onartu zuen xedapena kendu egin zuen. Horrek, Nafarroako Herri Frontearen protesta ekarri zuen: "Nafarroako eskuina Euskal Estatutuaren kontra egon zen, orain Nafarroa Euskal Estatutuan sartzea ukatu nahi du, Nafar Estatutua idazteko (…) eta horrela Nafarroa isolatu eta bere nagusitasuna betikotzeko (…) Nafarroako Herri Fronteak laguntza eskatzen dio Herri Fronteari, nafar ezkerra bakarrik utz ez dezan, eskuinak Nafar Estatutu isolatua aukera bakar bezala inposatzea galaraz dezan eta Nafarroa Euskal Estatutuan sartzea erraz dezan"[1208].

Antza denez, 1936an, Indalezio Prieto, lehen autonomiaren aurkako porrokatua zena eta 1931n Estatutuaren aurkakoa ez baina berarekiko mesfidatia zena, 1936an Estatutua berehala onartzearen aldeko jarri zen, "egoeraren ezegonkortasunak (…), Estatutua deusezta dezakeen edozein aldaketa ekar dezakeelako"[1209]. Hala ere Ogasuna zela-eta (Estatutuak Hitzarmen Ekonomikoak aurrezarritakoak baino eskuduntza gehiago ematen zizkien Araba, Bizkai eta Gipuzkoari), berriz atzeratu zen Estatutuaren onespena[1210]. Uztailaren hasierarako prest zegoen, baina ordurako egoera hain gaiztotua zegoen eta Estatu-kolperako planak hain hurbil, azkenean Estatutua indarrean jartzerako (1936ko urriaren 1a) 1936ko guda hasia zegoen, Nafarroa, Araba eta Gipuzkoa ia osoro matxinatutako indar armatuen eskuetan eta Eusko Jaurlaritzak kontrolatutako lurraldea praktikoki Bizkaira mugatu zen.

1.9 Gerraren hasiera

Jakina denez, 1936ko uztailean, eskuineko militar-talde batek Estatu-kolpea jo zuen eta armetan altxatu zen (uztailaren 18a jotzen da Estatu-kolpearen datatzat, baina berez, matxinada Marokoko garnizioan aurreko egunean, uztailaren 17an hasi zen). Militar-talde horrek, geroago Franco euren buru hautatu zuen, baina ez zen hala izan une hartan. Estatu-kolpea toki batzuetan (Marokon, Sevillan, Oviedon eta Gaztelako hiri gehienetan arrakastatsua izan zen, ez ordea hiririk handienetan. Euskal Herrian Araban eta Nafarroan matxinatuek arrakasta izan zuten (Iruñea kolpearen zentroetako bat izan zen eta bertan zegoen Emilio Mola jenerala *"El director"* matxinadaren gidari nagusietakoa, batez ere erreketeen edo paramilitar karlisten parte-hartzearekin); ez ordea Gipuzkoan eta Bizkaian.

[1203]MARTIN EIZAGUIRRE KOLEKTIBOA. *Aproximación a la historia del PCE*. Templando el Acero. Iruñea, 2012, 98-99. or.

[1204]FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 126. or.

[1205]FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 136. or.; El Liberal, 1936-04-15ekoa; eta El Liberal, 1936-04-16koa.

[1206]AIOZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 55-56. or.

[1207]FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 136-137. or.

[1208]AIOZ, Floren: *El jarrón roto*. Txalaparta. Tafalla, 2005, 57-58. or.

[1209]FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 138. or. 1936ko ekainaren 4an *El Liberal* egunkarian egin zituen adierazpenok Prietok.

[1210]FUSI AIZPURUA, Joan Pablo: *El problema vasco en la II República*. Turner. Madril, 1979, 138-140. or.

Estatu-kolpe hori ez zen bat-batekoa izan eta ezta egoerari erantzun bat ematekoa ere, nahiz eta kolpea jo zutenek hala planteatu zuten hasiera batean (propaganda-arrazoiak zirela bide). Eskuinetik gehien zabaldutako bertsioaren arabera, Estatu-kolpea edo altxamendua, "iraultza sozialista" saihesteko edota "ezegonkortasun- eta bortizkeria-" giroa egonkortzeko eta egoera horri erantzuna emateko izan zen. Hala ere, ikusiko dugun bezala, hori ez zen hala izan: Herri Frontearen gobernu-garaian egia bada ere greba-kopurua handitu egin zela (1931-1933 biurteko legealdiko gaiak berriz indarrean jartzeko asmoa adierazi zuen Gobernuak, langileek eta sindikatuek egoera hori baliatu zuten), eta egia da istiluak izan zirela, baina ez zen alde bakarreko jazarpena izan, bi aldeetako muturreko talde armatuen arteko talka baizik (1936ko otsailetik uztailera ezkertiar gehiago hil ziren istiluetan eskuindarrak baino). 1936ko otsailaren eta uztailaren artean, 350 bat pertsona hil ziren Estatuan; zifra oso handia zalantzarik gabe, eta 1934ko iraultza-garaia salbu, Errepublikako bake-garaiko arorik bortitzena izan zen. Baina hildakoen erdiak baino gehiago ezkertiarrak eta behe-mailakoak izan ziren eta bortizkeria hori nagusiki eskuinaldeko indarrek eragin zuten, ez Herri Fronteak. Bestalde, Herri Frontearen garaian ez zen gertatu Estatuaren desegiterik, ez eta masen indarkeria zela-eta "ordena gainditua izaterik" ere. Bestalde, Herri Frontearen Gobernua errepublikanoz osatuta zegoen, ez sozialistez eta komunistez.

Beste alde batetik esan beharra dago eskuineko politikari zein militarrak, 1936ko otsaileko hauteskundeen emaitzez eta Herri Frontearen garaipenaz jabetu eta berehala hasi zirela Estatu-kolpe bat emateko prestatzen. Lehen aipatu dugunaren arabera, militar batzuek, orduan Gobernuko buru zen Manuel Portela Valladaresi hauteskundeak bertan behera uztea proposatu ziotenean jada abian zegoen dena. Otsaileko lehen saiakera horrek huts egin zuen, batez ere Portelak halakorik egiteko asmorik ez zuelako, eta Sebastian Pozas jeneralak kolpea babestu ez zuelako. Ezkerreko Gobernu berriak kolpe haren aurka izan zuen erreakzioa nahiko baldarra izan zen: militar inplikatuak Armadatik bota gabe eta benetan zigortu gabe, Madriletik "urrundu" besterik ez zituen egin. Horrek ez zuen eragotzi kolpistek euren planekin aurrera jarraitzerik. Historiagile batzuen arabera, Azañaren arabera, 1932ko kolpearen porrotaren ondorioz, Armadako eskuin muturreko elementu militarrak beste kolpe bat emateko ez ziren gai.

Kolpeak bi bektore izan zituen: alde batetik 1935ean sortu zen *Espainiako Batasun Militarra* (*Unión Militar Española*) elkarteko jeneral monarkikoak eta Emilio Mola, Migel Cabanellas edo Gonzalo Queipo de Llano bezalako militarrak, ez hain politizatuak[1211], baina dena dela eskuindarrak eta goi-karguetan zeudenak. Batzuek zein besteak, Jose Maria Gil Robles *CEDA*ko burua Gudako Ministro zela postuetan gora egindakoak ziren. Beste alde batetik, kolpe horrek bazuen bere sare zibila: 1934an *Renovación Española* alderdi alfontsotarrak eta karlistek jada Italiarekin itun bat egina zuten Italiako erregimen faxistak bi alderdi horietako militanteak entrenatzeko eta Estatu-kolpe baten prestakuntza finantzatzeko. 1936ko lehen hilabeteetan militar ezberdinen arteko elkarrizketa etengabeak izan ziren Estatu-kolpea prestatu asmoz. 1936ko martxoaren 8an Estatu-kolpean parte hartu zuten jeneral askok (tartean Franco eta Mola) "aberria arriskuan egonez gero" Estatu-kolpea ematea adostu zuten. Egia esan, "aberria arriskuan egotea" ez zuten definitu zer zen, beraz, otsailean Herri Fronteak goberna zezan (hauteskundeak irabazi zituen) ekiditeko, Estatu-kolpea emateko jada prest zeuden jeneralek sinatutako adostasun bat agertu zen, praktikan baliabide erretorikoa izan zena, argi eta garbi kolpea ematera zihoazela esateko. Queipo de Llano apirilean batu zitzaion sare horri eta Migel Cabanellas ekainean. Lehen esan dugun bezala, otsailekoak ez zuen inolako zigor esanguratsurik izan eta buru-belarri sartuta zeudenak Madriletik urrundu besterik ez zituzten egin.

Militar altxatuen taldeak, hasieran behintzat ez zuen batasun ideologikorik. Jeneral gehienak, monarkiko alfontsotarrak ziren, baina ez denak. Adibidez, Franco bera, oso kontserbadorea eta eskuindarra izan arren, ideologia mundutik nahiko urruti zegoen, oinarrizko ideia batzuez harago joateko ez zen gai (azkenean bera izan zen Estatu berriaren agintari nagusia, baina kontuan izan behar dugu 40 urtez, diktadura pertsonalaren moduan gobernatu zuela, ez ideologia jakin baten zerbitzuan; bere erregimenak, eskuineko erregimen totalitario eta nazionalista espainiarraren ezaugarriak 40 urtez gorde zituen arren, bestelako forma ideologikoak denboraren arabera aldatuz joan ziren). Beste jeneral batzuk, Jose Endrike Varela edo Balentin Galartza adibidez, ideia karlistetara gehiago lerratzen ziren, eta antza denez, hori zen erbestean zegoen Jose Sanjurjo militar nafarraren joera ere. Yagüe jenerala, ordea, falangista zen. Azkenik, bazeuden beste militar batzuk, Aranda, Queipo de Llano edo Mola bezalakoak, zeintzuk bestelako Estatu-eredu bat ezartzea baino, "diktadura militar errepublikano" baten bidez Herri Frontea boteretik kentzea zuten helburutzat, langile-alderdi eta sindikatuak legez kanpo utziz eta Errepublika "zuzenduz" edo berriz "ordenako elementuak" boterean jarriz, baina ez zuten helburutzat guztiz desberdina zen Estatu bat sortzea. Adibidez, nafar karlistek, uztailean eman zioten erabateko baietza kolpean parte-hartzeari eta ez ziren Iruñean zegoen "Kolpearen Zuzendariaz", Emilio Molaz, batere fidatzen, hark hiru koloreko Errepublikaren bandera pean kalera irten nahi zuelako (karlistak, monarkikoak

[1211] Hiru hauek ez ziren berez "monarkikoak". 1931n errepublika ondo ikusi zuten. Baina halere, eskuinekoak ziren, Herri Frontearen kontrakoak.

or.

izaki, bi koloredun banderaren pean irten nahi zuten)[1212]. Beraz, 1936ko uztailaren 18an, talde hura ez zaigu ideologikoki bateratutako talde gisa agertzen, "aurkari" batek, Herri Frontearekiko aurkakotasunak, bultzatutako talde gisa altxatu ziren.

Hala ere, jeneral kolpistak gauza batean ados zeuden: mugimenduak bortitza izan behar zuen. Maiatzean jada Emilio Molak esan zuen, kolpeak, "erresistentzia oro, indartsua eta gogorra izango zena zanpatzeko, kolpea aunitz bortitza izan behar" zuela.

Eskuinak, urteetan Estatu-kolpearen justifikazio bezala erabilitako "Gobernuaren muturkerien" eta "egoerarekiko kontrolik ezaren" ikur bilakatu zen uztailaren 13an ezkerreko polizia batzuek (Asaltoko Guardiakoek) legez kanpo Jose Calvo Sotelo *Renovación Española*ko liderra hil izana, bere etxetik bahitu eta eraman ondoren. Egia da hilketa horrek iritzi publikoa, eta batez ere eskuindar jarraitzaileak, asko hunkitu zituela. Calvo Sotelo orduan parlamentuan Gobernuarekiko oposizioaren burua baitzen (areago oraindik, berak baino boto gehiago lortu zituen *CEDA*ko buru Jose Maria Gil Roblesen gainetik). Baina ez da egia hilketa horrek kolpearen kakoa askatu zuenik. Calvo Soteloren hilketaren aurreko egunean poliziako Jose Castillo teniente ezkertiarra hiltzearen mendekua izan zen; haren lagunek hurrengo egunean "eskuineko politikari bat" hiltzeko asmoa erakutsi baitzuten (Calvo Sotelo ere ez zen bilatu zuten lehena, aurretik Gil Roblesengana joan omen ziren). Baina bai Castillo zein Calvo Sotelo hil aurretik jada kolpearen planak azkeneko fasean zeudela: Emilio Molak ekainaren 24an finkatu zuen uztailaren 17an eman behar zela kolpea, Marokoko protektoratuan zegoen armadak "Ipar Afrika osoa hartu eta ondoren Andaluziara jauzi egin behar zuela, handik Madrilera joateko. Beste alde batetik, ABCko Londresko berri-emaile zen Luis Bolinek, uztailaren 6an Londresen *Dragon Rapide* hegazkina alokatu zuen; hegazkin horrek Franco Kanarietatik Marokora eramateko balio izan zuen. Uztailaren 5etik 12ra, Marokon zeuden garnizioen "maniobra militarrak" egin zituzten, maniobra horiek, arruntak izatetik oso urruti, Estatu-kolpea emandakoan egin behar ziren mugimenduetarako entseguak izan ziren. Ikusten dugun bezala, Calvo Soteloren hilketaren aurretik, uztailaren 13aren aurretik, kolperako planak oso aurreratuta zeuden.

Estatu-kolpea Marokon uztailaren 17an eman zen, nahiz eta herri-irudimenean uztailaren 18a gelditu finkatuta (again egun hori izan zelako matxinatuek penintsulan lehen helburuak lortu zituztenekoa). Hurrengo egunetan, matxinatuak toki gehiagotan nagusitu ziren. Matxinatuen alde, Maroko, Kanariak, Andaluziaren zati bat (Sevilla barne, eta baita Cadiz eta haren inguruko eskualde estrategikoa), Balearrak (Menorca uhartea izan ezik), Aragoiren erdia (Zaragoza, Teruel, Oska eta Jaka hiriak barne), Galizia, Oviedoko hiria (baina ez Asturiasko gainerako lurrak), Gaztela-Leon, Errioxa, Araba eta Nafarroa erori ziren. Hala ere, hiririk nagusienak; Madril., Bartzelona, Valentzia, Zaragoza eta Bilbo tartean; Errepublikaren alde gelditu ziren, Hiri horiez gain, Errepublikaren alde Madril ingurua, Gaztela-Mantxa, Andaluziaren zati bat, Aragoiren erdia, Katalunia, Valentzia, Murtzia, Asturias (Oviedo gabe), Kantabria, Bizkaia eta Gipuzkoa gelditu ziren. Extremaduran, Estatu-kolpeak garaipenik lortu ez bazuen ere, Andaluziatik zetorren Joan Yagüeren "heriotzaren zutabeak" laster konkistatu zuen, hilketa aunitz eginez.

Ezkerreko Gobernu errepublikanoaren beste akats bat, Estatu-kolpearen aurrean erakutsi zuen hoztasuna izan zen. Izan ere, behin kolpearen berri jakinda, bere erantzuna oso biguna izan zen. Barne-ministro zen Santiago Casares Quiroga Molarekin negoziatzen ere hasi zen eta beste alde batetik Gobernuaren buru zen Manuel Azañak armak herriaren esku uzteari uko egin zion. Kontuan izan behar dugu zenbait tokitan, Madrilen edo Bartzelonan adibidez, herriaren erantzuna (eta ez Estatu errepublikanoarena) izan zela kolpeak porrot egitearen arrazoia. Errepublikako Gobernuaren erantzuna, Marokoko tropak Penintsulara pasatzea saihesten saiatzea izan zen (bonbaketen eta itsas-blokeoaren bitartez). Hala ere, Sevilla eta bertako aireportua kolpisten esku gelditu ziren eta tropa asko hegazkinez pasatu ziren. Horretarako, altxatuek, alemaniar eta italiar aire-armaden erabateko laguntza izan zuten eta Errepublikaren indarrak uztail bukaeran eta abuztu hasieran blokeo hori altxatzera behartuak izan ziren. Laguntza hori erabakigarria izan zen noski, bestela Marokon zegoen Armadaren tropak ezin izango baitzituzten Iberiar Penintsulara pasa. Errepublikako Gobernuak hainbesterainoko zalantzak edo duda-mudak izan ez balitu, hiri edo eskualde batzuetan agian kolpea garaitua izango zatekeen eta 1936ko gudaren hasieran Errepublikarekiko leialak kokapen hobean egongo ziratekeen. Hori bai, egoera horrek Herri Frontearen barruan ezkerrean zeuden alderdi eta erakundeen (Alderdi Sozialista, Komunista eta sindikatu ezberdinen) jarrera indartu egin zuen, alderdi errepublikanoena ahulduz. Baliteke hori izatea gobernuaren asmoa, kolpe militarra ezker erradikalaren gehiegizko parte-hartzerik gabe (eta beraz harekin konpromiso handiegirik hartu gabe) garaitzea; baina emaitza oso kaskarra izan zen.

Italiak eta Alemaniak altxatuei emandako laguntza handia izan zen. Aire-armadaren laguntzaz gain (aipatu dugu Marokotik Penintsulara tropa kolpistak garraiatzeko erabakigarria izan zela), lur-armadako tropak ere garraiatu zituzten; batez ere italiarrek. Alemaniarrek, bestalde "Condor Legioa" deitutako talde mistoa (bai lurreko zein aireko bezala funtziona zezakeen unitate mistoa)

[1212]Horrez gain, Molaren kolpearen manifestua "hizkuntza liberalean", termino liberalak erabiliz idatzita zegoen; adibidez "Aniztasuna-Askatasuna-Berdintasuna" hitzekin bukatzen zen (Frantziar Iraultzaren leloa) eta Eliza eta Estatua bereiztea eskatzen zuen. Hala ere, ez dugu pentsatu behar moderazio ideologiko hori eta gizatasuna edota portaera moderatua berarekin benetan bat etorri zirenik.

jarri zuten, Euskal Herrian Gernika bonbardatzeagatik ezagun egin zena hain zuzen ere (Condor Legioa, alemaniarra izan arren, Espainiar Armada matxinatuan erabat sartuta zegoen: eraso hori egiteko agindua zuzenean Francoren Estatu Nagusiak eman zuen). Italiaren eta Alemaniaren jarrera giltzarri izan zen halaber matxinoek buruzagitza komun bat sortzeko orduan eta, are gehiago, Francok lidergoa hartzeko orduan. Aipatu dugu uztailaren 17-18etan kolpisten taldeak ez zuela batasun politiko edota militar bat, baizik eta aurkari batek (Herri Frontearekiko edo "gorriekiko" aurkakotasunak) lotutako taldea zela. Halere, pixkanaka, matxinatuek euren Administrazioa ezarri zuten. Estatu-kolpea eman eta egun batzuetara, uztailaren 24an, Defentsako Batzorde Nazionala ezarri zuten, Migel Cabanellas jenerala, jeneral kolpistetan beteranoena buru jarrita (Jose Sanjurjo erbestetik, Portugaletik, zekarren hegazkinak istripua izan ostean). Irailean, berriz, Defentsako Batzorde Nazionala berriz bildu zen eta orduan Gobernu gisa aldarrikatu zuten. Gobernu horren buru, Afrikan ibilitako galiziar jeneral bat aukeratu zuten, Frantzisko Franco Bahamonde. Agian bere lagun matxinatuak ez ziren jabetu hurrengo berrogei urteetan diktadore izan behar zuena aukeratzen ari zirela (ez dirudi, ordura arte Defentsako Batzordeko presidente zen Migel Cabanellasen hitzetan halakorik aurreikusten zenik, izan ere, hala ohartarazi baitzien: "zuek ez dakizue zer egiten ari zareten"). Baina hala izan zen eta une hartan nabarmenena ez zen Francok (ez zen jeneralik beteranoena, eta ezta ere otsailaren eta uztailaren artean kolpea ematearekin gehien konprometitu zena) diktadura pertsonal gisa aginduko zuela, eskuineko sektore batzuen eta besteen arteko oreka mantenduz baina betiere bere botere pertsonala gordez, baizik eta bera egun horretan aukeratu zuen Batzordearen gainetik ere agindu zuela (hau da, 40 urtetan zehar diktadura militarra baino gehiago diktadura pertsonala iraunarazi zuela). Bi faktore izan ziren irailaren 21ean Franco "generalisimo" eta 28an "Gobernuko presidente" izendatzeko: alde batetik, ez zen ideologikoki lerratuegia (monarkikoa zen, baina ez falangistak edota karlistak izutzeko sobera, katolikoa zen, oso kontserbadorea eta eskuindarra zen eta monarkikoak jeneral kolpisten artean gehiengoa zirenak, asetzeko gai zen eta abar), hau da, indar matxinatu guztiek onar zezaketen pertsonaia zen; eta bestetik Alemaniarekin eta Italiarekin harreman onak zituen, haiekiko harremanak eta arma-trafikoa kontrolatzen baitzituen. Hori zela-eta (eta baita berekoikeriagatik, askotan troparik onenak berarentzako gordetzen baitzituen, beste jeneralei pasatu ordez, hala borrokaldi gehiago irabazteko eta lur gehiago konkistatzeko gai izateko); "ezinbesteko gizon" bezala ikusia izatea lortu zuen. Egia esan, bai nazioarteko bi aliatu faxistek, zein jeneral matxinatu gehienek aginte bakarra ezartzeko nahia erakutsi zuten eta Franco, aginte horren buru jartzeko gai izan zen, hau da, egoerak emandako aukera baliatu zuen pertsona izan zen, ez hasieratik mugimendu osatu eta bateratu baten buru izan zen liderra. Beraz, ez da egia geroago erregimen frankistaren propagandan agertu zen moduan, hasieratik bertatik Franco izan zela mugimendu ideologikoki kontziente eta bateratu baten buru.

Garai haietan, 1936ko abuztuaren 29an, matxinoen aldean bi koloreko bandera monarkikoa bandera ofizial gisa ezartzea erabaki zuten, hiru koloreko bandera errepublikanoa, ofizial altxatu asko ere berarekin matxinatu ziren arren, zokoratuz. Erabaki hori agian propaganda-arrazoiengatik egin zen (etsaiak, "gorriek", hiru koloreko bandera ofiziala erabiltzen zutelako, beste bat erabili beharra baitzuten); baina, sinbolikoki bada ere, haustura ordezkatzen zuen, errepublikarekiko erabateko haustura. Hots, matxinatuak ez zihoazen errepublika "zuzentzera" edo "konpontzera" (hasieran, jeneral batzuek hori esan zuten arren) bestelako Estatu bat (monarkikoa edo faxista; edo horien antzekoa) ezartzera baizik.

Euskal Herrian, Emilio Mola jeneralak eta bere menpeko erreketeek Nafarroan izugarrizko sarraskia burutu zuten eta 3.000 nafar baino gehiago hil zituzten. Bere mendeko tropa erreketeak hiru tokitatik sartu ziren Gipuzkoan: Goizueta eta Arano aldetik, Endarlatsa eta Aritxulegitik zehar Oiartzun erasotzeko; Leitzatik Tolosaldea erasotzeko eta Altsasutik eta Ataundik Goierri erasotzeko, Otsaurte, Eitzagarate (Etzegarate) eta Lizarrustitik hain zuzen ere.

Beasain

durante la Segunda República

Índice

PRESENTACIÓN 173

1. BEASAIN DURANTE LA SEGUNDA REPÚBLICA 174

1.1. Elecciones de abril y mayo de 1931 en Beasain 174
1.1.a) Ambiente previo a los comicios y proceso electoral 174
1.1.b) Elecciones en Gipuzkoa y en Beasain 177

1.2. Ayuntamiento y política municipal en Beasain 183
1.2.a) Diferentes formaciones políticas en Beasain 187

1.3. Crisis económica e industrial en Beasain 204
1.3.a) Consideraciones demográficas 204
1.3.b) Respuestas del Ayuntamiento de Beasain y de diferentes agentes ante la crisis 208
1.3.d) Movilización y agitación obrera 214

1.4. Evolución política del País Vasco durante los primeros años de la Segunda República: debate sobre la autonomía 222
1.4.a) Visiones de los diferentes partidos ante la autonomía 222
1.4.b) Diferentes proyectos estatutarios 227
1.4.d) Elecciones de junio de 1931 232
1.4.e) Del Estatuto de Estella al Estatuto de los tres territorios 237
1.4.f) Fase final 247

1.5. Sucesos de 1934 en Beasain 254
1.5.a) Elecciones de 1933. Nuevo gobierno de derechas 254
1.5.b) Movimiento municipal de 1934 263
1.5.d) Actuación municipal del nuevo Ayuntamiento de Beasain de derechas 268
1.5.e) Revolución de 1934 en Beasain 271

1.6. Asociaciones y servicios de Beasain 289

1.7. Estado del euskera 303

1.8. Elecciones de 1936 y su impacto en Beasain 304

1.9. Estallido de la guerra 318

2. FUENTES Y BIBLIOGRAFÍA 321

Nota. – Una obra bilingüe de estas características, en la que han participado tantas personas, se puede publicar, en teoría, de varias maneras.

La primera es hacerlo en dos volúmenes: el primero con la obra escrita en euskera y el segundo con su correspondiente traducción al castellano. En ellos aparecería el nombre del pueblo de Beasain al que se refiere esta obra, escrito de la misma manera en los dos volúmenes ya que se dice igual en euskara y en castellano. Sin embargo un nombre, elegido al azar, escrito en euskera *Karlos Gonzalez*, en la traducción castellana estaría escrito correctamente *Carlos González*.

Una segunda forma, como es en nuestro caso, es publicarla en 4 tomos donde cada uno tiene una parte de la escrita en euskera con su correspondiente traducción, y su Bibliografía.

Por otra parte, como varias empresas se han encargado de la traducción al castellano de esta obra queremos decir también que:

Si analizamos, como ejemplo, las decenas de referencias que estas empresas hacen en cada tomo al Archivo Municipal de Beasain, en los Pies de Página, comprobaremos que cada una tiene su estilo. Así, en ellos, después de escribir documento, una deja un espacio libre antes de poner el número (documento 12), otra escribe en medio dos puntos (documento: 12), mientras que una tercera pondrá el signo nº (documento nº 12). Nosotros hemos respetado estas formas porque las consideramos correctas sin optar por ninguna de las tres.

Lo mismo ocurre en las traducciones al escribir las fechas de las entrevistas realizadas de los testigos citados en esta obra. Mientras alguna utiliza, por ejemplo, la forma *1 de diciembre de 2014*, otra escribe así la misma fecha *01/12/2014*. En la medida que las dos son también correctas, no las hemos modificado. Lo mismo ocurre con las abreviaturas de página, que se pueden escribir p., pág., que son correctas.

Más problemático es escribir en una obra bilingüe de estas características los nombres y los apellidos de las personas, así como los de los lugares. Aquí, en teoría, tampoco hay ningún problema en escribir un nombre escrito en euskera *Gontzalo Queipo de Llano*, escribirlo en la versión castellana *Gonzalo Queipo de Llano*. El problema surge cuando de las dos formas, hay ya una que está escrita en la Bibliografía. Además se puede dar la paradoja que en ella aparezcan nombres en las fuentes orales nombres como *Joan, Jabier, Frantziska*… y los mismos nombres de otras personas escritos en la Bibliografía como *Juan, Javier, Francisco*. Lo mismo podemos decir de los apellidos. Es decir, escritos de dos formas.

En la misma línea, si una persona entrevistada se llama Alfontso Ibaibarriaga, se escribe así en el texto escrito es euskara, evidentemente también en la Bibliografía, y también cada vez que se le cita en los tomos en los pies de página. Eso sí, ¿cómo se escribe este nombre Alfontso en la traducción castellana? ¿Cómo se escribe el entrevistado Jabier, con –v-? ¿Cómo se escribe también Joan, Frantziska, y todos los demás nombres? Se podrá argumentar sensatamente que en una obra de estas características lo mejor es escribir los nombres en euskara en el texto vasco, y en castellano en la traducción. De acuerdo, ¿pero qué hacemos con los pies de página y sus referencias en la Bibliografía? ¿Las cambiamos también? Hay cientos de nombres y miles de pies de página en total en los 4 tomos.

Por todo ello, y visto que el problema no tiene una clara solución, se ha decidido respetar íntegramente los nombres propios en el texto escrito en euskera sin modificarlos, no se modifican tampoco los nombres que aparecen en las Fuentes ni en la Bibliografía, y obviamente tampoco los que aparecen en los pies de página que son los mismos. En las traducciones se escribirán los nombres correctamente en grafía castellana, aunque a veces también aparezca algún Txomin, o algún apellido euskaldun que por el más elemental respeto no lo hemos cambiado.

En el contexto de la recuperación de la memoria histórica de Gipuzkoa, tres han sido las directrices que, desde la Diputación Foral de Gipuzkoa, estamos aplicando: verdad, justicia y reparación. Sin duda, en el ámbito de la verdad, nuestro territorio histórico se está convirtiendo en un referente gracias a las numerosas investigaciones locales que se realizan con el apoyo de ayuntamientos y grupos locales.

Estas investigaciones no son simples libros de historia, sino que se intenta llegar a las personas, a las vecinas y vecinos que sufrieron la conculcación de sus derechos. Por eso, pese a tener una visión global de lo acontecido entre 1936 y 1945 en el contexto de la Guerra Civil y el primer franquismo, es necesario ahondar en las experiencias locales. Al avanzar en el conocimiento de estos sucesos nos acercamos a la verdad, que es el mayor elemento de reparación que podemos aportar a la sociedad actual.

Finalmente, quisiera agradecer al Ayuntamiento de Beasain por el gran esfuerzo que ha realizado y a todas las personas involucradas en la investigación aquí publicada.

Maribel Vaquero Montero
Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia
Gipuzkoako Foru Aldundia

BEASAIN durante la Segunda República

1.1 Elecciones de abril y mayo de 1931 en Beasain

1.1.a) Ambiente previo a los comicios y proceso electoral

Las elecciones municipales de 1931 propiciaron sin lugar a dudas la caída de la monarquía española. Sin embargo, debemos situar estos comicios en un determinado contexto que se produce con la finalización de la dictadura de Primo de Rivera. En este sentido, los comicios convocados para el 12 de abril no se plantearon a modo de referendo, sino bajo la fórmula de elecciones municipales, si bien a continuación adquirirían un planteamiento plebiscitario, que provocaría la huida del monarca Alfonso XIII y la instauración de la República en España.

Después de la caída de la dictadura de Primo de Rivera, el régimen monárquico, fuertemente debilitado, se tambaleaba. El nuevo jefe de gobierno, el general Dámaso Berenguer, había previsto un proyecto para retomar la monarquía parlamentaria; sin embargo, se encontró con una oposición fuerte y organizada, compuesta por republicanos, socialistas y nacionalistas catalanes. Estas fuerzas se reúnen el 14 de mayo de 1930 en la Calle Garibay de San Sebastián, y alcanzan un acuerdo por el que aúnan esfuerzos con el «único objetivo de instaurar la República», para cuyo fin crean el denominado Comité Revolucionario. Aquella reunión fue presidida por Fernando Sasiain, histórico republicano federal donostiarra que a continuación ostentaría la alcaldía de la capital guipuzcoana. Se trató de una sesión de gran significación, debido a que muchos de los políticos reunidos no solo abrazaban el ideario monárquico sino que también pertenecían a las altas instancias políticas del país. Sea como fuere, la sesión destacó por una ausencia importante de los nacionalistas vascos. El PNV reunificado no asistió a aquella reunión. Los historiadores apuntan a varios motivos para justificar esta ausencia: en primer lugar, el proceso de reorganización en el que se hallaban inmersos y, por consiguiente, la falta de voluntad de realizar alianzas que resultaran perjudiciales al debate de este proceso; en segundo lugar, la laicidad de los republicanos que chocaba frontalmente con la confesionalidad del Partido Nacionalista Vasco, y, por último, la lejanía con la que observaba en PNV la política española, de la que quería mantenerse distante, para evitar desvíos en los objetivos abertzales. De una u otra manera, se trató de un error estratégico que retrasó la aprobación del estatuto de autonomía. El Estatuto de Autonomía de Cataluña había sido aprobado en 1932, mientras que la aprobación del texto legal vasco no se produciría hasta 1936, ya estallada la guerra. Varios motivos explican este retraso, como la falta de consenso entre las formaciones políticas vascas. En cualquier caso, la ausencia de los nacionalistas vascos en aquella reunión decisiva para aupar la monarquía constituyó un freno incontestable, y los conceptos de «autonomía vasca» y «República» aparecieron separadas con el surgimiento de la República. Por su parte, el estatuto catalán se entendió como una parte complementaria de la República, de inminente aprobación. Así lo concibieron las fuerzas republicanas, mientras que el estatuto vasco quedó relegado a un mero tema de debate.

El primer acto organizado por el Comité Revolucionario reunido en San Sebastián fue una huelga general junto con las centrales sindicales en diciembre de 1930. Si bien la huelga estaba programada para el 15 de diciembre, tres días antes, el día 12, un grupo de militares de izquierdas, coordinados bajo las órdenes de los capitanes Fermín Galán y Ángel García Hernández

(este último vasco de Vitoria), se alzó a favor de la república en localidad aragonesa de Jaca. Fue un alzamiento muy mal organizado por parte de militares sublevados a raíz de la falta de paciencia con las tácticas diseñadas en el Comité de San Sebastián. Fueron arrestados al cabo de dos días y Galán y García Hernández fueron fusilados en marzo. Sin embargo, esta rebelión militar avivó la moral para secundar la huelga convocada para el 15 de diciembre, que vivió un gran éxito que también se percibió en Gipuzkoa y en Beasain a lo largo de los dos días de duración que tuvo. Asimismo, la detención de todos los participantes en la reunión de San Sebastián por parte del gobierno presidido por Berenguer dotó de un cariz aún más negativo a la monarquía; en este sentido, existía la impresión de que se alargaban las sombras de la dictadura, por lo que se dieron por falsas las aspiraciones de democratización del sistema[1].

La intención de Dámaso Berenguer no era más que reinstaurar la normalidad monárquica, pero el encarcelamiento de la oposición no fue la manera más idónea para la consecución de sus planes. Berenguer organiza nuevos comicios parlamentarios para el 1 de marzo de 1931, pero las fuerzas del Pacto de San Sebastián decidirán no participar, alegando que no existían unos mínimos democráticos y que aquellas elecciones no constituían más que un fraude para legitimar el régimen. A decir verdad, las fuerzas republicanas habían asumido el objetivo político de derrocar a la monarquía y, como opinaban que la democracia tan solo se podría lograr con la República, probablemente no se habrían presentado en ningún caso. Sin embargo, con la convocatoria de las elecciones durante su permanencia en prisión, Berenguer dio la razón a los republicanos ante la opinión pública, ya que parecía que la monarquía no estaba por la labor de organizar unas elecciones democráticas. El gobierno presentaba escasas oportunidades de vencer en unas elecciones limpias y celebradas en condiciones de libertad, pero, después de este gesto, la victoria incluso pasó a ser una opción aún más remota.

El almirante Juan Bautista Aznar se alzaría como nuevo jefe del ejecutivo, después de que varios candidatos hubieran renunciado al puesto. Sin embargo, Aznar se enfrentaba al mismo problema, que no era más que la legitimidad: para la aceptación del gobierno era necesario convocar a la ciudadanía a las urnas, con las fuerzas de izquierda en igualdad de condiciones. En este sentido, adoptó dos decisiones: por una parte, se deliberó la puesta en libertad de los líderes republicanos y socialistas que se encontraban en prisión desde diciembre (del comité creado en San Sebastián), pese a que habían sido condenados en un juicio celebrado en marzo de 1931, y, por otra parte, modificar el calendario electoral (el 12 de abril se celebrarían la elecciones municipales, mientras que el 9 de mayo tendrían lugar las elecciones al parlamento). Así las cosas, el gobierno obtuvo el compromiso de participación de republicanos y socialistas, pero quedaba claro que aquellos comicios, en la práctica, tendrían un carácter plebiscitario sobre la monarquía.

